Université Bordeaux Montaigne

École Doctorale Montaigne Humanités (ED 480)

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

THÈSE DE DOCTORAT EN ÉTUDES BASQUES

Jean Etxepareren *Beribilez* (1931) : bidaia eta ideologia

Beribilez (En voiture) *(1931) de Jean Etchepare : voyage et idéologie*

Présentée et soutenue publiquement le 05 juillet 2018 par

Aitor ORTIZ DE PINEDO

aortizpinedo@gmail.com

Thèse en cotutelle

Sous la direction de Jean CASENAVE (IKER-UBM) et Jon KORTAZAR (EHU/UPV)

Membres du jury

Aurélie ARCOCHA-SCARCIA, Université Bordeaux-Montaigne

Rosa Miren PAGOLA, Deustuko Unibertsitatea

Xabier ETXANIZ, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV)

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

Université BORDEAUX MONTAIGNE

Aurkibidea

1. Bidaia-liburu laburra objektu kultural konplexua 15

1.1. Ikerlanaren justifikazioa 15

1.1.1. Jean Etxepare 15

1.1.2. “Beribilez” 16

1.1.3. Loiolara bisitan 1928an 17

1.1.4. Ikerketa honen ekarpena 19

1.2. Ikerlanaren egitura 21

1.2.1. Hipotesi nagusia 21

1.2.2. Ikerketa-galderak 22

1.2.4. Metodologia 25

1.3. Beribilezen aurkezpena 47

1.3.1. Liburuaren sinopsia eta sorburua 48

1.3.2. *Beribilez*en argitaraldiak 51

1.4. Beribilezen kritikek esana 55

1.4.1. “Maître à écrire” 56

1.4.2. Pozoina 59

1.4.3. Positibismo erasokorra 60

1.4.4. Konbentzionalismoa 62

1.4.5. Zientismoa 67

1.4.6. Literatur balioa 68

1.4.7. Pintoreskismoa 69

1.4.8. Helduaroko idazlea 72

1.4.9. Ethos modernoa 74

1.4.10. Agnostizismoa 76

2. Jean Etxepare bere garaian 78
2.1. Egiaren bilaketa atipikoa: zientzia eta erlijioa 79
2.1.1. Biografiaren mugarriak 80
2.1.2. Pentsamolde baten iturriak 90
2.2. Katolikoak kontraerasoan 120
2.2.1. Kontraproposamenak 122
2.2.2. Aita Santuen gidaritza 125
3. Gozamena Jean Etxepareren ideologian 131
3.1. Paisaia produktiboaren estetika euskaltzalea 132
3.1.1. Interpretazio foruzale iragana 134
3.1.2. Landa guria 144
3.1.3. Mendi prosaikoaz 156
3.1.4. Plazer estetikoaren nagusigoa 165
3.2. Arkitekturan aditua 167
3.2.1. Loiolako Santutegia begiradapean 168
3.2.2. Bisita kulturala Iruñeko katedralera 202
3.2.3. Etxe-arkitektura bizilagunen ispilu 209
3.3. Burges txikiaren plazer txikiak 217
3.3.1. Mahaiko plazerak neurriz 220
3.3.2. Gorputzaren estimazioa 231
3.3.3. Emakumeen lekua 238
3.3.4. Arnasa eta aire anitzak 253
4. Etika Jean Etxepareren ideologian 262
4.1. Gizarte sektore bat arbuiatua Donostian 263
4.1.1. Hiriaren hazkunde zentzugabea 264

4.1.2. Donostiaren bilakaera historia hurbilean 265

4.1.3. “Belle Époque”-ren nasaikeria kolokan 275

4.2. Mediku argitua sineskerien kontra 307

4.2.1. Herri-erlijioaren alderdi eztabaidagarriak 310

4.2.2. Medikuntza paraleloa irri-egingarri 313

4.2.3. Generoa eta sentiberatasuna 319

4.3. Bi itsasoen alegiak eta pentsalaria 326

4.3.1. Ibilbide biografikoa: Atlantikoa 327

4.3.2. Ibilbide intelektuala: Mediterraneoa 336

4.3.3. Ibilbide sentimentala: neurria 351

5. Hegoaldea Jean Etxepareren ikuspegian 359

5.1. Nazio-sentiberatasun baten hastapenak 360

5.1.1. Historia diplomatikoa 362

5.1.2. Etxepare eta euskal batasuna 376

5.1.3. Erregionalismoa auzo herrietan 378

5.1.4. “La petite patrie dans la grande patrie” 381

5.1.5. Filia eta paneuskaltasuna 387

5.2. Euskararen gene errezesiboa 392

5.2.1. Gizarte-kohesioa 392

5.2.2. Diglosia eta hizkuntza-ukatzea 407

5.2.3. Euskaltasuna kinka larrian 412

5.3. Zubigilea estereotipoak artezten 415

5.3.1. Estereotipoaren definizioa 415

5.3.2. Euskaldunaren estereotipo bi 418

5.3.3. Frantsesaren estereotipo bi 435

5.3.4. Bi identitate ondoz ondo 445

5.4. Euskalduna orduko literaturan 453

5.4.1. Kanpoko ikuspegi bat 454

5.4.2. Euskal gizartea hitsa denean 464

5.4.3. Tradizio aurremodernoa iraunarazten 467

6. Ondorioak 476

6.1. Liburuaren aurkezpenaren haritik 476

6.2. Ondorio nagusiak 479

6.2.1. Lau ikerketa-galderen erantzunak 479

6.2.2. Ikerketa lerroetarako perspektibak 501

7. Bibliografia 508

Eskertzak

Xabier Kaltzakortari Jean Etxepareren figura iradoki zidalako interesgarri gisa Bilboko Alde Zaharreko pub batean, aspaldi.

Iñaki Aldekoari, adorea emateagatik tesiaren hasierako une zehazkabeetan.

Tesi-zuzendariei: IKEReko Jon Casenaveri ikerlana hobetzeko egin dituen ekarpen baliosengatik; EHUko Jon Kortazarri urteotako bidelagun argia izateagatik, hainbat bide irekita.

Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak Doktorego Programan lan egiten duten Juan José Lanz buruari eta Gillermo Ibeas idazkariari.

EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Elkanoko Bibliotekan, bertako liburuzain prestuei.

Leioako Doktorego bulegoko Arantza Lasunción-i, burokraziaren barneko ur-handitan behin eta berriro gidatzeagatik. Berdin Alberto Carrerari, tutorekidetzako kontuak bideratzeagatik.

Kepa Altonagari Jean Etxeparez izandako solasagatik.

Deustuko Unibertsitateko liburutegiari, tesi-proiektua ontzea posiblea egin baitzuen inon matrikulatuta egon gabe, artikuluak eskuratuta (Daniel Etxebarriari, liburuak mailegatzeko zerbitzuari, eta, bereziki, kanpoko artikuluak eskuratzeko zerbitzuari).

Loiolako Santutegian Euskal Herriko Adiskideetako Juan Bautista Mendizabali eta liburu-dendako langileei.

IKERen Ricardo Etxepareri, Jean Philippe Talec-i, Anne-Marie Benarab-i eta Karim Ait-Aluache-ri.

Baionako Euskal Museoko Marie-Hélène Deliart liburuzain andereari, harrera ezin hobeagatik.

Université Bordeaux-Montaigneko Internet bidezko administrazio-langile prestuei, lan gaitza egin baitute.

Last but not least, familia hurbilari, giza harremanetarako arrisku altuko eginkizun honetan eutsi egin ahal izan dugulako.

Eta, ahaztu gabe, ibilbide luze honetan doktoregaia jasaten jakin nahi izan duten adiskide zahar zein berriei.

Hauen guztien laguntzarik gabe, ezinezkoa izango zen ikerlan hau burutan ematea. Espero dut ahalegin horien fruitua askiestekoa izatea, behintzat. Akatsak, noski, ikertzaileari dagozkio.

- Résumé substantiel en français

Dans cette thèse est analysé le deuxième et dernier livre *Beribilez* (*En voiture*) de Jean Etchepare (1877-1935). Le but de la recherche est d'établir l'idéologie de l'auteur à l'âge adulte et l'image qu'il donne tout au long de ce récit de voyage, fait en voiture à travers le Pays Basque. On a utilisé deux méthodologies principalement : la sémiotique (Philippe Hamon) et l´imagologie (Daniel-Henri Pageaux).

On a relu les critiques portant sur l´œuvre de cet auteur pour les comparer avec nos intuitions. Nous avons sondé la formation intellectuelle de Jean Etchepare, et nous avons vu qu'au Pays Basque du Nord, il était confronté à la pensée traditionnelle, dominante à cette époque. Durant la confrontation entre l'État et l'Église autour de la laïcisation, Etchepare a choisi une voie indépendante inspirée souvent par la philosophie allemande.

Dans le domaine de la pensée esthétique, la vision du paysage basque est plutôt économiciste, l'appréciation des terres rurales se combine avec un mysticisme poétique. Au sein des beaux-arts, il critique l'enthousiasme théâtral du luxe religieux baroque qu'il voit dans le Sanctuaire de Loyola; dans l´aspect du *savoir-vivre* il s'éloigne modérément de l'ascétisme confessionnel traditionnel, donnant dans le texte une place inhabituelle jusqu'alors, aux petits plaisirs des sens (gastronomie, danse…).

Dans le domaine de l'éthique, il critique la croissance urbaine de Saint-Sébastien: il proclame la spiritualité laïque contre le matérialisme et la dégénérescence de la haute bourgeoisie. Il prophétisa la Seconde Guerre mondiale qui s´approchait, parce qu'il voyait les êtres humains sans respect mutuel. En tant que positiviste, il critique aussi toute croyance irrationnelle. Enfin, il indique qu'à l'âge adulte il s'est aligné sur la philosophie grecque de la mesure. A propos du Pays Basque, il entend promouvoir la solidarité entre les deux versants basques des Pyrénées, en réinterprétant les avatars de l'Histoire de manière diplomatique. L'attitude envers le Sud-est de *filia* (Pageaux). En conclusion, on peut dire que l'écrivain dans ce livre a modélisé soigneusement l´expression de sa pensée, car il ne voulait pas que l´ouvrage soit rejeté, comme ce fut le cas avec le premier (*Glanes*, 1910).

-English title:

Beribilez (*By car*) (1931) de Jean Etxepare : travel and ideology

Abstract in english:

The second book ((original Basque title) *Beribilez;* (engl.) *By car*) by Jean Etxepare (1877-1935) is analysed in this doctoral thesis. The aim of this research is to define the author's ideology/ in his intellectual maturity and his image of the Basque Country, along the journey made by car through the Southern Provinces. Semiotic Methodology (Philippe Hamon) and Imagology (Daniel-Henri Pageaux) have been used as a study method.

We have looked at the academic training of Jean Etxepare, and we have seen that in the Northern Basque Country he was confronted with the hegemonic traditional catholic way of thinking. During the years of dissent between the State and the Church, Etxepare chose the free-thinking path, inspired by German philosophy.

In the area of aesthetics, his view of the Basque landscape is mostly economicist. His perspective of the appreciation of rural lands combines with a poetic mysticism. He considers the display of Baroque religious luxury that he sees in the Sanctuary of Loyola, spiritually deficient; we can see that, on the one hand, we are dealing with an intellectual author of petit bourgeois standing and sound artistic judgement... On the other hand, even if he proves to be a knowledgeable person, he is very capable of enjoying the small pleasures of life as gastronomy, wines, dances and eroticism in a harmonious and measured way. He moves moderately away from traditional confessional asceticism, giving in his book to the pleasures of the body an unusual and enlightening place unknown to the catholic dominant literature.

In the field of ethics, he criticizes the urban growth of San Sebastian: he proclaims secular spirituality against the materialism and degeneration of the high bourgeoisie. He prophesied that there would be the Second World War, because he saw the human beings lacking mutual respect. As a positivist, he criticizes any irrational belief. Finally, he indicates that in adulthood he has been aligned with the Greek philosophy of measure, in spite of his non-conformist youth. About the Basque Country, he intends to promote solidarity between the two sides of the frontier, reinterpreting the history passages in a diplomatic way. His attitude towards the South is of a *filia* one (Pageaux). As a conclusion, we can say that the writer measured the expression of his dissident way of thinking, because he did not want his second book to be rejected as had been the case with the first one (*Buruxkak*, 1910).

-Mots clés

littérature de voyage, idéologie, sémiotique, Jean Etchepare, littérature basque, XX. Siècle, imagologie, éthique, esthétique, histoire de la littérature, philosophie allemande, Pays Basque, dissidence, modernité, laïcisme, autobiographie, christianisme, quête existentielle.

-Key words

travel literature, ideology, semiotics, Jean Etxepare, Basque literature, XX Century, imagology, ethics, aesthetics, history of literature, German philosophy, the Basque Country, dissent, modernity, laicism, autobiography, Christianity, existential quest.

-Intitulés et adresses des unités ou des laboratoires

- ✓ IKER - UMR 5478 (CNRS, Montaigne Bordele, PAHU) - euskararen eta euskal testuei buruzko ikerketa gunea Errobiko Campusa Gaztelu Berria Paul Bert plaza, 15 64100 Baiona. Telefonoa : +33[0]5 59 57 42 00. Helbide elektronikoa : contact@iker.cnrs.fr Webgunea : http://www.iker.cnrs.fr
- ✓ Bilboko Hezkuntza Fakultatea (Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco). Helbidea: Sarriena Auzoa, s/g (48940 Leioa). Saila: Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika. Saileko burua**:** Laura Mintegi. Helbide elektronikoa: laura.mintegi@ehu.eus. Saileko idazkaria: Aintzane Etxeberria.

Laburpen orokorra

Beribilez (1931) da Jean Etxepare medikuaren azken liburua, bidaia-liburua, hain zuzen ere. Euskal Herriko erdigune geografikoa besarkatzen duenez gero, ikuskizunek parada emango diote hainbat aburu aipatzeko, eta ikusitakoa iruzkintzeko. Idazlea bizitzako azken urteetan zegoen, eta berak bazekien; esan daiteke, beraz, nolabait liburu hau dela idazle euskaltzale baten bizitzako balantze modukoa[1].

Liburua, itxuraz, nahiko laua da, arrabotsik gabea, baina azaleko tolesgabetasun horren azpian badira eduki sakonagoak gordeta. Ulertu behar da intelektual disidente honi bizimodua nekeza suertatu zitzaiola tokatu zitzaion gizarte-ingurumenean, hainbat punturi buruz laket baitzuen gogoeta egitea Elizaren tutoretzatik aparte. Horrek estiloko ondorioak ekarri zizkion medikuaren prosari, eta arretaz irakurri behar da testua jakin ahal izateko idazlearen ideologia zein ote zitekeen. Ageriko lañotasun engainagarri horrek azaldu dezake zergatik kritikak ez duen beti asmatu liburuari pultsua hartzen. Zehazkabetasunari aurre egiteko, hurbilketa patxadatsua behar zuen testuak, kontuan izanda Jean Etxepare XX. mende hasierako prosalarietan buruzagietako bat dela.

Jean Etxepareren idearioaren bila abiatu gara, horrenbestez; beste alde batetik, ideario pertsonalaren osagarri gisa, nahi izan dugu atera zein zuen Euskal Herriaren irudia. Euskaltzale seinalatua izanik, idazlearen iruditeria kualifikatua jasotzea lagungarria izan daiteke ulertzeko zein ziren identitate-apustuak Iparralde hartan.

*Beribilez*eko idearioaren bilaketan, ezinbestekoa iruditu zaigu aztertzea Jean Etxepareren gaztetako formazioa Iparraldeko nor izango zirenen ohiko eskoletan, segidan Bordeleko Unibertsitatean jaso zuenarekin jarraitzeko, eta, buruan, idazleak berak egin zuen ibilbide intelektual autonomoarekin amaitzeko.

Jabetu gara orduko klerikalen eta antiklerikalen arteko talkak zein arrasto sakona utzi zuen idazlearen biografian, kritikak egokitu dion zientziaren eta erlijioaren arteko oreka zaila bilatu nahi horrekin. Hari beretik, unibertsitateko ikasgaien eraginez positibismoa eta

---

1 Bi erreferentziatan oinarritu ditugu ondorioak formalki egituratzeko erabili ditugun pautak: lehenik, Bidegain, E. (2013). *Lehen mundu gerra "Eskualduna" astekarian*. Bilbo. Euskaltzaindia, haren tesia amaieran argi sintetizatua begitandu zaigulako; egitura orokorrerako, aldiz, Booth, W. C., Williams, J. M., & Colomb, G. G. (2003). *The Craft of Research,* (Chicago Guides to Writing, Editing, and Publishing). 244 or.

medikuntza esperimentala ezagutuko zituen. Gizarte-aurrerakuntzako sinestea orduan itsatsiko zitzaion, espiritu laikoarekin batera. Gizarte burgesaren optimismo aurrerakoia beretuko zuen, kontserbatismo konfesionalaren kritika gisa.

Unibertsitate-sasoian idealismo metafisikoaren aurkako autoreak ezagutu zituen. Arthur Schopenhauerrengandik jaso zezakeen ikuspegi ezkorra, ziur aski, estetizismoarekin oratua. Hirugarren puntu gisa, aipagarria da idazleak Friedrich Nietzscherengandik jaso zezakeen egiaren ikuspegi perspektibista, besteak beste. Azken urteetan, Hans Reichenbachen egiaren ikuspegiari lotua ikusten dugu Jean Etxepare, liburuan bertan interpreta daitekeen maneran.

Euskararen esparruan ezezagunak ziren korronte horien bozeramale egin zen, bederen kontsumo propiorako, nahiz eta Piarres Lafitte katoliko hein batean eguneratuarekin solasaldi polemikoak izan, sarri desadostasunak nabarmenak izanda.

Idearioaren bilaketa metodikoan azpiatala den ideologia zehaztu nahiz, saiatu gara Philippe Hamonen hurbilketa semiotikoa[2] aplikatzen testuari, kontuan izanik arestian aipatu den idazlearen formazioa, zeinek *Beribile*zeko zenbait pasarte esplika baititzake, gure ustez.

Hamonen bidetik, estetikarekin lotutako idearioa zukutzen saiatu gara. Halako bidaia euskaltzaleak gozotasun batekin lotuta zeuden Jean Etxepareren eta lagun zuen Piarres Broussainen gogoan. Gozamen horrek izan ahal zituen hainbat agerraldi, paisaia, arkitektura eta bizitzen-jakite batean zerrendatu daitezkeenak.

Paisaiak *Beribile*zen ez du konnotazio aberkoirik, foruzaleen literaturan egiten zenaren antzeko zerbaiten bila abiatuz gero. Hala ere, auto-bidaiak marrazten duen geografia aurre aberkoitzat jo daiteke, baldin eta kontuan hartzen bada Pirineoen bi euskal aldeak biltzen dituela; alegia, Euskal Herri osoa ez bada ere, bada Iparraldearen ikuspegi osotuagoa, izan ere, foruzaleek ez zuten Iparraldea beren asmo politikoen barnean biltzen. Deskribatzen den paisaiak batu egiten ditu bi euskal herrialdeak.

Bestalde, paisaia izango da, sarri, idazlearen kezka ekonomiko aurrerakoien hartzailea, ez besterik. Herrialdea nola altxatu du gogoan, batez ere, baina konnotazio politikorik erantsi gabe, tentu handiz. Bestetik, ez du mendialdeko ikuspegi mistikorik, orduan beste idazle

2 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF.

batzuetan aurki zitekeen bezala, erromantizismoaren eraginez. Kezka ekonomikoaren osagarri gisa, paisaiaren aurrean duen harrera *aisthesis* baten parekotzat jo da ikerlanean, agian, bere irakurketa filosofiko alemanen eraginez.

Arkitekturari bagagozkio, irakur daiteke nola arte plastikoek bidea irekitzen dioten idazlearen iruditeriari. Argi eta garbi, santutegiko bisitak Loiolan balio dio idazleari desadostasuna adierazteko, Lagundiak turistari bistaratzen zion luxua kritikatuz. Ez du onartzen espiritualtasun barroko hori eduki kristauak komunikatzeko.

Horretaz aparte, Jean Etxepareren kezka da bidaiako etxe ikusien arkitektura-kalitatea, arreta jartzen duela bisitatzen dituen eraikinen nolakotasunean. Etxeetako jabeek beren izaera islatzen dute bizitokien eraikuntzan, kontuan izanda nola egina den.

*Beribilez*eko estetikaren sailean, gastronomiari leku garrantzitsua egiten dio; dantzari ere bai. Idazleak erakusten du bizitzen-jakite burges txikia, desberdintze-ariketan adierazgarria dena. Ikusi dugu idazleak duen jarrera gozazalea, betiere neurritasunarekin.

Hamonen metodologiari men eginez, testuko etikaren sailean esanguratsua da euskal ikuspegi burges txikiaren isla den Donostiara egiten duen bisita. Etxeparek ez du gustukoa Donostia berri udatiar kosmopolitak eskaintzen dion panorama. Diruaren nagusigo galgarria eta masa-gizartearen arrunkeria baino ez ditu ikusten hiriburuaren bilakaera urbanistikoan.

Donostiako bisita baliatzen du ideario filosofikoa erakusteko. Greziako Antzinatearekin lerratzen da, eta ikuspegi liberala agertzen du, Legeari lehentasuna emanez onaren aurretik, kristauen artean ohikoa zenaz bestetara. Frantziako testuinguru laifikatzailea kontuan ulertu behar da ikuspegi ausart hori.

Aldi berean, *Olerkia*ren gorazarrea egiten du, alegia, *eros platonikoa* dei genezakeena, izendapen bat aukeratzeagatik askoren artean: erreflexibitatea, aszetismoa, humanismoa…

Sineskeriaren alorrean, azpimarragarria da Etxepare medikuak daraman kanpaina positibista. Argien jarraitzaile gisa, kolokan jartzen ditu bidaian aurkitzen dituen medikuntza-folkloreko eta funsgabeko sinesteen sinesgarritasuna.

Etikaren atalean sartuko da, era berean, haren genero-ikuspegia. Labur beharrez, esan behar da emakumeak, oro har, adin txikiko gisa islatzen direla: sineskerietara emanak dira, besteak beste, eta sineskorrak hainbat gauza badaezpadakori buruz.

Badu *Beribilez*ek literatur joko interesgarria, Ameriketako itsasoa eta Mediterraneoa alderatuta. Alegoria horretan, bada gure ustez pentsamolde aldaketa bat gaztetako ideietatik

helduaroko ideietara, arau nagusia *sophrosyne* izeneko kontzeptu greziarrak eskaintzen baitu, interpretatu nahi izan baitugu gaztetako filosofietatik urruntzen den pentsalari helduaren aitortza modura.

Azken kapituluan nahi izan da ikerketa fokuratu *Beribilez*eko eskenatokian D.-H. Pageauxren metodologia imagologikoaren terminoetan, hain zuzen[3].

Ikusi dugu idazlea identitate-estereotipoak salatzeko ahaleginean. Saiatuko da, bereziki, frantximantaren estereotipo negatiboa deseraikitzen; euskaldunaren estereotipo positibo eta negatibo bana ere aztertu da. Jean Etxeparek zubigile-lana egiten du frantsesen eta euskaldunen artean. Horrez gain, estereotipoek bidea eman digute euskal nortasun hibrido baten izaeraz gogoeta egiteko: ez ote den Etxepare nortasun hibrido aberats bateko euskalduna. Idazlea euskaldunen eta frantses komunitateen arteko elkar ulertzeari bideak irekitzen saiatzen da, gaizki ulertuak gudukatuta.

Interesgarria da, euskal historiako pasarteen interpretazio zuhurra ere iruditeriaren aldetik, betiere bi aldeetako euskaldunen bizikidetza sustatzea bilatuta.

Identitatea irudi bidez finkatzeko ahaleginean, adierazgarria da liburuan autoz marrazten den lurraldearen esanahi sinbolikoa. Horrek garamatza Iparraldearen eta Hegoaldeko Bestearen harremanak nola planteatzen dituen ikustera. Iruditu zaigu badela *filia* bat, elkarrekikotasunean funtsatua.

Azkenik, hizkuntzari dagokionez, nabaria da idazleak euskarari damaion ahalmen kohesiboa, giza harremanak gozatzeko arras estimatua.

Hitz bitan esateko, *Beribilez*en deskubritu uste dugu mediku euskaltzaleak liburua deskribatzeko erabili zuen esamoldearen esanahia, hau da, *Beribilez zaku barne-handia*ren edukia.

---

3 Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: Brunel, P. eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris, sintesi laburrean, eta ikerlan honetako Bibliografian aipatzen diren autorearen beste ekarpenak: Pageaux, D. –H. (1994). *La littérature générale et comparée.* Armand Colin. Paris. etab.

1. Bidaia-liburu laburra objektu kultural konplexua

1.1. Ikerlanaren justifikazioa

1.1.1. Jean Etxepare

Jean Etxepare idazle aipatua da, euskal letretan. *Buruxkak* (1910) bildumako egilea, eta hainbat agerkaritan idazle sarria XX. mendeko lehen herenean zehar. Gizarte-kokapenari begira esan daiteke Jean Etxepare klase ertaineko idazlea dela, medikuntzako profesionala, eta dituen kezkak klase horri dagozkionak direla, herriaren aurrerabide orokorraz ere dituen kezkak barne. Ildo horretatik, burges txikiaren etika eta hobespenak argi daude, adibidez, *Beribilez*en Tolosako eta Zarautzeko deskribapenetan, eta baita Donostiako goi-burgesiaren kritikan ere, ikusiko den bezala.

Pertsona autonomoaren pentsaera dugu Etxeparerena: apaizen tutela saihestu nahi duen burges txikiarena. Euskal identitate ezezagun bat sasoi hartan, agian, gaur egun ere eredu baliagarria euskaldun ikasiak izan nahi dutenentzat, XXI. mendeko lehen heren honetan 2008ko

krisia gorabehera. Aspaldi da iraultza industriala bipolarizazio soziala aldatzen hasi zela Europan eta klase ertainak sortzen, nahiz eta Euskal Herria eskualde berantiarra izan horretan.

Idazlea ez da dogma bati atxikia, esan nahi baita bilaketa pertsonal baten kronika ere jaso litekeela *Beribilez*en; beraz, zer komunikatua eta mamia duen izkribu baten aurrean gaude.

1.1.2. "Beribilez"

Bidaia-liburuaren generoa aukeratu du Jean Etxeparek; generoaren ezaugarriekin bat bidaia-liburu hau hainbat elementuren gordailua izan daiteke: Etxeparek badaki bidean jasotako estimulu kitzikagarriei esker anitz gauza aipa daitezkeela. Izan ere, liburua itxuraz bakuna da, barnean zehar-aipamen asko dituena.

Jean Etxeparek sakontasuna bilatzen du ageriko kontakizunaren azpitik, *Beribilez*en hasierako aurkezpenean dioen bezala:

> "Ikusi ala adituez zer derasakegu geroztik ahoz edo lumaz, mami hazkurritsu zerbait dakarkenik? Gauzen itxuraz, axalaz baizik ez gitazke mintza, izaitez nolako diren ezin dukegulakotz gure lasterkan zilatu"[4].

Beribilez izenburuko bidaia-kontakizun honetan iraultzen du azken helduaroko ikusmoldea, handik gutxira hil egingo baitzen.

Idazlearen ikusmolde horretan hainbat aspektu daude hezurmamituta: Argentinatik etorritako etorkina den aldetik; Bordeleko unibertsitateko doktorea den aldetik; medikua den aldetik; gizonezkoa den aldetik; euskaltzalea den aldetik; Iparraldeko bizilaguna den aldetik; burges txikia den aldetik; humanista den aldetik…

4 *Beribilez* (1931) 5 or.

1.1.3. Loiolara bisitan 1928an

Inportantea izan daiteke gogoratzea *Beribilez* historia orokorraren barruan. "Zaku barne-handia"-k –idazleak liburua deskribatzeko erabili zuen esamoldea- edukian hainbat elementu jasotzen ditu: janzkera, gastronomia, arkitektura, folklorea, emakumeen heziketa, turismoa, aurrerakuntza, generoa, dantzak, exotismoa… Elementu horiek testuinguru historikoan kokatuta aztertzea etekintsua da, historiografiak dioenarekin kontrastatuta.

Helburu nagusia Loiolako Santutegia bisitatzea da, bidaia honetan. Jesuitak pasio askoren sorburu eta jasaile izan dira, gure artean ez ezik nazioartean ere. Agian, jesuitak dira euskal esportagai intelektualik handiena; badirudi, behintzat, idazleak eta lagunek irudipen hori dutela. Loiolako kapitulu hori zentrala da liburuan, eta estetikoki landuena. Masa-turismoaren hastapenetan egiten den auto-ibilaldia estuki lotuta dago erromesaldi tradizional batekin.

1.1.3.1. "Beribilez" polemikoa

Liburua ez da oso luzea: 1931ko lehen argitalpenean 103 orrialde dauzka. Hala ere, liburu konplexua da, kritikariak ez baitira ados jarri nola irakurri behar den. Baten ustez bidaia konbentzionala dena familian egina (Maria Jose Kerejeta[5]), beste baten ustez jesuiten kontrako aldarria da (Piarres Xarriton[6], Kepa Altonaga[7])…; hau da, topikoz beteriko huskeria modukoa da liburua, ala sakonean errebolta baten estalkia?

Muturreko ikuspuntu horiek behar dute kontrapisu patxadatsu bat, alegia, behar dute *Beribilez*en irakurketa sakonagoa, desadostasun horien funtsa ala funsgabekeria zertan datzan erakusteko. Beraz, liburuak merezi du begirada patxadatsuagoa jasotzea kritikaren aldetik.

---

5 Kerejeta, M. J. (1987). "J. Etchepare" in: Etxepare, J. *Beribilez*. Bilbo. Euskal Idazleen Elkartea.

6 Xarriton, P. (1991a). "Jean Etchepareren euskal lanak" in: *Hegats* 4 Ekaina.

7 Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2016-05-21]

1.1.3.2. "Beribilez" hobeto irakurtzeko premia

Normalean berbaldi bati hasiera ematen zaionean, ohitura da gai horrek zer interesa duen agertzea irakurleari, bera ere ernatu dadin.

Beribilez hobeto ezagutzea helburu probetxugarria izan daiteke idazlearen kalitateagatik: Jean Etxepare da XX. mende hasierako literaturan idazle gailenetariko bat, askok aitortzen dutenez; haren pentsamoldea interesgarria da, landua eta bakana den aldetik euskal letretan. Idazle erlijiosoen andanatik at kokatzen da, eta sekularizazio modernoaren aurrerabidean esanguratsua da.

Beribilez aztertzeak ematen digu aukera literaturaren historia sakonago ezagutzeko, euskal letren pasarte garrantzitsu batean. Idazleak berak *Beribilez*i garrantzia ematen zion, bertan hainbat kontu isuri zituela-eta; horregatik, bada interesgarria hurbilagotik ezagutzea zer pentsaera dagoen bilduta *Beribilez*eko diskurtsoan ere.

Jean Etxeparek bazterketa modukoa jasan zuen bere garaian idazle disidente gisa, beraz, argigarria izan daiteke haren ikusmoldea berreskuratzea. Ordea, liburua sortu zen testuinguru korapilatsuak eragozten dio idazleari iritzia deblauki adieraztea, eta derrigortuta dago tentu handiz sakatzen ideiak horrelakoetara ohitua ez zen irakurlego baten aurrean. Jean Etxeparek harrera hotzaren esperientzia egina zuen *Buruxkak* (1910) liburuarekin, debekua eta zentsura jasan baitzuen argitaratu orduko.

Aipatu behar da, era berean, idazle honek gaur egun ere interesa sortzen duela ikertzaileen artean, tankera horretako figuren eskasiagatik gure literaturan, eta baita urteen joanak birbalorazioa ekarri diolako ere. Gaur egun, aldiz, gogoeta egitekoa da, behenafar-lapurtera euskalkian idatzitako testuak eskatzen duen gaitasuna irakurria izateko hartzailearen aldetik, idazle honen gizarte-berreskurapenari begira.

*Beribilez*ek planteatzen dituen gaiak abstrakzio maila batekoak dira eta gogoetaren ingurukoak, ez soilik egunerokotasun hurbilekoak. Interesgarria da pentsamendu landua duen idazle baten obra irakurri ahal izatea, euskaraz ezohikoa orduan. Idazlearen kezkak ez dira utilitarioak beti, euskal literaturan komunzki gertatzen zenez: esan nahi da, bereziki asmo pastoralez idazten zirela liburuetako asko, euskal literaturaren historian urriak baitira prosa utilitariotik ihes egin duten idazleak. *Beribilez* asmo pastoraletatik libratu den bakarretako bat izanik, hura ahanzturan erortzea galera litzateke euskal literaturaren ezagutzan.

1.1.4. Ikerketa honen ekarpena

Jean Etxepare patrimonalizazioen objektua izan da, kritikaren historian zehar. Kritikak nahi izan du figura gailen hau beretzakotu kritikariaren ideologiaren arabera, modu nabarmenegi batean. Kritikari katolikoek demostratu nahi izan dute Jean Etxepare azken urteetan federa itzulia zela. Beste alde batetik, kritikari agnostikoek azpimarratu nahi izan dute idazlearen izaera heterodoxoa: irakurleari ikuspegi sosegatuago bat eskaintzea dagokio ikerlan honi.

Beraz, gonbidapena luzatuko da *Beribilez*en irakurketa baterako, irakurleak deskubritu ditzan liburu honek transmiti ditzakeen zirrarak eta balioak. *Beribilez* euskarazko testu bat da non aipatzen diren arazoak gaur egun ere interes iraunkorra izan dezaketen, hain usua ez dena izan literaturaren historiaren garai batean, ahaztu gabe, noski, testu hau ere bere garaiaren fruitua dela zenbait arlotan…

Beharbada, Jean Etxepareren ibilbidea ezagututa, irakurleak begien aurrean izan dezake urra dezakeen beste bide bat, zeinean lanbidearen praktika uztar daitekeen jakintzaren bilaketa batekin, ez baita gutxi informazioz gainezka gabiltzan testuinguru batean.

Batetik, Jean Etxepareren hautu ideologikoak, logika bati jarraitu zitzaizkionez, gaur egun ere aukera bat izan daitezke irakurlearentzat, batetik, eta, bestetik, bestelako burubide humanista batzuk berreskuratzeko parada gizarteren arreta jarraikia galdutakoak. Hau da, gizarte modernoko agitazioaren eta barreiaketaren gainetik, irakurle horrek idazlearen biografian bilaketa gutxi asko koherentea ikus dezake ispilatuta; gainera, koherentzia hori norainokoa den balioetsi ahal izango du, betiere euskal testuinguru batean. Testuinguru hori da, gainera, gure gaurko egoeraren aurrekaria, eta, ziur aski, bere oihartzuna entzunarazten duena oraino.

Ez hori bakarrik, Jean Etxeparek, herri-literatura soiletik aldentzen den heinean, erakusten digu nola gizabanakoak ibilbide propioa egin dezakeen literaturaren arloan ere. Egia da zailtasunak ugari topa zituela inguruan; hala ere, arrakasta izan zuen nortasun literario bat eraikitzeko asmoan.

Garai hartako herriarekin hautsi gabe, erreflexio autonomo bat garatzeko gai izan zen Jean Etxepare, eta *Beribilez*ek nola jasotzen duen ikusi ahal izango da. Idazlea originala da

euskal testuinguruan, parerik gabea. Askatasun horrekin jokatu duten idazleak bakanak dira XX. mendearen hasieran.

1.2. Ikerlanaren egitura

Ikerlan honen asmoa da *Beribilez*en inguruan sortu diren argi-ilun gehienei erantzuna ematea. Lan honetan ardatz nagusiak izango dira agertzea zein den idazlearen ideario edo ideologia partikularra eta, bereziki, idearioa Euskal Herriaren zein imajina edo iruditeriaren osagai den.

Beribilez aztertu nahi da Euskal Herriaren irudi burges-txiki kualifikatu bat jasotzeko aukera ematen duelakoan, ikuspuntu beregaina eta zabala duen intelektual baten eskutik eta euskaraz, humanitateek eta intelektualek, agian, orain ez duten distira bat zuten garaian. Horrelako aukera askorik ez dago, euskal literaturaren historian.

Ikusiko da nola dagoen baldintzatuta Euskal Herriaren eta bizitzaren ikusmoldea literatur lan honetan, denbora- eta leku-koordenaden aldetik. Jean Etxepareri gizarte-inguruak ezarritako muga horiek zer gogoetatua eman diotenez gero, jasoko dira *Beribilez*en idazleak posibilismo baten barruan egiten dituen ahaleginak bizitzaren helduaroko sasoian.

Interesgarria da ezagutzea gizarte hartan jokatzen ziren indarrak Iparraldean, noski, baina baita Hegoaldean ere, idazlearekin lotutakoak. *Beribilez* konpromisoa da idazlearen eta gizarte-inguruaren artean. Aurrera eginez, zehaztu dezagun hipotesia nagusia.

1.2.1. Hipotesi nagusia

Tesi honen abiapuntua honako hau da: *Beribilez* da Jean Etxeparek eraikitzen duen hilburuko ideologiko burges txikia euskal munduan oinarritua, garai hartako euskaltzale-eliteari eskaintzeko.

Ez alferrik, hurbiltzen zaion heriotzaz kontzientea zen 1929an *Beribilez* idaztean: ez dirudi kasualitatea urte gutxi geroxeago hil izana 1935ean. 1928z geroztik, lehen osasun-abisu baten ostean Kanbon bizi zen; horretara, *Beribilez*eko auto-bidaia Kanbotik abiatzen da, eta Kanbora itzultzen, nahiz eta Aldudeko medikua izan lan-bizitzako urterik gehienetan.

1.2.2. Ikerketa-galderak

1.2.2.1. Zein izan zen "Beribilez" sortu zen giro intelektuala?

Beribilez ezin da ulertu bere garaitik kanpo. Horrexegatik aztertuko ditugu giro hartako ildo intelektual nagusiak, bidaia-liburua horiekin lotu ahal izateko; beste puntu batean zehaztu nahi da ordutik hona kritikak liburu konplexu horri egin dion harrera ere.

Bereziki aipatuko dira Jean Etxeparek hurbilagotik ezagutu zituen pentsalariak eta korronteak. Saiatuko gara *Beribilez*en bilatzen formazio intelektual horren eraginpeko aztarnak.

1.2.2.2. Idazlearen zer ideia nagusi nabarmen zitezkeen helduaroan, testuari hurbilketa semiotikoa eginez?

Jean Etxepareren ideiak lotuko dira gizartean izan zezaketen harrerarekin, ikerketa formaletik harago soziokritika baliatuz. Ideien esparruan, interesgarria izan daiteke idazlearen eboluzio ideologikoari erreparatzea. Hau da, idazleak bidaian esandakoek adieraz dezakete aldaketa bat, gaztetako bestelako iritzien aldean.

Beribilez da idazlearen helduaroko pentsamenduaren kutxa, haren gaztetako pentsamoldearen eboluzioa interpretatzeko aukera ematen baitu *Beribilez*ek. Ikusiko dugu astiroago benetan eboluzio hau zertan geratzen den: ea idazleak lagunei esan zizkienak eta *Beribilez*en idatzitakoak bat datozen. Idazle honek bide laiko propiala egiten du, eta horrek balio erantsia dakarkio testuari. Bide horretan, zehaztu nahi da idazle kultu honek proposatzen zituen gai literario berriak (artea, helenismoa…).

Kostunbrismo literarioa konfesionala zenean Euskal Herrian, ikusiko da nola dabilen Jean Etxepare bere kasa, alegia, nola moldatzen den giro kolorebakarreko horretan hondoa ez jotzeko, eta, berriz ere, *Buruxkak* bezalako liburu asimilaezin bat egin gabe. Jakina denez, idazleak liburu hori zabaltzeari uko egin behar izan zion ingurukoen presioengatik, zenbait pasarte polemiko zirela medio.

Bereziki, argituko dugu *Beribilez* bigarren liburu honetan nabarmena den estilo alusiboaren azpian zer burubide dagoen. Begiratuko da, halaber, idazleak egiarekin zuen konpromiso intelektuala eskakizun gutxiagorekin agertzen ote den 1931ko liburuan. Testuan aztertuko dugu nola azaleratzen den idazlearen ideologia hura detekta daitekeen foku zehatzetan, Philippe Hamonen metodologiari jarraiki; batez ere, asmoa da estetika eta etika agertzen diren testuko pasarteetan zer burubide islatzen den jasotzea.

Bilaketa horren barruan garrantzia izango dute isotopien bilketak: heriotza, aberastasuna… Isotopia da testu-koherentzia posible egiten duten prozeduren multzoa. Haren funtsa tasun (fr. *trait*) bat errepikatzean datza, berbaldiaren antolaketa semantikoa bermatuta[8]. *Beribilez*en kasuan, bidaia guztian zehar errepikatzen diren tasunak badira, hain zuzen, aipatutako bi horien inguruan.

1.2.2.3. Euskal Herriaren zein imajina burges txikia ematen du "Beribilezek"?

Liburuan agertzen diren herritarren estereotipo nazionalak ere aztertuko ditugu. Euskaldunaren, frantsesaren eta espainolaren estereotipoak agertuko dira, eta gaurko ikuspegitik bestelakoak direla ikusiko da.

Iparraldeko literatur lan honek agerian utziko du Hegoaldeko Bestea nola irudikatzen duen. *Beribilez* izan daiteke ingurukoen kontra altxatutako ahots disidentea, Hegoaldea

8 Bonhomme, M. (2002). "Isotopie" in: Charaudeau P, eta Dominique Maingueneau. *Dictionnaire d'analyse du discours*. Paris. Seuil.

bisitatzean, Iparraldean bizi zituzten dilemak islatzen baitira idazlearen bidaia-kontakizunean, aldi berean.

Aztertuko da, horrez gain, zein terminotan ezartzen duen Iparraldeak Hegoaldearekin duen harremana ere. Euskal Herriaren osagai nagusi batzuen bitartez (historia, soziologia, gastronomia, hizkuntza...) nolabaiteko filiako asmoa aldezten da liburuan, ustez: panorama jakin bat kaussituko dugu bidaia-kontakizunean. Herriarekiko atxikipenaren nolakotasuna aztertuko da, *Beribilez*en. Euskal Herriko iruditeria hori ezezaguna zen garai hartako euskal munduan, hala sentiberatasun artistikoagatik nola moralagatik.

1.2.2.4. 1.3.1.4. Nolakoak ziren Euskal Herriaz ematen ziren iruditeriak orduko idazleetan, direla euskaldunak direla erdaldunak, "Beribilez"-en ematen denaren ondoan?

Gainerako euskal idazleei dagokienez, interesgarria izan daiteke garai hartako batzuek ematen zuten Euskal Herriaren irudia alderatzea *Beribilez*eko honekin. Aldeak izango direlakoan gaude, kontuan hartuz gero idazleen ideologia desberdinak: Txomin Agirre, Leon Leon, Tomas Agirre, Jean Pierre Iratxet…

Gazteleraz, Pío Baroja bezalako idazle baten lorratzari jarraitzea ere probetxugarria izan daiteke. Eremu geografiko berak hautatu zituzten Jean Etxeparek eta Pío Barojak beren lanak kokatzeko, hein batean, eta garaikideak ziren. Horrela, iraultza industrialaren eta hazkunde modernoaren aurrean erreparoak bazituzketen biek ala biek, agian erromantizismoaren ondorioz. Ikertzekoa da hein batean, bien arteko parekotasunen nolakoa.

Idazle frantsesak ere ibili ziren bidaian euskal lurraldetik, eta bidaiak kontatzeko idazlanak paratu zituzten: Victor Hugo, Théophile Gauthier, Stendhal, Flaubert… Bilatuko da konparazio bat egitea azken horien lanetako eta *Beribilez*eko iruditerien artean.

1.2.4. Metodologia

Atal honetan, azalduko da gure metodologia zein den *Beribilez*eko ideologia edo ideario burges txikiaren bila abiatzeko, beti ere Euskal Herriko iruditeria baten markoan. Aztergai dugun liburua da matesis handia, bere txikian. Liburu entziklopedikoa da, beste bidaia-liburu asko bezalakoa: hainbat jakintza jasotzen ditu, bidaia-liburuak horrelakoak izaten baitira. Jakintza horien artean, hainbat arauren biltokia da.

Idearioaren inkardinazio sozialak eta nazionalak kontuan hartuta datoz, lan honetako ikerketa-xedeetan. Lan honen eskema nagusi bat izango da Daniel-Henri Pageaux puntuan jarri duen imagologia. Imagologiak proposatzen du metodologikoki hiru atal nagusi jorratzea: hitzak, ideologia eta eskenatokia.

Lehenik, ez zaigu begitantzen horren emankorra Daniel-Henri Pageauxren hitzen atala inplementatzea testu honetan[9]. Hitzen azterketa imagologikoaren funtsa datza bisitatua den herrialdeko hizkuntzaz jasotzen diren hitzak iruzkintzean; adibidez, Jean Etxeparek Piarres Broussaini idatzitako gutun batean datorren *simpático* hitza: “Je le tiens d´une petite bonne aux yeux noirs qui m´a dit de vous textuellement:"Ah! ¡Qué muchacho más simpático!". Ce qui exprime le nec-plus-ultra de la sympathie chez les Espagnoles“”[10]. Horrelako hitzak gutxi dira *Beribilez*en, komentatuko diren zenbait pertsona-izen bereziz kanpo, eta ez dutenez joko nahikorik ematen ez dugu imagologiaren metodologia atal hau bereiz garatuko.

Bigarren, iruditeriaren osagai garrantzitsu gisa, ideologia aztertuko da Philippe Hamonen bide semiotikotik, azalduko denez[11]. Atal hau izango da ikerlan honen muina bilduko duena, Pageauxk eskaintzen duen abaniko metodologikoan (*carrefour*) aukera eginda, ikertzaileari ahalbidetzen dion malgutasunari esker.

Beribilez aztertuta, helburua da Jean Etxepareren ikuspegi bereziari erreparatzea. Ikuspegi hori bi prismaren bitartez aztertuko dugu: gizarte-klasearen ikuspegitik, eta

---

9 Pageaux, D. –H. (1989). “De l´imagerie culturelle à l´imaginaire” in: P. Brunel eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris.

10 Xarriton, P. (1995). Fonds Lacombe. *Les lettres du docteur Jean Etchepare*. 45. gutuna 1921-IX-29

11 Pageauxk ideologiaren azterketa Claude Lévi-Straussen bidetik egitea poposatzen badu ere, Philippe Hamonen proposamena hobetsi dugu.

inkardinazio identitarioaren aldetik. Klasea zedarritzen dute: lanbideak, formazioak, asmo politiko, ekonomiko eta kulturalek, bizitzeko testuinguru geografikoak, lerraketa ideologikoek, balioek, garai historikoak…

Testuan suma daitekeen ideologia, ez da bakarrik narratzailearen diskurtsotik eta ekintzatik ateratakoa: izan daiteke pertsonaiaren baten jardunetik (esana eta ekintza) ateratakoa ere. Edota, azkenik, irakurleak (ikertzaileak) testuan proiektatzen duena, aukera pertsonalen arabera. Azken finean, berbaro lausoaren aurrean jartzen gaitu balio-sistemen txertaketa horrek, hau da, ideologiaren eta historiaren berbaroaren aurrean; beraz, anbiguotasun baten aurrean gaude, erabaki ezina: izan ere, noren izenean egiten dira ebaluazio horiek?

*Beribilez*en hainbat iritzi agertzen dira hainbat gai zehatzi buruz: ez dira denak adosgarriak puntu bakoitzean. Polifonia horrek jartzen gaitu literatura modernoaren atarian. Polifoniaren literaturak eszeptikotasun batera garamazke, non lekua izango luketen hainbat iritzi ezberdinek:

> "S'il y une philosophie littéraire, c'est-à-dire une modalité de la réflexion philosophique produite spécifiquement par la littérature, cette philosophie est foncièrement sceptique : elle ne construit positivement aucun savoir, mais elle déblaie le terrain, opération préalable à toute construction de savoir, et c'est en ce sens qu'il est permis de dire qu'elle obéit à régime de l'absence, absence non par défaut mais par nécessité, c'est-à-dire produite en règle dans certaines formes qui, elles, sont indiscutablement présentes, telles que les configure et les découpe, sur le fond blanc de la page, la noire dentelle de l'écriture"[12].

Kontuan izanik kontakizunean narratzailearen ahotsa nagusia dela, asmoa da ahots horretan ideologiaren agerpen testualak jasotzea. Ez da baztertzen, horregatik ere, dauden gainerako pertsonaien ahotsak jasotzea. Beste pertsonaien joko hori eskaintzen digu narratzaileak premiazkotzat daukalako asmo komunikatiboak betetzeko, hau da, Euskal Herriaren irudi orduan ohi baino konplexuagoa helaraztea irakurleari.

---

12 Groupe d'études "La philosophie au sens large" animé par Pierre Macherey (10/01/2007). "Idéologie : le mot, l'idée, la chose. Litterature et idéologie : A propos de Texte et Idéologie de Philippe Hamon (PUF, 1984)" http://stl.recherche.univ-lille3.fr/seminaires/philosophie/macherey/macherey20062007/macherey10012007.html [2016-12-05] https://f.hypotheses.org/wp-content/blogs.dir/165/files/2017/09/10-01-2007.pdf [2018-II-28]

Azkenik, eskenatokiaren atal imagologikoa erabiliko da alderdi identitarioari erreparatzeko, azalduko denez.

> "La notion d´image, des plus vagues, appelle moins une définition qu´une hypothèse de travail. (…) l´image est la représentation d´une réalité culturelle au travers de laquelle l´individu ou le groupe qui l´ont élaborée (ou qui la partagent ou qui la propagent) révèlent et traduisent l´espace culturel et idéologique dans lequel ils se situent"[13].

Bukatzeko, metodologiaren atal honetan argibide bat zor zaio corpus-aukeraren arrazoiari: *Beribilez*eko testua aztertuko da, baina kontenplatzen da Jean Etxepareren beste idazki batzuetako testuak erabiltzea ere. Ahalegina egingo da beste idazki atal horiek kronologian txertatuta ulertzen, bereziki idazlearen eboluzio intelektuala zehazteko egiten badira aipamen horiek.

1.2.4.1. Aztertuko den ideologiaz

Ideologia termino polemiko samarra da, gaur egun, baina *ideologia* hitza ia saihestezina da. Hala ere, *ideologia* hitzarekin batera *idearioa* zein *ideiak* hitza erabiliak dira hemen, gaztelaniazko *ideario* emateko. Hona hemen ideologia definitzeko erabili daitekeen adiera bat, lan honetan ere operatiboa:

> "[ideología] es el conjunto de ideas, creencias, valores y representaciones (mitos, símbolos, imágenes, etc.) que conforma una determinada visión del mundo y sirve de pauta a los individuos de un definido grupo o clase social, o comunidad nacional, religiosa, cultural, etc., para relacionarse con el mundo, con los demás miembros del grupo (la ideología cumple un papel aglutinante) y con otros grupos o colectividades humanas (…)

---

13 Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: P. Brunel eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée.* PUF. Paris. 135 or.

No es cierto que la ideología sea patrimonio de unos escritores (o de una literatura) que se confiesan comprometidas”[14].

Ideologia izango da hemen, beraz, idazleak duen errealitatea kontzeptualizatzeko modua; ideologia uler bedi hemen ideien multzo, ideario, errepertorio gisa. Mentalitate hitza ere hurbilekoa izango zaio ideologiari hemen, ez, aldiz, klase-gatazkako testuinguru baten barneko mekanismo gisa, gizarte-segmentu esklusibo baten zerbitzupekoa. Adiera marxistan, ideologia da gainegiturako osagaia klase gidariek erabilia beren interes ekonomikoak bultzatzeko, zientzia izan daitekeenetik at. Ez gara adiera horretatik abiatuko hemen[15]; hori ez da gure asmoa, nahiz eta ikerketa hau bezalako soziokritika Frantzian ezkerrarekin lotu den garai eta leku batzuetan:

> “On peut dire, sans véritable caricature, que pour les intellectuels parisiens de l'après-68, la stylistique, c'est la droite, et que la sociocritique, c'est la gauche. La situation veut cela. La sociocritique naît et se développe à Vincennes dans l'effervescence de la révolution que l'on sait; la stylistique est la propriété absolue de la Sorbonne, haut lieu conservateur, véritable cible à abattre”[16].

Hala ere, bistan dena, soziologia guztia ez da ezkerrekoa. Esate baterako, eskuinaren inguruko gizarte-indarrek jarraitzen izan zuten *Eskualduna*ko erredaktoreen gogokoa zen Fréderic Le Play soziologoa.

Izan daiteke, marxistek nahi duten legez, *Beribilez*eko idearioa ez izatea “objektiboa”, eta jatorrizko bere motiboei buruz ezjakina izatea. Hori horrela balitz ere, ideario objektiborik ez dago, ez baikara mugitzen zientzia zehatzen esparruan.

Aurrekoa esanda, badira testua eta ideologia aztertzeari ekitean topa litezkeen beste eragozpen batzuk: adibidez, ideologia baten kritika beste ideologia batetik baino ezin egin daitekeelako objekzioa, alegia, balizko “ideologia objektiborik” ez dute ezta besteen ideologia auzitan jartzen dutenek ere. Are gehiago, batzuen ustez, kulturaren zientziak krisian daude ez

---

14 “Ideología” sarrera in: Estébanez Calderón, D. (2008). *Diccionario de términos literarios*. Madrid. Akal.

15 Panier, L. (1980). “De l´idéologie dans le discours”. *Sémiotique et Bible* 19, septembre hamargarren orrialdean Marxen definizioa. Louis Althusserren ideologiako definizioak ere hor dira 11. orrialdean.

16 Bordas É. (2005). “Stylistique et sociocritique”. In: *Littérature* 140, “Analyse du discours et sociocritique” izeneko alean.

dagoelako helduleku ideologiko sendorik[17]. Haatik, balio kognitiboa izan dezake *Beribilez*eko idearioak, agian, bizitza indibidualerako eta kolektiborako baliagarria eta operatiboa den heinean.

1.2.4.2. "Effet-idéologie"

Ikerlan honetan, Jean Etxepareren ideologia *Beribilez*eko testuan nola azaltzen den bilatzeko Philippe Hamonen proposamen semiotikoak erabiliko dira[18]. Izan ere, ideologiaren bilaketa ez da izango idazleak jaulkitzen dituen esakera esplizituen sistematizazio hutsean oinarritutako peskiza: ideologia aterako da baita testuko efektutik ere. Honako elementu hauek, adibidez, bidea ematen dute idazlearen ideologiari antzemateko: adjektibo bat, narrazioko ekintza baten ondorioak eta haien balorazioak, paralelismoak, hitz baten aukeraketa, pertsonaia baten emozio jakin bat gertakari baten aurrean… Philippe Hamonen kezka da ideologia testuaren semiotikan nola agertzen den zehaztea[19].

Efektu ideologikoa afektuarekin estuki lotuta kausituko da, testuak barnean eraikiko-deseraikiko baitu. Ideologia-efektua aztertuko da paradigmatikoki eta sintagmatikoki:

> "Ainsi il paraît opportun de distinguer deux formes fondamentales d´organisation de l´univers des valeurs: leurs articulations paradigmatique et syntagmatique"[20].

Paradigmatikoki, axiologiak bilatuko dira. Sintagmatikoki, programa narratiboak aztertuko dira, non aktanteak txertatuta dauden:

---

17 Stewart-Steinberg, S. (2001). "Ideology" in: Taylor V.E. & C.E. Winquist (arg.) *Encyclopedia of postmodernism* London and New York. Routledge.

18 Hamon, Ph. (1984). Texte et idéologie. Paris. PUF.

19 Ideologiaren ikuspegi semiotikoa sakontzeko Philippe Hamonen bidetik: "Idéologie" sarrera in: Greimas, A. J. eta J. Courtés. (1979). *Sémiotique. Dictionnaire raisonné de la théorie du langage.* Paris. Hachette; Panier, L. (1980). "De l´idéologie dans le discours". *Sémiotique et Bible* 19, septembre.

20 Greimas, A. J. eta J. Courtés. (1979). *Sémiotique. Dictionnaire raisonné de la théorie du langage.* Paris. Hachette. 179 or. "Idéologie" sarrera.

"C´est dire qu´une idéologie, relevant des structures sémiotiques de surface, peut se définir comme une structure actantielle qui actualise les valeurs qu´elle sélectionne à l´intérieur des systèmes axiologiques (d´ordre virtuel)"[21].

1.2.4.2.1. Tematika zibernetikoa

Literatur lana informazio askoren bilgunea da, matesis modukoa; informazio hori iragaten den tematika zibernetikoak deskripzio-maila batzuk marrazten ditu[22]:

- leku zibernetikoak: *Beribilez*en kasuan tabernak (Loiolakoa), jateko aurkientzak (hariztia), ostatuak, istripu guneak (Tolosan), begiratokiak (Gipuzkoako sartzea, Loiola aurreko ordokia)… Hau da, informazioa metatzen eta transmititzen den tokiak.
- pertsonaia zibernetikoak: berritsuak (*Beribilez*en: frantximanta, Garrotarra), pertsonaia bitxiak (apezñoa), lekukoak (amatxo)…
- objektu zibernetikoak: idazkiak (Ignaziorena), arte-lanak (katedrala), apaingarriak (harribitxiak, zur preziatuak)…
- testu-egitura zibernetikoak: izen bereziak (*la noble Tolosa*), erdarazko hitzak (*para la mamá*), hitz sinbolikoak (Olerkia), afixak edo letreroak (euskarazkoak)…

Bidaia-kontakizun honetan zehar maiz agertzen dira honelako tematikak, eta oso baliagarritzat dauzkagu daramaten ideologia-kargari antzemateko, banan-banako azterketan erakutsiko den legez.

---

21 Greimas, A. J. eta J. Courtés. (1979). *Sémiotique. Dictionnaire raisonné de la théorie du langage.* Paris. Hachette. 179 or.
22 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF.

1.2.4.2.2. Ideologiaren eginkizuna

Idazleak mundu bat eraikitzen du parametro batzuen barruan, alegia, literatur lanean arauak eta hobespenak biltzen ditu etengabe:

> "L'écrivain est, très certainement, quelqu'un de particulièrement sensible à cette composante universelle et quotidienne de la norme, de la règle qui, présente dans tous les aspects de la vie (sous forme de rituels, de protocoles, d'étiquettes sociales, de manières de table, de modes d'emploi, de systèmes de politesse, de lois et d'obligations diverses), finit par devenir le matériau privilégié de l'oeuvre littéraire"[23].

Parametro horiek gaurko gizakien parametroen antzekoak izan daitezke, edota gaurkoak hobeto ulertzen lagun dezakete: horra interesa[24]. Beraz, idazleak sortzen duen mundu hori esportagarria den gaurko gizartera ikusiko da, ala datatua dagoen.

Jean Etxeparerena figura konplexua zen, ohiko eskemak kordokatzeko gai izan dena. Horregatik, helmen mugatua dute, hein batean, Etxepare berreskuratzeko (?) Elizaren hurbileko kritikariek egin eta egiten duten ahalegina errealitatea sinplifikatuz[25]. Esan daiteke kontrakoa ere balekoa dela, hau da, ez da guztiz egokia esatea Jean Etxepare muturreko positibista dela, edota agnostizismoaren eta zientziaren txapelduna Eliza obskurantistaren kontra[26].

Izan ere, gaur egun, katolikoak asko dira mezatara ez doazenak, agian doazenak –praktikanteak- baino gehiago. Zer zentzu dauka orain ekiteak ea Etxepare sinestuna zen ala ez? Sekularizazioa etorri zen, Elizaren tutoretza ere ahuldu zen, baina kristauek ondutako tradizioa ezin liteke keinu soil batez ezabatu ere. Beraz…

Ikerlan honetan, fedearen inguruko ideologia-dema nagusi horiek nahikoa sakondu direlakoan euskal kritikan, gehiago urratuko da bestelako ildoa, hau da, agian *Annales*en eskola frantseseko prozeduren antzeko zerbaitez, egunerokotasunarekin lotua, bizimoduarekin lotua

---

23 Hamon, Ph. (1989)."Le littéraire, la littérature, le social et la valeur". *Cahiers de recherche sociologique* 12. 23 or.

24 Hamon, Ph. (1975). "Du savoir dans le texte". *Revue des Sciences Humaines*. Tome XL. nº 160. Octobre-Décembre.

25 Gartzia Trujillo, S. (2014). *Jean Etxepare, Aldudeko medikua. Euskal modernitatearen brankako irudia*. Desclée de Brower. Bilbki. Oraindik orain, paradigma horretan mugitzen den ikerlana.

26 Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2016-05-21]. Piarres Xarriton ere iritzi horretakoa bide zen.

datorren beste ideario horri erreparatuta, auzi ideologiko tradizionalak (erlijioa, ideologia gainegitura gisa…) nolabait jorratuta daudelakoan.

1.2.4.2.3. Ideologiaren lau osagai testualak

Ideologia nola agertzen den testuan aterako da lau foku bereziri erreparatuta[27], testutik aterako baitira ideologia-zantzuak, horretara diskurtsoaren analisiak narratzailearen ideologiaren berri emango digula. Ideologiaren agertoki nagusiak, edo ideologiak ebaluatzeko darabiltzan gune esanguratsuenen artean lau hautatu ditu Philippe Hamonek, *a posteriori*[28]:

1. kanon estetikoan oinarritutako foku ideologikoa (*savoir-jouir*). Lan honetan *begiradarena* edo *estetikarena* deituko dioguna, edo *gozamenarena*.
2. etikan oinarritua (*savoir-vivre)*
3. hizkuntza-zeinuan oinarritua (*savoir-dire*)
4. tresnak erabiltzean oinarritua (*savoir-faire*)

Esan behar da, ikerlan honetan, batez ere, erreparatu zaiela estetikaren eta etikaren arloko ideologiaren agerraldiei, hizkuntzarenari ere lekua eskainita. Tresnen eta lanaren atala ere landu da, baina kapitulu berezirik osatu gabe. Segidan, foku bakoitzaren azalpena eta *Beribilez*eko adibideak emango ditugu, banan-banan:

Begirada estetikoa

Kanon estetikoari dagokionez, subjektua objektuen aurrean helburu teknikorik gabe dagoenean, haren munduaren pertzepzioa bahe estetikoek iragazten dute. Izan daiteke: **begiradaren** bitartez (ikuskizun itsusia/ederra, atsegina/desatsegina, ikusgarria/ nazkagarria…), entzumenaren bitartez (musika eufonikoa/kakofonikoa…); dastamenaren

27 Macherey, P. (2007). "Littérature et idéologie. A propos de *Texte et Idéologie* de Philippe Hamon". http://stl.recherche.univ-lille3.fr/seminaires/philosophie/macherey/macherey20062007/macherey10012007.html [2013-09-28]

28 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF.

bitartez (jaki gozoa/txarra…); ukimenaren bitartez (objektu latza/leuna…); usaimenaren bitartez (lurrin gozoa/zatarra…). Guztion artean, begiradari dagozkionak gailentzen dira:

Adibidez:

> "Agorrilaren lehen asteazken-goiz batez abiatu ginen beraz Cambotik zazpi lagun —hiru gizon eta lau andre, bi beribil atherbedunetan— aratsean berean gibelerat sartzeko xedearekin, Loiolako ikusgarri omen-handikoez begiak betherik" [gure azpimarra][29].

Jean Etxepareren begiradaren pausalekuak dira: paisaiak, bizitokiak, elementu arkitektonikoak, gizakiak… Zinez, estetika batek adierazten digu narratzailearen idearioaren nolakoa: adibidez, bideberri ertzeko apaizgai gazte baten janzkera kritikatzeak ere agerraraz diezazkioke irakurleari narratzailearen balio bereziak[30].

Philippe Hamonek *savoir-jouir* izendatu duen testuaren eta ideologiaren korapiloaren barnean, ez da bakarrik narratzailearen eta pertsonaien begirada kontuan hartzen, hala ere, ikusmena izango da erreparatuko zaion zentzumen nagusia lan honetan, besteak beste. Guztiarekin ere, usaimenari, dastamenari eta ukimenari ere lekua emango zaie.

Bestalde, izan daiteke ideologia-efektu bat foku normatibo bat baino gehiagotan kabitzea: foku normatibo bat baino gehiagotan kabi litezke, eta ebatzi beharra dago non sailkatu eta jorratu. Hari beretik, argia da etika-fokuaren eta estetika-fokuaren arteko lotura.

Aurrera eginez, irakur daiteke begiradaren foku honi zein etekin atera dakiokeen Philippe Hamonen beraren hitzetan:

> "Le topographique, d´emblée, tend à suggérer un univers évaluatif, pose un sujet comme ancrage, source, et origine du site. Le spectacle, valorisé, mis en relief, valorise en retour le personnage-spectateur (focalisateur), donc tend à le mettre lui-même en relief en lui faisant endosser rétroactivement un certain nombre de compétences et de qualifications (sens du beau, émotivité devant la nature, compétence esthétique, etc.);

---

29 *B.* 7.

30 *B.* 73

dans les deux cas le texte accentue la relation entre le spectacle et son spectateur, l´objet et le sujet, et en fait un moment fort de l´intrigue"[31].

Begiradaren atal hau garrantzitsua da, idazlearen xedeak kuantitatiboki ulertzeko idazterakoan: *ikus** erroa 166 aldiz agertzen da, *begi** erroa 130 aldiz, *eder** erroa 125 aldiz, esanguratsua baita bidaiariak irakurleari eskaintzen dion espektakuluen zerrenda, bide batez balorazioa erantsita daramatela. Euskal lurren mosaiko baten aurrean gaude.

Ez da harritzekoa, zeren eta paisaia-deskripzioak *Beribilez*en autoko leihatilan kokatua dagoen narratzaileari dagozkio, nolabaiteko turista so-egileari, alegia. Begiratzen duenari buruz, narratzaileak iruzkina egiten du. Iruzkina hitzez hitz esplizituki egin dezake, edota begiratzailearen *ikusten jakite/nahi izate/ahal izateak* adieraz dezakete narratzailearen idearioa, alegia, modalizazio bidez[32]. Hierarkia estetiko finak ezar ditzake testuak, ebaluatua denarekin (paisaia, eraikina, ohitura…) adostasunak eta desadostasunak adierazita. Adostasun-desadostasunak ager litezke ebaluaziogai den ikuskizunen baitan, ikuslearen baitan edota ikuskizunen eta ikusleen arteko harremanean[33].

Ikuskizun adieraziak ikuslearen figura nabarmenarazten du, ikuskizun hori beste askoren artean hautatua den ber, eta esleitzen dizkio so-egileari zenbait gaitasun eta kualifikazio (naturaren aurreko sentiberatasuna, ederraren zentzua, gozatzen jakitea). Horrela, hari narratiboaren atal sendoa bihurtzen da deskripzioa[34]. Bestalde, ikuskizuna espazioaren erretikulazioa da, non osagai diskretuek balio zehatza jaso dezaketen (atzean, aurrean, urrun, hurbil, ezkerrean, eskuinean…)[35].

---

31 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF. 111 or.

32 Bereziki Philippe Hamonen lerroan eta modalizazioaz: Greimas, A. J. eta J. Courtés. (1979). *Sémiotique. Dictionnaire raisonné de la théorie du langage.* Paris. Hachette. Gaztelaniaz: Greimas, A. J. eta J. Courtés. (1990). *Semiótica. Diccionario razonado de la teoría del lenguaje*. Madrid. Editorial Gredos, "Modalisation" sarrera, eta modalizazio mota bakoitzari dagozkion sarrerak. Modalizazioaz diren beste autore esanguratsu batzuk: Kerbrat-Orecchioni, C. (1980). *L´énontiation de la subjectivité dans le langage.* Paris. Armand Colin ; Le Querler, N. (1996). *Typologie des modalités*. Caen. Presses universitaires de Caen; Le Querler, N. (2004). "Les modalités en français". *Revue belge de philologie et d' histoire*. Tome 82 fasc. 3.

33 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF. 110 or.

34 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF. 111 or.

35 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF. 112 or.

Azkenik, esan daiteke begiradaren azpian erortzen diren zer ospetsuak aipatzeak helburu araugilea duela, haien balio-sistemarekin bat egiten baitu: artefaktu linguistikoak (kartelak), irudiak (arte-lanak), eraikinak (Erromako Basilika, Baionako katedrala…), kokagune geografikoak (Gorges du Tarn, Probentzako zerua…)[36].

Etika eta arauak

Oraingo honetan **arauak** dira foku ideologikoaren funtsa; pertsonaiak jarduera izan dezake, hainbat elementuk arautua: legeak, kode zibilak, tabuek, mahaiko modu onek, gizalegeak…, bereziki taldean ari denean (dotorea/saskela, erruduna/errugabea, pribatua/publikoa…). Ebaluatzaileak kontuan izango du pertsonaiaren gaitasuna gizartean aritzeko.

Adibidez:

> "Zonbait minuta iragaiten zaizkigu, aiduru. Ba, hobendun gira egiazki —derasa oixtiko gure mintzolariak, bere solasari jarraikiz— Iruñan luzazago ez egonik. Eskualerriko hiri guzien artean aipagarriena da Iruña"[37].

Beste adibide bat:

> "Gizagaixoak gu! Handienak ikusteko gintuen. Bat-batean agertzen zaizkigu, gizotsoak iduri, hiru begiekilako mamu beltz larri batzu, beren larru leuna dirdir. Eta zer lerroa! Batek bertzea hunkitzen dute, kasik. Erretzen dauzkigute begiak, erretzen dute bidea. Gu ohartu orduko iraganak, haize emaiten daukute begitarterar eta bihotza zarrastatzen. Industriako arranoak, bankoetako saiak, negozioko apalatzak, theatretako gau-ainharak, politikako miruak, zer aztaparrak dituzten orok, zer bekokia eta zer hegalak!

---

36 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF. 36 or.

37 *B.* 27

Errabiazko khexu batek gaindi egiten duku. Ez dea bada hemen legerik, jaun eta andre haundi horien atxikitzeko neurrian? Nun dira poliza-gizonak? Hoinbertze argi zendako otoen muthurrean? Zerentzat, holako firurika erhoa?

Soinka elgarri, lepoa bihurrian luze, iraina atheratzen zaiku zonbaiti aho-bethez. badakit gure artean menditar bat, odola gogorki asaldatu zaiona. Egiaz, gerla-denboran baitzen *no man's land* —gizonik ezin bizizko bazterra— gizontasunik gabeko lekua da Gipuzkoako bazter hau; eta araberako angles-hizkuntza baten gai litake, ikaran gabiltzan erregebidea"[38].

Irakurleari, foku ideologiko horiek hainbat prozeduraren bitartez ohartarazten zaizkio, gertatzen baita subjektu batek interesa duen bakoitzean arau bati men egiten zaiola (*interes* hitzaren bi adieretan: dela etekinari buruzko desira, dela balio erakargarriari edo arbuiagarriari buruzko desira), eta giza gorputza txertatuko da hor, kasu honetan gorputz emotiboa, azalduko den bezala. Izan ere, testu askotan, izua, poza, bekaitza, krisi psikologikoa edo paroxismoa aipatzea etab., araugilea denaren agerraldiak izan ohi dira, eta arauen, debekuen edo tabuen aurrez aurre jartzen dute pertsonaia[39].

Lau fokuetako ideologi-kontzentrazioaz gain, giza gorputza eta objektu semiotikoak (paisaia, liburua, katedrala…) dira ideologia testuan bilbatzeko modu horren beste euskarri batzuk; horiek nabarmentzen dira, besteak beste, modalizazioaren lexikoa ugaltzeagatik (*sinetsi, nahi izan, ahal izan, nahitaezkoa izan, behar izan*)…; ugal liteke, era berean, sentimendu eta pasioen lexikoa.

Gizakiak jokatzeko duen arauen multzoa ere agertuko da testuan. Burges txiki euskaldunak bere arauak izango ditu, beste gizarte-segmentu batzuenen aldean desberdinak, agian. Zehaztasun hau jakingarria da, euskararen komunitatea konplexutasun eta ñabardura handiagoz ulertzeko. Arau horiek testuan nonahi ager litezke, bidaiako ikuskizun, bizipen, gogoeta eta abarren aitzakia baliatuta.

---

38 *B.* 92

39 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF.

Hizkuntza-zeinua

Hizkuntza-zeinua foku ideologiko gisa har daiteke: era berean, pertsonaia batek ahoa ireki orduko, berbaldia kalifikatzera datorkion diskurtso bat sor daiteke hizketa hori ebaluatzeko (zuzena/akastuna, ulergarria/ulertezina, gramatikala/agramatikala…).

Adibidez:

> "Biziki garbiki, ederki kasik, mintzo zaiku eskuaraz emazte gaixoa; ez du arras Gipuzkoako mintzaia, ez Baigorri-aldekoa, ez Lapurdikoa; halere, ezin xuxenago heltzen daukute adimenerat mihiak, ezpainek, jabearen gogo-erabakia"[40].

Narratzaileak pertsonaia baten hizkuntza-gaitasuna ebaluatzen du, arau bati men eginez: euskara ona, zuzena… Ebaluazioa, emaztearen berbaldiari laguntzeko hitzetan ageri da. Adierazgarria da narratzaileak zer azpimarratzen duen pertsonaien ekintza ilokutiboak transmititzean, euskararen gaineko hausnarketak marka bat jartzen baitiote testuari. Horrez gain, liburuko beste pasarte batean ponte-izenen konnotazioek atea irekitzen dute narratzailearen munduan sartzeko.

Philippe Hamonek testua eta ideologia aztertzeko hizkuntza-zeinuaren puntu hau proposatzen badu ere aztergaitzat, ikerlan honetan euskararen ikuspegi soziolinguistikora joko da gehiago Daniel-Henri Pageauxk proposatzen duen diziplinartekotasun-bidetik, semiotikatik baino gehiago.

Haatik, ohar pare bat egitea dagokigu, hitzen azterketa imagologikoa eta soziolinguistika uztartuz. *Beribilez*en bertan, jasotzen dira gaztelaniazko eta frantsesezko lagin labur pare bat euskararen galera azpimarratzeko, hain zuzen. Esanguratsua da nola jasotzen diren euskarazko *ama* hitzaren ordainak (*mamá*, *maman*), adierazteko hizkuntza horiek haurren heziketa linguistikoaren baitan egin duten ordezkapen tamalgarria[41]. Hitz horiek euskal hiztunen ahotik jasoak dira, lerraketa linguistiko diglosikoa argiki erakusteko.

---

40 *B.* 30

41 *B.* 37-38

Badakar apotegma gisakoren bat ere frantsesetik hartua, adibidez: "*"Café de curé, sans chicorée"*, dugu jarri orduko manatzen"[42], bazkalostean ari direla ostatuan. Horrek sala dezake kultura eta hizkuntza frantses dotoreekiko mirespen moduko bat.

Bidaiariak jaso zitzakeen tokiko euskarazko hitzak Hegoaldeko euskalkiren bateko jarduna entzun arau, baina ez du horrelakorik egiten. Agian, edozein euskarazko hitz ez zaio arrotz, ez eta *probintzi*etakoak ere, idazlearen burubide euskaltzaleak kontuan hartuta harrigarria ez baita. Laburbilduz, hasiera batean ez zaigu iruditzen hitzen azterketa imagologikoak askoz etekin esanguratsu gehiagorik eskain dezakeenik...

Lanaren fokua

Behatu daiteke tresnak eta **lana** erabiltzea foku ideologiko gisa: pertsonaiak tresna bati oratu orduko, haren performantzia teknikoa agerian geratzen da (arrakastatsua/zaputza, fina/zabarra, amaitua/amaitu gabea…).

Adibidez:

> "Iguzkia samiñ izana gatik, gizonek poneta dakarte buran; begitartea zimail dute, eta gantza arin. Ogi-joiteko mekanikak ezagutuarren, moda xaharrari badarraizkio zuhurki, gizagaizoak: zonbatez xahubideak ez dituzte horrela gutiago! Aroa lagun, etxekoz-etxeko egiten den lana da merkeenik, ahantzixea balin badugu ere Lapurdi eta Benabarreko aldean"[43].

Lana gizakiaren adierazpidea da. Narrazioan jasotzen diren lan-munduko laginek balio diote narratzaileari, mundu literario bat egituratzeko.

Hala ere, ikerlan honetan azpiatal honi ez zaio arreta berezirik jarriko, batez ere, ikerlanaren espazio- eta denbora-mugengatik. Beste alde batetik, opor-garaiko bidaia batez ari garela, lanaren lekua murritza dela esatea egokia izan daiteke, nahiz eta aipatzen diren iragaitzez zenbait lanbide: nekazariak, itsas-gizonak, ostalariak… Gauzak horrela, ez da harritzekoa aspektu horietako batzuk beste testu-osagaien atalean jasoak izatea, horrela

42 *B.* 37

43 *B.* 18

aurreikusten baitzuen Hamonek berak ere, alegia, ideologiaren zenbait agerpen foku batean baino gehiagotan ager zitezkeela sailkatuta.

1.2.4.2.4. Absentziak

Narratzaileak zer ez duen aipatzen, ez dagokio zuzenean semiotikari. Gehiago dagokio soziologiari edo antropologiari, edota filosofiari: gizarte-klaseak, instituzioak, arauen jatorria, arauen historikotasuna…, eta Jean Etxepareren giroa aztertzean emango zaie lekua, batez ere. Beraz, pentsamenduaren alorrean kokatuta, gizarte-inguruari erreparatuko zaio, idazlearen burubideak noiz/nola/nondik sortu ziren ikusita, *Beribilez* eta euskal literatura Europako garai hartan bederen kokatzeko.

Beste era batera esanda, ikerlana saiatuko da Jean Etxeparek kontuan hartu zituen ardatz intelektualak desestaltzen garai hartako gizarte-markoaren barruan. Idazlea ezagutu zutenen lekukotzek bideratuko gaituzte ezagutzen beraren hautuak 1900 inguruko hamarkadetan.

1.2.4.3. Euskal Herriaren iruditeriaren bila.

Beribilez bidaia-liburua denez, literatura konparatuaren sailean koka daiteke ikerketa hau, bide hori eskaintzen baitute literatura konparatuko eskuliburuek[44]. Literatura konparatuaren alorrean ikuspegi imagologikoa aukeratu da, bidaia-liburuak jasotzen duen Euskal Herriaren irudia aztertzeko.

---

44 Honako hauek dira lan honetan kontsultatu diren eskuliburu nagusiak: Guillén, C. (1985). *Entre lo uno y lo diverso: Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Crítica; Brunel, P. eta Y. Chevrel. (1989). *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris. Pageaux, D. –H. (1994). *La littérature générale et comparée*. Armand Colin. Paris; Vega, M. J. eta Carbonell, N. (arg.) (1998). *La literatura comparada: principios y métodos*. Madrid. Gredos; Gnisci, A. (arg.). (2002). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica.

"el estudio de la literatura de viajes terminará por trabajar al lado de otros campos de investigación: -con la imagología, porque las obras de nuestro género son precisamente las que por su lección proporcionan imágenes de lugares y pueblos"[45].

Lehenengo eta behin, iruditeria (fr. *imaginaire*; esp. *imaginario*) hitza definituko dugu, edo, berdin dena, gure lan-hipotesi nagusiaren ardatza azalduko. Iruditeria oro dator Ni-aren kontzientzia hartzetik Beste-aren aurrean, edota Hemen-aren kontzientzia hartzetik Han-aren aurrean, iruditeria hori denik eta murritzena izanda ere[46].

"toute image procède d´une prise de conscience, si minime soit-elle, d´un Je par rapport à l´Autre, d´un Ici par rapport à un Ailleurs. L´image est donc l´expression littéraire ou non, d´un écart significatif entre deux ordres de réalité culturelle. Ou encore: l´image est la représentation d´une réalité culturelle au travers de laquelle l´individu ou le groupe qui l´ont élaborée (ou qui la partagent ou la propagent) révèlent et traduisent l´espace culturel et idéologique dans lequel ils se situent. L´imaginaire social dont il sera question est marqué –on le voit- par une profonde bipolarité: identité vs altérité, l´altérité étant envisagée comme terme opposé et complémentaire par rapport à l´identité"[47].

Kasu honetan konparatzen ari gara bi komunitate beren hizkuntzetatik bat komuna dutenak, baina unitate politiko bereizi banatakoak direnak: Iparraldea eta Hegoaldea; baina konpara genitzake baita Iparraldea (*petite patrie*) eta Frantzia (*grande patrie*) ere, neurri txikiago batean. Prozedura hori bideratzeko lagungarri, *Beribilez*eko testuak eskaintzen dizkigun konparazioak, hiru lurraldeotako elementuak ondoz ondo jartzen dituenean.

Bestetik, kontuan hartu behar da bidaia-kontakizuna, berez, gizarte baten panorama emateko baliabide erretoriko oso aproposa dela, mosaiko baten erakusketa den heinean[48]; kasu honetan, bidaia euskaltzalea da, Piarres Broussain idazlearen lagun abertzaleak egiten zituen bidaien antzekoa: Euskal Herriaren irudi enpatiko bat jasotzen baitu. Azken urte hauetan, Jon

---

45 Domenico Nucera "Los viajes y la literatura" in: Armando Gnisci (arg.) (2002). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 245 or.

46 Pageaux, D. –H. (1994). *La littérature générale et comparée.* Armand Colin. Paris. 60 or.

47 Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: Brunel, P. eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris. 135 or.

48 Carrizo, S. (1997). *Poética del relato de viajes*. Kassel. Edition Reichenberger.

Casenave kritikariak sumatu du Euskal Herriaren iruditeriak atzemateko interesa; iradokizun eta proposamen horren harira, ikerlan honetan *Beribilez*eko iruditeria zehaztuko da[49].

> "Cela conduit nécessairement à réfléchir à la problématique de l´imagerie culturelle. Il serait utile d´étudier la manière dont les auteurs de langue basque de la période conçoivent l´identité basque et aussi, à partir de quels éléments et de quelle façon ils composent les représentations esthétiques qu´ils lui donnent"[50].

Beribilez da Euskal Herriaren irudi zehatz bat, irudi berezia, gizartearen ikusmolde bati lotua elementu jakinekin. Irudi horretan bilduta daude hainbat alderdi idazleak aukeratuak, garai hartan eskuragai zeuden errepertorioko elementuen artetik. *Beribilez*eko iruditeria eta ideologia zehazterakoan, interesgarria da jakitea zer aukera zeuden eta idazleak zein hautatu zituen.

Beharrezkoa da ulertzea idazleak ematen duen Hegoaldeko irudiak estuki islatzen duela Iparraldeko indar-harremanen nolakotasuna. Jean Etxepare Eskualtzaleen Biltzarreko burulehena izanik *Beribilez* idatzi aurretxoan (1922-1926), garrantzitsua da ezagutzea idazlearen Euskal Herriaren iruditeria, lideratzen zuen taldearen espiritua islatzen duelako nolabait, ñabardura pertsonalak ahaztu gabe.

Daniel-Henri Pageauxk dio iruditeriaren azterketa baliagarria izan dakigukeela gogoeta egiteko "gure" ohiko pentsabideez ("L´imagologie peut aider à une prise de (â une objectivation) critique de "nos" pratiques culturelles, de "nos" reflexes mentaux"[51]). Hari horretatik, atal honek eskaini nahi luke gaurko euskaldunok gogoeta egiteko parada, inguruko errealitate identitarioaz.

Helburua izango litzateke Euskal Herri osoaren proiekzio komun eta eraginkorra izatea, etorkizunean urratsak finkatu ahal izateko. Iraganeko iruditeriak testuinguru kultural eta historikoan ulertuz gero, iruditeria bakoitzaren egokitasuna hazta liteke, galbahetze bat egin ahal izateko aurrera begira iruditeria eraginkorraren bila. Historian zehar gertatu da iruditeria

---

49 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. "Conclusion" atala.

50 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 519 or.

51 Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: Brunel, P. eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris. 159 or.

dohakabe bat aitzakia izatea, euskaldungoa jarrera misoneistetan eta atzera begira halamoduz bizirauteko.

*Beribilez*en keinu bazterrezinak daude, gizarte ahul batek bere burua nola irudikatu nahi duen atzemateko. Hori izan daiteke Jean Etxepareren liburuaren zentzu kolektibo bat, banakoaren problematika ideologikoaz harago joanda. Euskal Herriaren kasuan, *Beribilez*eko iruditeriak nortasun berezia eskaini ahal dio irakurleari, bidaian irakurleari helarazten zaizkion ohitura eta jokabide esanguratsuen bitartez, nahiz eta ohikoan arruntzat hartzen diren. Hortaz, arlo estetikotik harago jotzen du irakurketa horrek, gizarte-asmoetara ere sarbidea eginez.

Metodologikoki, D.-H. Pageauxk iruditeriaren ikerketa-prozedura hiru pausutan proposatzen du. Lehena, izango litzateke hitzen inguruan, hau da, beste herrialdeko hitzak aztertzea xeheki: *Beribilez*en horrek etekin gutxi ekarri du eta ez diogu sail berezirik eskainiko.

Bigarren pausuan, ideologia aztertuko litzateke. Pageauxk iradokitzen du Claude Lévi-Strauss-en metodologia antropologikoa erabiltzea helburu horrekin. Phillippe Hamonek proposatua hobetsi dugu hemen, semiotikoa izanik literatur kritikaren hurbilagokoa delakoan.

Hirugarren pausuan, proposatzen du eskenatokia deitzen duena ikertzea, hau da, literatur lanaren gizarte-ingurua ikertzea disziplinartekotasuna gogoan. Azken atal honetan aukeran dauden ikerbide guztiak ustiatu gabe, zenbait puntu zehatz hobetsiko ditugu, noski, bideratzen duten egingarritasuna kontuan izanda, ez baita Daniel-Henri Pageauxren proposamenean derrigortasunik prozedura itxi zurrun bakar bati ekin behar izateko.

Horretara, imagologiaren esparruaren barnean aukera bat egin da iruditeriaren barneko iker-puntu posibleen artean, zenbait puntu nagusiri oratuta:

- Euskal komunitatea aztertuko da inguruko komunitateekin lotuta, hots, Frantzia eta Espainia, liburuan bidea ematen den ber. Naziotasun horiei lotutako identitateak aztertuko dira, bereziki, haiei lotutako estereotipoak. Estereotipoek, berez, islatzen dute nolako harremanak dauden bi komunitateren artean, adibidez, bidaia-liburu honetan frantsesaren estereotipoa eta euskaldunaren estereotipoa. Gerta daiteke estereotipo haiek gaur egun ere irautea:

"Los historiadores son los primeros que nos enseñaron que las mentalidades, las sensibilidades no van al mismo ritmo que los acontecimientos políticos, diplomáticos, que destacan en lo que llaman corto plazo, el de la coyuntura, ni al ritmo de los fenómenos económicos que obedece al medio plazo, al término medio. Las imágenes

pertenecen a la larga duración, y muy particularmente las imágenes estereotipadas, porque el estereotipo es intrínsicamente "acrónico", en cuanto que sirve para mostrar y para demostrar, fuera de un tiempo históricamente definido, la esencia, o una parte esencial del psiquismo, de la cultura de un pueblo"[52].

- Euskal Herriko historiaren erabilera nolakoa den aztertuko da, zeren iruditeria batek historiara hurbiltzeko modua adierazten duen, Bestea ikusteko modu bat, aldi berean, Ni-a karakterizatzeko balio lezakeena, gertakarien bertsio onartuaren arabera.
- Medikua euskaltzalea den aldetik, bilatuko da Hegoaldeko Besteari buruz egindako adierazpena ea filia arlokoa denetz[53]:

"Manies, phobies, philies constituent de manière claire, stable et permanente les manifestations les plus nettes d´une interpretation de l´étranger, d´une lecture de l´Autre. Elles constituent des attitudes fondamentales qui peuvent éclairer, à l´intérieur d´un texte ou dans un ensemble culturel, les choix, les préferences, les rejets, les principes mêmes du choix idéologique que suppose toute représentation de l´Autre"[54].

- Idazleen aukeren artean, kontuan izango da idazleak bidaian proposatzen duen euskal leku gogoangarrien (*lieux de la mémoire*) zerrenda, eta Euskal Herriaren irudia eraikitzeko saio hori nola burutzen duen, Frantzian aspalditxo egin den bezala[55].
- Beste alde batetik, sinboloen azterketa antropologikoa baliatuko da, sinboloek iragan komun baten bitartez talde baten kohesioa osatzen laguntzen duten heinean; iragana legendakoa ere izan daiteke[56]. Sinboloek, gainera, banakoari

---

52 Pageaux, D. –H. (2002). "Historia e imagología in: Boixareu, M. eta R. Lefere (koord.). *La Historia de España en la Literatura Francesa*. Madrid. Editorial Castalia. 37 or. Estereotipoa seinalea da: bestela hitz egiteko bidea da , in: Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: Brunel, P. eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris. 159 or.

53 Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: Brunel, P. eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris.152-153 or.

54 Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: P. Brunel eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris.

55 Nora, P. (1984-1992). *Les Lieux de mémoire.* Paris. Gallimard 3 tomes : t. 1 *La République* (1 vol., 1984), t. 2 *La Nation* (3 vol., 1986), t. 3 *Les France* (3 vol., 1992).

56 Durand G. (1992). *Les structures anthropologiques de l´imaginaire.* Paris. Dunod.

pentsaera egituratzeko ere balio diote[57]. Sakonduko dira liburuan zehar aipatzen diren elementuak, duten oihartzun sinbolikoari kasu eginez.

- Aztertuko dira, idazlearen ikuspegi horretan errepikatzen diren isotopiak ere, alegia, testuan zehar han eta hemen errepikatzen diren gaiak, zehaztuko denez, hain zuzen, heriotzaren eta aberastasunen isotopiak *Beribilez*en[58].
- Exotismoak ere izan dezake lekua Hegoaldeko iruditerian. Izatez, exotismoa da Bestearen aurrean idazleak izan dezakeen sentimendu arrotza[59]. Exotismoa izan daiteke bidaiak kontatzeko gizartean dagoen programa zehatz baten puntu bat, adibidez, Espainiara egiten diren bidaietan, beste batzuen artean.
- …

1.2.4.3.1. Diziplinartekotasuna

Daniel-Henri Pageauxk finkatu ditu Frantzian imagologiaren oinarriak. Dio behin baino gehiagotan imagologia ez dela metodologia zurrun bat, baizik eta eskuragarri dagoen esparru anitz baten modukoa (*carrefour*), bere baitan dituen aukerak baliatzeko modua eskaintzen duena.

> "La littérature générale et comparée se définit comme une discipline transversale, un carrefour ; les structures actuelles de l'Université française sont encore peu adaptées à cette interdisciplinarité, qui est pourtant une valeur constitutive de la discipline"[60].

Imagologiak ematen du bidea testutik atera eta argibide bila baldintzapen sozialetara jotzeko, narratzailearen ikusmoldea osatzeko hurbilketa testualaz bestelako helduleku batzuk

---

57 Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

58 Isotopiaren definizioaz eta funtzioaz: Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: P. Brunel eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris. 143 or.

59 Pageaux, D. –H. (1994). *La littérature générale et comparée.* Armand Colin. Paris. 60 or.

60 Chevrel, Y. "La Société française de littérature générale et comparée (1956-2006) : évolution et problèmes d'une institution associative". http://www.vox-poetica.com/sflgc/historique.html [2016-10-19]. Hegoaldean ere ikuspegi mota hori ere bada, eta diziplinartekotasunak bidea egin beharko luke, gure ustez.

eskaintzen baititu[61]. Imagologiak gainerako giza zientzien eta gizarte-zientzien laguntza bilatzen du: historia, psikologia soziala, etika, soziologia…

Langintza horretan, garrantzitsuak izan daitezke datu historiografikoak, dela artekoak, dela arkitekturakoak, dela historiakoak, dela politikoak, ekonomikoak, etab[62]. Datu horiek diziplinarteko ikuspegiaren balioa eransten diote azterketa poetikoari.

René Wellek-ek ere aipatzen du literatura konparatua ezin dela gizatasunik gabea izan, baizik eta holistikoa behar duela. René Welleken arabera, literatura-ikerketa konparatua ezin da izan iraganera begiratze erlatibista, ezta kanpoko formalismo hutsa ere. Konparatismoa ez da izango zientifismo neutrala, edota historizismo axolagabea, baizik eta objektuekiko harreman esentziala. Literatura konparatua izango litzateke gizateriaren balio nagusiak iraunarazteko ahalegina[63], ziur aski, Argien mendeko programari eutsita. D.-H. Pageauxk ere bide hori proposatzen du:

> "Pageaux wanted to develop imagology into a method for the human sciences in general, in the context of a totalizing science humaine. Consequently, he abandoned the philological analysis of perceptions and representations in favour of an ambitious, Enlightenment-style programme towards the understanding of culture in general: "des problèmes qui intéressent la culture, et tout simplement (si l´on ose dire) la vie des hommes"”[64].

Historizismoa, aldiz, izango litzateke ezin aukeratu ahal izatea gaur egunean bizitzeko premiazko irizpide normatiboak. Historizismoa litzateke, oraingo honetan, iraganari buruzko datu-metaketaren aurrean, jokabidea eta ekintzak ebaluatzea positibismo eta objektibismo batzuen morroi. Horretara, iraganaren historia-ezagutzaren erlatibismoak lausotu dezake

---

61 Pageaux, D. –H. (1989). “De l´imagerie culturelle à l´imaginaire” in: Brunel, P. eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris. Pageaux, D. –H. (1994). *La littérature générale et comparée.* Armand Colin. Paris.

62 Literatura konparatuaren zientifikotasunaz eta epistemologiaz, Vega, M. J. eta Carbonell, N. (arg.) (1998). *La literatura comparada: principios y métodos*. Madrid. Gredos. 123 or.

63 Wellek, R. (1958). “La crisis de la literatura comparada” in: Vega, M. J. eta Carbonell, N. (arg.) (1998). *La literatura comparada: principios y métodos*. Madrid. Gredos. 87 or.

64 Beller, M. eta Joep Leerssen. (2007). *Imagology. The cultural construction and literary representation of national characters*. Amsterdam. Rodopi.

irizpide sendo guztien balioa. Gaurko egunean, historia-jakintzaren premia ukaezina bada ere, irizpide irmoak izateko beste premia hura ere bai[65].

65 Scholtz, G. "Historicisme" sarrera in: Encyclopaedia Universalis. (2005). *Dictionnaire de la Philosophie*. Paris. Encyclopaedia Universalis et Albin Michel.

1.3. Beribilezen aurkezpena

*Beribilez*en aurkezpen honetan, liburuaren inguruko xehetasunak emango dira, liburua gertakari fisiko eta komertzial gisa hartuta, batez ere. Badira 87 bat urte liburu hau lehenengoz argitaratu zela, 1931n. Lehenik, argumentuaren sinopsia emango da, labur, eta harekin batera ibilbidearen mapa jarriko da. Gero, liburuaren genesia argitzeko idazlearen biografia errepasatuko da. Jarraian, *Beribilez* argitaratzearen inguruko datuak jasoko dira. Zerrendatu egingo dira idazlan honen lehen argitaraldiak, eta oraintsu egindakoak bitarte luze baten ondoren, bai inprimatuta bai sarearen bitartez.

Hurrengo atala liburuak izan duen harrerari buruzkoa izango da. Argitalpenen arrakasta maiz zegoen erakunde jakin batzuen eskuetan, kasu honetan euskal Elizaren eraginpekoetan, euskal sistema literarioaren autonomia ahula zen historiaren memento hartan. Gizarte-baldintza horietan ikusi zuten argia Jean Etxepareren bi liburuek, eta horren ondorioak jasan zituzten; argitzekoa den testuinguru baten barnean ulertu behar da logika hori. Gaur egun, sistema literarioa aldatuta dago, sendoagoa baita, eta indar-lerroak ez dira orain 90 urteetakoak bezalakoak. Testuinguru berri horretan berrargitaratu dira idazlearen idazlan guztiak, Piarres Xarritonen eskutik.

1.3.1. Liburuaren sinopsia eta sorburua

Liburuaren argudioaren sinopsia emango dugu, hasteko. *Beribilez* da autoz eginiko bidaia baten kontakizuna. Bidaia bi autotan egin zen, Jean Etxepare tartean zela beste sei lagunekin, beraren andrea eta amaginarreba bertan izanik. Bidaia abuztuaren erdian egin zuten, 1928an ziur aski, asmo nagusia Loiola bisitatzea zutela. Kanboko bizilekutik abiatu ziren goizean: joatea Iruñetik egin zuten, etortzea Donostiatik, Kanbora gauez itzultzeko.

Liburuan herriz herri ematen da ibilbidearen partea, eta han-hemenka bestelako jakingarriak tartekatzen dira: historia, filosofia, gastronomia, arkitektura, laborantza, kosmologia… Dena da egun beteko joan-etorria. Izatez, modernitate kutsu nabarikoa zen autoz egindako ibilaldia, XX. mendeko lehen herenean.

Idatziz jasotako automobil-bidaia honen jatorria dira idazleak berak arinago eginiko antzeko bidaia batzuk. *Beribilez*eko hitzaurrean aipatzen dira Jean Etxeparek egingo zituen bidaien aurrekariak, hots, Piarres Broussain haren euskaltzale lagunak Hegoaldera egin ohi zituen bidaiak. Irakurri kasurako idazleak Piarres Broussain lagunari idatzitako gutunean:

> "Du 6 au 14 courant, j´ai fait, presque toujours sur l´impériale des autos, un magnifique voyage en Espagne (Guipúzcoa et Biscaye). Les plages n´y sont ni aussi belles ni aussi riantes que chez nous, mais par contre, ce qu´ils appellent leur corniche, de Deva à Lequeitio est de toute beauté. Impressionnant et inoubliable également, le trajet de Lequeitio à Guernica. J´ai visité aussi Cestona, Azpeitia et surtout le monastère de Loyola qui m´a vivement intéressé: Je vous ai manqué de deux jours à Durango, hôtel Mista. Je le tiens d´une petite bonne aux yeux noirs qui m´a dit de vous textuellement: "Ah! ¡Qué muchacho más simpático!". Ce qui exprime le nec-plus-ultra de la sympathie chez les Espagnoles"[66].

Piarres Broussain abertzalea zen, bestalde, eta Hegoaldeko joera politikoak hurbiletik jarraitzen zituen. Jean Etxepare ere joera horien jakinaren gainean zegoen, hain zuzen, bederen, hizkuntza kontuetan: ezagutza horri zor dizkio boladan zegoen neologismoetarako joera eta

---

66 Xarriton, P. (1995). Fonds Lacombe. *Les lettres du docteur Jean Etchepare*. 45. gutuna 1921-IX-29

gipuzkerarekiko hobespen moduko bat, itxura guztien arabera. Gipuzkeraren aldeko joera hori lotuta zegoen ahaldun gipuzkoarrengan hizkuntzarekiko sumatzen zuen axolarekin, Iparraldekoen artean usatu gabea[67].

Segidako orrialdean mapa bat dago atxikita ibilbidearekin. Liburuan aipatzen diren mugarri nagusiak daude bilduta: A Kanbo. B Itsasu. C Luhuso. D Ortzaitze. E Donibane Garazi. F Arnegi. G Luzaide. H Orreaga. I Auritz. J Agoitz. K Iruñea. L Irurtzun. M Lekunberri. N Betelu. O Tolosa. P Azpeitia. Q Loiolako Santutegia. R Zestoa. S Zumaia. T Zarautz. U Donostia. V Pasaia. W Irun. X Donibane Lohizune. Y Senpere. Z Kanbo.

Mapan, zuriz markatuta daude geldialdiak etiketekin, hau da, automobila aparkatu zuten tokiak.

Beribilez eginiko ibilaldia Kanbotik Kanbora 1928ko abuztuan. *Beribilez*en 1931ko lehen argitaraldian orduko errepideekiko fidelagoa den mapa dago.

67 Etxepare, J. (1929). "Erantzuna". *Gure Herria*. Novembre-Décembre. 505 or.

Lekeitio
Mutriku
Elgoibar
Eibar
Elorrio
Bergara
Arrasate
Urretxu
Legazpi
Beasain
Idiazabal
Parque Natural
Aizkorri-Aratz
Altsasu
Arbizu
Agurain
Parque Natural
Urbasa y Andía
Donostia
Zarautz
Heri
Andoain
Tolosa
Istripua
Leitza
Kafea
Bazkaria
hariztian
Irurtzun
Pamplona
Katedraleko bisita
Lesaka
Doneztebe
Elizondo
Banca
Ascain
Sare
Itxassou
Hasparren
Ustaritz
Bidart
Saint-Palais
Osses
Pied-de-Port
Orreagako
bisita
Larrau
Isaba
Burgui
Aoiz
A-1
AP-15
N-135
A63
A64
A-15
A-12
N-121-A
N-121-B
A
B
C
D
E
F
G
H
I
J
K
L
M
N
O
Q
R
S
T
U
V
W
X
Y

1.3.2. *Beribilez*en argitaraldiak

Beribilez atalka hasi zen agertzen lehenik *Gure Herria* aldizkarian; hor 1929tik 1932ra bitartean argitaratu zen[68]. Bitartean, liburu gisa 1931n plazaratu zen[69]. Maria Jose Kerejetak 1987an bigarrenez inprimatzera eraman zuen 1931ko argitaraldia, bere eskuko hitzaurre batekin[70].

Jadanik ikertu dira lehen bi argitaraldien arteko aldeak[71], segidan laburbildutakoak, hots, *Gure Herria* aldizkarikoa eta Laserre inprimategikoa. Aldizkariko agerraldian zeuden paisaiari eta historiari buruzko oin-oharrik gehienak kendu egin dira liburutik. Badira aldaketa linguistikoak ere: lexiko-aukeraketan, grafia-kontuetan, aditzaren aldaerei dagokienez… Bi zehaztasun gehituko dizkiegu, 1987ko argitaraldiaren hitzaurrean esandakoei:

- liburu moduko lehen argitaraldia luzeagoa da bost orrialdez, bederen, aldizkarikoa baino, ez baitu *Gure Herria*koak kontatzen Kanbotik Arnegirainoko ibilbidea.
- paragrafoak mozteko joera ere nabari da liburu moduko 1931ko argitaraldiko *Beribilez*en *Gure Herria*koaren aldean, hau da, testuan ukitu nagusirik egin gabe paragrafo nagusiak paragrafo txikiagotan zatitzeko joera[72].

Argitaraldiak direla eta, esan behar da sareko *Klasikoen gordailua*k Maria Jose Kerejetaren edizioa Interneten jarri zuela[73].

Testuaren aipuak izango dira Maria Jose Kerejetaren ediziotik, ulerterrazagoak izango direlakoan, ortografia gaurkotua baitute. Horretara, jatorrizko ediziora jo nahi duenak, aukera dauka orrialde zenbakiari begiratuta Interneten digitalizatuta baitago hura ere (Sancho el Sabio

---

68 1929, 1930, 1931, eta 1932 urteetan agertu zen, zortzi emanalditan partitua.

69 Etchepare. J. (1931). *Beribilez*. Baiona. Laserre. Jatorrizko argitaraldia.

70 Etchepare, J. (1987). 2. arg. *Beribilez*. Bilbo. Elkar-Euskal Editoreen Elkartea.

71 Ikusi "Gure edizioa" azpiatala in: Kerejeta, M. J. (1987). "J. Etchepare" in: Etxepare, J. *Beribilez*, Euskal Idazleen Elkartea. 21-30 or., 28 or. Han alderatzen ditu *Gure Herria*ko eta Laserre inprimategiko edizioak. Leku berean aurkituko ditu irakurleak zein izan diren 1987ko argitalpen eguneratua paratzeko irizpideak (ortografia…).

72 *Gure Herria*ko artikuluetatik liburu gisako lehen argitalpenera pasatzean idazleak egin zituen aldeketen berri zehatzagoa in: Kerejeta, M. J. (1987). "J. Etchepare" in: Etxepare, J. *Beribilez*, Euskal Idazleen Elkartea. 28 or.

73 Etchepare, J. (2010a). *Beribilez*. Klasikoen Gordailua. http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxepareJBide*Beribilez*.htm [2011-10-08]

liburutegian). Oin-oharren erreferentzia-sistemari buruz, *Beribilez*eko pasarteak 1931ko argitalpenari jarraituta egingo dira[74]. Atalak aipatzean (*B.*+ orrialde-zenbakia) notazioarekin emango dira.

Bi hitz, segidan, *Beribilez*eko harrera eta zabalkundeaz. Jon Casenavek hizpide izan du bi mundu-gerren artean izan zen Iparraldeko literatur produkzio ugaria, ikuspegi material batetik[75]. *Beribilez*ek ez zuen arrakasta handirik lortu irakurle-erosleen artean, erlijioko beste liburu batzuek hura bai lortzen zuten bitartean (Simon Durrutyren *Elizako liburu ttipia* aipagai du Etxeparek), idazleak berak ironikoki dioenez ("...garajatik ez omen da han-bat higitu *Beribilez*"[76]).

Jon Casenavek aztertu du baita ere nolako gorabeherak zeuden *Eskualduna* astekariaren eta liburu agertu berrien artean, aipamenak eta erreseinak direla eta; *Eskualduna* orduko zabalkunde-organo indartsuena zen. Horren karietara, kritikariak dio *Eskualduna*k iragarri zuela *Beribilez* agertu izana, eta *R.I.E.V.*-ek ere bai. Aipatzen du, sistema literariorik ezean, liburuen argitalpenak idazleen borondatearen mende zeudela, salbuespenak salbuespen, liburu erlijiosoek izan baitzezaketen, onenean, Elizaren laguntza[77]. Nolanahi ere, epealdi horretako behenafar-lapurterazko literatura ugaria zen, gai, testu-tipoen eta literatur generoen aldetik. Askotan, idazleen eta argitaratzaileen asmoa zen liburuetara bideratzea *Eskualduna*ko eta *Gure Herria*ko irakurle euskaldunak[78]. Bideraketa batez ere erlijio-liburuei zegokien, baina literatura arloko *Supazter Chokoan* eta *Piarres* liburuek ere zorte hori izan zuten.

Gainerakoan, dio Jon Casenavek *Beribilez*ek aurkitu zituen erresistentziak zor zitzaizkiola haren exijentzia literarioari ere, eta ez bakarrik haren eduki ideologikoari. Exijentzia hori bat letorke, bestalde, Piarres Lafittek urte haietan argitaratutako *Eskualdunen*

---

74 Etchepare. J. (1931). *Beribilez*. Baiona. Laserre. Jatorrizko argitaraldia. http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/873 [2018-IV-23]

75 Casenave, J. (1999b). « Le livre en langue basque durant l'entre-deux-guerres ». *Lapurdum* 4 http://lapurdum.revues.org/1532 [2016-05-21]

76 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 602 or.

77 Kortazar, J. (2015). "Publishing and literary system in: Basque literature". *Rassegna iberistica* 311. 313 or.

78 Casenave, J. (1999b). « Le livre en langue basque durant l'entre-deux-guerres ». *Lapurdum* 4 http://lapurdum.revues.org/1532 [2016-05-21]

lorategia (1931) literatur antologiak zeukanarekin, ez baitzuen horrek ere arrakasta komertzialik lortu. Antologia horren lehen zatiak baino ez zuen argia ikusi (1645-1800 bitartekoa).

Aurrekoa borobiltzeko, Jon Casenavek aipagai du Iparraldeko lanek kanpoan izan zezaketen oihartzuna ere. Hegoaldean Iparraldeko lan batzuk moldatu egin zituzten: adibidez, Jean Barbieren *Ixtorio-mixterio* bizkaieraz eman zuen Otxoluak; frantsesez ere agertuko zen, Parisen. Salbuespenak dira, baina *Beribilez*ek ez zuen izan horrelako zorterik, behinik behin[79].

Are gehiago, *Beribilez*ek ez zuen jaso *Eskualduna*n sasoi hartan beste argitalpen batzuek izan zuten bezalako iruzkin luzerik –Jean Barbieren *Piarres*ek kasu-, aipatu den berriemate laburraz aparte. Harreraz gehiago jakiteko eta ikerlan honen helburuekin lotuta, irakurri kritikariaren azalpena:

> "Il n'a pas non plus suscité de commentaire dans les colonnes de l'*Eskualduna* où il fut sans doute jugé sinon trop libre de ton, tout au moins trop chargé de sous-entendus d'inspiration agnostique pour entrer dans la ligne éditoriale d'un journal soucieux de ne pas troubler son lectorat catholique traditionnel. En revanche, un ouvrage bien plus conforme aux orientations de l'hebdomadaire, le récit de pèlerinage à Rome de Pierre Duhour *Erromako itzulia*, voit sa parution saluée par un long article en première page de l'édition du vendredi 27 mars de l'*Eskualduna*. *Beribilez* bénéficie cependant d'un article favorable dans la R.I.E.V sous la plume de G. Lacombe et d'une longue étude très élogieuse de la part de P. Lafitte dans *Gure Herria* en 1932 sous le titre de "Nôtre maître : M. le Docteur Etchepare""[80].

---

79 Casenave, J. (1999b). « Le livre en langue basque durant l'entre-deux-guerres ». *Lapurdum* 4 http://lapurdum.revues.org/1532 [2016-05-21]

80 Casenave, J. (1999b). « Le livre en langue basque durant l'entre-deux-guerres », *Lapurdum* [Linean], 4 | 1999, Sarean emana---an 01 avril 2010, kontsultatu 29 octobre 2011. URL : http://lapurdum.revues.org/1532

1.4. Beribilezen kritikek esana

Atal honetan asmoa da kritikak orain arte aipatutakoa galbahetzea eta osatzea, *Beribilez* patxadatsuago nola irakurri proposatu baino lehen. Aurrera eginez, 1931tik eta hona kritikak esan duena jasoko dugu, kritikariek adierazitakoari kronologikoki jarraituta. Nabarmentzen dira Piarres Lafitteren lanak, geroago, Piarres Xarritonenak eta, azkenik, oraintsukoak diren Jon Casenaverenak.

Oro har, aurkezpen hau da *Beribilez*en karietara gaurko egoera zein den marrazteko ahalegina, kritikak egin duen ibilbidean. Zertzelada horiek jaso ostean, marraztu nahi da zein izan daitekeen ikerketa berriek har dezaketen norabidea. Norabide posible horietako batzuk urratuko dira tesi honetan.

*Beribilez*ek jaso duen kritika denaz bezanbatean, ahalegina egingo da iritzi arrazoitua ematen kontraesankorrak suerta daitezkeen baieztapenen aurrean, hala badagokio; posiblea den neurrian, objektibotasunetik hurbilagoko diskurtsoa etorriko ahal da, metodologia zehatzarekin *Beribilez*en ikerketa pausatuagoa egin ostean! Horretara, geroko emaitzen argiaren zain geratuko dira ikerlanaren hasierako asmo ausart hauek.

Idazlan baten ideologia aztertzea denean jomuga, espero izatekoa da aipatzea ideologia hori zurkaizten handik eta hemendik parte hartu duten autore edo autoritateen izenak. Izan ere, kritikak autoreok ezinbestean aipatu ditu; hala ere, kritikarien esanak biltzeko azpiatal honetan, ez da aurkituko inoren pentsabiderik azalpenik, beherago ekingo baitzaio eginkizun horri.

Atal honetan, liburuaren kritikak jasoko ditugu, zuzen-zuzenean dagozkiolako lan honetako helburuei –*Beribilez* aztertzea-, baina zilegi bekio ikertzaileari Jean Etxepare idazlearen obra osotasunean besarkatzen duten iruzkinak ere jasotzea, baldin eta horietan medikuaren bigarren liburuarekin lot daitezkeen esanak badira, horrela gertatzen baita maiz kritikarien oharrak errepasatzean.

1.4.1. “Maître à écrire”

Lehen iruzkingileetakoa dugu Lafitte; harena da laguna eta maisu aitortua zuen Jean Etxepareren lehen soslaia[81]. Piarres Lafittek lehen eskuko datuak eman zituen, hura bertatik bertara ezagutzeko beta izan baitzuen. Areago, *Buruxkak* idazlearen lehen liburuaren argitaraldi bat paratu zuen, bi idazki “ausartez” arindua 1941ean.

Beharrezkoa da Lafittek Jean Etxepareri buruz esandakoak jarraitzea, *Beribilez* orduko giro intelektualean hobeto kokatu ahal izateko. Piarres Lafittek Jean Etxepare idazteko maisutzat aitortzen du (*maître à écrire*), Mathieu monsinorea (1882-1951) pentsatzeko maisutzat (*maître à penser*) daukan bezala. Adierazgarria da: idazle agnostikoarenganako errekonozimendua ez dator, haatik, aldibereko aitortzarik gabe monsinore tomistarengana. Hobeto esan, Mathieu neotomista zen, eta euskaltzalea.

Beste une batean, Piarres Lafittek dio Etxepare saiatu zela euskal jendartea anitz jakintza-gai modernoz interesa zedin: kosmologia kontuez, esate baterako, *Beribilez*eko “ziliporta”-ren pasarte ezagunean. Idazleak dio, Loiolako inguru fisikoari so dagoela: “Jakintsu hanitzek baitiote Lurra ez dela Iguzkiak noizbait airez-aire aurdiki ziliporta bat baizik, hastapenean su zarionetik emeki-emeki hoztua”[82] Piarres Lafittek erantzuten du: “notre contemplatif ne sait à qui attribuer l´origine de la Vie sur la terre”[83], ez baitzen alferrik garai hartako apaiza. Batzuentzat zientzia dena, materialismoa izan liteke beste batzuentzat, halakotzat kalifikatu baita urte asko geroago ere[84]. Garaiak zakarrak ziren: tomistak eta positibistak elkarri mokoka zebiltzan, azkar batean esateko.

---

81 Lafitte, P. (1932). “Notre maître M. le Dr. Etchepare”. *Gure Herria* XII.

82 *Etxepare, Aldudeko medikua Bilbo Euskaltzaindia : Universidad del País Vasco : Euskal Herriko Unibertsitatea Pasarte hori zabalago komentatu da erreferentzia honetan: 5. atala: “Ziliportarena”. 201-236 or.* Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2016-05-21]. Pasarte hori zabalago komentatu da pasarte honetan: 5. atala “Ziliportarena”, 201-236 or.

83 Lafitte, P. (1932). “Notre maître M. le Dr. Etchepare”. *Gure Herria* XII. 263 or.

84 Xarriton, P. (1986b). “Les idées philosophiques et religieuses de Pierre Lafitte” in: *Hommage a Pierre Lafitte. Bulletin du Musée Basque* 113 et 114. 3e eta 4e trimestres. 139-151 or. 145 or.

Eta kosmologiaz bezala, beste hainbat jakintza-gai ordura arte ezohikoz jardun zen Jean Etxepare. Lortu zuen erakustea euskara eginkizun jasoetarako gai zela idazkera-praktikaren bitartez, eta teoria handirik gabe, idazlearen artikuluetan irakur daitekeen moduan.

Piarres Lafittek deitoratu egiten ditu *Buruxkak* liburuan erantsitako bi atal polemika-sortzaileak, Jean Etxepareri buruzko 1932ko artikulu aipatu berrian. Atalok Elizari historikoki minberak izan zaizkion bi behaztopa-harriren sailekoak ziren: maitasunaren alderdi sexualaren gaia, eta irakaskuntza konfesionalarena. Medikuaren ikuspegiak ez ziren zehatz ortodoxoak, Elizaren tutoretzapeko euskal barnealde geografiko hartan. Azkenean, Piarres Lafittek artikuluan *Beribilez* liburuaren sinopsia dakar iragaitzazko zenbait oharrekin, zeini lotuko baikatzaizkie.

Loiolako bisitan, *Beribilez*eko protagonistak gogoratzen du bertan gazte-sasoian ezagututako *apezño* bat, Ignazioren etxea deskribatzen duenean. Ametsetako apaiz irudikatu horrek barne-solasean laguntzen dio narratzaileari. Ignazioren oinetan dagoen iturria deskribatzean, apaizñoa hotz geratzen da narratzaileak bertako urak mirakulurik egin ote duen galdetzen dionean: pasartea jarrera kritikoaren erakuslea da sineskerien aurrean. Piarres Lafittek dio, narratzailearen fikzio-jolasari men eginez, apaizñoa "fort positif" dela, Ignazioren etxearen aberastasun haiek garai bateko familia-egoitzaren xumetasuna ordezkatu dutela azpimarratzean.

Segidan, josulagun misteriotsuak eztabaidatu egiten du narratzailearekin Ignazioren aiurria: ea ote den adimen handikoa ala bertutetsua, ala zer. Apaizak bertutea soilik onartzen dio Ignaziori, narratzaileak adimena ere onartzen diola. Piarres Lafitteren bazterreko arrapostua *Gure Herria*ko sinopsian: "Nous souhaitons sincèrement la conversion de ce jésuite".

Lafitteren eta Etxepareren arteko harremanak hizpide, zilegi bedi tarteki bat txertatzea segidan. Gaurko ikuspegitik, deigarria da "egiaren aldeko amorio bizi hori[85], protagonista bion aldetik. Ezin zuten eraman aniztasuna aurkariek, historiaren urak nahastuta baitzetozen Elizaren eta estatuaren arteko harremanetan Frantzian, eta Espainian ere bai; badirudi tolerantzia-gabeziaren piurak direla, egungo testuinguruan ez bailirudike hain baitezpadakoa inor inoren

85 Horrela erretratatzen du Jean Etxeparek bere nortasuna in: Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: J. A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or.

arrastora erakarri beharra gai horien inguruan, are gutxiago behartzea, bi jarrerok elkarren ondoan bizi baitaitezke. Egiaren inguruko istilu honek sekulako garrantzia zeukan haientzako, eta idazleak bizitzan zehar jokabide desberdinak izango zituen, gizarte gatazkatsuari egokitzearren, jarrera modulatuz.

Idazle heldua eszeptikoa da egia nonahi eta beti agertzearen balioaz, gaztetan ez bezala, 1931ko urriaren 27ko idatzitako gutunean Piarres Lafitteri ziotsonez. Isiltasuna ederragoa zaio orain, eta are ederragoa "sinesteen araberalat zuhurtzian bizitzea". Horrek isla izango du *Beribilez*eko poetikan, autorearen arabera. Guztiarekin ere, Piarres Lafittek gogotsu goraipatzen du *Beribilez*:

> "Nous espérons que nul bascophile sérieux n´omettra de placer le beau livre de M. le Docteur Etchepare dans sa bibliothèque, au rayon des œuvres préférées, et que tous les écrivains y chercheront des formules modèles. Nous le disons en vérité. *Beribilez* est un ouvrage dont les amis de notre culture euskarienne parleront toujours"[86].

Hizkeraz aparte, honela dio Lafittek *Beribilez*en Garroko familiaren azken oinordekoak[87] irizpide gastronomikoak azaltzen dituen orrialdeei buruz:

> "au cours d´une conversation pleine de charmes, M. le Dr. Etchepare rappelle l´origine navarraise de la famille de Garro et expose les principes gastronomiques du dernier représentant de cette noble race. (Pages délicieuses que l´on voudra relire)"[88].

Gainerakoan, Piarres Lafittek liburuko lexikoaren eta sintaxiaren aberastasuna aipatuko du.

---

86 Lafitte, P. (1932). "Notre maître M. le Dr. Etchepare". *Gure Herria* XII. 263 or.

87 Garroko familiari buruz datu historikoak eta onomastikoak daude Jean B. Orpustanen artikulu honetan, Jean Etxepare ere hizpidean dagoela: "Garro: un nom dans l'histoire (Conférence prononcée au château de Garro à Mendionde le 28 octobre 1989)." http://mendionde.fr.gd/Le-nom-de-Garro-_-Garroko-izena.htm [2014-10-23]

88 Lafitte, P. (1932). "Notre maître M. le Dr. Etchepare". *Gure Herria* XII. 262 or.

1.4.2. Pozoina

Baina berrekin diezaiogun *Beribilez*en inguruko iruzkinak jasotzeari. Luis Villasantek honela dio aunitz urtez kanonikoa izan den *Historia de la literatura vasca* lanean:

> "Aunque de apariencia inocente, si se repara un poco, también tiene su veneno. Una de las escalas de los viajeros fue la visita al Santuario de Loyola. Aquí introduce el autor a un jesuita que les habla contra los santos y contra San Ignacio"[89].

Horrelako kalifikazioak gorabehera, aurrera joan orduko badirudi horrelako balorazio erabatekoak kontrastatu behar direla *Beribilez* bertatik atera daitezkeen beste kontrako datu batzuekin. Irakurri horren kariaz honako pasarte hau:

> "Laster itzuliak gira athe-aitzinerat. Mailadiaren hegian xutik elgar hunkitzen dugula, bagaude ittan bat Azpeitiaraino luzatzen den planaderari so. Zer ordoki ederra, erregebide leun beltz zabalak hausten duela erditsutarik! Zer xoko maitagarria Eskualdunentzat! Beren hauturala lerro-lerro ibil ditazke hemen, herritar saindua othoiztuz, kantatuz bi bulharrez haren laudorioak. Gizon guti izan da lurraren gainean harek bezenbat eta halako kharrarekin gizoner Jainkoaren hitza ezagutarazi nahi ukan duenik; guti, harek bezalako sua piztu duenik laguntzara bildu zituenen bihotzetan; guti, halako lanak lurreko eskualde guzietan eginarazi dituenik bere xedeen arabera; nehor ez, bera bizi zeno bere erakaspenez langile bat argitu eta indartu duen nausirik, nola baitzuen egin harek bertze eskualdun bat: San Frances Javierekoa. Bi sainduen alderako beila-toki da, geroztik, Loiola eskualdunentzat.
>
> Gozo zaizkigu gogoeta horiek, San Ignazioren sor-etxeko komentu-aitzinean"[90].

Bistan da, autorearen jarrera konplexuagoa da kritikari batzuek ikusi dutena baino. Behinik behin, gaur egungo testuinguruan horrelako kritika-balioespen arbuiatzaileek gehiegizkoak dirudite. Ildo horretatik saiatuko gara idazlearen ideologia xeheago zedarritzen.

---

89 Villasante, L. (1979). *Historia de la literatura vasca*. Burgos. Editorial Aranzazu. 307 or.

90 *B.* 68 or. *Beribilez*eko aipuak *B.* + orrialdearen zkia. konbentzioarekin emango dura.

Tarteka badira orduko beste kritikari batzuk ere *Beribilez* aipatu dutenak, baina ekarpen iraunkorrik gabe. Horietarik dugu, besteak beste, Bernardo Estornés Lasa *Auñamendi Entziklopedia* lan eskerga baliotsuan [91].

1.4.3. Positibismo erasokorra

Jean Etxepareren eta Piarres Lafitteren arteko eztabaidez aritu zen Piarres Xarriton. Izan ere, Xarriton Jean Etxepare medikuaren idazlanen bilduma argitaratzen hasi zen 1984an, bildumaren liburukietako batzuk hitzaurre jakingarriz hornituta; orduz geroztik, ugaritu egin dira Jean Etxepareren gaineko lanak. 1986an, Xarritonek idazlearen bizitzaren azken aldiko kezkak jaso ditu, eta haren ibilbide literarioaren nondik norako batzuk utzi dizkigu:

> "Une autre forme de matérialisme s´était déjà présentée, chez l´écrivain basque que Piarres Lafitte a sans doute le plus admiré, le docte Jean Etchepare, sous les aspects d´un positivisme agressif, dans "Buruchkak" en 1910 et puis, à travers un discours plus subtil, dans "Beribilez" en 1931. Malgré l´admiration et le respect qu´il portait à l´homme et à l´écrivain le professeur du Petit Séminaire d´Ustaritz ne pouvait s´accommoder de sa philosophie. Il le lui dit après la publication de "Beribilez" et dès ce jour les deux hommes se rencontrèrent régulièrement, tous les quinze jours, à la demande du docteur, jusqu´au décès de ce dernier, en 1935, pour discuter philosophie. Nous ne saurons jamais la forme précise que prirent ces conversations-confrontations. Nous devinons cependant que le docteur Etchepare attendait de l´abbé Lafitte qu´il fit,

---

91 Bernardo Estornés Lasak *Auñamendi Entziklopedia*n eginiko beste iruzkin bat ere, hona: kritikariak idazten utzi bide dizkio eskuari datu zehatzek uzten duten baino baieztapen biribilagorik. Irakurri, bestela: "Movilizado en la guerra de 1914, los sufrimientos y los acontecimientos inhumanos de la misma, quiebran en gran parte su viejo prejuicio antirreligioso tornándose de nuevo hacia sus sentimientos de antaño. Pero queda el rescoldo de la experiencia sufrida. Todavía, su reportaje automovilístico *Beribilez* deja ver a un jesuita de Loyola mofándose de los santos y en particular de San Ignacio. Fuera de esto, su abnegación y caridad de auténtico cuño cristiano le imprimía, por otra parte, cierto rasgo fuerte en su compleja personalidad" "Jean Detchepare (1877-1931)" in: *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco* Auñamendi. Villasanteren *Historia*ren oihartzuna dirudi, baina gogo-egoera baten adierazgarria da. Kritika erabat moralaren arlokoa da, ez hori bakarrik, ikuspuntu moral jakin batetik eman da argi eta garbi. Kritika modu honek galderak pizten ditu balioek literaturaren historian izan beharreko lekuaz. Hala ere, badirudi literaturaren ikerketak normatiboa izan behar duela (Jouve, V. (2010). *Pourquoi étudier la littérature*? Paris. Armand Colin).

de son point de vue philosophique, la critique de la philosophie analytique de Hans Reichenbach (1881-1953) dont l´aspect scientifique le séduisait personnellement"[92].

Materialismoari eta positibismoari dagokienez, *Buruxkak*eko pasarteak "positibismo erasokor" gisa kalifikatzea 1986 bezalako urte batean harrigarria dirudi, inongo indarkeria hitzezkorik gabeko diskurtso batzuk aipagai direnean: berbazko gizalegea une oro errespetatzen dute. Hitz iraingarri bakar bat nekez aurki daiteke, eta egiten diren aukerak zilegiak dirudite, ados egon ala ez. Hala ere, badirudi gaur egun ere (2015) eta zoritxarrez, Iparraldeko gizartean urak ez direla erabat baretu aipagai ditugun auzi hauen inguruan, zenbait iritziri kasu egitekotan.

Izan daiteke idazleak batzuetan erlijioaren kontuan darabilen azaleko koherentziarik eza, adibidez, Hans Reichenbachen premisen ondorioz izatea. Reichenbachen arabera, egia probabilistikoa zaigunez, dogmarik ez dago: egin dezagun *alegia eta* (*als ob,* alemanez): ingurukoari hobeki helduko diogu, buruhauste antzu gehiagorik bildu gabe zernahi egia ala gezurra ote den kontuarekin. Horrela esplikatuko litzateke, agian, *Beribilez* idazki berean, aldiz, fedearen "alde", aldiz, "kontra" idaztea.

Hans Reichenbachi dagokionez, ikerketa honek asmoa dauka begiratzeko ea zientzia-filosofoaren proposamen-aztarnarik suma ote daitekeen *Beribilez*en. Bereziki, euskal ohiturei moldatzeko ahalegina gogoan, kontuan izanik medikuaren nortasuna bezalakoak urri eta bitxiak zirela, alegia, giro hartan moldatze-ariketa berezia egin behar zutela.

Bestetik, Loiolakoan, Ignazioren etxea aberats agerrarazteko jesuiten asmoaren kritika egin liteke txirotasun ebanjelikoaren izenean ere, eta ez derrigorrez ikuspegi positibista batetik, alegia, errealitate historikoa faltsutzea deitoratzen duen filosofia horretatik. Ignazioren jatorrizko etxea askoz apalagoa zen, Loiolako erakusleihoak sinestarazi nahi duena baino 1930 inguruan. Baina horiek beheragoko kontuak dira ikerlan honetan.

*Beribilez*ek sotilki aldezten du idazlea bera bezalako ikusliar "batzuek"[93] behar ez izatea apaingarri aberatsen bitartekaritza limurtzailea Loiolako mezu izpirituala jasotzeko, baina gutxiren helmenean baino ez dagoen aukera izan.

---

92 Xarriton, P. (1986b). "Les idées philosophiques et religieuses de Pierre Lafitte" in: *Hommage a Pierre Lafitte. Bulletin du Musée Basque* 113 et 114. 3e eta 4e trimestres. 139-151 or. 145 or.

93 *Beribilez*eko izenorde zehazgabea Ignazioren etxeko bisita-amaieran aipatua.

1.4.4. Konbentzionalismoa

Maria Jose Kerejetaren ustez, *Beribilez* "hiztegiaz eta sintaxiaz lekora, bere [Jean Etxepareren] literatur apustuaren mailarik beherenean aurkitzen da"[94]. Haren ustez, bidaia-liburuan gertaerak "tonu lau eta deskriptibo hutsean" kontatzen dira:

> "Idazlan honetan [*Beribilez*] agertzen den ikuspegi pertsonalak, aipatu denaz gain, bortizki nabarmentzen diren zenbait ezaugarri ditu –hainbateraino non konbentzionaltasunera iristen baitira- hala nola katolikotasun kutsu ageria, bere gaztaroko artikuluren bateko jarreratik urrun xamar geratzen dena, edota bere abertzaletasun nabarmen eta tradizio zaharren gordetzailea"[95].

Azter dezagun zer izan ziren gaztaroko jarrera horiek *Beribilez*eko aurrekariak ezagutzeko. Jakina denez, Jean Etxeparek arazoak izan zituen 1931n *Beribilez* agertu orduko, erlijioari "sista"[96] batzuk emateagatik, amodioa dela eta, apaizen irakaskuntza dela eta, beste adierazpen ironiko edo agnostiko batzuk direla eta. Hona hemen gizarte-arau horretatik desbideratze horiek agertzen diren idazkien zerrenda bat:

- "Misionestaren ezteiak", "Sainduen arrangurak", "Amodioa", "Nor irakasle-Zer irakats", "Egiaren hiru itxurak" eta "Mediku xaharren solasak" izeneko *Buruxkak*eko idazkiak[97];
- herri bateko jaietan entzundako irrintzia gordinki deskribatzea[98];
- Jesukristoren figuraren gutxiespen nietzschear soltea[99];

---

94 Kerejeta, M. Jean (1987). "Jean Etchepare" izeneko hitzaurrea in: Etxepare, Jean *Beribilez*, Euskal Idazleen Elkartea. 23 or.

95 Kerejeta, M. Jean (1987). "Jean Etchepare" in: Etxepare, Jean *Beribilez*, Euskal Idazleen Elkartea. 21-30 or., 23 or.

96 "sista": Jean Etxeparek 1931ko urriaren 27an darabilen hitza P Lafitteri idatziriko gutunean.

97 *Buruxkak*eko "ohar ausart eta perpaus lerrakor"-en inbentario bat hemen: Xarriton, P. (1991a). "Jean Etchepareren euskal lanak" in: *Hegats* 4 Ekaina. 31-44 or. 36 or.

98 Casenave, Jean (1997a). «L'irrintzina: de la valeur emblématique à la désaffection », *Lapurdum* [Linean], 2 | 1997, Sarean emana---an 01 septembre 2010, kontsultatu 29 octobre 2011. URL : http://lapurdum.revues.org/1802

99 "Galileako zurgin-seme pedoilarena" adierazpideaz hemen irakur daiteke: Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf. 78 or. eta hurr. [2017-12-15]

- Bada ere Leon Pradet-Balade jaun diputatuaren "saindutasun" berriaz trufa-musika Jean Hiriart-Urruti apaizari "demendren irri egiteko gutiziarik" eman etziona[100].

Ez askoz gehiagorik, kontuan izanik haren produkzioaren munta, hau da, 2000 orri inguru Piarres Xarritonek argitaratuak 1984tik 1996ra, gehi bi liburuak, gehi "Behin Makean" kontakizuna[101]. Zerrendatik kanpo utzi dira idazleak aitarekin izan zitzakeen gorabehera familiarrak, adibidez, semeak aitaren larderia gehiegizkoa aipatzean *Buruxkak*eko haur-oroitzapeneko atal batean. Ditugun datuen arabera, aitak debekatu bide zion lehen liburu hori publikoki zabaltzea, jadanik semeak bere kontura inprimatuta bazuen ere, jakina denez.

Bestetik, Maria Jose Kerejetak berdindu egiten ditu Hegoaldeko abertzaletasun erruralista (jeltzalea) eta *Beribilez*en agertzen dena, Jon Juaristiren aipu baten harira. Aipuko abertzaletasun erruralista horrek "seguía viendo en la industrialización un fenómeno espúreo y en el mundo campesino, la reserva de las esencias incontaminadas del auténtico pueblo vasco"[102].

Erruralismoaren eta aurrerakuntzaren inguruan, ñabartuta aztertuko dugu Jean Etxepare helduak haietaz zukeen ikuspegi gazi-geza. Erruralismoaren gai hori hizpide, egokia da orrialdeotara ekartzea Jean Etxeparez gehien arduratu den ikertzaileetako baten iritzia. Honela dio Piarres Xarritonek:

> "Lafitteren ustez euskararen aldetik gure maisua zen Etxepare. Nahi zuen obratu Lizardiren ametsa: "Behar dugu orotarako euskara". Baina Etxepare, "orotarako" erraiten duelarik, nekazari eta arrantzale munduari buruz ari zen. Medikua zen baina laborari-semea, lur-gizona, hara zergatik munduak geroztik egin duen itzuliarekin haren lana berrikusteko den. Bere idatzietan ikusten da ere ez dela abertzale: "Nire aberria Frantzia da". Euskal Herria txikia baita izateko aberri bat. Inguramenean, euskaltzaleen artean, errespetu handiz hartua zen eta miretsia. Nire ustez izan dugun intelektual

---

100 Diputatuaren pasarteaz hemen aurki liteke: Xarriton, P. (1988). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. III kazetaritza (A) (1916-1935).* Donostia. Elkar. 99 or., eta 121 orrialdeko P. Xarritonen oin-oharra.

101 Etxepare, Jean (2006). "Behin Makean" in: Altonaga, K. *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. 295-297 or.

102 Juaristi, Jean (1987). *Literatura vasca*. Madrid. Taurus. 100 or.

bakarretarik izan da Etxepare. Politikan baino gehiago metafisikan. Norbait dugu, kategoria duena”[103].

Zehaztu beharko litzateke erruralismoaren kontu hori zer den. *Eskualduna* kazetan bertan baziren ahaleginak nekazaritzaren aurrerakuntzaren alde, zen bezain elizkoia eta zuria izanik ere. Arnaud Abadia apaizak sail bat plazaratzen zuen agronomiako zerez[104].

Maria Jose Kerexetaren hitzetan, ez dago *Beribilez*en Jean Etxepareri beste izkribu batzuetan ezagun zaion “maila intelektual jasorik”, eta “bere belaunaldiko gehiengoarena bezala nostalgiku, menditar usaineko eta ingenuo xamarra gertatzen da”. Pintoreskismoa egozten dio. Donostiako deskribapen literarioa denaz bezainbatean, konparatzen du Ernest Hemingway-ren *Fiesta* (1926) eleberriak dakarren ikuspegi kosmopolita *Beribilez*eko harekin.

Erruralismoaren gorabeheran, areago funtsatzen saiatuko gara ezin direla idazle honen landa-zaletasuna eta haren garaikideenak parekatu: areago, ez baitu kritikak alferrik azpimarratu idazle honen jokabide proaktiboa garai hartako euskal gizarteak zituen erronken aurrean, industriarena barne, *Beribilez*eko datuak kontuan baditugu[105]. *Beribilez*en errealismo eta naturalismo zantzuak agertzea ere sintomatikoa da norabide horretan, ahaztu gabe kostunbrismoak ez zuen asmo politiko-ideologiko bat gauzatzen duela *Beribilez*ek, adibidez, euskal historiaren trataeran, besteak beste, eskenatokiaren atalean aztertzekoa den bezala.

Beribilez ikusten du Maria Jose Kerejetak Prosper de Mérimée-ren *Carmen* (1845) liburuko ikuspegi erromantikotik hurbilago. *Carmen* Espainian zehar egindako bidaia-oroitzapenekin egina dago, eta protagonista nagusi batzuk euskaldunak ditu: Don Jose Lizarrabengoa kristau zahar leinargi-agiriduna, eta beste.

Kerejetak aipatzen du, idazlearen bigarren liburuan, *Buruxkak* (1910) lehen liburuan ez zegoen konbentzionalismoa:

---

103 Murua, I. (1996). “Piarres Xarritoni elkarrizketa”. *Jakin* 97 85-134 or. 125 or.

104 Altonaga, K. (2009b). *Arnaud Abadia “Sathorra”* IRALE-Dolaretxen emaniko hitzaldia [2009-III-18]. [DVD argitaragabea].

105 Irakurri “Conclusion” in: Casenave, Jean (1997b). *De l´article de presse à l´essai litteraire:* Buruchkak (1910) de *Jean Etchepare*. Thèse de Doctorat. Université Michel de Montaigne- Bordeaux III. 656 pp.

"katolikotasun kutsu ageria, bere gaztaroko artikuluren bateko jarreratik urrun xamar geratzen dena, edota bere abertzaletasun nabarmen eta tradizio zaharren gordetzailea"[106].

Jean Etxepareren abertzaletasuna dela eta, interpretazioak ez datoz bat; hain zuzen, nabarmentasun horren harira Piarres Xarriton gogoratu daiteke, ez baitu uste idazlea abertzalea denik, txikiegitzat daukalakoan Euskal Herria (Frantziakoa). Esan daiteke Jean Etxepareren gogoan badela paneuskaltasun moduko bat, Daniel-Henry Pageuxren sailkapenari jarraiki, euskaldunak ez direnak arrotzak baitira, adibidez, Loiolako pasartean.

Kontuan hartzekoa izan daiteke, era berean, *Beribilez*eko bidaiak duen munta Euskal Herria (nazio-)identitate batez hornitzeko bidean. Badirudi hori dela Jean Etxepareren asmo nagusietako bat liburu hau sortzean, Euskal Herriko leku gogoangarrietako batzuk oroitaraziz irakurleari. Frantzian bada bide luzea egin duen historia-liburua, ildo honetatik diharduena: *Les lieux de la mémoire*, zein Frantziako nortasuna osatzen duten elementuen bilduma bat baita, Jean Etxeparek aipatzen dituen Frantziako "oroimen-leku" batzuk hor direlarik testuinguru frantsesari begira beti, dudarik gabe (Vichy, Probentza, Chartres, Comminges...).

Lan honetan saiatuko gara, bestalde, gaztarotik helduarorako biraketa intelektualaren nondik norakoak testuan bilatzen eta agertzen, eta nola azal daitezkeen arrazoitzen.

Iritzi kritikoa ematekotan, esan daiteke garaiarekin bizi zen pentsalaria dela argi eta garbi, Jean Etxepareren idazlan guztiak aintzat hartuta. Inguru hurbilean ez zuen ezagutu industriarik eta Gipuzkoara doanean inpresionatuta dago han iraultza horren balizko ondorioez, euskaldunen nortasunari begira. Bilbora Resurreción María Azkue bisitatzera doan batean ere, miretsita, positiboki miretsita, geratuko da bertako Ibaizabal errekako dinamismoaz. Jarrera horrek ez dauka zer ikusirik Txomin Agirre batek izan zezakeen gaitzespeneko deskribapen eta ebaluazio arbuiatzaileekin.

Lehen sektoreko errealitatea Euskal Herriaren iragan hurbila da, unaiak eta pioneroak AEBko historiaren zati diren bezala, aproposak baitira balio amerikar batzuk bultzatzeko. Bernardo Atxagak ere hasierako arrakasta landa-inguruko mundu sortuberri bati zor dio, *Obabakoak*.

---

106 Kerejeta, M. Jean (1987). "Jean Etchepare" in: Etxepare, Jean *Beribilez*, Euskal Idazleen Elkartea. 23 or.

Alta, esan dugun bezala medikua ez da hirigune industrializatuan bizi; baina, irekita dago era guztietako informazioak eta esperientziak jasotzera, ingurune nekazaritik eta turistikotik abiatuta. Nekazaritza bera ere ikuspuntu industrial batetik kontenplatzen du. Hemen ez da "ogi-landaren inguruan dagoen hesia"-ren euskararen metafora-ideologiarik, alegia, idazle erlijioso batzuek nahi zuten moduan euskara izatea herri nekazaria sekularizaziotik begiratuko duen bitartekoa, gotorleku baten barnean bezala.

Jean Barbierren *Piarres I* (1926) eleberriko nekazal giroak isurtzen duen etnografia-museoko zaharkin-usain hori nekez topa daiteke *Beribilez*en. Kezka du, memento batean, nola hobetu baserrietan izan ohi den eriaren gela higiene oinarrizkoaren arabera. Ez da geldi egolea, aurrerakoia baizik, herriaren egoera hobetu nahi du, etengabe; haren berezitasuna da zientziaren, teknologiaren, ekonomiaren, kudeaketaren eta beste jakintzen argiak landa-ingurunearen problematikari egokitu behar dizkiola.

Baina Jean Barbier goraipatu egiten du *Beribilez*ek, eta Txomin Agirre, eta Zaldubi. Zehatzago, Txomin Agirre laudatzen du emakumeen nortasuna hezteko proposatzen duenagatik *Auñamendiko lorea* liburuan.

Konbentzionalismoaren hari beretik, emakumeen ikuspegia, maiz, nahiko txotxoloa da *Beribilez* bertako autoko bidaia-kideei bagagozkie, behinik behin. Baina, maiz, lekukotasuna ematen ari da soilik, ez da pontifikatzen ari, salbu eta dioenean, adibidez, emakumeak ama izateko prezatzen dituela Loiolako bisitaren pasarte batean, eta antzeko une urrietan. Sakonago aztertu beharrekoa da andreen puntu hori geroko eginkizunean, kontuan hartuz, besteak beste, euskal jaien deskribapenak eta bertako neska-mutilen arteko harremanak.

Edonola ere, aurreratzen ditugun aieru hauek ikerketa pausatuak eskain ditzakeen emaitzekin alderatu beharra dago.

1.4.5. Zientismoa

Baina kritikari guztiak ez datoz bat Mari Jose Kerejetaren ebaluazioarekin. *Beribilez*en balio literarioaren gorabeheran, Piarres Xarritonek ere parte hartu zuen geroago[107]. Kritikari horren arabera, Jean Etxeparek 1927-35 urteen bitarteko gutunetan agertzen duen iritzi saldoa ez dator bat Maria Jose Kerejetak esandakoekin, hain zuzen, idazlearen katolikotasunari eta abertzaletasunari buruz.

1991n, Piarres Xarritonek "maisu"-tzat zeukan Jean Etxepareren beste soslai bat egin zuen[108]. Soslai horretan, azpimarratzen ditu idazlearen zientzia-zaletasuna, eta haren pedagogia zientifiko hainbat alor jorratutakoa idazlanen bitartez: ekonomia, zientzia, geografia, anatomia, euskara… Are gehiago, mediku gisa sekulako interesa zuen sendagailu eta senda-teknika berriak ezagutzeko. Hainbesterako non Piarres Lafittek zioen "apaizgoa" zitzaiola medikuntza[109]. *Abnégation* hitza ere aipatua da frantsesez, medikuaren bertutea goraipatzeko.

Piarres Xarritonek aipatzen du: Bordeleko unibertsitatean eta Jean Etxepareren garaian medikuntza-ikasleek jaso ohi zuten Claude Bernard (1813-1878) medikuak idatzitako *Introduction à la médicine expérimentale* bidezko heziketa. Heziketa horrek sortuko bide zion esperientziaren irakaspenekiko interesa, liburuen esanen gainetik[110].

Piarres Xarritonek Jean Etxepareren jokabide zientista aipatzen du, labur bada ere. Esana dator Hans Reichenbachen zalea izan zela, bizitzaren azken urteetan. Jakina denez, gaur egun Vienaren zirkuluko zientismoaren ibilbidea amaituta dago, jadanik. Hori azpimarratzen du Piarres Xarritonek, *zientzia-zalekeria* deitura gutxiesgarria ezarrita. Zientismoak erabateko zalantzapean jartzen du zientziaz kanpoko jakintzaren balioa.

---

107 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Jean A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia.

108 Xarriton, P. (1991a). "Jean Etchepareren euskal lanak" in: *Hegats* 4 Ekaina. 42 or.

109 Lafitte, P. (1941). "Jean Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas" in: *Buruxkak*, Jean Etxepare. (1980). Elkar.

110 Jean Etxeparek Georges Lacomberi aipatzen dio gutun batean: Claude Bernard (1865), *Introduction à l´étude de la médecine expérimentale* ("Lettres du docteur Etchepare à Georges Lacombe"). Ikus Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 229 or.

Behinik behin, ez dirudi aburu zientista duenik beti *Beribilez*eko narratzaileak, bere burua balizko "Olerkiaren tenplo" baten, greziarren jakituria etikoaren eta antzekoen aldezkari sutsu aurkezten duenez geroztik. Ordea, badirudi humanismoaren bidetik jotzen duela, aldi berean, nahiz eta jokabide zientzia-zalea izan askotan haren testuak idazkiz idazki irakurrita, baina zientziazalekeriarik ba ote dagoen astiroago aztertu beharko da segidako orrialdeetan. Modu orokor batean eta ikertzailearentzat ernagarria den modu batez, Piarres Xarritonek hau dio, *Beribilez* liburuaz ari dela:

> "Hor dugu ezen azken urteetan Etxeparek idatzi *Beribilez* liburu aberatsa, gaur egun oraino irakurle askok batere ulertzen ez duena"[111].

Liburu horretan islatuta omen dago idazleak "bere bizi guztian, gainditu ezin izan duen fedearen eta zientziaren arteko arazo konponezina"[112].

1.4.6. Literatur balioa

*Beribilez*en balio literarioari buruzko eztabaidaz ari garela, aipa daiteke Jean Baptiste Orpustanen iritzia ere. Hona nola deskribatzen duen Loiolan autozaleek egiten duten bisita: "Toute la visite est, de ce point de vue, l´un des sommets de l´art du docteur Etchepare, et, sans doute, de la prose basque"[113].

Hala ere, esan behar da liburu aipagarriak direnaz bezainbatean, ez direla beti urteen harian iraunkorrak izan euskaltzaleen artean banatzen izan ziren laudorioak. Gogoratu, bestela, Jean Etxeparek Jean Barbierren *Piarres* izenburuko liburuki biei eginiko laudorioa:

> "edozoin estakuru orai eta gero atzeman dezotegun Barbieren liburuei nik eta bertzek, gelditzen direla bethierekotz une œuvre qui fait époque, un monument de la littérature basque, dépassant de beaucoup celui légué par Axular"[114].

---

111 Xarriton, P. (1991a). "Jean Etchepareren euskal lanak" in: *Hegats* 4 Ekaina. 42 or.

112 Xarriton, P. (1991a). "Jean Etchepareren euskal lanak" *Hegats* 4 Ekaina. 42 or.

113 Orpustan, Jean B. (1996). *Précis d´histoire littéraire basque 1545-1950*. Baigorri. Éditions Izpegi. 268 or.

114 Etxepare, Jean (1929). "Erantzuna". *Gure Herria*. Novembre-Décembre. 507 or.

Orain, aldiz, kritikariek irakurgai erraztzat dauzkate liburukiok, bestelako bertute berezirik aipatu gabe. Gaur egungo ikertzaile bat mintzo:

> "Bi tomotan eta hiru urtez bereizita argitaratutako Piarres eleberriarekin, Jean Barbier Senpereko erretoreak Txomin Agirreren eleberrien unibertso literario eta planteamendu ideologiko orokorrak ipar Euskal Herrian –Senperen– kokatu zituen. Ordura arte ipuingintzan –*Supazter xokoan* (1924)– eta bertsogintzan trebatua, idazkera atsegin bezain irakurterraza ohiturazko eleberriaren eskeman bete-betean sartzen den istorio baten zerbitzuan jarri zuen"[115].

Orpustanenak bezalako *Beribilez*en laudorio-pasarteek agertuko lukete liburua estimatua dela hizkuntzaren eta estiloaren aldetik duen jantzi ederragatik. Ikerlan honetan, aldiz, saiatuko gara ilustratzen idazlearen hitzak dioenean bere bigarren liburua "zaku barne handia" dela[116].

1.4.7. Pintoreskismoa

Amaia Iturbidek (1991) Jean Etxepareren estiloa aztertu zuen: hona zer dioen Jean Etxepareren modernotasunaren gorabeheran, labur: baserritar-mundu tradizional eta "polita" baino ez duela identifikatzen, eta mundu industrial itsusia alde batera uzten duela. Iturbidek lotzen du "*Beribilez*eko modernitate faltsua" idazlearen ustezko ideologia abertzalearekin; eta abertzaletasunarekin batera datozke pintoreskismoa eta topikotasuna[117].

Beste hitzez, Amaia Iturbidek dio Jean Etxeparek herriaren irudi idilikoa besterik ez duela eman nahi, eta, gainera, herri horren atal nekazariarena bakarrik. Alabaina, kontuan izan behar da *Beribilez* abuztuan eginiko aisia-bidaia dela. Era berean, ez dira falta gizarte-kritikako

---

115 Apalategi, U. (2014-10-28) "Jean Barbier. "*Piarres*. (1926-1929)". *Euskal Literaturaren Hiztegia* — Idazlanak. http://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=985 [2017-12-15]

116 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Jean A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or. 1932-VII-20ko gutuna. Irakurri "*Beribilez*: zaku barne handikoa" atala in: Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU.

117 Iturbide, A. (1991). "Jean Etchepareren idazkera". *Jakin* 64. 131 or.

zertzeladak hauen alderakoak: jesuitak, Donostiaren hazkunde urbanistikoa, euskara utzikeriaz galdu dutenak, frantximantak...

Jean Etxeparek badaki naturalismorik gordinena ere baliatzen kritikari honek egozten dion pintoreskismotik harago. Adibidez, "Behin Makean" kontakizunean, non nekazal giroa zeharo esperpentikoki irudikatzen den. Beste kasu baterako, *Buruxkak*eko pasartean, idazleak apaizgai baten martirio-guraria kritikatzen ere badaki, eta nahiz eta martiri-nahikoa etxalde euskaldun peto eta "on" batekoa izan ("Misionestaren ezteiak" artikulua).

Industrializazioari buruz irakur daiteke R. M. Azkueri 1910ean Bilbon egin zion bisita. Besteak beste, Bilbon darwinismo sozialaren erakusgarria ikusten du kaleko haurrak ingurumen gogorrera moldatzeko moduan –agian, Ernst Haeckelen ildokoa-. Klase-gatazka irudikatzeko, lantegien giroa deskribatzean:

> "Beti daniko gudu betierekoa, gauzek eta gure izaiteak berak hala dakartelakotz; gizonik zuhurrenek apur bat eta noizetik noizerat ezti baizik ez dezaketen gudua"[118].

Friedrich Nietzscheren betiereko itzuleraren zehar-aipamena dela ere izan daiteke: behinik behin, gizarte-aurrerakuntzarik ez du posible ikusten. Bilboz miretsita dago:

> "Nihun ez hainbertze lantegi, nihun halako esku-lanik; nihun ere ez, lurraren erraietan, daigun mendeari dagokion baitezpadakoagorik. Obren araberako argiak bazituzketela hango gizonek, nindagon atseginarekin. Adimenduz ala jakitatez, Euskal-Herriko hiri lehena behar zen izan Bilbo".

Jean Etxepareren figurak harrera eta ebaluazio kontraesankorrak sortzen ditu: konbentzionala da eta zientista; frantses-zalea eta abertzalea; topiko-zalea eta metafisikaren kontrako positibismoaren lantzailea.

Izan liteke kritikariek batzuetan izatea presa moduko bat, modernitatearen izenean idazleak marraren alde batean ala bestean sailkatzeko. Saiatuko gara erakusten idazle honen pentsamolde konplexua, euskal literaturaren bi aldiren artean. Aurrendaria izanik, ezin zaizkio eskatu azken modernitateko ezaugarriak izatea, aldiz, bai zenbait ezaugarri garaikideengandik bereizten dutenak, eta modernitatearen norabidean doazenak. Beharbada, euskal literatur lanak

---

118 Etxepare, J. (1920). "R. M. Azkue euskaltzainburu" in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar. Bilbori buruzko pasartea bereziki 190-193 or.

continuum batean kokatu beharko lirateke, bat-bateko etena irudikatu beharrean modernitatearen auzi honetan. Izan ere, bestalde, modernitatearen alorrean dena ez da urrea, eta Jean Etxeparek eginiko zenbait kritika iduriz atzerakoiak gaur ere baliagarriak izan daitezke ikuspegi postmaterialista batetik, horrelako balorazioak egiterik zilegia bada: gogoan dugu *Beribilez*eko Donostiako irudia.

Jean Etxepareren kritikak saiatu dira idazlea errekuperatzen modu batera eta bestera. Lafitte ahalegindu zen, eta gaur egun ere egiten da beste era batera, oraintsu ere saioren bat izan baita[119]. Idazlea interpretatzen da egunean eguneko bolada ideologiko-erlijiosoaren arabera, alderdi hauek edo besteak azpimarratuz, eta hautatu diren irizpideetara ekarriz. Idazle honek badu kapital sinboliko bat euskal literaturaren barruan, eta batzuek ez dute aukera alferrik galdu nahi.

Jean Etxepare Euskal Herriko giroan oraindik ere baden gatazka baten epizentroan dago. Arazoa da errekuperazio nahi horretan, galbahe jakin batetik pasaraziz idazkien inguruabarrak, hainbat alderdi ezkutuan geratzen direla, eta badirudi matematika dogmatiko baterako etsenplu gisa besterik ez dela kontuan hartzen idazlearen obra.

Agian, Jean Etxeparek gaur egun ere badu zer irakatsia, ikasia baino. Gure ustez, ezin zaio irakatsi idazleari hitz egiten papagaiari bezala, hari ezarriz norberaren hautuak, zilegiak noski, eta ados egon gintezkeenak -zergatik ez- baina bakoitzarenak, hots, ibilbide konplexu bat sinplifikatuta, testuingururik gabe batzuetan, Prokustoren ohean etzanaraziz.

Eta zer irakatsi hori Jean Etxepareren kasuan izan daiteke nork bere bilaketa (*quest*) autonomoa egiteko guraria, men egin gabe gizartean nagusi diren bloke ideologikoei, batekoei ala bestekoei. Bilaketa karakteristiko hori koherenteagoa izango da batzuetan besteetan baino, baina arduratsua da, eta ez du instituzio ideologiko hegemonikoen bizkar uzten dagokion erantzukizuna. Horregatik, Jean Etxeparek hotzepel utz ditzake banderaren baten atzean doazenak.

---

119 Gartzia Trujillo, S. (2014). *Jean Etxepare, Aldudeko medikua. Euskal modernitatearen brankako irudia*. Desclée de Brower. Bi lbki.

1.4.8. Helduaroko idazlea

Jon Casenavek, bere aldetik, eransten du, medikuak, bizialdiko azken urteetan, ironiaren eta poesiaren bitartez gorde zituela bere zenbait aburu disidente[120]. Modu horretara agertuko zituen iritziak *Beribilez*en:

> "Bidaia-liburu bat beraz; ohartzen gara, aldi honetan ere berritzaile bezala agertzen zaigula Etxepare, holakorik ez baitzen egin oraino euskaraz iparralde honetan. (…) Piarres Lafitte-ri gutun batean ziotson bezala, gaztaroan erakutsi pentsamolde berak erabiltzen zituen mende laurden baten buruan oraino, bainan ikusiak ikusi edo hobe erranez ikasiak ikasi, ironia eta poesiaren bitartez gorde zituen erran gogo zituenak"[121].

*Beribilez*en ezaugarria da idazleak gogoeta eta iritziak aipuz edo iragaitzez bezala ematea; hau da, jakinik gaztaroan ingurunearekin eskatiman ibili behar izan duela lerro batzuen kariaz, istiluok saihestu nahi ditu helduaroko liburuan, eta saihestu baita gauza heterodoxoak "gordin" esatearen balizko ondorio makurrak ere:

> "Gaur den egunean urriki dut halere ozarki bihurtu izanik batzutan, ahoz eta lumaz. Ichiltasuna hanitzez ederragoa da; eta ichiltasuna bera baino, sinesteen araberalat zuhurtzian bizitzea"[122].

Horregatik, interesgarria izan liteke autozentsuraren nolakoa aztertzea idazle honengan. Gogoeta horiekin sintonian ikusi du Jon Casenavek *Beribilez*en idazleak oinarriko sinesteak nola agertzen dituen:

---

120 Casenave, Jean (1990). "Jean Etxepare: idazle ausarta, gizon argitua". *Hegats* 34. 33 or.

121 Casenave, Jean (1990). "Jean Etxepare: idazle ausarta, gizon argitua". *Hegats* 34. 25-44 or.

122 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Jean A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or. 1931-X-27ko gutuna.

"Jean Etchepare glisse dans ces très belles pages [de *Beribilez*] – désormais rangées parmi les classiques de la littérature basque moderne- l'essentiel de ses conceptions philosophiques et esthétiques"[123].

Jon Casenavek hiru alditan banatzen du Jean Etxepareren obra, bere tesian. Lehen aldia 1903tik 1910era lihoake: ekimen indibidualeko lehen aldi hori amaituko zen *Buruxkak* argitaratzearen porrotarekin. Bigarren aldia, euskararen gizarte-oinarria zabaltzen eman zuen irakurleak ugaritu nahian eta euskara duintasunez jantzi nahian: lau urte Eskualtzaleen Biltzarran eman zituen burulehen gisa euskara sustatuz, eta gaztetxoak euskaltzaletzea gogoan.

Jon Casenavek proposatzen du *Beribilez* interpretatzea aurreko pentsamolde baten osteko aldaketaren fruitu gisa, alegia, hirugarren aldi bateko (1927-1935) sorkari gisa[124]. Beharko lirateke, beraz, zehaztu hirugarren aldi horretako ezaugarriak. Amaitzeko, hona idazleak berak nola arrazoitzen duen gauzak esplizituki esateko aukera baztertu izana *Beribilez*en:

"Antzez nagusi da *Buruchker*. Eskuara berdinagoa du, mami gehiagorekilakoa, bai eta eztiagoa du bere argia. Hitz gordinak ez ditut metatu *Beribilez*-ean, hango kapitulu batean egiaren amodio biziegiz behartu zitzaitan bezala. Ez dut ere uste athera zaitan bihirik, aldi huntan. Hortarik bederen etzait samurtuko nehor, gizon zuzenik samur baditake gordinkeria batzuez, gauzen araberako direnean"[125].

Jon Casenavek proposatzen du idazleak errealitate kolektiboaren isla nola ematen duen ikertzea, problematika indibidualaz harago[126]. Hauskorra den euskal errealitatea sailkatu eta finkatu nahi dute idazleek, euskaldunei beren buruaren kontzientzia emanez, lehen aditu batean garrantzirik gabeko objektu, jokabide eta ohiturak jasota.

---

123 Jean Casenave, « Le renouvellement de la prose basque a travers Buruchkak (1910) de Jean Etchepare », *Lapurdum* [Linean], 3 | 1998, Sarean emana----an 01 septembre 2010, kontsultatu 29 octobre 2011. URL : http://lapurdum.revues.org/1710

124 Casenave, Jean (2002). *De l´article de presse à l´éssai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 511 or.

125 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Jean A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or. 1931-X-12ko gutuna.

126 Casenave, Jean (1997b). *De l´article de presse à l´essai litteraire:* Buruchkak (1910) de *Jean Etchepare*. Thèse de Doctorat. Université Michel de Montaigne- Bordeaux III. 656 pp. 519 or.

Irudikatze hori anitz helbururekin egin daiteke, ez soil artistikoak. Interesgarria litzateke kultura-iruditeriaren auzian sakontzea, jakiteko garai hartako idazleek zer elementurekin eta nola sortzen dituzten irudikapen estetikoak. Bestetik, gogoan har litezke, ez euskal idazleen irudikapenak bakarrik, idazle erdaldunen edo kanpoko bidaiarien lekukotasunak ere. Esparru diziplinarteko bati legokiokeen ikerketa horretan, literatura lehen lerroan legoke.

*Beribile*zen marrazten den iruditeria horretan esanguratsua litzateke xerkatzea zer ez duen testura ekartzen, alegia, zer isiltzen duen idazleak.

*Beribile*zeko iruditeria jaso ondoren, Euskal Herriko ohiko iruditeriak bitan sailkatzeari ekingo litzaioke: aurrera begirakoak (proaktiboak) eta atzera begirakoak (nostalgikoak). Aztertzekoa litzateke irudikapenok 1930etik 1960ra bitartean gertatutako Iparraldeko kulturaren motelaldian zerikusirik duten.

Bestalde, esan behar da identitatea tinkotzeko helburua duen literaturak benetako literatur balioa duela. Gainerakoan, identitatea sendotzeko zeregina betetzen du literaturak, betiere euskal hedabideen ahalmenaren neurrian: betetzen ditu zeregin estetikoak, soziologikoak eta ideologikoak, oraindik definitu beharrekoak neurri handi batean.

Aipatu den iruditerien ildotik tiraka, ikerlan honetan *Beribile*zen agertzen den identitate-iruditeria alderatuko da XX. mende hasierako literatur sortzaile batzuen iruditerien zenbait alderdirekin: Pio Baroja, erromantizismo frantsesa… beti ere ikerlan honen mugak kontuan izanik.

1.4.9. Ethos modernoa

Ur Apalategiren artikulu batek kontrajartzen ditu Jean Hiriart-Urruti eta Jean Etxepare. Ez da hau zuzenean *Beribile*zi dagokion iruzkina, baina bai medikuaren prosa ulertzeko baliagarria.

Ur Apalategik Jean Hiriart-Urruti *Eskualduna* kazetako autore gisa aztertzen du. Lobby baten ordezkaritzat dauka, eta haren ahotsa larderia handikotzat dauka, ez ditu alferrik kazeta horrek sekulako tirada eta irakurle kopurua. Hala ere, kritikariak dio *ethos* hori ez dela, preseski, autore modernoarena. Autore modernoak “kontrakoak diren ezaugarriak baititu : besteak beste, duda sortzaile eta galdera eragile izan behar bide du autore modernoak, inolaz ere

predikatzaile”[127]. Zehazkiago, eta Jean Etxepareren *ethos*a deskribatzeko hona nolako perpausa darabilen Ur Apalategik:

> “Azkenik, eta honekin eman diezaiokegu sarrera Hiriart-Urrutiri euskal idazkien historia literario batean, badirudi gure historiako lehen autore modernoak –Etxepare mirikuak– Hiriart-Urrutik garaturiko ethos berezi hori kontra-eredu gisa erabili zuela, kontzienteki edo inkontzienteki, bere ethos literario berria aurrekoarekiko kontrastez eratzeko. Lehenaren ethosaren osagai ezberdinei kontrako ezaugarriekin erantzun zien Etxeparek, ethos modernoa sortuz. Horrela, larderia eta ironiari pentsaera konplexu eta mintzaira ezkonatiboaz ihardetsi zion Etxeparek; eta garrantzitsuena, autore-funtzio indibiduala bere buruari ukatzen zion testu “desautorizatuari” Etxeparek autore-funtzio literarioa daraman testuaz erantzun”[128].

Ur Apalategiri jarraiki, azpimarragarriak dira diferentziak egia izan daitekeenari buruz Jean Etxepareren lanetan eta haren garaikideen lanetan, eta baita ere aburuak berbaratzeari buruz duten sekulako aldea. Nahikoa da konparatzea XX. mende hasierako Iparralde hartan barra-barra zebiltzan liburu doktrinari katoliko haien ikuspegi buruaski samarra, medikuaren beste jarrera begiratu eta polifoniko harekin, bai *Buruxkak*eko hainbat ataletakoa[129], bai *Beribilez*eko pasarte polemikoetakoa.

Giro dogmatiko hura gogoan, paradigmatikoak dira idazki beligeranteak: aipatu berria den Jean Hiriart-Urrutiren kazetaritza, Jean Pierre Arbelbideren (1895) *Igandea edo Jaunaren eguna*, Arnaud Abadiaren (1890), *Apezak soldado...* eta antzekoak. Hari horretatik tiraka, Jean Etxepareren joera bat da iritzi mingarri izan litezkeenak kontakizuneko beste pertsonaiaren bati adierazten uztekoa, lehen pertsonako narratzailea horretan bermarazi gabe: “Amodioa”-ko botikaria, Loiolako *apezñoa* eta *frantximanta,* mediku zaharra aholku ematen, baselizako santu

---

127 Apalategi, U. (2003). “Hiriart-Urrutiren harrera literarioari buruz: autoretzaren arazoa euskal literatura klasikoan” in: Euskaltzaindia. *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian*. Bilbao. Iker 14. Soilik amaierako paragrafo horretan dihardu Jean Etxeparez. 34 oin-oharra.

128 Apalategi, U. (2003). “Hiriart-Urrutiren harrera literarioari buruz: autoretzaren arazoa euskal literatura klasikoan” in: Euskaltzaindia. *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian*. Bilbao. Iker 14. 30 or.

129 “Amodioa” *Buruxkak* liburuko atala polifonikoa da, Mikhail Bakhtinek azaltzen duen satira menipearraren hurbila, agian. Antzeko zerbait esan daiteke “Egiaren hiru itxurak” izeneko beste atalari buruz ere, dialogismoa gogoan. Egia da, bidenabar, konposizio forma horiek Inauteriak duen ahalmen aldarrikatzailearekin lot litezkeela, edozein egia absoluturen kontrakarrean.

hiztuna... salbuespenak salbuespen ("Nor-eskola emaile-Zer irakats"...), inoiz zuzenean hartzen baitu ahotsa idazleak.

Kontuan izan, XX. mendearen hasieran euskal idazle-jende eskolatu ia guztia seminariotik pasatua zela, inguruan unibertsitaterik izan ez eta, literatur esparruaren gainerakoa herri-literaturak betetzen zuela. Ezin ahaztu, gainera, XIX. mendeko Frantzian Elizaren eta estatu laiko-nahiaren arteko talka ohikoa zela, eta Jean Etxepareren ibilbidea hor kokatu behar dela.

1.4.10. Agnostizismoa

Zientziaren eta Eliza-doktrinaren arteko adostezintasunak nahiko arruntak izan dira Europan azken mende biotan zehar. Horien zurrunbiloan murgilduta zegoen Jean Etxepare; ez alferrik, formazio zientifiko-unibertsitario laikoa duen lehen euskal idazleetakoa da.

Oraingo kritikak, euskal tradizio zientifiko urri hori jasotzeko ahaleginak egin ditu. Horretan nabarmendu den bat Kepa Altonaga zientzia-dibulgatzailea da. EHUko biologia irakasle horrek Jean Etxepareren mediku gisako alderdiari kasu eginez ondu du Aldudekoari buruzko liburu irakurgarria[130].

Bestetik, Altonaga ibili da biologiaren gaineko euskarazko aurrekari idatzien bila. Jean Etxepareren inguru kronologiko eta geografikoan euskaraz idatzi ziren testu gutxi-asko zientifikoen bila arakatu ditu orduko argitalpenak. Arnaut Abadiaren zoologiarekin lotutako euskarazko testuak bildumatu ditu. Iparraldeko beste zenbait zientzialari frankofonoren arrastoa ere jarraitu du (Armand David, Folin Markesa...). Kritikari eskainitako atala bukatzeko, aipa daiteke kritikari gazteagoen iritziak, ikuspuntu polemikoak plazaratu dituztenak[131].

130Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2016-05-21]

131 Guztiarekin ere, beste kritiko batzuek Jean Etxeparek jasan zituzkeen interpretazio interesatuak aipatu dituzte, nolabaiteko *apropiazionismoa* salatuz: "Egun eskuragarri dugun *Buruxkak*, 80koa, hirugarren edizioa, berez da irendubakoa, baina nik moztuko nioke zerbait, Piarres Lafitteren sarrera testua. Ez bakarrik edizio zahar zentsuratuaren hitzaurrea delako, baizik eta halako

Gure ustez eta arestian aipatu denari eutsiz, literaturgileen proposamenak pobretzea dakar kritikarien amorru hori Jean Etxepare edo beste edozein idazle eskematizatzekoa, interpretazioen aniztasunari eremua janez. Ez litzateke egongo interpretazio zuzenik, baizik eta aldian aldikoa eta kritikarien hautuen araberakoa, denak zilegiak eta aberasgarriak adiera batean.

---

apropiazionismo ariketarik ez baita aspaldian ikusi: Etxepare, urte beltzen ondoren, nola bueltatzen den erlisionearen altzora, katoliko on eredugarriaren itxura hartzeraino. Beste Piarres batek, Xarritonek, dio: gehiegitxo.

Edo, tira, ondo pentsatuta ez nuke ezer kenduko eta aho-betez esan dadila literatur tradizio urria dugula, baina batez ere santujalea. Etxeparek berak esango lukeen bezala: ez denik ez dela mundu zabalean". Galarraga, A. (2010). "Ez denik ez dela. Jean Etxepare: *Buruxkak*". *Argia* 2250. 2010-10-03. http://www.argia.eus/argia-astekaria/2250/ez-denik-ez-dela?ids=argia-astekaria/2250/ez-denik-ez-dela [2014-10-23an atzitua]. Beste batzuetan aipatu dira Etxepareren prosa ulertzeko zailtasunak.

2. Jean Etxepare bere garaian

Atal honetan, aipatuko dira Jean Etxepare bizi zen giroa eta edan zituen pentsamolde-iturriak, eginkizun pertinentea baita haren pentsamoldearen nondik norakoak ezagutu ahal izateko *Beribilez*en: horien funtsaren azalpen sintetikoa emango da. Laburpen horren kariaz, norberaren zenbait iritzi kritiko tartekatuko dira, ahalik eta modurik objektiboenean.

2.1. Egiaren bilaketa atipikoa: zientzia eta erlijioa

Interesgarria da ezagutzea jaso zituen eraginak pentsamoldearen aldetik, Etxepareren ideologiaren eta Euskal Herriaren errepresentazioaren atzetik gabiltzala, jakin ahal izateko *Beribilez*en agertzen diren ideiak zein kultur abiaburu orokorrekin lot litezkeen, direla filosofikoak, direla zientifikoak, direla erlijiosoak edo bestelakoak: hari kronologikoari jarraiki zerrendatuko dira segidan.

Kronologikoki jardungo dugu, eta, dagokionean, erreferentzia kulturalak anplifikatuko ditugu, batez ere, Jean Etxepareren pentsamoldeari lotuta datozenetan, panorama intelektuala mugatuagoa gera dadin, eta idazlearen ideologia argiago kokatuta gera dadin. Dudarik ez, literatur kritikaren arloko erreferentziak ez diren autoreek eta kontzeptuek trataera sakonagoa dute diziplina berezi bakoitzeko eskuliburuetan.

Zerrenda honen itemak aukeratzeko abiapuntua Piarres Lafitteren lanak izango dira[132]. Osagarri gisa, jarraituko dira kritikaren iruzkinen atalean bildutako bestelako aztarnak ere.

132 Lafitte, P. (1974). *Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak*. Bayonne. Imprimerie des Cordeliers. Han eta hemen badira beste erreferentzia-aipamen batzuk, bereziki Pierre Lafitteren eta Piarres Xarritonen lanetan. Pierre Lafitte da, ziur aski, idazlearen pentsamolde-iturriak zehatzen zerrendatu zituena.

2.1.1. Biografiaren mugarriak

Medikuaren bizitzaren aldiak zehazteko Jon Casenaveri jarraituko zaio[133]. Neurri batean, aldi bakoitzari, haren idazle gisako eboluzioari buruzko zertzelada batzuk emango dira.

2.1.1.1. Formazioa: 1889-1901

Gaztaroko formazio-urteak aipatuko dira, lehenbizi. Jean Etxeparek unibertsitate aurreko bigarren hezkuntzako ikasketak Larresoroko Apaizgaitegian egin zituen 1889tik 1894ra. Ikastetxe konfesional horretan ikasi ohi zuen elite sozio-ekonomikoak, hau da, Ipar Euskal Herriko postu gorenetan jardun beharrekoen multzoak, ikastetxe laikorik ezean. Ikasle horiek ez ziren apaiz izan beharrekoak gero, nahitaez. Jean Etxeparek hango irakasle batzuen oroitzapenak idatziz ezarri zituen. Interesgarria da Seminarioko giro intelektuala ezagutzea, idazlearen bilakaera hesitzeko. Aipa daitezke bereziki bi irakasle nagusi Jean Etxeparek aitortuak: Jean Hiriart-Urruti eta Arnaut Abadia[134].

2.1.1.1.1. Jean Hiriart-Urruti (1859-1915)

Jean Hiriart-Urrutiren kazeta-lanek sarri samar ikusi dute argia liburu gisa[135], haren euskara argia eta zalua erakargarria baitzaio irakurleari. Oraingoan haren maisutza estilistikoa ez da hizpidetzat hartuko; bai, ordea, haren maisutza pastorala *Eskualduna* kazetaren orrialdeen bitartez gauzatua, bertako erredakzio-burua izan baitzen urte batzuetan, nolabait zehaztearren egin zuen lanaren nolakotasuna. *Eskualduna* kazeta-tresna bat zen xurien eskuan, politika eta

---

133 Casenave, Jean (1997b). *De l´article de presse à l´essai litteraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare.* Thèse de Doctorat. Université Michel de Montaigne- Bordeaux III. 656 pp. "Repères biographiques" 35-40 or.

134 Etchepare, J. "Jean Hiriart-Urruti Kalonjea (1843-1915)". *Eskualduna*. 1915-IX-16; Etchepare, J. "Arnaut Abbadie Kalonjea (1843-1916)". *Eskualduna*. 1916-IV-06.

135 Azken aldian argia ikusitako batzuk: Hiriart-Urruti, J. (1995). *Gontzetarik jalgiaraziak* (Iñaki Caminoren edizioa). Euskal Editoreen Elkartea. Donostia; Hiriart-Urruti, Jean (2004). *Ni kazeta-egilea naiz* (Xabier Altzibarren edizioa). Labayru. Bilbo; Joseba Intxaustik Jakin argitaletxean beste haren bi liburu paratu zituen aspaldi: *Zezenak errepublikan* eta *Mintzaira, aurpegia, gizon!*

gizarte arloko helburuak erdiesteko, euskal gizartean desio zuten bezala eraginda[136]. Jean Etxeparek ere *Eskualduna*ko argitaratze-plaza erabili zuen, eta astekarian bertan Hiriart-Urruti kalonjeari panegirikoa egin zion, hura hil zenean; eulogio horretan itzalik ez da ageri.

Seinalagarria da politikan Jean Hiriart-Urrutik zeukan jokabidea: Zizeron zalea izanik, legelari erromatarraren politikan murgiltzeko joera beretuko zukeen Larresoron irakasle zelarik[137]. Beraz, klasikozalea zen Etxeparek maisutzat izan zuen Hiriart-Urruti kazetariaren formazio politikoa, Larresoroko Seminarioko irakasle batengan espero izatekoa denez.

Bestalde, Jean Etxeparek berak utzi digu idatzia *Eskualduna*ko erredakzio-buruak zer jokabide zeukan politikari buruz: erlijioko fedeari lotuagoa nahi zuen jendea, lege-jakiturian argitua baino; arrazoia: legeak ez dira fidagarriak, eta, aldakorrak direnez gero, gertakarien konplexutasuna ulertzea ez dago irakurleen eskumenean. Jean Etxeparek kritikatu ez zuen Hiriart-Urrutiren aitakeria horrek zuhurragotzat dauka "ele onez jende gaizoaren atxikitzea bihotzez azkar, barnea erlisioneko fedeaz lagundua beti"[138].

Epealdi historiko hura gogoratu nahi duenak jo beza Jean Hiriart-Urrutiren orrialdeetara. Adibide baterako eta literaturarekin lotuta, ekar daiteke hona beraren "Zola zikina" artikulu erasokor samarra, izenburua bera nahikoa adierazgarria baita[139]. Horrekin ilustratu daiteke estamentu baten jokabidea sorkuntza-lanei buruz.

"Zola zikina"-k gogorarazten digu *Lourdes* (1894) Émile Zolaren liburua irakurtzea bekatu mortala dela, horrela ezarri baitu Erromak erlijioari irain egiten diolakoan; kazetaria naturalismoaren kontra dago, era berean. Aita Santuak eta Elizako buruzagi handienek kondenatu dute liburua, idazki gaitzesgarrien Elizaren *Index*ean kokatu baitute. Zolak Lourdesa eginiko bidaia kontatzen du, erlijio-krisian dagoen apaiz baten ahotik.

---

136 Arbelbide, X. (2007). *Xuri-gorriak*. Donostia. Elkar. Garai hartako kazetetan nola islatzen zen tirabira hori ezagutzeko artikulu-bilduma.

137 *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak.* P. Xarriton (apail..) Donostia. Elkar/Eskualtzaleen Biltzarra. 173 or. "Jean Hiriart-Urruti kalonjea (1859-1915)"

138 *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. P. Xarriton (apail.) Donostia. Elkar/Eskualtzaleen Biltzarra. 173 or. "Jean Hiriart-Urruti kalonjea (1859-1915)")".174 or.

139 Hiriart-Urruti, Jean (2004). *Ni kazeta-egilea naiz*. Bilbao. Labayru ikastegia/BBK fundazioa. 1895eko "Zola zikina" artikulua

"Liburu kondenatuak: zer erran nahi da? —Nahi da erran: erlisioneaz artha dutenek, hartako direnek, Apezpikuek irakurtu dituztela liburu hek, eta ezagutu erlisionearen gal-arazle. Nork du hobeki jujatzen ahal hori, Apezpikuek baino? (...)

Haurrak eskolatu behar direla. —Eskola baino beharrago dute arimaren ez galtzea. —Zertako dituzten apezpikuek hor liburu hoik kondenatu. —Zoazte, galda zozuete framazonei eta heiekilakoei, zertako duten berek lehenik kondenatu katixima.

Bi kondenamendu eta bi liburu kondenatu suerte hoien artean egizue hautu.

Hautuaren arabera izanen zarete zinezko katoliko edo giristino arnegatu. Bata edo bertzea. Bien erdian ez dukezue hor zeri loth"[140].

Jean Hiriart-Urrutiren liburu berean, badira errienten kontrakoak ere; badira liburu debekatuen erreseinak; badira, Dreyfus afera dela eta, juduen kontrako artikuluak. Kontuan hartu beharreko giroa *Beribilez*eko estilo zuhurraren arrazoia ulertzeko: euskarazko idazlan oro begirada zorrotzaren azpian zegoen.

Horrelakoa zen gizarte-giroa Jean Etxeparek argitaratzeari ekin zionean. Émile Zolaren liburua Erromako Elizaren *Index*era sartu bazen, Jean Etxepareren bi obrek etxetik ibiltzeko beste *index* moduko batean sartzeko zorte etsaia izan zuten, oihartzun handiagoaren faltan.

Aniztasuna onartu ezin izatearen haritik, autura ekarri beharra dago berriz ere hainbestetan gogoratu izan den euskararen ikuspegi esklusibista hori, non lotzen zaion hizkuntza gizartearen eta pentsaeraren ikuspegi bakar bati erlijio tradizionalarekin lotua zirrikiturik utzi gabe, edo gisako ideologia politiko bati:

"Ez zaut iduritzen baditekela mundu huntan deus hanbat gizonaren bihotza hurbilagodanik hunkitzen duenik, nola baitira hiru gauza hauk: erligionea, sor-lekhua eta sor-lekhuko mintzairea. Are gehiago estekatzen da bakhotxa bere herriari eta herriko mintzaireari, mintzaire hura eta herri hura nehun ez bezalakoak direnean, nola baitira oroen arabera, Eskuara eta Eskual Herria. Zonbatenaz ez gehiago, herri hartan eta

---

140 Jean Hiriart Urruti. "Liburu kondenatuak" in *Eskualduna*, 1911-03-24 *Gontzetarik jalgiaraziak* liburuan bildumatua. http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiriUrruGontze015.htm [2017-02-03]

mintzaire hartan erroak barna eginak dituenean lur hunen gainean Jainkoak gizonari eman zezaken arbolarik ederrenak, erran nahi dut erlisionearen arbola?” [141].

2.1.1.1.2. Arnaut Abadia (1843-1916)

Jean Etxeparek filosofia-maisu izan zuen Larresoron Arnaut Abadia, eta hura hizpide hartuta artikulu bat argitaratu zuen. Artikuluan, maisu ohiaren soslai batez ere afektiboa egiten du, lehenik. Gero, honela dio irakaslearen irakaspenetan barneratuta:

> “Hari dakogu zor, Eskual-Herrian zerbait giren gehienek, gure adimenduko indarrik hoberena: zoin bidez dabilen xuxen jakitea; makur doala zertarik gitazken ohart, sendo gireno; zer den gure arima; mendetik mendera jakintsunek nolako jaidurak daizkoten hauteman; zerk duen egiten ongia, ederra zerk, zerk egia; ...”[142].

Irakasle izandakoaren oroitzapen-artikulua idazten duenean, Jean Etxepare 1914ko gerla-tokietan da, esan nahi da, zirkunstantziak hala beharturik, nazio-mobilizazio orokorraren erdian, non ezberdintasunak albo batera uzteko premia egoten den, bereziki disidentziak direnean.

“Zuhurtzia” ere jaso omen zuen Abadiarengandik, jakitate guztietan ederrena zaiona. Lehentasun-aukera hori ez dirudi Jean Etxeparerengan beti irautekoa denik, bereziki joera neopositibista hartzekoa zenarengan, zeinaren arrimuan zuhurtzia orok egia-balioa gal dezakeen. Ez dirudi, bestalde, bitalismo nietzschearraren arrastorik dagoenik, eta bai, aldiz, ortodoxia aristoteliko-tomistaren araberako hautua. Egia ote gerla-tokietan “zentzua” itzuli zitzaiola, haren solaskide kristauek nahi zuten bezala?

Bestetik, Etxeparek dio Abadiarengan irakaspenak erroa erlijioan duela, abadea baita. Hala ere, interpreta daiteke, idazleak ez du azpimarratu gabe uzten Abadiaren irakaspenen

---

141 Hiriart-Urruti, Jean (1995):). *Gontzetarik jalgiaraziak* (Iñaki Caminoren edizioa). Euskal Editoreen Elkartea. Donostia. http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiriUrruGontze051.htm [2017-02-03]

142 Xarriton, P. (1984b). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I euskal gaiak.* Donostia. Elkar. 179 or.

bigarren sail bat egokiagoa apaiz ez direnentzat: “geronez guhauk daukagun ezagutza”-rena, alegia, ez egia errebelatua. Abadia behaketa-zalea izanik, “bizitzeak emeki gauzen beren ganikako erakaspenerat heltzekoa zen Abbadie”. Argi dago hor hizketa legunez adierazia laikoaren iritzi beregaina, seminario-irakaspenari buruz. Arnaut Abadia laborantzako aholkuak emateaz arduratuko zen *Eskualduna*n 1892-1908 bitartean, beraz, erlijioaz haragoko kezkak zeuzkan. Oraingo zientzia-dibulgatzaile batzuek euskal prosa zientifikoaren aurrendaritzat daukate[143]. Hala ere, akats bat topatzen dio Jean Etxeparek Abadia maisu izandakoari: antzinakoen irakaspenak ez zituen lehen mailako iturrietatik jasotzen ohi, eta bai bigarren mailakoetatik.

Idazlearen lekukotasunetatik landa, eman daitezke oharpen batzuk Arnaut Abadiaren formazioaz. Literaturaren arloan, jakin dugu poesian ostatu hartu zuen “mal du siècle” saihesten jakin zuela, eta tradizio klasikoan (La Fontaine...) babestu zuela gustua. Nabaria da nolako hautaketa egiten den giro fededunetan, poesiaren historiari dagokionez:

> "Le jeune Abbadie devait s´évader assez vite, je ne dis pas de la poésie, mais du mal du siècle qui en fut l´expression passagère. Poète, il le resta toute sa vie par la profondeur d´une sensibilité qui s´alliait chez lui à l´esprit le plus positif, et chose aussi rare, à la finesse de l´observateur le plus pénétrant. S´il aima Lamartine, il comprit peut-être mieux encore le prodigieux sourire que La Fontaine promena sur bêtes et gents, et s´émerveilla de la fluidité d´une langue qui s´ajuste aux milles nuances des réalités psychologiques. À ses moments d´expansion, c´est vers les Fables qu´il revenait avec bonheur riant parfois de tout son cœur des trouvailles du Bonhomme et lui reprochant tout haut d´avoir fait autre chose que des fables.
>
> Il est vrai que ses maîtres furent des hommes de goût très sûr fidèles aux traditions classiques"[144].

Literaturan heziketa klasikoaren barnean, ohikoa zen apaizgaiek erretorikako prestakuntza jasotzea garai hartan. Arnaut Abadia filosofia-irakaslea, batez ere, erretorikan zen trebea, jakintza zientifikoa ez zuela behar bezala eskuratzen. Garai hartan, Salvatore Tongiorgi

---

143 Altonaga, K. (2010a). “Arnaut Abadia (1843-1916): gure zientzia-prosaren aurrendari ahaztu bat” in: *Euskararen garapena esparru akademikoetan*. EHU. http://www.ehu.es/documents/2430735/2730484/LIBURUAehuei10-10.pdf [2017-02-03]

144 Saint-Pierre, J. (1928). “M. Arnaut Abbadie”. *Gure Herria* 8. urtea. Janvier-Février. 14 or.

jesuitaren eskuliburua zen Larresoroko apaizgaien eskuetan zegoen zientzia-bilduma nagusia, bere apalean.

> "Ils avaient peu de livres, mais ils les apprenaient bien. Le latin faisait leurs délices et c´était une manière d´apprendre le français qu´on n´a pas remplacée. L´époque n´était pas encore venue où les candidats au baccalauréat devaient trembler de contondre la mâchoire de l´oiseau secondaire appelé ichtyornis avec les mandibules d´un perornis. Ce n´était pas le bec de la bête qu´on ignorait, mais la bête toute entière. Aujourd´hui les collégiens savent bien des choses nouvelles. Peut-être n´ont-ils fait que changer d´ignorances" [145].

Abadiarekin gertatu zena orduko giro akademikoaren isla da, gizartean gertatzen ziren istiluen emaitza. Akademiko erlijiodunentzat unibertsitatea errakuntzaren kabia izan zitekeen[146]:

> "M. Abbadie fut un brillant rhétoricien et l´un des premiers candidats que le Petit Séminaire présenta aux examens du baccalauréat. Cela paraissait alors une tentative hardie. Elle fut couronnée d´un plein succès et Arnaud Abbadie arriva au Grand Séminaire avec un prestige qui n´était pas sans ennui, car il mettait en garde certains vieux directeurs prêts à soupçonner dans le jeune lauréat toutes les erreurs de l´Université.
>
> S´il faut en croire un aveu de M. Abbadie, le philosophe ne fut pas à la hauteur du rhétoricien. Les premiers mois furent assez pénibles. Le manuel de Tongiorgi ne lui livrait pas ses arcanes"[147].

Aipuak erakusten digu erretorikak zituen zuzenak; eta, baita ere, elizgizon batzuek "berrikeria" eboluzionisten aurrean izan zezaketen epelkeria, haiek berme zientifikoa izanagatik ere. Hemen sakondu gabe geratuko da syllabus egokiena zein ote den koska, alegia, ea eboluzionismoa derrigorrezko ikasgai gisa txertatu behar ote zen erlijioko ikastetxeetan ere.

---

145 Saint-Pierre, J. (1928). "M. Arnaut Abbadie". *Gure Herria* 8. urtea. Janvier-Février. 14 or.

146 Saint-Pierre, Jean (1928). "M. Arnaut Abbadie". *Gure Herria* 8. urtea. Janvier-Février. 14 or.

147 Saint-Pierre, Jean (1928). "M. Arnaut Abbadie". *Gure Herria* 8. urtea. Janvier-Février. 14 or.

Seminarioaren eta unibertsitatearen artean zegoen tirabira Jean Etxeparek ibilbide osoan zehar bizitu zuen, bietatik pasatutako ikaslea baitzen, Xarritonek maila pertsonalean idazlearen baitako haustura gisa aipatua, alegia, fedearen eta zientziaren arteko adostezintasuna. Goi-ikasketen saileko giro hura osatze aldera, Baionako Seminario Handian zegoen zientzia giro intelektualaren erakusgarria ditugu Abadiaren eta hango zientzia-irakasle Boisot jaunaren arteko harremanak: tomismoaren eta molinismoaren inguruan eztabaida minak zituzten[148]. Ez zen, zehazki, positibismoaren mendearekin bat zetorren kezka-mundua.

2.1.1.1.3. Salvatore Tongiorgiren testu-liburua

Salvatore Tongiorgi jesuitaren (1820-65) *Institutiones philosophicae* (1861) izan zen luzaro Larresoron ere testu-liburu nagusia. Bederatzi berrargitalpen izan zituen 18 urtean. 1916an oraindik Tongiorgiren lan guztiak erabiltzen omen ziren erakunde erlijiosoetan. Hona 1913an Instituzioek zuten harrera:

> "All his works are still used as text-books for college or seminary. On some of the mooted questions in philosophy the author departed from Scholastic traditions, rejecting the Peripatetic theory of matter and form, denying the real distinction between accidents and substance, and claiming that mere resultants of mechanical and chemical forces could produce the life-activity seen in the vegetable world. These doctrines, though not widely accepted, yet stimulated the Scholastics to make better use of the researches carried on in the physical sciences"[149].

Natur zientzien arloan Salvatore Tongiorgi bezalakoek isolatuta jardutea, erakusten digu nolako testuinguruan garatu zuen Jean Etxeparek mediku gisako lana eta idazle gisako obra.

---

148 Saint-Pierre, Jean (1928). "M. Arnaut Abbadie". *Gure Herria* 8. urtea. Janvier-Février. 16 or.

149 Mortimer Fox, J. (1913). "Salvator Tongiorgi" *Catholic Encyclopedia* (1913), Volume 14. http://oce.catholic.com/index.php?title=Salvator_Tongiorgi [2017-02-04]

2.1.1.1.4. Jean Etxepare Larresoron

Jean Etxeparek autonomia intelektuala bilatu bide zuen Larresoron, "bere buruaren jabe egon nahi zen eta bere aburuen nagusi", ez omen zebilen "norat aise, harat aise", aldiz, bai "beti ari eta beti goiti, arno ona bezala beti ontuz"[150]. Jokabide horrek badu desabantailarik Piarres Lafitteren iritziz: "Halako jite batek badu alde onik, gizona ez baitu "beti bertzen meneko" ezartzen. Badu txarrik ere, bertzen laguntza ez baitio aski preza-arazten". Eragozpen horrek izan dezake lerro arteko irakurketa bat testuinguru hartan, alegia, medikua makurtzen ez zelakoa inguru katolikoaren presioen aurrean besterik gabe, hitzok *Buruxkak*en 1941eko edizio "arindu"-aren hitzaurrean baitzetozen.

2.1.1.2. Haustura: 1901-1918

Larresorotik aurrera, Bordeleko unibertsitatean ikasten jardun zen mediku izateko (1894-1901). Garai hartatik hasita, itxura denez, tradizio alemanak pisu nabarmena izan zuen Jean Etxepare baitan bizitza osoan zehar; bederen, Piarres Lafittek eskaintzen dituen erreferentzien zerrendari bagagozkie badira lau alemaniar: Arthur Schopenhauer, Ernst Haeckel, Friedrich Nietzsche eta Hans Reichenbach[151]. Lafitteren idurikoz, medikuak zuen solaskide hurbila, "Alemaniako filosofo goibeltsuak giristino garbiaren alegrantzia"-rekin kontrastean daude[152].

Lafitte kristauak idazleari egotzi pesimismoa nabari da medikuak gogokoa zuen *Jesukristoren Imitazioa*ren baitan ere, ez bakarrik Arthur Schopenhauer Ekialde-zalearen baitan; pesimismoa, baita Ernst Haeckel zientzialari darwinista agnostikoaren eta baita Friedrich Nietzsche nihilistaren baitan ere. Friedrich Nietzscheri buruz esan daiteke Lafitte

---

150 Lafitte, P. (1941). "Jean Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas". 5-21,", in: *Buruxkak*, Jean Etxepare. (1980). Elkar. 7 or.

151 Lafitte, P. (1974). *Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak*. Bayonne. Imprimerie des Cordeliers

152 Lafitte, P. (1941). "Jean Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas". 5-21, in: *Buruxkak*, Jean Etxepare. (1980). Elkar. 16 or.

gezurtatuz, Arthur Schopenhaueren kristau taxuko etsipenaren kontra erreakzionatu zuela, hura maisutzat eduki ondoren.

Nolanahi ere, badago letretako tradizio aleman bat nork bere burua lantzekoa, Wilhelm Humbolt euskalariak hasita, Arthur Schopenhauer eta Friedrich Nietzsche bezalakoek jarraitua[153]. Goethe eta Thomas Mann dira tradizio horren beste jarraitzaile ezagun batzuk. Jean Etxepare nork bere burua lantze horri jarraituko zitzaion bizitza osoan zehar *Beribilez* bertaraino, beherago erakutsiko denez, Mediterraneoa abiaburutzat hartuta paratzen duen alegia iruzkintzean.

Alemanen kasuan, gizakiak benetakotasuna bilatze horrek gizartea kakotx artean jartzea ekar zezakeen politika baztertuz, adibidez. Horrela egin zuten Thomas Mannera (1875-1955) arte, noiz-eta gizartean sortutako hondamendiek alemaniarrak politikan pulunparazi zituen nahitaez. Jean Etxepareren kasuan, Lehen Mundu-Gerraren oldarrak beraren interesen hedapena ekarri zuen *Eskualduna*ko artikuluetan erakutsi zuenez. Beste arlo batean, Jon Casenavek tesian erakutsi du nola euskalgintzara eman zen, *Beribilez* aurreko urteetan[154]. Tarte honetan argitaratu zuen *Buruxkak* (1910), eta, urte batzuk geroago, Gerla Handian parte hartu (1914-1918)).

Lehen Mundu Gerrak ibilbidean etena ekarri zion medikuari beste askori bezala, mediku militar gisa jardun baitzen. Hala ere, Jean Etxeparek *Beribilez*en politika bakan aipatzen badu ere, bigarren liburuaren aurreragoko idazlanetan Frantziako gorabeherez jarduten badaki, bereziki Lehen Mundu-Gerraren bueltan: gerrako logistikaz eta intendentziaz dihardu, Frantziako estatuaren finantza-egoeraz, etxaldeen egoera ekonomikoaz, nazioarteko politikaz... Irakurri besterik ez dago gerla-tokietatik *Eskualduna*ra bidalitako kronikak. Larrialdi orokorreko egoerak kanporakoitasuna eskatzen zion idazleari, eta barnebiltze loretsuari mugak jartzera.

Idazlearen komentarista kristauek Lehen Mundu-Gerrako biraketa hau "onbideratze" gisa interpretatzen dute: "Gerla horrek jats-aldi bat ona eman zioten lehenagoko duda gehieneri. Erlisione-gizoneri zaukan aiherkunde xaharra urtu zitzaion". Edo beste hau: "Ordutik iraganxea

153 Bruford, W. (1993 [1975]). *German tradition of self-cultivation*. Michigan. University Microfilms International.

154 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Madrid. UNED.

zukeen gure mirikuak aintzineko bere bihotz-erredura eta jazar-gogoa. Noizean behin lanoak joanen zaizko berriz ere gainerat, ximistak ere ihurtzuri-eskainka; bainan beti goxoago, beti ederrago, beti xuxenago eta azkenan egiago agerturen zaizko fedearen argi bereziak"[155].

Argi dago guduan inplikatu-beharrak energiaren zatirik handiena kendu ziola, aldi batez. Hala ere, gerora ere bere kezka zabalekin jarraitu zuen eta, adibide gisa, Georges Lacomberekin, Piarres Lafitte berarekin... eta abarrekin izandako harremanak ditugu, gutunetan egiaztagarri geratu direnak.

2.1.1.3. Euskaltzaletasuna: 1919-1926

Idazlea Alduden mediku dago, eta Eskualtzaleen Biltzarrean buru eraginkor izateak lanik aski ematen dio, Jon Casenavek aztertu duen bezala tesian.

2.1.1.4. Ibilbidearen balantzea: 1927-1935

Jean Etxeparek Lafitterekin izan zituen gutun-trukean irakurriari jarraiki, jakiten dugu idazlearen pentsaera-eboluzio adierazi bat, alegia, diskrezio handiagorako joera bat hobetsi zuela egia formulatzerakoan helduaro aurreratuan[156]. Egiaren bilaketa bizi osoko kezka izan bazuen ere, ez zion ikerketaren emaitzak publikoki agertzeari hain irmoki eutsi azken urteetan, bere gizarte-irudiari kaltegarria izan ahal zitzaiolakoan lekukotza heterodoxoa ematea.

Idazlearen kezka intelektuala dela eta, *Beribilez*en adierazgarria da "Itsasoa kukulauka" hamargarren atala non idazleak bere bilaketa bitalaren eboluzioaz diharduen, gaingiroki, agian, baina xehetasun interesgarriz. Hala ere, esango digu idazleak bizitzaren gaztaro bitalista (nietzschear) hura neurri batean gainditutzat jotzen duela aspekturen batean edo bestean,

---

155 Lafitte, P. (1941). "Jean Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas". 5-21, in: *Buruxkak*, Jean Etxepare. (1980). Elkar. 15 or.

156 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia.

bederen, *Beribilez*eko proposatuko den irakurketa honetan. Lehenengo begiratu batean, jarrera etorkor hori ez dator bat zehatz-mehatz idazleak Piarres Lafitteri esaten dionarekin bizitzako azken gutunetako batean, alegia, gaztetako lepotik duela burua, nahiz eta behialako adierazpide gordinak baztertu dituen[157].

Beraz, ikertu beharko da idazleak bizitzako amaieran nolako gogoeta egin zuen pentsaera mailan. Piarres Lafittek zerbait badio horretaz, baina hurbilagotik begiratzeko mudaketa da, datu itxura batean kontraesankorrak baitaude. Gure aburuz, litekeena da medikuak garai bateko pentsamoldeari ñabardurak egin izana bizitzaren amaiera aldera.

2.1.2. Pentsamolde baten iturriak

2.1.2.1. Sekularizazioa eta antiklerikalismoa

Pentsa liteke Jean Etxepare Loiola bisitatzera badoa, derrigorrezkoa dela aipatzea bederen Elizarekiko zuen jarrera, eta nolabait sakontzea idazleak zuen jarrera bitala. Esan daiteke gauza bat dela Etxeparek *Beribilez*en islatu nahi izan zuen espiritua, bera bizi zela publikatu behar zuen *Beribilez*en, eta beste bat bestelakoa gutun pribatuetan eta lagunekiko harremanetan esandakotik heldu zaiguna, bizi zen bitartean plazaratu gabea. Atal honetan leku bat egingo zaio bigarren meatze horretara. Aipatu dugu idazle helduak zuen zuhurtzia bere ustez egia zena zabaltzearen egokitasun eta abaguneez, baina bestela ere heldu zaizkigu lorratzak medikuaren gogoa hobeto ezagutzeko lagungarriak.

Garrantzitsua izan daiteke ezagutzea Jean Etxepare unibertsitarioak Bordelen jaso zituen heziketa eta eraginak, Elizarekiko harremanen puntu honetan. Jon Casenave kritikariak jardun du Bordeleko Unibertsitateko artxiboetan arakatzen ea Jean Etxepare Émile Durkheimen

157 Irakurri "neurria"-ren laudorioa *B*. 82 or. Nolanahi ere, Jean Etxeparek azken gutunetan P. Lafitteri diotso lehengoan darraiela, adierazteko moldea modulatu beharra sumatu badu ere. Irakurri: Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Jean A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or.

eskoletara joan ote zen, eta medikugaiaren balizko matrikula baten peskizan. Ez du ezer aurkitu positiborik. Ordea, Durkheim (1858-1917) eta Etxepare garaikideak dira eta unibertsitate hartan batera ibiliak 1894-1901 urteetan[158], bata irakasle eta bestea ikasle. Émile Durkheimek Bordeleko lanpostua 1887an lortu zuen, 1902an Sorbonara aldatu zen arte[159]. Durkheim, agian jatorriz gutxiengo judukoa izateagatik, neotomismotik urrundu zen eta ideia laiko eta errepublikarrak beretu zituen, Dreyfusen alde jarri baitzen 12 urte iraun zuen afera hartan (1894-1906).

Orduan, Iparraldean neotomismoa zen nagusia, Mathieu monsinore euskaltzalea figura nagusia zela, beheragoko atalean azalduko denez; Bordelen ere bai, beharbada. Badirudi neotomismoa dela Lafittek Etxepareri proposatzen dion *philosophia communis* hedadura zabalekoa euskaldunen eta alemanen artean, medikuak baztertua, Lafitteri kasu eginez gero[160].

Erabateko konfirmaziorik egon gabe ere, Etxeparek Durkheimen ezagutza bazuen itxura guztien arabera. Durkheim bazen norbait Frantzia hartan, eta erratzeko motibo handirik gabe postulatu daiteke Etxeparek Durkheim soziologoaren diskurtso laikozalea jasoa zuela, adi eta arretaz zegoeino gizarteko gorabehera nagusiei. Etxepare 1901ean hasi zen *Eskualdunan* argitaratzen bere lehen artikuluak, beraz, formazio-urteak bukatu eta berehalakoan, unibertsitate-ikasketak gogoan zituela. Ez da harritzekoa, urteak pasatu ahala, Elizaren tutoretzapeko gizartean biziko zen gazte hark iritziak modulatu behar izan bazituen.

Émile Durkheimen lana izan zen moral kristaua ordezkatuko zuen moral zibila eraikitzen saiatzea, besteak beste. Bete-betean ezagutu zuen teologiaren krisia, eta erlijioa ikuspegi zientifikotik aztertzen saiatu zen, gizarteko beste fenomeno baten gisa.

---

158 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 38 or.

159 Dianteill, E. (2010). "Durkheim, Émile" in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.). *Dictionnaire des faits religieux*. Paris. PUF. 287 or.

160 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 1931ko hazilaren (azaroaren) 7ko gutuna. 601 or.

Jean Etxepareren *Beribilez*en badaude zantzuak bide horretatik. Medikua saiatzen da klerikalismoari irtenbide zibila ematen, antiklerikalismoan eta intolerantzian erori gabe[161]. Hala ere, medikuak dituen tik batzuk ez dira antiklerikalek zerabiltzatenen oso bestelakoak, gutxitan bada ere: arrazoiarekin ala arrazoirik gabe?

Adibide gaur egun irrigarri suertatzen den bat jartzearren, zenbait antiklerikalek elizako pertsonen baitan "arraza" berezia aurkitu nahi zuten, keinu eta jokabide bereziekin. Muturreko adibide bat emanez, kraneometria ere erabili zen erakusteko fraideek burmuin txikiagoa zutela[162]. Aldudeko medikuari jesuitetan hezitako gizon gazteak harrigarriak iruditzen zitzaizkion ("eta harrigarri egoitekoak, ez balituzte berriz chederratu izan, emeki-emeki, bertze esku batzuek [etchean edo herrian]"[163]).

Badirudi Jean Etxepare klerikalismoaren aurkakoa zela[164]. Orduko giro latza ulertzeko, jakin behar da antiklerikalek klerikalismoa ikus zezaketen bezala fedearen agerraldi soiletan, klerikalek ere antiklerikalismoa ikus zezaketela edozein laifikazio-ekimenean. Piarres Lafitte eta Luis Villasante bezalakoen garaian, Eliza sentibera samar zegoen beren edozein eskumen murrizketaren aurrean, adibidez, Lafitteren pertzepzio beligerantea hau izan zitekeen:

> "Gerla horrek [lehen Gerla Handiak] jats-aldi bat ona eman zioten [Jean Etxepareren] lehenagoko duda gehieneri. Erlisione-gizoneri zaukan aiherkunde xaharra urtu zitzaion"[165].

Nolanahi ere, Jean Etxepare heldua 1931n ez zen muturreko antiklerikal ñabardurarik gabea:

---

161 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. Tolerantziaz irakurri 1931ko hazilaren (azaroaren) 7ko gutuna.

162 Lalquette, J.: "Anticléricalisme" in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.). *Dictionnaire des faits religieux*. Paris. PUF. 48 or.

163 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.) *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 1931ko hazilaren 7ko gutuna.

164 Xarriton, P. (1995). "Fonds Lacombe: les lettres du docteur Jean Etxepare (2-6-1905; 4-3-1932)". *Bulletin du Musée Basque*. 140-144. 1. gutuna: 1905-VI-02. Ikusi Jean Etxepareren giroa aztertzeko1. atala ikerlan honetan.

165 Lafitte, P. (1941). "J. Etchepare jaun mirikua (1877-1935) : aitzin-solas". 5-21, in: *Buruxkak*, Jean Etxepare. (1980). Elkar. 15 or. http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LafitteLiteraturaz038.htm [2016-07-21]

"Sineste guzier, zinezkoak direlarik, begitarte on egiten dut.

Elizako buruzagi politikero batzuek ezin gaizkiago erabilia iduri bazait ere ardurasko, Galilean sortu hura bezain bihotz altchagarririk ez dut haatik ezagutzen.

Zurekin [Piarres Lafitte] bethi, eta bihotzez, elgar adi gitazkenetan"[166].

Antiklerikalismoak zentzu anitzak har ditzake. Batetik, esan zaio *antiklerikalismoa* Eliza arazo tenporaletan neurriz gain eskua sartzeko ohiturari langa jartzeko saio zilegiari, hau da, zentzurik onenari erreparatuta. Zentzu horretan Etxeparek ere, badiotso Piarres Lafitteri:

"Gertatu zait ba ene demboran, nahiz bakan, erlijioneko sinesteer sista batzuen emaitea. Aithor dut ahulezia bat izan dela ene aldetik. Erakuts ezadazu ordean gizon bat, bat bakarra, zuhau barne, berak ez bezalako sinesteer sistarik eman ez duenik. Gaur den egunean urriki dut halere ozarki bihurtu izanik batzutan, ahoz eta lumaz. Ichiltasuna hanitzez ederrago da, eta ichiltasuna bera baino, sinesteen araberalat zuhurtzian bizitzea"[167].

Haatik, tradizio deitoragarriko adiera gogorragoa izan dezake *antiklerikalismo* hitzak Frantzian. Bigarren adiera horretan historiak protestante eta katolikoen arteko erlijio gatazka eta gudu odoltsuetara garamatza, protestanteak izan baitziren antiklerikalismoaren abiatzaileak, nahiz era herri-literaturan baziren aurreragoko zantzuak, trobadore, goliardo eta *fabliaux* direlakoen artean. Gaur egun, antiklerikalismo zabar horren erakusgai izan liteke, agian, *Charlie-Hebdo* bezalako aldizkari satirikoa, bide batez esanda, horrela jokatzeko eskubidea ezin ukatu bazaio ere. Zenbaitek klerikalismoa ikusi uste dute fedearen agerpen soilak diren agerraldietan.

Jean Etxeparera bueltatuta, *Buruxkak*eko (1910) "Nor irakasle-zer irakats" artikulua antiklerikalismoaren puntu gorenean idatzitakotzat jo daiteke, hau da, 1880-1905 urte gordinetatik hurbil samar, Frantziako historian horrela izan baitzen. Artikuluan, jakina denez, Elizaren agenteei irakasteko egokitasuna ukatzen zaie, horien ordez aita-ama familiakoak

166 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 1931ko hazilaren 7ko gutunaren amaiera.

167 Kambotik, 1931ko urriaren 27ko gutuna in: Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 600 or.

hobesten direla, bizimodua zer den badakitelakoan, erlijiosoek ez bezala. Artikulu hori zentsuratu zuten medikuaren ahaide hurbilek, eta *Buruxkak* ez zabaltzeko arrazoi nagusietakoa izan zen artikulua, sexuaren inguruko beste batekin batera.

Etxepare aita-ama familiakoen aldeko hobespen-iritzi berekoa da 1931an, defendatzen duela:

> "Elizaren chedeez mintzatu zaizkit. Onhartzen dut haurren orotaz argitzea lukela, eta azturen xederratzea. Baina ikusiak ditut eta haztatuak, nor-nahik bezain ontsa, gibelondoak, eta sekula baino azkarkiago daukat, erlijioneko erakaspen bereiz batzuez kanpo, argitzale hedadurakoagoak eta chederratzale chuchenago, apainagoak litazkela apez ez serora ez litazken katoliko batzuk –familadun aitama katholiko batzu, ahalaz,- apezak eta serorak berak baino"[168].

Iruditzen zaio aita-amek badutela, liburuetako jakintzez aparte, bizitzatik jasotako irakaspenak emateko gaitasuna; gainera, apaizek askatasun falta daukate hala adimenean nola bihotzean[169].

Ezaguna denez, Elizaren inguruko auziek indarrean diraute egun ere, hainbat punturen inguruan: eutanasia, preserbatiboa, homosexualitatea, abortua, andrazko apaizak…; polemikek bizirik diraute, ahaztu gabe liburu eta filmen Elizaren arbuioak (Martin Scorseseren *Kristoren azken tentaldia* filma (1988), Jose Antonio Pagolaren *Nazareteko Jesus* liburua (2007)…)

Etxeparek zentsura pairatu zuen *Buruxkak* lehen liburuarekin. Horregatik *Beribilez*en bide zuhurragoa hartzera deliberatu zen, "gordinkeria"-rik gabea[170].

---

168 1931-X-12ko gutuna in: Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 600 or.

169 1931ko hazilaren 7ko gutuna in: Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 601 or.

170 Kambotik, 1931ko urriaren 27ko gutuna in: Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 600 or.

Bestalde Jainko kreatzailearen baitako sinesterik ez du Jean Etxeparek, berak aitortzen duenez[171]. Dio, zehatzago, 1893tik aurrera bilaketan ibili arren, ez duela bestela pentsatzeko arrazoirik aurkitu. Termino sinesgabe oso antzekoak darabiltza unibertsoaren izaera deskribatzeko, hala 1910eko *Buruxkak*en ("Nor irakasle-zer irakats" artikuluan) nola 1931ko gutun batean. Kosmologiako ikuspegi zientifikoak ere agertzen ditu *Beribilez*en, lurraren sorreraz diharduenean[172]. Beste behin ere bai, bidaiariak kostaldean direla, itsasoaren erosio-ahalmenaren deskripzioa dakar. Gaur egun nahitaezko azalpentzat dauzkagun ikuspegi zientifiko horiek, orduan ika-mikak sor zitzaketen estamentu erlijioso batzuetan.

Ikuspegi laiko batetik, Etxeparek Elizak besarkatzen zituen esparruei zabalegiak zeritzen, eta lekukotasunik utzi zuen horretaz. Ezin ahaztu, ordea, horrelako adierazpenak Georges Lacombe bezalako lagun "irekiei" baizik ez zizkiela egiten, izatez, Lacomberen zaletasun filosofikoa paradigmatikoa baitzen:

> "Cela dit, je [Jean Etxepare] tiens à vous [Georges Lacombe] féliciter et à vous remercier très chaudement des deux petites études linguistiques qui ont récemment paru sous votre signature dans L"Eskualdun Ona". (P. Xarritonen oin-oharra: Eskualdun Ona est le titre que prit l´hebdomadaire basque Eskualduna de Bayonne de 1904 à 1907). Elles dénotent un goût sincère et averti, et des connaissances profondes. Grande serait notre joie de vous lire ainsi de temps en temps. Peut-être même réussiriez vous à modifier l´esprit du journal et celui de ses lecteurs, trop concentré, à mon avis, sur cette nauséabonde politique cléricale, et ce serait un bien"[173].

Ez bakarrik gazte sasoian; bizitzan nahiko aurreratua zela, Azkue lagunaren idazkiei akats hori bera topatzen zien:

---

171 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 1931ko hazilaren 7ko gutuna.

172 *B.* 52.

173 Xarriton, P. (1995). "Fonds Lacombe: les lettres du docteur Jean Etxepare (2-6-1905; 4-3-1932)". *Bulletin du Musée Basque*. 140-143. 1. gutuna 1905-VI-02

"Certaines pages d´Aguirre et d´Azkue sont prises sur le vif, et je les ai beaucoup goûtées. Ils sont très inégaux toutefois l´un comme l´autre, et versent trop dans les choses d´église"[174].

Beste batean, sakoneko eztabaida erlijiosorik ez du Etxeparek aurkitzen Resurrección Azkueren *Ardi-galdua* (1918) liburuan, Medel liburuko pertsonaia federa lerratzen dela :

"Je vous le demanderai plus tard, après une seconde lecture très attentive, car je ne les ai plus présents à l´esprit.

Les raisons -au sens philosophique du mot- de la conversion de Medel sont absolument inexistantes, mais le personnage, emporté par l´amour fraternel exclusif, n´en est que plus sympathique. C´est un type d´"américain" des plus plaisants"[175].

Nabari da Etxepareren kezka espirituala, baina beti ere txantxetako tonu batez lagundua, garraztasunik gabea. Lacombe eta Etxepare gogaideak ziren Eliz-kontuen kritika-puntu horretan. Elizarentzat deserosoak ziren pertsonak asimilatzea ezinbestekoa iruditzen zitzaien batzuei. Horren harira, Piarres Lafittek ematen digu lekukotza adierazgarria, Lacomberen figura berreskuratzeko ahalegina egin baitzuen hura zendu ondoan, Etxeparerekin ere egin zuen bezala:

"Lacombe-k filosofia zaukan jakitaterik handiena eta laketena. Lan luzea eman du hartaz jabetu beharrez. Erranen dugu, hala biz, erlisionerik ez ukanez, huts horren betetzeko, gizonen argi dirdirenetan barna iker-mikerka, haztaka eta itsumandoka bazabilala, dena begi eta beharri. Ez zen baitezpada gure sineste sainduen etsaia, eta zonbaitek badakikete beren gostuz deus ez zitzaiola okaztagarriago apezen kontra ahotaraka mintzatzen entzutea baino. Ez zituen ere gure jakintsun fededun erran edo aburuak erdeiantzen; berak salatu dauku Aita Sertillange-n (sic) liburuak artoski irakurtzen zituela"[176].

---

174 Fonds Lacombe. *Les lettres du docteur Jean Etchepare*. 36. gutuna 1921-II-28

175 Fonds Lacombe. *Les lettres du docteur Jean Etchepare*. 53. gutuna 1922-VI-27

176 Lafitte, P. (2001). *Nafar lapurtar idazle aipatuenak*. Donostia. Elkarlanean. 112 or. Antonin-Dalmace Sertillanges Euskal Herrian ezaguna izan da, hala Orixerentzat, nola Jose Artetxerentzat, adibidez. Artetxe autodidaktak Sertillanges-en liburu hau asko estimatzen zuen: Sertillanges, A. D. (1921). *La vie intellectuelle: son esprit, ses conditions, ses méthodes*. Editions de la Revue des Jeunes.

Atal honetan ikusi dena da Jean Etxeparek Loiolako bisitan egin behar izan zituen diplomazia-ariketak ez zirela nolanahikoak izan, publikatu behar zuen *Beribilez*ek bidea egin zezan arantza posibleen artean.

Idazlearen irakurketak direnaz bezanbatean, bi hitz. Jean Etxeparek argitaratutako idazkiek erakusten dute ez zela txokoan bertan gozo eginez itsu bizizalea, baizik eta nazioartekoaren berri bazuela, ezagututa hala medikuntzaren arloko azken aurrerakuntzak, nola bestelakoak: filosofikoak, teknikoak, ekonomikoak, emigrazioaren berri, etab. Atal honetan idazlearen pentsamolde humanistikoari lotuta aitortu zaizkion erreferentzia nagusien errepasoari ekingo zaio, idazlearen literatur produkzioarekin lotuta. Beste ildo batetik, beraren pentsamolde zientifikoa ikertu du zenbait lanetan Kepa Altonagak[177].

2.1.2.2. Best-sellerra

Jean Etxepareren gogokoen artean bazen erlijio-liburu kristau bat ere, Piarres Lafitteri sinestekotan: Thomas Kenpisen (1380-1471) *Jesu Kristoren Imitazioa.* Apaizaren arabera, medikuaren liburu "hautetsiena", hain zuzen, idazleak psikologia-joko hutsera itzulia, tamalez, Piarres Lafitteren aburuz. Hala ere, ikusiko da Lafitteren lehia Etxepare kristau baten irudia ematearren.

Pesimista eta malenkoniatsu samarra da, berez, garai batean Europan Bibliaren ondoren bigarren best-sellerra izan zen *Imitazioa* idazlan hau[178]. Jean van Ruusbroecken mistikatik eta *devotio moderna*tik edan zuen, besteak beste, zeinarekin espiritualitate modernoa boladan

---

177 Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2016-05-21] Altonaga, K. (2007). "Etxepare, Aldudeko medikua baino gehiago" in: Begoña Bilbao et al. (arg.) *Paulo Iztueta euskal pentsamenduaren eraikitzaile*. Leioa. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Altonaga, K. (2009a). "*Beribilez*: zaku barne handikoa" *Erlea* 5. Euskal zientzia-prosa beste autore batzuengan ere aztertu du Leioako biologia-irakasleak: Altonaga, K. (2010a). "Arnaut Abadia (1843-1916): gure zientzia-prosaren aurrendari ahaztu bat" in: *Euskararen garapena esparru akademikoetan*. EHU. http://www.ehu.es/documents/2430735/2730484/LIBURUAehuei10-10.pdf [2017-02-03] Altonaga, K. (2010c). *Darwin geurean*. Iruñea. Pamiela.

178 Euskaraz liburu gutxik izango dute honen arrakasta historian zehar Bernardo Atxagara arte. Azkuek ere bertsio bat paratzen ibili zen, argitaragabea eta Euskaltzaindiaren funtsetan dagoena. Ez dakigu amaitu zuen.

jarriko den, berez, psikologikoa izanik -ezen ez intelektuala edo morala-, eta arimaren mugidak atzemateko kezkatia. Izan ere, aszetikoa eta morala baino gehiago, mistikoa da *Imitazioa*: Jesusekin barne-solasa izatera bultzatuko du irakurlea. Bizitza izpirituala aurrerantzean barne-bizitza izango da[179]. Euskaraz ere *Imitazioak* hainbat argitaraldi izan zituen, euskal liburuek arrakasta txikia izan ohi zuten artean.

Zehatzago, badira *Imitazioa*ren 800 eskuizkribu (1424 eta 1500 urte-bitartean), inprimatutako argitaraldiez eta moldaketez aparte. Beraz, lanak zabalkunde garrantzitsua izan zuen. Leon Leon-ek ere argitaratu zuen bat euskaraz, Jean Etxepare bizi zela, eta badirudi medikuak arinago hizkuntza-orrazketa egin ziola. Sakelan eraman ohi zuen liburua.

Konpara daiteke, adibidez, euskarara behin baino gehiagotan ekarria izan den beste antzeko best-seller batekin, alegia *Filotea*rekin. Saleseko Frantziskoren *Filotea*k kristaua gizartean murgildua nahi zuen, *Imitazioa*k ez bezala[180].

Hala ere eta bidenabar esanda, argitu bedi *devotio moderna*ren izaera mistikoa batzuek auzitan jartzen dutela, *Imitazioa* barnean dela. Jean van Ruusbroeck mistikotzat dutelarik ere, *devotio moderna*ri kutsu aszetikoa hartzen diote[181]. Debozio modu hau, berez katolikoa izanagatik, protestantismoaren aurrekaritzat ere jotzen da. Jean Etxepare helduaren balizko sinestearen harira Piarres Lafittek medikuaren kristautasuna aldarrikatu nahi du, gutxienez haren bizitzaren azken aldian, *Beribilez* argitaratze inguruko urteetan:

> "Bitxi bada bitxi, beti atxikia egona zitzaion Jesu Kristoren Imitazioari, nahiz liburu hori ez zuen erlisionezko bezala hartzen, bainan bai zuhurtziazko esku-liburu bat balitza. Jakingarri da Leon Leon apezak liburu hori itzuli zuelarik euskarala, Etchepare jaunak nahi ukan zuela bururen buru orraztatu ditaken errespetu handienarekin. Lan horrek ez zion segur kalterik egin. Nunbait berak ez ote du idatzi: Nik egun oroz ohoratzen dut Jesu Kristo?

---

179 Breck, J. (2002 [1998])]).]) "Imitation de Jésus-Christ" in: Lacoste, Jean-Y. (zuz.). *Dictionnaire critique de théologie*. Paris. PUF.

180 Sales, San Francisco de. (1882). *Introducción a la vida devota.* Madrid. José del Ojo y Gómez, editor. "Que la devoción conviene a toda suerte de estados y profesiones" atala irakur liteke 155 or. Euskaraz ere bada Haranederren itzulpen bikaina, 1853koa (III. kapitulua, estaduen eginbideaz): http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/4557 [2018-03-09]

181 Ruusbroec, Jean van. (1997). *Obras escogidas*. Madrid. Biblioteca de autores cristianos. Sarrerako XXX or.

Uste dut bere azken hilabetean bakea jarri zitzaiola bihotzean eta gogoa ere argitu”[182].

Jean Etxeparek ere baieztatzen zuen kristau-doktrina bereziki bihotz-altxagarria zitzaiola, nahiz eta “Elizako buruzagi politikero”-en jokabidearekin ados egon ez. Jainkoari buruz dio, urte luzeetan ahalegindu arren, Izate hori bere baitan zer den ez dakiela, beti egiten eta desegiten ari dela izan ezik[183].

2.1.2.3. Bizimodu garratz eta seriosa

Jarraian, ekin egingo zaio Jean Etxeparerengan eragina izan zuen bigarren pentsaera-iturri bati, Piarres Lafitteren arabera. Idazleak Arthur Schopenhauerengandik (1788-1860) jasoko zuen “bizimodu garratz eta serios” baten beharra, Piarres Lafitteren hitzez hitzeko aipuaren arabera[184].

Arthur Schopenhauer famatua da ezkortasunaren filosofo gisa. Mundua –dio- dohakabea da, eta giza natura deitoragarria, bistan denez eta enpirikoki erraz aski egiazta daitekeenez. Nahimena beti soseguaren bila dabil: haren nolakotasun nagusia ekitea izanik, sosegua bilatzean, duen helburu nagusiaren kontra lihoake, alegia, existitzearen kontra. Plazerak izaera negatiboa besterik ez du, ez baita sufritzearen une bateko baretzea besterik, egoera normala sufrikariozkoa da-eta. Mundu fenomenalean atal bakoitza besteen kontura superbizitzeko lehian dabil, zeinetik eratortzen den beraren guztien kontrako jaugina: zoriona, hortaz, iruzurra da. Antropologia horren etikak aszetismora darama, eta nork bere burua

182 Lafitte, P. (1984). “Jean Etchepare jaun miriku zena (1877-1935)” in: *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I Euskal gaiak*. P. Xarriton (arg.) Donostia. Elkar/Eskualtzaleen Biltzarra. IV or.

183 Xarriton, P. (1991b). “Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)”. in: Jean A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or. 1931ko hazilaren 7ko gutunean.

184 Lafitte, P. (1974). “Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak”. *Gure Herria* 1974 (4 zb.), oo. 207-218, (z. 5), oo. 261-270.). 210 or.

ukatzera. Bizitza transmititzeari uko egingo zaio, alegia, seme-alabak izateari, zorionaren iruzur hori saihesteko[185].

Justizia, negatiboa baizik ezin daiteke izan: inori kalterik ez egitea, eta errukia, beraz, sufrimendu orokorrarekiko sentipen moral bakarra, Arthur Schopenhauer izan baitzen estilo horretako Ekialdeko jakituriari ateak ireki zizkion lehen pentsalari europarretarikoa.

2.1.2.4. Nietzscheren irakurlea

Europaren ibilbidean munta handikoa izan zen Friedrich Nietzsche (1844-1900); Karl Marxekin eta Sigmund Freudekin batera susmoaren filosofoen hirukotea osatzen du; beheratxoago esplikatuko da susmo nietzschearraren funtsa. Esaten du kritikak Jean Etxepare Friedrich Nietzscheren irakurlea ere bazela. Hona, lehenik, Piarres Lafittek esandakoak:

> "Gaztetan Haeckel eta Nietzsche-n erranek burxoratu bazuten ere, laster itzuli zen Reichenbach-en filosofi analitikoari buruz eta als ob erran nahi baita alegia-eta (comme si) bizi-moldera jautsi zen; Euskal Herriko ohidurei egokituena zitzaiolakoan"[186].

Jon Kortazarren hitzak:

> "La presencia de este autor, "maestro en euskera" como lo llama Piarres Lafitte, o "prosista de la talla de Orixe o Lizardi" como prefiere Koldo Michelena, es extraña dentro de la literatura vasca, no sólo por razones ideológicas, sino también estilísticas. Nos encontramos ante un autor laico y laicizante, "civil" como se dice hoy, excelente lector de Nietzsche. Un humanista y a la vez un espíritu científico"[187].

---

185 Horregatik ez ote zuen seme-alabarik izan doktoreak bururatzen zaigu.

186 Lafitte, P. (1984). "Jean Etchepare jaun miriku zena (1877-1935)" in: *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. P. Xarriton (arg.) Donostia. Elkar/Eskualtzaleen Biltzarra. IV or.

187 Kortazar, Jean (1990). *Literatura vasca: Siglo XX*. Donostia. Etor. 48 or.

Badirudi *Buruxkak*eko zenbait pasarte inspirazio nietzschearrekoak direla, hala nola, "Amodioa"[188], "Egiaren hiru itxurak", "Mediku zaharrak gazteari" eta beste pasarte zenbait ere, bai liburu berean bai handik lekora.

2.1.2.4.1. Egia perspektibista

Hurrengo pasarteetan excursus bat egingo da idazlearen *Buruxkak* lehen liburuko atal baten aitzakian. Balioko du konturatzeko Jean Etxepareren idazkeran nola obratu zuen Nietzscheren filosofiak eragina. Hain zuzen, irakurketa proposamen bat da, ez derrigorrez bakartzat hartu beharrekoa, baina esan daiteke ahalmen heuristiko seinalagarria duela.

Diote Jean Etxeparek alemana "ontsa" ikasi zuela Larresoroko Apaizgaitegian estudiantea zela[189]. Ernst Haeckel eta garai bereko Friedrich Nietzsche irakurriko zituen, alemanez edo frantsesez. Bizkitartean, ez da alferrekoa izango erakustea idazleak Nietzscheren pentsamenduari zein moldez atxiki zitzaion gaztetan, argiago uzteko azken urteetan nola jokatu zuen.

Baiezta daiteke "Egiaren hiru itxurak" (*Buruxkak*-eko atala) epistemologia nietzschearra ezagutzen duen idazle baten berridazketa ariketa dela. Bertan kontatzen da nola bi mendizalek etxerakoan nekazari batzuk ikusten dituzten, abuztuko gari-bilketan ari. Mendizale narratzaileak ekiten dio giza talde horren karakterizazio moralari. Karakterizazio edo egia bakar absoluturik ez da, itxurak badira, ordea, hiru hain zuzen. Friedrich Nietzscheren arabera, egia posibleen artean bat hautatzen da bizitzeko, dena baita interpretazio kontua:

> "[La verdad no es sino] una hueste en movimiento de metáforas, metonimias, antropomorfismos, en resumidas cuentas, una suma de relaciones humanas que han sido realzadas, extrapoladas y adornadas poética y retóricamente y que después de un

188 Kintana, Jean (2001). "Nietzsche euskal literaturan: Jean Etchepareren "Amodioa" (1910)". *Jakin* 127. 109-128 or.

189 Lafitte, P. (1941). "Jean Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas". 5-21 or. berrargitaratua in: *Buruxkak*, Jean Etxepare. (1980). Elkar. 7 or.

prolongado uso, un pueblo considera firmes, canónicas y vinculantes; las verdades son ilusiones de las que se ha olvidado lo que son"[190].

Protagonista autobiografikoak ikuskizunaren lehen egia-interpretazio idiliko-kostunbrista baztertzen du: langileen artean armonia miragarria dago. Bigarren egia posiblea gordin-naturalista da: langileen arteko giroa opresibo samarra da. Idazlea geratuko da hirugarrenarekin non konpromisozko jarrera bat beretzen duen, ordu hartako euskal usadio intelektualekin ados etor zitekeena[191].

Nietzschek errotik kritikatzen zuen egiari eta pentsaera tradizionalari antzemateko ohiko modua. Zioen egia eta pentsaera tradizionalak, eskuarki eraikitzen ziren modua dela eta, erabateko funtsik ez zutela, salbu eta testuinguru oso artifizialetan eraikitzen ziren bakar batzuk. Zioen pentsaera oro perspektiboa dela, hau da, gertakari eta egia objektiborik ez, interpretazioak baino ez daudela[192]; Jean Etxepareren hitzetan *itxurak,* gure irudiko.

"—Ori, zaut hasten besotik harturik ene laguna, zelhaia erhiaz erakusten zaundalarik: Egiak baditu hiru itchura, baldin beha egoiten bazaizkio aitzinetik, parrean, edo han harat joan eta, gibeletik. Hiru itchura berezi... Egia bera ezin ezagutuz, hiruetarik bat hautatzen baitu gizonak eta bere barnean finkatzen, ordutik eratchikitzen daizkolarik bere egintza eta gogoeta guziak. Hoberenaren berechtera behar baitu beraz ari, bere onetan"[193].

Beste gogoeta epistemologiko bat:

"Zer da gure adimendua, hartaz baigaude guziz hantuak? Gauza guti. Badakiguia deus ororen buruan? Badea errotik ezagutzen dugun zerik? Hoinbertze menderen

---

190 *Friedrich Nietzsche: Sämtliche Werke. Kritische Studienausgabe* (G. Colli eta M. Montinari, arg.) Munich, 1986 (15 liburuki) 1 liburukia 880 or. in: Niemeyer, C. (arg.) (2012). *Diccionario Nietzsche*. *Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva. 522 or.

191 Auzi honen inguruan: Kortazar, Jon (2008). "Naturalismoa" in: *Literatura Terminoen Hiztegia*. Euskaltzaindia. Apalategi, U. (2014). "*Buruxkak* (1910) Jean Etxepare, "Mirikua"" in: *Euskal literaturaren hiztegia:* http://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=240. [2018-III-3]

192 R. Schacht: "Nietzsche, Friedrich Wilhelm" in: Honderich, T. (arg.) (2005 [1995]). *The Oxford companion to Philosophy*. Oxford. Oxford University Press. 657 or. eta hur.

193 Etxepare, Jean (1910b). *Buruxkak*. Lekornen eta Aldudan salgei. Olaso Dorrea Sorrerakundearen jabetzapeko dokumentua, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan kontsulta-gai. 162 or.

ondotik, belhar osto bat bakarra ez du egin ahal ukan oraino gizonak, ez eta ere zilatu bera nundik heldu den, norat doan, zer den zeru gain hortan, noradino doatzin horko eremuak, nola gauden zenbeit urtez bizirik gero itzaltzeko, heriotzeak ea hiltzen gituenez osoki, ala bertze norapeit bertze itxura batekin apaindurik alharat eremaiten? Lur huntako itzulikez berez, ez daudea gure argiak bethi heintsu bat, hitzak baizik edo izenak ez direlarik aldatzen?"[194]

Egiaren ikusmolde horren arrastoa egon daiteke Donostiako petrikiloren pasadizoan ere, narratzaileak sasi-medikuaren jardunaren balorazioa egiten duenean. Kontua da Donostian lapurtar batzuen solasa entzuten duela elkarri kontatuz nola petrikilo batek gaixotasunetik aterako dituen, sudur-ebakuntza ustez miragarri baten bidez. Gaitzets zezakeen lapurtarren jokabidea medikuntzaren ikuspegi positibo bati eutsita; aldiz, ironiaz eta perspektiba humanistaren zentzuaz petrikiloren praktikaz gogoeta egiten du, kalterik ez dakarrelakoa aipatuz.

Badagoke hor aire nihilistako epistemologia bat, Nietzscheren estilora. Izan ere, Nietzschek nahiago zuen iradokizunak eskaini, aieruak jaulki eta hipotesiak proposatu arrazoitze-lerro zorrotzak eraiki baino.

Ez dago eztabaidatu ezineko baieztapenik. Baieztapenaren egia-balioa txikiagoa da, baieztapenaren bizitza-balioa baino. Hau da, egia baten balioa bizitzaren mendekoa da, alegia, kontuan duena ea gizakiei balio dien, ahaztu gabe norberak beharrezko dituen iraute-, loratze- eta hazkunde-baldintza apropos eta bereziak. Egia jarriko da epaimahai horren aurrean.

Hiruretan itxura zentzuzkoena da "Egiaren hiru itxurak" kontakizunaren amaieran hobesten den hori, eta narratzaileak bizimodua orduko gizarte hari egokitzeko doiena, esan daiteke:

"Gau on, adixkidea. Ilhun beltza dugu. Erakutsi dautzut Egiaren hirugarren itxura, gizonak zuhurtzian dagoeno eratxikitzen dakona, hoberena eta azkena"[195].

---

194 Etxepare, Jean (1910b). *Buruxkak*. Lekornen eta Aldudan salgei. Olaso Dorrea Sorrerakundearen jabetzapeko dokumentua, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan kontsulta-gai. 166 or.

195 Etxepare, Jean (1910b). *Buruxkak*. Lekornen eta Aldudan salgei. Olaso Dorrea Sorrerakundearen jabetzapeko dokumentua, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan kontsulta-gai. 168 or.

Ez da pentsatu behar Nietzscheren irakurle zen medikuak erabateko askatasuna zuenik, kontuan izanik zer ingurutan bizi zen, eta zein ziren haren bezero nekazariak, gehienak baserritar xumeak, kontakizunaren motibo nagusia. Izan ere, medikuak behin baino gehiago aipatzen du irabazien urritasuna, eta, bidenabar, hirietako mediku omen handiagokoek herri txikikoei egiten zieten konkurrentzia.

Ipar Euskal Herri laboraria osotasunean hartuta odolusten ari zen emigrazioaren bitartez. Hala bada, Lore jokoetan ere emigrazioaren gaia sarri jarri zieten koplariei[196]. Nekazaritzaren egoera ekonomiko juxtuak ez zien mugimendu askotarako betarik eskaintzen atxikitako zerbitzuetan ogia irabazi behar zutenei:

> "Comme les masses paysannes estimaient depuis longtemps que peu de changements en valaient la peine, elles furent souvent considérées comme bornées, passives et stupides. Cependant, on sait maintenant que leur vision étroite était une vision d´hommes apeurés, vivant dans des conditions désespérées; que le village était un canot de sauvetage s´efforçant de garder à flot, sur une mer agitée, sa culture, combinaison de discipline et de réconfort destinée à garder ses occupants en vie. L´insécurité était la règle, et l´existence était logiquement marginale. La tradition, la routine, un fort attachement à la famille, à la communauté, et donc à leurs règles, rendaient seuls l´existence possible. Le village était une association d´entraide mutuelle. Les terres, les pâtures et les fours étaient généralement exploités en commun; les dates pour les semailles, et la moisson étaient fixées pour tout le monde. Puisqu´il fallait tirer la charrue ensemble, on ne pouvait tolérer aucun écart"[197].

Horrela, kontakizunaren erremateko hirugarren egiak nietzschearretik gutxi daukala esan daiteke, eta gehiago duela esan bezala benetan Aldude bezalako herri nekazari txiki bateko mediku batena, gizarte-armonian bizi nahi duenarena. Argi eta garbi, ez da, inondik inora, irakurle potentzial gehienek arbuiatuko luketen aterabidea ematen dena.

Eztabaida filosofiko bat irudi bidez planteatzeko modu honi buruz zerbait esatea badago. Hau da, mendian behera datozen mendizaleek aurrez aurre duten imajina bat moralki

---

196 Goihenetxe, M. (1992). "Ipar Euskal Herria XIX. mendeko azken hamarkadetan". *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 37-1. 17-29 or.

197 Weber, E. (1983). *La fin des terroirs.* Fayard. 680 or.

nola interpretatu da arazo nagusia kontakizun honetan. Askotan, Nietzscheren jokabidea ere literarioa zen, ereduak eta metaforak literaturatik hartzen baitzituen, izan ere, haren izkribuak Alemaniako literaturaren historian kanonikoak dira, ez bakarrik filosofiaren historian. Jean Etxepareren testu honetan ere bada asko horrelakorik. Adibidez:

> "Gorachago beha zoin pollit emaiten duten herriko etcheek, churi churia, metan, elizañoak gain hartarik zaintzen dituela. Arrai iduri dute hil-herriek berek, egunaren argiak gainditzen dituelakotz. Nork daki, guk ez ikusirik ere, ez direnez hil gaichoak beren egoitzetarik jalgiak —hotz eta ilhunak baitzeiezte— alhorretarat jausteko, beren haurren laguntzea gatik lehenago berek hain laket zuten ogi sartzean?..." [198]

Metaforak eta irudiak ere bazerabiltzan Nietzschek erruz. *Beribilez*en itsasoarekin egiten duen jokoa ezpal honetakoa izan daiteke[199], hau da, literatura-jantziz agertzen da eduki filosofikoa. Zinez, egia absoluturik ezean, Nietzscheren ustez, filosofia da kasu baten aurrean aldeko eta kontrako argudioak bilatzea interpretazio eta ebaluazio bakoitzeko (*making cases*). Ez dira ohiko argudio filosofikoak: esaterako, "Egiaren hiru itxurak" kronikan ere horrela jokatzen da (*Buruxkak*).

Mesfidantza eta susmoa eraikitzen da akastuntzat jotzen diren egia-modu batzuen aurrean, eta sinesgarritasuna kentzen zaie, erakutsiz duten ahultasuna. Ezeztatze edo errefutaziorik ez dago, egia haien seriotasuna kolokan jartzen da. Nietzschek ez zituen baieztapenak demostratzen, eta hipotesiak eta ondorioak saiakera gisa ematen zituen, behin-behinekotasunez. *Bere* egia propioak izateko eskubidea aldarrikatzen zuen, amaitu ezin zitekeen egiaren bilaketa baten barnean.

Jean Etxepareren egia perspektibista horiek ez diete ixten bidea beste interpretazio batzuei, moldaketa berriak egiteko bidea zabalik geratuz. *Buruxkak*eko "Amodioa" kontakizunean ere, amodioaren inguruko entsegu dialogatu filosofikoa, egia itzuriezinik ez dago, badaude aieru batzuk eta narratzaileak amaiera irekita uzten du.

Perspektiba bidezko hurbilketak dakar ereduak eta metaforak erabiltzea, iturria edozein izanik: Nietzschek har zitzakeen horiek literaturatik, artetik, natura-zientzietatik, gizarte-

---

198 Etxepare, Jean (1910b). *Buruxkak*. Lekornen eta Aldudan salgei. Olaso Dorrea Sorrerakundearen jabetzapeko dokumentua, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan kontsulta-gai. 162-163 or.

199 *Beribilez*eko "Itsasoa kukulauka" izeneko X. atala.

zientzietatik, psikologiatik eta abarretatik. *Beribilez*en sinboloen artean ditugu Olerkiaren tenpluaren irudia, usoaren sinboloa, hiri-itxurako hodeien alegoria...

Nietzschek argi zekusan ikerketa modu horrek edo posiblea den beste edozeinek ezin erdiets ditzakeela metafisikak tradizionalki izan dituen helburuak. Metafisikaren eretzeko eszeptikotasun hori medikuaren gustuen araberakoa zen eta horrexegatik azaldu nahi da hemen. Alemaniarraren ustez, ez dago ezer esanguratsurik ulertzerik. Filosofia honetan, moralitatearen ingurukoak ohikoa dena baino hobeto ulertuko dira bakarrik saiakera-espiritu honetan ulertzen badira: giza bizitza, historia eta esperientzia ere bai. Fenomenoz osatu dugu guri "ardura digun mundua", "guk sortutako" modu askotan eta oso errealetan.

Nietzschek erabateko errealitatearen Grial Santua ordezkatzea proposatu zuen, bereziki errealitatea jainko transzendente gisa edo "izatearen benetako mundu" gisa ulertzen bada. Baina gizakia eta giza gorabeherak baino ezin baditugu ulertu ere, jakintza mugatu hori lortzea mereziko luke eta garrantzia luke.

Bizitza hornitu daiteke berez ez duen balioz eta esanahiz. Nietzschek aukera hori agenda filosofikoan txertatu zuen. Gizakiek gaindituko balute absolutuak izateko premia etsipenean eta nihilismoan erori gabe –eza eta ezereza desiratzea-, izango lukete beren burua baieztatzeko modu berri eta jasangarriagoa, fikzioetan, ilusioetan, ezinezko ametsetan ibili gabe, eta fede bilaketa bortxatuei amore eman beharrean. Hori da Nietzschek paratutako irtenbidea, kristautasuna eraitsi ondoren[200].

Esanahia eta balioa birpentsatu behar dira, posible zaigunera geure burua egokitu ahal izateko. Nietzscheren pentsamenduak ez du horrelakorik eskainiko, pentsamendua baino zerbait gehiago behar baita, alegia, behar da bizialdia modu sortzailean bizitzea beraren kalitatea hobetzeko. Interpretazio gisa, Jean Etxeparek kontakizun honetan ematen duenaren antzekoa dirudi Nietzscheren egiaren ikuspegiak.

Jon Casenavek tesian proposatzen du "Egiaren hiru itxurak" honen interpretatzeko Michel de Montaigneren "Les trois commerces" atala kontuan hartzea haren *Entseiuak*en. Ahalmen heuristiko handiagoko proposamena aurkeztu nahi izan da goiko paragrafoetan.

---

200 Heit, H. : "Verdad" sarrera in: Niemeyer, C. (2012). *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva.

*Beribilez*en ere esan daiteke gaztaroko Nietzsche-zaletasunaren oihartzunak badirela, aldian aldiko balorazioarekin, eta ez beti erabateko adostasunez. Ikusiko da.

2.1.2.4.2. Estetizismoa eta Olerkia

Arestian aipatutako egia metafisikoki ezin ezagut daitekeelako hori ondo uztartzen da Jean Etxeparek beretu zituen pentsamolde-erreferentzia batzuekin, alegia, batetik, Arthur Schopenhaueren eta, bestetik, Ernst Haeckel eta Hans Reichenbach positibisten pentsamoldeekin. Beraz, badirudi ehundura koherente bati lotzen zitzaiola Jean Etxepareren mundu intelektuala, ala, bestenaz, koherentzia pentsalari horiek partekatutako mende-giro baten seinalea izan daiteke, metafisikaren kritikan ardaztua.

Azpiatal honen egitekoa da funtsatzea *Beribilez*en bizpahiru aldiz agertzen den "Olerkia"-ren goraipamen suharrek eta egiten zaizkion azpimarrek lotura izan dezaketela Nietzscherengan ere baden estetizismoarekin. Hala ere, estetizismoak ez du edaten iturri bakarretik, eta fenomeno hedatua zen XIX. mendearen amaieran. Azalduko da, segidan, estetizismoa zein pentsaeraren bidezidorretatik agertu zen.

Garai hartan, darwinismoak materialismoari bidea ireki zion; Ernst Haeckel ere, Jean Etxepareren irakurgaietako bat, darwinismoaren zabaltzailea izan zen Alemanian. Gizakia igaro zen Jainkoaren eskuetatik, animalia-erreinuaren ardurapera. Nietzschek zientziaren datu negatibo hauek beretzen zituenez, batetik, zientziaren autoritateari azpijana egiten zion, eta, bestetik, ez zuen zientzia nahikotzat hartzen giza esperientziaren berri emateko: egiaren premia gaindituta, gizakia mundua sortzera abia zitekeen.

Nietzschek uste zuen Ilustrazioak kristautasuna ahuldu zuenez geroztik, zientziak erlijioa eta metafisika eraitsi zituela, kristautasunari ukaldi gaitza emanez. Unibertso amoral eta xalo batean esanahi estetikoa besterik ezin zitekeen egon, gizakiak berak eratxiki hura.

Kristautasuna abaildu eta gero iraun ahal izateko, Nietzschek, besteak beste, ideia batzuk baliatu zituen: bitalismoa eta estetizismoa, besteak beste. Bitalismoa, lehenik, antidotoa zen arrazionaltasun zientifikoaren eta haren ondorio pesimisten kontra. Nietzscheren kasuan

ikuspegi dionisiakoan laburbil daiteke. Bitalismo dionisiakoa aurretik ere sumatu du kritikak Jean Etxepareren idazkietan[201].

Bigarren, estetizismoa: filosofia alemanak artea erdigunean kokatzen zuen, Schilleren eta Schopenhaueren bitarteko aldian. Existentzia eta mundua estetika-fenomeno gisa baino ezin litezke justifika, behin erlijioaren eta moralaren nagusitasuna amaituta. XIX. mendetik XX.era igarotzean idazle "dekadenteek" ere estetikaren aldeko apustua egin zuten, ez baita Nietzscheren gogaideek soilik eginiko apustua[202].

Estetizismoa, alde batera, materialismoaren eta kapitalismoaren aurkako erreakzioa zen: Ingalaterran, adibidez, baziren Victoria Erreginaren (1837-1901) azken garaian prerrafaelitak eta Oscar Wilde[203]. Estetizismoa bazen "ethos burgesa" delakoa gorpuzten zuten "filistino"-en kontrako erreakzioa ere. Frantzian, esparru honetan, *l´art pour l´art* (J.–K. Huysmans-en *A rebours* (1984)) eta sinbolismoa zeuden. Espainian, Juan Ramón del Valle Inclánek *Sonatas* idatzi zituen dekadentista gisara, halatan non sinbolismoak Modernismo izena hartu zuen. Euskal Herrira ere heldu zen sinbolismoa Lauaxetaren eta Lizardiren bidez *Beribilez*en garaitsu horretan.

Lauaxetak berak ere gizarte burgesari kritika egin ziezaiokeen, nahiz eta Bilbon bizitzen jarri, Laukizetik etorrita. Jean Etxeparek euskal tradizio horretan kokatzen du bere burua *Beribilez*en, "Olerkia"-ren dohainak bizpahiru aldiz goretsita.

Hain zuzen, arrasto horretan sailka daiteke *Beribilez*en egiten duen Donostiako hazkunde berriaren eta materialistaren kritika, "Olerkia"-ren alde agertuta. Donostiatik aurrera errepidean aurkitzen dituzten jauntxo harraparien kritika ere aipatu ethos burges horren kontrako arbuioarekin lot liteke. Alabaina, estetizismoak etika eta politika bigarren mailan kokatuagatik ere, *Beribilez*en bada kezka etikoa eta erlijiosoa, politikaren aldeko aztarnarik apenas dagoen arren.

Onenean, estetizismoa indar zaharberritzailea zen itsusitasunaren, zakarkeriaren, zapalketa eta injustizia latzen, konplazentziaren, hipokrisiaren eta filistinismoaren garai hartan.

---

201 *Buruxkak* eta espiritu Dionisiakoaz: Kintana, Jean (2001). "Nietzsche euskal literaturan: Jean Etchepareren "Amodioa" (1910)". *Jakin* 127. 109-128 or.

202 Watanabe, H. (1997). *The Cambridge History of German Literature*. Cambridge University Press. 327 or. eta hur.

203 Cuddon, Jean A. (1999). *Dictionary of literary terms & literary theory*. 5. arg. London. Penguin. "Aestheticism" terminoa.

Edertasunaren bilaketa zen, sinetsiz Edertasunak balio independentea zuela. Txarrenean estetizismoa idealismo lausoa eta manierismoa baino ez zen, gizartetik erauzitako frikien jarrera bitxia.

Nolanahi ere, garai-giro baten barruan kokatu nahi izan da *Beribilez* aurreko paragrafoetan. Ez da zailtasunik gabea jakitea XX. mendeko lehen heren hartan Euskal Herrian zer korronte zehatzi jarraitzen zitzaion idazle bat, Europan bertan ere beren artean loturik zeuden hartan.

2.1.2.5. Positibismoa

Adierazgarria da kritikak behin baino gehiagotan azaleratzea positibismoaren eztabaida errepikakorra, adibidez, Piarres Lafitte Jean Etxeparerekiko solasez ari dela "Notre maître M. le Dr. Etchepare" artikuluan. *Positibismo* hitz solte horren aipamen soila agertzen bada ere, erraz antzeman dakioke bi lagunen artean izan zituzten ika-miken testuinguruan garrantzia izan zuenari. Jean Etxepareren "positibokeria"-z mintzo zaigu Piarres Lafitte beste lan batean ere[204]. Ez da harritzekoa, XIX. mende amaierako giro frantsesa ezagutuz gero. Estatuaren eta Elizaren arteko bereizkuntzaren auzia pil-pilean zegoen, eta zientziaren eta fedearen arteko tirabirak eguneroko ogia ziren.

> "Jean Etchepare osakin zenak ere bere Buruxketan (1910) erakutsi zuen franko bortizki bere positibokeria, ez bazituen ere golkoan zituenak oro argitaratu. Geroztik, behin edo bertze mintzatu gira harekin gauza hoitaz, nahiz ardurenean auzi horiek ixilik zauzkan"[205].

Piarres Lafittek hizpide du medikuaren isiltasuna golkoan zituenei buruz, bakanka baino ez baitzituen adierazten. *Beribilez*en ere positibismoaren maratila honi buruzko adierazpenak arras bakanak dira era berean, nahiz eta saiatuko garen beraien agerpenak argitzen.

---

204 Lafitte, P. (1974). *Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak*. Bayonne. Imprimerie des Cordeliers. 5-6 or.

205 Lafitte, P. (1974). *Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak*. Bayonne. Imprimerie des Cordeliers. 5 or.

"Halere haren artikuluetan hitz-erdika edo laurdenka usna zitazkeen haren azpigogoetak"[206].

Izan ere, *Beribilez*en errepikatu egiten da sineskerien kritika elementu hauek bezalakoen aurrean, esaterako: emakume agorrak ugalkor bihurtzeko Orreagako harria, Ignazioren etxeko iturri mirakuilutsua, Donostiako petrikiloa… Sineskerien arbuiatze hori historikoki modernitatearen ezaugarrietako bat da[207].

Piarres Lafittek esaten digu Jean Etxepareri kristau-fedea kordokatu zitzaiola, Larresoroko apaizgaitegian filosofia ikastean. Lafitteren esanetan, gerora, filosofia alemana ezagutuko zuen, Bordeleko unibertsitate-ikasketak ezkero. Bizitza osoan zehar izango zituen kezka intelektualen erakusgarri bat baino ez dira Lafitteren testigantzari esker ezagutzen ditugun medikuaren irakurgaiak, inguruko solaskideekin (Georges Lacombe, Piarres Broussain, Piarres Lafitte bera…) orotariko solas jasoak baitzerabiltzan[208]. Jarraian erreferentzia positibista nagusiei txanda emango zaie, hau da, zientzia positiboarekin lotura zutenei: Auguste Comte, Ernst Haeckel eta Hans Reichenbach.

2.1.2.5.1. Errepublika positibista

Jean Etxepareren metafisikari buruzko arretak bi aurrekari nagusi ditu Europan: Kant metafisikaren posibilitatea aztertutakoa, eta Comte positibista. Positibismoa Auguste Comtek (1798-1857) itxuratu zuen, 1850 aurretxoan. Haren ideien laburpenik fidelena *Discours sur l´esprit positif* (1844)[209] da. Comtek zioen gizateriak hiru hazkunde-etapa izan dituela: teologikoa edo fikziozkoa, metafisikoa edo abstraktua eta zientifikoa edo positiboa. Comteren programa beligerantea da, eta jakintzen gizarte-berrantolaketa bat bilatzen du. Historiaren filosofia horrek historiaren amaiera iragarriko du.

---

206 Lafitte, P. (1974). "Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak". *Gure Herria* 1974 (4 zkia.) 207-218 or., (5. zkia.) 261-270 or. 210 or.

207 Weber, E. (1983). *La fin des terroirs*. Fayard.

208 Historiaren garai horretako protagonisten gutun-trukeak hainbat bildumatan jaso dira.

209 Lecourt, D. (1999). "Positivisme" in: Lecourt, D. (zuz.) *Dictionnaire d´histoire et philosophie des sciences.* Paris. PUF. Euskaraz, Martínez, E. "Positibismoa" in: UZEI. (1987). *Filosofia hiztegia 1*. Donostia. Elkar. Bestalde, Auguste Comteren diskurtsoa sarean: C http://classiques.uqac.ca/classiques/Comte_auguste/discours_esprit_positif/discours_esprit_positif.html [2017-02-08]

“Positibo” hitzak izendatzen du erreala dena, kimerikoa denaren aitzi. Ezagutza positiboa da ezagutza arrazionalaren eta esperientziaren bidez egiaztatutakoa. Legeak eta fenomenoak bilatu behar dira, metafisikaren arrazoiak alde batera utziz. Gertakariez haraindikoak ez du interesik.

Giza espirituak bi modutara joka lezake fenomenoak galdekatzean. Lehen modura, kausak bila ditzake dela teologikoki, dela metafisikoki. Teologiak galdera kimerikoak egiten ditu, izan ere, naturaz gaindiko botere pertsonifikatuak ezartzen ditu behatu dena azaltzeko. Metafisikak entitate abstraktuei egokitzen dizkie fenomenoak.

Bigarren modura, aldiz, giza espirituak esentziari eta zergatiari buruzko gogoeta antzuak baztertuta, esperientziaren eta behaketaren bitartez aztertzen du errealitatea. Positibismoaren optimismoa lotuta dator XIX. mendeko industriaren lehen arrakastarekin, aurrerapenean sinesten baitu, Ilustrazioak bezala. Positibismoaren pesimismoa, aldiz, lotuta dago Jainkoa baztertzearekin. Etxepareri Lafittek nabaritzen omen zion aiurri “hits eta eztia” horren arabera interpreta daiteke.

Pentsalari askok ñabartu dituzte Comteren tesiak, eta esan dute teologiaren, metafisikaren eta zientziaren objektuak ezberdinak direla zein beren diziplinan. Teologiari Jainkoa badenetz aztertzea dagokio, eta metafisikari, aldiz, giza bizitzaren zentzuaz galdetzea.

Frantziako III. Errepublika positibismoaren oinordekoa da. Positibismo errepublikarra antiklerikala zen, eta sistema politikoa funtsatu nahi zuen Comteren gizarte-erreformatzeko asmoekin bat, zientziei jarraiki, dogma teologiko edo metafisiko oro baztertuta.

Beste alde batetik, fede kristauaren araberako espiritu teologikoaren ale gisa, hona hemen Piarres Lafitte bezalako apaiz argitu batek zer esan zezakeen lurraren sorreraz. Bitxia da XXI. mendekoarentzat nola lot zitezkeen XX. mendearen erdian objektibotasun zientifikoa eta depresio psikikoa. Gogoratu Lafittek Jean Etxepareri egokitzen zion “denek ezagutzen ginion barneko ilhundura hits eta eztia”[210], Larresoroko Larralde gogo-zuzendariarekin hautsiz geroztik omen zuena. Hona azalpena, eta Lafitte beraren lumatik nihilismo horren kausa:

---

210 Lafitte, P. (1941). “Jean Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas”. 5-21, in: *Buruxkak*, Jean Etxepare. (1980). Elkar. 10 or.

"Erakaspen horiek ez dakarkete ez itsumendurik ez etsimendurik: girichtinoaren arabera, zeru-lurrak adimenduari irekiak daude, adimendu batek eginak direnaz geroz, eta beraz jakintsunek ez dute zeren duda beren iker-lanetan; -hala-hala, bizia ez zaio biharamunik gabeko ziliporta ez deus bat, bainan Jainko on baten gerizapean baliatu behar duen arte saindu bat. Zoin urrun giren gogo ilhun eta kechu batzuen elhe beltzetarik"[211].

Ziliportaren aipua eta gogo ilunarena badirudi zuzenean Jean Etxepare gogoan duela egin dituela Lafittek. Eguzkitik irtendako ziliporta zen Etxepareren arabera planetaren sorburua, *Beribilez*en dioenez[212].

Metafisikari egin zaion kritikaren neurria hartzeko egokia litzateke gogoratzea nola oraindik orain Koldo Mitxelenak txarresten zuen, premia eta etekin handiagoko zereginen izenean, Joseba Intxaustik[213] eta Orixek[214] zerabilten eztabaida metafisiko moduko bat izatearen kontzeptuaren inguruan *Egan* aldizkarian[215].

2.1.2.5.2. Eboluzionismoa

Ernst Haeckel (1834-1919) naturalista ere aipatzen du Piarres Lafittek, Jean Etxepare asebetetzen zuten autoreen artean. Charles Robert Darwinen (1809-1892) teoria eboluzionistak zabaltzen aritu zen Ernst Haeckel Alemanian, eta haren argitalpenek zabalkunde eta arrakasta handiak izan zituzten irakurleen artean[216].

---

211 Lafitte, P. (1952). "Aphez eskualdun batek behar lukeen kulturaz". *Gure Herria* 24-2. 79 or

212 Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2016-05-21]. Ikusi "Ziliportarena" atala.

213 Intxausti, Joseba. (1960). "Izatea ta bere zentzua". *Egan* XIII. 39-49 or.

214 Orixe. (1960). "Izaki, izate, eza". *Egan* 3/6.

215 Michelena, L., & Altuna, F. (1972). *Mitxelenaren idazlan hautatuak: Idazlanen aukera oharrak, iruzkinak*. Mensajero. "Asaba zaharren baratza" artikuluan 88 or. eta hur.

216 Naturalistari buruz idatzi du K. Altonaga biologoak ere euskaraz. "Haeckelen itzal zabala" atala irakur daiteke in: Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. 67-74 or. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf.

Batzuek sailkatu dute Ernst Haeckelen darwinismo soziala nazismoa posible egin zuen gizarte-giroaren substratuko elementu gisa. Biologiaren bitartez justifikatzen zuen estatu sendo zentralizatua, administrazio-langileria sendoa beharrekoa –unibertsitate sistema eraginkorra barne-, hautespen naturalak talde mailan eragiten baitu, ez indibidualki. Bizitzaren aldeko borrokaren xedea Estatua bizirautea da, ez estatuaren kideek[217].

Zenbaiten iritziz, adostezinak dira teologia kristau batekin eboluzionismo mota batzuen ikuspuntu materialista eta positibistak, gaur egun ere. Gizakiaren aberetasun soila adostezina litzateke *imago Dei* delakoaren duintasunarekin. Alegia, eboluzioak arima nola esplikatzen duen auzitan dagoke, teologiaren ustez.

Ernst Haeckel agnostiko militantea zen Alemanian, Thomas Henry Huxley (1825-1895) entzutetsuaren parekoa Ingalaterran. Giro pasionala sortu zen horiek bezalakoen eta elizgizonen artean. Ez zen egon erabateko arbuiorik Elizaren irakaslegoaren aldetik, baina Koloniako kontzilio probintzialak esan zuen 1960an giza gorputzaren transformismo eboluzionista Idazteunaren eta fede katolikoren kontrakoak zirela. Hala ere, 1869an, Vatikanoko I. Kontzilioak esana zuen era lasaiagoan fedeko egiak eta arrazoikoak ezin zirela egon kontraesanean[218].

Erantzuna izango dute eboluzioaren kritika monolitiko kristauek, urteak pasa ahala. Kritikariek, zeinek bere gisara, Jean Etxepareren figura erreibindikatuko dute kristautasunaren altzora biltzeko, nahiz agnostizismoaren aldera biltzeko.

XXI. mende hasierako talaia honetatik begiratuta ematen du eztabaida hori bezalakoek zuten garra moteldu egin dela. Eboluzionismo eguneratu baten onarpena orokorra da Europan eta Elizak men egiten dio garai bateko berritasunari, isiltasuna men egitea bada, nahiz eta AEBn kreazionismoa eskoletan irakastearen aldeko ekimen eta oldarrak izan diren ez aspaldi[219].

---

217 Ruse, M. (2004 [1996]). "Évolution" in: Canto-Sperber, M. (zuz.) *Dictionnaire d´éthique et de philosophie morale*. Paris. PUF. 710 or.

218 Leclerc, M.: "Évolution" in: Lacoste, Jean-Y. (zuz.). (2002 [1998]). *Dictionnaire critique de théologie*. Paris. PUF. 534 or.

219 Altonaga, K. (2010c). *Darwin geurean*. Iruñea. Pamiela. Liburuak darwinismoak Euskal Herrian barneratzeko izan zituen zailtasunak jasotzen ditu; gaur egun, historiara iragandako episodio errepikaezinak dirudite.

Begibistakoa da, alabaina, hala eboluzionismoak, nola kristautasunak doitu behar izan dituztela beren irakaspenak, eta bien arteko liskarrak malgutu.

2.1.2.5.3. Egia probabilistikoa

Hans Reichenbachen (1891-1953) enpirismo logikoak Euskal Herriko ohiturei egokitzeko *motto*a eskaini zion medikuari: *als ob (*balitz bezala*,* alemanez)[220]. Hans Reichenbach zen enpirismo logikoaren ordezkari behinena; Vienako zirkuluko gainerako zientzialari eta filosofoek bezala, "munduaren ikuspegi zientifikoa" aldezten zuen, "metafisikaren funsgabekeriatik" jaregin nahiz pentsaera[221]. Tesia 1916an amaitu zuen probabilitatearen teoriari buruz, beraz, Jean Etxepareren helduaroko eragina baino ezin zitekeen izan, baina ahaztu gabe Vienako Zirkuluaren lanak 1907an hasi zirela. Probabilitatearen gaia Reichenbachen kezka izan zen bizitza osoan zehar, eta Jean Etxepare ere harrapatu zuen kezka horrek.

Hans Reichenbachek Berlineko Taldea sortu zuen unibertsitatean 1930 inguruan. Geroago, jatorri judukoa, sozialista gaztetan, 1933an Hitlerren Alemaniatik Turkiara alde egitea tokatu zitzaion, unibertsitatetik bota baitzuten. Sintomatikoki, Jean Etxeparek ere *Beribilez*en gerraurreko giro nahasi hori nabaritu eta deitoratu zuen bizpahiru urte lehenago *Beribilez*en[222]. Bizimodua ateratzeko, Reichenbachek dibulgazio saioak inprimatzen zituen maiz, eta irrati bidezko berbaldiak uhinetaratzen gai zientifikoen inguruan, arrakastaz. Ziur aski, Jean Etxepareri berri horiek heldu zitzaizkion.

Labur bada ere, enpirismo logikoaren zertzelada nagusiak aipatuko dira segidan. Egia ezin daiteke ezagutu indukzioz eta enpirikoki baizik, eta lortzen den ezagutza probabilistikoa baino ez da. Beraz, joka dezagun ezagutzera ematen zaigun hori egiazkoa balitz bezala. Izan

---

220 Lafitte, P. (1984). "Jean Etchepare jaun miriku zena (1877-1935)" –hitzaurrea- in: *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I Euskal gaiak*. P. Xarriton (arg.) Donostia. Elkar/Eskualtzaleen Biltzarra. IV or.

221 Severino, E. (1987). *La filosofía contemporánea*. Barcelona. Ariel.

222 *B*. 100

ere, Hans Reichenbachen pentsamenduaren atalik eraginkorrena probabilitateari eta indukzioari buruzkoa izan zen.

Indukzioak maiztasun batzuk baino ez dizkigu erakusten. Indukzioak hipotesi batzuetara garamatza, eta informazio hori etengabe doitu beharko da informazio berria iritsi ahala. Beraz, "epe luzean" eta limitean gure informazioek bateratu eta arrakastatsuak izan beharko lukete, baina ezerk ez liguke bermatuko epe laburrean ere informazio horiek baliagarriak izaterik[223].

Hona nola laburbiltzen duen etika Hans Reichenbachek 1951an haren pentsaera laburbiltzen duen irakurleria orokorrarentzako liburuan:

> "In The Rise of Scientific Philosophy he [Hans Reichenbach] insists that ethical statements express "volitional decisions," without truth values, that are not subject to empirical knowledge. The empirical issues of ethics are only the causal questions of relations of means to ends. Reichenbach allows a place for logic in reasoning from ethical premises to ethical conclusions, but he insists that the characteristic feature of ethical statements, and the proper conclusion of ethical reasoning, is a call to action. Whatever else they are, ethical claims are imperatives. His recommendation for resolving fundamental ethical disagreements is not philosophy or science, but "social friction""[224].

Gizarteko ezin konpondu horretaz bazekien zerbait Jean Etxeparek, Eliza eta estatu laikoa iskanbila hutsean zebiltzan garai hartan (imitorioak, Elizaren jokabide erreboltaria, *Buruxkak*eko zentsura...)

---

223 Filosofia arloko argibideetarako iturri hauek erabili ditugu: C. Tiercelin: "Induction" (510 or.) eta A. Voizard: "Méthode" (639 or.) in: Lecourt, D. (zuz.) (1999). *Dictionnaire d´histoire et philosophie des sciences*. Paris. PUF.; A. Bienvenu: "Reichenbach, Hans" in: Encyclopaedia Universalis. (2006). *Dictionnaire des philosophes*. Paris. Albin Michel.; M. Ruse: "Reichenbach, Hans" in: Honderich, T. (arg.) (2005 [1995]). *The Oxford companion to Philosophy*. Oxford. Oxford University Press.; baita hau ere: Reale G. eta D. Antiseri. (1988). *Historia del pensamiento filosófico y científico /// (Del Romanticismo hasta hoy)*. Barcelona. Herder.

224 Glymour, Clark and Eberhardt, Frederick, "Hans Reichenbach", *The Stanford Encyclopedia of Philosophy* (Fall 2014 Edition), Edward N. Zalta (ed.), URL = <http://plato.stanford.edu/archives/fall2014/entries/reichenbach/>. http://plato.stanford.edu/entries/reichenbach/#DocThe

Etikari buruz, Hans Reichenbachek dio baieztapen etikoek ez dutela egia baliorik; badira, ordea, borondatearen asmoa gizakia zerbait egitera bultzatzeko. Honi buruzkoan jo daiteke 1951n haren pentsaera laburbiltzen duen irakurleria orokorrarentzako *The Rise of Scientific Philosophy* liburura[225]. Haren etika erlatibista da, ez unibertsalista, hau da, proposatzen du taldearen barnean funtzionatzeko behar diren arauak aplikatzea; besteak beste, kontuan izatea gatazka sortzen duten puntuak, ezin-konponduak ekiditeko asmoz. Agian, jokabide hori hartuko zuen Etxeparek bizitzaren azken urteetan. Jokabide horregatik ere ez zion uko egiten taldea lideratzeko eginkizunari, Eskualtzaleen Biltzarreko burulehen gisa jardun baitzen.

Hans Reichenbachen beste ideia batzuk ere laburbilduko dira, ikusteko ea Jean Etxepareren jokabidearekin lot daitezkeen, zeren eta Errealitatearen eta pentsaeraren arteko harremana Jean Etxepareren gogoetagaia ere izan zen, goratxoago aipatu dugun Lafitteren lekukotasunaren arabera.

Hans Reichenbachek razionalismoa eta idealismoa berdindu eta, haien kritika egiten du. Filosofia horiek ez dira historiaren une konkretu batean errealitate latzari itzuri egiteko mekanismo asmotsuak baino. Horrexegatik dute filosofia horiek errealitatea ezagutzeko ahalmen mugatua, arrazoi bere baitan kiribilduak ezin baitu ezagutza berririk hauteman. Razionalismoak asmoa du itxuren atzean ustez benetan legokeenari atzemateko. Zientzia positiboek lagundu dezakete razionalismoa gainditzen, etorkizuna aurresateko satisfakzioa eskaintzen baitute. Laburbilduz, Hans Reichenbachek razionalismoaren ordez enpirismoa proposatzen du.

Bestetik, enpirismo logikoak ez du ukatzen zirraren balioa, baina horien balizko edifikazioaren ardura Platon eta Shakespeare bezalakoei legokieke, baina ez enpirismoak bultzatutako filosofia zientifikoari. Beraz, esan daiteke Jean Etxeparek jaso izan duen zientismo-akusazioaren aurrean, Hans Reichenbachen enpirismo logikoak onartzen duela balio-munduaren garrantzia 1951n, baina mundu hori, artearen mundua bezala, ez dagokio *filosofia*

225 Reichenbach, H. (1964). *The rise of scientific philosophy*. University of California Press 276-303 or.

zientifiko izenez bataiatutakoari. Etxeparek ere goraipatzen dakizki Olerkia eta balio espiritualak *Beribilez*en.

Reichenbach eta Etxepare ondoz ondo jartzeko ariketa honetan, posible da autura ekartzea *Beribilez*en planteatzen den beste auzi bat ere. Loiolan, narratzailearen eta haren lagun apaizaren artean eztabaida pizten da, ea Ignazioren baitan adimena eta bertutea biak nabarmentzen ote ziren, ala, bestela, bertutea gailentzen zen[226]. Okerrik ezean, eta testuinguru neopositibistan, apaizak egiten duen bezala Ignaziorengan bertutea azpimarratzeak berarekin dakar erlijioaren egia-balioari buruzko sakoneko eztabaida. Adimena baztertuta Ignaziogan borondatea nagusituko zen, hau da, positiboki egiaztatu ezineko erabaki batzuetan oinarritu zen Ignazio. Izan ere, erlijioa performatiboa da etika bezala, eta ez dago oinarri sendoagoetan finkatzerik. Adierazgarria da iritzi heterodoxo hau narratzaileak apaiz jesuita baten –ez beste inoren- ahotan jartzea, ez berean; horregatik Lafitteren arrapostua izan zen: "Nous souhaitons sincèrement la conversion de ce jésuite".

2.1.2.5.4. Zientismoa

Kritikak Jean Etxepareri jarritako etiketa da zientistarena. Zientismoaren gaitzespen-kalifikatiboa egokitu ohi zaie honelako baieztapenen batean jausten denari:

- Zientziak arteak baino behinekogoak dira, bizi garen mundua ulertzeko, edo, areago, behar dugun guztia ulertzeko.
- Zientzia-metodologia da intelektualki onargarria den bakarra. Arteek metodologia hori onartuko dute benetako giza jakintzaren atal izateko.
- Filosofia-arazoak zientzia-arazoak izanik, izaera hori kontuan hartuta ekin behar zaie.

Zientismoaren adiera murrizketarik gabea hautatuz gero, alegia, zientziak baino ez duela ezagutza arrazionala ematen, edozein bilaketa metafisiko, moral edo erlijioso soberan legoke. Alabaina, ez da hori Jean Etxeparek zientismoa ikusteko duen modua, zeren eta zientziaz gain balio metafisiko eta moralak ere aldarrikatzen ditu, berak Olerkia deitzen duen ikurrean

226 Reichenbach, H. (1964). *The rise of scientific philosophy*. University of California Press. "The Search for Moral Directives and the Ethico-Cognitive Parallelism" 50-73 or. atalean eztabaidagai kontu honen hurbilekoak.

gauzatzen duena, eta, bestetik, Greziako filosofia-ondarean laburbilduta kausitzen duena, ikusiko denez.

Inork ez du zientismoa besarkatzen, besteen idazkietan sumatu ohi da beti: positibismo logikoa salatuen artean egon ohi da. Hans Reichenbach Jean Etxepareren interes-iturri zena kokatu ohi da positibismo logikoaren sailean, nahiz eta Reichenbachek gustukoagoa izan enpirista logikotzat jotzea bere burua.

Vienako zirkulua aipatu ohi da neopositibismoaren sorburu gisa Lehen Mundu-Gerraren amaieran. Zirkuluaren manifestua 1929an agertu zen: *Munduaren ikuspegi zientifikoa*. Urte berean, Sigmund Freudek *Zibilizazioko ondoeza* plazaratu zuen. Lehen testuko baikortasun militante eta aurrerakoiari kontrajartzen zaio bigarreneko eszeptikotasun ezinegona; badirudi bigarrenak eraman duela, handik gutxirako gertakari deitoragarriei erreparatuta.

Neopositibistek metafisikari eta teologiari kritika egiten zioten. David Hume-ren burubideei jarraiki, kantitatea eta zenbakiak jotzen zituzten zientzia abstraktuen objektu bakartzat. Arrazoibide esperimentala ere beharrezkoa da. Arazoa da ea esakune antimetafisiko horiek zientziaren bidez egiaztagarriak diren. Historikoki, positibismoa logikoaren ibilbidea 1960 inguruan amaitu zen[227].

Jean Etxepareren zerumuga intelektuala zabalagoa zen, aurreko erreferentziek iradoki lezaketena baino. Izan ere, hobetsi zituen autoreei gaineratu dakizkieke, ezagutu arren, beretzat hartu ez zituenak. Interesgune horiek jasotzeko, baditugu ezagutu zutenen lekukotasunak eta medikuaren gutunak. Lagungarria da inguruan izan zituen lagunak nor ziren jakitea ere, idazlea kokatzeko.

Berrartu daiteke berriz Piarres Lafitteren lekukotasuna zeinak esaten duen halako batean Blaise Pascalen (1623-62), Newman kardinalaren (1801-1890), eta Henri Bergsonen (1859-1941) lanak solasgai izan zituztela elkarrekin.

Jean Etxepare harremanetan zegoen inguruko euskaltzale eta euskalariekin. Adibidez, Piarres Broussain goraipatzen daki: "eskualdun zuhurrenetarik bat"[228]. Beste etsenplu baterako, Georges Lacombe hizkuntzalari-filosofoa ere idazlearen laguna zen. Harreman-sare honetako

227 Alvarez, Jean L. eta M. Azurmendi: "Neopositibismoa" in: UZEI. (1987). *Filosofia hiztegia 1*. Donostia. Elkar. 385-901 or.

228 *Buruxkak*eko "Egiaren hiru itxurak"etik. Jon Casenavek identifikatzen du 2002ko tesian. *Beribile*zen "Aitzin-solasean" ere bada goraipamena; Xarriton, P. (2007). *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques*. Bilbo. Euskaltzaindia.

pertsonekin idazleak truke intelektualak zituen, eta horiei jarraituta jakin daiteke zein izan ziren bere interesak.

2.2. Katolikoak kontraerasoan

XX. mende hasierako giro intelektual katolikoa zirriborratzeari ekingo zaio jarraian. Jean Etxeparereri positibista eta zientista izatea egotzi zaio. Zentzarazte bidean, Piarres Lafittek proposatu zion, beste horien ordez, *philosophia communis* delakoa besarkatzea, alegia, Aristotelesen (K.a. 384-322) gainean eraikitako tomismo berritua (neoeskolastika)[229].

Akinoko Tomas Deunak (1225-74) kristautasunaren eskakizunei egokitu zien Aristoteles. Tomas Deuna da mendez mende eraginik handienetarikoa izan duen teologoa, nahiz eta Elizaren beraren barnean aurkari franko eduki, bizi zela, Elizaren doktore nagusiak gaur egun. Baina pausuz pausu jardutea hobe.

Euskal elizgizonak ere erne jarri ziren. Piarres Lafittek Mathieu monsinorea aitortzen du pentsatzeko maisu gisa, Jean Etxepare idazteko maisu gisa aitortzen duen bezala. Joseph-Clément Mathieu (1882-1963) Jean Etxepareren garaiko pentsatzeko Maisua zen inguru katolikoetan, gutxienez aurreratuenetan. Horrexegatik da interesgarria gogoratzea zein diren Lafitte medikuaren aurkari intelektual gaztearen oinarriak, bien artean ika-mikak dituztenean, zer hizpide izan zituzten ulertzeko.

Mathieu 1882an jaio zen Hazparnen, Jean Etxepare baino bost urte geroago.

Desiré Mercier (1851-1926) apaiz belgiarraren ikaslea izan zen. Mathieu monsinorea tomista zen eta neoeskolastikoa, Étienne Salaberriren arabera. Mathieuk monsinoreak berebizikoak izan zituen Maurice Blondel eta Newman kardinala maisu gisa, nahiz eta orduko integristek Maurice Blondel eta Newman kardinala arbuiatu zeharo, Étienne Salaberriren ustez.

---

229 Lafitte, P. (1932). “Notre maître M. le Dr. Etchepare”. *Gure Herria* XII. 259-266 or.

Jean Etxeparek eta Piarres Lafittek Newman kardinala ere aipatzen zuten izandako solasaldietan[230]. Mathieu antifrankista zen, kinka hartako haren idazki batzuk sarean erakusten dutenez[231]. Lovainara abiatu zen filosofia tomista ikastera Mercier monsinoreren eskutik. Doktrina zaharra osatu nahi zuten fisikaren, kimikaren eta psikologia esperimentalaren ekarriekin.

Neoeskolastika da erreakzioa Ilustrazioko arrazionalismoaren, idealismoko immanentismoaren eta positibismoko materialismoaren aurka. Liberalismo politikoaren kontrako ahaleginean, laikotasunaren eta sekularizazioaren kontra jardun zen. Aita-santuek, Leon XIII.ak 1879an eta gero Pio X.ak 1907an, katolikoak sustatu nahi izan zituzten laikoen dinamikotasun zientifiko, industrial, kultural eta inperialistaren oldarrari neurria hartzeko, entziklika banaren bitartez.

Mathieuk Modernismoa ezagutu zuen. Modernismoa katolikotasuna garai berrietara egokitzeko Elizaren barneko saioa izan zen, porrot egin arte Pio X.aren entziklika batengatik. *Aeterni Patris* (1907) entziklikak Modernismoa gaitzetsi zuen. Garai hartan, Mathieuk Modernismoaren krisia ezagutu zuen, eta antimodernista zen, Salaberriren arabera. Modernismoaren kontra, Tomas Akinokoaren filosofia jarraitzeko manua etorri zen Erromatik, katolikoei kultura garaikidearekiko interakzioa zaildu ziena.

Oraino 1950ean, Pio XII.aren *Humani generis* entziklikak tomismoaren autoritatea berretsi eta metafisika ulertzeko modu bat berrezarri zuen. Jon Paulo II.ak tomismoaren aldeko Elizaren hobespena adierazi zuen 1979ko entziklikan, nahiz eta ez bakarrean, baizik eta gainerako korronte garaikide errespetagarri eta jakingarriekin batera.

Mathieu apaizgai abantailatua Lovainara joan zen Mercier kardinalarengana tomismoa berritzera. Hona Mathieuren erretratu bat:

> "Il appartenait à la vague antimoderniste. Élève au Séminaire français de Rome, puis à l´Institut Catholique de Louvain, il ne cachait pas ce qu´il devait à l´influence du Cardinal Mercier. Il lui était reconnaissant d´avoir imposé aux candidats de philosophie une forte culture scientifique (…)

---

230 Lafitte, P. (1963). "Monseigneur Clément-Joseph Mathieu". *Gure Herria* 35-1; Salaberry, E. (1963). "Un maître de la pensée: Son Excellence Monseigneur Clément Mathieu." *Gure Herria* 35-1.

231 http://www.hazparne-karrikaizenak.com/mapage9/index.html [2017-02-08]

Il était thomiste. Il était scolastique. Le terme de scolastique résonnait alors comme une fanfare de bataille. (…)

Maurice Blondel et le Cardinal Newman ont joué, me semble-t-il, un rôle décisif dans l´équilibre de la pensée de Monseigneur Mathieu. Ils en ont secoué le déterminisme. Ils ont agi sur lui comme un antidote"[232].

Giro honetan ulertu behar dira Piarres Lafittek eta Jean Etxeparek izan zituzten solas biziak, betiere erreferentzia berberen inguruan: Newman...

Politikaren arloan Jean Etxeparek ezagutu zuen Elizaren eta estatu errepublikarraren arteko gatazka islatu egiten zen pentsamenduaren alorrean ere, sekularizazio-ahaleginen eta Eliza sendotzeko ahaleginen artean.

2.2.1. Kontraproposamenak

Désiré-Joseph Mercierek (1851-1926) sistematizatu nahi izan zuen eliza-kultura sakabanatua, gudukatzeko idealismoaren hondarrak eta positibismoa.

Haren ustez egiaren arazoa da filosofiaren arazo premia handienekoa. Gnoseologian (epistemologian) zentratu zen eta Descartesen (*cogito ergo sum*) eta positibismoaren subjektu ezagutzailearen ordez, errealismoa aldarrikatu zuen. Pentsamendu modernoa subjektuan oinarritzen da; arazoa da subjektuak bakarkako ziurtasunak baino ezin dituela baieztatu.

Pentsamendu modernoaren "okerren"[233] kontrako tesi tomistak hauek dira: ezagutzaren teorian, subjektibismoaren kontra errealismoa; positibismoaren kontra, metafisika lantzea berriz ere zilegitzak jotzea; erlatibismoaren kontra, izatearen eta baloreen ezagutzaren objektibotasuna; indibidualismoaren zein kolektibismoaren kontra, pertsonalismoa.

---

232 Salaberry, E. (1963). "Un maître de la pensée. Son Excellence Monseigneur Clément Mathieu". *Gure Herria* 35-1. 5-20 or. 5-6 or.

233 X. Andonegi: "Tomismoa" in: UZEI. (1987). *Filosofia hiztegia 1*. Donostia. Elkar. 508 or.

Agerikoa da, oraindik ere, tomismoaren eta pentsamendu laikoaren arteko eztabaida bizirik dirauela. Beste datu bat eranstearren literaturaren esparrura etorrita, tomismoaren eragina ilustratzeko, aipa daiteke Orixek Antonin–Dalmace Sertillanges (1863-1948) apaiz neotomistaren lanak gogotik irakurtzen zituela, gomendatu ere egiten baitzizkien ezagunei; berdin Jose Artetxek (1906-71). Jose Artetxe euskal idazle autodidaktak A.–D. Sertillangesen *La Vie intellectuelle, son esprit, ses conditions, ses méthodes* (1921)[234] jarraitzen zuen idazteko gidaliburu gisa. Bai Mercierek bai Sertillangesek neotomistatzat zeukaten beren burua.

Tomismoaren hedadura hobeto atzemateko ez da ahaztu behar Tomas Akinokoari *Doctor communis* deitzen ziotela, ez alferrik Agustin santuarekin batera Elizako doktore nagusietakoa baita. Izan ere, Erromako Elizak ofizialki izendatu du lehen doktore gisa.

Piarres Lafittek Jean Etxepareri *philosophia communis* artamendatu zion, areago, euskaldun eta aleman andana jarraitzen zitzaizkiola azpimarratuta. Tomismoaz ari zela dirudi. Gutun batean medikuak diotso ez dela bere filosofia[235].

Gutun berean, Jean Etxeparek bi eskasia sumatzen dizkie erlijiosoei irakaskuntzan aritzeko: ez ohi dute behar besteko askatasunik, eta liburuetako jakintza adostu ezinik dabiltza munduan bizitzeak gizakiari ematen dizkion irakaspenekin –"egokizko neurrian", gaineratzen du-. Bestalde, heziketa erlijiosoak gazte "harrigarriak" sortzen omen ditu, gerora beste esku batzuek "xederratu" beharrekoak. Gai horien gainetik irakaskuntzaren laikotzea dabil hegan.

Piarres Lafitte sekularizazioak zekartzan galderei erantzuteko premian aurkitu zen. Hona ikerlan honen arloan hainbatetan ekarri den Piarres Lafitteren sinestea gutxi gorabehera laburtuta, medikuaren laguna apaiz izatekoei mintzo zaiela:

> "Oroit haatik erakaspen hoik oro fedeak eman argiekin behar ditugula uztartu, heieri esker joritu edo zuzendu, behin baino gehiagotan azkarki zetabetu: hots hein batetaraino ikasi guziak graziaren iguzki-pean jakitate zabal bakhar batean pollikiño urtu.

---

234 https://archive.org/stream/lavieintellectue00sert#page/n9/mode/2up [2017-02-08]

235 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Jean A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or. Kanbotik igorritako 1931ko azaroaren 7ko gutunean.

"Hein batetaraino", erran dut; ez dautzuet burua berotu nahi: ez gira alabainan gizonek bildu argien osoki batetaratzeko bezperan, ez eta bezperagoan. Gisa batez, etsigarri bezala daukat jakintsunen liburueri lotzea. Erlisioneak baduela michterio? Hitz eta promes dautzuet ez direla bertzetan ere oro iguzki, ez ilhargi: hainbat ilhunbe uzten daukute libururik harrigarrienek, huts batzu ezin bethez, lege batzu ezin elkarri ahokatuz… Ez estona, histura zerbaitekin gelditzen bazirezte, hainitz eta hainitz irakurtuaren buruan: ez duzue behin ere mundu huntan atchemanen zuen jakin-nahiaren asetzekorik"[236].

236 Lafitte, P. (1952). "Aphez eskualdun batek behar lukeen kulturaz". *Gure Herria* 24-2. 81 or.

2.2.2. Aita Santuen gidaritza

2.2.2.1. Liburu kiretsak

Ipar Euskal Herrian giro katoliko nagusian, Aita Santuen esanek garrantzia zuten, noski[237]. Jean Etxepareren baloreek eta irakurketek talka egin zuten gizarteko beste sektore batzuen baloreekin. Horrela, Bordelen ezagutu zituen Alemaniako pentsalariek ez zituzten "liburu kiretsak" besterik sortu, euskal kulturan hain pisu nabarmena izango zuen Piarres Lafitteren aburuz...

> "1894-ko hazaroan Bordalerat joan zen mirikuntzaren ikasterat (...) Alemaniako zeretarat bereziki ekarria zen: Haeckel eta Nietzsche bezalako batzuen libru kiretseri lotu zen, bero beroa –ez baitzuen beharragorik!"[238]

Izan ere, Pio IX.ak (1846-1878 bitarteko pontifikatua) gauza bera esana zuen 1864an, hitzez hitz:

> "Fuera de esto, sabéis muy bien, Venerables Hermanos, que en estos tiempos los adversarios de toda verdad y justicia, y los acérrimos enemigos de nuestra Religión, engañando a los pueblos y mintiendo maliciosamente andan diseminando otras impías doctrinas de todo género por medio de pestíferos libros, folletos y diarios esparcidos por todo el orbe [gure azpimarra]"[239].

Adierazpen askatasuna ez zen inola ere Aita Santu horren onespenarekin defenda zitekeen eskubidea; nahi zuen, aldiz, erlijio katolikoarekin desadostasunean zeudenak zehatzeko eskumena aitor zekiola aginte sekularra zeukanari[240].

---

237 Fremantle, A. (1956). *The papal encyclicals in their historical context*. New York. Mentor Books.

238 Lafitte, P. (1941). "Jean Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas". 5-21,", in: *Buruxkak*, Jean Etxepare. (1980). Elkar. 10 or.

239 Pío IX Encíclica *Quanta cura* y *Syllabus* 8 diciembre 1864. Gure azpimarra da. http://www.filosofia.org/mfa/far864a.htm [2017-02-08]

240 Pío IX Encíclica *Quanta cura* y Syllabus 8 diciembre 1864 http://www.filosofia.org/mfa/far864a.htm [2017-02-08]

*Beribilez*en harrerari dagokionez eta zehazki, XIX. mendeko Kontrarreforma giro honetan ulertu behar da Jean Etxepareren idazlanek, *Beribilez* barne, XX. mendearen hasieran jaso zuten harrera hotza nagusi zen estamentu katolikoaren aldetik. Irakurri besterik ez dago XIX. mendearen bukaerako eta XX. mende-hasierako Vatikanoko idazki ofizialak (entziklikak, eta beste) konturatzeko eliza-giroan zegoen zurruntasunaz, gaurko begiekin begiratuta, behinik behin[241].

Gaurko talaiatik sinesgaitza egiten zaigu Jean Etxeparerenak bezalako idazkiek izan zuten arbuioa jasotzea ia-ia 1980ko hamarkadara arte; tridentismoak badu horretan parte. Kontuan izan Indexa (*Index Librorum Prohibitorum*) Inkisizioak sortu zuela 1559an, Kontrarreformaren garaian, eta 1966ra arte indarrean egon zela.

Jean Etxeparek egiten zituen irakurketak lagunekin elkarbanatzen zituen ere, bereziki Georges Lacomberekin bera bezala irakurketa-zalea, zeinak oztopoak topa zituen egin zituen hautu intelektualengatik. Lacombe (1879-1947) Jean Etxepareren lagun-mina zen, harreman-sare hartako partaidea; Lacombe Henri Bergsonen jarraitzaile kartsua zen: Bergsonen lanak irakurtzeaz gain, kilometroak eta kilometroak egiten omen zituen haren hitzaldiak entzutearren. Bestalde, Pierre Janet eta Lachelier zituen gogoko eta Société Française de Philosophieko partaidea izan zen[242]. Medikuak lagundu egiten zion Georges Lacombe euskalaria ere bazenari, Aldudeko euskarari buruzko tesia egiten laginak jasoz, tesia ez bazen burura eraman ere. Euskalaria agnostikoa, liberala eta apolitikoa zen eta *Eskualduna*ko Jean Hiriart-Urrutirekin ika-mikak izan zituen, nahiz eta geroago goxatu egin ziren eta *Eskualduna*n idazten jarraitu zuen. Jean Etxeparek zuhurki tirabira horien iturritzat dauzka bien adimenaren hornidura desberdinak, Lacomberi eginiko gutun batean[243].

Hona Jean Etxeparek Georges Lacomberi bidalitako gutun baten atala, non bion arteko harremanaren nolakotasuna agertzen den:

> "Et je vous remercie, sans plus tarder, pour le bon livre de Victor Delbos. Il m´a reporté en plein XVIIème siècle, où la méthode expérimentale en philosophie était

---

241 Vatikanoko webgunean irakur daitezke hainbat hizkuntzatan Jean Etxepare bizi zen bitarteko Aita Santuek jalkitako testuak.

242 Lafitte, P. (1968). "Correspondance adressée par Georges Lacombe à l´Abbé Martin Landerretche. Lettres de Georges Lacombe (extraits)". *Bulletin du Musée Basque* 40. 50 or.

243 Xarriton, P. (1995). "Fonds Lacombe: les lettres du docteur Jean Etxepare (2-6-1905; 4-3-1932)". *Bulletin du Musée Basque*. 140-144. 10. gutuna: 1912-II-7

encore peu en honneur. On préférait procéder par déductions, dans une langue harmonieuse et claire; ce n´était pas sans charme et, somme toute, on arrivait à peu près aux mêmes résultats ou conclusions que de nos jours. Ce qui a manqué à l´auteur de ce livre, c´est l´originalité, le sens du relief; mais l´excellent professeur et le digne homme qu´il devait être! Au fond, je crois que ses préférences allaient à la doctrine kantienne, ce qui n´enlève rien du reste à la valeur de l´ouvrage. Encore une fois, tous mes remerciements les plus sincères"[244].

Lacomberen gutunetan ageri den aiurri humanista seinalatu ohi da gure artean. 1920-I-02ko gutun berean, esan dezagun bidenabar, Jean Etxeparek euskal nekazarien alderako duen eraspena adierazten dio Lacomberi, eta berdenboran filologiako saioak egiteko ukoa, asti faltan. Filologia saioen ordez hartu zuen lana izan zen asmo praktikoko artikuluxkak idaztea nekazarientzat.

Georges Lacombek eta Jean Etxeparek Henri Bergsonen lanak sakonki eztabaidatu zituzten[245]; Piarres Broussain ere taldekoa zen[246]. Broussainek Lacombe sustatu nahi zuen euskalari-lanak egin zitzan areago filosofo-lanen gainetik, euskal hizkuntzalarietan ohi ez bezala metodo zientifikoaren jabe zela ziotsolarik[247].

Lacombe bergsonzaleak ez zeukan erraz garai hartako hierarkia katolikoarekin patxadan bizitzeko, Broussaini ziotsonean:

> "Vous avez vu que les 3 principaux ouvrages de Bergson viennent d´être mis à l´Index. Tant mieux! Nous sommes toujours -ecclésiastiquement parlant- au temps de l´Inquisition"[248].

---

244 Xarriton, P. (1995). "Fonds Lacombe: les lettres du docteur Jean Etxepare (2-6-1905; 4-3-1932)". *Bulletin du Musée Basque*. 140-144. 25. gutuna 1920-I-02

245 Xarriton, P. (1995). "Fonds Lacombe: les lettres du docteur Jean Etxepare (2-6-1905; 4-3-1932)". *Bulletin du Musée Basque*. 140-144. 125. gutun datagabea

246 Xarriton, P. (1985). "Les lettres de Pierre Broussain à Georges Lacombe". *Bulletin du Musée Basque* 108-110.

247 Xarriton, P. (1986). "Les lettres de Pierre Broussain à Georges Lacombe". *Bulletin du Musée Basque* 111. 7 or.

248 Xarriton, P. (1982). "Fonds Pierre Broussain. Les lettres de Georges Lacombe (1903-1921)". *Bulletin du Musée Basque* 98. 4e trimestre 1982. 161-180 or. (172 or.). G. Lacombe à P. Broussain â Paris, le 17 juin 1914.

Piarres Lafittek ararteko lanak egin beharrean topa zuen bere burua, Jean Etxepareren kasuan bezala Georges Lacomberen kasuan ere, katolikoen eta agnostikoen arteko gizarte-harremanak ez zitezen mikaztu, goratxoago aipatu den bezala[249].

2.2.2.2. Tomismoa gaurkotu nahian

Leon XIII.a (1878-1903) Aita Santua irekiagoa izan zen tomismoa zaharberritzerakoan beste Aita Santu batzuk baino. Leon XIII.a jabetu zen tomismoaren historikotasunaz, 1879ko entziklikan tomismoa ñabarduraz eta zuhurtziaz berreskuratu nahi baitzuen; aldiz, Pio X.a askoz drastikoagoa izango zen 1907koan.

> "Beste gudurik eramanen zuen aldiz Elizak Euskal Herrian bertan sortu zuen agerkari batekin: Études Historiques et Religieuses du Diocèse de Bayonne, Haristoi eta Dubarat-en gidaritzapean. Agerkaria aski da irakurtzea ikusteko nolako lan gaitza zeraman orduan Elizak zientzietako eremuan Leon XIII-en irakaspenak bideratu nahian. Zientzi arloa ideologiaren eta filosofiaren burruka gune bihurtua baitzen, bereziki III. Errepublika eraiki eta finkatu zuelarik Frantziako Estatuak. Ez ditzagun gaitzets burruka horiek denak. Ekarri duten berrikuntza zerbaiti esker sortu da ere euskal kultur mugimendu berri bat gaurregun bizirik dagoena. Burruka ideologikoen sabeletik sortua baita Eskualzaleen Biltzarra"[250].

Ikertzeke geratuko dira hemen Eskualtzaleen Biltzarraren sorrera horretako (1901) auzi ideologikoak, baina ahaztu gabe Jean Etxepare Biltzarraren buru (1922-26) izango zela, eta Manex Goihenetxek aipatutako gorabeherak hurbiletik ezagutuko zituela.

---

249 Lafitte, P. (2001). *Nafar lapurtar idazle aipatuenak*. Donostia. Elkarlanean. 112 or.

250 Goihenetxe, M. (1992). "Ipar Euskal Herria XIX. mendeko azken hamarkadetan". *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 37-1. 17-29 or.

2.2.2.3. Modernismoaren kontra

Pio X.a (1903-1914) Aita Santuak Modernismoari ibilbidea moztu zion. Vatikanoko II. Kontzilioaren ostean ere azaleratu ziren Modernismoaren inguruko eztabaidak, beraz, badirudi prozesu historiko luzea dela, dagokion moteltasuna ezaugarritzat duena.

Jean Etxepareren bizi-giroari buruzko atal hau laburbildu guran, ikusten da idazleak nola izan zuen ibilbide bat jarraitzeko kemena pentsaeraren alorrean. Eta *kemena* diogu, zeren eta garai haiek zurrunbilotsuak izan ziren Iparraldean bereziki, non pentsabide tradizionalek tinko eutsi nahi izan zuten Europan bizi zen giro berritzailearen aurrean; izan ere, Antzineko Erregimena eraldatu beharraren kariaz, burgesiak gero eta gehiago Elizaren eta aristokraziaren parean jartzeko ahalegina egin zuen, hierarkia zaharrak irauliz.

3. Gozamena Jean Etxepareren ideologian

Ikerlan honetan, orain arteko jarduna *Beribilez*en inguruko xehetasunak ematen saiatu gara, baina testuan barnatu gabe. Hemendik aurrera, ordea, testuko azterketari ekingo zaio.

Metodologiaren atalean azaldu denez, testua eta ideologia kontzeptuak uztartu nahiz semiotikaren arloko ikerketan, prozedura nagusia da zehaztea zer nolako elementu testualak biltzen diren aipatutako korapilo normatibo nagusien inguruan testu baten, bereziki estetikaren eta etikaren alorretakoak. Atal honetan, estetikarekin lotua den ideologia ikertzeari ekingo zaio.

Estetikaren alorra lotuta dator semiotikarekin Philippe Hamonen ideologiako azterbidean, zeinean aurreikusten den testuko *savoir-jouir* delakoa bilatzea. Gozatzen jakite hori, ikerlan honetan, gauzatua dator hiru leku testual nagusitan, hain zuzen, *paisaia*, *arkitektura* eta *plazer txikiak* izendatu ditugun horietan.

3.1. Paisaia produktiboaren estetika euskaltzalea

Piarres Broussain (1859-1920) "euskalzale khartsua"[251] izan zen Jean Etxepareren eredu eta aurrekari aipatua, idazleak Hegoaldeko probintzietara bidaia egiterakoan. Broussain adiskidea hil zitzaion "bere biziko gozorik hoberenak Eskualerriari kendurik"[252].

*Beribilez*eko narratzailea, aldi beran protagonista nagusia, azaltzen zaigu abuztuko opor-bidaiari gisa. Datua adierazgarria da, aszetismoak agintzen baitzuen literatura utilitario eta erlijioso nagusiaren bitartez euskal literatura idatzian orduan. Antzeman daiteke *Beribilez*en euskal literaturan ezezaguna zen bizitzen-jakite bat. Gozatzen-jakite hori ideario batean artikulatuta dago, eta garrantzitsua da zehazteko zein den Etxepareren berezitasun ideologikoa. Alde horretatik, ezin ukatu Loiola jomuga erlijioarekin lotutako lekua dela; alegia, erlijioarekin lotutako "erromesaldia" beste euskal kontakizun batzuetan bezala, baina espiritua bestelakoa da *Beribilez*en[253].

Euskal Herriaren ikuspegi zabal horrek emango digu *corografia* bat Larramendiren zentzuan[254], hau da, Euskal Herriaren ikuspegi korala, non lurraldearen hainbat alderdi agertuko diren iruditeria bat osatuta.

---

251 *B.* 5

252 *B.* 5

253 Ikusi, konparazio baterako, Agirre, Tx. (1892). "Juan-etorri bat Erromara" (1892) in: Pagola, I. (arg.) *XIX. mende akabuko kontakizunak*. Bilbo. EEE.

254 Larramendi, M., & Idígoras, J. I. T. (1969). *Corografía de Guipúzcoa*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones.

Azpiatal honetan, euskaltzaletasunarekin lotua aztertuko da paisaiak nolako trataera duen *Beribilez*en eskualdeko lurraldea solasgai; beste azpiatal batean, itsasoko ingurua jorratuko da aurrerago.

Narratzaileak ematen digun deskripzio bereziaren arrazoia bilatuko da, izatez, paisaia bat eta bera hainbat eratara eman daitekeenez gero, literatur tornuak ez baitira berez ideologikoki neutroak[255].

> "El paisaje posee significados naturales, históricos, funcionales en sus elementos y en su organización tangible. Pero también posee otros en sus referencias culturales y sociales, en sus mitos, sus identificaciones, personalidad, literatura, valores, etc. Que pueden ser explícitos, controlables, objetivados a través de los métodos de las disciplinas humanísticas. Estos significados añadidos son a veces formidables cargas simbólicas. Ignorarlas es mutilar el paisaje tan gravemente como pudiera serlo la tala de un bosque, el derribo de un pueblo"[256].

Jarriko da testuko paisaia literatur produkzioaren eta estetiken testuinguruan, garai hartan. Azalduko denez, paisaiak ikuspegi ideologiko desberdinak gauzatu ditzake[257]. Hortaz, egingo da *Beribilez*eko garai beretsuko paisaia-ikuspegi horietako batzuen errepasoa, eta zehaztuko da bidaia-liburuko ikuskera berezia, paisaiaren interpretazioak idazlearen idearioan leku garrantzitsua izan-eta, medikuaren ikusmoldea zedarritzen laguntzen baitu.

Horretara, interesgarria irizten zaio bidaia honetako paisaia aztertzen ekiteari, paisaiako literatur historiako mugarri batzuekin loturik: foruzaletasuna eta erromantizismoa.

---

255 Hori da artikulu honen hipotesi abiaburua: Juaristi, J. (2003). "Nacionalismo y paisaje". *Cuadernos de Alzate* 29.

256 Martínez de Pisón, E. (2009). *Miradas sobre el paisaje*. Madrid. Biblioteca nueva. 43 or.

257 Lorenzo-Arza, M. (2014). "Landscape and Nation in: the Formation of the Spanish Liberal State 1850-1890" Doctoral Dissertations. Paper 478. http://digitalcommons.uconn.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=6729&context=dissertations [2016-05-21]. 27 or.

3.1.1. Interpretazio foruzale iragana

Euskal Herrian ere paisaiak historia literarioa baduenez gero, ikus daiteke, hortaz, nola interpretatzen zuten paisaia Etxepareren aurreko euskal idazle hurbilek.

Jean Etxepareren aurreko garaian, foruzaleak bereziki aktiboak izan ziren 1876az geroztik Hegoaldean, foruak kendu zituztenetik. Foruzaleen literaturak (1851-1890) paisaiaren interpretazio berezia egin zuen, ikusiko baita abertzaletasuna edo herrizaletasuna ulertzeko modu bereziak egon direla paisaian islatuta, historian zehar. Foruzaleek ikuspegi lirikoa hobetsi zuten, paisaia esangura sinbolikoz hornituta; paisaia interpretatu zuten asmo politikoekin, Hegoaldean:

> "Hasta entonces, el fuerismo había identificado la defensa supra-provincial de los fueros con la alabanza del mundo rural: su economía doméstica, su derecho consuetudinario, sus relaciones agnaticias y vascoparlantes. (…) Sin embargo, este "paisaje cultural vasco" colapsó con la segunda industrialización (1851-90) y el crecimiento económico al calor de las ventajas fiscales del Concierto Económico (1878)"[258].

Literaturgile foruzaleak Ingalaterrako aurrerrafaelitekin (*pre-raphaelite brotherhood*) pareka daitezke[259]. Aurrerrafaelitek, poesian, Rafael (1483-1520) aurreko moldeetara itzultzeko ahalegina egin zuten; beren poesiak Erdi Aroa berreskuratu nahi zuen, baladak, esamolde arkaikoak, sinbolismoa eta sentsualtasuna erabiliz[260].

Horrexegatik aurki zitekeen Erdi Aroko zaletasuna hainbat idazlanetan, garai hartan: Francisco Navarro Villosladaren *Amaya o los Vascos en el siglo VIII* (1877)[261], Txomin Agirreren *Auñamendiko lorea* (1898)… Pasarte historikoak txertatzeaz gain, idazle foruzaleak paisaia irakurtzen zuen ikuspegi identitariotik abiatuta, aspektu jakinak nabarmenarazita.

---

258 Lorenzo-Arza, M. (2014). "Paisaje e identidad vasca en cuatro autores finiseculares". *Sancho el Sabio* 37. 77 or.

259 Lorenzo-Arza, M. (2012). "El Fuerismo victoriano: el caso de Vicente Arana". *Sancho el Sabio* 35.

260 Cuddon, J. A. (1999). *Dictionary of literary terms & literary theory*. London. Penguin. "Pre-Raphaelites" sarrera.

261 Juaristi, J. (1998). *El linaje de Aitor*. Madrid. Taurus. 21-22; 123-134, eta*B.*

Foruzaleen literatura landa inguruaren apologia da, paisaia idiliko horrek porrot egin arte, izan ere, foruzaleek asmo politikoa zuten, kohesioa sortu nahirik foruen inguruan. Gizarte mailaz bien arteko jendea ziren foruzaleak, eta horrexegatik lan egin zuten burgesia handiak sortu nahi zuen kohesio politiko espainiarraren aurka. Paisaia foruzalea amaitu zen, Vicente de Arana (1848-1890) liberalak paisaia giza amodioaren adierazpide gisa erabili zuenean[262].

Ez alferretan, foruzaleek paisaia erabili zuten Euskal Herriaren nortasuna bermatzeko, lege zaharrak iraunarazi nahiz Madrilen kontrako deman, hau da, hiriburuaren apustu berdinzalearen eta konstituzionalaren kontra, XIX. mendean[263].

Ikuspegi prosaikoagoa da *Beribilez*ekoa, foruzaleen paisaia-diskurtsoarekin parekatuz gero, nahiz eta ez zaion beti lirikotasuna falta *Beribilez*eko paisaiari batzuetan. Agian, zuzena da esatea, foruzaleen gizarte-ikuskera estatikoa ordezkatzera datorrela Jean Etxepare burges txikiaren begirada ekintzailea, zentzu ekonomikoan. Behinik behin, Etxepareren testuan ez da aurkitzen foruzaleen testuetan aurki zitekeen naturaren taxutze Erdi Aroko kutsudunik, itxura batean edozein asmo ekonomikotik urrun, nahiz eta badakigun literatura horrek helburu geopolitiko zehatzak zituela Madrilekiko negoziazio-bidean, ez baitzen alferrik foruzalea.

Jakina denez, foruen defentsak ez zuen Iparraldean Hegoaldean zuen goritasun hori, historikoki Iparraldean hiru probintzien foruak lehenago deuseztatu baitziren, hain zuzen, Iraultzarekin 1789an.

Ikertzailea abia daiteke euskal literaturan industria aurreko paisaia nolakoa zen jakitera, eta horrek euskal lurraldearen zein ikuspegi ekarri zuen. Galdetu daiteke ea Jean Etxeparek paisaia identitario bat irudikatu al duen idazle gisa. Bide horretatik, Jon Juaristik hipotesi hori gogoan interpretatu ditu idazle batzuen lanak: Sabino Arana (1865-1903), Lizardi (1896-1933),

---

262 Lorenzo-Arza, M. (2014). "Paisaje e identidad vasca en cuatro autores finiseculares". *Sancho el Sabio* 37. vasco Euskarazko literaturaren alorrean ikus Kortazar, P. (2016). "Domingo de Aguirre (1864-1920): fueros e identidad territorial como base del paisaje nacional" in: Kortazar, J. (arg.) (2016). *Autonomía e ideología. Tensiones en el campo cultural vasco*. Madrid. Iberoamericana.

263 Lorenzo-Arza M. (2016). "La construcción de la nación asimétrica en los libros de viajes y cuadros de costumbre regionalistas". *Academia.edu* sareko ataria [2016-II-05]. Lorenzo-Arza, M. (2014). "Paisaje e identidad vasca en cuatro autores finiseculares". *Sancho el Sabio* 37. Lorenzo-Arza, M. (2014). "Landscape and Nation in: the Formation of the Spanish Liberal State 1850-1890" Doctoral Dissertations. Paper 478. http://digitalcommons.uconn.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=6729&context=dissertations [2016-05-21]. Juaristi, J. (2003). "Nacionalismo y paisaje". *Cuadernos de Alzate* 29.

Gabriel Aresti (1933-1975) eta Bernardo Atxaga (1951), euskaraz, eta Antonio Trueba (1819-1889) bizkaitarra, eta beste batzuk, erdaraz. Segidan, Juaristiren arrazoibideari jarraituko zaio une batez[264].

Paisaia bakoitzaren xehetasun berezietan badira arbasoen bizimoduaren aztarnak. Horretara, deitoragarriak begitandu zitzaizkion Jose Antonio Mogel (1745-1804) *Peru Abarka*ren (1881) idazleari lur komunalen desjabetzearen ondorio ekologikoak, zeinak burdinolen jarduerak ekarri zituen; *Peru Abarka* dialogoa da, erro tradizionaleko edota rousseautiarreko antiindustrialismoaren aitzindaria. XIX. mende amaierako Sabino Arana (1865-1903) edo Unamuno (1864-1936)[265] bizkaitarrek *Peru Abarka* irakurri zuten, eta, ondorio gisa, salatu egin zuten kapitalismo industrialak bizimodu eta paisaia tradizionala errotik erauztea, beren hasierako idazkietan.

Ezinegon bera adierazten du Etxeparek ere, industrializazioaren kinka berri indartsu horren garaian Kanbo errural eta turistiko lasaian bizi baitzen[266]; *Beribilez*eko narratzaileak 65 urte lehenago (1865) datatzen du laborantza-paisaiaren gainbehera

> "Dena den, behin baino gehiagotan aditurik gogoan daukatana, hauxe da: industriaren tupustadako trumilka-sartze horrek itzulipurdikatu zituela eskualde hok.
>
> Ez da amesteko gaitz. Duela hiruetan hogoi bat urthe artino, Eskualerria goxo-goxoa laborantzatik bizi zen eta hazkuntzatik"[267].

Etxepareren bizilekua zen Kanbon nabari zen bizimodu tradizionalaren eta aldakuntza sozio-ekonomikoen arteko dialektika, turismoagatik. Kanboko turismoa indartsua zen, bainu-etxe ugari bazituen-eta. Aisialdi-giro horren erakusgarria da Edmond Rostand (1868-1918)

---

264 Juaristi, J. (2003). "Nacionalismo y paisaje". *Cuadernos de Alzate* 29. Juaristik hemendik edaten du, paisaiaren esanahiari dagokionez: Schama, S. (1996). *Landscape & Memory*. London. Fontana Press.

265 Unamunoren ikuspegiari buruz: López Ontiveros, A. (2009). "Valor, significado e identidad del campo y de los paisajes rurales españoles según Unamuno". *Boletín de la A.G.E.* 51.

266 Kanboren eta Iparraldeko kostaldearen bilakaera turistaren kontu emate bat in: Goyhenetche, J. (1984). *Les origines sociales et historiques d'Eskualzaleen Biltzarra (1893 - 1913).* Travail entrepris dans le cadre d'un contrat de recherche entre le Ministère de la Culture et l'Institut Universitaire de Recherche Scientifique de l'Université de Pau et des Pays de l'Adour. https://www.google.es/search?q=%22Les+origines+sociales+et+historiques++de+l%C2%B4Association+Eskualtzaleen+Biltzarra&ie=utf-8&oe=utf-8&gws_rd=cr&ei=ZGauVeOoM8GuesnLpYgM [2016-05-21] 43 or. eta hur.

267 *B.* 49-50; pasarte esanguratsua, narratzailearen pentsaera modernoaren adierazgarria.

idazleak herrian eraiki zuen Arnaga etxea (1906), eta bertan egiten ziren jai arranditsuak. Ezagunak dira Rostandek paratu zituen hitzak, Arnagan bistariari abegi egiteko:

> "Toi qui viens partager notre lumière blonde
>
> Et t'asseoir au festin des horizons changeants,
>
> N'entre qu'avec ton cœur, n'apporte rien du monde
>
> Et ne raconte pas ce que disent les gens".

Ongi etorri honetan nabari da gizarte-inguruarekiko haustura, Rostanden asmoetan argi adierazia. Hala ere, Arnaga etxea bera, euskal estiloko eraikuntza da, baserri antzekoa, ziur aski Jean Etxepareren irizpideekin ados letorkeena.

Paisaiak kultura dira natura bezainbat, alegia, oihan, ur eta harkaitzen gainean irudimenak landutako konstruktoak. Paisaia nazionala ere sorkari mitopoetikoa izan ohi da, sublimitatearen estetikari atxikitzen zaiona, *Beribilez*en horrela baita bertako pasarte hauetan: historiako gudari saldoen oldarra, zelaien zabaltasuna, zerumugaren sakona, gailurren mehatxua... Abegikorra eta mehatxatzailea da, aldi berean. Herriaren sehaska da, eta hilobia. Belaunaldiek irauteko ahalmena bermatzen dute, eta patua mugatzen.

Etxeparenean, arbasoen ondorengotasuna odolaren eta mintzairaren bitartez bermatzen da. Hala ere, dio, gertatu da kanpotarrek euskaldunei ekonomikoki aurrea hartzea, autoktonoen ezjakintasuna eta laburtasuna direla kausa:

> "Jakitaterik ez, dirurik ere ez hanbat, bakartiarra berzalde eta bere tokiko berri baizik ez jakinki, eskualdun gaizoek nola zezaketen iharduk hainbertze atzerritar gose bezain argituen aztaparrari? Gider asko utzi behar ukan zaizkoten"[268].

Jon Juaristik identifikatu nahi du Lizardiren "asaba zaharren baratza", paisaia nazionalaren irudi gisa[269]. Lizardiren baratzea da pribatua, etxeko amona protagonistatzat duena, ilobarekin batera. Etxepareren euskal paisaia da lurraldea, aldiz, eta, arbasoak izan

---

268 *B.* 49-50

269 "Asaba zaharren baratza" da Lizardiren olerkiaren izena, *Biotz-begietan* (1931) liburuan. http://basquepoetry.eus/?i=poemak&b=749 [2016-09-19]

daitezke laborariak, eta marinelak; *Beribilez*en arbasoak agertzen dira, baina dira Agoitzeko lur-langile saiatu bizimodua ateratzea "garesti"[270] izan zaienak, edo, bestela, Ameriketako itsasoaren bidea hartu zuten "*gaizo"*-ak[271].

Arbasoen ondorengoek badute arbasoekiko leialtasun-betebehar bat *Beribilez*en, kasu, herrietako etxeen estetika zaintzen (Tolosako eta Zarautzeko etxeak, Donostiakoak ez bezala) edota haien lorpenak berretzen, adibidez, etxeak gero eta dotoreago eraikiz (Zestoako etxeak[272]).

Ondorio gisa, esan daiteke paisaiatik jasotako zantzuetatik abiatuta, narratzaileak herrizaletasun zibila transmititzen duela, egunerokotasunari lotua (lana, bizitokia), epikotasunik eta lirismorik gabe, baina dramatismo puntu batekin kontuan izanik aurrekoek izan dituzten nekeak biziraun ahal izateko.

3.1.1.1. Industria-iraultza asimilatzen

Komeni da, idazlearen gizarte-irudia osatu ahal izateko, jakitea Etxeparek zer iritzi ondu zuen orduan garapen-bidean zegoen euskal industriaz, lantegiek ere paisaian eragiten baitute. Industriek balorazio ideologikoa jasotzen dute, industriek eztabaida pizten baitzuten memento eta leku haietan idazleen artean, fenomeno iraultzailea eta berritzailea izanik, eragin sendokoa baitzen gizartearen bilakabidean.

Jean Etxepare izatez landa-inguruneko biztanlea zen, nahiz eta ezagutu Lapurdiko kostalde hurbileko eta Frantzia zabaleko interesgune turistiko modakoak ere, *Beribilez*en ageri denez: katedralak (Chartres), naturgune aipatuenak (Gorges du Tarn), Normandiako sagardoa, zurezko arte-lan bikainenak (St-Bertrand-De-Comminges), Vichyko bainuetxeak…

Guztiarekin ere, industria-garapenaren balorazioa ere egiten badaki. Industria ezinbestekotzat zeukan, baina bertokoen eskuetan nahi zuen. Etxeparek nahi du industria euskal

---

270 *B.* 19
271 *B.* 80
272 *B.* 75

burgesia halabeharrez txikiaren eskuetan, ez kanpokoaren eskuetan, burgesiaren rol gidariaz jabetzen baitzen[273]. Jakitun zen serie-produkzioaren eta kontabilitatearen berrikuntzak nolako iraultza zekarten, besteak beste (kimikaren ekarpena[274]…):

> "Jin-berriek eraiki zituzten beraz lantegiak; nun-nahi. ohartu ziren urthetik-urthera eskualdunak zonbatekoa den mekanikaren indarra, zoin aixe eta xuxen derabilan bere ahopiloa; hurriki bada hurriki ikasi zuen zer den lan baten xeheki sailkatzea, esku berek sailño bat deramatelarik bethi berdina; ikasi nola behar duen geroztik izan lantegi bakotxak sail-tokikatua, nahi bada zerbait egin laster, ontsa, merke; ikasi nahi-t'ez konduen atxikitzen, jiteen eta joaiteen egun oroz xifratzen artharekin, geien erosten zuhurki eta salgeitu arau zuhurtziarekin dirutzen"[275].

Jean Etxepare modernizazio bidean muntakoak ziren aldagaiak sakon ezagutzen zituen; ez zen atzera begira zebilenetakoa, edota mistikan murgildua.

3.1.1.2. Proletarizazioaren hastapenak

Industria-hazkundearen ondorioetatik bat zen langileak esku-lan gisa landa ingurumenetik industria berrietara joatea, hiri-hazkundeari bidea emanda. Izan zitekeen biztanleen nahasketa-fenomeno bera turismoaren kausaz ere gertatzea. Etxeparek autoktonoen eta kanpotarren arteko nahasketa-prozesua arretaz jarraitzen zuen Euskaltzaleen Biltzarreko burulehen gisa, hitzaldietan adierazi zuenez. Idazlearen ustez, berebiziko garrantzia zuen pertsona Euskal Herrira etorri berriak komunitate euskaldunean txertatzeak alderdi guztietatik: hizkuntza, ekonomia, areago, etorri berriek ekonomikoki euskaldunen mailara jaitsi behar zuten eskuartez goragokoak baziren "lekukotzea" erdiesteko ("Dirua ausarki baldin badu ere [pertsona etorri berriak], bazter aire daukate [euskaldunek], herriko ume garbien sailerat itzul dadin artio. Lekukotu denean osoki, orduan bakarrik ate guztiak idekitzen"[276]). Horrelako

---

273 Altonaga, K. (2010). "Jean Etxepare Bilbon" in: Mendebalde Kultura Alkartea. *XIV. Jardunaldiak: Bilbon mundua ikusi*. 126 or.

274 *B.* 49

275 *B.* 49

276 Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. Donostia. Elkar/Eskualtzaleen Biltzarra. 126 or. "Sarako mintzaldiak eta ondoko solasak" (1925), Eskualtzaleen Biltzarreko buru zeneko Etxepareren hitzaldian.

atzera begirako jarrera misoneistek azal lezakete, agian, euskaltzaleen ekimen batzuen porrota epe ertainera:

> "Face à l'émergence du monde moderne, Eskualzaleen Biltzarra s'enferme dans la nostalgie du temps passé. L'attitude frileuse de repli adoptée par le mouvement culturel basque à l'aube du XXe siècle- sera exploitée par les différents conservatismes. Eskualzaleen Biltzarra n'y échappe pas. En fait, la conscience de l'identité basque dans une perspective moderne se manifeste en marge de cette association, dans le sillage notamment de P. BROUSSAIN, R. M. AZKUE, A. CAMPION"[277].

Aipua dagokio Jean Etxepare Euskaltzaleen Biltzarrean burulehen (1922) izan aurreko elkartearen filosofiaz, alegia, biltzarraren lehen urteetakoaz. Ez zen filosofia hori, haatik, Etxepareri osoki zegokiona, nahiz eta idazlea kontraesankor ikusten dugun. Gainera, bidenabar, esan daiteke Etxepareren hizkuntza-apustua euskal idazle gisa Azkue idazlearenarekin parekagarria dela, gutxienez, Broussain eta Campion atzean urrun utzita, bederen praktika literarioari erreparatuta.

Jean Etxepare industriaz mintzatu zen behin baino gehiagotan, *Beribilez*en utzitako pasarteez aparte; esan daiteke, bide batez, 1920 inguruan Bilbo bisitatu zuenean, darwinismo sozial baten prismarekin deskribatu zuela hiriko langile eta haien familien bizimodua –agian, Ernst Haeckel biologo aleman entzute handikoaren eraginez, zeinek Alemaniako gizartearen bilakaera azaltzeko teoria eboluzionistak baliatu baitzituen[278]. Bestetik, ez zuen ezkutatzen, adibidez, Bilboko hazkunde ekonomiko loratsuak sortzen zion miresmena, XX. mende-

---

277 Goyhenetche, J. (1984). *Les origines sociales et historiques d'Eskualzaleen Biltzarra (1893 - 1913).* Travail entrepris dans le cadre d'un contrat de recherche entre le Ministère de la Culture et l'Institut Universitaire de Recherche Scientifique de l'Université de Pau et des Pays de l'Adour. https://www.google.es/search?q=%22Les+origines+sociales+et+historiques++de+l%C2%B4Association+Eskualtzaleen+Biltzarra&ie=utf-8&oe=utf-8&gws_rd=cr&ei=ZGauVeOoM8GuesnLpYgM [2016-05-21] 46 or.

278 Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar. 192 or. Altonaga, K. (2010). "Jean Etxepare Bilbon" in: Mendebalde Kultura Alkartea. *XIV. Jardunaldiak: Bilbon mundua ikusi*. Erantsi daiteke Haeckelen teoriak nazismoaren iturritzat hartu izan direna, bereziki Alemaniako estaduaren eta herri-lanarien eginkizunari dagozkionak, baina beste haritz bateko ezpala izan hau…

hasierako hiriaren urrezko garaian ("Adimenduz ala jakitatez, Euskal Herriko hiri lehena behar zuen izan Bilbo"[279]).

Industriaz ari garela, langileak ere aipatu behar Euskal Herriaren fresko batean. Industriako langile-aldarrikapen politiko sozialistei buruz, aldiz, tutik ere ez da esaten *Beribilez*en, idazlearen gainerako obran behin edo behin zerbait aipatzen bada ere, haienganako desadostasun izpi batekin, adibidez, mitin sozialista baten pasarte hartan, non langile batek galdetzen duen ea nork pasatuko duen erratza, proletarioen bizitza-maila altxatzeko asmoei buruz hizlariari entzun eta gero.

Bilbon, hiritarren arteko aberastasun-banaketa desorekatua deigarria egiten zaio idazleari[280]. Ezkerreko indarrek borroka latza zeramaten kapitalaren kontra Bilbo Handian, langile-mugimendu sortuberria eratzeko urte haietan. Bere aldetik, ez du Etxeparek pentsatzen klase desberdintasunak gainditu daitezkeenik, aitzitik, bere ustez pobreak eta aberatsak beti egongo dira gatazkan mundua mundu deino ("Beti danikako gudu beitierekoa, gauzek eta gure izaiteak berak hala dakartelakotz; gizonik zuhurrenek apur bat eta noizetik noizerat ezti baizik ez dezaketen gudua"[281]).

Hala ere, ñabardura bat aurrekoari, hurrengo atalera pasatu aurretik. Zilegi bedi industria-iraultzaren eta erromantizismoaren arteko harremanen arloan excursus bat egitea. *Beribilez*eko ikuspegiak ez du adierazten industria-iraultza basatiaren ondorioz atzendu diren gizarte-alderdiak berreskuratzeko ahalegina, erromantizismoaren baitan izan daitekeen bezala, agian, errealitate hori ez duelako narratzaileak inguruan ezagutu. Konforme dago (nekazal) gizartea antolatuta dagoen moduarekin, oro har. Behatzaile ohartua da nekazarien baldintza ekonomikoei dagokienez, baina gizartearen erabateko arbuiorik egin gabe.

Gizarte-pentsamenduaren alorrean, literatura kritikoan aipatu izan da *Eskualduna* aldizkariko erredaktoreen figura gidaritzat Frédéric Le Play (1806-1882) ekonomialari eta soziologoa, gizarte-antolaketa paternalistaren aldekoa. Bederen Le Play zen Luis Etxeberri

---

279 Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar. 193 or.

280 Etxepare, J. (1920). "Resurrección María Azkue euskaltzainburu (1864-1951)". *Eskualduna*, irailaren 10etik, abenduaren 17ra, jasoa in: Xarriton, P. (1984b). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I euskal gaiak*. Donostia. Elkar.

281 Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak I. euskal gaiak.* Donostia. Elkar. 192 or.

kazetaren fundatzailearen inspirazioa ("L. Etcheverry Le Play soziologoaren jarraitzailea zen, erlijioa, familia eta jabego pribatuaren aldekoa"[282]).

Ikerketarako hizpidea eman dezake Le Play soziologoari bidea jarraitzeak Euskal Herrian. Paternalista zen, korporatibista, eta eskuineko indarrek baliatu zuten. Garaia etorri zenean, Vichyko errejimenaren alde lerratu ziren Le Playren jarraitzaileak, gurean *Eskualduna* bezala. Ez dirudi gaurkotasuna zeharo galdu duenik, egungo soziologiaren korronteei erreparatuta[283].

Beraz, espero zitekeen bezala, Etxeparek industria-iraultza ezagutu zuen, foruzaleak baino geroagokoa baita kronologikoki. Industria ez du arbuiatzen, aldiz, miresmena sentitzen zuen haren ahal ekonomikoarekiko. Lehen Mundu Gerran frontean ibilita, Frantziako industria ere ezagutu zuen gertuagotik; topikoak dioena egia bada, soldadugoak adimena ireki zion, guduaren kudeaketak preziso zituen baliabide ekonomiko eta logistikoak ezagutzearen ondorioz. Gainera, erraz soma daiteke medikuaren izkribu ugaritan, informazio ekonomikoaz jabetzeko arduratzen zela, eta euskaldunei helarazi nahi ziela informazio hori euskarazko izkribu mamitsuen bitartez[284].

Esan daiteke Jean Etxepare bigarren sektoreko jarduera ekonomikoa (industria) begi onez ikusten duela, eta, baita ere, hirugarren sektoreko aktibitatea (turismoa); beraren izkribuak gainbegiratuz gero, turismoaren aldeko hobekuntza-proposamenak badira: bainuetxeak bultzatzeko (Zestoako bainuetxeak), ostatuen egoera, jatetxeen kalitatea… Ez da luzaz arakatu behar jabetzeko, medikuaren Kanboko bizitokian, turismo-langintzaren hedaduraz eta, ondoriozko giza eta hiri-paisaiaren aldaketaz.

Ez dira hauek hain auzi zaharrak. Iparraldean, gaur egun ere, turismoak dakartzan identitate-erronkak bizi-bizirik daude euskaldunen artean[285]. Bestalde, ez dirudi Jean Etxeparek identitate-gorabeheren inguruko tirabirak gogoan dituenik, adibidez, industria-iraultzak

---

282 Altzibar, X. (1999). "*Eskualduna* kazeta" *Euskonews & Media* 43 http://www.euskonews.com/0043zbk/media4301eu.html [2016-09-19]. Testua, "XX. mendeko Euskal Kazetaritza (1945 arte)" izenburupean egileak idatzitako lanaren zati bat da.

283 Savoye, A. (2005). "Le Play, Fréderic" in: Borlandi, M. et al. *Dictionnaire de la pensée sociologique.* Paris. PUF. 396-7 or.

284 Begiratu, adibidez, Piarres Xarritonek *Buruxkak II* izendatu duen medikuaren artikuluen saila, alegia, 1903-1914 bitarteko artikuluak, *Buruxkak* liburutik kanpokoak, in: Xarriton, P. (1988). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. III kazetaritza (A) (1916-1935).* Donostia. Elkar. Hor badira "Torpillak", "Kanada", "Diruzko tituluak", "Cautchouc"… izenburuko atalak.

285 Lagoueyte, C. (2010). *Usage des motifs culturels dans la construction de l'image (rie) touristique:" Ongi etorri. Bienvenue au pays basque"* (Doctoral dissertation, Bordeaux 2). Tesi digitala, Bordeaux 2). www.theses.fr/2010BOR21702.pdf [2018-II-28]

Bizkaia aldean sortuak bezalakoak. Horretarako, Txomin Agirre baten *Garoa* eta *Kresala* eleberrietan islatua ikus daiteke sektore batzuen ondoeza, zetozen tradizio-moldeen aldaketak zirela-eta.

3.1.2. Landa guria

Esan daiteke landako inguruak *Beribilez*en bi ikusmira nagusi jasotzen dituela: alde batetik, ikuspegi estetikoa sentsazioekin lotua, eta, bestetik, ikuspegi herrizalea, zentzu batean non narratzaileak herriaren aurrerabidearen prismatik irakurtzen duen begien aurrean duen oro.

3.1.2.1. Olerkia edo paisaia idealizatua

Jean Etxeparek eta Euskaltzaleen Biltzarrak euskal laborarien bizimodua duindu nahi zuten, berari ere dimentsio estetikoa emanez, agian, gaurko nekazaritza industrialaren baldintzapen ekonomikoak kontuan hartuz batzuetan, baina ez beti. Haatik, gaur egun ere, nekazaritza tradizionalak bizirik dirau kalitatezko produktu artisauak ekoiztera bideratua:

> "Liburuetako lana badelarik zerbait, ez daukagu gutiagotzat esku-lana.
>
> Hau Eskualdunek baderamate gogotik, arras guti baita bertze gizadietan (peuples) hoinbertze artha demakonik. Gutartean ez du bakarrik jende cheheak bere ona edo irabazia bilhatzen: begientzat ere eta bihotzarentzat kentzen dako bertzalde lanari doi bat atsegin.
>
> Beha Eskual-herriko bazterrari, eta erradazue Eskualdunak ez dakienetz begikoa izan dadin nahi ukaiten…
>
> Laborantza ala hazkuntza, bier badarraiko ontasunaren gosez bezenbat ederraren egarriz. Choragarria da egiazki gure lurra, bere lantzaleen eskuaireaz" [Etxepareren letra etzanak][286].

Jean Etxepareri sentsazio estetikoen iturburua ere bazaio paisaia, ekonomia-irizpideak baino haratago:

> "Aurkintze hau zinez xoragarria da. Beheititurik gordetzera doan iguzkiak urreztatzen du oraino zeru-xoko bat, garaitiko eremu guzia urddin-argi dagolarik, eta

286 Etxepare, J. (1926). "Euskalzaleen-Biltzarra : 1925eko bil-aldia Saran buruilaren 17an Jean Etchepare jauna buru". Bayonne. Imp. S. Sordes. (Hitzaldia). 5 or.

lurra berotzen eztiki. Atsegin dute gure begiek, begien atseginaz alaitzen zaiku araberalat bihotza. Hemengoaren aldean, ikusi duten gutarik biek hitsa dela diote Provence eskualdeko zeru-gaina, iguzkiaren bero handixagoak langar arin batez azpiltzen diolakotz bere kapa urdina; gordina aldiz, aditu dutenaren arabera, Greziakoa, hau argiarenarekin batean iguzkiaren saminak lambro-lipits argalenetarik garbitzen omen duelakotz goien-goienean" [gure azpimarra][287].

"Begien atsegina" da helbururik gabea erlijio-pastoralaren aldetik, esan nahi baita, da garai hartako beste planteamendu konfesional nagusi batzuk ez bezalakoa. Utilitarismoa saihestu zuen, helburu pastoraleko prosan ohikoa orduan[288].

Utilitarismoak itsasten dizkio begiratzen duenari balio espiritual goren batzuk, hedonismoa gaindituta. Hori izan zen, historian atzera eginez, lehen kristauen eginkizuna, jentilen ohitura lasaiegiei langa jarri nahi izan zietenean. Izan ere, kristautasuna eta arte-gozamena uztartzeko zailtasunak izan dira historian zehar, Berpizkundera arte gutxienez. Gure egunotan, Vatikanoko II. Kontzilioan arteari balio handiagoa emateko ahalegina egin da, baina egia da Elizak aszetismoa bultzatzeak estetikaren hegaldia murriztu zuena; ezin ukatu, ordea, arteak Elizaren historian izan duen garrantzia[289]. Gaur egun ere, eztabaidagai irauten duen puntua da arte-gozamenaren eta moralaren arteko muga zehatz non jar daitekeen, dirudienez[290].

Vatikanoko II. Kontzilioak kulturaren autonomia onartu nahi izan zuen. Leku propioa aitortu zion adimenari, fedearekin zuen tirabiran. Paisaiaren trataera autonomoa bide horretatik uler dezakete gaurko kristauek, alegia, paisaia hautemateko:

> "Por las razones expuestas, la Iglesia recuerda a todos que la cultura debe estar subordinada a la perfección integral de la persona humana, al bien de la comunidad y de la sociedad humana entera. Por lo cual es preciso cultivar el espíritu de tal manera que se promueva la capacidad de admiración, de intuición, de contemplación y de

287 *B.* 52

288 Mujika, L. M. (1996). "Lizardi eta paisaiaren trataera". *Euskera*: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak= Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca= Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque, 41(1). 23 or.

289 Plazaola, J. (2012). *Introducción a la estética*. Bilbo. Universidad de Deusto. 47-48 or.

290 Plazaola, J. (2012). *Introducción a la estética*. Bilbo. Universidad de Deusto. "Arte y moral" atala.

formarse un juicio personal, así como el poder cultivar el sentido religioso, moral y social”[291].

Adibidez, naturaren ikuspegia sekularra nola adierazten duen irakur daiteke aipu honetan:

> “Iguzkia sartzerat abiatua baita, ez ditake erran bazter hunen ederra: mendien mazelak ez dira larrutuak nihun, nihun ez dira erreak; halako berde bat badute, begiarentzat ezin eztiagoa. Ordu osoa banagoke hemen [Errezil ondoan] gogotik, alfer, begiak bakarrik alha”[292].

Ikusi da nola Etxeparek natura idilikoaren erdian Olerkiaren tenplua kokatzen duen, arteak autonomia lortzeko bidean Vatikanoko II. Kontzilioa baino urte dezentez lehenago, eta naturan Jainko zeru-lurren kreatzailea gurtu ordez, askotan bezala kristau tradizioaren izkribuetan, maiz, natura baitzen kreatzailearen ispilu erakusgarria kristauen artean.

Ordea, Etxepareren paisaiak badu helburu bat, asmo pastoral kristauaz aparte orduan ohikoa.

> “Gure otoen zalua! Ikusmenean dugu ja Bidarraiko herria; ikusi orduko, haurren eskoletxea mutturrean goititzen zaion munhoari landatu zaizko gure behakoak. Han dira plaza, han ostatua, han apeztegiak; han, mail bat beherago, harateko hegiaren ozka batean apur bat sartua, eliza bera. Erromanoek egin zubi zahar beregizkoaren muthurretik etxe xuriño batzu, eslaian, harrapatzera bezala badoazkio petik gora. Munhoaren inguruan, ez urrunegi, mendimurritz gora batzu. Toki begikoagorik guti Eskualerrian. Grezian izan balitz holako bat duela bi mila urthe, segur erdi-erdian eraiki lioketela, marbrez, Olerkiaren tenplo bat. Adéma-Zalduby zenak egin zituen bakarrik hor ertor-etxea, eliza-pareta bat, eta, menuzergoko jeinua baitzuen, muble batzu ez nola-nahikoak. Bainan nork daki etzaizkonez hor berean Olerkiak bihotzean piztu, geroxago bere neurthitzetan aurdiki behar zituen urrezko pindarrak?

---

291 *Gaudium et Spes* entziklika 59. atala in: Baraiazarra, L. (2009). *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa* (Vol. 14). Universidad de Deusto.

292 *B.* 51

Badu bertzela Bidarraiko herriak xoko laketgarri bat baino gehiago, bere ibarretan ere" [gure azpimarrak][293].

Plazer estetikoa ("begikoa", "laketgarri") nabaria da bidaiariaren sentsazioetan. Gainera, muino atsegin horretan kokatuko luke Olerkiaren tenplua, greziarrei jarraiki. Olerkiaren tenplua kokatzeko ez du aukeratzen harkaitz gorarik santutegi batzuek egin duten bezala (Arantzazuko Ama Birjinaren Basilika, Aralarko Done Mikel in Excelsis…), baizik eta Bidarraiko herrian, beraren ibarretan. Ikusiko da geroxeago nola mendiak aszetismoarekin lotura duen zenbait idazlerengan, ezen ez Etxepare baitan.

Paisaia da arimari gorako joera ematen diona. *Beribilez*en, paisaia hori ez dator bat nahita ez, adibidez, goi mendien interpretazio sublimearekin, Unamuno bilbotarraren kezken hain gustukoa, Unamunok konnotazio erlijiosoak eransten baitzizkien gailurrei. Ordea, medikuaren gusturako, Bidarrai bezalako txoko lau atseginak dira paisaia sublimeak.

Naturak ez du kantatzen Jainko kreatzailearen laudoriorik *Beribilez*en, baizik eta Olerkiaren gorazarrea egiten du greziar paganoen erara. Tenplua da, izatez, gizakia jainko-errealitateekin bat egiteko tokia[294]. Irudikatzen du jainkotiarra dena. Jainkotiarrak dira, nagusiki, zuhurtziako eta maitasuneko bertuteak kristau tradizioan. Greziarren artean, aldiz, neurri gisa irudikatuko litzateke, Etxeparek aipatzen duen "neurri" honen gisa:

> "Egiaren ondotik erabili zituzten bada, hek [Greziarrek], beren urratsak. Jainkoaren oldez, Legea amestu zuten, eraiki, jarri beren eta lagunen arteko. Hek daukute erakutsi, jakintzarako bidearekin batean, zuzenarena; hunen ondotik, eta datxikola, ederrerakoa. Hekiei dugu zor, baitakigu zer den neurria"[295].

Naturaren miresgarriak susta dezake idazlea tenplua jarri nahi izatera, landaren erdi-erdian. Paisaiaren estetika lotzen da espiritualitatearekin, gurtzarekin. Olerkia izango da espiritualitate horren sinboloa, Donostiako pasarteari buruzko iruzkinean irakur daitekeen bezala, etikaren atalean.

---

293 *B.* 9

294 "Temple" in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

295 *B.* 82

Jean Etxeparek tenplua jarriko luke natura abegikor bukolikoaren erdian, esan daiteke. Ikusten dugu nola idazle agnostikoa barneratzen den metafisikaren eremuan paisaiaren bitartez. Hala ere, ez du gozazaletasuna muturrera eramango; plazera neurritsua izango da, laikozalea izanda aszetismo konfesionaletik aldendu arren[296].

3.1.2.2. Herrizaletasun ekonomikoa

Gure ustez, Jean Etxepareren paisaia-interpretazioa lotuta dator Euskal Herriaren aldeko apustu jakin batekin. Idazlearen hautu herrizale hori agerian agertzen da kontuan hartzen bada zeren aurrean duen bidaiariak afektu positiboa eta zeren aurrean afektu negatiboa. Horrela, bada, Etxeparek jendartearen eta herriaren ekonomiaren alde jokatzen du. Ikusi besterik ez dago noiz pozten den:

> "Sartzearekin, gogoa den gutien bat ilhuntzen zaizu; laster jartzen zira bizkitartean; denik ere, luzesko badoalakotz erreka, lotsa batek uzkurtzen zitu; gero, etxeño bat edo bertze ikustearekin bidearen bazterrean edo mendi-mazelan xut, edo ibarño batean banakatuak, horra nun alegeratzen ziren; ondotik, bigarren ilhundura bat, etsimenduz guti edo aski belztua, arteka tinkatzen delakotz berriz; azkenean ilhundura, bozkario laburregia, lotsa eta batzutan izia bera gainditzen dauzkizu, estaltzen, esperantza bizi batek: noizbait bada noizbait, zerbait xoragarri behintgotz agerturen zaizulako esperantzak.
>
> Ezterenzubitik ala Urepelatik Baionaraino, noiz zabal, noiz hertsi, noiz herri, noiz bortu, nihoiz ez muthiri, Errobiaren harana holaxe da bidez-bide deramanaren begiekin, bihotzarekin ere ba, kukulaukari. Hortako bereko dugu hoinbertze maite, mendiez hunaindiko Eskualdunek.
>
> Erran dugun artekatik athera gireneko, horra nun zaikun begien aitzinean agertzen igurikian ginaudena: zelai gizen eder bat, Ortzaizeko zelaia"[297] [gure azpimarrak].

---

296 *B.* 84. Ikusi Donostiari eskainitako azpiatala "Etika" atalean.

297 *B.* 10

Philippe Hamonen metodologiari jarraiki testuaren semiotikan badira zantzu adierazgarriak: *lotsa/alaitasuna* oposizioa da arau baten isla; berdin *ilundura-izua/esperantza bizia-kukulaukari* oposizioa. Horretara, Jean Etxepareren aukerak hobesten du produktiboa izan daitekeena: zelai gizenak, etxeak, kaolin fabrika ("Atsegin dugu jakinik ez derabilatela alferretan lana"[298]), herri produktiboak ("[Lasako herria] Ttipia izanagatik, ez du batere gaixtoa iduri laborantzako"[299]).

Laborantzako interes estetikoa dela-eta, nabaria da aipuotan ere: "Hango laborantza jaten bezala dute gure begiek, bere hedadura nasai ordokian"[300]. Nekazal interesik gabeko lurrek, aldiz, ez dute bestelako erakargarritasunik: "Uste baino urrunago kausiturik Donostia, gure otomobilen gidariek akulatzen dute zoinek gehiago bere zaldia. Aurkintze huntako laborantzak ez du bertzalde deus, so gagozkiokenik"[301]. Ohargarriak dira *begi*ren eta *so*ren agerraldiak bi aipu hauetan, sentimendu estetikoei sarrera ematen.

Ekonomiaren ingurukoa da herriaren amodio hori alde batera, baina era berean estetikoa, hots, Etxeparek paisaian euskal ekonomiaren aztarnak irakurtzen ditu batez ere, baina ahaztu gabe paisaia horren estetikotasuna.

Etxeparek ikuspegi aurrerakoia du, bereziki garapen ekonomikoaren bidetik. Alaitasun-iturri zaizkio ingurumen produktiboak eta gizakiaren etxebizitza duinak, eta atsekabe-iturri, aldiz, horien akatsak ("Larre-muthur batzu othartzen ohi diren bezala, urthetik urthera bizitegi berriz ari da alabainan estaltzen mendeal-alderat [Donianeko zelaia]. Egoitza eder eta iraupeneko arras guti, bertzela"[302]).

Orografiak eta giza geografiak eragiten dute ikusliarraren sentimenduetan. Paisaiako elementuak izan daitezke ekonomikoki produktiboak ala ez. Elementu produktiboek poza sortzen diote begira dagoen narratzaileari.

*Beribilez*eko herrizaletasun ekonomikoari atxikita, nabaria da euskaltzalearen enpatia medikuaren begiradan. Jean Etxepareren kasuan, Euskal Herriaren maitasun-seinalea da herrialdearen hainbat alderdi kontuan hartuta haiek hurbiletik ezagutu nahi izatea. Jokabide hori

298 *B.* 8
299 *B.* 12
300 *B.* 9
301 *B.* 85
302 *B.* 11

Broussain beraren lagunak ere bazuen, eta hizkuntzaz gain ekonomia, politika, kultura, geografia, artea eta abar kontuan hartu nahi zituzten biek. Abertzalea zuen Piarres Broussain, eta *Beribilez*en aitzin-solasean eredu gisa gogoratzen du. Oroimenezko artikulu batean aipatzen du Jean Etxeparek Broussainen euskararen aldeko amodio ezaguna, baina…

> "Ez uste izan hargatik mintzairari baizik etzuela behatzen. Euskal-Herri guziko laborantza, esku-lan, sal-erospenari bazatxikon begia. Eta ez oraikoeri bakarrik : menderen mendetan nola ibili diren Euskal Herriko bizipideak bazakien. Itsas haraindikoak berdin, gure ahaidegoa Ameriketan barna barreiatua dugunaz geroz. (…)
>
> Euskal-Herria baino toki ederragorik etzitzakon iguzkiaren azpian: maitagarriagorik ere ez, arbasoen sor-lekua delakotz. (…)
>
> Euskal-Herria eta Euskaldunak nahi zituzken beren gain ikusi, beren zuzenen jabe, bere gizonez zainduak, beren mintzaiaz, ohidurez ala erlisioneaz iduri zakoten bezala gozatzeko eskuarekin" [gure azpimarra][303].

Gure ustez, Piarres Broussainen ikuspegiari leial, Jean Etxepareren planteamenduari *abertzalea* dei dakioke berekin baitzuen Euskal Herriko zer guztien alderako amodioa, baina oraingo honetan alderdikoitasunik erantsi gabe.

*Beribilez*eko herrikoitasuna Broussainen abertzaletasunaren tankerakoa da, Broussain abertzale "jeltzalea" baitzen, Iparraldeko lehenetarikoa, Sabino Aranaren gogaide hurbila[304]. Etxepare bere aldetik Piarres Broussainen laguna zen, eta hein batean irizkidea[305].

Azken aipuan ikusten da, Etxeparek adierazteko moldean, erlijiotasunaren gainean sotilki egiten den aukera akonfesionala ("ohidurez ala erlisioneaz iduri zakoten bezala

---

303 Etxepare, J. (1920). "Pierre Broussain mirikua (1859-1920)". *Eskualduna* 1920-05-14. in: Xarriton, P. (1984a). "J.ean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak: aurkezpena" in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar. 184 or.

304 Xarriton, P. (2007). *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques*. Bilbo. Euskaltzaindia. Ikusi "Le nationalisme basque de Pierre Broussain" atala horri buruz.

305 Ikusi Jean Etxeparek nola deskribatzen duen Broussain *Buruxkak*eko "Egiaren hiru itxurak" atalean, Jon Casenaveren identifikazioaren arabera: "Abiatua nintzan mendiari behera, Eskualdun zuhurrenetarik bat lagun, biak elgarrekin iganak baikinen goizetik, jatekoa bizkarrean". Ikusi: Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. Casenavek identifikatzen ditu atal horretako pertsonaiak eta lekuak.

gozatzeko eskuarekin"). Era berean, suma daiteke Broussainen burubideekiko Etxeparek sentitzen zuen adostasuna argi asko, haren oroimenezko artikulu aipatu berrian.

Klasikoa da Euskal Herriaren ikuspegia, Jean Etxepare baitan: arrazoia nagusitzen zaio irrazionaltasunari[306]. Eta arrazoia da arrazoi ekonomikoa, landa inguruneari dagokionez *Beribilez*en. Izan ere, bat egiten dute ona eta ederra balioek.

Nekazari eta langileen duintasuna ere lotuta daude narratzaileak liburuan zehar erakusten duen probintzietako bidaian. Arbasoak ere aipagai zituen Etxeparek Broussainen soslaia-artikuluan. Bukolismoa aipatu da lehentxoago paisaia hauek kalifikatzeko. Ez da zeharo zuzena, *Beribilez*eko arbasoak hezur-haragizko langileak baitira bizimodu gogorra eraman dezaketenak. Irakurri, adibidez, Nafarroa Garaiko nekazariez ari dela:

> "Bihotza jauzten zait, malda heier so nagolarik, urgoiaren ondotik ilhundura batek hausten dautala bizkitartean laster: zuen bizi xumearen atheratzeko, zer lanak ez dituzue hemen erabili, zer nekeak ez jasan eta zonbat mendez ez, ontasunarekin batean odola utzi daukuzuen arbaso maiteak!
>
> Orai niz garbiki ohartzen zer hazta daukan, eskualde hotako hizkuntzak dakarran "garesti" hitz sarkorrak..." [gure azpimarra][307].

Bada Etxepareren liburu honetan enpatia, laborarien lan-baldintzei buruzko kezka:

> "Iguzkia samiñ izana gatik, gizonek poneta dakarte buran; begitartea zimail dute, eta gantza arin. Ogi-joiteko mekanikak ezagutuarren, moda xaharrari badarraizkio zuhurki, gizagaizoak: zonbatez xahubideak ez dituzte horrela gutiago! Aroa lagun, etxekoz-etxeko egiten den lana da merkeenik, ahantzixea balin badugu ere Lapurdi eta Benabarreko aldean"[308] [gure azpimarra].

Konparazioaren bitartez idazleak askotan jartzen du arreta ikuskizunaren elementuetan, eta horren ondorioak ateratzen ditu. Konparazio baterako, medikuaren ikuspegi hau kontrastean dago Txomin Agirrereren ikuspegi idilikoarekin. Puntu honetan idazlea urrundu egiten da poetika kostunbristatik, non ez dagoen gatazkarik:

---

306 Mujika, L. M. (1996). "Lizardi eta paisaiaren trataera". *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 41(1). 23 or.

307 *B.* 19

308 *B.* 18

"Euskalduntasuna errepresentatzen duten pertsonaiak guztiz konformistak dira [Agirreren nobelagintzaren baitan](…)

Pertsonaia ez-problematiko hauek edo kontalariak goretsi egiten dute mundu rurala. Esan egiten dute bizimodu gogorra dela, baina ez dute berbaldian bizimodu horren laztasuna erakusten. (…)

Gogotik egiten dute lan irabazbide urria duen lantegian, baina hau ez da arazo existentzial bihurtzen"[309].

Norbaitek pentsa lezake Iruñea ondoko gari alorren deskribapenak helburu estetiko hutsa duela[310]. Hala ere, ez da ematen hango laborantzaren, etxeen eta abarren deskribapena nekazarien bizimodua aipatu gabe; esan daiteke, deskripzioek balio estetikoa izanik ere, lur-langileen bizi-baldintzak aipatuta egiten direla. Alderdi horretatik, garia, azaoak, larrainak, etxe apaindurarik gabeak… denak lotzen zaizkio so gainbegiratzaile onbera eta gizatiar horri.

Horrela, bada, Etxeparek kezka du langile xumeenganakoa, *Beribilez*en agertzen baita bideko langileen bizimoduari buruzko jakin-nahia; erakuskari gisa ikusi bestela Nafarroa Garaian topatzen duen lur-langile familiarekin izandako solasaren ondotik egiten duen oharra: beraren ustez, hobeto bizi dira Hazparneko inguruan, Iruñeko inguruan baino, alegia:

"Iduri luke bizkitartean alderdi huntako etxetiarrak gogorkixago bizi direla, nausiarekilakoaz bezenbatean, Hazparne-aldeko dazkigun batzu baino.

Baditake haatik etxetiarrak hemen bezain guriki ez diren nihun, erran nahi dugu etxetiarrak Hazparneko eskualdean"[311].

Bere erdi mailako gizarte-talaiatik, Etxeparek badaki landako bizimoduaren emendatze-beharrak eta eskasiak agerrarazten: abere-tratuak egiteko modu traketsak[312], erlijiotasun modu

---

309 Toledo Lezeta, A. M. (1989). *Domingo Agirre: euskal eleberriaren sorrera*. Cátedra Interuniversitaria Fundación BBV-Diputación Foral de Bizkaia de Derecho y Genoma Humano. "Ruralismoa" atala. 633 or.

310 *B.* 18-19

311 *B.* 31-32. Tolosako langileen estatusaz ere badihardu; bideko jende xehearen janzkeraz…

312 Etchepare, J. (1910). Jatorrizko argitaraldia. *Buruchkak*. Tours. Imprimerie Mame. "Tratuak ordu batez" atala.

baten kritika[313], ezkonduen arteko harreman zatarrak, eta auzoen arteko lapurretak eta bekaizkeriak...[314] Hau da, berea ez da bukolismoa edo idilio euskalduna, ez abertzalea ez bestelakoa, kasu honetan, gizarte-erreformatzailea baita.

Etxepareren obran ez da berria kezka nekazari langileen aldera. Kontzientea da nekazarien gainean idazleak har ditzakeen jarrera anitzei buruz. Hori bereziki nabarmena da "Egiaren hiru itxurak" *Buruxkak*eko atalean, non erdibideko hirugarren jokabide bat hobesten duen nekazariei buruzko ikusmoldean. Hortaz ohartzeko, hona hemen Etxepareren hautua bi muturreko jarreren artean, hau da, Txomin Agirrerena bezalako ikuspegi idilikoaren eta "naturalistatzat"[315] jo daitekeen beste muturreko ikuspegi gordin baten artean. Aipua luzea da, baina ezin utzizkoa:

> "Ez dezagun uste ukan bertzela laborari hoik bihotza ala izpiritua arrunt hutsa dutela. Hanitzetan laborari iduriz gaizoenetik eta jakintsunik bipilenera ez da arte izpi bat baizik, harrigarri baita zoin ttipia: eta hil baten oinetan, haur baten aitzinean, emazte baten ondoan laboraririk goibelenak berdin nigar, berdin irri egin dezake, berdin maita nola jakintsunik argituenak. Ala batek ala bertzeak ez dute bertzerik erakusten baizik gizonaren izaitea daukatela, bizi huntako gertakari handietarik batekin bekoz-beko aurkitzen direnean.
>
> Hobeak othe gira hoik baino? Aithor dezagun ezetz. Buruaren alhatzeak baldin gizona apur bat axalez leguntzen badu, idekitzen dakolarik, argitzen, hedatzen bere baitharik zukeen antzea, bihotza berdin latz eta jauzkor eta berekoi uzten diola daukat. Hobeak girelako iduria dugu, ez bertzerik.

---

313 Etchepare, J. (1910). Jatorrizko argitaraldia. *Buruchkak*. Tours. Imprimerie Mame. "Nor eskolaemaile. Zer irakats" atala; "Sainduen errangurak" atala…

314 Etxepare, J. (2006). "Behin Makean" in: Altonaga, K. *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. 295-297 or.

315 Jon Kortazar "Naturalismo" in: Euskaltzaindia. Literatura Ikerketa Batzordea. (2008). *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo. Euskaltzaindia. Jon Kortazarrentzat naturalista da Etxeparek "Egiaren hiru itxurak" kronikako ikuspegi bat: "Euskal Herriko literaturan, naturalismorik izan ote den eztabaida badaiteke ere, zalantza gutxi dago Jean EtxeparerenEtchepare.renEtxepareren *Egiaren hiru itxurak* ipuinean, esate baterako, naturalismoaren zantzuak sumatzen direla, baina ez noski haren oinarrien jarraipen luze edo zorrotzik".

Eta egia balitz hobeak girela bihotzez, eta adimenduz hanitzez gehiagokoak, ez gindukea gure soberakinetik izpi bat zor hola lurrarekin borroka higaturik hazkurria bilhatzen daukutenei?

Orhoitzen othe gira behar bezenbat langile gaixoek gure gainean dituzten zuzenez?"[316].

Kronika bikain horretako ondorio horien ildotik ageri da medikuaren ikuspegia *Beribilez*en ere, ez bakarrik *Buruxkak*en. Burges txikiak, estamentu gidarien partaide gisa, erantzukizuna erakusten du langileen aldera. Bere antzeko jauntxo apalak leziatzen ditu jokabide zuzena har dezaten, beti ere galdera erretorikoen bidez eta prozedura erretoriko landu baten bidez: argudiozko eta kontrargudiozko etsenplu argigarrien bitartez, zeinak "Egiaren hiru itxurak" atalean irakurgai diren, egiaren itxura bakoitzaren adibideei erreparatuz gero.

*Beribilez*eko Jean Etxepare arduratzen da baita hiritarren bizitza-mailaz ere, kanpotik juzkua ematen duela; Tolosan erakusten du hori janzkeren nolakoari erreparatuta:

"Behari-saldo bat badagokigu berehala so, otoen bazterretik urrunxago; emazte gehiago gizon baino, hogoi ta hamar bat orotarat. garbiki jauntziak dira, langileen jauntzian; halere Lapurdin eta Benabarren aspaldiskoan hiritar langilearen soinekoer ohartzen ez gitzaizkoten hits-aireño batekin"[317].

Narratzaileak erakusten zuen herriarekiko enpatia horren beste puntu esanguratsu bat bat izan daiteke neorruralismo baten barnean kokatuta agertzea, gaurko hitzetan adieraztea zilegi bazaigu. Etxepareren nahia landazalea bada ere, ez dugu pentsatu behar joera hori historia lineal bateko gertaldi iragan eta iraungia denik, alderantziz, gaur egun ere badira landa ingurura beren borondatez "itzultzen" diren herritarrak, bizimodu ezberdin baten bila. Izan ere, neorruralismoa ere ezagutu da azken urteotan zehar.

Laborantza atzeraka doan une batean, Jon Casenavek harmonia ikusten du laborariaren eta naturaren artean islatuta Etxepareren *Beribilez*en. Gure egunotara etorrita, Casenavek

---

316 Etchepare, J. (1910). Jatorrizko argitaraldia. *Buruchkak*. Tours. Imprimerie Mame. 167 or. eta hur. Aipu ortografikoki gaurkotua da lan honetakoa: *Buruxkak*, Jean Etchepare (Isabel Arrigainen edizioa). Euskal Editoreen Elkartea, 1991

317 *B.* 46

ikusten du 1991n Eñaut Etxamendiren eta Daniel Landarten idazkuntzan nekazariaren ikuspegi berria jaiotzen[318].

Neorruralak izan ohi dira landa ingurura hiritik bizitzera doazen biztanleak. Beren aldetik, landa inguruko nekazariak hiriko moda kopiatzera entseatzen dira normalean, hirira bizitzera ez badute zuzenean jotzen beste barik. Neorruralek bizimodua atera nahi dute, baina istiluak sortzen zaizkie betiko biztanleekin bertan. Hiriko balioak dituzte eta landa inguruko biztanleek duten mundu ikuskerarekin desadostasunak agertzen dira hainbat alorretan: nekazaritzaren ulerkera, genero-harremanak, etxeko diseinua, promozio sozialaren ikuspegia, erlijioa…[319]

Esan daiteke Jean Etxeparek egoera hau aspaldi bizitu zuela. Landa kulturarekin istiluak izan zituen hirian hezitutako medikuak. Aipagarria da medikuaren anekdota hura: mediku-bisitan joaten zenean ohitura omen zuen baserritarrei galdetzeko euskaraz nola esaten zioten gauza honi ala hari. Baserritarrek txundituta hartzen omen zuten galdera. Bestalde, medikuaren gogo irekitasunak gizarte erruraleko nor zirenen artean errezeloak sortzen zituen.

318 Casenave, J. (1991). *Nature et vie rurale dans Laborantzako liburua: la figure du paysan.* Mémoire présenté en vue du DEA d´Etudes basques. Azkue Bibliotekan (Euskaltzaindia) kontsultatua. Ondorioetan esaten du.

319 Entrena-Durán, F. (2012). "La ruralidad en España: de la mitificación conservadora al neorruralismo". *Cuadernos de Desarrollo Rural= International Journal of Rural Development*, *9*(69).

3.1.3. Mendi prosaikoaz

*Beribilez*eko prosaismoaz denaz bezanbatean, zenbait gogoeta paratuko ditugu segidan. Paisaiaren begirada foruzaleaz aparte, geure buruari galdetu ahal diogu ea *Beribilez*eko paisaiaren begiradak begirada erromantikoaren eitea ba ote zuen, paisaia erromantikoaren ezaugarriak aztertu eta gero. Saiatuko gara azaltzen erromantizismoa zertan lot litekeen idazlearen paisaian aurki litekeen ideologiarekin.

Frantzian, erromantizismoa XIX. mendearen lehen erdian loratu zen; Espainian zertxobait geroago. Euskaraz, Felipe Arrese Beitiaren (1841-1906) erromantikotasun oratorioa gauzatu zen poesian, eta, geroago, XX. mendearen lehen heren hartan poesia erromantiko ostekoa zegoen indarrean Hegoaldean. Emeterio Arresek (1869-1954) argitaratu zituen *Nire bidean* (1915), eta *Txindor* (1928); Klaudio Sagarzazuk (1895-1971) *Txinpartak* (1922); Koldobika Jauregik (1896-1971) *Biozkadak* (1919)[320].

Pentsa daiteke, literatura euskaldunaren zein frantsesaren bitartez, Jean Etxeparek izango zuela ezagutza erromantizismoaren aldera, XX. mendearen hasieran. Orduan Europan, erromantizismoa igaroa zen, bere oinatz ezabaezina utzita literaturaren historian luzerako, ez baita gauza segurua oraindik haren itzaletik atera garen ala ez: arnasten dugun airea bezalakoa dela diote batzuek[321].

Erromantizismoaren ezaugarri bat aipatzearren, gogora daiteke berrikuntza gisa nitasunaren hedapena ekarri zuela, ilustratuen aurreko arrazionalismo objektibista emendatuta. Ilustratuen begietan, arrazoiak elkartzen ditu gizakiak subjektibitate guztien gainetik. Nitasunaren hedapen erromantikoak, berriz, paisaiari begiratzeko era taxutu zuen, askoz efusiboagoa. Fenomeno berri horrek zerikusia dauka bidaia-literatura eta egunkari intimoa bezalako generoek ekarri zuten pertzepzio-aldaketarekin[322].

Erromantizismoaren beste ezaugarri bat da gizarte-arazo gehienei modu berritzaile batez begiratzea, erlijioa barne, esan daiteke bidenabar.

---

320 Kortazar, J. (1994). *Literatura vasca: Siglo XX*. Bilbo. Ed. Iparragirre. 39 or.

321 Berlin, I. (2000). *Las raíces del romanticismo*. Madrid. Taurus.

322 Martínez de Pisón, E. (2009). *Miradas sobre el paisaje*. Madrid. Biblioteca nueva.

Berritu behar hori dela eta, asmoa da zehaztea Jean Etxepare euskal idazleak egin zezakeen ekarpena paisaiari begiratzeko moduari buruz. Erromantizismo guztiak ez dira berdinak, noski, eta Jean Etxepareren planteamenduak badu ezberdintasunik erromantizismo batzuen planteamenduarekin, horrelakorik baldin bada, behinik behin, *Beribilez* honetan. Hortaz, erromantizismoak nola islatzen zuen paisaia zehaztera abiatuko gara.

Aldez aurretik esan dezagun bidaian malkarrek sublimitaterik ez dutela iradokitzen. Bidaiaren lehorreko lurraldeetan Jean Etxepareri nekazaritza agertzen zaio etengabe, ez besterik, Auñamendin eta Lekunberritik aurrera izan ezik, non trokak eta malkarrak agertzen zaizkion. Landa ingurua ikuspegi ekonomikoz ikusten badu, malkarren ingurua beste era batera ematen du, poztasunik eta eraspenik gabe, apatia koherente batez. Philippe Hamonek dioen bezala, pathos hori testuko ideologiaren erakusgarria da ("Un pathétique, une sentimentalité, à la fois conséquence et signal indirect du normatif"[323]).

Ildo horretatik, malkar, arteka eta tontorren inguruko aipu batzuetan *Beribilez*eko irakurleak ikus ditzake erromantizismo herabe baten izpi txikiak izan daitezkeenak. Hona paisaia arrokatsuaren aurreko narratzailearen balorazio afektibo batzuk Gipuzkoako sarreran:

> "Han-hemenka bizkitartean lur-azal mehe berde batek estaltzen du, larruarekilako haragi zirtzikatu batek bezala hil baten hezurrak"[324].
>
> "Zer mila sorgin! Ez girea egun atherako arteka hertsi bezain lazgarri huntarik?"[325]
>
> "Izialdura badoakigu halere laster. Harrizko hilerri batean-barna garamatzate ba beribilek, harrien hilerri gogoetagarri batean; bainan iguzkiak argitzen du, berotzen, arintzen ere ba hilerri gogorra, han-hemenka eztiki urreztatuz lurrerat irintzen ari diren peña zurpailak; bainan gure buruen gainetik alaitzen dauku bihotza agorrileko zeru garbi urdinak"[326].

Baina ez genuke esango jarrera horiek erromantikoak direnik berez, zeren eta Nafarroatik Gipuzkoara sartzean bidaiariek sentitzen duten izua aurrerromantikoa izan daiteke.

---

323 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF. 121 or.

324 *B.* 34

325 *B.* 35

326 *B.* 42

Oro har, ez dago sentipen positiborik inguru arrokatsu horren aurrean, alegia, gailurren alderako amodiorik ez dugu sumatzen *Beribilez*en, erromantikoek gizakia bizitzeko ezegokia den paisaia balioesten erakutsi ziguten arren. Narratzaileak larritasun-iturritzat hartzen ditu gailurrak eta artekak, batez ere, zelai berde gizenekin konparatuta. Esan daiteke mendi-harkaitzak habitaezinak eta interesik gabeak zaizkiola Jean Etxepareri, jende guztiari bezala modernitate aurrean, Francesco Petrarcak paisaia asmatu aurretik Ventoux mendira igo zen hartan[327], segidan azalduko denez.

Nabari da, bestetik, idazlearen baitan estiloa izateko borondatea deskribapen xehe-xeheak eginik. Adibidez, Lekunberri osteko pasabidean arrokatsuan:

> "Zer mila sorgin! Ez girea egun atherako arteka hertsi bezain lazgarri huntarik? Badiagu hoberik, Manex: hertsiagotzen zaiku-ta gure arteka, hertsiaren hertsiz irestera bezala geramatza artekak, bere bi pareta xuten artean. Eta nola murriztu den bat-batean ezkerrekoa bera! Ama maitea, zer behar othe dugu ikusi?..."[328].

Olerkarien mendi bizigarria ageri zaigu orduko beste idazle batzuen lanetan. Izan ere, mendiratzeko irrika hura agertzen da XX. mendearen lehen hereneko euskal idazle "idealistetan"[329]. Idealistak lirateke errealitatean bestelako mundu izpiritual baten aztarnak sumatzen dituzten poetak. Gogoratu, bestela, Lauaxetaren (1905-37) pasarte hura ("Urrun giz-otsetatik, menditara nua/leyak ba loitzen dabe garbi dan gogua..."[330]), non hiriko "hotsa" eta "lehia" arbuiatzen diren; edo Lizardiren (1896-33) beste hura ("Maite ditut gaillurrak/argiak ez beste.../Ai, egaztia banintz/gaiñik-gain nenbilke!.."""[331]).

---

327 Maderuelo, J. (2002). "Petrarcaren begirada" in: Petrarca, F. *Ventoux mendirako igoaldia, 1336ko Apirilaren 20a*. Apuntes de Estética ARTIUM.

328 *B.* 41

329Kortazar, J. (1986). *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Bilbo. Desclée de Brower. 88 orrialdean zer diren idealistak.

330 Adibidez, Lauaxetaren "Mendijetara" olerkia *Bide barrijak*en, 1931. http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LauaxetaBarrijak033.htm; edo "Mendigoxaliarena" olerkia in: *Arrats Beran*, 1935. http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LauaxetaArrats024.htm... [2016-06-05]

331 Batez ere "Mendi-gaiña" olerkia in: *Biotz-begietan* 1932 http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LizardiBiotz004.htm [2016-06-05]

Gure artean, Jon Kortazar kritikariak nabarmentzen du Olerkariaren idealismoa, Lauaxetaz (1905-1937) ari dela[332]. Idealismoa da postulatzea ezinbestean materialistegia litzatekeen gizartea irizpide espiritual batek gidatu behar duela; hori litzateke poesiaren eginkizuna[333]. Ikuspegia antiburgesa da, uste baitu diruak ez duela bizitza-finkotasunik eskaintzen, haren lekuan poesiak eskaini ahal duelakoan iraunkorragoa den beste zerbait, alegia, poesiak antzeman dezakeen egia. Idealismoak berrerospen-ahalmena du, zentzu erlijiosoari hurbil. Positibismoaren aurka, aurrerakuntza kritikatzen du, eta ongizate espirituala lehenesten du ongizate materialaren ordez. Bizimodu burgesaren arrunkeria arbuiatzen du[334], alde batera *Beribilez*ek Donostiako pasartean bezala, etikaren atalean aztertzen baita ikerlan honetan[335].

Novalis poeta erromantiko eta idealista aipatzea maite du Lauaxeta sinbolistak, zeren eta korronte literarioek behin eta berriz berrartuko baitute idealismoa: erromantizismoak, sinbolismoak...[336] Esanahi sakonagoaren bila, konturatuko gara aurrerakuntza ekonomikoa eta zientifikoa ez daudela engoitik lotuta nahitaez giza-zorionarekin. Naturara joko da, materialismoaren espetxetik ihes egiteko.

Jean Etxeparek ñabardurak adierazten ditu materialismoa arbuiatzeko puntu honetan. Batetik, Donostia turistiko bateko materialismo hedonista baldarra kritikatu dezake, baina, bestetik, landaren eta hiriaren ikuspegi produktibista du. Ez da idealismoan erabat murgiltzen, positibista den heinean.

Antimaterialismo horren kariaz egingo da literatura antiburgesa. Lauaxetak, adibidez, industria behin edo behin baino ez du aipatzen eta modu nahiko ezkorrean ("Langile eraildu bati" olerkia[337]), nahiz eta bera Bilbon bizitzen jarri Laukizetik etorrita. Lauaxeta olerkariak

---

332 Kortazar, J. (1986). *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Bilbao. Desclée de Brower. 88 or. eta hur.

333 Eztabaida horrek gaur ere badu oihartzuna, adibidez liburu arrakastatsu honetan: Kasser, T. (2003). *The high price of materialism*. MIT press.

334 Lauaxetaren idealismoaz, ikusi Jon Kortazar (1986). 97 or. eta hur.; baita ere mendiez eta igotzearen sinbologiaz IV.5.3 atala: Kortazar, J. (1986). *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Bilbao. Desclée de Brower.

335 *B.* 84

336 Kortazar, J. (1986). *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Bilbao. Desclée de Brower. 94-96 or.

337 Kortazar, J. (1986). *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Bilbao. Desclée de Brower. 114 or. eta hur.

ihes egin dezake Bilbo inguruko Artxanda mendira[338], hiriko giro materialista itsu itogarritik ihesi, apur bat Unamunok Gredoseko mendizerrara ihes egiten zuen moduan.

Hiriak konnotazio kaskarrak izan ditzake olerkariarentzat, Etxeparerentzat bezala. Materialismoaren sehaska da hiria. Hiriguneetan esplotazioak hirigintza-munstroak sortzen ditu, kasurako Bilboko hirigintza historikoki kontsideratua. Donostian ere udatiar-saldoak hirigintza arima gabea sustatu du[339].

Hala ere, Etxepare ez dago sistematikoki hiriaren kontra. Etxepareren ernetasun ekonomikoak ez zion uzten edozein hiriren kontra jotzen. Donostiako turismoak gogaitzen bazuen ere, Bilboko dinamismo ekonomikoari, aldiz, aipagarria zeritzon[340].

Ikusi daiteke mendiak zer funtzio betetzen zuen Lauaxeta olerkariaren baitan "Artxanda ganian" poeman, Bilbo oinetan ikusten duela inguruko mendixka batetik:

"Oi gau zerutarra! zeure gai eztira

ludiko gixonak.

Otsetatik urrun loratuten dira,

zeure zorijonak.

Une eder onetan, arren, itxi urija,

itxi ots gaiztuak.

Lei bixiz barnia, urrunera nuan,

iges begist luak...

Arrats bijotz-bera! Zeugan amets dagit.

Atseden bijotzak."[341]

---

338 "Artxanda ganian" poema in: *Bide barrijak (*1931)

339 Kortazar, J. (1986). *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Bilbao. Desclée de Brower. "Naturaleza frente a ciudad. La huída" atala, 113-116 or.

340 Altonaga, K. (2010). "Jean Etxepare Bilbon" in: Mendebalde Kultura Alkartea. *XIV. Jardunaldiak: Bilbon mundua ikusi*.

341 *Bide barrijak* (1931). http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LauaxetaBarrijak040.htm. [2016-06-05]. Philippe Hamonek dioenez ekidin ezina da ikuspegi ideologiko zenbait errepikatzea, objektu berak -hiriak, adibidez- ikuspegi etikoa eta estetikoa jasotzeko gai direnez gero.

Bestalde, Lauaxetak mendien konnotazio aberkoiak islatu ditu bere poemetan. Ez zen alferrik izan "Mendigoxaleak" EAJeko gazte-erakunde irmo baten izena XX. mendearen hasieran, Euzko Gudarosteko ernamuina izango zena geroago Gerra Zibilaren sasoian. Beraz, mendia eta abertzaletasuna ez doaz hain aparte. Aurreratu daiteke segidan xehekiago aipatuko dugun Jean Etxepareren balizko abertzaletasunari buruz datu negatibo bat: *Beribilez*en ez dago mendizaletasun abertzalerik.

Nikolas Ormaetxea (1888-1961) olerkaria aipatzearren, Joxe Azurmendik dio, Orexakoa baserritarkerian erortzen delako salaketari erantzunez, Orixek familiako baserritik bertatik ezagutu zuen natura-ingurumen baten berri eman zuela, alegia, beraren ikuspegia zela errealitate jakin baten berria bertako aditu erne baten eskutik[342]. Luis Maria Mujikak ere ildo beretik jotzen du:

> "Hurbilago, Orixerengan konstata daitekeen paisaia askoz zehatz eta fisikoagoa da, ia oihartzun animikorik gabea"[343].

Ildo beretik, Lizardiren paisaia gogoratu daiteke. Sinbolista gisa Lizardi bisemian oinarritzen da, hau da, beraren obran naturako paisaiaren elementuek esangura bikoitza dute: fisikoa eta animikoa[344]. Hori erraz antzematen da *Urte-giroak ene begietan* (1932) sorkarian ("Uda suzko itsaso"; "itzal andere otzan"; "otalorea karraxika udaberriari deika"…). Horrelako sinbolismorik ez da aurkitzen Etxepare baitan.

Lehorreko euskal lurraldearen begirada albora utzita, Jean Etxepare autozaleak irudimen-joko handiagoa erabiliko du Gipuzkoako kostaldeko itsasoaren ikuskizuna deskribatzen duenean, mendien aurrean erabiltzen duena baino, etikaren atalean irakur daitekeenez.

Mendia literaturan sartu zenekoa berritzera joko dugu segidako paragrafoetan. Petrarka (1304-1374) izan zen Europa modernoan paisaia-kontenplazioa abiatu zuen lehen idazlea. Abiatze horren hastapenak aditzera ematen zaizkigu Ventoux mendiko igoera kontatzen duen

---

342 Azurmendi, J. (1976). *Zer dugu Orixeren kontra?*. Arantzazu. Jakin. "Baserritarkeria" atala.

343 Mujika, L. M. (1996). "Lizardi eta paisaiaren trataera". *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 41(1). 22 or.

344 Mujika, L. M. (1996). "Lizardi eta paisaiaren trataera". *Euskera*: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak= Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca= Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque, 41(1).

testu autobiografiko mugarrian (1336); Petrarkak Ventoux mendiko igoera parekatzen du gizakiak bertuteen bila egin beharreko goranzko bide malkartsuarekin.

Petrarkak, adierazgarriki, bere burua zuritu beharrean ikusten du apezpikuari egindako gutunean, Ventoux mendira igo eta gero. Arrazoia da zentzumenei bide ordura arte bekataria zabaltzen ziela estreinako aldiz Errenazimendu garaiko literatura hartan, mendira igota bestelako zereginik gabe. Esan bezala, konponbidetzat izango du paisaiaren ikuspegi intelektualista-bertutetsua bultzatzea[345].

Beste mugarri bat ezarrita, paisaiari literatur izaera ematera dator Friedrich Schiller (1759-1805) erromantikoa ere[346]. Schilleren alemanerazko *Der Spaziergang* (1795)[347] da paisaia literarioki estimatzeko zedarri nagusi bat. Hala ere, Schillerrek hiriko bizimodua ez du baztertuko, pozarren itzultzen baita hirira landan zehar txango estetikoa eginda.

Erromantizismoak ekarri zuen estetika berria, gizakiak landugabeko ingurune basatiena. Areago, idazle erromantikoak ohiko nekazaritza utilitarioa atzendu egiten du eskualdeak deskribatzean, salbuespenak salbuespen: salbuespen horietan aipa daiteke, adibidez, Andaluziaren kasua, bertako nekazaritzaren alderdi exotikoak nabarmentzen ere baitakite bidaiari erromantiko gehienbat ez-penintsularrek; baina hemen faktore erabakitzailea da exotismoa, eta inola ere ez balioeste ekonomikoa: landare bereziak, argia, koloreak, usainak, etab[348].

Gailurren bizipen literario erromantiko berriaren ildoan, mugarri aitzindaria dugu baita Étienne Pivert de Senancour (1770-1846) idazlearen *Obermann* (1804) liburua ere; *Obermann*ek Alpeetara egindako ibilaldi bat kontatzen du. Paradigmatikoa izateaz gain, hala Marcel Proust (1832-1905) baten, nola Miguel Unamuno (1864-1936) baten irakurketa hauten artean zegoen.

---

345 Maderuelo, J. (2002). "Petrarcaren begirada" in: Petrarca, F. *Ventoux mendirako igoaldia, 1336ko Apirilaren 20a*. Apuntes de Estética ARTIUM.

346 Ritter, J. (1997). *Paysage. Foction esthétique dans la société moderne*. Les Éditions de l´Imprimeur.

347 *La promenade* frantsesez.

348 Pageaux, D. H. (1989). "Un aspect des relations culturelles entre la France et la Péninsule Ibérique: l'exotisme". in: *Imágenes de Francia en las letras hispánicas:[Coloquio celebrado en la Universidad de Barcelona, 15 a 18 de noviembre de 1988]* (pp. 459-470). Promociones y Publicaciones Universitarias, PPU. Exotismoa eta turismoa lotuta: Staszak, J. F. (2008)."Qu'est-ce que l'exotisme?". *Le Globe. Revue genevoise de géographie* 148(1), 7-30.

É. P. de Senancourek heziketa jansenista zuen. Haren arabera, mendietara igotzeak garbitzea dakar, arnasberritzea, eta moralki aratza bihurtzea, moral helvetiar-protestantearen baitan, hau da, betebehar zibikoa da: XIX. mendean sortutako mito alpetarra. É. P. de Senancourek paisaia ematen du Jean Jacques Rousseauren (1712-1778) eretzetik, Rousseauren *Les Rêveries du promeneur solitaire* (1782) mugarria izan baitzen nitasuna adierazteko autobiografia literario gisa.

Gaztelaniazko literatur lanetara jota, hantxe ere bada *Beribilez*eko narratzailearen begiradan falta den mendien sentimendu sublimea, kontrastatuz, adibidez, Unamunok Salamanca inguruan Gredos mendi-katean sentitzen zuenarekin. Badirudi bilbotarra Jean Etxepare baino espiritualagoa zein mistikoagoa agertzen zela mendien aurrean. Bestetik, Unamuno aipatu dugunez, erantsi daiteke William Wordsworth (1770-1850) idazle ingelesa ere garrantzitsua izan zela Unamunorentzat puntu honetan[349].

Ezin uka, aldiz, Etxepare auto-bidaiaria izanik ere, Sénancour, Rousseau eta Unamuno oinezko ibiltariak zirela, eta Jean Etxeparek Europako mendiak balioesteko korronte horren bazterrean idatzi zuela. Horregatik, interesgarria izan daiteke areago ikertzea balizko pintoreskismo baten inguruan

Kritika batek analizatu du inoiz –egiaz, badira zenbait urte-, laudorio berezirik gabe, *Beribilez*eko balizko pintoreskismoa idazlearen abertzaletasun posible batekin lotuta[350]; egotzi dio errealitate industrialaren alde iluna ezkutatu izana, ordu hartako balizko ikuspegi abertzale misoneista jeltzalearekiko koherentea izan beharraren beharraz, eta iraganari begira. Baserria goratuko luke, errealitate berriago eta esanguratsuagoen kaltean: industria, batez ere. Bide beretik, pintoreskismoarekin jarraituz, inoiz kritikak *Beribilez*i desmeritu gisa egokitu dion pintoreskismo hori, esan daiteke ez dela narratzailearen luman agertzen, behinik behin, segidan emango den terminoaren definizioari kasu eginez gero:

---

349 Eduardo Martínez de Pisón geografoak Bidebarrieta Liburutegian emandako hitzaldian Bilbon (2014-III-18); gaia: "Unamuno eta paisaia". Gai bereko liburuaren aurkezpena egin zuen (antologia bat): Miguel de Unamuno (2014). *Viajes y paisajes: antologia de crónicas de viaje*. La linea del horizonte ediciones. E. Martínez de Pisónek badu liburua 98koen paisaiari buruz: Unamuno, Baroja, Ortega, Azorin. Esan liteke euskal literaturak ez duela erakutsi sentimendu aszetiko hori Pirineioen aldera? Ikusi *B.*13-14 Nafarroa Garaiko sartzean narratzailearen zirrara gozagarriak, esaterako.

350 Iturbide, A. (1991). "Jean Etchepareren idazkera". *Jakin* 64. 131 or.

"Eta nahiz Berebilez-en automobila azaldu, liburuari darion modernitatea faltsua da. Belaunaldiko beste idazle batzuen gisara, euskal errealitate erdia erakusten du, beraientzat osoa dena. Errealitatea ikusteko modua, bada, bere ideologia abertzaletik datorkio. Eta honekin loturik, inpresionismoa eta pintoreskismoa (azken ezaugarri honek topikotasunarekin zerikusi handia duelarik) kate bereko begiak direla baiezta daiteke"[351].

Pintoreskismoa, gure ustez, litzateke landa inguruko espazioa eta gizakiak begiratzeko modua, antzinako alderdi bitxienei erreparatuta[352]. Jakina denez, erromantikoek Europako "Hegoaldea"" bisitatu ohi zuten paisaien bila, tradizio zaharren eta folklorearen bila, beste hitzez, bizi ziren berena bezalako jendarte kultu eta progresistaren baitan aurkitu ezineko herri-bizimoduaren bila, hau da, ezohiko ekanduen bila (exotismoa)[353].

*Beribilez*en, aldiz, ez dago horrelakorik; ez dago nekazari xaloaren idealizaziorik, eta bai, aldiz, haren errealitate soila haztatzea; ez dago poetizaziorik edo bukolikotasunik. Hegoaldeko nekazarien bizi-baldintza ekonomikoek interesatzen dute idazlea: etxaldearen jabego-errejimena (etxetiar ala etxejabe...), langileen jantziak estatus-adierazle gisa, landa-mekanizazioaren munta, bizitza-maila...[354].

Adibidez, jantzien kezka gizarte-estatusaren adierazgarri gisa maiz agertzen da, liburuan zehar. Mende hasierako bidaietan bidaiariek jantzien tipikotasunari erreparatzen zioten, batez ere, ez jantziaren duintasunari[355].

Etxeparek janzkerari erreparatzen dio estatusaren adierazgarri gisa, ez eskualdeko identitatearen adierazgarri gisa. Konparazio baterako, Frédéric Mistral (1830-1914) idazle okzitaniar ezagunak sekulako garrantzia eman nahi zion Proventzako jantzi ustez tradizionalari. Arles hiriko janzkera Proventza guztiko janzkera tradizional gisa ezarri nahi zuen, Okzitaniako

---

351 Iturbide, A. (1991). "Jean Etchepareren idazkera". *Jakin* 64. 132 or.

352 Maderuelo, J. (2012). "La mirada pintoresca". *Quintana: revista de estudios do Departamento de Historia da Arte* 11.

353 Martínez Alonso, P. J. (2004). *Libros de viajes alemanes e ingleses a España en el siglo XX*. Doktorego-tesia: URL Oficial: http://eprints.ucm.es/tesis/fll/ucm-t26683.pdf [2016-07-04] 30 or. eta hur.

354 Paragrafo hauek garatzeko iradokizunak hemendik atera ditugu: López Ontiveros, A. "Descubrimiento y conformación histórica de los territorios rurales" in: Ortega Cantero, N. (arg.) (2004). *Naturaleza y cultura del paisaje*. Madrid. UAM ediciones.

355 *B.* 18; *B.* 31-32…

herrialdeak burujabetza lortzeko baliabide gisa. Etxepareren kezka da janzkera bizitza mailako adierazgarri gisa, soilik, helburu identitariorik gabea[356].

3.1.4. Plazer estetikoaren nagusigoa

Friedrich Nietzscheren (1844-1900) ideia estetikoak errepasa daitezke, Jean Etxepare gazteak haren lanak ezagunak baitzituen, jakiteko *Beribilez*en gaztearen irakurketaren aztarnak aurki ote daitezkeen. Jakina denez, Etxepare kultura alemanaren ezagulea zen gaztetatik, alemana ulertzen zuenez gero, eta estimatu ere egiten zuen.

Horretara, Nietzscheren baitan bereiztuta daude estetika eta morala. Areago, moral oro estetikan laburbildu daiteke. Estetikaren muina dira erreakzio psikologiko eta fisiologikoak. Arestian aipatu den fraseologia idealistak (Kant, Hegel, Lauaxeta bera...) ez du honezkero estetikaren funtsa adieraziko; Estetika traste zaharra besterik ez da, ederra eta itsusia fisiologikoki baldintzatuta baitaude; Nietzschek ukatu egiten du etika eta estetika ederraren bitartez uztartuta daudenik, alegia, estetika klasikoaren ustez ideala zena. Horretarako *aisthesis* kontzeptua interpretatzen du sentsualtasunaren, pertzepzioaren eta gorpuztasunaren bidez. Nietzscheren *botere-nahia* esaeraren testuinguruan, ederra eta itsusia dira, hurrenez hurren, bizitza sustatzeko ala zapuzteko balioak, ez besterik[357].

Jean Etxepareren kasuan ikusi da nolako garrantzia ematen dien sentsazioei, paisaiak begiradaren parean igarotzean, ia bitartekotasun arrazionalik gabe. Alde horretatik, Nietzscheren planteamendutik hurbil agertzen da. Paisaiako elementu produktiboek plazer estetikoa sortzen diote zuzenean, bitartekotasun idealistarik gabe.

---

356 Marletel, Ph. (1992). « Le Félibrige ” in: Nora, P. (1984-1992). *Les Lieux de mémoire*. Paris. Gallimard 3 tomes : t. 3 *Les France* (3 vol., 1992).

357 Reschke, R. (2012). “Estética” eta Günzel, S. (2012). “Voluntad de Poder” in: Niemeyer, Ch. (arg.). *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares.* Madrid. Biblioteca nueva.

Sentsazioen nagusigoa nabari da hainbat kasutan, adibidez, Iruñea ondoko nekazal lurrak eta herrixkak begiratzean[358], Lekunberri osteko malkarren artean pasatzean[359], Loiolako parajea begiztatzean[360]…

Nietzscheren eragina bilatzea ez da baztertzekoa Jean Etxepare helduaren baitan, eta oso posiblea da gaztetako eraginek irautea gerora ere, urteak pasatuta. Nietzscheren eragina suma liteke adin gordineko Etxepareren baitan ere, adibidez, betiereko itzulera[361] kontzeptuarekin lotua mintzo da medikua 1931n Kanbotik Piarres Lafitteri eginiko gutunean:

> "Guhau barne, beti egiten eta desegiten ari den Izaite bat ikusten dut nik, bertzerik deus ez. Hogoi-ta-hamazazpi urthe badu bermatzen nizala, eskualde guzietarik, nahiz jakin Izaite hori zer den bere baitan. Eta lehenbiziko egunean bezain zozo niz" [362].

358 *B.* 19

359 *B.* 39 eta hur.

360 *B.* 52

361 Niemeyer, Ch. (2012). "Eterno retorno" artikulua in: Niemeyer, C. *Diccionario Nietzsche*. *Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva.

362 "Kambotik, 1931ko hazilaren 7"-ko gutuna in: Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 601 or.

3.2. Arkitekturan aditua

Atal honetan kontuan hartuko dira *Beribilez*eko ibilaldian agertzen diren arkitekturako elementuak, arkitektura-deskribapenekin batera medikuak iritzia adierazten baitu. Philippe Hamonek aipatzen du artelanek iturburu ebaluatibo gisa duten ahala, artelanek balioak transmititzeko egokitasun berezia baitute. Beraz, narratzailearen jarrera artelanei buruz nolakoa, ideologia halakoa[363].

Arte-objektu bat deskribatzeak testuko balioak kordokatzea dakar. Hau da, beste balio-sistema bat txertatzen da testuan, bigarren balio-sistema bat, alegia, eta ez da jakiten oso ondo zein balio-sistema hobesten duen narratzaileak testuan; hori da *Beribilez*en Iruñeko katedralaren, Loiolako Santutegiaren, Donostiako eta beste herrietako etxeen kasua, Orreagako fraidetxearena... Batzuetan arte-lanak deskribatzean adierazten dituen baloreak zailak izan daitezke integratuak izateko Jean Etxepareren ikuspegi orokorrean. Hori gertatzen da Loiolako Santutegiarekin: anbibalenteak dira idazleak planteatzen dituen ebaluazioak, noiz santutegia goraipatzeko, noiz santutegia kritikatzeko.

Izan ere, *Beribilez*eko narratzaileak arkitekturari eta dekorazio-arteei buruz zertzeladak ematen ditu behin eta berriro, eta batzuetan luzeak. Horretara, atal honetan artelanok aztertuko ditugu bideratzen duten idazlearen ideologiari erreparatzeko.

363 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF. 125 or., eta geroago ere bai.

3.2.1. Loiolako Santutegia begiradapean

Loiolako Santutegi barrokoa da narratzailearen begiradaren aurretik pasatuko den arkitektura-artelan nagusia, eskaintzen dizkion orrialde kopuruari bagagozkio, alegia, kapitulu bat osorik. Kontuan izan, santutegia da bidaiaren helburu hautatu eta adierazi nagusia, beraz, liburuaren atal bereziki esanguratsu baten aurrean gaude.

Santutegiko eraikinaren eta dekorazioaren deskripzioa egitean, narratzailearen inplikazioa eta balorazioa da Iruñeko katedralekoaz bestelakoa, narratzailearen balio batzuen isla, ideologiaren isla; agerian geratzen dira arkitektura- eta dekorazio-funtzionalitateen eta erlijioaren arteko loturak, teknika hutsetik harago.

Santutegiaren marko historikoa ezagutzea lagungarria izango zaigu Jean Etxepareren bidaia-kontakizunaren zentzua hobeto ulertu ahal izateko, pasarte luze, zentral eta distiratsu batez ari baikara[364].

Atal honetan, aldeztuko den ideia nagusia da: Barrokoa izanik Kontrarreformaren adierazpide estetikoa, zalantzan jarriko du narratzaileak egokitasuna estiloaren asmo pastoral eta didaktiko arranditsuena; beraren ustez, Barrokoak luxu oparoegia adierazpide du medikuaren gogoko helburu espirituala lortzeko, nahiz eta jendarte mota batengan arrakastaz eragin, ondorengo paragrafoetan azalduko denez.

Burges txikiaren ustez zaharkituta geratu da Antzineko Erregimeneko balioen arabera taxututako santutegia Loiolan. Ez da eraginkorra mezu kristaua helarazteko. Aldatu da santutegiaren sorrerako testuingurua, 1928an. Azken urteotan, aldiz, jesuitak beraiek Etxepareren ildoko sinpletze eta naturalagotze irizpideetara hurbildu dira, Ignazioren etxea ("Etxe santua") eraberritu dutenean, azken urteotako zaharberritzeetan[365].

Loiolako arte-estilo barrokoa Antzineko Erregimenaren espiritualtasun batekin estuki lotua jaio zen. Horretara, idazleak kritikatzen dituen elementu arkitektoniko eta dekoratiboak kokatu behar dira parametro barroko horien barruan.

---

364 *B.* 52-73

365 López de Aberásturi, A. (1997). *La casa torre de Loyola*. Bilbo. Mensajero

3.2.1.1. Kontrarreformako artearen gizarte-funtzioa

Jean Etxeparek kritikatzen duen Loiolako arte erlijiosoa ulertzeko komeni da katolizismoaren historian zehar joan-etorri bat egitea Europako lurretan. Kontrarreforma katolikoak iraun zuen Trentoko Kontziliotik (1545-1563), Vatikanoko II. Kontziliora arte (1962-63); Erreforma protestantearen (1529) ostean itzal luzea utzi zuen Mendebaldean; beraz, *Beribilez* argitaratu zen urtean, 1931n, oraindik espiritualtasun trentotarra indarrean zegoen.

3.2.1.1.1. Marko historikoa

Euskal Herrian jesuitek garrantzi handia izan dute beste hainbat lekutan bezala, jakina denez, hain handia non Jean Etxeparek bidaia antolatzeko xede nagusitzat "Loiolako ikusgarri omen handikoak" bisitatzea hartu baitzuen. Ulertu behar da nor izan zen Ignazio eta zer ziren jesuitak ulertu ahal izateko zer izan den Euskal Herria eta zer zeukan aurrean Etxepare bezalako idazle zalantzati batek; bakarrean giro klerikal batean intelektual gisa biziraungo bazuen, ezin baztertuko zituen giroko baldintza latzak. Ziur aski, Loiolako pasarteak erakusten du idazleak bizi zuen erlijioaren aurreko zalantza eta kezka. Etxeparek derrigorrezkoa zuen Loiola bezalako oroimeneko euskal leku bati arreta jartzea. Oinarrizko datu historiko bi gogoratzeko, esan dezagun Jesusen Konpainia 1540 inguruan fundatu zuela Loiolako Ignaziok (1491-1556); santutegia, aldiz, 1689 inguruan eraikitzen hasi zen santuaren jaioterrian Konpainia.

Hipotesi horiek gogoan, Trentoko Kontzilioaren inguruko zertzelada nagusi batzuk errepasatuko dira, ikusteko segidan orduko arte barrokoarekin zer lotura duten, eta nola eragiten duten Loiolako Santutegia taxutzen, eta baita Jean Etxepareren garaiko estetikan eta espiritualtasunean ere, ia XX. mendearen amaiera arte; argibide horiekin hobeto kokatu ahal izango da *Beribilez*eko pasarte zehatzetan idazleak erretratatzen eta kritikatzen duen Santutegiko estetika, arkitekturako elementuetan islatzen den bezala[366].

---

366 García Melero, J. E. et al. (2010). *Historia del arte moderno: Renacimiento*. Madrid. UNED. Ribot, L. (koord.). (2012 [1992]). *Historia del mundo moderno*. Madrid. Editorial Actas. Cámara Muñoz, A., et al. (2010). *Arte y poder en la edad moderna*. Madrid. UNED.

Eliza katolikoari eskakizun berriak jarri zizkion Errenazimenduko humanismoak. Izan ere, mundu paganoa berraurkitzeak agerian utzi zuen bestelako jakituria bat bazegoela, Elizak zabaltzen zuenaz aparte. Elizak ez zuen jakin humanismoak irekitako panorama berriari berehalakoan egokitzen, eta ezinegon horrek azaltzen du protestantismoaren arrakasta hein batean.

Jakina denez, Erreforma protestantearen eraso doktrinalaren aurrean, Erromako Elizak bilera ekumeniko edo unibertsala egin behar izan zuen kolokan jarritako dogmak berresteko, eta Elizaren nolabaiteko kontrarreforma abian jartzeko.

Protestanteen disidentzia horiei esker, paradoxikoki, badirudi Trenton abiatu erreformak Eliza katolikoari berari kar berria erantsi ziola azken finean. Kontzilioaren amaieran, dekretuak onartzeaz gain, Aita Santuari eginkizun berritzaile ugari burutuarazi zitzaizkion, besteak beste: katekismoa, brebiarioa edo orduen otoitz-liburua, mezako liburua, liburu debekatuen indexa... Eliza Katolikoaren osasun morala indarberritu egin zen, eta proselitismoa eta kontrola areagotu egin ziren horrekin batera. Arteak ere eragin berritzailea jasango zuen, Loiolako Basilikak barne.

Trentoko Kontzilio hartako teologia lanetan zeresan handia izan zuten lehen jesuitek. Izan ere eta jakina denez, Ignaziok Jesuiten Konpainia militar gisakoa martxan jarri zuen Kontrarreformari bultzada emateko aldi hartan (gogoratu besterik ez dago uztailaren 31an Bizkaiko eta Gipuzkoako elizetan urtero kantatu ohi den martxa). Ordena hori, katolikoetan, jendetsuenetakoa izan da historikoki. Beraz, Euskal Herri eta Europa mailako fenomeno erlijioso garrantzitsu baten bihotza da *Beribilez*eko bidaiaren jomuga, hau da, Ignazio sonatuaren sorlekua.

3.2.1.1.2. Barrokoa auzipean

Kontrarreformako testuinguru horretan ulertu behar da baita Etxeparek deskribatu eta hastio duen santutegiko arte barroko oparoa ere. Santutegiko luxuzko hornidura aberatsa ez zen bakarren batzuen kasketa apetatsua, Kontrarreformaren estrategia pastoral orokor baten emaitza baizik.

Kontrarreformak, jesuitak tartean, Europako katolikoak bideratu nahi zituen Trentoko Kontzilioren zuzentarau berriak beretu zitzan, protestanteen zabalkunde berri oldarkorrari eta

Eliza katolikoaren endekapen moralari gaina hartzeko. Horretarako tenpluetan arte barrokoa erabili zuen, arte didaktiko bat. Antzerkia ere erabili zuen helburu berekin.

Parametro horien barnean kokatzen zen Jean Etxeparek bisitatu zuen eta XVIII. mendearen hasieran amaitua zen Loiolako Santutegia. Fededunaren atxikimenduari sustapen berria eman nahiz, arkitekto barrokoek aberastasun txundigarriak erabili ohi zituzten; ez bakarrik aberastasunak erakutsi, tenpluan fidela apaizarengandik hurbil nahi zuten ere elizkizuna kartsuago jarrai zezan, eta horretarako ere egokitzapen arkitektonikoak egin zituzten. Arkitektura barrokoak ikusliarraren esperientzia subjektiboa akuilatu nahi du, eraikinaren dinamikarekin edota dekorazioarekin[367]. Bi berrikuntza hauek Etxeparek ezagutu zituen Loiolan, gaur egun gauzak zerbait aldatu badira ere, Ignazioren etxean bederen, non apaingarriak askoz soilagoak diren.

Barrokoan, neurrigabeko luxua erakustea zen herri xehea inpresionatzeko baliabide nagusia. Printzeek ere horrela egiten zuten beren boterea eta gorteko distira nabarmenarazteko. Herriak arrandia lurkoiaren bitartez irudikatuko zuen bere ulermenaz gaindiko guztia; erakusleihoko luxu horren bitartekaritzaz estimatuko zuen botere politiko-ekonomikoa eta misterio erlijiosoa. Gizarteak boterea distirarekin lotzen zuenean, Eliza ere jokabide horretara lerratu zen, botere espiritual eta tenporal gorenaren atzetik baitzebilen. Elizak elementu mundukoien erabilpena baliatu zuen, Erdi Aroan ez bezala. Arte barrokoak men egin zien ezaugarri profanoei, ondasunak erakuste horretan.

Elizaren barneko aldeak areto baten jai-itxura hartuko zuen askotan, xehetasun apaingarriengatik edo gai aberatsengatik. Polikromiak zentzumenak erakarri eta txunditu nahi ditu, tonu metalikoekin. Barrokoan, begien atsegin sentsuala bilatuko zen baliabide oparoekin herri txikienetan ere. Gertatzen da, horrela, santu dena arrandiarekin eta handi-itxurarekin lotuta agertzea[368]. Hau da, Ignazioren etxe-barnearen kasua (kaperak, otoitz lekua...) Jean Etxepareren begiez ikusten dugunean.

---

367 Lacoste, J.-Y. (zuz.). (2002 [1998]). *Dictionnaire critique de théologie*. Paris. PUF. 103 or.

368 Weisbach, W. (1948). *El barroco arte de la contrarreforma*. Madrid. Espasa-Calpe. 312 or.

Jean Etxeparek adierazten du Ignazioren etxeko edergailu aberatsek sortzen zioten bihotzeko hunkidura:

> "Kaperaño batean gira, paretak, soailua, aldarea bera, oro mozaika xehe, xuri eta urdin batez estaliak. Elektrik argi bakar batek eztiki argitzen du guzia. Begientzat goxo balin bada barne hura, arimakotzat goxoago oraino ez othe den, gaude. Jabalduaz hausten ere zaizula apur bat bihotza, aithortuko dut den-gutieneko eraberik gabe" [gure azpimarra][369].

Eta beste batean :

> "Atheratzen gira, begiak apur bat lilluraturik. Estai berean, orai, begien ondotik bihotza zaiku behar tanpako batez estali" [gure azpimarra][370].

Eta berriz ere:

> "Etxe huntako sorginkerier, holakorik erran badezaket, bihotz gogorrenekoentzat ihardukitzea lan" [gure azpimarra][371].

Edo beste hau, argimutil batzuk aipatzean, lapis lazuliko pareta baten aurrean:

> "Orori badarite urre-dirdira ezti bat: alzeiruaren argi gaixtoak nundik-nahi baitu hautsi eta histu, zangoa osoki urrea izaitetik jauz zitaken iguzki-sista beroa. Bainan, ezti bada ezti, ez da bihotzerakorrago baizik.
>
> Saminegi etzadin izan urre-iguzkia, egin zuten oraino hemen bertzerik. Etzinezake neholere asma zer: aldarea bizkarraz dagon pareta apaindu zuten marbre urdinez, bizkarraren eremua baino zabalago bat duela hunek hartzen. Austriatik ekarria izana da lapis-lazuli deritzaion marbre hura. Eta biderditarik so egoiten bazinaizko kaperañoaren buru-aldeari, han ginen guziak orduan egon ginen bezala, aithortzeko zinuke xedea bethe zutela osoki: begiak goxatuaren-goxatuz, bihotzaren beraztea baitzitaken"[372] [geure azpimarra].

---

369 *B.* 58
370 *B.* 62
371 *B.* 64
372 *B.* 63

Esan daiteke aberastasunen erakusketek bilatzen zuten eragina lortu dutela narratzailearen sentiberatasunean, nahiz eta arrazionalki ez egon ados. Beraz, eraikin barrokoko barne giroak fidela hunkitu eta beldurtu behar zuen aldi berean.

Hori hasiera bateko asmoa izanik ere, XIX. mendeak ez zuen arte Barrokoa begi onez ikusi, eta ematen du Jean Etxepareren Loiolako edergarrien ebaluazioa jaio zen mendeko testuinguru horretan kokatu behar dela. XVIII. eta XIX. mendeetan *barroko* terminoak adiera gutxiesgarria hartu zuen nahasmena, naturaltasun falta, arbitrariotasuna eta gisakoak adierazteko[373], nahiz eta geroago zenbait kritikarik haren izen ona berrezarri nahi izan.

Jean Etxeparek egiten duen balorazio artistikoak Loiolako barrokotasunak aberastasun bidez lortu nahi duen efektu didaktikoa ez du onartzen; artearen historiak *teatralismo* terminoa erabili du.

Teatrala, berez, antzerkiari dagokiona da. Bestelako arte batzuei egokitzen zaie beren espresioaren ezaugarri batzuk izendatzeko, askotan gutxiespen kutsuz: izenondoak aditzera ematen du arte horiek antzerki-arteak kutsatuta daudela, hau da, efektua bilatzen dutela erakuskeria bidez ("il traduit la contamination de ces arts par celui du théâtre, la recherche ostentatoire de l´effet"[374]). *Teatrala* kalifikatzailea eguneroko bizitzan portaera espektakularraz trufatzeko erabili ohi da, baina baita antzerkian ere, batzuetan, gutxiesteko artifizioa, gehiegikeria eta enfasia.

Ignaziori tenplua martiriei eta santuei eskaini ohi zitzaien modukoa egin zitzaion Azpeitiako lurretan bere oinetxearen ondoan, ohi zenez.

Luxuaz gain, beste baliabide batzuk ere bazituen arte barrokoak fidelaren gogoa eskuratzen saiatzeko, adibidez, tenpluaren oinplano erregularra. Tenplua sinbolikoki erlikia-kutxa baten tankeran egina dago, eta oinplano biribila du. Jesuiten elizek askotan oinplano biribila edo karratua izan ohi dute, hau da, ez dute izaten gurutzeko oinplanoa. Jesuiten eraikinetako oin-planta simetriko horiek fidelei Jainkoari hurbil egotea ahalbidetzen zien, apaizari eta aldareari hurbil egonez, tarteko oztoporik gabe[375].

---

373 Weisbach, W. (1948). *El barroco arte de la contrarreforma*. Madrid. Espasa-Calpe. 329 or.

374 Souriau, É. (2010 [1990]). *Vocabulaire d´esthétique*. Paris. PUF. 1422 or. "Théâtral/théâtraliser" sarrera.

375 Jesuiten elizak Erromako Gesu beraien eliza nagusiaren eredura egin ziren. Loiolakoak ere badu haren eitea.

Literatura aszetikoaren arloko datu bat erantsiz, Jean Etxeparek sakelan eraman ohi zuen *Jesukristoren imitazioa* (ca. 1418) best-sellerra ere bat dator Kontrarreformarekin lotutako espiritualitate horrekin, *Devotio moderna* espiritualitate-mugimendu flandriarraren fruitua, eta aurrekarien atalean arestian iruzkindu dena.

Hori guztia esanda, Jean Etxeparek behin eta berriro aipatzen ditu Loiolako aberastasun ugari zoragarriek sortzen dizkioten gogo-bahiturak, berari zein gainerako ikusliarrei[376]. Bisitaren leit-motiv nabarmena da luxuaren aurreko harridura hau ("bihotza uzter" da erabiltzen duen adierazpidetako bat).

> "—Hemen —dugu jakiten erakuslearen ahotik— zuen ohi biltzea egun guziez jauregiko familiak; elgarrekilako othoitz-lekutzat zaukaten barneño hau. Behazue orai armairu-atheari, pareter, gainari: zilar hutsez dira guziak. Arkuan jarria den soailuan, zilar-plaka lodi bakotcha hegiz-hegi zilarrezko lore ñimiño batzuek bere lagunetarik berechten dute, zedarritzen, ikusliarrarren begi-atseginarentzat. Behazue oinetarat: zola bera zilarrezkoa da, harri pikatuz balitz bezain zangoarentzat gogor.
>
> Choratuak gaude zonbait minutaz, kokatzen ahal girenak oro. Halako othoitz-leku bat balu etche bakotchak, segur hemen guhauri bezenbat <u>bihotza uzter</u> litzaikeela bizizaleer" [gure azpimarra][377].

Ironia ere badarabil, adieraziz luxu horrekin edonor jainko-zaletu litekeela, Ignazioren familiak otoitz egiten zuen kapera zilarreztatu berregina ikusi ondoren; ordea, ez du uste aproposa denik bere sentiberatasunerako.

Esan behar da, azkenik, Iruñeko katedralean bezala Loiolako honetan ere idazlea arte-jakitun gisa agertzen dela, adibidez, erlijio-irudi baten aurrean euskarririk egokiena (oihala, igeltsua...) zein izan daitekeen esateko nor denean:

> "Ikuska gabiltzan kaperako erretaula hau igeltsuz egina ditake eta margoztatuz apaindua. Orhoitzarenago zitaken, gure iduriko, oihalaren gainean finkatu ukan balute margolariek sainduari Manresako kaperañoan gertatu gogo-bahitzea"[378].

---

376 Adibidez, *B.* 62

377 *B.* 62

378 *B.* 60

Arteko materialen aukeraketak erakusten du idazlearen gaitasun kritikoa. Sentiberatasunak erakusten du idazleak arterako zuen bereizmena, aurkitzeko zaila garai hartako euskal liburuetan. Gogorarazten digu zer nolako hartzailea duen gogoan Jean Etxeparek idazten duenean, alegia, arteko inguruabar xehetan interesatua dagoena.

Hortaz, Barrokoaren estetikaren ildotik joan daiteke Jean Etxeparek Loiolari oro har egiten dion kritika nagusia, ez izanik horrenbeste eta nahitaez antiklerikalismo hutseko jarrera bat. Ikusi besterik ez dago idazleak behin baino gehiagotan adierazten duen jesuitenganako esker ona Loiolako bisitako pasartean, eskerrak zuzenean emanez jesuitei, batetik, eta, bestetik, interesa erakutsiz Ignazioren izaera eta biografiarekiko[379]. Izan ere, inkoherentzia nabarmenean eroriko litzateke muturreko antiklerikalismoaren hipotesia:

> "bainan nola utz Loiola, eskerrak bihurtu gabe holako aroa eta hoinbertze gauza ederren ikusteko zoriona eman dauzkigun Jainkoari"[380]

Beste hipotesi sendoago bat izan daiteke idazleak erran komunari men egiten diola, hau da gehiengo katolikoari jarraituta, Hans Reichenbachen etikaren bidetik, alegia, "*Donostian Donosti, gorostian gorosti*", idazlearen bizi-giroko atalean azaltzen denez. Hala ere, ez du adierazi gabe utzi nahi berak zer uste duen Loiolako luxuaren gaiaz, Reichenbachek baitio etikan, batzuetan, gizartea lideratu ere egin behar dela, garaiko sinesteei men egin arren beste batzuetan.

Hala ere eta zalantzarik gabe, antiklerikalismo/klerikalismo auzia barra-barra zebilen urte haietan, ez bakarrik Espainiako literaturan, Iparraldeko euskal literaturan ere (Jean Hiriart-Urruty eta haren inguruko idazleen euskara ezin ederragoko izkribuetara jo bedi), baina kasu honetan sumatu uste dugu irizpide nolabait orekatua, edo ez soil erasokorra, hau da, idazleak berak esango lukeenez, helduaroko ikuspegi "neurri"-tsua, beherago azaltzekoa dena.

Beste hirugarren hipotesi batetik ere interpreta liteke jesuiten aparatu dekoratiboaren aurreko erresalbua. Frantziako giro positibistaren barnean[381], Jean Etxeparek leialtasun

---

379 *B.* 68

380 *B.* 67

381 Jean Etxepareren Frantzian bizi zen giro positibista horren erakusgarri seinalatu bat, Ernest Renan-en (1823-1892). *L´avenir de la science* (1890), irakur liteke, adibidez: http://classiques.uqac.ca/classiques/renan_ernest/avenir_de_la_science/avenir_de_la_science.html.[2017-02-10] Beste edizio bat: Renan, E. (1995)). *L'avenir de la science*. Paris: Garnier-Flammarion, Éditeurs.

historiko falta egotziko lioke Ignazioren jatorrizko etxearen berrapaintze barroko horri; jesuitek ezkutatu egingo liokete ikusliarrari Ignazio bizi izandako jatorrizko etxe erreala, ustez eta etxearen xumetasun horrek Lagundi entzutetsuaren sortzaileari distira kenduko liokeela.

3.2.1.1.3. Ignazioren oinetxea

Ignazioren sortetxea Ahaide Nagusien garaiko dorretxe bat da historikoki, Ignazioren arbaso hurbilek leinuen arteko borroketan parte hartu baitzuten.

Santuaren etxea ("Etxe Santua" esaten diote jesuitek) atondu zen historian zehar, era batera edo bestera, erromes bisitaria Lagundiaren helburuen arabera sustatzeko, berez, Etxeparek Ignazioren etxea une historiko konkretu batean ikusi zuen-eta, 1928an. Ordutik hona etxe horrek arkitektura- eta dekorazio-eraldaketa handiak izan ditu[382].

Aipatu dugu Ignazioren etxeak nolako estetikari jarraitzen zion. Eraikin barrokoa izana, 1928an Manuel María Smith arkitektoaren (1879-1956) irizpideen arabera apainduta zegoen, hau da, neo estilo ugarien irizpideei jarraiki, baina barrokotasuna baztertu gabe, hala ere[383].

López de Aberásturik kontatzen du Ignazioren etxe zahar barroko-eitekoak Jean Etxepareren ikuspegiari arrazoia ematen ziola: bisitariak maiz frustratuta sentitzen ziren etxea bisitatuta, medikua bezala[384].

Erlijiotasun zaharkitu bat

Erlijiotasun barrokoaren barnean, Kontrarreformak bultzatutako irizpide nagusiei jarraitzen zaie Loiolan ikusgai egotea Etxeparek deskribatzen dituen hainbat santuren erlikiak eta Golgotako gurutzearen ezpala, denak aberaski apainduak. Konparazio baterako, zehaztu dezagun protestanteek ez zutela jartzen ez erlikiarik ez eta santuen irudirik beren elizetan. "Etxe Santuan" erlikien aldarea deskribatuta dator *Beribilez*en; gure egunotan, berriki, azken etxe-

382 López de Aberásturi, A. (1997). *La casa torre de Loyola*. Bilbao. Mensajero.

383 López de Aberásturi, A. (1997). *La casa torre de Loyola*. Bilbao. Mensajero.

384 Aipatutako liburuan, hitzaurrean.

erreformek baztertu dute aldare hori jendaurretik, eta jesuiten egoitza pribatuetara lekualdatu, egin diren beste aldaketa asko bezala, gogoeta luzeren ostean jesuiten artean.

Jean Etxeparek bisita gidatuan erlikiak ikusteko aukera izango zuen. Idazleak ez du lehen pertsonako iritzi zuzenik ematen. Hala ere, esakuntzari erreparatuta irakurlea konturatuko da zein den narratzailearen gogo-egoera ikuskizun horien aurrean: erlikiek ez diote deboziorik sortzen.

Erlikiek zeukaten biziak eta hildakoak beren artean komunikatzeko ahala, kristauen sinesteetan. Izan zezaketen bertute sendatzailea. Kalbinistek erlikiak arbuiatu zituzten fededunaren gogoa materialismora bihurtzen zuelako, Jainkoa bilatzea edozein gutizia haragikoi baztertzea eskatzen baitzuen.

> "Geroago begiak erneago bagoazi goiti, bigarren estairat. Hemen laugarren kapera bat, athearen orde burdinazko-grilla apal batekin sarguian. Aldarea dena altzeiruz, sahetsetako bi paretak dena marbrez, biak erle-orrazeak bezala dena xilokatuak; xiloka bakotxak badaukalarik barnean, berinazko athe baten gibelean, urrezko-kutxa ttikitto bat: erliki-untzia.
>
> Berriz ere ene beharrirat lehengo boza: "Hemen dira bederatzi ehun sainduren erlikiak, lurreko-bazter guzietarik bainan guziz Erromatik hunat bilduak".
>
> Espantiturik gaude oro, urrezko-kutxaño heier so" [gure azpimarra][385].
>
> Bestalde, erlikiek Jean Etxepareri nolabaiteko eszeptikotasuna sortzen diote:
>
> "Ohartaratzen gitu emeki-emeki gibeleko paretan bi erretauler: batek badauka, ontsa aditu badut, Golgothako kurutzearen izpika bat"[gure azpimarra][386].

Ezaguna da erlikien trafikoak izan dituen faltsutzeak eta gehiegikeriak[387].

Nabari da Loiolako bisitan idazleak luma mugatu egiten duela ahalik eta gehien murriztuz polemikoak izan zitezkeen iritzien adierazpidea, azken bi hauetan bezala beste

---

385 *B.* 60

386 *B.* 60

387 Dupront, A. (2007). "Pélérinage" in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.). *Dictionnaire des religions*. Paris. PUF. 1547 or.

pasarte batzuetan. Autozentsura modukoa izan daiteke, kontuan dituela irakurleak, agian, kristautasunaren adierazpide "bitxi" horiekin ados egon daitezkeenak bera baino gehiago.

Esan daiteke historiaren ibilbideak Jean Etxepareren bidean egin duela aurrera. Memento honetan, santuen erlikia-altzaria baztertuta dago Ignazioren etxera ikustera doazen bisitarien bistatik, konstatatu ahal izan dugunez. Sentiberatasunak aldatu egin dira, baita jesuiten artean ere.

Luxuaren limurkeria

Metal baliotsu "berekoiak" aipatuko ditugu. Zilarra da sinbolikoki araztasunaren adierazgarria hainbat kasutan: kontzientziaren garbitasuna, xalotasuna, asmo zuzena, ekintza justua. Horietatik sortzen den leialtasuna ere adierazten du. Zuria eta argitsua den heinean zilarra da argi gardena kristalarena bezalakoa, ur garbia, ispiluaren isla, diamantearen dirdira.

Haatik, etikaren alorrean, zilarrak sinbolizatzen du sortzen dituen gutizia eta zoritxarren iturburua, eta kontzientzia gaiztotzea: alderdi negatiboa du, hasierako balioaren perbertsioa[388].

Horrela gertatzen da Jean Etxepareren ustez ere, "berkoia" bihurtzen baita hainbesteko zilar-kopurua:

> "Muthilak sartzen gitu berehala barne hertsi ñimiño baterat. Bertze guziak bezala elektrikaz argitua da hau ere, ezin eztikiago. Xuriak ditu soailua, paretak, zola bera, bainan ez dute gisuaren xuria, ez paperarena, ez marbrearena, ez thinduarena, ez zetarena. Gotorragoa da xuri hura, zertarik ere baita, hotza, beregizkoa, erraitera ginoazke berkoia.
>
> Harateko buruan, gizonak idekitzen dauzkgigu, zabal, armairuño baten athearen bi alderdiak: zurezko gizairudi ttipi andana bat agertzen zaiku, erdian zeruko Amarena, oro urrez margoztatuak.
>
> —Hemen —dugu jakiten erakuslearen ahotik— zuen ohi biltzea egun guziez jauregiko familiak; elgarrekilako othoitz-lekutzat zaukaten barneño hau. Behazue orai

388 "Argent" in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

armairu-atheari, parater, gainari: zilar hutsez dira guziak. Arkuan jarria den soailuan, zilar-plaka lodi bakotxa hegiz-hegizilarrezko lore ñimiño batzuek bere lagunetarik berexten dute, zedarritzen, ikusliarrarren begi-atseginarentzat. Behazue oinetarat: zola bera zilarrezkoa da, harri pikatuz balitz bezain zangoarentzat gogor"[389].

Ignazioren etxeko ikusgarrien artean, urrea ere aipatzen da behin eta berriro, urreztatutako zurekin batera. Urreak, zilarra bezala sinbolismo bikoitza du[390]. Alde batetik, perfekzioaren adierazgarria da: urrearen kolorea eta metala bera eguzki-sinboloak dira, Jesusen sinboloa, Argiarena, Ekialdearena. Beste alde batetik, urrezko txanponak dira desioen ugalketa neurrigabe eta perbertsoaren sinboloa.

"Kaperaño hari datxikola, bertze kapera ttipi bat: hau dena zeruria urreztatuz; hain gordin eta samur urre-apaindura, nun itsutzen baitzitu. Nihun ditaken ederrena orobat, batzuentzat..."[391]

Grezian, Hermesek zuen urrearen anbibalentzia. Hermes zen iniziatua, psikoponpoa, jainkoen mezularia, merkataritzaren jainkoa. Baina antzinakoek ikusten zuten Hermesen azken titulu horretan urrearen anbibalentzia: apaizek misterioak izkutatzen zituzten herri xehearen bistatik; urrea ere kentzen zuten profanoen bistatik, argiaren sinboloa bera. Jean Etxeparek ere sentitzen du ez duela astirik Ignazioren etxean egiten duen bisita gidatuan, hango edergailu guztiak patxadaz ikusteko.

"Baginagozken han luzaz, begiak aski ezin asez, noiz ere ohartzen baikira gure otoen sahetsetik jaun eta andre multxo bat zalu badoazila, komentu-hegiari lotua den etxeñoari buruz. Ardia ardiari bezala, gu berehala heien ondotik..."[392]

Ikusten da nola metal preziatuen bertute anbiguoak, txarrera aldatzen diren Jean Etxepareren begietan Ignazioren etxeko "gehiegikeriak" kontenplatzen dituenean.

Nabarmenkeriaren aurreko hoztasuna adierazten du Jean Etxeparek bisita baloratzean. Hura ulertzeko, kontuan hartu behar dira testuan jasotzen dituen elementu garrantzitsuek zer garrantzi izan zezaketen idazlearen idearioa zehazteko.

---

389 *B.* 62

390 "Or" in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

391 *B.* 58

392 *B.* 68

"Xoko batean bada oraino erretaula ttipi bat osoki begikoa, bainan orhoitzaren horiek guziak guti, paretako marbrearen xiloka batek agertzen daukunaren aldean.

Han da, lagundiak Erromatik ekarririk kokatua, bere lehen buruzagi Ignazio sainduaren buru-hezurra bera.

Diamant larri batek erdian, bazterretan diamant xehe batzuek izar-dirdira batez argitzen dute erlikiaren untzia"[393].

Diamantea da perfekzioaren sinbolo nagusia kualitate fisiko bereziengatik, alegia, gogortasuna, argitasuna, gardentasuna. Eguneroko frantsesez, *diamant sous le marteau* esaerak adierazten du harribitxiaren sendotasuna, gotortasuna. Berpizkundean diamanteak sinbolizatu du, arimako oreka, zorigaitzaren aurreko kuraia, izpiritua edozein beldurretik babesteko ahala, izaera prestua, fede ona. Horrez gain, buruhezurra da pentsaeraren kokalekua, beraz, aginte gorenaren lekua[394].

Nolanahi ere, Ignazioren erlikia deskribatzean nabari da narratzaileak darabilen soiltasuna eta hitzen ekonomia. Izan ere, Ignazioren buruhezurra ikusgarrien artean zentrala izanik ere, hitz gutxi batzuekin deskribatzen du. Hoztasunez, esan daiteke, inongo efusiorik ez baitago. Lehen esan dugun bezala, irakurlego mota bat ez izutzeko asmotan da berariaz egina, erraz ikaratuko bailitzateke narratzaileak benetako iritzia azalduko balu. Zeharkako aipamena (*alusión*) da autozentsuraren mekanismoetatik bat, elusioarekin batera[395]. Narratzaileak aipatuko zion Piarres Lafitteri hartua zuen bide diskretua egiaren bilaketan *Beribilez* erredaktatzean, idazlearen bizi-giroa aztertzean aipatu den bezala[396]. Diamanteak ere luxuaren sema eztabaidatura garamatza.

Jean Etxeparek egiten du beste materia preziatu andana baten aipamena, direla harriak, direla egurrak: onixa, lapis lazulia, marmola, ebanoa. Ignazioren etxeko bisitan, garrantzi handia dute agerpenon maiztasun handiagatik.

---

393 *B.* 62

394 "Crâne", eta "Diamant" sarrerak in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

395 Valabrega, J. P. (1967). "Fondement psycho-politique de la censure". *Communications*, *9* (1). 120 or.

396 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Jean A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or. 1931-X-12ko gutuna.

Olerkia eta aberastasuna borrokan daude Etxepareren gogoan: balio espiritualen alde egiten du. Etengabea da *Beribilez*en aberastasunen kritika, eta gizakiaren alderdi espiritualaren gorazarrea. Ez da besterik "Olerkia" idazleak hain sutsuki aipatua, materialismoa gaitzetsi beharraren beharraz. Beraz, esango da hemen gauza bat eta bera direla luxuaren kritika Loiolan eta arkitektura espektakularraren kritika Donostian: burgesia handiaren kritika antimaterialista.

Isotopia bat da aberastasuna *Beribilez*en. Isotopia da testu batean edo esakuntza batean, hitz jakinei buruz lotutako semak banatzea testuan zehar, Algirdas-Julius Greimas-en arabera; banaketa horrek ezartzen du testuaren koherentzia eta kohesioa, duen izaera errepikakorragatik, sare bat bezalakoa ehuntzen duena[397]. Izan ere, aberastasunen kezka han eta hemen agertzen da *Beribilez*en, aipatzean: landa inguruaren aurrerakuntza, Iruñeko eta Donostiako hazkundeak, turismo-garapena, etxeen arkitektura…

Azken finean, zeruaren azpian gauza berririk ez, Bibliak aspaldi arbuiatu baitzuen Jainkoa baztertzea dirua hobetsita: gogoratu urrezko zekorraren pasadizoa[398], tenpluko merkatariena[399], etab. Badirudi Etxepare baitan bizi dela borroka bat Olerkiaren eta aberastasunaren artean, azken finean, humanitate-ikasketa guztien oinarrian dagoen koska. Izan ere, gaur egun berdin entzuten zaie filosofo ospetsuei komunikabideetan, goi-burgesiak gehiago begiratzen diela finantza-agenteei filosofo edo giza eta gizarte-zientzietako adituei baino. Tirabira hori aspaldikoa da.

Ignazio edo heroiaren miresmena

Ignazioren etxeko bisitan narratzaileak interesa erakusten du santuaren bizitzari buruz. Ignazioren bizitzako pasadizoak gogoratzen ditu. Historikoa den gertakari horiekiko errespetua adierazten du, edozein iritzi heterodoxo saihestuz. Esan daiteke historiaren errespetu positibista

397 Ducrot, O. eta J.-M. Schaeffer. (1995 [1972]). *Nouveau dictionnaire encyclopédique des sciences du langage.* Éditions du Seuil. 538 or. Isotopiaren funtzioaz: Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: P. Brunel eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris. 143 or.

398 Irteera, 32

399 Mateo 21, 12-27. Gaurko ikuspegi kristau bat hemen : Pagola, J. A. (2013). *Jesús y el dinero: una lectura profética de la crisis*. Madrid. Boadilla de monte.

dela idazleak darabilen irizpide nagusietatik bat. Badirudi narratzaileak eskribau-lana egiten duela.

Hala ere, Ignazioren historia begiratzea denaz bezanbatean, laudorioak ere ez ditu baztertzen tonu lirikoago batean, jesuiten lan ebanjelikoa goraipatzeko. Gure irudiz, izan daiteke narratzailearen gogoan zebilen *als ob* (alegia-eta) goiburuaren aplikazioa, idazlearen bizitza-giroa aztertzean azaldu zen bezala[400]. Narratzailea Hans Reichenbachen proposamenei jarraituko zitzaien, aipu honetan azpimarratu ditugun bezalako hitzak deigarriak baitira Jean Etxepareren diskurtsoan:

> "Laster itzuliak gira athe-aitzinerat. Mailadiaren hegian xutik elgar hunkitzen dugula, bagaude ittan bat Azpeitiraino luzatzen den planaderari so. Zer ordoki ederra, erregebide leun beltz zabalak hausten duela erditsutarik! Zer xoko maitagarria Eskualdunentzat! Beren hauturala lerro-lerro ibil ditazke hemen, herritar saindua othoiztuz, kantatuz bi bulharrez haren laudorioak. Gizon guti izan da lurraren gainean harek bezenbat eta halako kharrarekin gizoner Jainkoaren hitza ezagutarazi nahi ukan duenik; guti, harek bezalako sua piztu duenik laguntzara bildu zituenen bihotzetan; guti, halako lanak lurreko eskualde guzietan eginarazi dituenik bere xedeen arabera; nehor ez, bera bizi zeno bere erakaspenez langile bat argitu eta indartu duen nausirik, nola baitzuen egin harek bertze eskualdun bat: San Frances Javierekoa. Bi sainduen alderako beila-toki da, geroztik, Loiola eskualdunentzat.
>
> Gozo zaizkigu gogoeta horiek, San Ignazioren sor-etxeko komentu-aitzinean"[401].

Adierazpena enfatiko samarra da, eta, horregatik beragatik esanguratsua. Guztiarekin ere, lekuak erakargarritasun handia du "eskualdunentzat", idazleak bere burua gehiegi inplikatu gabe, zuhurki. Ez bide zeukan istilutan sartzeko gehiegizko guraririk, heldutasuneko sasoi hartan, erdi gaixorik zegoela.

---

400 Lafitte, P. (1984). "Jean Etchepare jaun miriku zena (1877-1935)" in: *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. P. Xarriton (arg.) Donostia. Elkar/Eskualtzaleen Biltzarra. IV or.

401 *B.* 68

3.2.1.2. Disidentea erromesaldian

Atal honetan Loiolako bisitaren esanahi ideologikoan barna egingo da, interpretazio doiago baten bila.

3.2.1.2.1. Erromesaldi berezia

Loiola izanik bidaiaren jomuga, hor dago liburuaren ardatza. Jean Etxepareren kasuan, kultura-turismotzat hartu behar da Loiolako bisita, ezen ez deboziozko erromeria gisa. Esan daiteke kultura-turismoa dela, ez baita parte hartzen Elizako erritu-ospakizunetan. Garai hartan erromesaldi erlijiosoek arrakasta handia zuten, pelegrinen gogoan maiz mirakuluak zirela; hala ere, Eliza uzkur zen mirakuluak onartzeko orduan [402].

Daniel-Henri Pageauxk aipatzen ditu bidaiaren helburu askotarikoak: *Beribilez*eko kasu honetan izan daiteke nork bere burua bilatzea[403]. Idazlea etengabe agertzen zaigu solasean ikuskizunekin, bidaian zehar; Loiolan ere, idazleak bere agenda ideologikoa jarraitzeko beta bilatzen du, nahiz eta deboziozkoa izan santutegiaren berezko proposamena ikusliar erromesentzat.

Sarri metafisikoa dirudi Jean Etxepareren begiradak, Piarres Xarrittonek ustez ere Etxepare idazle metafisikoa izaki[404]. Metafisikako joera horren erakusgarriak lirateke hauek bilatzea: Loiolan, debozioaren oinarria eta Ignazioren etxearen fideltasun historikoa; itsasoaren aurrean, neurri etikoaren (*in medio virtus*) izaera, eta, Donostian, sineskeriaren funtsa bilatzea, petrikiloren jarduna ironizatuta.

Helburua metafisikoa izanik ere, argi dago erromesaldi horrek ez dituela erromesaldi konbentzionalak bereak dituen ohiko motibazio hauetarik batere, alegia: lehena, otoitz egitea;

---

402 Erromesaldiek fededunen artean nolako itxura hartzen zuten orduan ikusteko: Gratien Adema, «Zaldubi" (1877). *Eskualdun pelegrinaren bidaltzailea*. http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/A/AdemaPelegrin011.htm [2017-02-16]

403 Pageaux, D. –H. (1994). *La littérature générale et comparée.* Armand Colin. Paris. Bidaien atala.

404 Murua, I. (1996). "Piarres Xarritoni elkarrizketa". *Jakin* 97. 125 or.

bigarrena, taumaturgikoa edo sendakuntza bilatzea eta, hirugarrena, penitentzia egitea edota politikoa[405]. Aztertuko dira hiru elementuok banan-banan segidan.

Otoitzaren etnografia

Loiola omen handikoa izanik euskaldunen artean, idazlea derrigortuta dago ikuspegia ematen, Euskal Herriaren irudi orokor bat emateko irakurleak gogoan dituela. Loiolako ikuskizunek duten *omen* hori hertsagarria zaio idazleari auto-bidaia programatzeko: ("Agorrilaren lehen astezken-goiz batez abiatu ginen beraz Cambotik zazpi lagun —hiru gizon eta lau andre, bi beribil atherbedunetan— aratsean berean gibelerat sartzeko xedearekin, Loiolako ikusgarri omen-handikoez begiak betherik"[406]).

Berriz ere, narratzailearen irizpidea da jendearen ustea, jendeak darabiltzan topikoak: Loiola ikusgarria omen da, ez dago inplikazio askoz handiagorik, itxuraz. Estetika hutsa, ez debozioa; badirudi idazlea programa komun bati jarraikitzen zaiola, bestelako eraspenik gabe. Santutegira hurbiltzean ere, bidaiariak sentimendu tipikoak ditu. Bidaia gorabeheratsua eta gero sentitzen den poza *Beribilez*en nabarmena da eta azpimarragarria gure kritikan, Gipuzkoako sartzea eta gero, nabarmen. Ohikoa da edozein santutegi ikustean lehen aldiz erromesek sentitzen duten poza erromesaldi guztietan, aurreko bidaia luzearen ondotik; Loiolaren aurrean ere bai, *Beribilez*en:

> "Aurkintze hau zinez xoragarria da. Beheititurik gordetzera doan iguzkiak urreztatzen du oraino zeru-xoko bat, garaitiko eremu guzia urddin-argi dagolarik, eta lurra berotzen eztiki. Atsegin dute gure begiek, begien atseginaz alaitzen zaiku araberalat bihotza. Hemengoaren aldean, ikusi duten gutarik biek hitsa dela diote Provence eskualdeko zeru-gaina, iguzkiaren bero handixagoak langar arin batez azpiltzen diolakotz bere kapa urdina; gordina aldiz, aditu dutenaren arabera, Greziakoa, hau argiarenarekin batean iguzkiaren saminak lambro-lipits argalenetarik garbitzen omen duelakotz goien-goienean"407.

---

405 "Pélerinage" sarrera in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.). *Dictionnaire des religions*. Paris. PUF.

406 *B.* 7

407 *B.* 51-52

Narratzaileak naturaren presentzia azpimarratu egiten du testuinguru honetan, santutegiaren ikuskizuna pozgarriagoa bihurtuta.

*Beribilez*eko erlijiotasuna eskerrak ematean datza: Lagundiari, Ignaziori… baina ez idazlearen izenean, baizik eta Euskal Herriaren izenean beraren sineste zehatzekin, idazleak ezer egiterik ez duela horiek aldatzeko, etsipen puntu batez.

Otoitza ia ez da aipatzen. Nolanahi ere narratzailea behatzaile zorrotza da otoitzekoan ere:

> "Hemen, bat bertzearen ondotik hiru neskatxa gazte, azkar eta eder, harat-hunat badabiltza, apezen ofizioetako liburu handi bati bat-bederak behakoa landatua, noiztenka kurutzearen seinalea eginez. Eretzearekin gu, begi larri beltz batzu eztiki zeiharkatzen dituzte bizkitartean gu hunat, mundutar batzuei urrikalmenduzko agur baten karialat. Serora-gei zonbait? dautazu eginen. Ez: bazterretarat behatzen dute. Beata batzu? Ez eta: othoitzean neurriz derabiltzate ezpainak. Hiruak hiru sintsa, geroztik? Are gutiago: buru-ahuleria mikorik badutela ez dirudi; aitzitik, gogoa bizi-molde bati finkatua dute ezagun"[408].

Berriz ere konfirmatzen da idazlearen erlijio-ikuspegi kritikoa ez dagoela talkan zentzuzko erlijiotasun batekin: jarrera ñabartua du, otoitza jorratzean ere.

Gure ustez, bisitaren amaieran narratzaileak Loiolako Santutegiaren laudorioa egiten badu ere, konbentzio orokorrari men egite itxurakoa baino ez da[409]. Inpresioa da narratzailea urrundu samar dagoela Loiolan parte hartze fededun orotarik. Badirudi etnografiazko apunte moduko bat, beste ezer baino gehiago ("Zer xoko maitagarria Eskualdunentzat!"[410]). Ezinbestean aipatu behar du txokoko naturaren edertasun konpara ezina, lekua goraipatzean, hau da, argudio sekular samarra.

Erlijioaren antropologia modukoa egiten du Etxeparek bidaiako beste une batzuetan ere: Arnegiko apaizgai kopuru handia aipatzean ("Fede suharrekoa ditake Garaziko xoko hau!"[411]);

---

408 *B.* 67
409 *B.* 68
410 *B.* 68
411 *B.* 13

Iruñeko katedralean arte-lorpenak aipatzean[412], abadekien janzkera aipatzean[413]… Kanpoko begirada da, ez da fededunarena; horrek jartzen zuen idazlea *outsider* moduan.

Diogu hori azken finean narratzaileak beretzat ateratzen duen etekina ez delako erromerietan erromes konbentzionalak bizitu zezakeen transfigurazioa[414], baizik eta gustu gazigeza batekin bukatzen du bisita, ikusitakoak ikusita, eta nahiz eta bisitaren bukaera tonu optimistan eman. Idazleak eta bidaiariek ezagutu dute ospetsua den euskaltasunaren elementu garrantzitsu bat, besterik gabe.

Beste alde batetik, eta azken finean, *Beribilez* erromesaldi baten kontakizuna da, jomuga nagusitzat Loiolako Santutegia duena. Ez da soil-soilik aisialdi hedonista hutseko joan-etorria. Esan daiteke nahi izan duela narratzaileak bertatik bertara egiaztatu zer ote zen Loiolari horrelako omena ematen ziona herritarren artean[415].

Jean Etxepareren ikuspegia estetikoa da, eta kanpotik begiratzailea, oraingo honetan Loiolako elizako kupula begitantzean; berriz ere bagaude, erlijio-ohituren etnografia egiteaz gain, bere xede nagusia balorazio estetikoa ematea dela.

> "Sartzen gira beraz goipularriak estaltzen duen kaperan; komentuko Jesuista eskolemaileek, ixtudiantek, bai eta auzoek hau bide dute, goizetan, beren othoitzetako toki. Bagaude behin ixil eta geure baitan sartuak; eta gero, orok gure begiak goiti. Ez luzaz haatik, ez baita zorigaitzez gain hartan miresteko deus handirik. Kapera biribil-biribila da, askitto nasaia, argitua izariz bere inguruko tenteen artean ohatzen dituen aldaretaraino, bainan egiaz arruntkiegi duela gapeluak hesten, arroltze-kusku baten idurirat. Bertzerik ginaukan kanpotik Loiolako goipularria"[416].

---

412 *B.* 22-23

413 *B.* 73

414 Dupront, A. (2007). "Pélérinage" in: Poupard, P. (zuz.) *Dictionnaire des religions*. Paris. PUF. 1547 or.

415 Julia, D. "Pélerinage" in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.). (2010). *Dictionnaire des faits religieux*. Paris. PUF.

416 *B.* 68

Herri-medikuntzari dagokionez, ironiaz edo isiltasun hotzez aipatzen dira garai hartan bertute sendatzailea omen zuten elementuak *Beribilez*en: "amageitzen" –andreak ugalkor egiten dituen- harria Orreagako Kolegiatan[417], eta Ignazioren estatua baten azpiko iturri mirarigilea, bisitariek erabili gabea beldurrez eta kutsatuko ote diren ahoz aho dabilen ontzia ezpainetaratuz[418].

Bi hitz, haatik, medikuaren figura dela eta, Jean Etxepare hori baitzen. Medikua zen errepublikaren moralaren bultzatzaile prestigioduna Frantzia hartan. Orduko medikuntzak gizakia moralki eta fisikoki zaharberritzeko eginkizuna zeukan, zientziaren eta aurrerakuntzaren mezularia baitzen Iraultzatik aurrera. Adibidez, medikuak bekatuaren aldeko obsesio gisa kalifikatzen zuen mediku-azterketaren aurrean gaixoaren lotsa, ekintza medikoaren aurrean portaera hori lekuz kanpo baitzegoen; anestesiak ere arazo erlijiosoak gainditu behar zituen, heriotzarako prestakuntza eskatzen ez zuelako gaixoak kontzientzia galdu arren ere. Horrelakoetan, erlijioak ezjakintasunaren eta etsipenaren ukitua jaso zezakeen jendearen begien aurrean. Medikua izan zen, XIX.aren amaieran, katolikotasunaren eta laikotasunaren artean zubia egiten zuena[419].

Lehen positibistak morala zientziak argituko zuelakoan zeuden, aurrerakuntza teknikoarekin batera. Auguste Comte (1798-1857) positibismoaren sortzaileak gizadiarekiko maitasunarekin ordezkatu nahi zuen Jainkoarekiko maitasuna; fede berriak filosofia positiboa eta zientzia-legeak izango zituen oinarritzat[420]. Jean Etxepare ere ideia positibistetan ere hezitu zuten, aburuok hedakuntza zabala izan baitzuten (Ernest Renanen, Hyppolite Taineren… eskutik), Etxepare formakuntzaz frantsesa baitzen[421]. Claude Bernard mediku ospetsua ere giro positibista hartakoa zen.

---

417 *B.* 15

418 *B.* 57

419 Canto-Sperber, M. (zuz.) (2004[1996]). *Dictionnaire d´éthique et de philosophie morale*. Paris. PUF. "Laicité" sarrera.

420 Reale G. eta D. Antiseri. (1988). *Historia del pensamiento filosófico y científico* /// (Del Romanticismo hasta hoy). Barcelona. Herder. 279 or.

421 Lafitte, P. (1974). *Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak*. Bayonne. Imprimerie des Cordeliers. 5-6 or. Ikusi Jean Etxepareren garai-giroari buruzko 1. atala ikerlan honetan.

Etxepareri buruz aipatu izan da lanbidea apaizgoa zitzaiola ere[422]; esan nahi baita Jean Etxepare Iparraldean kokaleku delikatu batean zegoela, Elizak eta estatuak gorabehera latz samarrak zituztenean. Nolabait bi su gurutzaturen erdian egotea tokatu zitzaion, eta erronka horri ahal besteko ondorio onez aurre egiten saiatu zen.

Aldudeko medikuaren irtenbidea umorea edo diskrezioa da osasunaren arloko sineskeria agertzen denean, beste atal batean aztertuko denez.

Penitentziarik egiten ez duen erromesa

Penitentzia ez da aipatu ere egiten, *Beribilez*en. Penitentzia izan ohi da erromesaldien helburu bat. Jean Etxepare damututa dago hartutako burubideren batez? Gogoratu Piarres Lafitteri egiten zion gutuna esanez pentsabideetan lehengoan dirauela, baina adierazpideak gozatu dituela[423].

Erromesaldiak baziren euskaldunen gogokoak. Garai hartako idazleek kontatzen dituzte Erromara[424], Lourdesera[425]… bidaiak, baina helburua fedekoa zen, ez estetikoa edo kulturala[426]. Erran nahi baita, Etxepareren bidaia bitxia dela elizak gobernatzen zituen euskaldunen artean, turismo kulturala deitu zaiona.

Turismo kulturala denaz bezanbatean, begien aurrean dugun mende hasiera hartan, industrializazioaren ondorioz bazen sortua klase ertain bat turismoa autoz egiten abiatzen zena. Klase ertainekoa dugu Kanbotik abiatu zen auto bietako taldea.

---

422 Lafitte, P. (1941). "Jean Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas". 5-21, in: *Buruxkak*, Jean Etxepare. (1980). Elkar.

423 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. Ikusi Jean Etxepareren garai-giroari buruzko atala ikerlan honetan.

424 Zaldubi (Gratien Adema). (1877): *Eskualdun pelegrinaren bidaltzailea.* "Erroma" atala. Agirre, D. (1899). *Ioan-etorri bat Erromara.*

425 Zaldubi (Gratien Adema) (1877): *Eskualdun pelegrinaren bidaltzailea.* "Lourdes" atala.

426 Lizardik badu bidaia-kontakizun bat: Lizardi, X. (1934). "Donapaleura yoan-etorria" in: *Itz-lauz.*

3.2.1.2.2. Disidentzia positibista

Gure ustez, idazleak konbentzio nagusien begiratzaile gisa agertu nahi du *Beribilez*en, nahiz eta esakuntzaren bitartez idazleak argi utzi zer nolako iritzia sortzen dion ikusgai duena. Bidaia hau idazlearentzat zubiak eraikitze bat da Iparraldearen eta Hegoaldearen artean, laikoen eta erlijiodunen artean. Horregatik, bere disidentzia hainbat ñabarduraz hornitua da: Ignazio itzal handikoa da Hegoaldean. Ez die iritzi propioei uko egin nahi, baina Besteari lekua utzi nahi dio. Horrek azaltzen du Loiolako Santutegiaren aurrean idazleak duen jarrera anbibalentea, testua tentuz irakurrita. Bidaia da, berez, Niaren eta Bestearen arteko solasaldia abiatzeko beta. Hala ere, nahiz eta etorkorra izan Loiolako ikusgarrien harreran, idazleak ez du bere irizpiderik baztertu nahi. Arrazoi hauek tarteko, idazleak egiten dituen planteamenduak irekiak dira, arrazoi kontrajarriak agertzen ditu, eta haiei lekua ukatu gabe, jarrera askotan lagunkoia botatzen du azken buruan. Hori da atal honetan aztertuko dugun apezñoaren figurak duen funtsa Loiolako bisitaren kontakizunean. Ez alferrik, literatur ikasketen diskurtso teorikoan ere, Literatura konparatua itun-kutxa bat da konparatistaren eskuetan bereziki bidaien azpisailean[427].

*Beribilez*en, narratzaileak konbentzioak kolokan jartzeko lan "zikina" edo heterodoxoa bigarren mailako pertsonaien gain uzten du Loiolakoan: oroimenera ekarritako "apezño" lagun zaharra, eta "frantximanta" anonimo jesuiten gaizki esalea. Narratzailea arbitro gisa agertuko da apezñoak eta frantximantak planteatzen dituzten dilemen aurrean, iritzi komunaren eta figura polemiko horiek planteatutakoaren artean. Azken batean, arkitekturako eta dekorazioko kritika, lotua da Loiolako bisitan narratzaileak ondoan izango dituen bi pertsonaia horiekin.

*Beribilez*eko narratzaileak baliabide narratologikoak darabiltza deskribagairen ikuspegi politikoki ez zuzena irakurleari helarazteko. Narratzailearen eta irakurlearen arteko bitartekari karikatureskoak dira Loiolako bisitan idazleak aurkitzen dituen apezño "positibista" eta frantximanta "voltairarra", eta ikuspegi arantzatsuen eroaleak dira: jesuiten jokabide zenbaiten eta frantsesen ezaugarri zenbaiten ebaluazio-kritikak. Horiek ematen digute narratzaile-ikuspegi politikoki zuzenaren ifrentzua, tentu handiz ehundua kode semiotiko gozatzaile eta

427 Pageaux, D. –H. (1994). *La littérature générale et comparée.* Armand Colin (bidaien atalaren amaian). Paris.

leungarri baten bitartez. Narratzailearen tonua jostalaria da hein handi batean, eta adiskidetasun-giroan emana, adibidez, apezñoaren jardunean. Umorea ere ager liteke karikatura moduan, adibidez, frantximantaren deskribapen animalizatuaren kasuan.

Jean Etxepareren disidentzia bideratzeko apezñoaren baliabide narratologikoak euskal kritika (konfesionalean) oihartzun negatiboa izan du, idazlearen garaiko giroa deskribatzean azaldu den bezala.

Jean Etxeparek zubiak eraikitzeko eginkizunean erresistentziak topatu zituen. Ezin da ezkutatu Jean Etxeparek inguru klerikal zenbaitetan sortzen zuen errezeloa eta zitzaion erreparoa, miresmenarekin batera. Sanbenito hori gaztetan jarri zitzaiolarik ere, azkenaldiko beraren literatur lanari ere egokituko zitzaion iritzi txarra. Irakurri bestela idazlearen *Eskualduna*ko lankide baten jarrera medikuari buruz, Etxepare adin berdean zela:

> "Hortan gira. Ukanen du briden beharra gure pottokak [Jean Etxeparek]. Bizkitartian zerbait onik ere badu segur; eta miletan nahiago dut holako buru bat, zeiharka ere onerat itzulia, ezenez gaichtorat. Non geldi litake? Phereka dezagun ile aIde, bainan soka labur atchikiz eta zaldare beroturik ahalaz ez emanez. Ferdetik ausarki; eta karrosan hirunazka ezar beti erdian. Halere ni beldur lanak emanen dauzkula.
>
> Agian ez... Nik ez dut kitzikatuko..."[428].

Ignazioren etxeko bisitan aipatzekoa litzateke idazleak bestelako estetika bat eskatzen diela jesuitei, beren fundatzailearen asmoak zabaltzeko. Horrela ulertuko litzateke idazleak duen jarrera gazi-gozoa bisitaren aldera. Ez du deblauki ukatzen erlijioaren balioa, baina kritikoa da eta emendioak proposatzera ausartzen da.

Idazlearen hitzetan asmo erlijioso horiek lagun hurkoa maitatzea eta Jainkoa maitatzea ziren. Edonola ere, gaurko ia edozein erlijio nagusik bere gain har dezakeen programa, eta

---

428 Petit Séminaire de Larressore, Hazilaren 5a 1903n idatzia, in: Charritton, P. (2002). "Manex Hiriart-Urruty eta Pierre Broussainen arteko gutunak (1894-1906)")". *Euskera* XLVII, 1 https://www.google.es/search?q=Petit+S%C3%A9minaire+de+Larressore%2C+Hazilaren+5a+1903+MANEX+HIRIART-URRUTY+ETA+PIERRE+BROUSSAIN%C2%B7EN+ARTEKO+GUTUNAK+(1894-1906)+Pierre+Charritton&ie=utf-8&oe=utf-8&client=firefox-b-ab&gfe_rd=cr&ei=GOGRV4D4CYmGtgf7ko2YCA [2016-07-22]

Etxeparek anbibalentzia horrekin jokatzen du, alegia, edozeinek aitortuko lituzkeen balio unibertsalak egokitzen dizkio Ignazioren asmoei, bere iritzi partikularra nabarmen utzi gabe.

> "Ditzagun eskerrak bihur lagundiari, lilluraz-lillura gauza baliosenen arartekoz arima baitauku goratu, ulertzerainokoan nolakoa zen Ignaziok beretzat hautatu ontasun bakarra, hau baitzen —eta baita bethi— lagunaren alderako amodioa Jainkoa baitan[429].

Beraz, bada hor Etxepareren kritika bat, jokabidez *modernismoa* izeneko mugimendu erlijiosoarekin pareka daitekeena. Modernismoak doktrina kristaua XIX. mendeko kultura-aldaketei egokitu nahi izan zizkion; XIX.aren amaieran eta XX.aren hasieran zehar iraun zuen, Jean Etxepareren bizialdian. Aita Santuak arbuiatu zituen modernistak azkenean, eta Elizak II. Vatikanora arte itxarongo zuen premia berriei erantzuteko ahalegina egiteko.

Ez da Etxepare eliz-hierarkiaren aurrean herritar xumeek amen-amen esate itsu horren aldekoa; bai, aldiz, da arrazoi autonomoaren eskubideak aldarrikatzen dituen burges txiki bat.

Harira itzulita, herritarrek jaso beharreko erlijio-heziketa da santutegian "Loiolako ikusgarri omen-handikoen"[430] bitartez kinkan jartzen dena. Iruñeko katedrala ere "omen handikoa" da *Beribilez*en ("Omen handiko eliza da hau"[431]). Azken finean, opor-turistak dira, turista sekularrak hegoaldeko Euskal Herria ezagutu nahi dutenak.

Apezñoa edo zientziaren eta erlijioaren arteko solasa

> "Han, ezkaratz-barneko athe hartan, ene lehenbiziko ikustaldian zitzaitan bada agertu apez-jauntziarekilako gizon ttipi gaztesko bat, Jesuita batendako hartu nuena. Eskuaraz galdegin nion jauregiaren ikuskatzeko baimena; eskuaraz zaundan erantzun. Trebe jarri ginen ordu-beretik elgarrentzat. Guti haztatu dut ene bizian harena bezalako lañotasunik; eskualdun aneia batena zen, gainera gizon handizki argitu batena, fedezko khar ezti batek berotzen zuena eta sarkortzen orozbat.
>
> Iduri zait ene ondoan dutala oraino, egun, apezño hura"[432].

---

429 *B.* 65
430 *B.* 7.
431 *B.* 21
432 *B.* 57

Apezñoa da oroimeneko pertsonaia irudikatu bat narratzaileak asmatua balio diona bere buruarekin barne solasak izateko, eta, bide batez, gogoetak irakurleari helarazteko. Apeza da konfiantzazko laguna, aurreko bisita batean ezagutua Ignazioren etxean, geroago 1928ko bisita honetan gogoratzen duena.

Argitu behar da apezñoa narratzailearen oroimenaren eta irudimenaren sorkaria eta baliabide literarioa dela soilik, ez dela bidaiariaren hezur-haragizko laguna.

Narratzailearen buruko solas horiek zuzentasun politikoaren mugan kokatzen dira, hori izan baitaiteke arrazoia narratzaileak baliabide "inpertsonala" baliatzeko apezñoaren irudian, hezur-haragizko inor tartean sartu gabe, ez autorea ez eta bidaiakideak, paperak dena jasaten baitu.

Apaiza da, lehenengo eta behin, erlijio-gizona eta "fedezko khar ezti batek berotzen zuena eta sarkortzen orozbat"[433], alegia, eskubide aitortua duena, beraz, erlijioko zerez autoritate eklesiastikoz hitz egiteko. Gainera, euskalduna da, irakurlearen hurbilekoa.

Historiaren erabilpenei buruz

Ondoko paragrafoetan apezñoaren figurak parte hartzen duen gertaldi batzuk jorratuko dira.

Positibismoaren ikuspegia emango zaigu apezñoak eta Jean Etxeparek bisitatzen dituztenean ukuilua[434], sabaia[435] eta Ignazioren gela[436].

> "Gero, gogoa hasten zait erasiaka, hunelaxe: beren aita, beren buruzagi eta nausi lehenaren sor-etxea xutik iduki nahi ukan baitute Jesuistek, goretsiak izan bedite beren ezagutzarentzat. Bakar batzuendako hobeki zitaken, orobat, zen bezala beiratu balute etxea, zen bezala Ignazio bere aitama eta haurridekin han bizi izan zenean. Bainan jendeak sinetsiko zukena halako jauregi xume batek ohatu zuela noizbait, eta moldatu, saindu handienetarik baten arima? Beiratu zukena luzaz huni bere atxikimendua, ez balu

---

433 *B.* 57
434 *B.* 58
435 *B.* 60
436 *B.* 62-63

etxe-barna guziak erakutsi, begien ondotik bihotzak joz, jendeak gehienik maite dituen lurreko edergailu eta aberastasunetarik lipar bat?”[437].

Esan daiteke, bidenabar, apezñoaren figura irreal eta irudimenezkoa idazleari bere buruarekin hitz egiteko aitzakia zaiola.

Apezñoak estetika alorreko iruzkinak egiten dizkio idazleari. Ikasle, entzule, kontsultagile gisa jokatzen du berarekin idazleak. Inoiz, beraren ikuspuntua errebatitzen du.

Idazlearen aukera estetikoak Ignazioren etxeari buruz ere aukera askoren arteko bat dira, idazleak ez baitu bere hobespena tanpez adierazi nahi. Hartzaileak kexu zitezkeen. Idazleak nahiago du apal, ezjakin, entzule… agertu, ezen ez harro eta jakintsu, erretorikak agintzen duen bezala, irakurlearen pathosean egoki eragingo badu (*captatio benevolentiae*).

Etxepareren burubideei ekinez, zientifismoaren haritik irakur daiteke nola apezñoa/narratzailea bikoteak polemizatzen duen Ignazioren etxeko egoitzen funtzioez eta gela-banaketaren leialtasunaz 1928an, santuak ezagutu zituen jatorrizko haiekin alderatuak.

Gogora dator, hein batean, Jean Etxepareren antzeko desmartxa burutu zuen beste liburu bat: Ernest Renanen *La vie de Jésus* (1863)[438]. Jean Etxepare bezala, joera positibistako idazlea Jesusen bizitzan egiaztagarria zenaren bila abiatu zen. Pertsonaia historiko interesgarria eta baliotsua da Renanen (1823-1892) idazlaneko Jesus, ebanjelariek marraztu ziguten haren bestelakoa. Renanek erlijioa errespetuz darabil, haatik, dogmak beretzakotu gabe. *Beribile*zen antzeko zerbait egiten da Ignazioren bizitzarekin.

Ernest Renan positibista zen, Jean Etxepare bezala, garaia horrelakoa baitzen. Positibistek zientzia enpirikoak hobesten zituzten, gainerako diskurtsoek balio zientifikorik ez zutelakoan[439]. Postulatu horren erakusgarritzat har litezke zenbait pasarte Loiolako bisitan: azpimarratzen da haietan Ignaziok ezagutu zuen etxea ez errespetatu izana ukuiluan, sabaian eta santuaren gelan.

---

437 *B.* 64-65

438 Doltra, M. “Vida de Jesús” in: Bria, Ll. et al. (2004). *Los libros de los filósofos*. Barcelona. Ariel.

439 Copleston, F. (1982). *Historia de la filosofia V(de Maine de Biran a Sartre)*. Barcelona. Ariel. 120-121 or.

Ukuilua izandako egoitzan jesuitek moldaketa larriak egin dituzte. Idazleak kapera txiki ederreztatu bi ikusten ditu, apezñoaren konpainiarekin bisitan doala. Horiek, antzinako ukuilua birmoldatzearen emaitza dira, apaindura aberatsekoak.

> "Aditzen dut ene sahetseko apezñoa, han balitz bezala izaitez, ez baitakit ez dutanez ere ene burua itzultzen haren ganat: "Bi barne hauk —dio ene beharrirat nunbaitik— zuten egiten duela lau mende jauregi huntako barrokia. Oraiko etxetiar-etxeeen araberalat ziren, beihala, eskualde hotako aitoren-semeen egoitzak. Sei edo zortzi abere-buru koka zitazken doidoi hemen. Bizi giren mendean bekaizti guti zuketen, segur, saindu-geiaren aitamen aberastunek, inguruetan bertzerik ez balute jabeek ukan"[440].

Ukuilua eta sabaia ez ohi dira izaten etxeko atalik nobleenak, ziur aski; ukuilua bera ere txiki samarra da 1928ko estandarretarako.

Ez da mirestekoa Etxepare positibista gisa agertzea ikerketaren une honetan, haren bizi-giroaren atalean azaldu baita medikuaren joera.

Agian, apezñoaren kasuan galdera gehiago sortuko lirateke.

Sabaia izandako Ignazioren etxearen atalean ere, mistifikazio ahaleginak desestaltzen saiatuko da apezñoa.

> "Bainan huna nun beharrirat mintzo zaitan ene sahetseko lagun soingabea:
>
> —Barne hau, jauregiko belhartegia edo sabaia zen, lehen; hemen etzaten ere ziren, belharrean, jauregiko hiru muthilak; orai, lerro-lerro ikusten dituzun alki horietan dira jartzen meza-entzuleak, hala-nola hemengo Aita jesuisten erakaspenen aditzera jiten direnak"[441].

Idazlea ere apezñoaren irizkide agertzen da: Ignazioren etxeak ez du leialtasun historikorik garai batean etxe-ondoa izan zenarekin:

---

440 *B.* 58

441 *B.* 60; ikusi baita ere 62 orrialdean nola moldatu duten Ignazioren gela oratorio gisa ager dadin, Etxepareren ustez.

"Duda zirringila bat hautemaiten dut bizkitartean neure baitan: holako barnerik, orhoit bahiz, etzukean duela hogoi urthe estai huntan? Geroztik egina izan behar dik. Ignazioren gelari kendua ziokeie xoko bat, oratorio-karialat dadin ager. Haren familiak etzikekan, orobat, othoitz-leku berezirik: sainduekilako armairuño hori ba, bakarrik, Ignazio bere zortzi semetarik gaztenaren ohe-ondoan[442].

Positibista asaldatu egiten da, horrenbestez.

Egun batez, XXI. mendeko erromesa Loiolara joan daiteke, Etxepare bere garaian bezala. Loiolara bisitan doan erromesak Ignazioren bizitza epikoaren berria izango du, hainbat urtetako arte-lanen bitartez. Erromesa liburu-dendara sar daiteke, etxea bisitatu eta gero. Liburu-dendan bisitariak jakingo du *Sal terrae* jesuiten argitaletxeak zer nolako produktuak jaulkitzen dituen: fundatzailearen ariketa espiritualak dira, izatez, irakurlego zabala xede duten argitalpen hauek, beste hitzez, borondatea sistematikoki sendotzea, hori izan baita jesuiten hezkuntza-habea.

Beharbada, norbaitek esan diezaioke erromesari, Jesuiten kopurua izugarri jaitsi dela Euskal Herrian duela urte batzuetatik hona; ez, hala ere, munduan zehar ahulak proaktiboki antolatzean datza jesuiten ingeniaritza mentala, borondate diziplinatuko gidari jesuita baten manupean: direla familia disfuntzionalak, direla indiarrak, direla pobreak, direla euskaldunak bezalako hiztun gutxituak… Ezaguna da, bidenabar, Lagundiak euskal literaturan izan duen pisua, Manuel Larramendi, Patxi Altuna, Gotzon Garate… bezalakoen bitartez.

Santutegiko liburu-dendan, bisitariak aurki dezakeena da funtsean autolaguntzako beste bateria bat, baina terminologia jesuita eta katolikoarekin, hau da, AEBko best-sellerren gisakoak. Gero, liburu sail bat ikusiko du espiritualtasunari buruz, ardatza Ignazioren gogo-jardunetan duena. Jean Etxepare bilaketan aritu zen bizialdi osoan: agian, espero ote zuen zerbait lagungarria aurkitzea Loiolan? Baiezkoan gaude, joan zela dardara batekin, berak 1929an aitortzen zuen bezalakoa:

---

442 *B.* 62

"Zer gibelondo ene lanak? Frantsesez aitortuko dut lañoki: résultat nul, fiasco complet. Aztura xaharrak ezin garaituz, urrats berari narraikio halere gaur den egunean, norbaitentzat noizbait ukanen duelakoan erakaspen zerbaitño"[443].

Ordea, bilaketaren ondoko emaitzak ikusita, Etxeparek eszeptizismo puntu bat erakusten du. Bidaia osoa nahiko tonu kritikoan da egina, kasurako Loiolan, baina baita ere Donostian, Iruñean, Ameriketako itsasoari buruzkoan...

Ignazioren irudikapena ere aldatu egin da, Etxepareren garaitik hona. Guda-gizona *solo y a pie* bilakatu da[444]. Izatez, gortesau bat omen zen alde batera hasiera batean, neskazalea eta borrokazalea gizarte-eskaileran gora igotzeko. Horren sintoma da zaldun-jantziko Ignazioren estatua oinetxearen sarreran bazegoen ere[445], gure sasoian, atzeko patio batera lekualdatu dute. Garai bakoitzak bere Ignazioren irudikapena, etxearen dekorazio-estetika bezala.

"Huna oraino zipu bat, harresi biribil batek ziloa inguruan ezpaintzen diona goiti; harresi-hegiaren gainean xut, bronzazko bigarren gizairudi bat: Ignazio berriz ere, bainan orai zaldizko aitzindari baten apainduran, hets eta idekaraz ditaken kaska batez estalirik buru lepoak. Aurpegia bera ez du haatik bronzaz, bainan ba xuri-gorratsezko orhe gogor batez egina, ez baitzira guti harrizen, aldarteka agertzen dauzunean kaskaren aho zabaldutik"[446].

Ignaziok uztartzen zituen "bertutea eta letrak", hau da, nahi zuen bertutea eta formazio intelektuala lotu, Jainkoaren eskuetan josulaguna tresna erabilgarriagoa izateko. Hala ere, desadostasunik egotekotan, nahiago zuen bertuteaz fidatu ezen ez adimenaz. Balioak eremu intelektual hutsean geratuta, ez zitzaion zerbitzen Erresumari[447].

---

443 Xarriton, p. (1984). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak.* Donostia. Elkar/Eskualtzaleen Biltzarra. 366 or.

444 Telletxea Idígoras, J. I. (1990). *Ignacio de Loyola: solo y a pie*. Salamanca. Sígueme. Diote dela santuaren biografiarik onena. Euskarazko itzulpena ere bada. Telletxea Idígoras, J. I. (1987). Loiolako Ignazio: bakarrik eta oiñez. Donostia. Etor.

445 Juan Bautista Mendizabal jaunarekin solasean, Loiolako gida azpeitiarra.

446 *B.* 56

447 Martínez, J. L. (2007). "Virtudes" in: Grupo, D. E. I. *Diccionario de espiritualidad ignaciana*. Bilbao-Santander. Mensajero-Sal Terrae.

Letrek lagundu behar zioten jesuitaren helburu nagusiari, hau da, Jainkoa goratzea, eta arimen onura[448]. Jakituria zen, Ignazioren kasuan, XVI. mende hartan jakintza onartutzat hartzen zena, humanismoaren hurbilekoa.

Espiritualitatearen mugak

Ignazioren etxean, narratzaileak eta apezñoak planteatzen dute dilema bat: izaeraz Ignazio bertutetsua ala azkarra ote zen; Etxepareren ustez, Ignazio adimenduz azkarra zen egin zituen ikasketen ondorioz; apezñoaren ustez, Ignazio baitan bertutea baino ez zen handia. Bertutearen eta adimenaren arteko harremanen solasgai horretan, suma daiteke apezñoak medikuaren laguna zen Lafitterekin duen antzekotasuna:

> "[apezñoak] Solas berak atxikiak zauzkitan, lehen. Ez diot ihardesten batere. Baditake etzen hanbat aho ederrekoa Ignazio; izan ditake lumaz ere etzela trebeenetarik. Bainan ez jakintsua! Ez dut sinesten tuntik. Argi laburretakoa, gizon egin artio jende argituen artean hazia izan zen aitoren semea, gizondu ondoan bere adimendua ezin aski argituzko themarekin ikastetxe aipatuenetan hogoi urthe ereman zituen entzule bipila, ohartze apurrekoa izan zela gizon hura!... Zonbat buru oneko gizon, buru handikoak ere ba eta gain-gainetik argituak, idazteko ala mintzatzeko deus guti direnak izan!" [449]

Piarres Laffitek ere gai hori bera erabili ohi zuen Jean Etxeparerekin zituzten elkarretaratzeetan ("Solas berak atxikiak zauzkitan, lehen"). Hona hemen zuten jarduna, Lafitteren hitzetan:

> "Oroit niz saindutasunaz [Jean Etxeparek] zeukan solasaz: haren gostuko, gure sainduen karra ez zen bakharrik nahikunde harrigarri baten seinalea, bainan adimendu azkar baino azkarragoko batena; argirik gabeko karrik ez zuen amesten ahal, eta erdaraz finkatzen zuen erranez: "Le génie de la charité ne va pas sans le génie de l'intelligence". Errex zitzaitan gero erakustea gure sainduak zoin lainoki zauden Jainkoari, gogoz eta bihotzez, fedeari eta graziari esker: "et ce double génie ne s'explique pas sans le mystère de la grâce!". Orduan Pascal ginuen aiphu edo Newman. Hots, ez zuen den-mendren

---

448 Decloux, S. (2007). "Letras" in: Grupo, D. E. I. *Diccionario de espiritualidad ignaciana*. Bilbao-Santander. Mensajero-Sal Terrae. 829 or. Ikusi, hiztegi berean : "Estudio ", "Ignacio de Loyola "…

449 *B.* 65-66

etsaigorik erlisioneari buruz eta berak erraiten zuen: “Egun guziez ohoratzen dut Jesu-kristo”. Nola zuen bada ohoratzen, ez dauku salhatu behinere: bainan ohore horren sari, Jainkoak azkenean bereganatu beharra zuen ondarra”[450].

Bidenabar, badirudi 1931n Etxepare antiklerikala izanagatik hein batean, ez zela erlijioaren aurkakoa :

> “Elizako buruzagi politikero batzuek ezin gaizkiago erabilia iduri bazait ere ardurasko, Galilean sortu hura bezain bihotz altchagarririk ez dut haatik ezagutzen”[451].

Azken batean, eztabaida hau kokatzen da iritzi sekularren alde Jean Etxeparek egin zituen urratsetan. Ignazioren gaitasuna modu immanentean azaldu nahi du, gizakiaren ahal naturalaren bidez: adimena; Jainkoaren grazia bigarren plano batean geratuko da; Lafitte eta apezñoa, aldiz, ez daude ados Jean Etxeparerekin. Txundigarria da Lafittek eta apezñoak duten antzekotasuna puntu honetan; ia esan daiteke pasarte hau dela bi adiskideek errealitatean izan ohi zituzten solasen isla zuzen fikzionalizatua.

Piarres Lafittek dioenez, berak eta Jean Etxeparek Pascalen ideiak zituzten solas egiteko makulutzat. Pascalek zioen teologiak autoritatean behar zuela funtsatu, eta aldatzerik ez zegoela mendez mende; zientzia, aldiz, arrazoiaren bilaketa ausarten mende zegoela, bi esparru bereiz balira bezala[452]. Teologia tradizioaren eta testu kanonikoen esparrua izanik, zientzia berrikuntzarena da; egia teologikoak Jainkoaren dohaina izanik, zientzia giza ekintzaren fruitua da. Lafitte-apezñoak, agian, badirudi Pascalen perpausen gainetik igaro nahi duela, hau da, fedeari lehentasuna eman nahi diola adimenaren gainetik.

Lafitte apaizaren ustez, jakituriaz gainetik, bada premiatsuagorik:

> "Jakintsunak adimendua lantzen oroz gainetik. Entseatzen da bere gogo-indarren zalhutzerat, chuchentzerat, bizitzerat, argitzerat. Oichtiko lasterkariak zangozainak

---

450 Lafitte, P. (1941). “J. Etchepare jaun mirikua (1877-1935) : aitzin-solas”. 5-21, in: *Buruxkak*, J. Etxepare.Jean Etchepare.. (1980). Elkar. 16 or. http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LafitteLiteraturaz038.htm [2016-07-21]

451 Xarriton, P. (1991b). “Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)”. in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 1931ko hazilaren 7ko gutuna.

452 Sarrera in: *Expériences nouvelles touchant le vide* (1647). aipatzen da bereizketa hori egiteko erreferentzia honetan: Reale G. eta D. Antiseri. (1988). *Historia del pensamiento filosófico y científico* /// (Del humanismo a Kant). Barcelona. Herder. 512-513 or.

lasterrari jartzen ziozkan bezala, jakintsunak buru-fuina eta izpiritua ere, orha eta orha, egiari lotzerat edo bederen ahalaz hurbiltzerat usatzen ditu. Izaite ala gerthakari, denak barna ikertu nahi lituzke, erdiko kuzkur hartaraino, ikusteko, edo bederen susmatzeko, zer legek derabiltzaten eta nola diren elgarri eratchikiak. Balentria gaitza, jakintsuarena; indarkatzea balio duena, ez baditu ere bilhatu argiak oro biltzen ahal, sarri erranen dugun bezala. Askok jakitateari baizik ez diote erraiten "kultura", bainan bichtan da jakitatea ez dela kultura hainitzen arteko mota bat baizik: ez tcharrena segur, baina ez bethi (eta ez baitezpada) premiatsuena"[453].

Adimenaren eta espirituaren arteko lehiaren harira, kontatzen du Ignaziok autobiografian nola batzuetan kontsolamendu espiritualak baztertu behar diren, deabruaren trikimailua direlakoan ikasleak ikasketak bazter uztearren[454]. Gaur egun ere, Jesusen Konpainiaren filosofian sendo errotuta dago josulagunen heziketa-premia, helburuak hobeto lortzeko amorez.

Hona hemen Lafitteren beste adierazpen bat norgehiagokaren erakusgarri *Beribilez*en ere lekua zuena, hau da, adimena, batetik, eta, bestetik, bertutearen eta fedearen arteko lehia setatia:

"Oroit haatik erakaspen hoik oro fedeak eman argiekin behar ditugula uztartu, heieri esker joritu edo zuzendu, behin baino gehiagotan azkarki zetabetu: hots hein batetaraino ikasi guziak graziaren iguzki-pean jakitate zabal bakhar batean pollikiño urtu.

"Hein batetaraino", erran dut; ez dautzuet burua berotu nahi: ez gira alabainan gizonek bildu argien osoki batetaratzeko bezperan, ez eta bezperagoan. Gisa batez, etsigarri bezala daukat jakintsunen liburueri lotzea"[455].

Beraz, Ignazioren gaitasun intelektualei buruzko apezñoaren eta narratzailearen arteko eztabaidan, argi dago jokoan dagoena dela ea posible ote den adimendurik (=jakintzarik) gabeko bertuterik (kardinalak eta teologalak) Ignaziorengan. Apezñoak baietz dio, Etxeparek

453 Lafitte, P. (1952). "Aphez eskualdun batek behar lukeen kulturaz". *Gure Herria* 24-2. 77 or.

454 Santo Ignacio de Loyola, & Solares, I. (2004). *Autobiografia*. UNAM, Coordinación de Difusión Cultural.

455 Lafitte, P. (1952). "Aphez eskualdun batek behar lukeen kulturaz". *Gure Herria* 24-2. 81 or. Jakintzak histura omen dakar: "Ez estona, histura zerbaitekin gelditzen bazirezte, hainitz eta hainitz irakurtuaren buruan: ez duzue behin ere mundu huntan atchemanen zuen jakin-nahiaren asetzekorik".

ezetz. Gaur egun, badirudi Ignaziori ukatzea adimeneko trebetasuna, santuaren prestigiorako kaltetan dela, hau da, apezñoa Ignazioren figuraren ospea gutxitzen dabilela.

Jean Etxeparek sekularizazioa eta laikotasuna Ignazioren figuraren arartekotasunez bultzatu nahi ditu. Idazleak bilatzen du gizakiaren adimen-ahala errekonozitzea Ignazio baitan. Gizakiaren alderdia azpimarratu nahi du, santutasunaren eragin eremua murriztuta. Aldiz, erlijio-gizonak nahiago du Ignaziorengan Jainkoaren dohainen alderdia azpimarratu.

Jean Etxeparek nahi du adimenaren eta formazioaren munta azpimarratu, espiritualitatearen aurretik. Horretan ez da agertzen jesuiten abiaburuen kontra. Historikoki, haiek ere hezkuntzari bultzada eman zioten garaiko kultura beren helburu erlijiosoen tornura plegatuz:

> "Ez da gutiago egia, diot ixil-ixila ihardesten, Ignaziok nahi ukan zuela bere lagunek eta ondokoek gazteriari erakats zitzaten, ez bakarrik Elizaren erakaspenak, bainan oraino zuzenki eta ontsa bizitzeko behar diren jakitate mota guziak. Ez balitu berak jastatu bederen ukan, nundik zukeen bere laguner hainbertze arthamendatu erakats zitzaten?" [456.]

Berriz ere, Jean Etxepare helduak ariketa egiten du konpromezu orekatsua eta erdibidea bilatzeko. Apezñoa dialektikoki erasotzen du beren arloan, urrutiago joan gabe, alegia, desadostasun agerikorik azpimarratu gabe.

> "Atheratzen gira adixkide halere sakristiatik, biak"[457].

Garrantzitsua da Etxeparek egiten duen ahalegina adiskidetasuna mantentzeko ika-miken gainetik: gizarte-kohesioa iraunaraztea ezinbestekoa zaio, ideia desberdineko euskaldunen artean.

Idazleak bere baitan duen temaren errainu da apezñoaren baliabide narratologikoa. Bere betiko kezkei eutsiz, zundaketa arrazionala lehenesten du erlijioak bere xedetarako darabiltzan baliabideen aurretik, hau da, fedea eta dogma. Nabari zaio, diplomazia ahaztu gabe, uste kritikoak agertzeko ausardia, ausardia behar baitzen abelera hartan horretarako ere, ez baitziren

---

456 *B.* 66

457 *B.* 66

(ez baitira) edozer Ignazio eta Konpainia euskaldun askoren artean, jakina denez, besterik gabe inork kolokan jarri ditzan.

Ignazioren figura ohargarria zaio narratzaileari, historian izan duen eragin handia baztertu ezinik. Loiolako bisitan, Jean Etxepareren asmoa da Ignaziok Euskal Herrian eta bestetan izan duen helmenean haratago barnatzea. Ez da jarrera pasibo hutsa idazlearena, baizik eta konpainiaren fenomenoaren inguruan izan diren harrera moduen inbentariatze oinarrizkoa, narratzailearen zenbait iritzi ortodoxia batekin enkontruan daudenak.

3.2.2. Bisita kulturala Iruñeko katedralera

Ikerketa honen premiak hala eskatuta, kronologikoki atzera egingo da. Loiolara baino lehen autoak Iruñean lotu dira. Bi autoek katedralaren ondoan aparkatu dute, Iruñera iritsita; segidan katedrala bisitatuko dute bidaiariek, sakristauak gidatuta[458].

3.2.2.1. Katedralaren sinbolismo identitarioa

Frantzian katedralek eginkizun sinboliko handia izan dute nazioa gaur egun ezagutzen den bezala taxutzeko. Erregeek katedral eta monastegi zehatzak aukeratu ohi zituzten zeremoniak egiteko: ezkontza, erregealdiaren hasiera, ehorzketa, eskerrak emateko ekintzak guduetan garaitzeagatik, etab.

Historikoki, Iruñean nafar monarkia ere lotuta agertuko zen katedralarekin, monarkiak sustatuko baitzuen haren eraikuntza, gerora ehorzketa-leku gisa ere erabiliko zena.

*Beribilez*en, Iruñeko katedrala Nafarroako Erreinuarekin lotuta dago, historian zehar eraikuntzaren fundazioari erreparatuz gero ikusten den bezala, non nafar erregeek partaide fundatzaileak izan baitziren.

> "Omen handiko eliza da hau. Jakintsuek diote, Carlos hirugarrena eta haren emazte Leonor Castillakoa zirelarik Nabarreko buruzagi, hamalaugarren mendearen ondarrerat zutela Eskualdunek eraiki, ordukotz Parisen asmatua izana zen ara berrian"[459].

Frantzian, erresumaren iparraldeko katedralak hartu ohi dira kontuan oroitzapen-leku gisa. Frantziako iparraldekoek bakarrik dute estatuaren izendapen ofiziala katedral gisa, nahiz eta hegoaldean ere katedralak egon. Azalpena da iparraldekoek, eta ez hegoaldekoek, izan zuten lotura estua monarkiarekin eta botere politikoarekin. Iragandako sasoi batzuetan, Elizaren

---

458 *B.* 21-24. III. atala: "Nabarreko hiri-nausian".

459 *B.* 21

eraikuntzei jazarri zitzaien antiklerikalismoa Frantziar iraultzatik aurrera, egiten zuten espazioaren erabilera hierarkikoagatik, besteak beste. Hala ere, Frantziako agintariek aspalditxotik hona eta istilu batzuen buruan, aho batez adostu dute katedralen ondare arkitektonikoa babesteko premia[460].

Beste alde batetik, errege nafar horien interpretazio "nazionala" egitea koherentea da liburu osoan zehar bilbatzen den euskaltasunaren hariarekin: adibidez, Loiolan, apezñoa "eskualdun aneia" gisa kalifikatzen da[461], eta hizkuntzaz euskaldunak ez direnak "atzerritar" gisa[462], eta beste adibide batzuk aipa daitezke. Badago, bederen, sentimendu komunitarioa dei litekeena, agian, prepolitikoa dena.

Euskal egituratze politiko bati begira, Orreagako kolegiata ere mugarri garrantzitsua da *Beribilez*en[463]. Antso VII.a (1154-1234), *Azkarra* ezizenez, Orreagan dago ehortzia; bestalde, nafar koroaren beste objektu batzuk ere badira han:

> "[Orregan] Ez dugu astirik sakristiak dauzkan elizkizunetako untzi eta jauntzi aberatsen ikusteko; ikusi gabe utzi behar dugu halaber komentuko liburutegia, adituak girelakotz berdin ez dela gehiago han Nabarreko erregeek gainean zin egiten ohi zuten zilar-estalgiarekilako liburu handia"[464].

Ezin baztertu garai hura Sabino Aranaren eta Resurrección María de Azkueren garaia zelako datua, ondorio guztiekin[465]. Etxeparek harreman zuzena zuen Azkuerekin, lekeitiarra Bilbon bisitatzerainokoan. Dudarik gabe, Etxeparek bazuen bizkaitar aranismoaren berri, Piarres Broussain lagun abertzalearen bitartez baino ez bazen ere[466].

Bada, beraz, *Beribilez*en oroimenaren leku euskaldunak zerrendatzeko guraria *avant-la-lettre*, edo hori ematen du liburua aztertuta, azken buruan turismo-gida tradizionalek egin ohi zutena, historian gehiegi sakondu gabe, hori bai. Adibidez, Leireko monastegia ere da nafar

---

460 Nora, P. (zuz.). (1997). *Les lieux de la mémoire*. Paris. Gallimard. 3. lbkia. Vauchez, A. : "La cathédrale".

461 *B.* 57

462 *B.* 67

463 Nora, P. (zuz.). (1997). *Les lieux de la mémoire*. Paris. Gallimard. 1. lbkia : Beaune, C. : "Les sanctuaires royaux".

464 *B.* 15

465 Kintana, J. (2015). *Azkue, Bilbotar ezezaguna*. Donostia. Erein. Bi bilbotarron arteko harremanak errepasatzeko.

466 Etxepare, J. (1920). "Pierre Broussain mirikua (1859-1920). *Eskualduna* 1920-05-14.

monarkiaren beste antzeko kokagune sinboliko bat, panteoia baitzen, jauregia, apezpiku-egoitza…, erresuma eta Eliza banatuta ez zeuden garai haietan.

Beste argibide batzuk ere eskaintzera dator *Les lieux de la mémoire,* non aipatzen den katedralen gizarte-funtzioa Frantziako kulturan[467]. Lehia bat zegoen hainbat hiritako hiritarren artean nork altxatuko katedralik gorena, lekuan lekuko biztanleen harrotasunerako, eta leialtasun konfesionalak gorabehera.

Iruñeko katedralaren bisita hau ere sartzen du Jean Etxeparek arkitektura-lehia horretan, katedralaren atalak konparatzen dituela berak ezagutzen dituen Frantziako beste batzuen pareko atalekin.

Nabarmentzekoak dira narratzaileak eta lagunek egiten dituzten konparaketak ezagutzen dituzten beste katedrale eta elizekin: Baionakoarekin, eta Frantziako beste batzuekin, argi geratzen dela etengabe narratzailearen oharmen estetiko zorrotza:

> "Erran dugun kalonjeen jar-alkietako ozka-lanak ez gitu halere nehor harritzen. Ezagutzen ditugu guziek St-Bertrand-De-Comminges elizako eskulturak, Luchoneko ondoan, Frantzian ez nihun ez baita bertze hainbertzekorik, hala nola harriaren gaineko eskulturentzat ez baitugu uste baden Chartresko kathedraleari nausi izan ditakenik" [468].

Etxepare laikoari Iruñeko katedralaren edertasuna zaio axola, artelana; horretara, ez du topatzen eguzki-argi nahikorik barnean hartaz gozatzeko, ez baitu behar barnebiltzeko iluntasunik kristau praktikanteak bezala ("Ikusgarriak dira haatik zureriari datxizkon eskulanak. Damurik da eliza ilhunskoa: ezin ditazke xeheki ikus, ez ditzazkete ere begiek gai litazken bezala ikher aldarearen gibeleko erretaula handiaren zati margoztatuak"[469]). Axola zaizkio eskulturak ere: direla egurrez eginak, direla harriz eginak; eta konparatzen ditu Frantziako ospetsuenekin.

---

467 Nora, P. (zuz.). (1997). *Les lieux de la mémoire*. Paris. Gallimard. 3. lbkia.. "Les cathédrales" atala.

468 *B.* 23

469 *B.* 22

3.2.2.2. Arte erlijiosoaren ikuspegi laikoa

Iruñeko katedralaren balioespena estetikoa da *Beribilez*en, ez da sinestunarena. Baina nola uler daiteke Jean Etxepareren gisako idazleak hainbesteko lekua ematea gurtza katolikoko kokagune bati, baldin eta agnostikoa bazen defendatu den bezala[470]? Gure ustez, artearen autonomia balioesten dakien arkitektura zalea da Etxepare, balio estetikoa duten artelanak erlijiotasunetik banatzen dakiena, artelanok kultu katolikoa helburutzat izanagatik ere.

Arte gotikoa balioesteari buruz, Iruñeko katedralaz egiten duen deskribapena[471] da xehe-xehea, eta, bere zehatzean, arkitekturaren arloan euskaraz aurki litekeen lehenengoetako deskribapen teknikoetako bat izan daiteke, ziur aski; irakurri bestela katedralaren deskribapen-hasiera hau:

> "Bazter-harresiak guneka beheretik gaineraino gogorki lodi; harri lantuz eginikako estalgi arkatu xutaren jasaile, harresi hek; harresi hek berak teilatuaren jasaiteko, teilatu bat behar baitzen alabainan harrizko estalgiaren euritik beiratzekotz: hegatz-alde, beraz, teilatuko gapirioak bazter-harresietako gain-hegietan pausatuak; leihoak gora bezain zabal, tenteño batzuez petik goiti zatituak, eta gain-alderat ahoa xorrotx"[472].

Hari beretik jarraitzen du. Katedralaren estilo gotikoa deskribatzen ari da. Argi eta garbi, narratzailea agertzen da arte-aditu gisa etengabe bisitan zehar, hau da, arkitekturaz eta arte-dekoratiboez erakusten duen jakitatea harago doa hiritar arruntak ohikoa duena baino, erabiltzen dituen arkitektura-terminoengatik ez ezik, egiten dituen artelanen atalkako deskribapen doiengatik ere; autoko lagunek ere arkitektura erlijiosoa ezagutzen dute, hor bada kultura maila bat gizarte-estatusari estekatua, garai hartan.

---

470 Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2016-05-21]

471 *B.* 21-24 or.

472 *B.* 21

Burgesia txikiak badu aisia, kultura bat eskuratzeko. Etxepare kexu da, liburuaren aitzin-solas laburrean, asti gutxi duelako, iruzkintzen ari garen bidaia hau patxadaz egiteko: batetik, irabazien eskasiagatik, eta, bestetik, bizitza modernoaren erritmo azkarragatik[473].

Langile-klasea geroago igo da aisia kulturalaren gurdira, historian zehar. Izan ere, hazkurria bilatzeko ahaleginean jardun behar izan du, aisiari leku mugatua eman behar izanda. Horrelako zerbait berari gertatzearen beldur zen herri txikiko medikua ere[474].

Ez txiripaz, aipatzen du Etxeparek autokide guztiek ezagutzen zituztela eskulturok. Gustuaren soziologia aipatzen ari da. Euskaldunak ote autokideak? Ez zaigu argitzen liburuan. Autoko bidaiariek badute sentsibilitate artistikorik, bidaiariek arte-leku turistikoak ezagutzen dituztela sumatzen da-eta; arte-obrak eta natura-aurkintzak baloratzean erakusten duten gaitasuna ere sumatzen da. Bisitetako mugarriak artistikoak dira maiz, bidaian zehar: idazlearen balorazioek maiz izaera estetikoa dute. Kasu, Iruñeko katedrala, Ignazioren etxea, Gipuzkoako sarrera malkartsua, eta abar.

Hala ere, narratzailearen ikuspuntua da tekniko samarra, eta interpretaziorik edo balorazio espliziturik ez du ia ematen. Katedralaren fatxada nagusiaz –aurreko aldeaz- ari dela, bai ematen du balorazioa, baina beste batzuen iritzia autura ekarriz soilik: "garbiki erraiteko, badu eite kotsua theatre batenarekin"[475]. Jean Etxeparek iritzi zuzena ematea ekiditen du: zuhurtzia ote arazorik ez izateko?

Gogoratu daiteke fatxada neoklasikoa jatorrizko katedralari erantsitako geroagoko atala dela Iruñeko katedralean, eranskinek izan dezaketen egokitasun estetikori buruz iritzi kontrajarriak sortzen baitira horrelakoetan, arte-kritikarien balorazioetan: batzuen ustez katedralaren arteko aniztasunaren eta bilakabide arkitektonikoen isla interesgarria den aurrealde hori, beste batzuen ustez eraikin urtetsuaren batasuna apurtzen duen elementua baino ez da ("Jakintsuek kausitzen diote bizkitartean akatz bat: aitzinaldea"[476]).

Alabaina, narratzaileak iritzia ematen badaki aldarearen kokapenari buruz, erretaularen argiztapen eskasari buruz, Nafarroako errege batzuen hilobia sukaldean bitxiki kokatzeari

473 *B.* 5-6

474 Elias, J. A. (1973). "Art and play" in: Wiener, P. P. (zuz.) *Dictionnary of the history of ideas*. New York. Charles Scribner´s sons. I, 102 or.

475 *B.* 22 or.

476 *B.* 22

buruz, adibidez, lehena harridura perpausa baten bitartez adierazia, bigarrena eta hirugarrena esplizituki.

Aldarearen kasuan, honela harritzen da arte-aditua:

> "Ohartzen gira aldare-aitzina hetsia dela burdin-ziri gora batzuez, burdina ingudian jorik eginak. Bainan bitxikeria hau duzu: kalonjeen jar-alkiek eta elizako kantoreak jendeen aitzin-aitzineko jar-tokiak hartzen dituzte, haletan non mezatiarrek ez baitezakete ikus aldarea!
>
> Kantore eta apezen jar-alki, zurezko kaiola handi bat bezala dauzute egiten, gainetik eta aitzinetik idekia, elizaren trebeseko bideak aldare-aitzineko grillatik berexten duena"[477].

Iruñeko aldare bitxia, Etxepareri deigarria baitzaio, ez da Iruñeko katedralekoa soilik, baizik eta Elizaren barneko indar-korrelazioen erakusgarri ezaguna Europan :

> "[L´]exaltation des clercs par la réforme grégorienne et le développement des chapitres cathédraux, de plus en plus soucieux d´affirmer leur privilèges, aboutirent à instaurer une véritable coupure entre la nef et le coeur, réservé aux ecclésiastiques, par la construction de joubés couverts d´une profusion de sculptures qui empêchaient les laïcs de voir ce qui se passait autour de l´autel"[478].

Laburbilduz, hona Iruñeko katedralaren bisitak zer argitzen duen narratzailearen ideologiari buruz: narratzailea eta lagunak arkitektura erlijiosoa estetikoki atzemateko gai dira, eta ezagutzen dituzte eraikin nagusiak inguru geografikoan, hau da, irizpide artistikoa duten norbait dira, turismo kulturala horren zabalduta ez zegoen garai hartan.

Beraz, narratzaileak erakusten du arkitektura-deskribapenen bitartez sentsibilitate artistikoa, eta gustu landua duela. Gauza bera esan daiteke autokideei buruz. Orduan, esan daiteke *Beribilez*en hautemate estetiko hutsak baduela lekua, eta bestelako arkitektura-kezka estetikoak ere narratzailearen idearioaren osagai direla, erlijioaren arloko hautu bata ala besteaz aparte –Loiola dugu gogoan.

---

477 *B.* 22

478 Pierre Nora (zuz.) *Les lieux de la mémoire* 3. lbkia. "La cathédrale" artikulua. 3123-24 or.

Sentiberatasun artistikoa darie orrialde horiei.

3.2.3. Etxe-arkitektura bizilagunen ispilu

Etxepare zen Euskaltzaleen Biltzarreko buru, 1925ean. Ikusiko dugu kezka duela egurraren eta harriaren esku-lanari buruz, urte hartako hitzaldian. Kezka hori islatzen da baita *Beribilez*en ere.

> "Ofizialeek halaber badakite beren aran berritzen, berritzearekin apaintzen. Zuraren lantzeaz bezenbatean, badugu ara berri bat, frantsesez style néo-basque deitzen dutena: lehengo gure arbasoenaren heinerat ez bada heltzen ere, berdin handizki ohoratzen duena Eskual-herria, nahiz bertzela.
>
> Harriaren lantzeko eskuairean, laster ez dukegu nehori zorrik. Duela zonbait mende ez ginuen; ephe laburrik barne, agertzeko berriz on izanen gira non nahi. Beha choko guzietan eraikitzera doazin etche berrier. Ezin aski goretsizko ongi handia egin izan du, urrats-bide hortarat, Colas jaunaren liburu, La Tombe Basque deithuak.
>
> Ikusteko gei ederrik izanen da oraino, geroan, Musée Basque delakoan, ez baitakigu oro kokatuko ahal dituen.
>
> Zinez gure ustea da, jakitatezko nola esku lanezko maila gorenetarat helduko direla Eskualdunak hogoigarren mende huntan.
>
> Oro elgarri datchizki. Zuhurtzia daukagu haatik ororen buru, esku lanaren bezala jakitatearen.
>
> Euskaltzaleen-biltzarrak ditzala zuzen bidean iduk, edozoin izan diten, aipatu ditugun aurrerapen (progrès) guziak"[479].

Etengabea da *Beribilez*en ibilbideko eraikuntza zibilen balorazioa, bereziki etxeena. Balorazio estetikoa, lehenengo eta behin. Gainera, oso lotuta dator etxeen arkitektura-balioespena idazleak gizarte-antolaketaz duen ikuspuntuarekin, batetik, eta arkitektura mota bakoitzak etxejabeei buruz dioenarekin, bestetik.

---

479 Etchepare, J. (1926). « Euskalzaleen-Biltzarra : 1925eko bil-aldia Saran buruilaren 17an Jean Etchepare jauna buru ». Bayonne. Imp. S. Sordes (hitzaldia). 5. or.

Esan daiteke kezka hori erdaraz ezaguna dela: *La arquitectura popular vasca*[480]… eta gisako liburuak badira. Ez horrenbeste euskaraz[481]. Etxepare honetan ere bide-urratzailea da.

Gainera, esan behar da delako kezka hori Euskaltzaleen Biltzarraren inguruan mugitzen zen mundu era batera "museistiko" hori ere sintonian dagoela Etxepareren kezkekin, azalduko dugunez. Gogoratu Louis Colas-en (1869-1929) *La tombe basque* liburu gogoangarria[482]; bertan, Colasek kalkatu ahal izan zituen gizon-harrien irudiak eta hitzak Euskal Herriko hilerrietan zehar ibilita, gero historiaren gorabeherek suntsitu baitituzte horietako batzuk.

Berdenboran, seinalagarria da garai hartako pintura-produkzioa Euskal Herrian kostunbrista zela: tipo herrikoiak; ohitura herrikoiak: erromeriak, erromeriaren itzulera, bazkariak, elizarako joan-etorriak…; langile xumeak: arrantzalea, goldelaria… Helburua zen nazioa eraikitzeko materialak biltzea, garai hartan horrela baitzen[483].

Kezka hori desagertu egin da, segur, gaur egungo euskal pinturatik. Horrexegatik diogu *museistikoa* dela gaurko gizakiaren begietan Etxepareren arkitektura-ikuspegia, hein batean, orduko pinturaren ikuspegia bezalakoa.

Horrez gain, Jean Etxeparek aipatzen duen estilo neoeuskalduna sortu zen mugimendu abertzalearen abaroan arkitekturan XX. mendearen hasieran, erro erromantikoak zituen era bati jarraiki. Estilo neoeuskalduna gaur egun XX. mende hasierako Neguriko jauregietan ere aurki liteke –Bizkaikoa ere Donostiaren garai beretsuan loratu zen bainu-hiria[484]-. Bizkaian bertan auzo-eskolak ere estilo neoeuskaldunez proiektatu zituen Aldundiak. Diego de Basterra (1883-1959) dugu estiloaren arkitekto famatuenetatik bat. Basterrak Bizkaiko Aldundiaren enkarguz

---

480 Zabalo, P. (1993). *Arquitectura popular del País Vasco* / [Grafía y ornamentación de la rotulación vasca]. Tolosa. Editorial Vasca Ekin.

481 Azken urteotan argitaratua da: Askoren artean. (2012). *Arkitektura zibila : arte eta kultur prozesu baten historia Euskal Herrian*. Euskal Herria emblemática. Lasarte-Oria : Etor-Ostoa.

482 Colas, L. (1923). *La tombe basque* : recueil d'inscriptions funéraires et domestiques de Pays Basque français : atlas d'illustrations (dessins et photographies), documents recueillis dans les cimetières et sur les habitations du Labourd, de la Basse-Navarre et de la Soule. Biarritz. Grande Imprimerie Moderne.

483 Thiesse, A. M. (2014). *La Création des identités nationales. Europe (XVIIIe-XXe siècle).* Paris. Seuil.

484 Neguriko (Getxo) arkitekturaren berri, udalaren webgunean in: http://www.getxo.eus/es/turismo/que-hacer/muelle-de-churruca [2016-III-7]

auzo-eskolak estilo neoeuskaldunean altxatu zituen, adibidez, XX.mendeko lehen heren hartan. Iparraldean, gaur egun ere, andana dira estilo neoeuskalduneko etxeak.

Hexagonoan ere, bada mugimendu lokalista bat tokiko ezaugarriei gora eman nahi diona garai hartan. Frantzian hainbat *sociétés savantes* sortu ziren helburu horrekin, Iparraldean ezagutu zirenen antzekoak[485]: Etxeparek aipatzen duen Euskal Museoa tarteko.

Halan da ze, estilo arkitektonikoak ideia-gidari anitzen menean balora litezke, eta Etxeparek bere hautua egin zuen, xehekiago aztertu beharrekoa, estilo neoeuskalduna hobetsita. Etxe-eraikinak baloratzen ditu serioski, dagokionean hobetsiz ala gaitzetsia, arkitektura-kalitatearen arabera.

> "Bainan Donianeko zelai ederraren ikustea begiak zurituak igurikitu ondoan, ez ikustetik histen zaizkit ene lagunak. Larre-muthur batzu othartzen ohi diren bezala, urthetik urthera bizitegi berriz ari da alabainan estaltzen mendeal-elderat. Egoitza eder eta iraupeneko arras guti, bertzela"[486].

Narratzaileak politika iruzkinik apenas egiten duen, nahiz eta ekonomia aipatzen duen, baina esan liteke datu zehatzagoen faltan idazlea sektore tradizionalekin lerratzen dela alde batera burgesia handia kritikatzen duenean.

3.2.3.1. Edertasuna eta aszetismoa

*Beribile*zen arkitektura erabilia da metaforikoki Arrosan, esaterako, pasarte honetan non herriko elizak aurkintzaren edertasuna erreprimitzen duen. Idazleak baliabide parabolikoak darabiltza, ikusmoldea adierazteko:

> "Arrosako ibarra bere bizitegi apainekin, Arrosako mendia, aztaparkatzen zaizkon laborari-etxe xuriekin, Arrosako eliza bixkar baten gainetik zelaiari gibelaz

---

485 Nora, P. (zuz.). (1997). *Les lieux de la mémoire*. Paris. Gallimard. 1. lbkia. Berce, F. "Arcisse de Caumont et les sociétés savantes".

486 *B.* 11

dagona, ahalgetu nahi balu bezala inguruneko edertasunaren zoragarria. Hilarrien ikusteak gitu bakarrik apur bat ilhunduko, oraiko araberara...”[487]

Aszetismoaren kritika nietzschearra izan daiteke hemen dagoena, alegia, espiritu dionisiakoa hainbestetan aipatua: aszetismoak biziari eragozpenak jartzen dizkiola dioena[488]. Elizaren balioek jadanik ez dute onarpen eztabaidaezina, laikoaren gogoan, eta metaforak darabiltza zeharkako modu batez kontu handiz.

3.2.3.2. Noblezia burges txikia

Tolosa da idazleak hobesten duen hiri mota Zarautzekin batera, arkitektura-arrazoietan ere oinarrituta. Agian, Etxeparek ere Antzinako Erregimenaren nostalgiaz dihardu, Pío Baroja Aldudekoaren garaikideak bezala[489]. Tolosa Gipuzkoako hiriburu ohia, “noble*”-agoa* da Donostia baino (“Zernahi izanik, hiriño huntaz mintzatzearekin frantsesek erraiten dute bethi: *La noble Tolosa*”[490]).

Tolosa da euskalduntasunaren sinboloa. Goi burgesiak diruaren nagusigoa ekarriko du, bikaintasunaren eta aristokratismoaren kaltean (*arete*[491]). Burges txikiak bere klasearen ezaugarriak hobesten ditu: noblezia, besteak beste. Tolosa hiriburu ohia izanda ere, Donostia da hiriburua 1928an, baina ez ditu Etxepareren gurariak asetzen, goi-burgesiaren balioetara makurtua baitago. Paralelismo baterako, Pío Barojak *La casa de Aizkorri* (1900) euskal giroko eleberrian ere burgesia txiki honen bertuteak goraipatu zituen, eta bizirauteko zituen oztopoak.

*Beribilez*ek, sinbolikoki, Gipuzkoako bi hiriburuak, lehengoa eta geroagokoa, alderatzen ditu:

---

487 *B.* 11

488 Nietzsche, F. (1997). *Moralaren genealogia: idatzi polemikoa*. Bilbao. Klasikoak. Liburuaren sintesia in: Bria, Ll. et al. (2004). *Los libros de los filósofos*. Barcelona. Ariel.

489 Pinedo, J. (2000). “Ser otro sin dejar de ser uno mismo: España, identidad y modernidad en la Generación del 98”. academia.edu webgunean [PDF] [2016-07-29]

490 *B.* 45

491 Jaeger, W. (1990). *Paideia*. Madrid. FCE.

"Donostia baita zonbait urthe huntan Gipuzkoako hiri-nausi, ez dukete Tolosako buruzagien egoitzek hango agintarienen larderiazko harrokeria"[492].

Horretara, monarkikoak ziren nagusi politikoki, Jean Etxeparek Donostia bisitatzean[493] eta Bilbon boto abertzalea nagusia zen garaian; idazleak dioenez, kaleak militarrez josita zeuden, hiria monarken eta gortesauen inguruan jiran bizi baitzen.

Tolosatik hara, igaroko dituzte Betelu, Zestoa eta Zumaia herriak.

3.2.3.3. Arbasoen eredua

Zestoan, adibidez, agerian geratuko da narratzaileak aurrerakuntzan duen sinestea, etxeak belaunez belaun hobetzeko herritarrek duten betebeharra azpimarratuta:

"Hor bizi izan ziren orai bizi direnen arbasoak, langile antzetsuagoak bere heinean, hek, oraikoak baino. Sail berari jarraikiz, ara beretan thematuz, semeak aitaren eskuan bere eskua, zendako ez dute bada ondokoek arbasoen herria toki berean ederragotuz goititu, zendako bada ez lezakete oraino goiti?"[494].

Zestoa da, argi eta garbi, narratzailearen kezka ekonomikoaren beste erakusgarri bat. Vichy eta Zestoa konparatzean, bainu-herri batek bideragarria eta txukuna izateko bete behar dituen baldintzak objektiboki zerrendatzen ditu. Nabari da medikuaren enpatia Hegoaldeko bainu-herri honi buruz, bai baitziren Hegoaldean orduan hainbat bainu-herri ugari (Kortezubi, Urberuaga…), termalismoa modan zegoenez gero.

Zumaiaren txandan, herriaren ikuspegi pintoreskoa ematen du. Hor ere, herrixkaren alderako maitasuna nabari ageri da literatur estilo konnotatibo nabarmen batekin. Zumaiako eraikinak ez dira azpimarragarriak arkitektonikoki; kokapen geografiko estrategikoa azpimarratzen du, besterik gabe.

---

492 *B.* 45

493 Mees, L. (1991). "Europako herri txikien esnatzea". *Jakin* 66. 65 or.

494 *B.* 75

Oro har, agerikoa da burges txikiaren ikuspegia duen kezka ekonomikoagatik, eta bere burua gizarteko piramidean kokatzen duen tokiagatik, goraipatzen dituen balioen arabera hirigune bat eta bestea deskribatu arau.

3.2.3.4. Agintari zintzoak

Tolosaren hari beretik, Zarautz ere eredugarritzat dauka narratzaileak eraikuntza-tankeraren aldetik, gogobetekoa baitzaio. Arkitektura hori da etika baten eta herrigintzako asmo baten isla. Irakur daiteke dagokion pasartea:

> "Begi-ukaldi batez ikusia dugu dena, bururen-buru. Gogorki ederra da, nahiz bi bazterretako etxe-lerroek baduten guretzat halako pisu-aire bat.
>
> Athe ala leiho-inguruetako harri pikatuak gaitzak dituzte: balkoinez brokatuak dira aitzin-pareta gehienak, eta ez dituzte baitezpada arinak, dela beren harrizko-zolaz —airean gogorki baita ere azpitik atxikia— dela beren burdin-grilla lodiez. Hegatzak, bertzalde, erdirategi zaizkote zabaltzen karrikarat buruz, etxe zonbaiti.
>
> Aithortzeko dugu, bizkitartean, azpitik ezagun dituzten gapirio ozkatuek durduza bat emaiten daukutela, hiriaren alde.
>
> So batez hartzearekin guzia, karrikak badu zerbait, gogoeta gauzkazkena. Ahaldunak zituzken egileak; iraupenaz grinatsu zitazken; xedeen araberako zituzketen jakitatea, ederrerako jaidura, tokiaren amodioa, beren eta ondokoen ontsa-nahia"[495].

Kantu bat bezalakoa da Zarautzen ikusitakoaren atala, otoitz baten gisakoa. Estetika ulertzen da, etika baten ispilu modura. Doktrina txiki bat bada hemen.

Lehen begiratuan, ez da erraz ulertzen zer nahi duen esan zehazki medikuak. Izan ere, Zarautz ere eratu zen udako hiri gisa Donostia idazleak arbuiatuaren antzera, Zarautzeko hondartzaren inguruan Isabel II.ak herriaren hazkuntza sustatu baitzuen, hara bainua hartzera

---

495 *B.* 78

joanez. Isabel II.ak, hala ere, Bizkaiko Lekeitio hobetsiko zuen udaleku gisa, esan daiteke bidenabar; turismo-garapena ikusten da betiere itsas-bainu eta ur osasungarrien bueltan.

Nabari da Zarautzeko pasartean agintariekiko eraspena, espainiar gortesauak izanik ere. Donostiako hiri-hazkundearekiko aldea da fribolitate airerik ez egotea herrian, eta bai asmo sendoa etorkizunari buruz.

Etxeen atal honetan ikusi da medikuaren hautua burgesia txikiaren aldera, etxeen eraikuntza-mota ebaluatzean islatzen dela. Eraikuntzek bizizaleen aiurria salatzen dute: horren erakusgarriak dira Tolosaren noblezia eta Zarautzeko asmo zindoa, bereziki.

3.3. Burges txikiaren plazer txikiak

Argi badago ere liburu euskaltzale baten aurrean gaudela, euskaltzaletasun hori ez da minberatasun edota goibeltasun batekin lotzen etengabe, behar baino gehiagotan egin den bezala[496]. Medikuak aipagai ditu mahaiko plazerak eta beste batzuk, paisaiaz eta arkitekturaz gozatzeaz gain. Azken finean, euskaltzalea turismoa egiten ari da, pixka bat, agian, Piarres Broussainen ereduari jarraiki, lurraldeari gozoak ateraz Hegoaldeko probintzietan, azalduko denez.

Turismoa eta euskal ikasketak ez daude hain aparte. Ikusi dira merkatuan turismo-gidak filologoen eskuek ere paratuak. Ezin ahaztu, bestalde, bidaia abuztuaren erdian delakoa, hala baita, lausoak izanik kultura-bidaiaren eta plazer-bidaiaren arteko mugak, elkarren kontrakoak izan behar ez dutelarik ere. Izatez, bidaian zehar, narratzaileak gozamena aipatzen du maiz bilaketa haizu gisa, baina ibilbidean zehar ongizateak badu gorabeherarik eta aitzakiarik ere: Loiolak eta Donostiak ematen diote buruko minik...; bestalde, ez da denbora-pasa arina narratzailea barnatzen den gogoeta sakonen ariketa…; baina honako atal honetan turista hedonistaren plazer txikiak aztertzeari ekingo zaio, ohikoak diren lau zentzumenen arabera sailkatuta, erakusteko bidaiariak bizitzeko arte bat baduela (*savoir-vivre*), arrunkeriatik aparte, nolabait.

Gozamenaren kontuak luzerako eman lezake, gaurko gizarteari begira jarriz gero: gizarte hedonistan bizi gara, edo ginen 2008ko krisiaren aurretik. Hala ere, badirudi gozamen hori lotua dagoela ekonomia maila minimo bateko bizibidearekin eta *savoir-vivre* batekin.

496 Emozio euskaltzaleen bilakaera aztertzen da artikulu berritzaile honetan: Larrinaga, A. (2017). "Emozioak ekintza kolektiboan. Emoziozko testuinguruaren bilakaera euskararen aldeko mugimenduan". *Gogoa* 16.

Horiek badira *Beribilez*en. Abagune honetan, bada hainbeste sufritzen ari den klase ertaineko bizimoduaren oihartzuna, euskal literatura jasoan ikusi gabea *Beribilez* arte, agian.

Ez daude hemen kontraesanean euskaltzalea eta gozazalea izatea, aldi berean. Kontatzen hasiz gero "gozo" erroaren eratorriak liburu honetan harrituko ginateke duen maiztasunaren kariaz, bai baitira *goz** erroaren 23 agerraldi, eta *atsegin** erroaren 20 agerraldi. Ñabardura bat, hala ere: "gozazale iztil*"*-ak[497] hastio ditu Etxeparek Donostian, Iruñeko Sanferminetan ibili ohi den "alaitasun erhoa"[498] bezala. Hastio du, berdenboran, aberastasunarekin lotuta datorren edertasuna, baldin eta nolabaiteko espiritualtasunik ez bazaio aldi berean txertatzen.

Beraz, plazer txikiak direlakoak badituzte gogoan medikuak eta lagunek. Ez da mirestekoa Mendebaldeko gizartean plazeraren estimazioa, gaingiroki, nahiz eta balegokeen zer esanik euskal jendarte baten arrenkuraz. Halan da ze, Etxepareren ingurugiro hartan bazen ziur aski zer aipagarria horri buruz, azaltzea luze joko luketen erlijio-arrazoiak medio, oraindik ere pisua izan dezaketenak balizko "dolorismo" baten kariaz.

Jean Etxeparek bazekien bizitzen, nahiz eta estutasun ekonomikoak ezagutu. Hona segidan zerrendatuta plazer txiki horien edukiak, atal honetan luzazago aipa daitezen baino lehen.

Gastronomia, artea, ardoa, kirola, erotismoa, usainak, paisaia-ikuskizunak… Etxeparek badaki gozatzen beste era batera: burgesiaren xarma diskretua.

- Arte-kultuaren balioaz jabetuta dagoenik euskal literaturan Etxepare bezalako gutxi garai hartan, literaturak bestelako hartzaileak baitzituen gogoan, utilitarioa eta funtzionala baitzen.
- Ikuskizunen atalean, adibidez, argiaren jokoei antzemateko gai da paisaien aurrean dagoela.
- Ardoa denaz bezainbatean, Etxeparenean kontua ez da mozkortzea tragoka edanez: ardo-dastaketa saio bat dakar horren erakusgarri. Sagardoak ere guztiak ez dira berdinak: Normandiako "pitarra" baino, Gipuzkoako benetako sagardoa nahiago du[499].

---

497 *B.* 85

498 *B.* 20

499 *B.* 84

- Kirolean aditua da: pilotan bereziki. Kirolaren puntu honi dagokionez komeni da azpimarratzea Etxeparek baztertu egiten dituela, aipatu gabez, garai hartan Donostian baziren hainbat kirol sozialki markatuak. Donostian baziren zaldi-lasterketak, belaontzi-lasterketak, automobil-lasterketak, tenis-lehiaketak... Kasinoa ere bai, beste esparru batean, eta dantza arinak.
- Usainei buruz sentibera da idazlea egur klaseei ere erreparatzerainokoan: zedro-zuraren usaina; belarren usaina…
- …

Horrek guztiak anekdotikoa, ia friboloa eman dezake. Ez du horrela uste Juan Kruz Igerabidek *Hemen* aldizkariko artikulu batean, fundamentalismoen inguruko zenbaki batean dionez[500]. Dio, laburbilduz, fundamentalismoei aurre egiteko ona dela hedonismo poxi bat. Etxepare jausi zitekeen positibismo fundamentalista batean edo euskaltasun fundamentalista batean, baina *Beribilez*en ez da kasua. Bere mediku-irizpide zientifikoei barre egiteko kapaz da, adibidez, Donostiako petrikilo baten balizko onura sozialari buruz erretorikoki jolastuz, filosofia udatiar onbera baten markoan.

Agian, fribolitatea baino, idazleak beretzako nahi duen "neurri"-aren beste agerraldi baten aurrean gaude, arterako bezainbat edozein gozamenerako balio lezakeena[501]. Azken finean Epikuroren hedonismoa ere neurritsu samarra zen, inguru erlijiosoetan jarri zaion ospea gorabehera[502].

Xehekiago aztertuko dira plazer txikiok, paragrafo hauetan[503].

---

500 Igerabide, J. K. (2015). "Oinarrikeria". *Hemen* 47. Urteetan atzera eginez, plazerraren inguruan: Eguzkitza, A. (1984). "Plazera sor- eta helburu-. Plazer-hatsarriaren defentsan". *Jakin* 33.

501 Ikusi Donostiako pasarteari eskainitako atala.

502 Irakurri, adibidez: Erkiaga´tar E. (1951). "Jean Paul Sartre'ren ardi galduak" *Egan* 2-1951.

503 Racionero, L. (2005). *El libro de los pequeños placeres*. Barcelona. Styria.

3.3.1. Mahaiko plazerak neurriz

Jean Etxeparek bizitzen badaki, herri-kantako Maritxu hark bezala: "Maritxu, Maritxu, bizitzen badakizu: goizean-goizean txokolatia, arratsaldean koipetsu"[504].

Gastronomiako zaletasuna ez da Euskal Herriko ezaugarria bakarrik. *Les Lieux de la mémoire*n aipatzen da, Frantziako oroimen guneen artean, nola gastronomia den identitate nazionalaren azken gordelekua[505]. Pentsa dezagun, Frantzian horrela bada, nola ez den areago izango gurean, non identitate-zeinuek irauteko zailtasun nabarmenak dituzten: hizkuntza, egituraketa politiko-ekonomikoa, ohiturak, eta abar.

3.3.1.1. "Ez dut ametsik hiltzeko, osagarri hau dudano"[506]

Ikusiko dugu gaixorik den medikuak nola umorea duen euskal bazkari on baten goraipamenak jasotzeko, zeharbidez bada ere. Loiolako bidaian autokideek asmoa hartzen dute harizti baten abaroan bazkaltzekoa, etxetik ekarri duten janari hotzarekin[507].

Bazkaria ez da etxean izan ohi den bezalakoa, baizik eta kaskarragoa, azpimarratzen du idazleak. Kontrastez-edo, idazleak kontatuko digu nolakoa behar duen izan euskal bazkari duin eta neurritsu batek hariztiko bazkalondo hartan. Orduan, idazleak haurtzaroko pasadizoa kontatzen du non Garro Lekorneko auzapezak xeheki aipatzen dizkion euskal bazkariaren arauak Etxepare gaztetxoari: arauak baitira.

Bazkaltiar mokofin baten aurrean jartzen gaitu *Beribilez*ek: Armand d´Urtubie de Garro baroia[508]. *Mokofina* diogu, baina *gourmeta* esan ahal genuen, frantsesezko definizio honi jarraiki, Euskaltzaindiako Hiztegira oraindik ez baitzaigu terminoa iritsi:

---

504 Elantxobeko (Bizkaia) herri-kanta.

505 Nora, P. (zuz.). (1997). *Les lieux de la mémoire*. Paris. Gallimard. 3. lbkia. Ory, P. "La gastronomie".

506 Horrela kantatzen du Orhiko xoriek taldeak.

507 *Beribilez*en irakurri "Bazkaria" IV. atala, 26 or. eta hur.

508 *B.* 33 eta hur. "Bazkal-ondo" atala.

“Gourmet : subst. masc.

A. − Celui qui sait goûter et apprécier les vins ; connaisseur en vin. Un bon gourmet.

B. − P. ext. Celui qui apprécie la qualité, le raffinement d'une table, d'un mets particulier”[509].

Soziologikoki ere aipagarria da jaun horren estatusa, Etxeparek zirriborratzen diguna, gehiago jakin nahiz geratzen dela aitortuagatik ere (“Nehork ordean ez nu argitu-ahal nihoiz. Bertze aldi batez Iruñako liburutegien ikhertzea behartuko zait nihauri”[510]). Gure egunotan, Jean Baptiste Orpustanek webgune batean utzi digu Garroko familiaren etorkia[511].

Ez da Garroko jauna lekuko agintarietatik bat baino, mendez mende baitatorkio familia horri buruzagitza: ekonomikoki, politikoki, militarki… jende seinalatua baitziren.

3.3.1.1.1. Gehiegikeriak herri-literaturan

*Beribilez*ko “Euskal bazkaria” ez da izango jantropeak egiteko aitzakia, aitzitik. Gogoratu Txirritaren ezkontzako banketa (“Ni esposatzian” bertso sorta[512]); hona azken bertsoa, erakusgarri gisa:

“Dozen erdi bat urdai azpiko zintzilik dauzkat jarriyak,

saltxitxoi eta lukainka asko Aragoitik ekarriyak,

lau kapoi pare eta sei ollo agindu dizkit erriyak,

eta ondoren toreatzeko bi zekor gorri gorriyak,

ni ezkontzean izango dira bankete izugarriyak”.

---

509 Lexilogos: http://www.lexilogos.com/ [2016-10-12]

510 *B.* 33

511 Orpustan, J. *B.* (1989). *Garro : un nom dans l'histoire.* (Conférence prononcée au château de Garro à Mendionde le 28 octobre 1989). http://mendionde.fr.gd/Le-nom-de-Garro-_-Garroko-izena.htm [2014-05-10]

512 Antton Valverdek eta Xabier Letek kantatzen dute *Txirritaren bertsoak* diskoan (1990).

Antzekoak dira Ispasterreko (Bizkaia) Txanton Piperriren apustu sabelkoiak herri-literaturan[513]. Hona Txanton Piperriren letra herrikoiaren atal bat:

"Hiru lagun Ispasterren

apostua egin eben

jango ebela

goizetik gauera

hamar erraldeko txahala

nerau laugarren nintzela.

Pozez nengoen zoraturik

jateko laurden bat osorik,

nere kontuak

beti halangoak

joan zen poza putzura

ametsak ohi diren modura.

Lekeitioko kalean

bixigu denbora denean

hogei txitxarro

eta gehiago

eta guztiak gauean

sartzen dodaz

sabelean."[514].

---

513 Ez gara ari Buenaventura Zapirainen *Txanton Piperri* operaz (1899).

514 "Txanton Piperri" (Txirri, Mirri eta Txiribiton). Letra: http://eu.musikazblai.com/txirri-mirri-eta-txiribiton/txanton-piperri/ [2017-02-13]

Garroneko bazkari hau ez da, kasu, herrietan egin ohi ziren betekada eta jantrope horien modukoa. Hemen mokofin bat dugu. Adierazgarria da Garroko jaunak Jean gaztetxoari ohartarazten diona, jaki-kantitatea denaz bezanbatean: azkenburukoaren aurreko jaki-zerrenda entzuten egona, Jeanek galdetzen…

> "Ura heldu baitzitzaitan ahorat, galdegiten diot orduan gora- gora:
>
> —Eta gero? Ez dut ahantziko bizi nizano zer behako garratzaz itzatu ninduen ene xokoari.
>
> —Gero?!!... Penarekin ikusten diat ehizala izanen, hi, sekula deustako; aseko hiz behar bada noizean behin, jaki onaren jakituz jaten jakinen dukan ez diat uste"[515] [gure azpimarra].

Horko aipuan garrantzia dauka aditz batek: "*jakitu* (L-ain, BN, S; SP (vEys), Dv, H; y-VocBN). Ref.: A; Lrq.

1. (Sentidos prop. y fig.). Comer poco a poco, dosificando. "Iakitzea, poxainka iatea, begiratuz iatea" SP. "Manger avec ordre, en proportionnant le pain avec le yaki" VocBN. "Manger un mets petit à petit, comparativement au pain. Ian ezazu arthoa nahiara, gasna iaki ezazu" H. "1.º apurar, aprovecharse bien de una cosa, hacerla durar. 2.º comer con orden adaptando el pan a la cantidad de manjares"[516].

Bazkari honetan plazera neurritsua da, hau da, ez da bakarrik zentzuei dagokiena. Abstrakzio bat bada, eta zentzumenetatik abiatuta harago doa gozazalea. Jean Etxepareren idearioan neurriak zer garrantzia duen aztertzen da ikerlan honetan beste leku batean. Bada hemen jateko teknika bat, zeinaren bidez euskaldun prototipikoak giza naturaren berezko bat-batekotasun instintiboari gain hartzen dion, Kanten eta Ingalaterrako enpiristen bidetik, alegia, zentzumenen zeregina ukatu gabe, funtzio kognitiboari ere leku eginez[517].

Plazerra edo gustua, esan liteke. Batzuek zalantzan jar dezakete gastronomiak estetikarekin zerikusirik ote duen. Alde batera, edozein gozamen estetikok zentzumenak ditu

---

515 *B.* 35

516 OEH

517 Morfaux, L. M. (2010). "Plaisir" eta Rainer Roilitz (2010). "Goût" in: Souriau, É. *Vocabulaire d´esthétique*. Paris. PUF.

tarteko, ahoa ez bada, ikusmena edo usaimena, eta horregatik ere, ez dira espiritualitate gutxiagokotzat hartzen.

Bada hemen kalitatearen alderako apustua, kantitatearen kaltetan. Supermerkatuko "baten trukean bi" delako kontsignaren azpian bizi den gaur egungo masa-kontsumitzaileak baduke hemen non bermatu. Epikurorenean gaude. Plazerra bilatzen da bere doian. Dena dago bazkari antologiko horretan helburu gozatsuari begira. Ez gehiegirik, ez eta gutxiegirik ere. Berriz ere, sentiberatasun fin baten aurrean gaude, arrunkeriarik gabea. Izan ere, gaurko joera gastronomiko batean ere, Garrorenean bezala, jakiak naturatik harakoak dira, eta ez dute adelatu beharrik, berez kalitatekoak diren heinean[518]:

> "Orai, segidan, oren bat barne: oilo-salda, ogi-axal gogorño batzuekin, amarrain uretik athera-berriak olioan errerik, erbia saltsan, errekitzak bihian hazi oilaskoa, entselada lagun"[519].

Janaria espiritualizatzeko saioa da Garroko jaun gourmetaren proposamena. Beraren bitartekotzaz, Jean Etxeparek lotu egiten ditu euskaltasuna eta sukaldaritza jasoa.

Ez dakigu zehatz gaur egun zer gerta daitekeen Euskal Herrian, baina klase desberdintasun nabariak markatzeko tresna izan daiteke janariaren atonketa Brasilen:

> "L'ascétisme électif revendiqué par des membres des classes supérieures est à la source de profits symboliques non négligeables et semble avoir comme contrepartie nécessaire la dépréciation du laxisme attribué aux couches populaires. Alors que le "peuple" ne résisterait pas aux impulsions alimentaires, l'élite fait preuve de maîtrise de soi et affiche l'adhésion au plaisir différé dont on jouit tout au long d'une vie, et pas seulement de façon immédiate"[520].

Garroren kasuan, badirudi aplikatzen dela. Nolanahi ere, ezin jakin klasismoa ote den, ala bizitzen jakite soila, *Beribilez*en kasuan.

---

518 Racionero, L. (2005). *El libro de los pequeños placeres*. Barcelona. Styria.

519 *B.* 35

520 Pulici, C. (2012). « Le solennel et le parcimonieux dans l'alimentation. Les pratiques gastronomiques comme source de distinction des élites brésiliennes ", *IdeAs* [En ligne], 3 | Hiver 2012, mis en ligne le 03 janvier 2013, consulté le 13 février 2017. URL : http://ideas.revues.org/441 . 26 paragrafoa.

Gure ustez, Jean Etxeparek umore puntu bat ere badarabil Garroko jaunaren euskal bazkaria irakurleari transmititzean. Ikuspuntua da mutiko garaikoa, hau da, miresmenezkoa, batetik, Garro adinez nagusiagoa zelako, eta, bestetik, Garro norbait bazelako gizartean.

Azken finean, narratzaileak amaginarrebari kontatzen dion Garroneko oroitzapen hau, ardoaren pindar eta lainoen artean egiten du :

> "Eian hortik ixtorioño bat, daut eskatzen irriz "Oihanarteko" andereak; iduri zait beharra baginukela, sekula ukaitekotz...
>
> Ikustateño hori, segur zor diotala ene aminarre on maiteari. Bainan ez bainiz hain fleitean nihau ere! Ez dakit nola, hurritu baitzait ene buru-muñetako jogia!..."[521].

Umore puntu hori, batzuen ustez, ostendu egingo litzateke handigurako inpresioaren azpian Armand d'Urtubie de Garro "aitzindari"-aren[522] berbaldia entzunda, jaunxkila harro baten jarduna ematen zaigula-eta. Nolanahi ere, irria egiteko gaiak ez ditugu denok berdinak, eta ideologiari ere lotuak dira:

> "Certains Basques partagent une même culture basque mais ne rient pas des mêmes choses. Au-delà de la culture, le rire est affaire de valeurs, de croyances, d'idéologie voire d'utopies partagées. En définitive, si les gens ne rient pas des mêmes choses, ce n'est pas uniquement parce qu'ils ne partagent pas une même langue où même une même culture, mais c'est essentiellement parce qu'ils ne partagent pas les mêmes valeurs, c'est-à-dire une même vision / conception / utopie du monde"[523].

Agian Etxepare Armandez trufatzen ari da irriño batekin, gaurko euskaldun modernoa ere trufa litekeen bezala…

---

521 *B.* 33

522 *B.* 33

523 Dicharry, E. (2011). « Pour une anthropologie du rire au Pays Basque ", *Lapurdum* [En ligne], 15 | 2011, mis en ligne le 15 octobre 2014, consulté le 13 février 2017. URL : http://lapurdum.revues.org/2315 79 paragrafoa.

3.3.1.1.2. Gozamenaren ekonomia zehatza

Jangelan, aipagarria da eskenatokiko elementu guztiak banan-banan paratuak dauden modua, atsegingarria izan dadin jatordua: bazkalkideak, solasgaiak, mahai-tresnak, aretoaren nolakotasuna, ardoa, tabakoa… Elementurik ez zaio ahazten, alegia, dena dago paratuta jatordu arrakastatsua izan dadin bazkaltiar sentiberarentzat. Zerbitzaria ere hauta ("Zerbitzaritzat haatik neskato gazte gurbil, eder, mathela gorriño bat etzaitak niri hastio. Bahiza?"[524]). Autu horren kariaz, Jon Casenave kritikariak aipatu du baroiaren erdizkako misoginia, bazkaltiarren artetik andreak baztertuta.

Medikuaren irizpidea nabarmen agertzen da bazkariaren balantzea egitean, osasuna eta bazkariaren nolakoa uztartzen dituela. Euskal bazkariak bazkaltiarra uzten du gihartsu, eta ez asea eta betea, beste bazkari-paradigma batzuetan izan ohi denez. Dena doian:

> "Gero, to, ardi-gasna-xerraño bat, ahoaren garbitzeko, eta pastiza-xafla mehe bat, ahamen bat edo bien doian. Kafe beroa ondotik, ez beltzegi ez azkarregia, kopa bat koñaka fin, eta zigarro ontto bat, pipa baino laketago zaionarentzat. Bertze oren bat jan-edan eta ondoko horiendako, artetan gozoki eginez irri, alegia zonbaiti esker"[525].

Erran komuna da platerean dagoena bezain garrantzitsua dela nolako bazkalkideekin jaten den.

Euskaldunaren fisiologia muntakoa zaio Garroko jaunari, bazkariaren balantzea egitean:

> "—Orhoit hadi, nik erranik: eskualdun bazkaria bezalakorik ez duk. Harek bakarrik dik egiten eta uzten gizona dena odol, dena ginarri, dena zain"[526].

Beste batean ere, Donostiako euskaldunak aipatzean ere fisiologia du hizpide medikuak: "lerden, ginarri eta zail". Baita Irunen dantzariak gogoratzen dituenean ere gaztaroko oroitzapenez:

---

524 *B.* 35
525 *B.* 35
526 *B.* 35

"Ez nuen oraino ene bizian ikusi halako alegrantziarik. Ez halako dantza begikorik ere; ez muthiko ala neskatxa gazte hain zaloin, hain lerden, hain zainhart, hain ginarririk"[527][gure azpimarra].

Aipu luzeegia egiteko beldurrez, ezin bazkaria osorik hona aldatu; hala ere, gomendagarria da atal guztia irakurtzea, plazer txiki horietako beste bat baita.

3.3.1.2. Ardo-dastatzailearen seinale bereizgarria

Ardoak lekua du *Beribilez*eko gozatzen-jakite horretan. Lehenik, bada ardo oparoa bidaiariek edaten dutena ("Itzal handiko arnoa da zinez xakolin hau; hurrupañoka dugu edaten, beldurrez..."[528], hala ere), testuinguruagatik ardo nafarra izan daitekeena. Bestalde, badira ardo hautak Garroko jaunak, errespetuz begiratuta edaten dituenak: Sauternes eta Médoc.

"Arnoak?

—Arno bat, bat bakarra, ahalaz Medokeko gorritik; dena, neurriñoan.

Hortan, haatik, etzaundan arras egia erran. Handik zonbait urtheren buruan bazkariten gertatu bainintzan harekin Lekorneko dakizun etxe batean, eta eskaini baitzioten amarrainen ondotik Sauternesko arno xuritik, ikusi nuen ahotik ezin utziz ttinttaka zeramala, harritzeko begirunearekin"[529].

Neurria ardoa edaterakoan ere, jatean bezala, euskal jatordu arauemailean.

Autokideak ardoa edateko duten maneran ikusten da ardo-dastaketako hasikinak ezagutzen dituztela. Bidaiariek badakite ardoaz gozatzen, alkoholaren gainetik:

"Ordu oneko jina dugu arnoa, oilasko-errekia zintzurrean kokatzen zitzaikun. Badut uste haatik, derraiku karkailaz ekarzaleak, txakolin-pinta bakar hau aski ukanen dugun aldi huntan. Erhiaren lodi hartzen dugu bakotxak geure basorat, usaintzen, jastatzen, ahurraren barnean berotuz untzia. Hauta kausitzen dugu guziek. Badu, ba,

527 *B.* 94
528 *B.* 28
529 *B.* 35

Axularrek erran zukena, zahagi-zapore kotsua, halako jan-edan bethe bat ere ba; berriskoa dirudi; irestearekin, sudur-barnetarat gibel-aitzin lanhotzen da pindarka; bainan zer berotasun gozoa ez deramauku laster urdailerat, hainbertze urinki hotzer gain-behera su eman nahi baliote bezala!

Itzal handiko arnoa da zinez xakolin hau; hurrupañoka dugu edaten, beldurrez... Oilaskoen ondotik maionesa ruso titarratu guri leun bat xirrixtatzen dauku eta akulatzen zalu patarrari behera: berdin laguntzen derauku bidean, mahats melatuz jorikako pudding tinki bat. Zorionezko xakolina!"[530]

Bidaiariek badute ardoaren kultura: gaur egun honen boladan dagoen hori, duela 80 urte euskaraz irarria. Ardo-dastaketan tentuz jasotzen dituzte itxura, gustua, usaina eta dastamenaren ñabardurak, edozein ardo-dastaketaren lau osagai kanonikoak[531].

Etxeparek badazagu ardo-dastaketaren araua. Ordea, deskribatzen digun bazkalondoa da errealista samarra, euskal bazkari ideal hartatik urrun. Ardoaren lurrin gozoek K.O. utzi dituzte bazkaltiarrak, lo-kuluxka egiteko premian. Garroren euskal bazkari enblematikoan bestelakoak ziren bazkariaren ondorenak.

Burges txikiak badaki ardoaren gorabeheran.

Jean Etxeparek ardoari eginkizun hedonikoa ematen dio, herri-literaturan ohikoagoa den eginkizun horditzailearen ordez[532]. *Beribilez*en ardoa ez da balioespen moral ezkor baten azpian jartzen, baizik eta *savoir-vivre* baten zerbitzura. Narratzaileak argi uzten du bi kontsumo moten arteko ezberdintasuna, esan daiteke ia mediku-ikuspegi batetik ardozalearen aldartean uzten duen ondorioa garbi azalduta. Autozaleak hariztian horditu badira ere, euskal bazkari idealeko bazkaltiarra gorputzaldi egokiarekin amaitzen du jatordua, ardo, pattar eta guzti.

---

530 *B.* 28

531 Mikel Garaizabalen webgunean dago dastaketa-prozeduraren eredua: http://www.catarvino.com/eu [2016-12-19]

532 Ardo-kantak in: http://urkiza.armiarma.eus/cgi-bin/EBMODBER.pl?Bertso=883 [2016-12-22]

3.3.1.3. Kafea ez nolanahikoa

Gastronomia zaindu honetako beste osagai aipagarri bat da kafea: autokideak Lekunberrin baratzen dira ostatu batean. Ez dute nahi txikoria duen kaferik: "Café de curé, sans chicorée, dugu jarri orduko manatzen"[533].

Hala ere, ez dute gustukoa, ez da benetako kafea: kafe hauta bilatzen dute.

Galdetu daiteke: noiz arduratu da euskal literatura klasikoko pertsonaia bat kafearen nolakotasunaz, gaur egun ohikoa duguna? Esan daiteke aszetismo batek edo bestek gozamen horiek atzenarazi dizkiotela euskal irakurleari.

3.3.1.4. Euskal enoturismoa sustatzen

Ez bakarrik ardoaren kalitatea, sagardoaren kalitatea bereizten ere trebea da narratzailea:

> "Adituaren adituz, uste ginuen Gipuzkoa sagar-ondoz landatua zela guzia! Ontsa nahi ginuke jakin nun egiten diren bada sagarno gozo, ezti, ahotik ezin-utzi hek, Normandiakoak heien aldean ez baitira pitar batzu baizik"[534].

Ardoa bezala, sagardoa ere ezin da edonolakoa izan. Etxeparek, Normandia sagardo ospetsuak gogoan, nahiago ditu Gipuzkoakoak.

> "Pitar (Orotariko hiztg). "Petit citre, demi boisson" SP (que cita el ej. de O Pr). "Vinum acinaceum, mahats pipitezko arnoa, mahats pitárra" Urt I 101. "Breuvage fait avec de l'eau et du jus de pommes" VocBN. "Boisson fermentée faite avec des pommes écrasées ou séchées par tranches, et avec de l'eau" Dv. "Par extension, il se dit d'un vin faible"[535].

Ari da Jean Etxepare, berriz ere, norgehiagoka turistikoan teman. Egiteko modu identitarioa du turismoak, herriko elementu gogoangarriak zerrendatu eta goraipatzeko lana

533 *B.* 37

534 *B.* 84

535 Orotariko Euskal Hiztegia

hartzen duen ber. Horretan aritzen da maiz *Beribilez*en zehar: direla ostatuak, garbitasuna, errepideak, janzkerak; direla paisaiak, zeruak, eraikinak… Horien artetik, askotan jarduten da eusko labeleko elementuak goraipatzen. Hala ere, gustu ziurra duen turista denez gero, badaki diskriminatzen kalitatea bihotzak agindu liezaiokeenaren gainetik.

Labur esanda, konparazioa da etengabe narratzaileak darabilen erreminta elementuak baloratzeko bidaiaren joanean: Nafarroa Garaiko nekazarien bizimodua alderatu daiteke Hazparne ingurukoen bizimoduarekin; Tolosako jende langilearen jantzia ere pobreagoa da Iparraldekoena baino; ostatuak garbiago Iparraldean; errepideak hobeto zainduta Gipuzkoan Frantzian baino; Loiolako Santutegia eta Erroma; Gipuzkoako sartzea eta Gorges du Tarn. Gauza bera edariekin, artearekin…

Eskaintza turistikoa ebaluatzen dihardu etengabe bezero bidaiariak. Eta horrela dela, euskal produktua goraipatuko du, baina errazkerietan erori gabe.

3.3.1.5. Turismoa eta garapen ekonomikoa

Ekonomiaren atala da ostalaritza. Jean Etxepare jakitun da turismoak dakartzan eskakizunez eta onurez, hala baita Iparraldeko turismo-garapenaren ezagule hurbila[536]. Jean Etxepare ez zen alferrik bizi ahaideekin batera bizitzako azken urteetan modako Kanbo turistiko hartan, non Edmond Rostand (1868-1918) idazle famatuak euskal estiloko *Arnaga* etxea eraiki zuen.

Badaki zer den lo egiteko ohe ona ostatu batean: garbitasunaren garrantziaz ohartua da. Lapurdiri, horretan, aurreratuagoa deritzo; beraz, bada hemen ere kezka ekonomiko bat, medikuari arrotza ez zaiona. Haatik, ez du tutik ere esaten turismoaren kontra Iparraldean, euskal jendartean batzuek egiten dutenez[537].

---

536 *B.* 29

537 Lagoueyte, C. (2010). *Usage des motifs culturels dans la construction de l'image (rie) touristique: "Ongi etorri. Bienvenue au pays basque"* (Doctoral dissertation, Bordeaux 2). Tesi digitala, Bordeaux 2). www.theses.fr/2010BOR21702.pdf [2018-II-28]

3.3.2. Gorputzaren estimazioa

3.3.2.1. Pilotaren gorazarrea

Pilota da Jean Etxepareren zaletasunetako bat, tesia eskuzko pilotarien gaitzei buruz egin baitzuen. "*Joko* garbia"-ren aipamena dator birritan bidaian zehar; hona hemen bat:

> "Embil aita seme pilotariak hemen direla bizi nik erran orduko, ihardesten dautet bertzeek: Orio! Bi oren lehenago iragan bagine, plazaratu zitzaizkikedan ene lagunak, ikusteko "joko garbiaren" aldezkari biak han othe zirenez. Aithor dut jarraiki nintzaikeela gogotik, beso zalu, xuxen, eta indar-neurri onekoa baitute bai aitak bai semeak"[538].

*Beribilez*en, hari beretik, ez da jasotzen Donostia aldean eta Biarritz aldean bezalako kirol inportatu berririk. Bilbon ere baziren kirol berriak, futbola bereziki, ingelesekin izandako harreman ekonomikoen ondorioz.

Euskal kostaldean Europako goi klaseko turistak erakartzeko distrakzioak paratzen zituzten: auto-lasterketak, zezenketak, kasinoa, zaldi-lasterketak, belauntzi-lasterketak, auto-lasterketak eta gisa horretakoak.

Kirol horiek ohikoan erreklamo gisa funtzionatzen zuten. Adierazgarriak dira garai hartan turismo-erakunde estatalek hala Frantzian nola Espainian argitaratu zituzten afixak kanpoko turistak erakartzeko, XX. mendearen lehen hamarkadetan[539].

Kartel horietan idiosinkratikoak dira Iparraldean eta Hegoaldean eskaintzen ziren tokiko xarmak. Bilboko Arte Ederretako museoan erakutsi denaren arabera, Iparraldeko kartelak baterago letozke Jean Etxeparek ematen duen Euskal Herriko irudiarekin: etxe-arkitektura, dantza-herrikoiak, herri-lanbideak… Hegoaldeko karteletan, kostaldeko uda-tokietan aurki zitezkeen aisialdi aukerei buruzkoak aipatuak dira. Ez da horrelakorik Etxepareren erakusleihoan. Etxepare isilik dago goi mailako turismo horri buruz; pilota, aldiz, aipatzen du.

---

538 *B.* 83

539 Bilboko Arte Ederren Museoaren bildumako kartelak (1886-1975). (Erakusketa 15|10|06 • 16|01|18). *Hormako mezuak*.

"Pelota was recognised as the Basque Country's oldest sport, and as an emblem of genuinely popular culture, in contrast with the imputed elitism and violence of football as the latter gained ground from the second decade of the twentieth century, although many young men happily played both sports, and growing numbers of women paid to watch it"[540].

Garai hartan nazionalismoa saiatu zen pilotaren inguruan sentimendu abertzalea sortzen, nahiz eta herrien eta probintzien arteko lehiak batasun asmoari gainez egin zion.

Esan behar da pilota izan dela herri-kirol tradizionaletatik komertzializaziora igaro den gutxietakoa, idi-probak, adibidez, ez ziren begi onez ikusten: Donostiako udalak, XIX. mendearen bueltan debekatu egin zituen, krudelak zirela, eta bestelako arrazoiengatik. Jarraipena izan duenetakoak dira, era berean, estropadak. Iraun duten herri-kirolak lehiaketa-itxuran kontserbatu dira, alegia, ligak antolatuta, apustuetatik harago.

Izan daiteke Etxeparek pilota maitatzea bizi zen kulturan naturalki parte hartzearen ondorioz. Akaso, bestelako kirol sofistikatuak ez ziren egongo beraren helmenean, nahiz eta ezagutuko zituen. Nolanahi ere, Etxepareren bizitzan leku handia izan zuen pilota-jokoak kokapen argia dauka euskaldunen iruditerian. Gaur egun, badirudi futbolak konpetentzia handia egiten diola, beste kirol batzuekin batera.

3.3.2.2. Dantzen ikuspegi soziala

Bidaiariek Donostia atzean utzi orduko, Irungo San Martzialetako jaiak eta dantzak dira idazleak begien aurrean paratzen dizkigunak[541]. Bidaian den Jean Etxepare helduak gogoratzen du gazteagotan izan zuen bizipen bat Irungo jaietan. Asmo turistiko hutsetatik haratago, idazleak euskal gizarte bizian txertatuta dagoen dantza deskribatzen dio irakurleari, pasarte antologiko batean.

---

540 Walton, J. K. (2011). "Sport and the Basques: Constructed and Contested Identities, 1876–1936". *Journal of Historical Sociology* Vol. 24 No. 4 December. 464 or.

541 *B.* 93 eta hur.

Dantzen funtzioa praktikoa da. Ez dira ikuskizuna, baizik eta herritarrek helburu praktiko batekin egiten dituztenak, alegia, gazteen arteko harremanak sendotzea. Kontuan izan behar da dantza hau ezpata-dantza ere ez dela, baizik eta dantza zibila, ez militarra, neska-mutilek bikoteka dantzatzen dutena.

Dantza herrikoi tradizionala osagai oinarrizkoa da, garai hartako iruditerian Euskal Herrian. Euskal Herriko propaganda turistikoa egiten zenean XX. mende hasiera hartan, dantzak askotan begietaratzen zitzaizkien turista izatekoei erreklamo gisa.

Jean Etxepare gazteak bere burua ere marrazten du ikusle gisa, Irungo oroitzapen gogoangarri hauetan. Ez zaio falta freskotasun puntu bat. Tonu askatasun hori, den txikienetakoa izanik ere, berrikuntza nabaria da euskal literaturan, inolako itzulingururik gabe ematen baitu[542].

Etxeparek izarizko dantzak goraipatzen ditu, baina gar berezi batez. Erotikotasunari buruz, urrun dago *Buruxkak*eko "Amodioa" atalean bilatzera joanez gero suma zitekeen gordintasunetik. Etxeparek kontu handiz graduatzen du deskribatzen duen dantzaren erotikotasuna, Elizaren hurbileko kritikarien arbuio posibleari itzuri egiteko, baina dantzaren funtzio soziala goraipatzen du:

> "Hau gelditzen zenean —ez luzatzat, atsedentzeko— izerdi onaren xukatzeko, baratzen ere ziren gazteak. Den gutieneko eraberik gabe, elhe emaiten zuten elgarri orduan. (…) Eta beren arteko solasak hain onak zituzten, hain garbiak eta goxoak, non zorion bethearenak baitzitazken. Berehala, gero, dantzak aikatzen zituen bere sail berrirat"[543].

Etxepareren solasa ez da Juan Ignazio Iztuetak zuena bezalakoa. Iztuetak dantza folklorikoen bilduma jaso zuen bere liburuetan. Haietan zegoen burubide bat zen ea dantzen jatortasuna mantentzen zenetz, beste hitzez, ea kanon tradizionalei eutsiz iraunarazten ziren ala ez.

---

542 *B.*94

543 *B.* 94

Dantzek gorabeherak sortu dituzte tratatu-idazle erlijiosoen artean. Elizgizonek maiz aipatzen zituzten. Manuel de Larramendi dantzak gehiegikeriaz gaitzestearen kontra agertuko zen, *Corografía de la provincia de Guipúzcoa* (1882 [1754])[544] izenekoan.

Fray Bartolome de Santa Teresa dantzen neurria xedatzen saiatu zen, gehiegizko gatzik eta ozpinik izan ez zezaten[545]: hainbat zelatatze egiten zitzaizkien dantzariei moralaren jagoleen aldetik, neurri ustez egokia gaindi ez zezaten. Tradizio hori kontuan Etxeparek dio: "beren arteko solasak hain onak zituzten, hain garbiak". Fray Bartolomek dioen bezala: "Errazoezko olgetiak ez dau eragozten Jangoikua serbidutia"[546].

Aldeak alde, ez dago tarte handirik Etxepareren eta Larramendiren artean, salbu eta Etxeparek deskribatzaile errealista izan nahi duela, eta Larramendik araugile zentzuzkoa. Musikaren arloan ere, trikitiari, soinuari, *infernuko-soinua* esaten zioten moralista estuek. Etxepare baitan kontrakoa da: dantza horien gizarte-funtzioa nabarmendu eta goraipatu egiten du. Dantzak herrigintza-funtzioa dauka, baina beti sentimentaltasunaren esparruan:

> "Ikusi duzuna, zaundan erran maltzurki adixkide harek, jai guztietakoa da, Baionatik Bilbaoraino itsasoari hurbil banakatuak diren herri guzietan. Eskualduna hemen da, hemen bakarrik, osoki egiten. Hemen du agertzen bere lorea; hemen uzten bere azirik hoberena, bertze gizadien azi hautenak odoleratuz batzutan"[547].

Esanguratsua izan daiteke, oraingo honetan ere tartekatutako pertsonaia batez, narratzaileak baliatzen duen "adiskidearen" aportazioa ("zaudan maltzurki erran adixkide harek"), non beraren bizkar uzten diren adierazpen polemikoak izan zitezkeenak, hala sexu-harremanei, nola iritzi politikoei buruz. "Maltzurkeria" zertan datzan jakiteko ezinbestekoa ikusi dugu, gure ustez, testuinguruan jartzea eta dantzei buruz esaten zirenak bergogoratu, hala erlijiosoki nola politikoki.

---

544 Larramendi, M. (1986). *Corografía de la provincia de Guipúzcoa*. Amigos del Libro Vasco.

545 Altuna, P. (arg.) (1987). [Fray Bartolomé de Santa Teresaren] *Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba: (1816).* Deustuko Unibertsitatea.

546 1. kapituluaren bigarren atalak duen izenburua.

547 *B.* 94

Azpimarragarria da dantzak helburu identitariorik ez duela, Jean Etxepareren hitzei bagagozkie, adibidez, sardanak Katalunian izan dezakeen bezala[548]; bai, ordea, beraren adiskide aipatu berriaren hitzei bagagozkie.

Argi dago abertzaletasuna ez dagoela lotuta odol-garbitasuneko politika batekin, adiskidearen esanetan. Irudi luke adiskidearen adierazpen integrazionista horiek batera datozela narratzaileak berak *Beribilez*en bertan egiten dituen beste deklarazio batzuekin ("Menditik bulharretarat heldu zaikun aire sendoari hautemaiten diot, Frantzia guzitik harekin nahastekatzera jina, halako hazkurri arin, haztarik gabeko zer bat, osagarrizkoa hargatik, odoleratzeko gure lehenbiziko arbasoek etzuketena"[549]).

Proiekzio politikorik gabeko folklorea da, baina Euskal Herriaren lurraldetasuna aipatzen du mediku gaztearen adiskide "maltzurra"-k testuan, idazlearen kalifikatiboari men egin behar bazaio. XX. mendeko lehen hamarkadetan, folklorea erabiltzen zen, dantzak tartean, herria helburu politikoen atzetik antola zedin.

Nazio liberalak sortzeko prozesuan, nazio berriak zurkaizteko erabili ziren herri-ohiturak, hainbat bestelako elementu batzuekin: herri-literatura, arbaso aldarrikatuak (zeltak, germaniarrak, frankoak, galoak, gizaki prehistorikoak…), epopeiak, hizkuntza, heroiak, monumentuak eta paisaiak, besteak beste. Bigarren Mundu Gerraren aurretik ere, hala Italiako faszistek nola Alemaniako naziek folklorea baliatu zuten, herritarren gobernuarekiko atxikimendua sendotzeko asmoarekin; gauza bera egin zuten Errusiako iraultzaileek ere[550]. Mirestekoa da nola eratu ziren ez batasunik ez izaera berezirik zuten nazioek, ia hutsetik abiatuta, izan ere, gaurko behatzaileari naturalenak zaizkion nazioak prozedura jakin baten fruituak dira, hainbat naziotan errepikatua.

Euskal Herrian ere nazionalismoak baliatu ditu dantza, prehistoria, musika, arkitektura, filologia, gastronomia, eta abar nazioari sendotasuna emateko xedearekin. Etxepareren kasuan

---

548 Brandes, S. (1990). "The Sardana: Catalan Dance and Catalan National Identity". *The Journal of American Folklore*, Vol. 103, No. 407 (Jan. - Mar.). Dantzaren inguruko bibliografia errepasatzen du: Reed, S. A. (1998). "The politics and poetics of dance". *Annual Review of Anthropology*, *27*(1).

549 *B.* 95

550 Thiesse, A. M. (2014). *La Création des identités nationales. Europe (XVIIIe-XXe siècle)*. Paris. Seuil. Folkloreari buruz "La nation par la joie" atala.

nazionalismoa lausoa da, baina kokatzen da martxan zegoen nazioak sortzeko urratsen markoan garai hartan.

Iruneko San Martzialak aipatzean, azpimarra dezagun Jean Etxeparek ez duela aipamen erlijiosorik egiten; gazteen dantzari erreparatzen die, jaien izaera hezitzaileari, pertsona-izenen doinuari. Harira dator gogoratzea jaiak helburu erlijioso zein politikoekin egin ohi zirela Frantzian; sineskerien abaroa ere izan zitezkeen[551]. Ez da horrelakorik *Beribilez*en.

Azken batean, Elizak herriaren bizimodua alde oroz informatzen zuen gizartean, dantzaren gai honetan Jean Etxeparek ikuspegi "garbia" dekonstruitu egiten du dantzei esanahi mundukoia emanez, lagunaren figura tartekatuaren bitartez. Politikaren aldetik baliatu barik, ematen da dantzaren ikuspegi bitala, non dantzaren arteak eginkizun soziala duen.

Emakume erotikoki erakargarriari buruz idatziz gogoeta egiten duen idazleetakoa da Etxepare. Ez ziren asko egongo euskal literaturan, ordura arte.

Iruneko pasartean, Etxeparek kontatu egiten du nola aldatu duen emakumeari buruz zuen gaztetako irudi zaharra. Emakumeak baditu edertasunaz bestelako bertuteak, baina idazleari eboluzionatzea kostatu zaio ondorio horretara heltzeko –aitortzen du-. Bidenabar esanda, pasarte oso esanguratsua ulertzeko idazlearen asmo ideologikoak. Aipagarria da biraketa hori, nahiz eta datu kronologikorik eman ez, zehazki noiz kanbiatu zen jakiteko. Emakumeak ederrak dira bai, baina nagusiki? Planteamendu ausarta giro klerikal batean:

> "Orduan nintzen ohartu lehen aldikotz, emaztekiaren baitan zintzotasuna eta grazia gaient ditazkela edertasunari berari; batek ala bertzeak bizkitartean, edertasun doi bat dutela eskatzen, lasterrenik gizonaren bihotzerako.
>
> —Aithor: dena pindar jarria zitzaikezun zuhauri bihotza?
>
> —Pindar eta gar ere, baditake;…"[552]

Iruneko dantzarien harremanak deskribatuta, ematen du sexu bien arteko harremanen araua: gordintasuna kontu handiz saihestuko dute, hau da, jokabide naturalistegia saihestuko dute neska-mutilek *Beribilez*eko narrazioan. Orduko egoeraren erradiografiatzat har daiteke;

---

551 Weber, E. (1983). *La fin des terroirs. La modernisation de la France rurale 1870-1914*. Fayard. "Fêtes et coutumes " atala, 541-571 or.

552 *B*. 94-95

idazleak men egingo dio pentsaera nagusiari, konbentzituta, itxura batean. Puntu honetan agertzen da Jean Etxeparek ibili ohi zuen prestutasun intelektuala: oharmenaren bitartez aldatzen du iritzia, ez bestela, eta nahiz eta atakan ikusi bere burua, kontuan izanik aurretiaz ere istiluak izan zituela sexu-kontuak direla eta.

Konstatatzen da Etxeparek duen kezka sozial orohartzailea, ez soil medikuntzaren alorrekoa, baizik eta gizarte osoaren antolaketarena.

Beste alde batetik, dantzaren ikuskizunak sortzen duen plazer estetikoa adierazten da, hau da, koreografiaren erakargarritasuna:

> "Zoin gehiago ari ziren, berex, noiz elgar-ganatzera, noiz elgarretarik urruntzera, bainan bethi arte berarekin hek bat bertzetik, nahiz bekoz-beko. Etzuten elgarri behatzen bizkitartean, baizik zangoetarat. Artetan, ingurukatzen ziren tokiaren gainean, bainan begiak argirikako zoradura batekin eta irriñoa ezpainetan. Piko bat etzuten galtzen: oinen, zoinaren, gogoaren beraren ibilera bizia mentzen zioten eta zaintzen neurtuz, musika-soinuak"[553].

553 *B.* 94

3.3.3. Emakumeen lekua

Nahitaezkoa zaio ikerketari, testuko ideologiaren bila bereiz behar luketen bi atal metodologiko nahastea: estetika eta etika. Philippe Hamonek onartzen du foku ideologikoek elkar gurutzatzen dutela maiz, kasu honetan bezala[554]. Horretara, Jean Etxepareren idearioa desestaltzeari jarraituko zaio, hala estetikaren nola etikaren aldetik.

Bihoa aurretik argibide bat gaurko testuinguruan hain labainkorra den puntu honi buruz. Puntu labainkorra diogu emakumeen genero-egoera eboluzionatzen ari delako, geldiro bada ere, eta hainbat ikuspegiren arteko eztabaida bizi-bizia badelako emakumeari buruz, areago indarkeria matxistaren arbuioa beharrezkoa denean oraindik, komunikabideetako kasuei erreparatuta, dudarik gabe. Jean Etxepare gizonezkoa zen –esan gabe doa-, eta, beraren ikuspegia, garai zehatz batekoa. Esan daiteke plazeraren errebindikazioa ez dela nahitaez emakumeen duintasunaren aurkako ezer, baldin eta parametro adostu batzuen markoan aritzen bada.

Jean Etxepare haragizkoari arrastoa jarraitu diotenek inoiz egokitu diote *andrezale* etiketa, isil-gordeka ibili den kalifikatibo horrekin. Ez da samurra *andrezale* epitetoa interpretatzea baina, esan daiteke Jean Etxeparek izan zuela inguruan tokatu zitzaizkion andreekiko ardura modu askotakoa.

Idazlearen ibilbide biografikoan sobera barnatu gabe, badira zertzelada batzuk aipagai litezkeenak. Akaso, ikuspegi feminista batek argibide beteagoak eskura liezazkiguke, baina ezin geratu hemen saio apal bat egin gabe idearioaren bila, jokabide hori *Beribilez*en espirituari huts egitea bailitzateke.

Hari horretatik aipa daiteke mediku gazteari ezkontidea aurkitzearen eginkizuna ez zitzaiola erraza suertatu: horren lekukoak dira beraren adiskideen arteko gutun-trukaketak, non arduraz errepasatzen den inguru hartako emaztegai posibleen zerrenda, ahaztu gabe medikuak 1923an esposatu zuela Fernande Camino, 46 urte zituela, hau da, nagusi samar, arinago proportziorik ezin bilatuta. Esanguratsuak dira, bestalde, gutunotan emaztegai haien kokapen

554 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF.

sozialari eta ezaugarri pertsonalei buruz eginiko erreferentzia zehatzak, dotea ahaztu gabe[555]. Aipagai dira bestelako ezaugarriak ere: aiurria, heziketa, etab. Ordea, batez ere alderdi ideologikoari eta literarioari lotzea da asmoa hemen, ezkontide-bilaketaren arloa dagokien espezialisten eskuetan utzita: genero-ikasketak, soziologia…[556]

3.3.3.1. Literatura klasikoko emakume subalternoa

Jean Etxepareri garesti aterako zitzaion sexu-kontuetan gaztetan erabili zuen tonu askatasuna; helduarora heldu behar izan zuen, kontsentsu nagusiak ezartzen zion ikasgai horretaz jabetu arte, ez baita harritzekoa tradizio aurremoderno haren baitan.

Ezaguna da mediku gazteari "Amodioa" izeneko *Buruxkak* liburuko atala suertatu zitzaion behaztopa-harria[557]. Beste okasioren batean ere emakumea aipatu du era gordin samar batez, idazlearen bizi-giroaren atalean jaso den moduan.

Izan ere, Euskal Herria berankorra izan da modernitatearen trenera igotzen, baldin eta Europako markoari so bagagozkio. Europan, sexuaren inguruko ikuspegi aldaketa, nagusiki, Sigmund Freuden (1856-1939) lanari esker etorriko zen, Jean Etxepareren garaiaz ari garenez. Haatik, Freuden irakaspenak urruti zeuden Euskal Herritik, nahiz eta Etxeparek ezagutzen zuen Friedrich Nietzschek antzeko intuizioak izan zituen garai beretsuan. Badirudi Jean Etxepareren burubide batzuk maitasunari buruz lotuta daudela Nietzscheren ikuspegi dionisiakoarekin[558]. Freuden harira, esan daiteke bazegoela nolabaiteko tentsioa Euskal Herrian eta Europa zabalean sexu-arloan gertatzen ari zenaren artean, eta Jean Etxepareri egoera hori kudeatzea tokatu zitzaiola ahal izan zuen bezala, honako honetan ere bai.

Nahitaezkoa da datu bat gogoan izatea XXI. mendeko irakurleak, azalpena aisago kokatzeko: Jean Etxeparek Trento osteko Eliza ezagutu zuen bakarrik bizialdian, Vatikanoko II. Kontzilioaren aurrekoa.

---

555 Bereziki Georges Lacomberen eta Piarres Broussainen gutunetan, buruz ari bagara ere, biak medikuaren lagunak.

556 Inoiz aipatu zaigu aurrez aurre (Kepa Altonaga) mereziko lukeela medikuak ezkontidea aurkitzeko bizi izan zituen gorabeherak aztertzea ikuspegi feministatik norbaitek heldu nahi balio, baina beste haritz bateko ezpala da hori hemen…

557 Kintana, J. (2001). "Nietzsche euskal literaturan: J. Etchepareren "Amodioa" (1910)". *Jakin* 127.

558 Kintana, J. (2001). "Nietzsche euskal literaturan: J. Etchepareren "Amodioa" (1910)". *Jakin* 127.

Komeni da, beraz, kokatzea tradizioaren lerroan *Beribilez*: batetik, euskarazko literaturaren ibilian; bestetik, baita idazlearen ibilbide propioan ere. Testuinguru horretan hobeto ulertu ahal izango da Etxeparek egin zuen ekarpena. Hona segidan *Beribilez* aurretik emakumea nola aipatu duten literaturako mugarri batzuek.

3.3.3.1.1. Trento aurreko ikuspegia

Linguae Vasconum Primitiae (1545) liburu goiztiar hura Trentoko Kontzilioaren aurrekoa zen, Erdi Aroko ohitura laxokoa; horregatik, zerikusirik gutxi du Trento osteko Axularren *Gero* (1643) euskal letren mugarri nagusiarekin, literatura klasiko aurre-garaikideaz ari garela, eta moral sexualaren arloan[559].

Bernard Etxepare apaizak emakumearen heziketa moralaz bestelako axolarik badu: gozamena ez zaio ahazten.

Emakumeen izen ona defendatzen du, baina haien izaera morala ez du iragaitzez baino aipatzen. Emakumeen alde egiten du andreen kontra gaizki esaka dabiltzanak salatuta, jardun sexualaren izateko lehen ekimena gizonezkoari egokituta, eta abar, jakina denez[560]. Hari beretik, Jean Haritschelharrek aztertu ditu *Linguae Vasconum Primitiae*ko emakumeez diren poema batzuk ere, eta azpimarratu du, besteak beste, gizonezkoaren portaera prestueza "Amorosen disputa" bertso-sortan, mehatxuak, destainak, etab. darabiltzala[561].

Hala ere eta hein batean, Jean Etxepare emakumeen duintasunaren sustatzaile agertzen zaigula esan daiteke Bernard Etxeparerekin batera, maliziarik gabea. Bernard Etxepareren

559 Arkotxa, A. (1996). "Bernat Etxeparekoaren maitasunezko kopletaz". *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, (6).

560 Haritschelhar, J. (2003). "Emazteen fabore". in: *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian (I-II)*. Bilbo. Euskaltzaindia. Ikusi arlo berean: Haritschelhar, J. (2002). "Ezkonduien Koplak (Etxepare, 1545)". *Lapurdum. Euskal ikerketen aldizkaria| Revue d'études basques| Revista de estudios vascos| Basque studies review* (7).

561 Haritschelhar, J. (2011). "Amorosen disputa". *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 56(3). Ikusi maitasunaren arlo berean: Arkotxa, A. (1996). "Bernat Etxeparekoaren maitasunezko kopletaz". *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca* (6).

naturaltasun hori sexu-kontuetan, Jean Etxepareren "Amodioa" *Buruxkak*eko kronikarekin asimila liteke[562]. Azken finean, ez dirudi emakumearen kalterako ezer dagoenik "Amodioa"-n

Beste batean, Haritschelharrek emakumea aztertu du Arnaut Oihenartek bildutako esaera zaharren baitan ere[563]. Oihenarteren esaeretan andreak maiz akastun agertzen dira, frantsesez eta gaztelaniaz ere askotan suertatzen zen bezala, hiru hizkuntzetan antzekoak diren esaera zaharrei erreparatuz gero; badirudi akatsok azpimarratzea Adan eta Ebaren kontakizun biblikoaren ondorioz direla.

3.3.3.1.2. Sexuaren arriskuak

Axularrek onbidean jarri nahi du irakurlea ahalbait arinen eta luzamendurik gabe, haragiaren arriskuetatik begiratuta, eta gainditu beharreko beste oztopo batzuen artean salbazioa lortzeko. Kapitulu andana polit bat egokitzen dio (14) haragiaren bekatu "nagusi" horri. Haragia da penitentzia berehalakoa egiteko motibo sendo bat Sarako erretorearen ustez, geroko utzi behar ez dena. Esplizitua da plazeraren aldera: haragiaren plazera laburra da, eta, gainera, konplikazio eta egitekoetan sartzeko okasioa.

Esanguratsua da Axularrek zein bekatu nagusi hartzen dituen kontuan, kontura gaitezen haragiko pekatuari ematen dion garrantziaz. Harrigarriki, sabelkeriarik edo guleriarik ez du aipatzen; haserrearen beste bekatu larria (zazpi kapitulu), bai; harrokeria, ez. Alferkeriari leku handia egiten dio: alferkeriari zentzu arruntenean, ez horrenbeste azidiari, beste bekatu larri horri, Desertuko Aitei kasu eginez gero. Azidia da, eskuarki, gauza espiritualetara jotzeko nagia[564]. Luis Villasantek dioen bezala: "[Axular] sabe que su destinatario es un hombre realista, de poca finura espiritual, muy sensible a los argumentos que rozan con el interés"[565]).

562 Kintana, J. (2001). "Nietzsche euskal literaturan: J. Etchepareren "Amodioa" (1910)". *Jakin* 127.

563 Haritschelhar, J. (1994). "Emaztea Oihenartek bildu atsotitzetan". *Iker* (8).

564 Nault, J.-Ch. (2010) *La saveur de Dieu. L'acédie dans le dynamisme de l'agir* (coll. Cogitatio Fidei, 248). Paris. Les Éditions du Cerf.

565 Axular, P. (1964). *Gero*. Barcelona. Juan Flors editor. 19 or. Luis Villasante argitaratzailearen hitzaurretik.

Beraz, Axularen liburuan, emakumea tentazio-bidea da ia esklusiboki. Jean Etxepareren ustez emakumeak badu izaera moral berezi bat edertasunak sortzen dituen irritsen gainetik, helduaroan ondorio horretara iritsi baita, dirudienez, asko kostata.

3.3.3.1.3. Ikuspegi erromantikoa

Elizanburuk (1828-1891) paratu zizkion bertso ezagun batzuk emakumeari ("Maria", "Aingeru bati", "Apexa eta lorea"…)[566]. "Maria" sorkariaren bide horretatik badaki ibiltzen Etxeparek ere, hau da, baserriko emakume maratzak nolakoa behar duen adieraziz, hau da, ez da sentsualtasun hutsean geratzen, ez eta erlijiotasun hutsean. Elizanburu bezala, emakumearen izaera eta aiurriak kezkatzen dute Aldudeko medikua; emakumeari leku garrantzitsua aitortzen zaio baserri-ekonomiaren barruan etxekoandre gisa. Elizanburu ere emakumearen erlijio-ikuspegi soiletik aldendu zen, errepublikarra izanik[567].

Horretan ageri du Elizanburuk bere idearioa ohiko herri-literaturaren bidetik aldentzen dela, baldin eta Elizanbururi herri-literaturgile esan badakioke, kontuan izanik bere literatura frantsesaren ezagutza Koldo Mitxelenak dakarrenez *Historia de la literatura vasca*n, Elizanburuk Alphonse de Lamartine (1790-1869) irakurtzen baitzuen.

Bere aldetik, Bilintx (1831-1876) ezizenez ezaguna den donostiarrak ere aipagai du emakumea; ez, ordea, maitasun-gaiez kanpotik, emakumea idealizatzen duela[568].

Jean Etxeparek sexuari erreparatzen bazion lehen liburuan, bigarrenean erreparatzen zion emakumeari, bizikide den heinean. Ez alferrik, bidaiako auto bietan bada laguntasun femeninorik.

Herri literaturan emakumea kalifikatu da gizonezkoaren irrikaren jomuga gisa, besteak beste, Haritschelharrek aztertu duen bezala:

---

566 Labayen, A. M. (1978). *Elizanburu: bere bizitza ta lanak= su vida y obras.* Donostia. Auñamendi.

567 Salaberri Muñoa, P. (2002). *Iraupena eta lekukotasuna. Euskal literatura idatzia 1900 arte*. Elkar. 183 or.

568 Salaberri Muñoa, P. (2002). *Iraupena eta lekukotasuna. Euskal literatura idatzia 1900 arte.* Elkar. 176 or.

"La chanson d'amour basque a exprimé la confrontation éternelle entre l'homme et la femme, parfois harmonieuse et heureuse, parfois rude et amère, où la femme est identifiée à l'étoile, à la fleur, à la palombe et à la tourterelle.

Le séducteur triomphe et abandonne la pauvre tourterelle plaintive (ürtx'aphala) ; le chasseur veut profiter de l'occasion et la blanche palombe peut tomber dans les filets et y perdre sa plus belle plume ou bien, intacte, s'envoler à tire-d'aile ; dans le jardin d'amour où pousse la fleur aux pétales éclatants, le jeune homme désire la cueillir ou, au contraire, se pique aux épines ; l'infortuné amoureux pleure et lève les yeux au ciel où brille, lointaine, inaccessible, insensible, l'étoile de ses rêves. Ainsi ont chanté nos ancêtres depuis trois siècles, ainsi continuons-nous à chanter ces compositions naïves et émouvantes de notre riche littérature orale"[569].

Agian, aztertu beharko litzateke emakumearen irudia joko sentimentaletatik aparte ere herri-literaturan. Espero izatekoa da aszetika-liburu erlijiosoetan, eta bestelakoetan, emakumea aipagai egotea, adibidez, gorago aipatutako Manuel de Larramendiren *Corografia de Gipúzcoa*n, non emakume dantzarien portaera ebaluatzen den. Baina bego horretan literatur historiaren errepasoa hemen, joera nagusiak aipatu direlakoan, bederen euskal literaturaren historiari gaurko begiz jaramon eginez gero.

Errealitatea behartu gabe esan daiteke emakumearen *Beribilez*eko irudia kualitatiboki desberdina dela, euskal literaturako beste obra klasiko batzuekin konparatuta, eta hobea, ziur aski. Tere Irastortza kritikariak sintetizatzen duenez, emakumea ez da pertsona gisa hartua Bernard Etxepareren, Arnaut Oihenarten, Orixeren eta Txomin Agirreren obretan[570].

Lau klasiko horietan, emakumearen estimua da atera dakiokeen etekinaren araberakoa, dela sexuala dela praktikoa, Irastortzaren arabera. *Beribilez*en eta Etxepare baitan, oro har, emakumearen pertsona gisako estimazioa badago, nahiz eta alderdi praktikoa ez den atzentzen.

---

569 Maitasun-kantak ere aztertu ditu Jean Haristchelharrek herri-literaturan XVIII-XIX mende bitartean. Badu ikertzaile horrek emakumeen trataerari buruzko kezka euskal literaturan. Haritschelhar, J. (2014). "La Femme et l'amour dans la littérature populaire basque (XVIIIe et XIXe siècles)". *Cahiers Etnologiques* 15. 7 or.

570 Irastortza, T. (1987). "Emakumezkoa gizonezkoen literaturan: Euskal Literaturari errepasoa" *Jakin* 45.

Alabaina, bi ikuspegietan generoen arteko berdintasunik ez dago, emakumeak rol subalternoa baitu.

Hala ere, Etxepare bera ez dakigu Tere Irastortzaren artikuluko ondorio nagusiarekin bat letorkeen ala ez, Txomin Agirrek paratu emakumearen irudiaz denaz bezainbatean:

> "Nehor ez da hura [Txomin Agirre] bezain gizonki mintzatu eskualdun emaztekiaz; nehor, neskatxaren bihotzean sor ditazken sendimendurik ederrenez"[571].

3.3.3.2. Emakumeen heziketa gizarte tradizionalean

Esan daiteke medikuak bazuela gaztetatik emakumeen alderako interes bikoitza, haiekiko sexualitatearen alderakoa ez ezik, haien heziketaren alderakoa ere. *Buruxkak*en horrela zen eta *Beribilez*en ere bai. Horretara, emakumeen karakterizazioa promozio-asmoz egina da *Beribilez*en, nahiz eta beti geratzen den eremu domestikoan, ulergarriagoa dena baldin eta orduko baserri-ekonomiaren garrantzia kontuan hartzen bada.

Buruxkak lehen liburuan emakumeen kezkak txorakeria barregarriak izan zitezkeen: sainduen jantziak eta sainduen urreriak "Sainduen errangurak" *Buruxkak*eko atalean[572]. Apaindura horiekiko kuriostasun friboloa izatea egozten die, akats gisa, zeruko dohainetara begiratu gabe, hain zuzen, sainduek eskain lezaketen grazia[573]. Bestalde, "enbrak" ere izan zitezkeen emakumeak nabarmenki, adibidez, adatsa solte herriko plazaren erditik pilotari harroak besotik helduta doazela, ikusliarren txistuak jasotzen dituztela pilota-partida aitzinean…[574]

Beribilez aurretik ere, Etxeparek adierazia zuen emakume baserritarrekiko kezka, proposamenak eginez haien heziketa produktiboa areagotzeko *Buruxkak* (1910) bilduman, adibidez, "Igande arratsaldetan neskato gazteentzat" artikuluan. Horrez gain, herri txikietako

---

571 *B.* 77

572 Etchepare, J. (1980). 3. arg. *Buruxkak*. Donostia. Elkar. Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 380 or.

573 Kuriostasunaren bertsio kristaua, Akinoko Tomas Deunaren eskutik: http://hjg.com.ar/sumat/c/c167.html [2016-12-23]

574 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 382-384 orrialdeetan Jon Casenavek biltzen ditu *Buruxkak*en agertzen diren emakumearen hainbat irudi.

emakumearen idiosinkrasiari buruz, badu beste artikulu kostunbrista bat liburuan: "Iturri lekua". Lehenengo artikulu hartan, aipatzen dira etxekoandreak hezteko erronkak, eta, bigarrenean, defendatzen da iturriaren funtzio sozializatzailea emakumeen egunerokotasunean herrietan, hura iraunarazi nahiz. Nabarmentzekoa da idazlearen ikuspegi humanista, aurrerakuntza teknikoa onartzearen gainean ñabardurak adierazi zalea: herri erdiko iturria teknologikoki garatuagoa izango zen, baina emakumeen txoko ekologikoaren kaltean, iturri-leku zaharrak emakumeen gizarte-eragina bideratzeko baliabidea baitzen, herriko gorabeherak beren artean jorratuta.

*Beribilez*en, narratzaileak ekiten dio Loiolako elizan dauden emakume talde bateko emakumeak sailkatzeari. Sailkapenaren irizpideak ikusita, ondorio ideologikoa zera da: emakume laikoaren goraipamena, sintsakeriaren eta elizkoikeriaren kaltean.

> "Hemen, bat bertzearen ondotik hiru neskatxa gazte, azkar eta eder, harat-hunat badabiltza, apezen ofizioetako liburu handi bati bat-bederak behakoa landatua, noiztenka kurutzearen seinalea eginez. Eretzearekin gu, begi larri beltz batzu eztiki zeiharkatzen dituzte bizkitartean gu hunat, mundutar batzuei urrikalmenduzko agur baten karialat. Serora-gei zonbait? dautazu eginen. Ez: bazterretarat behatzen dute. Beata batzu? Ez eta: othoitzean neurriz derabiltzate ezpainak. Hiruak hiru sintsa, geroztik? Are gutiago: buru-ahuleria mikorik badutela ez dirudi; aitzitik, gogoa bizi-molde bati finkatua dute ezagun"[575].

Idazlearen idearioan emakumeek erlijioaren esparruan dituzten errolak oso arreta handiz jasota daude: Etxepare gizarte-erreformatzaileak pentsatzen du emakumeak bizitza sekular batera emana behar duela, debozio-gehiegikeriarik gabe. Loiolako pasartean, nabaria da emakumea rol sekularretan aritu dadin idazlearen hobespena, eta ez erlijioari sobera emana, "sintsak"," beatak" eta antzekoak bezala.

Bestetik, nabari da lanarekiko atxikimendua Etxepareren hitzetan ("gogoa bizi-molde bati finkatua dute ezagun"), eta bizimodu kontenplatiboaren nolabaiteko gutxiespena, emakumeen erlijiotasunari dagokionez orokorki. Nabari da bizimodu burges ekintzailerako joera bera emakumea karakterizatzean, lanaren etika protestantearen hurbilekoa[576].

---

575 *B.* 67

576 Weber, M. (1996). *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*. Donostia. Gaiak.

Nolabaiteko ironia baten bidez, adierazten da neskatxa gazte hauek erlijioarekin duten loturaren nolakoa. Medikuaren lagunekiko behako batez adierazten duten errukia, itxura batean, adierazten du nolabaiteko trufa arina emakumeei buruz, Jean Etxepare ezagututa: "Eretzearekin gu, begi larri beltz batzu eztiki zeiharkatzen dituzte bizkitartean gu hunat, mundutar batzuei urrikalmenduzko agur baten karialat"[577].

Ironiak ez du baztertzen emakumeen ikuspegi goresgarria, haien izaeraren alderdi batzuei buruz: "hiru neskatxa gazte, azkar eta eder"; "begi larri beltz batzu eztiki zeiharkatzen dituzte bizkitartean gu hunat"[578]. Emakume gazteen edertasunaren isla jasotzen du idazleak, erreparorik gabe.

Esan den legez, Jean Etxepare baitan betikoa da emakumeenganako kezka, besteak beste, emakumeen heziketari buruzko kezka. Mutilen aldean, irakaskuntza askoz murritzagoa ematen zitzaien garai hartan emakumeei. Horregatik, medikuaren heziketa-eredua bideratuta dago emakumeak etxean eginkizunak hobeto burutu zitzan, baserriko ekonomia baten esparruan. *Beribilez*en ere pasarte adierazgarrik eskaintzen die emakumeen heziketari:

> "Neskatxa baten ethorkizunaz nork on egin? Halere gogotik berme jar gintazke ama familiako batzu hautak izanen direla hiruak: emazte batzu berekin ukanen dituztenak osasuna, fedea, esku-lanaren amodioa, jakitatea, bertze zerbait gehiagorekin oraino, hau baitzaiku nausi eta etxekandere gehienen gainerako itzala, herrian"[579].

Hemen defendatuko da Jean Etxepare emakumeei begirako gizarte-pedagogia bat proposatzen ari zaiela bere gisako irakurle "norbait" direnei, alegia, euskaltzaleen arteko segmentu gidariari, auzi honetan zer esana eta zer erabakia izan lezaketenei.

Etxepare kontziente da Euskal Herriak ematen duen irudiaz, eta ez du ahazten emakumeek iruditeria horretan duten parte garrantzitsua ("Bere ohore eta edertasun berezia, halako emazteer ditu izan, bethi danik, zor gure Eskualerri maiteak"[580]).

Beraz, emakumearen irudia ondu nahi du Etxeparek, emakumeak haren ustez izan beharko lukeenaren arabera. Etxepare euskal gizarteak nolakoa behar duen adierazten digu,

---

577 *B.* 67
578 *B.* 67
579 *B.* 67
580 *B.* 67

emakumeak mosaiko horretan leku jakina izanik, ez bakarrik modu anekdotikoan, baizik eta jarraikitasunarekin ere, eta heziketaren eta antropologia filosofikoaren ikuspuntutik. Espainian ere etxekoandrea trebatzeko literatur genero hori bazen aspalditik. Gogoratu besterik ez dago *La perfecta casada* idazkia Fray Luis de León (1527-1591) idazlearena.

Morala da emakumearen erretratua Loiolako honetan *Beribilez*en.

Emakumeari esku-lanerako zaletasuna eskatzen dio, baina baita jakituria izatea ere. Jakituria ez da diziplina akademiko batekoa: da jakituria praktikoa, *phronesis,* Etxeparek hain estimutan zituen greziarren hitzetan. Garai hartan, emakumea eskolatzearen auzia pil-pilean zegoen Europako txoko honetan, hala Iparraldean nola Hegoaldean.

Esan daiteke emakumearen klasearteko irudi bat heltzen zaiola irakurleari: ez dago gizarte-estratifikaziorik, nahiz eta emakume batzuengan bai estimatzen dela kultura, adibidez, Etxepareren emaztegaiek izan beharreko nolakotasunak aipatzean haren lagunek jakinarazten digutenez: edozein emakume ez da egokia, alderdi horretatik ere.

Jean Etxepareren emakume-kontzeptu hau, konbentzio tradizionalei men eginik ere, hura duintzeko asmoz egina da, berdintasun-bidean pausu apala. Heziketari buruz asko legoke esateko, mediku humanista baten lumatik itxaron zitekeenaz bezainbatean: baserri-lanetarako eta eguneroko bizitzarako prestakuntza soila, etxeko ekonomiaz kanpo sustatzeko asmo goitiarrik gabea…

Beraz, emakumearen errealitatea hobetzeko ahaleginak eta proposamenak egin ditu medikuak bizitzan zehar, eta *Beribilez*en ere saiatu da. Ahaleginok emakumearen orduko testuinguru hartan ulertu behar, noski, ez dira handizaleegiak gaurko ikuspegitik, alderantziz, baina argi dago beren asmo berritzaile, aurrerazale eta modernizatzailea.

3.3.3.3. Emakumeak desiraren objektua izateari utzi

Iruneko jaietako pasartean[581], gogoangarria da Etxepareri erotismo hutsa ("edertasuna") gainditu ahal izatea ahalbidetu zion epifania hura, ia goi arnas bat bezalakoa, alegia,

581 *B.* 93tik aurrera

emakumearen edertasunari grazia eta zintzotasuna gailen dakizkiokeela ulertzean, behinola Iruneko jaietara egindako txango batean ikusitakoaren harira; egokia izan daiteke esatea idazleak, emakumea gauza erotiko soila bihurtu gabe, zortea izan zuela Iruneko epifania hartan; alegia, emakumea ez soilik objektu erotiko gisa kontuan izatea, baina pertsona moral gisa ere bai:

> "Orduan nintzen ohartu lehen aldikotz, emaztekiaren baitan zintzotasuna eta grazia gaient ditazkela edertasunari berari; batek ala bertzeak bizkitartean, edertasun doi bat dutela eskatzen, lasterrenik gizonaren bihotzerako"[582].

Esan daiteke emakumea gizonezkoaren osagarri gisa dela ikusia batez ere, ikusmolde honetan:

> "Askorentzat Modernitatearen sortze-testua izan zen Émile, ou de l'Éducation (1762) gizonak hezteko tratatuan Rousseauk hiritar eredu idealaren funtsak ezarri zituen. Bertan adierazten denez, emakumezkoak moralki behe-mailako izaki dira eta ezin dira subjektu izan, ez baitira ez inpartzial, ez unibertsal, eta, ondorioz, gizonezkoaren osagarri gisa soilik hez daitezke. Haien funtzioa etxe-esparrura eta ugalketara mugatu beharko litzateke"[583].

Ez dakigu Etxepare gazteak emakumeen edertasuna gogoan duela, ez ote den Friedrich Nietzscheren ikuspegia errepikatzen. Nietzschek emakumea bereziki ezkontza-helburu soilarekin irudikatzen omen zuen[584], garai hartako pentsalari ospetsu askok bezalatsu[585].

Etxepare konturatzen da generoa eraiki egiten den zera dela, ez dagoela, berez, zertan pentsatu pertsonak sexu batekoa ala bestekoa izateak determinatzen duela osoki, alegia, edertasunaz gain ezaugarri moralek ere lekua dutela emakumea irudikatzean[586]. Azken batean

---

582 *B.* 94

583 Rodríguez, E. (2015). "Emakumezkoen irudikapena Joseba Sarrionandiaren 1981-2001 bitarteko poesia-eta prosa-lanetan". *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (94). 51 or.

584 Diethe, C. "Mujeres" in: Niemeyer, C. (arg.) (2012). *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva.

585 Rodríguez, E. (2015). "Emakumezkoen irudikapena Joseba Sarrionandiaren 1981-2001 bitarteko poesia-eta prosa-lanetan". *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (94). 52 or.

586 Rodríguez, E. (2015). "Emakumezkoen irudikapena Joseba Sarrionandiaren 1981-2001 bitarteko poesia-eta prosa-lanetan". *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (94). 50 or.

Simone de Beauvoirek esaten zuen bezala emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da, eta Jean Etxepareren gogoan ere bai, neurri batean[587]. Eider Rodríguezek dioenez:

> "Feministek sexu-ezberdintasuna jendartea antolatzeko, gorputzak, jokabideak, balioak, espazioak, lanak, emozioak, koloreak eta abarrekoak sailkatzeko modurik oinarrizko eta iraunkorrena zela ulertu zutenean (Gobulov, 2012: 35), agerian utzi zuten "gizon" eta "emakume" kategoriek beren baitan hartzen zituzten tasunak ez zirela berezkoak edo naturalak, baizik eta historikoki eraikiak"[588].

Haatik, XX. mende hasierako idazleak ezin zezakeen emakumea irudikatu, giroan zeuden irudien arteko batzuk aukeratuta baino. Azken batean, emakumea irudikatzeko programa bat bazen idazleen artean[589], Euskal Herria eta edozein herrialde irudikatzeko programa bat bazen bezala. Aristotelesek *mythos* zeritzen airean zeuden trama hauei.

Mendebaldeko literaturak emakumezkoaren eta gizonezkoaren irudi batzuk ondu ditu, genero bakoitzari eginkizun sozial zehatzak esleitzeko asmoarekin:

> "Laburbilduta, honela jasotzen du Cixousek (Cixous eta Clément, 1975) emakumezkoaren patua historian zehar:
>
> Où est-elle?
>
> Activité/passivité,
>
> Soleil/Lune,
>
> Culture/Nature
>
> Jour/Nuit,
>
> Père/Mère,
>
> Tête/sentiment,

---

587 Aron P., D. Saint Jacques eta A. Viala. (zuz.). (2010). *Le dictionnaire du littéraire*. Paris. PUF. "Gender" sarrera.

588 Rodríguez, E. (2015). "Emakumezkoen irudikapena Joseba Sarrionandiaren 1981-2001 bitarteko poesia-eta prosa-lanetan". *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (94). 50 or.

589 Rodríguez, E. (2015). "Emakumezkoen irudikapena Joseba Sarrionandiaren 1981-2001 bitarteko poesia-eta prosa-lanetan". *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (94). 50 or.

Intelligible/sensible,

Logos/Pathos.

Forme convexe, marche, avance, semence, progrès. Matière, concave, sol -sur lequel s'appuie la marche, réceptable (sic).

Emakumezkoa bestea da, pasibotasunaren, ilargiaren, naturaren, gauaren, amaren, sentimenduaren, patuaren eta materiaren aldera lerratutakoa; haatik, gizonezkoa akzioaren, eguzkiaren, kulturaren, egunaren, aitaren, buruaren, adimenaren, hitzaren eta formaren aldean ageri da kokatuta"[590].

Hori dela eta, *Beribilez*en emakumea sentimenduaren eta pathosaren eremuan kokatuta ikusten da, eta ez horrenbeste arrazoiaren eremuan. Gure iduriko, *Beribilez*en, emakumeen egoera apala karakterizatzea estuki lotuta dago emakumeen sustatzeko heziketak nolakoa behar duen kezkarekin. Norbaiti otu lekioke emakumearen egoera hura dela-eta, identitate-gatazkan paraleloa egin daitekeela, kasu honetan frantsestasunak hartuko lukeela aitaren rola, eta euskaltasunak amarena, Cixiousen parametro hauen barruan, beti ere, ikerlanean beste nonbait jorratu den gaia, azken finean, errebeldia guztiak patroi berari baitarraizkio.

Hala ere, esan behar da sarritan tradizionalak eta fixistak direla Jean Etxeparek emakumeei esleitzen dizkien rolak, rol hori tradizioaren muga estuen barrukoa izaten da-eta. Adibidez, emakumeak bikainak ikusten ditu jantzi kontuak ebazteko:

"Gure gibeletik, beribil barnean, aditzen ditugu solas hauk:

—Hemen ez dute, Frantziako aldean baino gehiago, eliza-gizonek ixtudiant gazteer eman jautzi egoki bat. Semenario ttipietakoak, hasteko, gaztegi dira sotanaren erabiltzeko soinean. Etzaizkizu bixi, eta irringarri apur bat, holako haurrak beren jaka luzearekin? Nola etzaioten aitzindarier gogoratu, ixter erditarainoko tunika bat aski zuketela, papoan floka beltx batekin! Gapelua haatik, ez dut ikusten nolakoa zitaken

590 Rodríguez, E. (2015). "Emakumezkoen irudikapena Joseba Sarrionandiaren 1981-2001 bitarteko poesia-eta prosa-lanetan". *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (94). 53 or.

begikoenik. Buruzagiek ixtudianten ama eta arreber galdegin balute bederen kontseilu... apaintzeko zeretan, berez-bere gizonak deus ez dira"[591].

Bide batez, Etxeparek erlijiosoei egiten dien ohiko kritika errepikatzen du[592], alegia, laikoak -kasu honetan estudianteen ama eta arrebak- zentzuzkoagoak direla, askotan, erlijiosoak baino, oraingo honetan, abadeki gazteen jantziak zein izan daitezkeen erabakitzeko.

Maskulinitateari buruz ere, bi hitz. Beste batzuetan, gizontasuna izan daiteke generoen arteko harremanetan disimetria bat adierazteko modua. Gizonezkoak ikustate berezia zor dio emakumeari, sexu ahula den neurrian:

> "Kartier hunetarat biltzen baitira Aiherre-Bildarritzeko haur asko, lan gehixago bada bertzetan baino, eta gizontasuna litake, soberakin hori gizon batek jasan baleza eta ez emazteak"[593].

Azken batean, feminismo batek pentsa lezake gizonezkoaren gehiegizko gizalegea bi generoen arteko berdintasunaren gainetik pasatzen dela.

3.3.3.4. Idazlearen biraketa sexuala

Etxepare ikusten dugu neurritsu dabilela, hala Iruñeko San Ferminetako "*alaitasun erhoa"* aipatzean, nola hondartzetako ohiko "txitxi- eta mami-erakustaldi"-enerakustaldien*"* aurrean. *Neurria*ren kontzeptua gogobetekoa zaio liburuan zehar han eta hemen. Esan daiteke leit-motiv moduko bat dela.

Argia da idazlearen hautu sexual diskretua *Beribilez*en, *Buruxkak*eko "Amodioa" atalean narratzaileak hartzen duen jarrera anbiguotik desberdina. Hizkera askerik ez darabil berrogeita hamar urtetik gorako Jean Etxeparek apenas, Kontxako hondartza-zaleen jokabide

---

591 *B.* 73

592 Ikusi *Buruxkak*eko "Nor irakasle.zer irakats", adibidez. Badira ideia horren beste agerraldi batzuk, besteak beste, Lafitteri idatzitako gutunetan: Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia.; badira *Beribilez*en bertan ere, aipatutako hiru neskatxa gazteen pasadizoan.

593 Xarriton, P. (1988). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. III kazetaritza (A) (1916-1935).* Donostia. Elkar. 16 or.

“ozarra” bazter uzten duela (“Izaitez, erabeak nauka legartzarat joaitetik. Goainditzen nu hango nagikeriak; ez dezaket jasan, itsasoari errara beha dagozin zonbaiten aberekeria. Zitzi eta mami, papo eta gibelalde ozar sobera dakusketalako izia larru-barneari datxit”[594]).

Esan daiteke idazlearen ideologian sexuarekiko jarrera ñabartu egin dela gaztarotik helduarora. Konpromisokoa da Etxepareren gogoa, Iruneko jaietan gaztetako ibilerak gogoratzean ere, ikusi denez.

594 *B.* 86

3.3.4. Arnasa eta aire anitzak

3.3.4.1. Arnasketa bizigarria

Bost zentzumenak baliagarriak direino plazer txikien izateko, Etxeparek ez du ahazten usaimena. Halako batean, etxeko janarien usaina gogoratzen du, hariztian arbolen itzalpean otordu hotza egiten ari direnean, autoa geldituta:

> "Bainan zer jateko urintsu, hotz, usain gozo gabeko, muthiriak! Pizteko orde, lotsa lezagukete zinez barnea, ez bagine oro gose amikatuak. Bego nausi etxeko xokoa, eltzetik bafadan athera salda beroarekin"[595].

Goizean Kanbotik abiatzean alorren usaina aipatzen da:

> "Aire goxo batek hanpatzen dauzkigu bulharrak. Begiak pausatzen zaizkigu"[596].

Bueltatzean ere, bidaiariak somatzen du aire pizgarria:

> "Bidasoa bazenetz ere ez niz orhoitu: ez girea bethi Eskualerri-barnean? Hargatik, mugaz hunaindiratu bezain laster, gozatu zaitala eta berritu zainetako bizia, hori ba. Jabalago barnea, hatsa hobeki hartzen dut. Bihotz-bihotzez eskualdun izan gatik, garaitiko nizan guzia frantsesa duketalakotz ez othe? Adimenduz eta buruz uste baino ere maiteago ez othe dugun guziek Frantzia?
>
> Menditik bulharretarat heldu zaikun aire sendoari hautemaiten diot, Frantzia guzitik harekin nahastekatzera jina, halako hazkurri arin, haztarik gabeko zer bat, osagarrizkoa hargatik, odoleratzeko gure lehenbiziko arbasoek etzuketena" [gure azpimarrak][597].

Sentiberatasun horrek gorputza berreskuratzen du. Gorputza da literatura aszetikoan hainbestetan gutxietsi den gizakiaren osagaia, gorputza bailitzan kate bat gauza mundukoi

---

595 *B.* 26

596 *B.* 11. *B.* 7n ere aipatzen da airea.

597 *B.* 95

mespretxagarriei estekatzen gaituena (*sarx*[598]), eta gogoa zeru-alde airatzeko oztopoa baino ez dena. Bernardo Atxagak aipatu du inoiz euskal kulturaren gabezia hori, euskal kulturan gorputzari eman zaion tarte murritza salatuz: horra Etxepare bere bidetik.

*Beribilez*en arnasa ere aipatzen da gozamen gisa: "bulhar bethez" arnasa hartzea, alegia.

> "Ordu berean, aire fresko gaziño bat hautemaiten dauku bat-bederari sudurrak. Botz eta erne, hatsa hartzen dugu orok bulhar-bethez. Itsas-hegitik arras hurbil gitazke, Zumaian ginen baino hanitzez hurbilago"[599].

Hipotesi gisara esan liteke bitalismo baten agerraldia izan daitezkeela arnasa bular beteka hartzearen jarrera; agian, ez oso urruti Friedrich Nietzscheren bizitzaren kontzeptutik, bizitzeko nekearen kontra eta dekadentziaren kontra, aszetismoaren kritika erantsi ahal zaiola[600]. Ignazioren figura ere nahiko modu bitalistan interpretatzen du Jean Etxeparek:

> "Beren hauturala lerro-lerro ibil ditazke hemen, herritar saindua othoiztuz, kantatuz bi bulharrez haren laudorioak. Gizon guti izan da lurraren gainean harek bezenbat eta halako kharrarekin gizoner Jainkoaren hitza ezagutarazi nahi ukan duenik; guti, harek bezalako sua piztu duenik laguntzara bildu zituenen bihotzetan; guti, halako lanak lurreko eskualde guzietan eginarazi dituenik bere xedeen arabera"[601].

Tarteki gisa, esan daiteke *Beribilez*ek erlijioaz ere hitz egiteko parada ematen duela, izatez, bidaia-liburuak entziklopedia txiki baten eitea baitute. Erlijioaren haritik, Ignaziok berak esaten omen zuen mortifikazio[602] handikoa izatea zela beraren ezaugarri nagusia; izan ere, Ignazioren *Gogojardunak* liburuan xede nagusia da: "gogojardunak nork bere burua menderatu eta bere bizitza zuzentzeko, mordoilotua den ezein nahikarik grinatu gabe"[603].

---

598 Rahner, K. eta H. Vorgrimler. (1970). *Diccionario teológico*. Barcelona. Herder.

599 *B.* 77. Badira beste *bulhar* hitzaren beste bizpahiru agerraldi, konnotazio hauekin.

600 Dirk, M. "Vida" in: Niemeyer, C. (arg.) (2012). *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva.

601 *B.* 68

602 Kiechle, S. "Mortificación" in: Grupo, D. E. I. (2007). *Diccionario de espiritualidad ignaciana*. Bilbao-Santander. Mensajero-Sal Terrae.

603 Altuna, P. (2003). *Loiolako San Ignazioren gogojardunak*. Leioa. EHU. 22. oharra.

Esan daiteke Ignazioren proposamen espirituala Nietzscheren kritikaren jomugan dagoela bete-betean, Ignazioren aszetismoa denaz bezainbatean[604]. Nietzscheren arabera, aszetismoa litzateke munduari uko egitea, eta gizakiaren berezko jaidurei bidea moztea[605].

Jean Etxepareren ikuspegiak biziki enfatikoa dirudi, agian, bitalismo baten agerpena, gaztetako Nietzscheren irakurraldien jarraipena izan daitekeena, eta gizakiaren bizitza onaren ikuspegia baldintzatzen duena.

3.3.4.2. Heriotzaren atarian

Bisitaria Ignazioren etxean dela Loiolan zedrokiaren usaina sumatzen du, zuraren usain goxo iradokitzailea:

> "Gero, ezkaratzerat itzultzearekin biak, aipatu nion bada etxe-barneko usain goxoa. —Zedrarena da, ninduen ohartarazi irriz; jauregiko eskalerak zedra taulaz berrituak izan dira, hala-nola zureriaren bertze zati asko"[606].

Usainaren zentzumenetik gogoaren oroitzapenetara lerratzen den asoziazio batzuk egiten ditu idazleak, hain zuzen, Ignazioren etxean. Usain gozoaren oroitzapenak dakarkio gogora ihesi joandako gaztaroa, alegia, Loiola bisitatzera joan zen beste abagune hura, biziaren iheskortasuna agerian dakusala:

> "Eta sartu orduko, duela hemezortzi edo hogoi urtheko orhoitzapen bat jauzten zait berehala sudurrerat, holakorik erran badezaket: etxe-barne hartako usain onaren orhoitzapena, orduan. Ene ahal guziaz usnaturikan ere, usain hura den-gutienik ez dut hautemaiten egun: gaztetasuna hihauri joan baitzaik segur, gehiago ikusiko ez dukana, daut adiarazten bizkar-hezurrari beheiti trufari kixkil batek. Gogoa ilhun, banoa

---

604 Becke, A. "Ascesis" in: Niemeyer, C. (arg.) (2012). *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva.

605 Becke, A. "Ascesis" in: Niemeyer, C. (arg.) (2012). *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva.

606 *B.* 57

ezkaratzeko athe baten jotzera, ezkerretarik. Hetsia! Gauzak ez dituk lehen bezala hemen: bertzelakatu dituk zorigaitzez, eta hekin batean hiahu...”[607].

Zedroaren egurra ustelgaitza da, horrexegatik da hilezkortasunaren sinboloa, konifera guztiak bezala[608]. Askotan, zedroak jartzen dira kanposantuetan hilezkortasuna irudikatzeko. Horrela, idazleak sentitzen duen denboraren joana azpimarratuta dago zedroa agertuta.

Esan behar da idazleak 1928an izan zituela osasun-arazo serioak, datu biografiko gisa. Hau da, 1929an *Beribilez Gure Herria*n atalka argitaratzen hastean, medikuak badu jadanik bihotzeko arazoen kezka osasunari buruz. Garrantzitsua da datu hau liburuaren izaera krepuskularra ulertzeko[609]. Kezka hori errotuago zukeen 1931n, *Beribilez* liburu gisa argitaratuko zuenean, eta horretarako aldizkariko atal argitaratuak berrikusiko zituenean.

Jean Etxepareren gogoan badirudi heriotzaren agerpena dagoela zuzenean lotuta gaixotasun fisiologikoarekin, *Beribilez*en agertzen baita heriotza tarteka-marteka:

> “Banagoke oraino hemen gogotik oren bat, ene lagunek besotik ez baninderamate otoetarat. Nahi-t'ez igan behar dut. Jar-orduko abiatuak gira, azken behako bat emanik Loiolako komentuari. Azken aldikotz ez othe dugun ikusi zonbaitek?”[610] [gure azpimarra]

Historizidadeaz kontzientea da Etxepare: ez dago ideia eternalik. Iragankortasunaren esperientzia astuna zitzaion medikuari, egia eternalik gabe. Horrek erakusten du norainokoan zegoen irakaspen tradizionaletatik urrundua:

> “Les sciences humaines (…) peuvent remplacer avec succès la métaphysique parce qu´elles adoptent une attitude résolument historique: elles ne cherchent plus à comprendre l´essence atemporelle de l´esprit, mais a le comprendre tel qu´il s´est manifesté historiquement (…) ; compte tenu du charactère historique de tout savoir, une connaissance vraie est-elle possible?”[611].

---

607 *B.* 57

608 “Cèdre” in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

609 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 39-40 or.

610 *B.* 73

611 Grondin, J.(2006). “Historicité” in: Mesure, S eta P. Savidan (zuz.). *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF. 517 or.

Anartean, metafisika izana zen egia iraunkorren gordailua, baina egiak historikoki kokatu gabez, porrot egin zuen planteamenduak. Egia ahistoriko gehiagorik ez zen onartzen, adibidez, Wilhelm Dilthey (1833-1911) giza zientzien ikertzaile seinalatuaren lanetan.

Etxeparek bere izkribuen iraunkortasunaz esperantza badauka, eta zalantza, Lafitteri esaten zion bezala. Pentsatzen zuen bere literatur ibilbidea *fiasco* batean amaitua zela, bizitzako azken urteetan[612]. Hala ere, etorkizuneko irakurleentzat idazteko esperantza zuen, zenbait ideia baliagarriak izan ahalko zaizkigulakoan, nahiz eta adierazi, ilun aski, ohitura txar bat ezin garaituz ari dela idatzi eta idatzi[613]. Beraz, bizitzaren akabantzan, Etxeparek bazuen sinesmenik historia biografikoaz harago irauteko aukeran, apala bazen ere.

Beldurra zuen bere idazkiak etorkizunean ere irakurriko ote ziren, ala, Ignazioren idazkiei gertatu zitzaien bezala Loiolan ikusten zuenez, sinbolikoki, denboraren joanak ezin irakurtzeraino higatuko ote zituen. Agian, isolamendu intelektuala gainditzeko geratzen zitzaion azken kartutxoa zen idazkiak irauteko guraria, urtez urte heriotzaz haratago biziraun ahal izatearen itxaropen-izpia. *Beribilez*en arrakastari buruz, gogoratu zer-nola ziotson Lafitteri Lasserre inprimatzaileari hitz egindakoan, alegia, ez zela *Beribilez* hainbat mugitu garajetik, aleen salmenta astiro baino astiroago ari zela ironikoki adieraziz:

> "Lasserren etcheko mutchurdinak aldiz, etzaundan halako begitarterik egin: garajatik ez omen da hanbat igitu *Beribilez*. Irri egin nuen gogotik, baitakit aspaldian eskualzaleen bihotzeko eta -erran behar dut ere- sakelako berri"[614].

Areago, antzeko gauzak gertatu izanik *Buruxkak*ekin ere 1910ean, etxean gorde behar izan zuen tirada guztia, ingurukoen presio hurbilen beldurrez.

Ez bakarrik usaimenetik abiatuta, ikusmenetik ere abiatuta, idazleari nostalgia sortzen zaio, gizakiaren bizia lurraren gainean labur egiten zaiola-eta. Ignaziok idatzitako lerro batzuen

---

612 "Zer gibelondo ene lanak? Frantsesez aitortuko dut lañoki: *résultat nul, fiasco complet*. Aztura xaharrak ezin garaituz, urrats berari narraikio halere gaur den egunean, norbaitentzat noizbait ukanen duelakoan erakaspen zerbaitño". *Gure Herria* 1929. Irakurri aipua eta iruzkina in: Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2016-05-21]. 249 or.

613 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia.

614 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 1931ko lotazilaren 22an.

aitzakiarekin, Loiolako bisitariak sumatzen du giza-ekimenen iragankortasuna mendeen joanean: beldurra azaleratu egiten zaio, gizakiaren ezereza hautemanda:

> "Begien aitzinean ditut Ignaziok berak izkiriatu lerro batzu. Irakur zitazken ene ondar ikustaldian, orai ez: erdoilak jaten ari ditu hitzak, papera bera andeatzen hasia da. Lauzpabortz mende baizik ez dirauke beraz, berinapean ezarririk ere, idazle baten eskulanak. Zer deithoragarria!... Berdin, histuaren gatik irakurtzen ahal baginu, adi othe ginezakea den-gutienik sainduaren orduko hizkuntza? Gure oraiko mintzaiarena balitz ere, beldur niz ezetz. Beldur itsusiago bat badut —barkatu lumatik erortzen bazait aithorra— beldur niz Ignazio gutarterat ager baledi eta dakigun eskuaraz aholka bagintza, behin Azpeitiarriak karrikan gaindi egin zituen bezala, gor eta elkor egon ginitzozken. Ideek nola solasek, nola idaztiek, ez ote duten beren garaia edo sasoina, nago dardarika batekin..."[615].

Medikuaren beldur hori (*dread*) ohikoa da kontenplatiboen artean, ez baitakite egiaren bila zuzen ote dabiltzan[616]. Etxepareri kezka metafisikoak ez zitzaizkion arrotz[617], metafisika tradizionalaren gainbeheraz jakitun baitzegoen, Hans Reichenbachen irizpideak ezagutzen zituenez gero: positibismo logikoak metafisika sakonki kordokarazi zuen[618].

Badirudi, beraz, ordu hartako giroaren oihartzun gisa diharduela Etxeparek, ideien iragankortasunaz aritzean, kolokan ikusten duela mendez mende iraun duen eskolastizismoaren oinarri ustez sendoa. Jean Etxeparek historian murgildua ikusten du bere burua, Ignazioren hitzak bezalaxe. Beldurrez bizi du gauzen iragankortasuna. Jabetzen da pentsamenduaren erlatibotasunaz. Balizko *philosofia perennis* delakoaren ahuleziaz jabetzen da[619], Lafitterekin izaten baitzituen eztabaidak horren gainean, beste hitzez, *philosophia communis* delakoaz.

---

615 *B*. 65

616 Merton, T. (2009). *Contemplative prayer*. London. Image. Sören Kierkegaardek ere gai bera darabil *Beldurra eta dardara* (1843). izenburu iradokitzaileko liburuan. Ikusi, era berean, Pieper, J. (1998). *El ocio y la vida intelectual*. Madrid. Ediciones Rialp. 337-338 or.

617 Murua, I. (1996). "Piarres Xarritoni elkarrizketa". *Jakin* 97 85-134 or. 125 or.

618 Copleston, F. (2011). *Historia de la filosofía XI (Logical positivism and existentialism)*. Barcelona. Ariel. "The function of metaphysics" atala.

619 Huxley, A. (2014 [1944]). *The perennial philosophy*. New Canadian Library.

Garai hartan, Tomas Akinokoa Elizaren doktore izendatu zuen Elizak[620] eta horren ariaz neotomistak loratu ziren Euskal Herrian ere, Jean Etxepareren bizi-giroaren atalean adierazi den bezala. Frantzian, tomismoaren loraldi hartakoak dira Jacques Maritain eta Raissa Oumansoff senar-emazteak, Étienne Gilson eta, Iparraldean, Mathieu monsinore euskaltzalea, besteak beste.

Bestetik, Jean Etxeparek ezagutuko zuen Nietzscheren fraseologiaren barnean "Jainkoa hil da" esaera, hau da, Jainkoaren baitako fede kristauak sinesgarritasuna galdu du memento batean; moral europarra luzaroan bermatu duen sostengua azkenetan dago. Mezu hori askatzailea izan baliteke ere, arriskutsua ere bai, nihilismoari bidea ematen baitio[621].

Etxeparek sentimendua du bizitzatik despeditzen ari delakoa, era berean, hiriak igaro orduko, Tolosa despeditzean bezala, ustez azken aldiz ikusten duela, horrela gertatuko baitzen benetan, handik lasterrera hilko baitzen:

> "Azken behako luzea igortzen diotalarik behar-bada gehiago ene bizi laburtuan ikusiko ez dutan Tolosa zahar maiteari, iduri zait mintzo zaizkitala hango bi adixkide: —Ez iduk grinarik gutaz; mende hunek ekarri daukun guduari ez gira den-gutienik lotsa; jarriak gira eskualdun guziak ukondoz-ukondo; begiak erne dauzkagu, erne gogoa, besoa azkar. Gure geldituko da, gu jabe eta gu nausi, Gipuzkoako lurra"[622] [gure azpimarra].

Idazleak euskal lurren etorkizuna begiz jotzen du, ondorengoentzat hilburukoa paratzean bidaia-kontakizun baten formatuan. Izan ere, liburu osoa da erretaula bat, non idazlearen mundu-ikuskera gauzatua datorren amoroski eta artoski bildua.

Etxepare konturatzen da bizialdiaren une batean erritmoa desioa baino motelago doakiola. Iruditzen zaio bizitzan porrot egin duela. Idazteko generoen historian, porrot-sentipen hori biografia pertsonala idazteko ideiarekin zabaltzen da XII. mendean, aberatsen, jende

---

620 *Aeterni Patris* entziklikak (1879) tomismoa handizki bultzatu zuen. Copleston, F. (1982). *Historia de la filosofía IX*. Barcelona. Ariel. 248-249 or.

621 Havemann, D. (2012). "Dios ha muerto" in: Niemeyer, C. *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva.

622 *B.* 50

ikasiaren eta boteretsuen artean. Porrot-sentipena izan daiteke gizatasunaren ezaugarri iraunkorra, agian, markestasun metafisiko gisa gizakiaren bizitza guztian zehar zabaldua.

Antzinako denboretan norbera bizitzako patuari lotua zegoen, aldakaitza baitzen luzaro eta onartua, aberastasunak urriak ziren artean[623]. Hala ere, Etxepare burges txikiak bizi duen porrot sentipena agertzen zaio bizitzaren amaieran, egindako lanak ustelak begitantzen zaizkiolako, eta ez balizko ondasun material urrien erruz.

Estetikaren atal honen amaieran, laburbilduz, ideia nagusi batzuk aipa ditzagun. Paisaiaren ikuspegia konnotazio erromantikorik gabea agertu zaigu, oso jarria landa-lurren balio produktiboa antzemateari lotua; goi mendien balio identitario sublimerik ez dago, azken mende hauetan Europako literaturan egin izan denaren aparte, ziur aski. Arkitekturaren alorrean, agertu da Jean Etxepareren begirada ernea arteko balioei buruz; ez hori bakarrik, Ignazioren etxe-ondoko dekorazioa begiesteak bidea eman dio medikuari askatasun tentuz neurtu batez aburu kritiko samarrak adierazteko, gutxienez, erlijio-modu batzuekiko, desadostasuna sakonagoa izatea ere baztertu gabe. Azken puntuan, jaso da sentiberatasun burges txikiak berarekin dituen plazerak gozatzeko jakituria gutxi asko mokofina, hala nola mahaiaren eta ardoaren inguruan eta dantzaren inguruan; ahaztu gabe emakumearen ikuspegiak idazlearen baitan izan duen eboluzioa haren idearioaren barruan.

623 Ariès, Ph. (1977). *L'homme devant la mort*. Paris. Seuil. 139 or. Funtsezko liburua heriotzari buruz, diotenez.

4. Etika Jean Etxepareren ideologian

Atal honetan, ekingo zaio narratzaileak testuan txertatu dituen balorazioak bilatzeari, semiotikaren laguntzaz. Ildo horretatik, Philippe Hamonen metodologiari jarraiki, etikaren arloko aztarnak jasoko dira oraingo honetan.

Pasarte aukeratu batzuk bilduko dira, non etikak agerraldi nabariagoa egiten duen testuko ehunean. Etikaren azterketa hori ulertu behar da lanaren hipotesi nagusien markoan: idazleak etika jakin bat agertuko du, irizpide multzo bat, hau da, burges txiki euskaldun baten etika, bera bezalako kideei zuzentzen zaiela.

Idazlearen kidetzat dauzkagu *Beribilez* bezalako izkribua irakurtzeko interesa izan ahal zutenak. Ziur aski, hartzaileen multzo horretan sartuko ziren Eskualtzaleen Biltzarreko bazkideak, non Jean Etxeparek ardura-karguak izan baitzituen (1922-26)[624], eta Hegoaldeko euskaltzale aktiboak.

Hegoaldean mugimendu euskaltzale indartsuko partaideak izan zitezkeen *Beribilez*en irakurle. Bertan pil-pilean zeuden abertzaletasunaren eta euskararen aldeko mugimendua, XX. mendeko lehen herenean. XX. mendea bi erraldoiren garaia da euskal letretan, Resurrección María Azkueren (1864-1951)[625] eta Sabino Aranaren (1865-1903)[626] garaia. Azkuerekin

624 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 39 or.

625 Kintana, J. (2015). *Azkue, Bilbotar ezezaguna*. Donostia. Erein.

626 Mees, L. (1991). "Europako herri txikien esnatzea". *Jakin* 66. 65 or.

zuzeneko harremana izan zuen Jean Etxeparek. Euskaltzain bihurtzeko gonbitea jaso zuen Etxeparek Bilbotik Azkue euskaltzainburuak egina, nahiz eta azkenean proiektua gauzatu ez.

Bestetik, testuko etika-zantzuetatik abiatuta, garai hartako gizartearen erradiografia xume bat egingo da, hobeto nabarmentzeko testuak estalian dakartzan balioak gaur egungo irakurlearentzat. Dudarik gabe, Jean Etxepareren garaiko irakurleek aurrez aurre zuten errealitatea ez da gaur egun irakurleok duguna.

4.1. Gizarte sektore bat arbuiatua Donostian

Kanbotik egunsentian abiatuta, automobil biak Donostiara ailegatzen dira iluntze aldera, eta bidaiariak Kontxara doaz hondartzara ostera bat egiteko sasoiz daudela-eta, narratzailea izan ezik.

Jean Etxepare helduak Donostia zeharo aldatuta ikusten du, gaztetako beste bisitaldi batzuetako hiriaren aldean. Gipuzkoako hiriburuan, gogaituta agertzen da XX. mendearen hasierako hiri-hazkundearen norabideaz. Horrekin lotuta, idazleak ez du gogoko “Belle Époque”-ren boladan gauzatu zen arinkeriako giro donostiarra. Luxuzko aisialdi horren abaroan berariaz sortu zen arkitektura ere ez du gogoko. Idazlea asper-asper eginda dago hiriko masifikazioaz ere.

4.1.1. Hiriaren hazkunde zentzugabea

Donostiaren balorazioari idazleak eskaini dizkion zatirik behinenak emango dira jarraian. Agian, luzeak izan daitezke aipuak, baina analisiaren haria jarraitzeko nahitaezkoak:

> "Garbiki erraiteko, ez dut maite Donostia. Aspaldiskoan, urthetik urthera ttipitu zait, ez bakarrik hiriarenzat naukan amodioa, bainan oraino tokiaren beraren alderakoa. Iduri zuen hunek ohantze bat lehen, laborantzako alhor bat, baratze bat kasik. Itsas-aldetik, dakizun bizkar konkor harek berak beiratzen zuen. Ez osoki, haatik; arteka batetarik uzten zuen itsaso-muttur bat sartzera alhorreraino, zabaltzera ere ba apur bat, eztiki. Arteka haren erditik xutitzen zen mendoi kazkar arkaizdun bat, iduriz itsasoaren oldarra hobeki hausteko oraino. Iuzpegi ala eguerdi alderat, lerdoin gorasko batzuek inguratzen zuten, mailez-mail bat bertzea baino larriago.
>
> Orai, baratze, alhor, pentze, iraztor, bazka-leku hek, dena etxe dira. Egoitzetako harri lantuek dituzte estali. Badela egoitza ederrik ez dut ukatuko, bainan arras gutiak dira begiarentzat bezala adimenduarentzat eder direnak. Gehienek badute eskas bat: arimakoa.
>
> Egileek beldurra dut etzakiten Olerkia zer den. Erosoan bizitzea, ba; ez, ordean, zeru-alde noizean behin gogoaren airatzea.
>
> Mediterranea etzuketen ezagutzen; Grezian gaindi etzitazken ibiliak nihoiz.
>
> Gaur den egunean, arruntago baizik ez da bilakatu jendea, han nola bertzetan. Metaka sartzen da atzerritarra. Aberasten duke tokia, bainan ez hobetzen. Aberastasuna ez da aski, gizonaren ontzeko. Ardurenean ez othe du apaltzen, bizizale zuhur eta geroago lehiatsuago batetik eginez gozazale iztil bat?"[627]

Semiotikaren arloan, goiko aipuan azpimarratzen da eraldaketa burges orduan berriaren aberekeria kantitatearen alorreko semantikaren bitartez *(dena, metaka, gehienak, arras gutiak, nihoiz…*), alegia, aldaketaren ondorioz dena saldoka aldatu dela, txikia baina maitagarria zen hiriari sekulako erasoa eginez. Handinahikeria horri kontrajarria, Jean Etxeparek azpimarratzen

---

627 *B.* 84

du hirigune berriaren kaskartasuna, eskastasuna, ezaintasuna: kantitatearen alorreko semantikaz gain kalitatearen alorreko semantika (*eskas bat, -ago…*) ere aipatua da, bistan denez.

Azpimarratzekoa da, bidenabar, irakurleari egiten dion keinua: "Itsas-aldetik, dakizun bizkar konkor harek berak beiratzen zuen". Irakurleak Donostia ezagutzen du, ustez. Bertoko irakurlea da, 1928an, bere txokotik irtendako norbait, donostiarra ez bada. Horrek irakurleen zirkulua estutzen du, nolabait, turismoa ez zegoen-eta, gaur bezain zabaldua, nahiz eta masa-turismoa abian egon, trenen eta autoen bitartez. Hala ere, uste izatekoa da Etxeparek bezala auto bat erabiltzeko aukera errealak zituztenak ez zirela gehiegi izango, urte horietan[628], eta garraio publikoa ere ez zela masiboa izango. Ordea, ez dugu pentsatu behar garraio modernorik ez zenik garai haietan: iraultza industrialak trenbideak eta errepideak garatzea ekarria zuen ordurako (1928), esan den bezala. Liburuaren hari narratiboaren aldetik, Etxepareren bidaia-kontakizuna pioneroa da euskal literaturan.

4.1.2. Donostiaren bilakaera historia hurbilean

Gaurko irakurlearentzat, probetxugarria da burges txikiaren ikuspegia izatea Donostiako hiri orduan kosmopolitaz, ez baita ohikoa euskaraz horrelako testigantza bat izatea, sasoi hartan hain gutxi. Areago, jakingarria da idazlearen jarrera kritikoa, hiriaren gaitzespen hori testuinguruan kokatzea ez izanik alferreko lana.

Harrigarritzat har daiteke, akaso, mundua duen eta hiri handiak ezagutzen dituen Jean Etxepare doktoreak espantu egitea Donostiako bilakabideaz, bederen, gaurko ikuspuntu batetik[629]. Horretara, idazlearekin solasean jardun ahal da irakurlea, eta haztatu modako uda-egoitza zergatik arbuiatzen duen, Jean Etxeparek Donostiako bisita tesi moral bat ilustratzeko

628 Fernández Fuster, L. (1991). *Historia general del turismo de masas*. Madrid. Alianza Editorial.

629 Nekez aurkituko da idazlearena bezalako iritzi kritikorik, adibidez, hemen: Izagirre, K. (2002). (biltz.). *Donostia. Hiri bat literaturan. Antologia laburra*. Irun. Alberdania. Liburu horretan jaso dira hainbat idazleren ikuspegi. Bestetik, Etxepareren Donostia kontrasta daiteke Txirrita bertsolariaren bertso-sorta bateko Donostiarekin, non hiriaren bestelako ikuspegi bat ematen den. Xabier Letek musikatutako Txirritaren bertso horietan Donostia da bikote-bidaiak eta antzekoak egiteko tokia. Ordea, ikuspegi kritikorik ez da aurkituko bertso horietan.

erabiltzen baitu. Planteamenduak gaurkotasuneko gai batera gakartza, noiz eta turismo jasangarriaren eztabaida mahai gainean dagoenean.

Narratzaileak adierazten du ezinegona Donostiara ailegatzean, ahalegina egin behar badu ere ("Garbiki erraiteko, ez dut maite Donostia. Aspaldiskoan, urthetik urthera ttipitu zait, ez bakarrik hiriarenzat naukan amodioa, bainan oraino tokiaren beraren alderakoa"). Donostia berriaren gaitzen diagnosia egiten du, sendabidea eman gabe.

Kontuan hartzekoa da Jean Etxeparek Donostia aldatzen ikusi duela 1900etik 1930era bitarteko urteen joanean, zenbait bisita egin baitizkio hiriari; idazleak hiriaren bilakaera lekuko gisa ikusi du. Horregatik, bitartean hirian zer nolako egoera- eta giro-aldaketak izan diren errepasatzeak lagunduko luke idazlearen kritikaren testuingurua ezagutzen. Izan ere, XX. mendeko lehen herena azpimarragarria izan zen Donostiaren bizitzan dinamismo ekonomikoagatik.

XIX. mendean Donostiak hautua egin behar izan zuen, hau da, bere hazkunde urbanistikoa proiektatzea, merkataritza-hiri gisa ala udako hiri gisa[630]. Labur beharrez, esango dugu ondorio gisa Gipuzkoako hiriburuak udako hiri gisa garatzea erabaki zuela, turismoari begira[631]. Ordea, komeni da historia apur bat egitea, Etxeparek ikusi zuen aldaketaren zentzua jasotzeko, eta ulertzeko beraren idearioan zer burubide hartu zuen.

---

630 Donostiaren hazkundea XX.aren hasieran honelakoa izan zen: "Se puede decir que lo que hoy constituye el centro de San Sebastián se construye entre 1867 y 1910, quedando de esta forma todo el espacio ocupado. La ciudad sigue su expansión con la construcción de numerosos edificios públicos y obras de infraestructura urbana, en un periodo que podemos considerar fechado entre 1890 y 1925 y con especial intensidad entre 1905 y 1915-19. La burguesía pasó pronto a ocupar las nuevas edificaciones de pisos mientras que el casco viejo permaneció como lugar de habitación más popular. Por su parte el principio de zonificación se continuó en el nuevo diseño de la ciudad. Las intervenciones en su casco antiguo parecen escasas o al menos no guardan relación con las registradas en el Casco Viejo bilbaíno. En lo que se refiere al problema de la escasez y carestía de la habitación, si bien es cierto que también se dejan oír en esta ciudad, su gravedad no es comparable a la del ejemplo anterior". Gómez Piñeiro, F. J. (1984). *Aproximación a la Geografía Social y Urbana de la Comarca Donostiarra*. San Sebastián. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. 28 or.

631 Boulevaristek eta antiboulevaristek Donostian eztabaida biziak izan zituzten, hiriari eman beharreko tornuari buruz: "La aportación que hubo de incluir Cortázar [izeneko arkitektoak bere hiri-plangintzan] […] fue el concepto de Boulevard abierto y libre de edificaciones. A partir de este momento en San Sebastián se produce una querella entre los alamedistas (boulevaristas) y antialamedistas (antiboulevaristas) y entre ambos diferentes concepciones tras las que se esconden también intereses contrapuestos (…) entre ambas posiciones se desarrollaba una profunda diferencia ente la concepción urbana respecto al modelo global de ciudad, mientras que antiboulevaristas, es decir los que se oponían al trazado de la Alameda como gran paseo arbolado y abierto, al que consideraban como un exceso, defendían fundamentalmente la ciudad-mercantil con almacenes en el puerto, y eventualmente otro

Donostia, Neguri, Lekeitio… beste kostaldeko hirigune asko bezala, bainu-hiri bihurtu ziren XX. mendearen hasieran. Aipagarria da idazleak bisitatzen eta aipatzen dituen bainu-hirien kopurua: Zumaia, Zarautz, Zestoa… badirudi turismoaren lorratzetik segika doala.

4.1.2.1. Donostia uda-leku

Monarkia espainiarrak begiak jarri zituen Donostian udaldia pasatzeko, XIX. mendearen erdian. Isabel II.a (1830-1904) izan zen eragile nagusia, erregina izan baitzen 1833-1868 bitartean. Donostiara uda pasa joan ohi zen, Kantauriko itsas-bainuak osasunarentzat ernagarriak zitzaizkiolakoan norberari.

Isabelen ostean, Maria Kristinak Donostiara lekualdatu zituen Gortearen udaldiak (1887), erregente zela (1885-1892). Besteak beste, Maria Kristinak altxarazi zion Selden Wornum arkitektoari erregentzian, gaur egun Miramarreko Jauregia izenarekin ezagutzen duguna, erret familiaren egoitza gisa erabilia izateko.

> "Huna oraino, gure eskuinetarik, lerdoin batzu dena jauregiz estaliak: hotarik ederrena lehen mailean, gorrats, luze, itzalpe batzuekin harateko aldetik: erregeren eta hunen familiaren udako egoitza"[632].

Jakina denez, erret familiarena izan da jauregia, oraintsu Donostiako udalak Borboiko Juani diruz ordainduta erosi arte, Antonio Mª Labaien alkatea dela. Maria Kristinaren izena dute, bai Urumearen gaineko zubi ikusgarriak (1904), bai hiriko hotel nagusiak (1912), zenbaitek Donostiako bultzada turistikoa gidatu zuen erregina gogoratu nahi eta, harentzako esker ona erakutsiz.

---

importante puerto fluvial en Amara. Al contrario los boulevaristas querían una ciudad con más paseos, jardines y museos botánicos a fin de desarrollar una Donostia veraniega, en torno a los baños de mar". Galarraga, I. (1996). *La Vasconia de las ciudades. Bayona, Bilbao, Pamplona, San Sebastián, Vitoria/Gasteiz. Ensayo arquitectónico e iconográfico*. San Sebastián. 118 or. Bibliografia gehiago: Basurto Ferro, N. (2004). "La arquitectura ecléctica". *Ondare* 23.

632 *B.* 85

4.1.2.2. Hiri desnaturalizatua

Geldiro-geldiro, udatiarren gizarteak behar zituen hiri-baliabideak metatzen hasi ziren Gortearen inguruan: kasinoa, zezen-plaza, bainuak, dantzalekuak, kiroldegiak; auto-, zaldi- eta belauntzi-lasterketak antolatu zituen; eta, beste esparru batean, ohitura sexual arinak[633]… Gaur egun hain naturaltzat daukagun hondartzaren aisialdiko erabilera berak ere istilua sor zezakeen idazlearen gogoan:

> "Izaitez, erabeak nauka legartzarat joaitetik. Goainditzen nu hango nagikeriak; ez dezaket jasan, itsasoari errara beha dagozin zonbaiten aberekeria. Zitzi eta mami, papo eta gibelalde ozar sobera dakusketalako izia larru-barneari datxit"[634].

Alde batera txundigarria izan dakioke horrelako sexu-planteamendua Jean Etxepare beraren "Amodioa" kontakizuna ezagutzen duen euskal irakurleari, *Buruxkak* liburuan[635]. Kontuan hartu beharko litzateke, idazki batetik bestera hogei bat urte pasatu zaizkiola idazleari, alegia, hogeita hamahiru urte izatetik berrogeita hamabi izatera pasatu dela. Azken batean, hondartza-zaletasuna udatiarrek ekarritako ohitura kanpotarra besterik ez da, eta Etxepareri sentsualtasun hori gustatu ez. Koherentea dirudi idazleak hondartza deskalifikatzeak, Donostiako fribolitate-giro guztia kritikatzearekin. Beheratxoago aztertuko da gozamen mota bat nola kritikatzen duen Etxeparek.

Donostiako kasinoa ere, berdenboran, hamalauko Gerla Handiaren osteko deserosotasunen eta hondamendien ihesi zebiltzan eukitsuen aterpea zen, kostako hirian baitzegoen beste inon aurkitu ezina: Donostiako "udaldi eroa". Politikariak, tronua galdutako erregeak, mota guztietako artistak, nahasi egiten ziren tangoaren edo txarlestonaren doinuetara. Erruletaren bolatxoak kezkak ahantzarazten zituen, emozioak astinduz. Espioiak ere tartean

---

633 Arjona, J. J. (1979). *Donde el veraneo nace. San Sebastián 1887-1979*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.

634 *B.* 86. Gogoratzekoa izan daiteke hasieran emakumeak baino ezin zitezkeela hondartzaratu. Gizonak begira geratzen ziren areatzara eskutokietatik hara. Aztal lehiaketak ere izan ohi ziren. Ikusi: Casenave, Jon (1977). *La vie quotidienne au Pays Basque à la "Belle Époque"*. Paris. Delta Expansión. Autore honek badu liburu sorta polita euskal kostaldeaz, postalen bildumak barne, garai hartako egunerokotasuna ezagutzeko ezin utzizkoak. Bildumagile hori ez da nahastu behar Jon Casenave literatur adituarekin.

635 Etchepare, J. (1910). Jatorrizko argitaraldia. *Buruchkak*. Tours. Imprimerie Mame.

zebiltzan. Giro honetan hazi zen Mata-Hari (1876-1917) dantzari eta espioia. Ordea, oroz gain, lehia optimista batek biziraupeneko botika gisa kurritzen zuen[636].

Turismoaren diru-ekarpena ez zen izan hutsaren hurrengoa, turismo-zerbitzuen arloko donostiarren aurreikuspenekin bat:

> "Algunos autores contemporáneos se atrevieron a cuantificar los ingresos generados por el turismo, haciendo unas evaluaciones en los años 1906 y 1915 que se movían en torno a los 20-22 millones de pesetas. [Artola, M. (Ed.). Historia de San Sebastián. Op. Cit. Pág. 344]. Esta cantidad (a modo de dato orientativo) podría suponer del orden de los 18.750 millones de pesetas del año 2002"[637].

Baina, errepika dezagun, Etxepareren ustez, goi-mailako turismo udatiar hori ez zen beti zilarra ("Aberastasuna ez da aski, gizonaren ontzeko")[638].

Gainera, Kanboko bidaiariak inpresionatuta daude. Bi elementu sorgorgarri aipatzen ditu idazleak: trafiko trinkoa eta soldaduen ugaritasuna; herabetuta geratzen dira bidaiariak Donostian, Iruñeko hirian dinamismo punta bat nahiago izan bazuten ere. Esan denez, Donostian handikiak biltzen ziren; haien inguruan militarrak:

---

636 Orduko gorabeherak ezagutzeko: Vivas, I. (2010). "Itsas bazterreko hiri-paisaiaren egituraketa eta eraiketa sinbolikoa" *Zainak* 30; Lekerikabeaskoa, A. eta Isusko Vivas (2010). "Itsas bazterreko espazio urbanoa eraikitzen: arkitektura, eskultura eta hiri-altzariak Donostiako badian" *Uztaro* 75.

637 Basurto Ferro, N. (2004). "La arquitectura ecléctica". *Ondare* 23, 35-76 or. Artikuluak 55 orrialdean dakarren aipua da hau, iturri honetatik: Tortella, G. *El desarrollo de la España Contemporánea*. Madrid. Alianza Editorial. 2001. Pág. 367.

638 Materialismoaren gaurko panorama sintetiko baterako: Kasser, T. (2003). *The high price of materialism*. Cambridge, Mass. MIT press.

Panorama jori hori deskribatzen da honako aipuan ere: "Por su parte San Sebastián tiende a una mayor especialización y a lo largo de este siglo XIX se va conformando y definiendo como una ciudad estacional para el reposo y vacaciones de la Realeza española, así como para el veraneo y turismo en general, pero sobre todo sabrá aprovechar una de sus fuentes de ingresos más lucrativas, el juego. Se decantará así por el modelo de ciudad balneario, bella, bien cuidada, a la manera de Baden Baden, Ostende, Brighton o la vecina Biarritz, de modo que será la ciudad del Casino, los hoteles, los baños de mar.

La consagración de San Sebastián como una ciudad moderna y cosmopolita se produjo entre la primera década del siglo XX y, sobre todo, durante la Primera Guerra Mundial. Era una ciudad en la que, como en la Potosí peruana de la conquista, eran posibles todos los excesos: juego, salas de fiesta, espectáculos, ópera, teatros, cines, cafés, lujo, prostitución, carreras de automóviles, de caballos… Era una de las ciudades europeas más modernas: electricidad, tranvía, teléfono automático municipal, funiculares, higienismo, sanidad" [azpimarra gurea da] in: Basurto Ferro, N. (2004). "La arquitectura ecléctica". *Ondare* 23, 35-76 or. Ikusi, era berean: Luengo, F. (1984). *San Sebastián. La vida cotidiana de una ciudad. De su destrucción a la Ciudad Contemporánea. (Sus gentes, costumbres, imagen, sociabilidad).* San Sebastián. Txertoa.. 100 or. eta hur.

"Tranbiek, otomobilen ugariak, oinkarien usuak, alde orotarik beharrietarat heltzen zaikun burunba bitxiak, hiriko zer guziek, hots, erne baino erneago ezartzen gituzte eta orozbat erabetzen. Gainera, soldadoz eta hirizainez ebroa etzaikuia atheratzen zoko guzietarik! Xuxen ibiltzeko duke hemen gizonak, nor-nahi izan dadin"[639].

Espainian ere 98ko belaunaldiko autoreek hiria arbuiatuko dute, *Beribilez*en ematen diren arrazoi berengatik, alegia, masifikazioa eta presakako gizarte-aldaketa kaltegarrien emaitzak direlako.

639 *B.* 85 Urte haietan militarrek leku handia zuten Donostian, *Beribilez*ek deskribatzen duen bezala: "Ildo horretan eta itsas bazterreko lur lauetan, Alderdi Ederreko partean militarrek zeukaten maniobra-zelaia lorategi bihurtzea edota itsas bazterrean kokatu nahi zen aduanaren ordez kasinoa eraikitzea izan ziren, beharbada, kontzepzio-aldaketaren sinbolorik behinenak, ur-bazterreko paisaia urbanoetan eragin indartsua islatuz". Vivas Ziarrusta, I. eta Amaia Lekerikabeaskoa Gaztañaga. (2010). "Espazio urbanoa eraikitzen: arkitektura, eskultura eta hiri-altzariak Donostiako badian". *Uztaro* 75, urria-abendua. 13 or.

4.1.2.3. Arkitektura klase-adierazgarri

Ez dakigu xuxen Jean Etxeparek nabarmen uzten dituen edertasun arimagabeko egoitzek akatsa arkitektura-eskola batekoa ala bestekoa izateari zor dioten ("Badela egoitza ederrik ez dut ukatuko, bainan arras gutiak dira begiarentzat bezala adimenduarentzat eder direnak"[640]). Saiatuko gara hipotesiren baten bideragarritasuna aztertzen, ikusteko Jean Etxeparek arbuio horiek jaulkitzeko zein arrazoi izan zitzakeen.

Donostiako kritikaren azpian bada estetika bat, eta etika bat ere bai, ikusiko denez. Txomin Agirre Etxepareren garaikideak ere antzeko balorazio moralak egin ditu ez arkitekturari buruz zehazki, bainan bai idazlanei buruz, eta oro har[641]. Bi euskal idazleak bat datoz tesi honetan: atsegina edota plazera sortzen duen artelan oro ez da nahitaez onuragarria gizakiarentzat; Jean Etxepare Donostiako arkitekturari lotzen zaio lehia bereziaz, Txomin Agirre, aldiz, irakurgaiei.

Euskal lur hauetan ezagutu den erlijio modu batek beharrezkoa egin du, berari erantzunez, idazle batzuek premiazkoa ikustea plazeraren errebindikazioa, are urte dezente geroago. Adibidez, plazeraren euskal izen ona berreskuratzekotan, plazeren zerrenda bat egitera behartua ikusi du bere burua Andolin Eguzkitzak ez hain aspaldi[642].

Bide batez, gogora daiteke nihilismoaren ondorioetako bat dela dena atsegina/desatsegina galbahearen bitartez bahetzea. Balio tradizionalak hondoratu eta Jainkoa hil omen den honetan, beste irizpiderik ez dago plazera eta desplazera baino, jokabidea arautzeko. Friedrich Nietzschek psikologikoki aztertu zuen fenomenoa, eta ez dago Jean Etxeparek planteatzen duenetik urrun, kontuan izanda Etxeparek alemanaren pentsaera ezagutzen zuena. Dekadentziaren deskribapena antzekoa da bi autoreetan, gaur egungo

---

640 *B.* 84

641 Garcia Trujillo, S. (1993). *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre I* Bilbao. Desclée de Brouwer, 299 or. Honen harira, estetikari eskainitako atalean aipatu ditugu, jadanik, Maria Jose Kerexetak eta Jon Juaristik Jean Etxepareri egindako kritika orokorrak, honako ere harira datozenak. Kerexeta, M. J. (1987). "J. Etchepare" in: *Beribilez*, Euskal Idazleen Elkartea. 21-30 or.; Juaristi, J. (1987b). *Literatura vasca*. Madrid. Taurus.

642 Eguzkitza, A. (1984). "Plazera sor- eta helburu-. Plazer-hatsarriaren defentsan". *Jakin* 33. 119-124 or. Beraren ondotik hainbat saio aipa litezke: *Ostiela* aldizkaria (1996-2006), hainbat literatur lan (Edorta Jimenez…)…

filosofiara arte luzatuko den dekadentziaren itzala. Gizaki dekadentearen ezaugarrietatik bat da sufrimenduari beldur izan, eta sufrimendu oro ekidin nahiz, plazer hutsetara ematea bere burua[643].

Gure ustez, Jean Etxepareren irizpidea da Donostian den "Belle Époque"-ko gizartea goitik behera kritikatzea, arkitektura barne, jendarte gidari dekadente baten bizimoduaren espresioa delako memento horretan. Dekadentzia hori Lehen Mundu Gerrako triskantzaren ondorioa izan zitekeen:

> "En somme, tandis que l´élite bourgeoise d´avant 1914 cherchait sa force dans la bonne conscience, et cultivait les bons sentiments, celle de 1920 à 1930 prouvait la sienne par l´autocritique et la confession du pire"[644].

Segidan murgiltze saioa egingo da hiriaren bilakaera arkitektonikoan eta urbanistikoan.

4.1.2.3.1. Eklektizismoa

Ez zebilen hain aparte medikua, ikusgai zuen arkitekturari gizarte-esangura bat egokituta. Ikusi dugu *Beribilez*en zehar nola etengabe idazleak eraikinen arkitektura baloratzen duen, onetsiz ala gaitzetsiz. Etxepare jakitun zen Europako klase gidari berriaren burubideez, burgesiak arkitektura-estilo jakinak hautatu baitzituen nortasuna adierazi eta nagusigoa sendotzeko, gizarte tradizionaleko klase agintarien (aristokrazia, kleroa) aurka, atzeraka baitzihoazen:

> "Hogeita bost urtetan Donostian buruturiko arkitektura gehienak eklektizismo frantsesa izan zuen eredu, zeren "Beaux Arts" edo "Bigarren Inperioko" estiloak burgesiari aukera ona eman baitzion ongizatea eta irudi kosmopolita errepresentatzeko.

---

643 Muller, E. "Placer" eta Gerar Visser: "Nihilismo" sarrerak in: Cano, G. (arg.). (2012). *Diccionario Nietzsche*. Madrid. Siglo XXI.

644 Salaberry, E. (1963). "Un maître de la pensée. Son Excellence Monseigneur Clément Mathieu". *Gure Herria* 35-1. 5-20 or. 43 or.

Pariseko eragina oso nabaria izan zen Donostian, ez bakarrik eraikuntza arkitektonikoan, baizik eta beste elementu urbanoetan ere. Berrezarpenaren (Errestaurazioaren) garaian (1876-1902) Donostian oso argi zeukaten jadanik aisialdirako eta turismorako aktibitateak ezin zituztela ahaztu, monarkiak aukeratua baitzuen udako bizileku gisa"[645].

"Beaux Arts"-en inguruko eklektizismo frantsesa nagusituko zen Jean Etxepareren garaian, hau da, Alfontso XIII.aren (1902-31) erregealdian, Maria Kristina hotela lekuko (1909, Meuwes). Ondoren, neoplatereskoa ere agertuko zen: erakusgarri behinena du Maria Eugenia Antzokia (1910, Urkola); Antzokia da historizismoa espainiartzearen lekuko nagusia, berez, Parisera begiratu beharrean Salamancako Monterrey Jauregiari begiratzen baitio.

Azken aldaera eklektiko horren ostean, etorriko ziren "Art Nouveau" eta beste joera batzuk XIX.eko arteari akabera emango ziotenak. 30 urteetan Razionalismoa nagusitu zen, Kontxako Klub Nautikoan ikusgai baitago[646].

Hiriaren bokazio turistikoari begira, ezaguna da historikoki Donostiako udalak kezka hartu zuela eraikinei ukitu artistikoa emateko, hasi eraikin apalenetatik eta buka esanguratsuenetan. Nolabaiteko "demokratizazio" honek isla zuen udaleko aurrekontuetan, inguruko hiriekin konparatuta ezohikoa zena (Bilborekin, adibidez). Udalak hiria edertzeko aurrekontua izanik, arkitektura publikoak eta pribatuak antzeko arreta eta jarraipen estetikoa izan zuten. Amuzkia zen arkitektura, bisitari dirudunak erakartzeko[647].

---

645 Isusko Vivas Ziarrusta eta Amaia Lekerikabeaskoa Gaztañaga. (2010). "Espazio urbanoa eraikitzen: arkitektura, eskultura eta hiri-altzariak Donostiako badian". *Uztaro* 75, urria-abendua. 13 or.

646 Gaztelerazko originala: "Aunque la influencia del eclecticismo francés persistió en los primeros años del reinado de Alfonso XIII (1902-31) como puede verse en el Hotel María Cristina (1909 Meuwes) poco a poco su importancia como modelo a seguir fue disminuyendo ante un proceso de nacionalización del historicismo que provocó la aparición de estilos como el neoplateresco cuyo máximo exponente donostiarra es el Teatro Victoria Eugenia (1910 Urcola) que ya no miran a París sino al Palacio de Monterrey en Salamanca. Junto a esta variante todavía ecléctica ya se difundía el Art Nouveau y otras tendencias que terminarían acabando con la arquitectura decimonónica para dar paso al triunfo del Racionalismo en los años 30". Cendrero Iraola, Alejandro. (2004). "La influencia francesa en la arquitectura pública donostiarra durante la Restauración" *Ondare* 23, 255-265

647 Basurto Ferro, N. (2004). "La arquitectura ecléctica". *Ondare*. 23, 35-76 or. 55 or. Interesgarria euskaraz, gai beraren inguruan: Nieves Basurto: "Arkitektura eklektikoa" http://www.hiru.eus/eu/arte/la-arquitectura-eclectica in: www.hiru.com [2016-04-22]

4.1.2.3.2. “Art Nouveau”

Etxeparek arkitektura-panorama deigarria zuen begien aurrean. Arkitektura kontuetan nahiko aditua eta mokofina izaki, *Beribilez* lekuko, agian, erreparo handiagoa izan zezakeen bereziki “Art Nouveau” delakoaren aurrean. “Art Nouveau” da bidaiariak gaitzesten duen goi-burgesiaren adierazgarri eta espresiobide indartsuena. Gaur egun ere, Donostian zehar paseatuz gero, uste baino gehiagotan ikus daitezke han eta hemen “Art Nouveau” horren aztarnak, etxeetako fatxadetan.

“Art Nouveau” zen burgesiaren aldarria klasizismoaren kontrakoa, klase agintari tradizionalen nagusigo artistikoaren kontrakoa, alegia. Historikoki, “Art nouveau” Kataluniako “Modernisme”-rekin abiatu zen (circa 1888).

XX. mendearen lehen hamarkadan, estilo modernistako apaingarriak zabaldu ziren hirian zehar, frantsesen erara eta, noizbehinka, Vienakoen erara.

Postulatu liteke Jean Etxeparek Donostian gustuko ez duen arkitektura mota hori bereziki “Art Nouveau” delakoaren ildokoa izatea. Estilo hori da burgesiak modernitatera jauzi egiteko ahaleginaren isla, Europako arkitekturan. Burgesia berriak (industrialariak, merkatariak, lanbide liberaletakoak) nahiago du estilo propioa, gortea edo nobleak imitatu beharrean. Burgesiak eroso bizi nahi du, marko harmonikoan.

“Art Nouveau” estetizismoarekin lotuta zegoen, hau da, Joris-Karl Huysmans (1848-1907) idazle dekadente sonatuaren *À rebours* (1884) eleberriko giroarekin. Horren harira, imitatzeko eredu bihurtuko zen Des Esseintes eleberriaren protagonistaren etxea. Axolagabekeria eta fribolitate horiek aseko zuten gizartea Frantzian, XX.aren hasieran.

Jean Etxeparek ere estetizismo eta arinkeria horren berri bazuen, estetizismoaren ondorioak euskal kostaldearen eguneroko bizimoduan errotuta baitzeuden sendotasun bereizgarriz, hala Iparraldean nola Hegoaldean. Jean Etxeparek ezagutzen zuen Frantziako gizartearen atal burgesa, Iparraldera etorria baitzen aisialdian aspalditik, Donostiara bezain goiz edo goizago. Urrutiago joan gabe, ordu hartako kinka hori ere nabaria zen Kanbo idazlearen

beraren herrian ere, eta bertatik bertara ezagutzen zuen[648]. Donostiako arkitektura- eta bizitza-estilo berak ere Frantziak eraginak ziren, esan denez.

Nolanahi ere, ez ginateke harrituko Jean Etxeparek hastio bazituen, ez bakarrik "Art Nouveau" estiloa, baita "Beaux-Arts" izeneko estiloa ere hein berean, burgesia frantsesaren itzalpean sortuak baitziren, eta ezagutuko baitzituen. Badirudi Donostiak duen ukitu frantses ospetsu horrek ez ziola zirrara berezirik sortzen Kanbokoari, alderantziz baizik.

4.1.3. "Belle Époque"-ren nasaikeria kolokan

4.1.3.1. Gogoa zeru-alde airatzea

Donostiaren bilakaera ezagutu du Jean Etxeparek XX. mendeko lehen herenean, eta iritzi txarra sortu dio hiri gisa. Idazlearen balorazioak bidea ematen du haren pentsamoldea osatzeko hiriaren urrezko aroari buruz. Saiatuko gara laurogei urte geroago jarrera hori ulertzen, ez baita begi-bistakoa: segidako paragrafo hauetan Donostiaren izaera moral berezia sakonduko da, 1900-1930 tarte horretan[649].

Idazleak etxe berrien jabeei leporatzen die erosokerian bizitzea, inolako asmo goitiarrik gabe ("Egileek beldurra dut etzakiten Olerkia zer den. Erosoan bizitzea, ba; ez, ordean, zeru-alde noizean behin gogoaren airatzea[650]").

Idazleak aipatzen duen "zeru-alde gogoaren airatzea" parekatuko da hemen perfekzioaren bilaketarekin. Greziarrek, Atenaseko demokraziaren aurretik (K.a. V. mendea),

---

648 Honako ikerlan honetan "Belle Époque"-ko giroa deskribatzen da Iparraldean, Kanbon zentratua une batean: Goyhenetche, J. (1984). *Les origines sociales et historiques d'Eskualzaleen Biltzarra (1893 - 1913).* Travail entrepris dans le cadre d'un contrat de recherche entre le Ministère de la Culture et l'Institut Universitaire de Recherche Scientifique de l'Université de Pau et des Pays de l'Adour. Sarean atzitua. Lan honetan "Belle Époque"ko giroa deskribatzen da Iparraldean, Kanbon zentratua une batean.

649 Honela, Donostiako etxe berriei buruz ari dela, Jean Etxepareren pasartea irakur daiteke fruituz: *B.* 84

650 B. 84

bazuten perfekzioaren (*arete*) ikuspegi bat[651], eta handik hedatu zen Europako kulturara, ziur aski[652]. Agian, bertute aszetiko horren geroko garapen garrantzitsuenen artean, aipa daitezke, hala Platonen[653] nola Aristotelesen[654] ikusmoldeak; baita Plotinorena ere bai[655]. Perfekzioari greziar klasikoek *arete* deitzen zioten, beste hitzez, noblezia.

Ederrerako jaidura hori lotuta dago perfekzioa bilatzearekin. Jean Etxepare buru-belarri sartuta zegoen bilaketa horretan (*quest*, ingelesez), Piarres Lafittek dioenez ari bazen, behinik behin, hau da, "beti ontuz, ardo ona bezala"[656].

Hari beretik, idazleak *Beribilez*en sustatzen duen "gogoa zeru-alde airatzea*"* pareka daiteke Eros platonikoarekin. Etxeparek gaitzetsi egiten ditu erosotasuna eta hedonismoa, aberastasunarekin batera etor baitaitezke. Ordea, hobesten du goiko gauzetara gogoa altxatzea.

Platonen baitan, Erosa zentzuei gailentzen zaien arrazoia da: "the state of the soul in which intellect rules securely over the others elements"[657]. Eros platonikoak, beraz, gogoa airatzearen moduko zerbait planteatzen du: zentzumenek eskainitakoa gaindituta, maitasunaren bitartez (*eros*) goiko zeretara bideratzea gogoa. Gaur eguneko hizkera kolokialean *erotikoa* beste zerbaiti deitzen zaio, paradoxikoki, baina hori beste kontu bat da.

Oturuntza izeneko elkarrizketan azaltzen du Platonek zer den Erosa, filosofo ospetsuaren solasaldirik ezagunenean; oraingo honetan, ari gara Sokratesek *Oturuntza*ren amaieran egiten duen berbaldiari buruz, non Erosaren teoriak humanismoa funtsatzen baitu. Gizakia bere ni-rik gorena garatzera deitua dago. Humanismoaren oinarria da gizakia gora

---

651 Jo daiteke Pindaroren idazkietara hasiera bateko lehen *arete* hori ezagutu nahi izanez gero. Jaeger, W. (1990 [1933]). *Paideia*. Madrid. FCE. liburuak lagun dezake Grezia klasikoaren eboluzioa ulertzen.

652 Reale G. eta D. Antiseri. (1988). *Historia del pensamiento filosófico y científico* /// (Antigüedad y Edad Media). Barcelona. Herder. 144 or. Bertan irakur daiteke Werner Jaegerren aipua, non adierazten den kristau konbertsioaren jatorria Platonen garbikuntza-ideietan oinarrituta dagoela.

653 *Teeto* 172-177. http://remacle.org/bloodwolf/philosophes/platon/cousin/theetete4.htm [2016-05-23]

654 *Nikomakorentzako etika* I, 5. http://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/?f=87 [2016-05-23]

655 *Eneadak* III, 8. http://remacle.org/bloodwolf/philosophes/plotin/enneade38.htm [2016-05-23]. Ikuspegi zabalagoak in: Jankélévitch, J. (1960). *Le pur et l´impur*. Paris. Flammarion; Passmore, J. (1973). "Perfectibility of man" in: Wiener, P. P. (arg.). *Dictionnary of the history of ideas*. New York. Charles Scribner´s sons.

656 Lafitte, P. (1941). "Jean Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas". 5-21, in: *Buruxkak*, Jean Etxepare. (1980). Elkar. 7 or.

657 Nussbaum, M. (1986). *The fragility of goodness*. Cambridge University Press. 204-206 or.

jotzen duen izaki gisa ulertzea, berezko gizabanako soil gisa ulertu beharrean[658]. Hori da Jean Etxeparek proposatzen duena. Zentzumenek eskainitakoek balio behar dute goiko adikizunetara jotzeko. Hitz bitan, Etxeparek Donostiako arkitekturaren eta bizimoduaren kritika humanista egiten du.

Kristautasunak ere bide horretatik joko zuen geroago, baina jatorria Platonengan dago, ez baitu Grezia aipatzen idazleak alferrik. Eta Grezian figura nagusi bat da Platon, Mendebaldeko filosofiaren oinarrian dagoena oraindik ere. Era berean, bazukeen Etxeparek gizaki arruntaren ikuspegi osagarri bat ere harira datorrena, *Beribilez*eko pasarte berean ("Gaur den egunean, arruntago baizik ez da bilakatu jendea, han nola bertzetan"[659]).

Gizaki arruntak, tamalez, gozamen erraza bilatuko luke guztiaren gainetik. Hori da Donostian biltzen den burgesia handi arrotzari euskal burges txikiak egiten dion kritika ("Aberastasuna ez da aski, gizonaren ontzeko. Ardurenean ez othe du apaltzen, bizizale zuhur eta geroago lehiatsuago batetik eginez gozazale iztil bat")[660]. Nolabait, idazleak ahaleginaren kultura kontrajartzen dio Donostian sasoi hartan gailendua zatekeen "gozazale"-tasun "iztil"-ari[661].

4.1.3.2. Ona eta ederra

Agian, egitekotsua izan daiteke gaurko talaia urrunetik asmatzea zer zerabilten gogoan XX. mende hasierako literaturgile antiburges haiek, baina komeni da haiekiko solasaldi horretan murgiltzea ikerlan honetan, Jean Etxepare kokatzekotan panorama bat izateko. Bizi garen kulturaren nolakotasuna dago, medikuaren perpausak ulertzeko zailtasunen artean. Izan ere, esan liteke gaur egun gizarte nagusiki hedonistan bizi garela, edo bizi ginela orain dela

---

658 Jaeger, W. (1990). *Paideia*. Madrid. FCE. 586 or. Atal osoa dakar *Oturuntza*ri buruz, betiere paideiaren ikuspegitik, hau da, heziketa grekoaren ikuspegitik.

659 *B*. 84

660 Aristoteles. Nikomakorentzako etika I, 5. "Baina jarrai dezagun besteratu ginen lekutik. Izan ere, ez dirudi zentzugabea herri xeheak eta gogaikarriek uste izateak ongia eta zoriontasuna, bizimoduaren araberakoak izanik, plazera dela, eta horregatik atsegin zaie bizimodu lizuna". http://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/?f=87 [2016-05-23] . Frantsesezko bertsio hau, aldiz, ez da hain kategorikoa: "La foule et les gens les plus grossiers placent le bonheur dans le plaisir ; aussi montrent-ils leur goût pour une vie toute de jouissances". http://remacle.org/bloodwolf/philosophes/Aristote/nicom1.htm [2016-05-23]

661 *B*. 85

gutxira arte 2008ko krisia ailegatu orduko. Gauzak horrela, nola kritikatu hedonismoa gauden memento honetan?

Arkitekturari eskainitako atalean ikusi den bezala, edertasuna eta ona batera etor daitezke, hau da, adimeneko ona izan daiteke ederra ere, baina ez nahita ez, eta beti. Hori da, behintzat, Etxepareren aburua. Ez dirudi oraingoan idazlea tradizio klasikotik sobera urruntzen denik; *klasikoa* esatean, Larresoron jaso zuen heziketa dugu gogoan.

4.1.3.2.1. Orixeren ona

Idazle gutxik idatzi zuten euskaraz onaren eta ederraren, hau da, onaren eta atseginaren arteko harremanei buruz, XX. mendearen hasiera hartan. Haatik, Etxepareren irizpideez gain, baditugu Orixerenak ere, bederen. Horrela, Orixek "Estetika" izeneko artikulu sorta nahiko luzea utzi zigun.

Idazle bion izaera ideologikoak kontuan izanda, pentsa liteke desadostasun bat baino gehiago sortuko zirela onaren eta ederraren inguruan.

Orixe Etxepare baino 11 urtez gazteagoa izanagatik ere, belaunaldi berekotzat jo daitezke biak. Heziketa, Orixek erlijiosoengandik jaso zuen osotasunean. Etxeparek ere Larresoroko Seminarioan erlijiosoengandik jaso zuen bigarren mailako heziketa (1889-1894), nahiz eta gero Bordeleko Unibertsitatean egin mediku-ikasketak (1894-1901)[662].

Alde horretatik, antza, bi biek aburu estetiko parekoak jaso zituzten eskolan. Esan daiteke bat eta bera direla Jean Etxeparek aldezten duen onaren eta ederraren artikulazioa Donostiako hazkundea kritikatzean, eta Orixeren planteamendu orokorra.

Bi autoreon arabera, arteak -arkitekturak- ezin jar lezake plazera helburu bakar gisa. Ez dira estetizistak. Artea ez da balio gorena, zentzu horretan. Kristauen ustez, estetizista idolatra da, arteak helburu humanizatzailea behar baitu. Jean Etxepare helduak ere erreparoa dauka edertasuna gozatze hutsaren aurrean.

---

662 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 38 or.

Norbaiti otu lekioke espaz, agian, Etxepareren jarrera Larresoroko maisuen irakaspenekiko mimetikoa dela. Hala ere, kontuan hartu behar da Charles Baudelaire (1821-1897) batek, orduko gizartearen eskandalu-harria izan zenak, antzeko aburu "ortodoxoak" adierazten dituela idazkietan. Baudelaire epaitegien aurrean juzgatu zuten eskandaluagatik, baina horrek ez du kentzen poetak muturreko hedonismoa kritikatu izana[663].

Ideia nagusi gisa, esan daiteke Etxepareren ona ez dela kontzeptu-eduki konkretu bat *Beribilez* honetan. Etxepareren ona da erreflexibitatea, humanismoa ("gogoa zeru-alde airatzea"), dena delakoa izanik ere gogoeta horren edukia, hasiera batean. Ez du ematen Orixe horrekin bat letorkeenik: minimoa da Jean Etxepareren programa morala. Orixeren programa, aldiz, doktrina jakin batekoa da, nolabait esan.

Ez dirudi Europan boladan egon zitekeen *l´art pour l´art* mugimenduarekin bat datorrenik Jean Etxepare, bederen, Donostiari buruz dioenari men eginez gero. Hala ere, ematen du arrazoirik idazleak, ikerketa estetizismoaren arrastoari jarrai dakion, *Olerkia* aipatzen baitu goiburu gisa behin baino gehiagotan *Beribilez*ek ("[etxe ederren] Egileek beldurra dut etzakiten Olerkia zer den").

Euskal letren tradizioan, Orixek (1888-1961) formulatu zuen estetika klasikoa. Estetika klasiko batek ona eta ederra elkartzen zituen. Lehenik ona zen, gero egia eta azkenik ederra, hurrenkera horretan[664]. Orixeren ustez, ohitura onak ederrak ere baziren berdenboran: "eder-lanak eta on-lanak –oitura onak- elkarren kide ditezkela aitortzea, ez da handi"[665]. Ziur aski, hori izango zen Larresoroko Apaizgaitegian ere eta, orobat, Etxepareren orduko gizartean ere nagusi zebilen irizpidea.

Hala Orixeren nola Platonen estetiken baitan, poesiak ohitura arbuiagarriak irudikatzen baldin bazituen, orduan poesia itsusia zen, bi autoreek objektua eta objektuaren irudikapena nahasten baitzituzten.

---

663 Plazaola, J. (2012). *Introducción a la estética*. Bilbao. Universidad de Deusto. (4. arg.). Estetizismoaz, 549-550 or. Baudelaireren testu "antiestetizistak" 568-569 or.

664 Orixe (2002 [1951-55])"Estetika" in: Iztueta, P. (2002). *Testu hautatuak euskal estetikaz*. Donostia. Utriusque Vasconiae.

665 Orixe (2002 [1951-55])"Estetika" in: Iztueta, P. (2002). *Testu hautatuak euskal estetikaz*. Donostia. Utriusque Vasconiae. 78 or.

Geroago, Aristotelesek bereizi egingo zituen bi elementuok, jarduera artistikoari berezko duintasuna aitortuta. Zentzumenen munduak izaera ontologikoa izango du: ezagutua eta irudikatua izateko gai izango da harrezkero. Plazer estetikoa plazer kognitiboarekin bat dator, eta ez du imitagaiak sortzen, baizik eta ekintza artistikoaren kalitateak eta izaera etikoak[666]. Etxeparek dioenez: "Badela egoitza ederrik ez dut ukatuko, bainan arras gutiak dira begiarentzat bezala adimenduarentzat eder direnak"[667].

4.1.3.2.2. Erreflexibitatea

Gure ustez, Jean Etxepare bat dator, gogoa zeru alde airatzearen defentsa egitean, gaur egun gogoetazaletasunaren alde egiten den proposamenarekin. Beste izenez gizakiaren autonomia ere esan izan zaio, zenbait gizarte-instituziok kudeatzen izan duten gizakiaren heteronomiaren kontra, Kantek aspalditxo aldarrikatu zuenez "sapere aude" goiburuarekin[668].

Etxepare pioneroa da Euskal Herrian modernitatearen hasieran, erreflexibitatearen hastapenetan baitago orain arteko ibilbide luzean. Ikus dezagun non gauden orain postmodernitatean.

Fréderic Vandenbergher-en arabera, erreflexibitateak esan nahi du (klase ertaineko) gizabanako (gazteak) gero eta libreago daudela ohiko erlijio, tradizio eta moralek kulturalki behartuak izatetik. Libreago leudeke derrigortze estrukturaletatik ere: klasea, estatusa, nazioa, generoa eta familia nuklearra. Instituzio tradizionalek behartzeko ahala galdu arau, gizabanakoek gogoeta egin lezakete bizi nahi luketen bizitza klaseari buruz. Operazio erreflexiboaren ondorioz sortua da norberaren nortasuna. Arestian "naturala" omen zenak orain

---

666 Mauduit, Ch. (2005). "Mimesis" in: Leclant, J. (zuz.) *Dictionnaire de l´Antiquité*. PUF. 1405 or.

667 *B.* 84

668 "Zer da Ilustrazioa'" izkribuan, euskaraz ere irakurgai in: Kant, Burke, Volney, Cordoncet. (2005). *Pentsamendu Ilustratua: Idazlan hautatuak II.* Leioa. EHU. Honela dio liburuaren aurkezpenak: "Hala ere, mendearen ezaugarri intelektual nabarmenak *sapere aude* kantiarrera darama, hau da, aurriritzi arrunten eta erlijio sinesmenaren -behintzat superstizioan eta fanatismoan oinarritzen denaren- mugak gainditzeko arrazoia erabiltzeko halabeharrezko eskaera horretan". http://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/?f=91 [2017-07-26]

erabaki bat hartzea eskatzen dio gizabanakoari. Izan ere, gizabanakoek beren biografia taxutu behar dute aurrean duten bizimodu eta mundu ugaritasunaren aurrean, aukeratuz[669].

Jean Etxepare izango zen Iparralde hartan bizimodu-estilo ugaritasunaren aurrean hautua egin behar izan zuen lehen euskal idazleetatik bat, laiko ikasia baitzen, eta familia-jatorriz euskal ingurune tradizionaletik asketxoagoa, familia migratzailea Argentina ekintzailean luzaro bizi izan baitzitzaion. Amerikanoen izaera lehiakorrak ere izango zuen eraginik Etxepareren bilaketa berritzailean.

Etxeparek liburuan zehar gogoeta egiten du, hala gizarte tradizionalaren balioez nola goi-burgesiak dakarren bizimodu friboloaz; gogoeta egiteak edonor deseroso egiten du inguruan -kasu honetan, Jean Etxepare. Agian, puntu honetan elkar hartuta egon zitezkeen, hala burgesiaren nola indar tradizionalen agenteak, hau da, zehatzago, Iparraldera aisia bila etorritako burgesia eta Elizaren inguruko sektore tradizionalak.

Jean Etxepare burges txikia kurrika artean bezala atrapatuta zegokeen. Desadostasunak zituen euskal kostaldeko burgesia handiak sustatzen zuen garapen-ereduarekin, batetik, eta, bestetik, Elizaren inguruan bildutako euskal indar tradizionalekin ere bai. Bidenabar, Etxepareren gizarte-kokapen bera zuen EAJk Bizkaian Sabino Aranaren garaian[670]. EAJ defendatzen saiatu zen burgesia handiaren interesen kontra herri-geruzen eta klase ertainen interesak, XX. mendearen hasieran. Hala ere, sekularizazioaren eta klerikalismoaren gaietan, ziur aski, ez zetozkeen bat Etxepare eta jeltzaleak, medikua haratago joan zela.

---

669 Vandenberghe, F. (2006). "Réflexivité et modernité" in: Mesure, S eta P. Savidan (zuz.) *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF. 977 or.

670 Agirreazkuenaga, J. (2016). egindako hitzaldia *Askatasun eguzkia basotik irten da. Sabino Arana (1865-1903)* erakusketaren atarian. Sabino Aranaren inguruko erakusketa izan zen Bizkaiko Foru Aldundiak antolatua 2016ko udaberrian Bilboko Ondare Aretoan. Ikusi bide beretik: Mees, L. (1991). "Europako herri txikien esnatzea". *Jakin* 66. 65 or.

4.1.3.3. Gizontasuna eta gizagabetasuna

Jean Etxepareren ustez, "gizontasuna" -egungo gizatasuna- da oinarria etikaren arloan. *Gizontasuna* aipatzen da liburuan zehar dozena bat aldiz, eta adieraz dezake gizakiaren jokabidea arautu eta bideratu dezakeen irizpide eredugarria.

Hainbat arau ezkutatuta egon daitezke, *prestutasuna*ren kontzeptutik hurbil dagoen *gizontasun*aren kontzeptu horren azpian: ekonomikoa, politikoa, juridikoa, etikoa, generikoa, etab.[671]. Gizontasunez jokatzen du zuzen jokatzen duenak[672].

4.1.3.3.1. Goi-klaseen moralitate falta

Etxepare goi burgesiarekin deseroso dago Donostian eta kostalde guztian, Iparraldekoa barne, eta mugaz gaindi zerrendatzen ditu luxuzko bakantza-guneak ("Biarritz, Cap-Breton, Hossegor, itsas bazterreko hiru herri horietatik ditazke itzultzen Donostirat [bakantzalarien otoak][673]"). Azken batean, antzeko fenomenoa da Pirineoen bi aldeetan, kostaldeko bainu-hiriak antzera sortu baitziren historian zehar bietan. Paralelismo gisa, goi-burgesiaren turismo-lekuen sustatzaileei bagagozkie, Montijoko Eugenia Napoleon III.aren andreak sortarazi zuen bainu-hiria Biarritzen, eta Isabel II.ak. Donostian.

Pentsa daiteke Hegoaldeko bilakabideari buruz Etxeparek horrela pentsatzen badu, Iparraldekoari buruz ere gauza bera pentsatuko duela, mutatis mutandi, mediku gisa Kanbo turistikoan estatus eta kokapen jakin bat izanik. Familia politikoak turismo-zerbitzuen inguruan lan egiten zion, eta Kanbon kokatua zen. Etxepare bera ere Kanbora aldatu zen Aldudetik 1928 urtean, gaixotasun baten ondorioz. Azken finean, Hegoaldeko arazoetan ikusten ditu islatuta Iparraldeko arazoak, kanpoko herrialderen baten iruditeria egiten denean oso ohikoa den transferentzia-mekanismoa.

---

671 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF. 194 or.

672 *gizontasun* hitza itzultzen du Elhuyar hiztegiak "Humanité, qualité humaine" frantsesera; gaztelaniaz, aldiz, "1. hombría. 2. masculinidad" gisa. Ingelesez, Morris hiztegiak itzultzen du: "1. manliness 2. courage, bravery, mettle, valor; ~-izpirik gabeko gizon batzuk=some men without the slightest touch of bravery".

673 *B*. 92

*Beribilez*en, aipamen zuzena eta zorrotza izango dute udatiar burges handiek, autoa Donostiatik ateratzean, ia gaututa errepidean aurrera doazela beraien autoekin topo egitean:

> "Hastapenean, otomobil ederren ikusteaz atsegin dugu, bainan laster akitzen gituzte: sobera dira! Eta gero, gertatzen zaiku bitxikeria hau: ez baitugu ikusten zerua, ez bidea, ez deus, otomobil handien argi hotz bortitzek lilluratzen gituztelakotz eta itsutzen. Ez gatzaizkete ohar, ondo-ondorat —zer ximixtan!— hurbildu zaizkigunean edo hegikatzen gaituztenean baizik.
>
> Bihurgune bat edo bietan apur bat iziturik, eskuin-alde lekuratzen gira, ahal bezain eskuin arroilarat eroriko bagira ere. Bare-karakoil batzu bilakatu dira gure karrosañoak; ilhunbe egiteko, hurriki bada hurriki aitzinatzea gatik nolazpait, horra nun gidariek hiltzera doazinen ohe-mahiko argi hitsa ezartzen dioten muthurrean, bi aldetarik!" [674]

Argi hotza hilgarria da. Iluntasuna apurtzen du baina ez du berotzen, aitzitik. Argi hotzaren esperientzia egina zuen Etxeparek Loiolan ("Gotorragoa da xuri hura, zertarik ere baita, hotza, beregizkoa, erraitera ginoazke berkoia"[675]). Berorik ez dakarren heinean argia hilgarria da, heriotzaren ataria, bertute guztiak galdu baititu. Izan ere, argia izan daiteke ernarazlea, izpirituaren akuilua, zeruko ahalen adierazpidea. Kasu honetan ez du bertute ongilerik.

Sinbologiaren arloan, argia izan daiteke emakumea ernaltzeko gai, Maria eta Espiritu Santua irudikatzen duen usoaren parekoa. Hemen, aldiz, argiaren bortitzak bortxaketa baten aurrean jartzen gaitu. Izan ere, argiaren sinboloa eguzkia bada ere, ilargiaren sinboloa da barraskiloa unibertsalki, horrelakoak baitirudite bi auto kokilduek. Barraskiloaren espiralek ilargiaren aldiak irudikatzen dituzte. Maskorrak bezala, karakolak sexu-sinbolismoa dauka, duen aluaren itxuragatik: materia, mugimendua, txistua.

Bortxaketak heriotzera darama. Heriotza da zerbait positiboaren amaiera, kasu honetan, bizitza, Etxeparek hilotzaren argiztapena gogoratzen baitigu. Heriotzak adoregabetzea,

---

674 *B.* 92

675 *B.* 62

etsipena, pesimismoa dakar berarekin[676]. Ez dakigu Etxepareri duen gaixotasun fisikoa gogoratzen zaion…

Goi burgesiaren eta burgesia txikiaren arteko gatazka eszenifikatzen da errepidean. Estatus desberdintasuna sinbolizatzen da autoen kategoriaren laguntzaz. Autoaren sinbologia arakatuz[677], gidatzeak eskatzen du nork bere bulkadak mendean izatea. Eukitsuen autoek arriskua sortzen dute duten ibiltzeko moduagatik, autokontrola falta dute, dituzten erantzukizunak baztertzen dituzte, erasokorrak baitira.

Goi klaseetako gidariek ez dute errespetatzen trafiko-kodea, alegia, bizitzako araudia: gizarte-hitzarmena ez dute errespetatzen, konbentzioak eta adostasunak zapalduta. Autoa ondo gidatzeak iradokitzen du autonomia psikologikoa eta mugak gainditzea; arauak errespeta daitezke, minik jasan gabe, gizarteko premiak ezagutzen direnean, arrazoiaren begietan zentzugabeak izanik ere.

Jean Etxeparek goi burgesiako jendea harrapakarien saileko metafora bidez karakterizatzen ditu:

> "Gizagaixoak gu! Handienak ikusteko gintuen. Bat-batean agertzen zaizkigu, gizotsoak iduri, hiru begiekilako mamu beltz larri batzu, beren larru leuna dirdir. Eta zer lerroa! Batek bertzea hunkitzen dute, kasik. Erretzen dauzkigute begiak, erretzen dute bidea. Gu ohartu orduko iraganak, haize emaiten daukute begitartera eta bihotza zarrastatzen. Industriako arranoak, bankoetako saiak, negozioko apalatzak, theatretako gau-ainharak, politikako miruak, zer aztaparrak dituzten orok, zer bekokia eta zer hegalak!"[678].

Pasarte hori sinbolikotasunez gainezka dago, zeinaren elementuetan sakonduko den segidan. Hasteko, mamuak izan daitezke altxor baten begiraleak, hau da, eukitsu udatiarren aberastasun-jagoleak, alde batetik. Beste alde batetik, mamuak Biblian indar irrazionalen adierazpideak izan daitezke, kaosaren eta amildegiaren adierazpideak. Mamuak Etxeparek

---

676 "Escargot"; "Lumière"; "Mort" in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.
677 "Automobile" in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.
678 *B.* 92

maite zuen neurriaren ukazioa dira, ordena eta legea ezarri aurreko garaikoak: izua zabaltzen dute.

Mamuak kanpoko mehatxua izanik ere, barneko mehatxua ere izan daitezke: desio zital baten forma higuingarriak, barneko mamu itogarriek sor baititzakete desioaren asaldurak eta inhibizio beldurtiak[679].

Mamuek hiru begi izateak adierazi nahi du goi burgesiak egiten duen gizartea bere hautura artezteko politika zorrotza. Begia da pertzepzio bisuala bideratzen duen organoa, pertzepzio intelektualaren organoa. Areago, begien ugaritasunak begirada orohartzailea adierazten du. Begia izan daiteke eguzkiaren sinboloa, gainbegiraletza- eta zaintza-lan etengabean ari dena[680]. Gizotsoa da infernuko izakia, folklore-kontakizunetan ezaguna denez. Gizakia Jainkoaren irudira sortua da tradizio kristauan; animalizazioa aipatzen da hain estimutan duen gizakiaren duintasuna apalduta dagoela adierazteko, gizotsoa bihozgabea eta doilorra delarik herriaren psikologian, eta Jean Etxepare humanistaren baitan areago.

Harrapakarien sailean andana bat bada testuan. Ohikoan arranoa boterearen ikurra da: arranoaren sinbologia positiboa lotua da Zeusekin, Kristorekin, Arrano Beltzarekin… Haatik, arranoak izan dezake gaueko zentzu sinboliko gaiztoa, industria-gizonena bezalakoa, boteretsua izateari utzi gabe: gehiegizko ausardia, boterearen perbertsioa, autogoralpenaren desmasia. Saia da, bestalde, haragi ustelaren jalea, sarraskigilea: bankuko gizonak pobreen lepotik gizentzen dira. Zapelatza da atzapar zorrotza aurrekoak bezala, diru-gosea, lukuraria, negozio-gizona bezalakoa[681].

Mirua izan daiteke Apoloren laguna eta buru-argitasunaren sinboloa, era batera politikariak bezala, harrapakaria izateari utzi gabe. Horretara, badirudi Jean Etxeparek mirespen puntu bat baduela gizarteko harrapakarien aldera. Bereziki beraien hegalak eta bekokia aipagai dituela. Hegalak gainez gain ibiltzeko dira, askapen-sinboloak, garaipen-sinboloak; izan daitezke espiritualitate eta dinamismo adierazgarriak: aipuko "bekokia" da testuan ausardiaren metafora, aski goraki mintzo baita berez.

---

679 "Monstre" in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

680 "Oeil" in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

681 Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont. Harrapakarien zerrenda bada bertan.

Gau-enarak bizi dira harrapakarien ondoan. Migratzaileak dira ziur aski, antzokietako aldien araberakoak. Enarak dira, sinbolikoki, kontrapuntu femeninoa, udaberriaren mezulariak eta ugalkortasun erituak egiteko aitzakia Txinan. Ordea, kasu honetan gauekoak dira, hau da, iradokitzen dute izaki hauskorren izaera harrapakarien izaera gotorraren aldean. Belle Époqueko Donostiaren berria duenak badaki nolakoa zen gau-giroa hirian, arinkeriaz gainezka egina.

Etxeparek proposatzen du gizontasuna goi-burgesiaren harrapakari-izaeraren ordez; gizarte-kohesioa bideratzen duen kontzeptua da. Horregatik, gizontasunik ageri ez denean, legeari eta poliziari egin behar zaio dei. Hori gertatzen da errepidean trafikoa arteztu gabe dagoenean, alegia, arauak betetzen ez direnean. Legea jarri nahi du Etxepare etsituak goi burgesiako harrapakariak hesian mantentzeko baliabide gisa:

> "Errabiazko khexu batek gaindi egiten duku. Ez dea bada hemen legerik, jaun eta andre haundi horien atxikitzeko neurrian? Nun dira poliza-gizonak? Hoinbertze argi zendako otoen muthurrean? Zerentzat, holako firurika erhoa?" [682]

Goi burgesiaren jardunak gizontasuna ukatzen du-eta…

> "Soinka elgarri, lepoa bihurrian luze, iraina atheratzen zaiku zonbaiti aho-bethez. Badakit gure artean menditar bat, odola gogorki asaldatu zaiona. Egiaz, gerla-denboran baitzen no man's land —gizonik ezin bizizko bazterra— gizontasunik gabeko lekua da Gipuzkoako bazter hau; eta araberako angles-hizkuntza baten gai litake, ikaran gabiltzan erregebidea"[683] [azpimarra gurea da].

Bigarren puntu batean, eztabaidatzeko manerak gizontasuna eskatzen du, Tolosan istripua izandako gidarien artean: eztabaidaren etika ere begiratu behar da ("Gataska luze batean sartzen dira bi gizonak, biak erdaraz, elhe gaixtorik gabe haatik bat ala bertzea, odol-hotzean, gizonki" [azpimarra gurea da][684]).

682 *B.* 92
683 *B.* 92
684 *B.* 46

Hirugarren puntu batean, diruaren erabilerak ere bere legeak ditu, gizonki egin baitaiteke ("Gure laguna ditaken gizonik hoberena dela badakigu, bihoztiarra ezin gehiago, diru-pegeseria bati nihoiz behatzen ez duena; hala ere, zuzenean dela iduri zaionean, ez da errexki barkatzen dutenetarik" [azpimarra gurea da][685]). Zekenkeria baztertu behar da.

4.1.3.3.2. Aberria maitatzea

*Beribilez*eko bidaian, batzuetan, badira ika-mika identitarioak, adibidez, gaztelarrarekin jardutean (hirizaina, Tolosan) edota frantsesarekin jardutean (tabernako bezero bitxia, Loiolan). Ika-mika horiek gaindigarriak dira gizontasunaren bitartez, baldin eta horretarako baldintzak badaude, hau da, arrotzak gizontasuna badauka, gizontasuna balio unibertsala baita:

> "Aurpegi bat badu bertzalde bitxienetarik: hori-horia, matrailek egiten diotela muthur biribil bat aitzinerat, labeño bat balu bezala ahoaren orde. Ukarea moztera utz nezake, gizon hura ez dela eskualduna, gaztelarra baizik
>
> Gaztelarra edo ez, gizona da haatik, nihun balin bada bat, eta ontsa ikasia. Mintzatu baino lehen, badaki entzuten; entzun ondoan, badaki zentzuz mintzatzen eta izariz"[azpimarra gurea da][686].

Azpimarragarria da, bidenabar, narratzaileak hirizainaren antropologia fisikoari ematen dion lekua, pasartean. Agian, garai batean boladan egon zen antropologia fisiko baten oihartzuna izan daiteke. Europan ez ezik, Euskal Herrian ere ikerketa-bide hori aitzinatu zen Aranzadi, Eguren eta Barandiaranen lanekin ("Los tres tristes tigres" ezizenez ezagunak). Buru-hezurrak neurtzen zituzten, lehen euskal gizakiaren ezaugarrien bila. Badirudi orain bide hori ahaztuxea dagoela; behinik behin, antropologia eskuliburu batzuetan ez du sarrera berezirik antropologia fisikoak[687].

---

685 *B.* 48

686 *B.* 47

687 Bonte, P., & Izard, M. (Eds.). (1991). *Dictionnaire de l'ethnologie et de l'anthropologie*. Presses universitaires de France. Barnard, A. eta J. Spencer. (1996): *The Routledge Encyclopedia of social and cultural anthropology*. London. Routledge. Antropologia fisikoko lanek bestelako norabideak hartu dituzte, antza, azken aldia honetan.

Jean Etxepareren idazlanetan badira *gizontasun* kontzeptua azpimarratzen duten pasarteak. Horretara, bertute bat da familian ikasia:

> "Uzkurtasun hari datxikola, haren itzal eztian, erakutsi zakoten aitamek eta haztearekin sartu, gizontasuna, sor-herriaren amodioa eta hari zarraikola Frantziarena, aitzindarien alderateko jauspena, bere buruarentzat gogor izaitea, ixil bezain zailki artzea eginbide latzenarekin behar orduan borroka, zuzenak beti noizbait garaia baderamalako fede azkarra"[azpimarra gurea da][688].

Gizontasuna da, beste batzuetan, altruismoa eta herrizaletasuna:

> "Herri huntan ere, Frantzia zerbitzatu dutenak, -arrotzerat bazoazkelarik asko beren ahaideen ganat- gizontasuna dute goretsi, ez intresa; ez beren bizia, bainan herritar guziena; ez beren ona, bainan beren ondokoen libertatea eta ona; ez urrungo leihor batean irabazpide berkoi baten gozamen apala, baina zuzenaren alderdia, suan"[azpimarra gurea da][689].

4.1.3.3.3. Ausardia morala

Gizontasunez jokatu behar da, kinka larriren bat dagoenean, bereziki erreparoa munta gutxikoa denean:

*Beribilez*en, gizonki joka daiteke sukaldaritzako ohitura arrotzen aurrean (oliba-olioa) ("Hemen bederen, español olio higuingarriaren usainak ez gitu nardatu, dio niri buruz itzulirik gure zerbitzarietarik batek"; [narratzaileak, aldiz, dio] Espainiako olioa berez-bere ona da, hoberenetarik; urrinari gizonki edozoin jarria zaioke zortzi egunik barne" [azpimarra gurea da][690]).

Gizontasuna izan daiteke berdin min fisikoaren aurrean behar den jarraikitasuna:

---

688 Xarriton, P. (1985). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. II mediku-solas*. Donostia. Elkar. 198or.

689 Xarriton, P. (1992). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. IV kazetaritza (B) (1916-1935)*. Donostia. Elkar. 236 or.

690 *B.* 28

"Oro ikusiz, badute bertzela operazioneek eskualde onik ere. Sendatzen dute zonbait aldi bakarrean, apur bat meskaratu gatik: ardura andeatua ginuen puska zerbait barnetik kenduz, luzatzen daukute bizia, ez osoki erranguraric gabe utziz, nahi baduzu, bainan luzatzen; batzutan etsimendua zonbait orenentzat bederen gutarik urrundua, iraun nahiarekin akulatzen daukute eta goratzen, dukegun gizontasuna"[azpimarra gurea da][691].

4.1.3.3.4. Gizaki loratua

Gizontasuna da, bestetik, Jean Etxepareren autokide batentzat lanbidearen kalitatearekin lotuta dagoen zerbait. Lanbideak ez dira denak jite berekoak. Ordea, honako honetan, ez da Etxepare narratzailea mintzo iritzi arantzatsuak botatzeko, baizik eta bidaiarien arteko beste lagun anonimo bat, istilu-arriskua dagoenetan egiten duen bezala:

"Amerika beherean aski luzaz egona bainiz. Ez da erresumarik, Frantziak eskualde hartan bezain gizon egiazko guti duenik: koziner, ile-mozle, thindazale, musikari, tapizatzale, dantzari, komediant, ostaler, azti, kazeta-egile, modista, horra zer ofizio zurruburruak dituzten frantses-umeek han gaindi"[692] [azpimarra gurea da].

Gizontasunaren erpinean, aldiz, Jean Etxepareren ustez "gizonen artean gizonenak"[693] greziarrak dira, azken buruan, beren izaera goren gradura eraman baitute, beste guztien gainetik. Gizakia loratzea da gizontasunaren seinalea.

Donostiako udatiarrak ez dira preseski Greziako balioen ezaguleak ("Mediterranea etzuketen ezagutzen; Grezian gaindi etzitazken ibiliak nihoiz"[694]). Burges txiki jantziak gizatiar iraun nahi du, eta aurrez aurre "gizontasunik gabeko" jendaki bat topatzen du, Donostiatik ateratzean, errepidean doala.

691 Xarriton, P. (1985). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. II mediku-solas*. Donostia. Elkar. 188or.

692 *B.* 71

693 *B.* 82

694 *B.* 84

Azpimarragarria da *gizontasun*aren -gizatasunaren- kontzeptuak daukan erabilgarritasuna *Beribilez*en. Gizontasunak gainditu ditzake hesi identitarioak eta ekonomikoak ere bai, baldin eta errespetua bazaio.

Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi generoaren ikuspegia, gizonezkoek eta emakumezkoek betetzen dituzten errolak zehatz bereiziak baitira *Beribilez*en, baina beste nonbait jorratu den puntua da ikerlan honetan.

4.1.3.4. Hiriaren izaera orduko zenbait idazleren baitan

Interesgarria izan daiteke Etxepare ulertzeko, hura XX. mende hasierako giroan aipatzen ziren idazleekin paraleloan jartzea. Haiekiko antzekotasunak eta desberdintasunak argigarriak izan daitezke *Beribilez*eko testuak adierazten duen idearioari antzemateko.

Jean Etxepareren hurbilekoa da Pío Baroja donostiarra alderdi askotan, eta Donostiaren ikuspegiari dagokionez ere bai. Biak sasoi berekoak, Donostia ez zuten maite. Egin duten kritika da diru-zalekeria arruntaren kritika, eta arinkeriaren kritika. Etxeparek aipatu zuen arimako eskasa, eta "gogoa zeru-alde ez airatzea"; Barojak, berriz, "hiriaren izpiritu penagarria".

Barojak barrukoagoa du ikuspegia, sortzez donostiarra izaki: oroitzapenak utzi dizkigu irakurtzeko, haurtzaroko bizipenez gainezka. Alabaina, bere burua gipuzkoartzat jota, gehiago identifikatu da landa inguruarekin, ezen ez Donostiaren moduko hiri batekin[695]. Badirudi idazle biek arrazoi berberak zituztela Gipuzkoako hiriburua arbuiatzeko; hau da, adibide baterako, Barojak dioena:

> "Hiriaren espirituari dagokionez berriz, penagarria da. Han ez da interesatzen ez zientzia, ez artea, ez literatura, ez historia ez politika, ez ezer. Bakar-bakarrik erregea, erregina, balandroak, zezenketak eta galtzen forma interesatzen dira.

---

695 Barojaren inguruan gaurkotasuna dute Miguel Sánchez-Ostizen lanak: Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio;. Sánchez-Ostiz, M. (2000). *Derrotero de Pío Baroja.* Alberdania. Sánchez-Ostiz, M. (2006). *Pío Baroja, a escena*. Espasa Calpe.

Iruñetik, Zaragozatik, Valladolidetik, Txiletik eta Chuquisacatik nabarmentzeko grinaz heldutako etorri berriek eta goranahiek osatzen dute Donostia. Erregearen ondoan ibiliz, zezenketari famatu batekin kafea hartuz, edo aristokrata bati agur eginez nabarmentzen da bat. Donostiako jauntxoak Espainian diren zirtzilenetakoak dira. Ez-gizakitzat hartu izan ditut nik beti"[696].

Bi idazleak bat datoz, jendarte haren gizatasun faltako diagnostikoan: Etxeparek aipatzen zuen "no man´s land" kontzeptu hura bera, errepidean autura ekarria bidaiariek ia-ia aurrera egin ezin dutenean, eukitsuen auto-argi erasokorren ondorioz[697].

Nolabait esan, gizagabetasuna ez da diruaren inguruan beti sortzen izan den fenomenoa, baizik eta, zehazki, Donostian bi autoreok topatzen dutena, hau da, fenomeno unibertsala kapital hegazkorra kokatzen den inguruetan. Ikusten da horko aipu horretan negozio-bolumen handien ethosa nolakoa den, kokatzen den toki oro. Gizatasun-gabezia hau izan zezaketen Donostian biltzen ziren "harrapariek"[698]:

"The nurseries of cynicism are therefore those places with huge turnovers, exemplified in stock exchange dealings, where money is available in huge quantities and changes owners easily. The more money becomes the sole centre of interest, the more one discovers that honour and conviction, talent and virtue, beauty and salvation of the soul, are exchanged against money and so the more a mocking and frivolous attitude will develop in relation to these higher values that are for sale for the same kind of value as groceries, and that also command a 'market price'"[699].

---

696 Baroja, P. (2006). *Pío Barojaren Donostia*. Irun. Alberdania. 16 or, Koro Navarrok euskaratua. *Juventud, egolatría* 1917 VIII. kapitulutik. Ikusi bide beretik antzeko aipuak in: "San Sebastián" sarrera in: Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio.

697 *B*. 92

698 *B*. 92

699 Simmel, G. (1990 [1978]). *Philosophy of money*. London. Routledge and Kegan Paul Ltd. 257 or. Alabaina, gauza bat da zinismoa, gaurko adieran Simmelen aipuan agertzen baita, eta beste bat Antzinateko zinikoen filosofía: "The cynicism of antiquity had a very definite ideal in life, namely positive strength of mind and moral freedom of the individual. This was such an absolute value for cynicism that all the differences between otherwise accepted values paled into insignificance". Simmel, G. (1990). *Philosophy of money*. London. Routledge and Kegan Paul Ltd. 256 or.

Euskal Herriko literaturan sumatzen da, Etxepareren eta Barojaren lanetan kasu, idazle-jendearen ezinegona eta kezka parametro burges materialisten aurrean, nahiz eta biak burgesia (txiki)ko autoreak izan familia-jatorriz. Ezinegon antiburges hori orokorra izan zen Europan.

4.1.3.4.1. Jesuiten gizarte-eragina

Esan daiteke, bidenabar, Jean Etxeparek bezala Pío Barojak ere jesuiten kritika egiten dakiela, hain zuzen, Donostian duten eragina denaz bezainbatean. Jesuitak zurrunbiloaren begian egon izan dira askotan Europako historian, eta Etxepareren garaian ere bai. Ia-ia derrigorrezkoa zen antiklerikala eta antijesuita izatea, aldi berean, laikotasunaren alde egonez gero, aski dela horretaz konturatzeko orduko pentsalarien ibilbideak errepasatzea. Alde batera ez da harritzekoa, jesuitak izanik Elizaren beso eragileenetako eta eraginkorrenetako bat sekularizazioaren garai polemikoetan[700].

Euskarazko literaturaren esparruan, ezohikoak dira horrelako kexu laizistak, erlijioaren ortodoxia begiratzen baitzuten idazle erlijiosoek gehienbat, ia intolerantziaren mugetan.

Pío Barojak Donostiako jesuitez duen iritzia irakurri ahal izango da beheratxoago. Barojaren tonu-askatasuna pentsaezina litzateke euskarazko garai bereko testu batean. Jean Etxeparek erabili behar dituen baliabide leuntzaileak soberan daude Barojaren testuetan. Beste nonbait aztertu dugu Etxeparek nola hobesten zuen isiltasuna helduaroko gizarte-jokabide pertsonalari zegokionez, eta baita ere *Beribilez*eko orrialdeetan nolako trikimailuak erabiltzen dituen, denik eta iritzi heterodoxorik txikiena kontu handiz sakatuz: bigarren mailako pertsonaiak erabilita, ironia, *alegia-eta* mottoa praktikan jarriz, alusio-estilo berezia…, baina ageriko desadostasun zuzenik ezin du adierazi. Izan ere, *Beribilez*eko testua ia txepela eta motela iruditu dakioke, gatzgabea, orri pasa dabilen irakurleari eta zenbait kritikariri ere bai[701]. Espero zitekeenez, ez da ikusi euskarazko autore erlijiosorik goi-burgesiaren balizko desbideratze moralak kritikatzen, aldi berean ortodoxia tradizionalari eusten ziotela; baina hona, aldiz, Barojaren tonu librea, Donostiako giroari buruz idaztean:

---

700 Navarra, A. (2013). *El anticlericalismo*. Madrid. Cátedra.

701 Kerejeta, M. J. (1987). "J. Etchepare" in: Etxepare, J. *Beribilez*, Euskal Idazleen Elkartea. 21-30 or. Kritika horrek *Beribilez*en eite konbentzionala azpimarratu du. Ikerlan honetan ere kontu hauek jorratzen dira.

"Herri hau, beraren ustez mokofina, baina abiatzen ari den herri bat dena, ignaziotar aita batzuek mugiarazten dute, zeinak, gaurko Loiolako seme gehienak bezala, zakarrak, astakirtenak eta inolako talenturik gabeko pertsonak baitira.

Jesuitak emakumeak bere gisa erabiltzen ditu -batere gauza zaila ez dena, sexu-bizitzaren hariak eskuan izanik- eta gizonak gidatzen ditu.

Maila bateko, familia gaileneko gaztetxoei, ezkontza on bat bideratzen die; mutil pobreei denerako baimena ematen diete: bazkari oparoak egiteko, mozkortzeko, denerako irakurtzeko izan ezik. Dendari gizajo hauek lotsatiak eta traketsak dira, eta mozkortzen direnean emantzipatu direla uste izaten dute. Ez dute ulertzen yankiek menderatzeko alkoholaz pozoitzen zituzten azal-gorriak bezalakoak direla"[702].

Ikusten dugun bezala, bat datoz Pío Baroja eta Jean Etxepare, biok urtetan zehar ezagutu duten Donostiako hiriburua kritikoki aipatzean. Era berean, XX. mende hasierako giro baten seme agertzen dira. Jean Etxeparek jesuitei buruz duen jarrera beste nonbait aipatu dugu.

4.1.3.4.2. Ikuspegi gordinen zergatia

Oraingo honetan, nahiko litzateke kokatu Jean Etxepare XX. mende hasierako bi literatur korronte esanguratsuren artean: naturalismoa eta kostunbrismoa. Bereziki, saiatu nahi genuke Etxepare kokatzen literatur korronteen artean, oro har. Egokia dirudi arrazoibide moral bat hona ekartzea frantsesezko literaturarekin lotua, ulertzeko zein ote zitekeen Etxepareren eta Barojaren gizarte-kritiken funtsa Donostiari buruz.

Horretarako, jarraituko zaio naturalismoren aitzindari Émile Zolak (1840-1902) idatzitako "De la moralité dans la littérature" (1926) idazki argigarriari, eleberrigilearen ardatz etikoen azalpena[703].

Esan daiteke garai hartako idazle nagusiek egiten dituzten kritikak onkeria gainditzeko saioak direla. Bizi zirela, gaitzespena jaso zuten kritika baten aldetik Émile Zolak berak eta

---

702 Baroja, P. (2006). *Pío Barojaren Donostia*. Irun. Alberdania. 16-17 or. Ikusi baita ere: Ikusi "Jesuitas" sarrera in: Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio.

703 Zola, É. (1926). "De la moralité dans la littérature" in: *Documents littéraires. Etudes et portraits* (Nouv. éd.).

Gustave Flaubertek, Honoré de Balzacek, Charles Baudelairek, ezagunenak baino ez aipatzearren, sentimendu konbentzionalak pilatzeari utzi baitzioten.

Naturalistek errealitate soziala espiritu "zientifiko" batekin nahi izan zuten jaso idazlanetan, legelariek, politikariek eta gizarte-erreformistek jakin zezaten zer aldatu behar zen gizartean, gizateria aurrera bidean bultzatzeko. Pío Barojak Zolaren jokabide hori txalotu egiten du: "al mismo tiempo que gran artista, indica el mal con la idea piadosa de que se le ataje, muestra la podredumbre de la cloaca humana buscando el remedio, la limpieza, la desinfección"[704].

Orduko literatura errealistan eta naturalistan, literaturgileen kritikek gizarte osoa besarkatzen zuten, ez goi geruzetako errealitateak soilik. Hori izan daiteke Etxepareren asmoa ere, hau da, erradiografia modukoa egitea gaitza erakutsiz, akatsa zuzentzeko bidean jartzeko. Positibismo optimista batek horretara bultzatzen zituen bera eta gisako idazleak[705].

Horregatik, beharbada, ez da *Beribilez*eko asmoa sentimendu onak besterik gabe azaldu nahia. Loiolako pasartean, adibidez, bada errealitatean murgiltzeko saio bat, non beti ez den guztia orduko euskal konbentzio nagusiari lotua. Positibisten helburu erreformatzailea suma daiteke Etxepareren lekukotza literarioaren baitan, itxura batean, Émile Zolaren araberakoa, Zola baitzen Frantziako literatur eszenatokiko idazle herrikoiena eta zentrala 1872-1902 tartean, eta ondotik aztarna utziko zuena baita penintsulan ere[706].

Jean Etxeparek Loiolako erromesaldi modukoa idatzi zuen bezala, Émile Zolak ere erromesaldien fenomenoa jaso zuen idatziz; Zolak Lourdeseko fenomeno erlijiosoari buruz eleberria idatzi zuen (*Lourdes*, 1884), Elizak Indexean jarria[707]. *Lourdes* kontakizunean mirarien kritika egiten du Zolak, mirariak minak sortutako etsipenari aurre egiteko modu soil gisa ikusten dituela. Mirarien aurreko errezeloa Zolak eta Etxeparek bi biek badute, beherago azalduko denez.

---

704 Ikusi "Zola, Emilio" sarrera in: Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio.

705 Ikus daiteke Etxepare prozedura hori erabiltzen "Tratuak ordu batez" atalean *Buruxkak* liburuan. Lehenik, ganadu tratuen egoera erreala deskribatzen du, gero hobekuntza zehatzak proposatzen ditu Ameriketako ohiko prozeduraren arabera.

706 Oleza, J. (1984). *La novela del XIX. Del parto a la crisis de una ideología*. Barcelona. Laia.

707 Indexatutako liburuek erabateko arbuioa jaso zuten Iparraldean, Jean Hiriart-Urrutiren lumatik. Ikusi, adibidez, kazetari aipatuaren "Liburu kondenatuak" artikulua in: *Eskualduna,* 1911-03-24 http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/H/HiriUrruGontze015.htm [2016-IV-12]

Beraz, gizarte-zerbitzu bat egiteko helburu baten menean daude gordintasuna, xalotasuna, eta egiazkotasuna bezalakoak idazleen gogoan, naturalismoa egiten dutenean.

Labur esanda, Jean Etxepareren jarrera kritikoak asmo erreformatzailea du *Beribilez*en. Asmo erreformatzaileak Etxepare gidatu du bizitza osoan zehar, ziur aski optimismo positibista baten ondorioz, eta beraren hainbat idazkitan egiazta daitekeenez.

Naturalismoaren eta kostunbrismoaren artean

Jean Etxepareren garaiko Espainiara begirada itzulita, taxuzkoa dirudi galdetzeak zer desberdintasun egon daitekeen Émile Zola baten eta José María Pereda (1833-1906) baten artean, Jean Etxepare bi ardatz horien artean kokatzeko.

Interesgarria izan daiteke abagune hartan indarrean zeuden korronte estetikoak kontuan hartzea, Jean Etxepareren gizarte-ikuspegia nolakoa zen hobeto ulertzeko, duen estiloa beste estilo batzuekin alderatuta, bereziki kontagintzaren alorrean. Badirudi *Beribilez* idiliotik ez dagoela hain gertu, baldin eta Txomin Agirrerenak bezalako produkzioekin konparatzen bada, izan ere, kostunbrismoa indarrean zegoen oraindik euskal letretan. Badirudi ohiturak deskribatzea ez dela *Beribilez*eko xede nagusia, ezta antzekorik ere.

Pereda idazle kostunbrista kantabriarra zen. Beraren *Sotileza* (1884) eta *Peñas arriba* (1895) eleberriak identifikatzen izan dira Txomin Agirreren *Kresala* (1901) eta *Garoa* (1907) eleberrien inspirazio-iturri gisa hurrenez hurren, jakina denez, nahiz eta literatur identifikazio horren nondik norakoaz ñabardurak badiren euskal kritikan[708]. Izan ere, Koldo Mitxelenak autore bilbotar bat jartzen du Agirreren lanen hurbileko gisa: Oscar Rochelt nazionalista eta beraren *El alcalde de Tangora* (1910) idazlana. Agian, Mitxelena ari da Rocheltek islatu zuen Bilboko giroaz Agirreren imitazioa aipatzean, Rochelten idazlana geroagokoa izanik, berez[709].

Ordea, Rochelt ere kostunbrista izanik, gure helburuetarako, zilegi bekigu Jean Etxepare Peredarekin konparatzea. Kostunbrista den neurrian, Txomin Agirre ere apur bat nostalgikoa

708 Michelena, L. (1960). *Historia de la Literatura Vasca.* Madrid. Minotauro. 156 or.

709 Kortazar, J. (2000). *Euskal Literatura XX. Mendean*. Zaragoza. Las Tres Sorores. 39 or.

da, iraganeko garai ederrak ezin ahaztu dituela[710]. Lehen sektoreko bizimoduaren islatzailea da: arrantzaleak eta nekazariak.

José María Peredak azaldu zituen bere literaturgintzaren ardatzak Espainiako Hizkuntzaren Erret Akademiara sartzeko hitzaldian[711]. Dio Peredak nahi duela iraunarazi baztertuta geratzen ari den bizitzeko modu tradizionala, eleberrien bitartez. Bere ustez, jatorragoa zen gizarte aurremodernoa, bidea egiten ari zen beste gizarte berri hura baino, kosmopolita, sofistikatua eta hiritarra, bere ondiko guztiekin. Itsaso- eta nekazari-giroko eleberri kostunbristen bitartez, Peredak nahi zuen gizakiaren betiko izaera tradizional iraungiezinaren lekukotza izatea eskura irakurleek, etorkizunean ere baliagarria izango zitzaielakoan berrikuntza aztoragarri ugarien erdian.

Bidenabar, badirudi Pío Barojari Peredaren estetika hori eznahikoa iruditzen zaiola, eta Etxepareren planteamendu existentzialetara hurbiltzen dela gehiago:

> "Como escritor [Pereda, José María] me gusta menos que Valera. Es también un hombre que busca la miopía como un ideal. Yo comprendo lo contrario. Esos hombres que levantan su torre en donde azotan todos los vientos: Nietzsche, Ibsen, Dostoievski, pero instalarse deliberadamente en un agujero sin horizonte, no me lo explico bien"[712].

Jean Etxeparek ere, bere txikian, haizeen erasoa jaso behar izan zuen altxatu zuen dorrean, alde horretatik, ez da kostunbrista. Kostunbrismoaren haritik tiraka, Jon Kortazarrek honela sailkatu ditu ideologikoki idazle kostunbristak, batetik, eta errealistak, bestetik[713]:

IDEOLOGIA	
KOSTUNBRISTAK	ERREALISTAK
KONTSERBATZAILEAK	LIBERALAK
IPUINAK	ELEBERRIAK

710 Michelena, L. (1960). *Historia de la Literatura Vasca.* Madrid. Minotauro. 156 or.

711 Pereda, J. M. (1897). *Discursos leídos ante la real academia española en la recepción pública de*. Madrid. Viuda e hijos de Tello. Idazleak aldarrikatzen dituen literatur abiaburuak akademiako hitzaldian esan zituen.

712 Barojak *mediokrea* deritzo Peredari: Ikusi "Pereda, José María" sarrera *in:* Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio.

713 Aurrez aurreko komunikazioa, 2014-09ean.

DESKRIBAPENA	GATAZKA
DENBORA GELDOA: MITOA	DENBORA: HISTORIA
TRADIZIOA, NOSTALGIA	BURGESIA BERRIZALEA

Goiko taulan, ezkerreko zutabea ala eskuinekoa bere osoan egokitzea Etxepareri ez dirudi bideragarria. Baina orientabide gisa zenbait puntu ukituta, kostunbristekin alderatuta Jean Etxeparek …

- … kostunbristek bezala deskribapenak egiten ditu, baina dramatismo baten ukituaz (Loiolan, Donostian, itsasoak).
- … kostunbristek ez bezala, Historiara jotzen du mitora baino areago. Aitzitik, gogoratu behar da XIX.aren amaieran euskal historia legendarioa eguneroko ogia zela gaztelaniazko literaturgileen artean[714], eta, maiz, historia legendarioa paisaiarekin lotzen zela[715]. Etxeparek euskal historia berritzen du ukitu mitikorik gabe (Orreagako gudua, Loiolako Ignazio), baina diplomazia sen nabariarekin helburu proaktiboak baititu euskal batasun bat sortzeko, eta ez nostalgiarik.
- … tradizioari eta nostalgiari buruz, Jean Etxepare kontzientea da gizartea aldatzen ari dela ezinbestean, eta gertakaria gaitzitzen zaio sortzen diren desorekengatik. Hala ere, etorkizunari begira proposamen argiak ditu, aldaketak euskal burgesia txikiaren eta gainerako herri-geruzen onetan izan daitezen.

714 Juaristi, J. (1987a). *El linaje de Aitor*. Madrid. Taurus. Ikerlan honetan "Paisaia produktiboaren estetika" atalean landuko da puntu hau, estetikaren foku ideologikoaren puntuan.

715 Lorenzo Arza M. (2016). "La construcción de la nación asimétrica en los libros de viajes y cuadros de costumbre regionalistas". *Academia.edu* sareko ataria [2016-II-05]; Lorenzo, M. (2014). "Paisaje e identidad vasca en cuatro autores finiseculares". *Sancho el Sabio* 37

Idazle errealisten ezaugarriak kontuan hartuta, Etxeparek…

- … gatazka badarabil *Beribilez*en, baina leundu samarra. Giroak baimentzen dion neurrian proposamen berritzaileak egiten ditu. Ematen du, hala ere, zenbaitetan sektore tradizionalekin bat egiten duela gizarte tradizionalaren defentsan.
- … burgesiaren ikuspuntua hartzen du. Autoan doan turista bat da abuztuko erdialdean turismo-lekuak bisitatzen ditu, noiz eta 1929an, hau da, goiz samar erdi mailako euskal turismoarentzat.

Txomin Agirrek, bere aldetik, bazuen gizarte moderno burgesaren berria, eta manikeismoan erori zen tesi-eleberrietan, balantzaren alde positiboan klase tradizionalak jarri eta bestean klase sortu berriak. Pío Barojak ere bazuen aldaketen berria, noski, eta kritikoa zen garai berriekiko, aipatu den bezala. Hirurek bizitu zuten Antzinako Erregimenetik garai berrietara igarotzeko kinka larria.

Jean Etxepare literaturan pertsonaia bertutetsu eredugarri erdi-mitikoak aurkeztea ez da helburu nagusia, eleberri kostunbristan izan daitekeen bezala, adibidez, Joanes artzaina *Garoa*n. Jean Etxeparerenean ez dago mundu manikeorik Txomin Agirrerenean edo José María Peredarenean bezala, alde batetik, bertokoak, bestetik, kanpokoak[716]. Etxeparek eredurik ez du proposatzen, kontatu egiten baitu dokumentalistak bezala. Izatez, *Beribilez* ez da fikzio bat, bai kontakizun erreal bat oro har, nahiz eta idazleak subjektibitatea ez duen beti ezkutatzen.

Baiki, Etxeparek irizpideak proposatzen ditu, arau moralak nahi bada, baina manikeismorik gabe: gizontasunez jokatu behar da, prestuki, baina sektarismoetan edo aurreiritzietan erori gabe. Marra gorria ez dago jarria idilioaren eta galbideko gizarte endekatuaren artean Txomin Agirrerenean bezala parametro kontserbatzaileei jarraiki, baizik eta burgesia arrotzaren eta euskal herri-geruzen artean, parametroak errealistagoak izanik Agirrerenak baino.

716 Fernández-Cordero Azorín, C. (1968). "La sociedad española del siglo XIX a través de la obra literaria de Pereda". *Saitabi* 18.

4.1.3.5. Masa-gizartea eta intelektualak

Jean Etxeparek Donostiako eraikin aberats berriak ez ditu gogoko, eta migratzaile etorri berriak ere ez ("Gaur den egunean, arruntago baizik ez da bilakatu jendea, han [Donostian] nola bertzetan. Metaka sartzen da atzerritarra. Aberasten duke tokia, bainan ez hobetzen"[717]).

Errealitatea da Donostiara eta hiriguneetara, oro har, landako biztanleak ere heltzen ari zirela aldirietatik, ingurune nekazaria atzean utzita beren hobe beharrez, eta ez bakarrik udatiar eukitsuak. Industria eta zerbitzuak garatzen ari ziren, burgesiaren gidaritzapean ekonomia sakonki aldatzen ari zen-eta. Masen fenomenoa sortu zen, landako biztanleak hirira trumilka ailegatu zirenez geroztik 1930eko bueltan, eta lehenago ere bai.

Demokraziaren kalitateaz ere duda egiten zuten idazleek. Pío Barojak berak ere kritika hori egiten du[718]. Etxepare ere aburu horretakoa da: "Gaur den egunean, arruntago baizik ez da bilakatu jendea, han [Donostian] nola bertzetan"[719].

Pio Baroja, Jean Etxepare bezalatsu, burges txikia zen eta antiindustrialista. Antiindustrialista izatea ez zen bitxia Espainian 98ko belaunaldikoen artean, ezta Europako idazleen artean ere. Pio Barojak, bere aldetik, burges txikiaren bertuteak laudatzen ditu, adibidez, *El mayorazgo de Labraz*en, ustez, Biasterin inspiratutako eleberria.

Jadanik aipatu da nola Pio Barojak Donostia bere jaioterriak hartu zuen norabide turistiko eta merkantilista ez duen begi onez ikusten, Itzeako bere sentiberatasunarekin ez datorrelako bat. Nahiago izango zuen Donostiaz kanpoko Gipuzkoaren zatia. Horretan bat zetozen Baroja eta Etxepare.

Hegoaldeko burgesia txiki abertzalea ere Gipuzkoan antiindustrialista zen[720]. Bizkaian, aldiz, nazionalismoak lortu zuen entente bat burgesiarekin XX.eko lehen heren hartan. Gipuzkoan, Donostiaren izaera turistiko berezia zela-eta, hautagai monarkikoen aldeko

---

717 *B.* 84

718 Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio. Ikusi: "democracia", "intelectual", "masa", "política", "San Sebastián"… sarrerak: Pío Barojaren aipuak gaika bilduta datoz.

719 *B.* 85

720 Mees, L. (1991). "Europako herri txikien esnatzea". *Jakin* 66. 65 or.

atxikimendua luzaroago iraun zuen. Soilik Alde Zaharrean sustraitu zen nazionalismoa. Etxeparek Donostian aipatzen dituen euskaldunak Alde Zaharrekoak dira, beharbada ("Urrats zonbait egin banitza karrika-bazterrez... Ikus nitzazke eta adi eskualdun zonbait. (…) Gelditzen da oraino hotarik multxo bat Donostian, atzerritarrek ezin ithoak"[721]). Bestalde, *Beribilez*ek nabarmentzen duen bezala, Donostia militarrez josita zegoen, ez baitzen alferrik erret etxearen udako kokalekua, eta egoera horrek nazionalisten mugimenduak zailtzen zituen.

Guztiarekin ere, hala Barojak nola Etxeparek ikuspegi kritikoa zuten burgesiak ekarritako garapenari buruz. Masak hiriko burgesiaren nagusigoaren menean sortu den beste fenomeno arbuiagarria dira industria bezala, bizi-estetikaren zeharo aurkakoa. Urte haietakoa da José Ortega y Gasset madrildarraren *Masen errebolta* (1930) artikulu-bilduma, non gai bera jorratzen den[722].

José Ortega y Gasset (1883-1955) publizista espainiarrak masifikazioaren gai hori luzaz jorratu zuen, Jean Etxepare bizi zela argitaratutako hainbat liburu arrakastatsutan. Ortegak zioen masak ez duela eliterik onartzen, eta, gauzak horrela, gizarteak ezin duela iraun eliteen zuzendaritza barik… Masak diferentea den guztia gaitzesten du, eta axolagabekeriako tirania harroa ezarri nahi du[723].

Masak sortzen ari izatea kezka-iturria zen Europan, garai hartako idazleen artean. Pío Baroja Etxepareren garaikideak ere aipatzen du fenomenoa[724]. Adibidez, 1933an, Barojak masak gaitzesten ditu, bulkada hutsen arauz darabiltelako beren gogoa ("La masa es una charca pantanosa y malsana"); pentsatzen du masek gidaritza behar dutela, nahiz eta berak horretan jardun nahi ez. Bestalde, masei begirako politika diktaduren ongarria zaio ("La política de masas produce: o la dictadura socialista, o la fascista"[725]). Pío Barojak, bizitzako memento batean, saio motz bat egin zuen politikan sartzeko Alejandro Lerrouxen (1864-1949) alderdian,

---

721 *B.* 85

722 Ortega y Gasset, J. (1930). *Masen errebolta*. Bilbao. Klasikoak.

723 Ortega y Gasset, J. (1930). *Masen errebolta*. Bilbao. Klasikoak. Bada ere Ortega y Gasset, J. (1967). *España invertebrada. Revista de Occidente* izenburu iradokitzaileko beste liburu hura ere… Ikusi, liburuen laburpenak irakurtzeko: Bria, Ll. et al. (2004). *Los libros de los filósofos*. Barcelona. Ariel. 566-572 or.

724 Fuster García, F. (2014). "Yo, intelectual: Pío Baroja frente a las masas y la democracia*". Arbor Ciencia, Pensamiento y Cultura* Vol. 190-765, enero-febrero doi: http://dx.doi.org/10.3989/arbor.2014.765n1012 [2016-05-24]

725 Ikusi [masa] sarrera in: Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio.

baina idazlearen saio politikoak porrot egin zuen. Lerrouxek sustatu zuen, historialariek oro har diotenez, politika antiklerikal, populista eta demagogikoa errepublikaren alde.

Idazle-jendeek masa-gizartearen kritika egiten zuten Europa osoan. Masari arrunkeria egozten zioten. Espainian ere, oro har, 98ko idazleak kritikoak ziren gizarte-eboluzioaren alderdi askorekin. Beren ustez, industria-iraultza azkarregi gailentzen ari zen, eta arazo larriak antzematen zituzten gizarte tradizionaletik gizarte industrialera iragateko burgesiaren modu zakar hartan.

Gizarte-lidergoari dagokionez, maiz, idazleek beren gain hartzen zuten masa berri horiek gidatzeko eginkizuna. Jean Etxepareren gizarte-kezka erreformatzailea ere errepikakorra da Idazlan Guztietan zehar, hala liburuetan, nola aldizkarietako artikuluetan.

Buruxkak lehen liburuan ere, hainbat atal argitaratu ziren erreforma-proposamen modura, edo, bederen, erreformak solasgai ditu eta ereduak proposatzen ditu, zeharbidez: hezkuntzan ("Nor eskola-emaile. Zer irakats", "Igande arratsaldetan neskato gazteentzat", "Eskuararen ikasteko"); nekazaritzan ("Lilien usaina", "Iturri lekua", "Tratuak ordu batez", "Villeneuvette"); emigrazioa ("Canadako berriak", "Urrungo leihorretan"; erlijioan ("Sainduen errangurak", "Misionestaren ezteiak"); medikuntzan ("Eriaren gela", "Basa") eta ohituretan ("Amodioa")[726]. Beste hainbat aurki litezke medikuaren Idazlan Guztietan.

Ildo beretik, esanguratsua izan daiteke parekatzea Etxepare bezalako figura bat Europan orduan loratzen ari zen letretako pertsonaia publiko batekin: intelektuala, XX. mende hasieran sortu baitzen intelektualaren figura publikoa.

Piarres Xarritonek egokitu dio *intelektual*aren etiketa hori Jean Etxepareri, ikerlan honetan bertan aurrekarien atalean aipatu den bezala. Dio Xarritonek euskarazko literaturan "kategoriako intelektual" gutxietatik bat dela Jean Etxepare, "kategoriakoa"[727]. Intelektualak

726 Jon Casenavek, tesian, aipatu ditugun buruxka horiek izenburu honetako atalean sailkatzen ditu, ezadostasunen bat gorabehera: "Essais et discours philosophiques ou théoriques, essais critiques, tableaux de mœurs ». Atal horretan 15 elementu badira Casenaverenean, beste ataletan 11 dira gainerako guztiak batera hartuta. Gainerako ataletan jasotzen dira oroitzapenak eta biografiak nagusiki. Beraz, medikuaren kezka erreformista nabari agertzen da. Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 139 or.

727 Murua, I. (1996). "Piarres Xarritoni elkarrizketa". *Jakin* 97 85-134 or. .125 or.

garai hartan Dreyfus aferaren inguruan sortu ziren, Émile Zolaren idazki ausart famatu haren ondotik: "J´accuse" (1898), *L´Aurore* egunkarian agertua.

Intelektualek iritzia eman ohi zuten, ekintzarako biderik hartu gabe. Protestalariak eta kontentagaitzak ziren. Garrantzitsua zen intelektualentzat nortasun indibiduala mantendu ahal izatea. Masen sorrerari buruz ere kritikoak ziren[728], aipatu den bezala. Bestalde, intelektualak masak gidatuko zituen, garai haietan[729].

Masek gizabanakoaren autonomia oztopatzen dute. Horregatik izango zen Pio Baroja sozialisten kontrakoa. Masak kopuruaren harira mugitzen dira, eta horretan datza beren indarra. Kontsignek mugiarazten dituzte masak, ez ideiek.

Masak bereganatzen sozialismoa ari zen garai hartan. Burgesiak faxismoak sortu zituen, masak Europan arrisku sozialistaren kontra gidatzeko. *Beribilez*en giro aurrebelikoaren sentipena jasotzen da, eta gazteria gaztigatzen bere burua presta dezan, besteak beste, Barbierren *Piarres II* eleberri bihotz-esportzagarria irakurrita, Lehen Mundu Gerrako euskaldunen esperientzia gogorra baina eredugarria ez ahazteko.

4.1.3.5.1. Totalitarismo hurbilen aurresentipena

Gizarte burgesa garatzeak masak sortzea ekarri zuen. Sozialismoa masa horiek erakundetzen saiatu zen. Burgesiak faxismoak sustatu zituen, beldurrez-eta, sozialismoari galga jartzeko. Totalitarismoak masa-gizartearen ondorioak dira: faxismoa, nazismoa, komunismoa…; baita ere Europa-sartaldeko erresuma batzuetan sortu ziren gainerako totalitarismoak, 1930eko bueltan.

Giro artega hori bizi zuen Jean Etxeparek, susmo aurrebeliko hori *Beribilez*ek ere baitakar. izan ere, Europa gatazkatsu hartako giro trumoitsutik ihes egiteko, Donostia zen klase agintariek hautatu zuten aisialdi-hiri nagusietatik bat. Etxeparek badu sentiberatasun nahikorik

---

728 Fuster García, F. (2014). "Yo, intelectual: Pío Baroja frente a las masas y la democracia". *ARBOR Ciencia, Pensamiento y Cultura* Vol. 190-765, enero-febrero 2014. doi: http://dx.doi.org/10.3989/arbor.2014.765n1012

729 Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio. "Masa" gaiari buruzko Pio Barojaren idatziak 164 orrialdean.

giro burgeseko deserregelamendu horri antzemateko. Kontuan izan behar da Etxepare kronikak idazten zituela egunean eguneko gizarte-gertakariei buruz *Eskualdunan* eta abarretan[730]. Mundu zabalean, Jean Etxeparek salatu zuen udatiar eukitsuen "erosoan bizitze"[731] hori ere lotua egon daiteke kontzeptualki Euskal Herritik kanpo egin den masa-gizartearen kritikarekin, alegia, erosoegi bizitzea maite zutela.

Burgesiaren beldurra sozialismoaren aurrean totalitarismoetan kristalizatu zenez, masen irizpide moralik eza nabari geratuko zen, behin baino gehiagotan. Masen mobilizazioa ikusiko zen nazismoan ere, eta, amoraltasunaren adibide baterako, aipa daiteke II. Mundu Gerraz geroztik salatu den gaizkiarekiko ohikeria (*la banalidad del mal*). Hannah Arendt pentsalariak kontzeptu horrekin azaldu nahi ditu Alemania nazian gertatu ziren bidegabekeria planifikatu izugarriak[732]; nazismoaren kasuan, funtzionario alemanek gora egin nahi omen zuten, beren jardueraren moraltasunari begiratu gabe goiko manuak betez.

Beraz, Jean Etxepare bezalako intelektual sentibera eta arretatsuak gizarte tradizionala desegitearen ondorio txarrak jasaten ditu eta salatzen, 98ko idazleek bezala Espainian. Asaldurazko giro horrek kezka sortzen dio idazleari, gerla berriz ere piz daitekeela-eta. *Beribilez*ek iragaitzez aipatzen ditu istilu horiek, Jean Barbierren *Piarres II* liburua iruzkintzean:

> "Hortik Eskualdunek Piarresi egin dioten esker berezia. Badirauke luzaz gutartean Barbier apez khartsuaren orhoitzapenak.
>
> —Bertze gerlarik ez baledi gerta, ba.
>
> —Bertze gerlarik?

---

730 Ikusi Piarres Xarritonek bildutako *Jean Etxepare Medikuaren Idazlanak* bildumako liburukiak.

731 *B.* 88

732 Palomar, A. (2010). "Conformismo, banalidad y pensamiento: figuras de la alienación en las sociedades de masas según Hannah Arendt". *Astrolabio. Revista Internacional de filosofía* 11. Ikusi Arendten *The origins of totalitarism* (1951) liburuaren laburpena in: Bria, Ll. et al. (2004). *Los libros de los filósofos*. Barcelona. Ariel. 498-500 or. Euskarara Koro Navarrok itzulita bada Arendt, H. (2007). *Eichmann Jerusalemen.* Bilbo. Klasikoak. sarean eskuragarri: http://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/?f=23 [2016-05-24]. Liburuan lantzen da preseski gaizkiaren banalkeria delakoa.

—Ba, bertze gerlarik gerta ez baledi. Jendea ez duzu ikusten sekula baino aztapar-zorrotzago eta tzarrago bilakatua berriz?

—Izan bedi nahi duena. Eskualdun umeentzat irakurgei ederrak gelditzen dira Barbier apezaren liburuak.

—Hori ba, eta handitzen abiatu direneko, ene semeek irakurtuko dituzte biak.

—Halaber, agian, bertze hanitzek. Barbier mendiez alde huntarik, eta bertzetik Domingo Agirre, Zumaiako idazle bikaina, gure gazteen erakasle on izan bedite. Lur huntako gudu oies eta zirtzilak ez ditu, ondoan, lotsatuko hainbertze”[733].

Etxepareren ustez, jendea gero eta harrapakariagoa bilakatze hori da hurbiltzen ari den hondamendiaren aurreikuspena, nahiz eta berak ez zuen pairatuko 1935era arte biziko baitzen soilik (“Jendea ez duzu ikusten sekula baino aztapar-zorrotzago eta tzarrago bilakatua berriz?”). Bidaiariak harrapakariak aipatu ditu lehenagotik ere, eukitsuen auto-argi itsugarriak aipatzean, kostaldeko errepidean legea hautsiz; jarri du zein diren beren lanbideak ere: bankariak, negoziogileak, politikariak…

Bestetik, pasartean nabaria da idazleak hartua duen gazteria jagoteko eginkizuna, idazkide birekin elkar hartuta: Piarres Barbier eta Txomin Agirre. Hori zuten gizarte-eginkizuna orduko literaturgileek: didaktismoa.

Didaktismoa ados zetorren Jean Etxepareren kokapen edo gizarte-status jasoarekin, nondik eta begiratzen zituen herkideak bide okerrera lerratzetik. Idazleak sentitzen zuen gizarte-erantzukizunaren alha. Etengabe, intelektual gisa, proposamen erreformatzaileak botatzen zituen, gizartea altxatzeko asmoarekin, garaian garaiko arazoei konponbidea emanez euskarazko esparrutik. Gizarte-lan horretan, berak eta bera bezalakoek sortzen zuten literatura eragingarria iruditzen zitzaion.

Laburbilduz, ikusi da idazleak masa-gizarteak dakarren arrunkeria nola salatzen duen. Horrekin lotuta, giroan sumatzen duen gerrazaletasuna ere begi-bistakoa iruditzen zaio. Proposatzen duen konponbidea da norberaren berrarmatze morala *Piarres II* bezalako liburuekin.

---

733 *B.* 100

Gaur egun, haatik, intelektualaren funtzio gidari hori nabarmen murriztu zaio idazleari, bereziki, Jean-Paul Sartreren (1905-1980) ondotik. Informazioaren eman ugariak eta aditu berezilariaren figura gailentzeak ekarri dute intelektualaren gainbehera.

Donostiako pasartea bezalakoetan heltzen zaio irakurleari narratzailearen nitasuna bete-betean. *Beribilez*en badira honelako pasarte aproposak haren ideologiari antzemateko, eta agerian geratuko da idazleak bere barrena hustu duena "zaku barne-handi"-ra, idazleak berak *Beribilez* izendatzeko etiketa erabilita[734].

734 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". *in:* Lakarra, J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or. 1932-VII-20ko gutuna. Irakurri "*Beribilez*: zaku barne handikoa" atala *in:* Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU.

4.2. Mediku argitua sineskerien kontra

Atal honetan helduko zaio *Beribilez* liburuan azaltzen diren sineskeriak aipatzeari. *Sineskeria* izendapen gutxiesgarria saihestu beharko litzateke, agian, eta *herri-jakintza* bezalako terminoak erabili. Lur Hiztegi Entziklopedikoak honako definizio hau ematen du: "Sinesgarri ez diren gauzei buruzko sinesmena; fedeaz kanpoko eta arrazoiaren aurkako gauzak sinestera bultzatzen duen jokaera". Hortaz, egokia izan liteke testuinguru honetan termino hori. Ikusiko denez, erlijioari zein osasunari buruzko sineskeriak izan daitezke *Beribilez*en jasoak.

Horren kariaz, ezin daiteke oharkabean utzi Resurrección María Azkueren (1864-1951) *Euskalerriaren Yakintza* (1939-47) folklore-bildumaren izenburua, osasunaren inguruko herri-sineskeriak ere biltzen zituena –zientzia-oinarririk gabeak-[735], nahiz eta Azkue ere jakintza horren mugez jakitun egon, honela baitiotso amari eskainitako bilduma horren lehen orrialdeetan: "naiago izango neban nik neure ama maiteari beste zerbait opa, elizgizon bati obeto dagokion zerbait. Baina badaki, ama, eŕiak, edozein eŕik, berez oŕelakoxe umekeritxoak izan ezik eztau besterik sortzen. Gauza andiak barriz, egiazko sinizkizunak, goitik datorkioz"[736].

---

735 Gaurko gizarte-zientziek ere ikuspegi fenomenologikoa nahiago lukete: Albert, J.-P. (2010). "Miracle" *in:* Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.). *Dictionnaire des faits religieux*. Paris. PUF. Ikusi, hari beretik, "Superstition" sarrera in: Mesure, S eta P. Savidan (zuz.). (2006). *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF. Areago sakontzeko: Chevalier, J. (1969). "Introduction" *in:* Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont. Gehiago jakin nahi izanez gero irudimenak jasan duen gutxiespenaz, irakurri "Introduction" in: Durand G. (1992). *Les structures anthropologiques de l´imaginaire*. Paris. Dunod. Sarrera horretan aipatzen da Sartre ere, bereziki irudimena gutxiesteko bere jarduna, nahiz eta berreskuratzeko saioa egin nahi izan zuen.

736 Azkue, R. M. D. (1959). *Euskalerriaren yakintza (Literatura popular del País Vasco)*. Madrid. Espasa Calpe. 1. lkia. 6 or.

Ikuspegi osagarriak dira Etxepare medikuarena eta Azkue folkloristarena. Ziur aski, Azkueren ahalegina izan zen euskal herri-nortasuna sendotzea folklorearen bitartez, Europan ohikoa zen iker moldearen antzera herri-literaturako bilduma argitaratu zuenean, nahiz eta frankismo espainolista garaile nagusia izan XX. mendeko urte haietan, euskaltasunaren edozein aztarna ezabatu gurakoa[737].

Europan, nazionalismoek folklorea bultzatzen zuten, beste elementu askoren artean, zeinek bere nortasun berezia aldarrikatzeko. Hori da naziotasun erromantiko baten sorburuan dagoen prozedura bat, Johann Gottfried Herderrek (1744-1803) teorizatua. Hala ere, Frantzia uzkurrago agertu zen folklorea jasotzearen eta zabaltzearen bide horretan, jakina denez[738], Pariseko gobernuen filosofia politikoak hiritarren eguneroko kontratuaren bidetik jo baitzuen, Ernest Renanen (1823-1892) nazioari buruzko teorizazioari men eginez[739],[740].

Azkuek Herderren bidetik jotzen duela badirudi ere, Jean Etxepare Renanen eredura lerratua begitantzen zaigu, non herri-tradizioek pisu txikiagoa duten borondatezko itunaren aurrean. Agian, XX. mende hasierako Frantzian eskualde-zaletasun kulturalak indarra zuen, Hegoaldean gertatzen zen bezala non abertzaletasuna goraka zetorren hainbat ekimeni bultzada emanez (Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Eskualtzaleen Biltzarra…). Guztiarekin ere, Jean Etxeparek idatzi eta handik urte gutxira, gauzak aldatuko ziren II. Mundu Gerraren eraginez. Pétain Marexalaren gobernu frantsesak folkloreari bultzada eman zion, baina kolaborazionisten porrot militarraren ostean, haiek sustatutako folklore hura ere gaizki ikusiko zen. Esan daiteke Azkue nazio-eredu espainiarrera lerratu bazen, Jean Etxepare eredu frantsesetik hurbilago dagoela.

---

737 Hoyos, L. eta Nieves Hoyos (1947). *Manual de folklore*. Madrid. Revista de Occidente. 18 or.

738 "Il est à souligner qu'au Pays basque la collecte des contes n'était pas tardive par rapport à la collecte en France, bien que celle-ci ait commencé assez tard par rapport aux autres pays d'Europe" in: Zaïka, N. (2011). *Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942 :(W. Webster, J.-F. Cerquand, J. Barbier, RM de Azkue)*. *Iker* 31. Bilbo. Euskaltzaindia. 384 or.

739 Thiesse, A. M. (2010 [2002]). "Folklore" in: Aron P., D. Saint Jacques eta A. Viala. (zuz.). *Le dictionnaire du littéraire*. Paris. PUF. Ikusi baita ere Herzfel, M. (1996). "Folklore" in: Barnard, A. eta J. Spencer. *The Routledge Encyclopedia of social and cultural anthropology.* London. Routledge, antropologia amerikarraren ikuspuntua izateko.

740 Renan, E. (2004). *Zer da nazioa?* Leioa. EHU.

Nolabait, Etxepareren lerroan kokatu gara ikerketa honetarako *sineskeria* hitza mailegatuta, testuinguru positibista hartan, alegia, nahiz eta Azkuek berak ere hitz bera erabil zezakeen. Etxepareren jokabideak naziotasun erromantikoarena ez bezalako helburua du, hau da, nabarmen eta irri-egingarri uztea irakurlearen begietan zientziak eta arrazoiak markatutako ildoarekin ez datorren sinestea.

Sineskeriaren kontrako borroka modernoan sartuta dago Jean Etxepare bete-betean; *Beribilez*eko une horiek zerrendatu ditzakegu. Hona hemen gehiegizko sinesberatasuna agerian uzteko aipatzen diren tematika zibernetiko nagusiak, alegia, sinesberatasuna ebaluatze honen agerraldiak testuan, Philippe Hamonen metodologia semiotikoaren arabera:

- Ama izateko gaitzen duen Orreagako harria.
- Orreagako balizko iturri mirakuilutsua[741].
- Iturrien sail berean, Ignazioren eskultura baten oinetako beste iturri mirakuilutsua, jendeak ez duena erabiltzen, beldurrez-eta kutsatuko den hainbatek erabilitako edalontzia erabilita.
- Luxuzko dekorazioa Loiolako Santutegian.
- Petrikilo Donostian. Donostiako bisita hartan, irakurleak aurkituko du petrikilorenera doazen bezero batzuen jarduna larrutzen duen pasarte luze samarra.

Elementu horiek aztertzeari banan-banan ekingo zaie azpiatal honetan. Adierazgarria da mediku positibistak nolako arretaz sineskeriak jaso eta zehatz-mehatz orrialdeotara ekartzen dituen. Emakumea, besteak beste, bereziki seinalatua geldituko da praktika hauek bereganatzeko joerari dagokionez bezanbat[742].

Alabaina, ez dira urteak alferrik igarotzen-eta, sineskeriaren eta zientziaren arteko harremana aldatu egin da XIX. mendetik hona. Urte hauetan, gauza miragarrien alderako zaletasuna indarberritu egin da, instituzio erlijiosoetatik kanpo… baina hori beste haritz bateko ezpala da. Jean Etxepareri Piarres Xarritonek zientista izatea leporatu bazion ere, ikusiko dugu

741 B. 16.

742 Emakumea eta folklorea lotzea ohikoa dirudi: Hoyos, L. eta Nieves Hoyos (1947). *Manual de folklore*. Madrid. Revista de Occidente. 39 or.

medikua ulerbera zela herritar apalen zaletasunekiko, medikuntza alternatiboa eta sasi-medikuntza denaz bezainbatean, hain zuzen, kalterik ez badu sortzen, behinik behin.

4.2.1. Herri-erlijioaren alderdi eztabaidagarriak

Iturriek esanahi erakargarria izan dute, sinboloen hizkuntzan. Iturriak izan dira baratzaren erdian sortu direnak, Bizitzaren Arbolaren oinekoak, lurreko Paradisuaren erdikoak, etab. Iturri mota ugariek karakterizazio desberdinak izan ditzakete: badira biziaren iturria, ezilkortasunarena, gaztetasunarena, eta, baita irakaspenaren iturria ere, besteak beste. Adibidez, iturriaren ur aldakor etengabeek berma dezakete gaztetze etengabea, denboraren mugak hautsita[743]. Jakina denez, erlijio nagusiek iraunarazi egin dituzte hainbat iturri paganoren direlako bertuteak, lehendik zegoen sinestea helburu proselitistarekin moldatuta.

Historiara itzulita, iturri mirakuilutsuek indarra XIX. mende osoan zehar izan zuten Frantzian[744]:

> "L´éclair et la foudre pouvaient être domptés, le bétail soigné, la santé améliorée ; les piqûres de serpents et la rage avaient trouvé leurs remèdes ; les bulletins météorologiques s´avéraient plus dignes de confiance que les formules astrologiques ou les anciens sorts ; les champs étaient plus productifs grâce aux engrais chimiques. Mais les vieilles pratiques survécurent, spécialement quand il s´agissait du mariage, de la naissance des enfants et de la mort. Les fontaines qui promettaient l´amour ou le mariage durèrent plus longtemps que celles dont les eaux étaient censées guérir ; les rites de fertilité et les usages funéraires subsistèrent après la Première Guerre mondiale. Bref, les dimensions de l´existence les plus difficiles à dominer, les plus soumises aux hasards, gardèrent très longtemps leur aura magique"[745].

---

743 “Fontaine” in Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

744 Weber, E. (1983*). La fin des terroirs. La modernisation de la France rurale 1870-1914*. Fayard. "Les folles croyances" atala. 51 or.

745 Weber, E. (1983). *La fin des terroirs. La modernisation de la France rurale 1870-1914*. Fayard. "Les folles croyances" atala. 54 or.

Haatik, herri-sineskeria profanoetatik harago, Jean Etxeparek zuzen jo du aipatzera Ignazioren estatua baten oinean kokatutako iturriak mirariak sortzeko ahalmena ote duen, Loiolako Santutegian bisitan dela:

> "Huna oraino zipu bat, harresi biribil batek ziloa inguruan ezpaintzen diona goiti; harresi-hegiaren gainean xut, bronzazko bigarren gizairudi bat: Ignazio berriz ere, bainan orai zaldizko aitzindari baten apainduran, hets eta idekaraz ditaken kaska batez estalirik buru lepoak. Aurpegia bera ez du haatik bronzaz, bainan ba xuri-gorratsezko orhe gogor batez egina, ez baitzira guti harrizen, aldarteka agertzen dauzunean kaskaren aho zabaldutik.
>
> Burdin-gider batek goiti ta beheiti derabil ponpa bat, ur-hotx garbia lupetik ausarkian dakarrana agerrerat. Gu hurbiltzearekin, bospasei ikusliarrek gogotik klaskarazten dute ponpako esku-ziria, bainan baso-beretik edateak kilikatzen daie barnea... elgarren ganikako kotsuen beldurrez! Basoa betherik dago sainduaren oinetan; tintik ez du edaten nehork!"[746]

Argi dago *Beribilez*en azpimarratuta, nola erlijio-usadio higiene gabekoak baztertzen dituen mediku-zientzien aurrerapenak.

Testuan, ez du esplizituki ematen bere iritzia idazleak, harritu besterik ez da egiten:

> "Iduri zait ene ondoan dutala oraino, egun, apezño hura.
>
> Duela hogoi urthe, solasean hasi eta laster, urraska ereman nuen atherat, galdegiten niolarik San Ignazioren ithurriak egiten zuenez mirakulu hanitz. —Guti, arras guti, zaundan hotz-hotza erantzun, bide hortazko mirakuluek haren iduripenerat gibelondorik batere ukan ez balute bezala. Harritu nintzen, behin, haren atheraldi axola-gutikoaz"[747].

Nabarmendu liteke semiotikaren ikuspegitik, bi lagunen artean iturri mirakuilutsuaren gaia ixil-gordeka aipatzekoa dela, aparte batean ("urraska ereman nuen atherat"). Bestalde, apezñoaren erantzuna enigmatikoa da. Interpretazio bat ematearren, izan daiteke elizgizonek

---

746 *B.* 56

747 *B.* 57

mirarien meategia gehiegi ustiatu nahi ez izatea, XX. mendea nahiko aurreratuta dagoela. Zientzia aurrerakuntza erabakiorrak egina zela-eta, edozein aitzakiarekin ezin aldarrikatu behin eta berriro beste mirari bat eta beste bat, inoiz gertatzen izan zen bezala. Elizak berak komite zientifikoak paratu zituen horren kariaz, mirarien zientifikotasuna bermatzeko. Aurrerantzean, bai, berme zientifiko sendoagoa izango zuten Elizak onartuko zituen mirari urriek[748].

Edo, beste interpretazio literalago bat emanda, idazlea baliatzen da apaiz lagunaren eszeptikotasunaren trikimailuaz sineskeria nabarmen uzteko zeharbidez, kasu honetan Ignazioren iturri ustez mirakuilutsua, salaketa zuzenik egin gabe, apezño hori benetan baita figura anbibalentea kontakizunean.

Iturriaren sineskeria honetan eta aztergai diren besteetan ere, ez dago narratzailearen diskurtso arrazionalik, gizarte- edo giza-zientziek erabil dezaketena bezalakorik. Dagoena da deslegitimazio testual semiotiko bat protagonista nagusiaren berariazko diskurtsorik gabea (praxeologikoa[749]). Apaizaren erantzun hotz iheskorrak aditzera eman liezaioke irakurleari narratzaileak polemika-puntu agian mingarri edota arantzatsu bat ukitu duela. Zinez, azpimarragarria da mirakuluen gaiak *Beribilez* osoan zehar duen errepikakortasuna. Agerian da, berriz ere, Jean Etxeparek mantendu nahi zuen oreka zaila zientziaren eta erlijioaren artean, alegia, bere iritzi sendoenen eta inguruko nagusigo konfesionalaren artean.

Euskal testuingurua hartu beharko litzateke kontuan mirakuluen gaian, adibidez, Zaldubi (1828-1907) apaizaren lekukotza idatzia baliatuta. Zaldubirekiko harremana da Jean Etxeparek komunitatearekin mantentzen zuen oreka zailaren beste adibide bat, mirakuluen sailean ikus litekeen bezala, urrutiago joan gabe. Izan ere, Gratien Adema (Zaldubi) idazlea Jean Etxeparek miresmenez aipatzen du *Beribilez*en[750]. Horretara, Gratien Ademak, liburu batean, mirakuluen funtzioa defendatzen du, Etxeparek erlatibizatua bidaia-liburuan. Ademak *Eskualdun pelegrinaren bidaltzailea* (1877)[751] liburuan erromesaldiez trufatzen direnei erantzun puntuala ematen die. Ademak liburu horretan erromesaldi zehatzak aipatzen ditu, beraien alderako asmo goragarriz: Loiola ez, hala ere. Ademarena interesgarria da eskuliburua

748 Albert, J.-P. (2010). "Miracle" in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.). *Dictionnaire des faits religieux*. Paris. PUF.

749 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF. 103 or.

750 *B.* 9

751 Adema, G. "Zaldubi" (1877). *Eskualdun pelegrinaren bidaltzailea*. http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/A/AdemaPelegrin.htm [2016-07-14]

den aldetik *Beribilez*en garaikoa, konturatzeko nolako izpiritua zegoen erromesaldien inguruan, gaur egun nabarmen moteldu bide dena.

Medikuaren balizko heterodoxia baten harira, esan daiteke Etxepareren hitz-erdikako iradokizuna Elizaren jokabidearekin errespetuzkoa dela, santuaren etxeko iturri "mirarigilea" denaz bezainbatean. Ez hori bakarrik, ortodoxiak ere mirakuluen aurrean zalantzak izan ditzake, eta Jean Etxepareren zentzuna Elizaren erabaki argienekin bat etor daiteke, harrigarria bada ere, beste batzuetan bezala[752]; ikusi zer dioen Akinoko Tomas Elizako doktore unibertsalak mirarien gainean, Etxepareren garaian Aita Santuak modernismo katolikoari aurre egiteko berariaz hautatua:

> "Los milagros disminuyen el mérito de la fe en tanto en cuanto que por ellos se pone de manifiesto la dureza de quienes no quieren creer más que a base de milagros lo que prueban las Sagradas Escrituras. Y, sin embargo, es mejor para ellos que se conviertan a la fe, siquiera por los milagros, que permanecer totalmente en la infidelidad. En 1 Cor 14,22 se dice que los milagros se dan a los infieles, es a saber, para que se conviertan a la fe"[753].

Gaur egun, bazter batera eraman dute iturria oinetan daraman Ignazioren zaldun gisako estatua, etxearen aurreko aldetik. Seguruenez, Jean Etxepareri Ignazioren etxea gustagarriagoa egingo zitzaion XXI. mendearen hasiera honetan dagoen bezala.

4.2.2. Medikuntza paraleloa irri-egingarri

Autoetako lagunak Kontxara joan zaizkio medikuari, berak ez baitu hondartza maite, eta kalean geratuko da. Euskaldun batzuen solasa aditzen du narratzaileak, Donostiako taberna

752 Loiolan, Ignazioren oin-etxea bisitatzean ere, luxuzko dekorazio barroko arranditsua arbuiatzen du idazleak, eta, gaur egun ezagutzen dugun etxea askoz *pristino*agoa da, jatorrizkoaren antzekoagoa, Lagundiak burututako zaharberritze baten ondotik, Jean Etxeparek gustukoa zuenaren askoz hurbilagokoa.

753 Akinoko Tomas Deunaren *Suma teologikoa* IIIa, 43 atala, 1 artikulua ad. 3 http://hjg.com.ar/sumat/d/c43.html#a1 [2016-07-28]

batean eserita dagoela. Petrikilo baten bezeroak dira, operazio bitxia egiteko itxaroten: sudurreko zain bat erretzea, oinarri zientifikorik gabeko prozedura medikoa.

> "Loriatua nago ene alkiaren gainean, ene errangura guzietarik sudur-erretzerik gabe orai beretik sendatua, ni. Lanak ditut bizkitartean irria ezin atxikiz. Hogoi ta hamalau urthez gaztetu nute, aditu solasek. Duela hogoi ta hamalau urtheren ingurua, hola-hola Frantzian mediku jakintsu batek eri batzuei erretzen ohi zuen sudur-barnea. Zainik etzuen ikusten bizkitartean harek, eta ez du nehork egundaino ikusi, ez baititake ikus elektrikargiarekin ere.
>
> Oinhaze hanitz gabatzen zuen ara hortaz, bainan zonbait egunendako baizik ez. Berriz agertzen ziren gero, berdin samin. Sendatze labur horiek ere, emaztekiekin zituen ardurenik"[754].

Orain arte, deskribapen objektiboa irakurtzeko aukera izan dugu. Haatik, pasarte horren segidan, ironia barra-barra erabiltzen du, mediku-praktika ez-ofiziala gaitzesteko.

> "Deus handirik ez balin bazuten, elhe onek jada sendatu-hurran dituzte. Zinez eri balin baziren, hala ez iduri gatik, sendatzeko esperantzak arintzen derauete gaitza. Joanen dira segur hôtelerat. Nolako astea ez dute han iraganen, zain eta odol osasunerako segurtamenak egunetik egunera jabalduak! Sudur-barnea delako orratzak erre ondoan ez badira ontzen arras, hobekitu bederen direla usteko dute. Bizitzen badira luzaz eta zahartzen, zonbat aldiz ez dute errepikatuko beren ondokoer, gosta bazen gosta mediku haundi batek zituela salbatu behin Donostian!"[755]

Etxepare herri-topikoekin jolasten ari da tabernako dendari lapurtar hauetaz trufatzean, behinola Gustave Flaubertek egiten zuen bezala, gizarte burgesaren konformismoa agerian utzita; Flaubertek lege-salaketak jaso zituen gizartearen konformismoa kolokan jartzeagatik idazlanetan[756]. Argien mendeko eginkizuna zen aurreko iritzi tradizionalak kordokaraztea, Jean Etxeparek *Beribilez*en egin dezakeen bezala, lehenengoz Voltairek ekin zion langintza horri jarraipena emanez. *Beribilez*en bada satira txikia, jende xeheak miresten duen medikuntza

---

754 *B.* 87

755 *B.* 88

756 Frantziako gizartearen topikoen bilduma da, kasurako, liburu esanguratsu hau*:* Flaubert, G. (1997). *Dictionnaire des idées reçues*. Paris. Fayard. "Introduction".

miragarriari buruz, eta, bereziki, jendeak elkarri panazea horren sinestea komunikatzeko duen jaidura inozoari buruz, apur bat Flaubertekin batera, *vox populi* agerian uzten duela:

> "Eta medikuari berari zeren gatik ginuke aihertzeko? Zendako litzaizkioke lagunak bekaizti? Bizpahiru ilhabeteren buruko eroria izanen da, utzia bazterrerat, jendeak alda maitez labur baitu ezagutza. Anartean ahur-bethez aberats dadila beraz ahal badu, Donostiako sendalaria. Barkatua izanen zaio gogotik: dirua baino gehiago ez othe da, eta osagarria bera baino ere ez orobat, esperantzazko amets gozo, ederra?"[757].

Ezin oharkabean pasatu, ordea, azpitik isurian doan umore etengabea, eta behako zorrotza. Petrikilo kalterik egiten ez duen fenomeno herrikoitzat dauka, plazebo bat bezalakoa, ez zuena bestelako ondorio salagarririk. Petrikiloren bezeroek kontrol-ilusio baten bitartez beren bizimodua hobetzea lortzen dute[758].

Azpimarragarria, sineskeria honi dagokionez, emakumeak izatea bezerorik zintzoenak petrikilorekiko:

> "Oinhaze hanitz gabatzen zuen ara hortaz, bainan zonbait egunendako baizik ez. Berriz agertzen ziren gero, berdin samin. Sendatze labur horiek ere, emaztekiekin zituen ardurenik"[759].

Petrikiloren figurak balio dio semiotikoki idazleari hainbat puntu ukitzeko kolpe batez: bezeroen inozentzia, diru-zalekeria, emakumeen aiurria, gizakiaren hutsalkeria, sasi-zientzia… Honako honetan "euskal odola"-ren aipamenik ez da, dendari lapurtarrak arrunt edo baldar samarrak baitira jokabidez, euskaldunak izanagatik. Panorama horren aurrean, Jean Etxeparek ezin du bridatu ohiturak erreformatzeko asmoa, ironia erabilita.

Jakina denez, ironia desadostasuna adierazteko eraginkorra izan baitaiteke. Pere Ballart literatur kritikariak ematen du ironiaren definizioa: "la figuración irónica, que permite a la vez

---

757 *B.* 88

758 Vadillo, M. A., Matute, H. & Blanco, F. (2013). "Fighting the illusion of control: How to make use of cue competition and alternative explanations". *Universitas Psychologica*, 12(1).

759 *B.* 87

negar lo que se afirma y decir algo no diciéndolo”[760]. Etxepare petrikilo arbuiatzen ari da esanez ez diola petrikiloren praktikari tatxarik ikusten, eta jolastu egiten du irakurlearen eta komunitatearen balizko balioekin. Izan ere, zer da hobea gaixoa plazeboarekin gustura geratzea emaitza terapeutikoa hutsala izanik, ala medikuak sendakuntza erreala lortzea?

Polisemia horren harira, dio Antonio García Berriok: “una obra es eterna, no porque impone un sentido único a hombres diferentes; sino porque sugiere sentidos diferentes a un hombre único”[761].

Izan daiteke Etxepare sineskeriaren kontrako ekimen iraunkor batean murgilduta egotea bizitzan zehar, gainerako gizarte-lorpenen eta aurrerakuntzen alde egiten duen heinean. Nolanahi ere, adiskidekoia da medikuak herri ezjakinarekiko duen begirada, ez da arbuio gogorrekoa petrikiloren pasartean. Horrela bada, medikuak ateak erdi zabalik uzten ditu, medikuntza alternatiboaren erabiltzaile eta praktikatzaileenganako sinpatiako arrazoiak aipatuta; horra hor esanahien ugaritasuna petrikiloren pasartean.

Agian, ironia sokratikotzat ere jo daiteke medikuaren jarrera, ez baitu ezer dakienik adierazten, ez du hartzen jakintsu-plantarik bederen. Irakurle saiatuaren esku geratzen da argudiatzea, sasi-medikuntzaren aldeko arrazoiak baliogabetzekotan, medikuak artaz jasoak. Medikuak itxuraz tolesgabeak diren galdera batzuk metatzen ditu lañotasun zuriz, bestelako burubiderik ez balu bezala azpitik[762].

Pasarte hauetan, gure ustez, medikuaren filosofia positiboaren beste ale erakusgarri bat dugu. Piarres Xarritonen kritikak leporatu dio Jean Etxepareri zientifismoa, hau da, ez dagokion lekuan parametro zientifikoak erabiltzea[763]. Petrikiloren kritika, aldiz, umore estalki batekin bildua dator *Beribilez*en, eta muturreko zientifismorik urrun, gure ustez, ez baita petrikiloren eszena hau Aldudeko medikuaren balizko zientismoa ilustratzeko adibiderik onena.

---

760 Ballart, P. (1994). *Eironeia, la figuración irónica en el discurso literario moderno*. Barcelona. Sirmio. 447 or. Cuddonek ere definizio bera ematen du; ironia definitu izan da honela: hitz batzuekin, juxtu kontrakoa adieraztea. Cuddon, J. A. (1999). *Dictionary of literary terms & literary theory*. 5. arg. London. Penguin. “Irony” sarrera.

761 Antonio García Berrio aipatua in: Ballart, P. (1994). *Eironeia, la figuración irónica en el discurso literario moderno*. Barcelona. Sirmio. 454 or.

762 Cuddon, J. A. (1999). *Dictionary of literary terms & literary theory*. 5. arg. London. Penguin. “Socratic irony”.

763 Murua, I. (1996). “Piarres Xarritoni elkarrizketa”. *Jakin* 97.

Arrazoi handiz, irakurleak pentsa dezake Etxeparek sen ona agertu besterik ez duela egiten. Kontuan hartzekoa da, ziur aski, Etxepare medikuntza esperimentalean eskolatua zela Bordeleko Unibertsitatean. Uste izatekoa da Jean Etxeparek Claude Bernarden (1813-78) *Introduction à l´étude de la médecine expérimentale* (1865) eragin handikoa ezagutu zuela, itzal handia izan baitzuen liburu horrek. Urrutira jo gabe, Pío Barojak sutsu aipatzen du Claude Bernard ("No hay otro en la medicina moderna que se pueda comparar con él"[764]).

Medikuntzak XIX. mendean jauzi kualitatibo handia egin zuen esperimentazioaren bitartez[765]. Beraz, petrikilo bezalako figurek sinesgarritasuna galdua zuten medikuntzaren ikuspegitik, alegia, iraganeko garai zahar batekoak bihurtzen ari ziren, borroka horretan Etxepare lekukoa eta partalierra izanik.

Ohargarria da medikuntza paraleloaren gaia Jean Etxepareren gai kutunetako bat izatea, ez baita harritzekoa medikua izanik ikasketaz eta lanbidez. *Buruxkak*en ere erabili zuen, *Beribilez*en antzeko baliabide erretorikoekin. Jon Casenavek dioenez *Buruxkak*eko "Basa" artikulua ere antifrasi moduan emana da, zuzenean basa-medikuei eraso gabe[766]. "Basa"-n basa-haginlariaren bila doa komisarioa. Artikuluan idazleak argudiatuko dio komisarioari oker ari dela, alferrik baita sasi-mediku horiek bezalakoak zigortzen ekitea, herriaren sinestea bere alde badute; gainera, basa-medikuarenera doazenak gehienetan "hortzetarik, ala hezurretarik, ala sabeletik, ala burutik erranguratzen zeieztenak ez baitute erdietan deusik, edo beraren zinkurinaz dauden mina ttipienetarik baita"[767]. *Beribilez*en, era berean, Jean Etxeparek herriaren sinestea jartzen du aringarri, basa-medikuaren irudi umoretsua emateko eta onberatasunez epaitzeko.

Etxepareren programa positiboak naturalismoarekin zerikusia izan dezake, kronologikoki ere garaikideak baitziren. Naturalismoak agintariak erreformak egiteko akuilua izan nahi zuen, gizarte eskasiak salatuta. Hala ere, desberdintasun bat topatu ahal da Jean

764 Ikusi [Bernard, Claudio] in: Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio.

765 Sinding, Ch. (2004). "Médecine expérimentale" in: Lecourt, D. (zuz..) *Dictionnaire de la pensée médicale*. Paris. PUF.

766 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 440-441 or.

767 Etchepare, J. (1980). 3. arg. *Buruxkak*. Donostia. Elkar. 180 or.

Etxepareren eta Émile Zolaren artean: gordintasunaren ordez, umorea erabiltzea Etxepareren kasuan. Pío Barojak, garai berean, honetara karakterizatzen du Zola: "[Emilio Zola] Es un escritor fuerte, vigoroso, elocuente; pero, para mí, es pesado. No hay en él nunca una sonrisa, una amabilidad o un rasgo de humor"[768].

Ez da ahaztu behar karreradun medikuei lehia desleiala egiten zietela petrikilo bezalakoek, eta, hain zuzen, herrixkako medikuari "irabaziak xuhur"zetozkion kasu egin behar bazaio [769].

Jean Etxeparek bizitzan zehar euskal herritarrek zuten jakintza mailaren inguruko kezka izan zuen. Jadanik 1905ean medikuak adierazten du bezeroek zuten prestakuntza eskasa medikuntzaren onurak behar bezala prezatzeko:

> "Laket zuen liburuen ikertzea maiz, sendagailu berrien ikasteko, zaharren ez ahanztea gatik. Hartakotz lagunak, zerbait erraiten zuelarik zinez, ixilik egoten ohi zitzaizkon, ez baitu famak egiten medikua… Bainan Euskal-Herria ez da jakitatearen lekua. Baditake laborariak ez dakien ere oraino zer den hitz horrek golkoan daukana.
>
> Behazu, nora doa gehienik? Bera iduri, deusik ez dakiten batzuen ganat: beti danik Euskal-Herrian, sendazalerik handienen herrunkan goretsiak izan dire, doidoia irakurtzen eta izkiribatzen zakiten barber batzu, aztiak, sorginak, bai eta, jakitatearen eskasean, arrabots hanitz derabilaten medikuak. Laboraria, oraino haur dago gure eskualdeetan: "tirritipi-tarrapata", adituak oro sinets, batetik bertzera norat nahi dabila aztoraturik"[770].

---

768 Ikusi "Zola, Emilio" sarrera in: Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio.

769 *B.* 5

770 Xarriton, P. (1985b). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. II mediku-solas.* Donostia. Elkar. "Elosua jaun medikua". 248 or.

4.2.3. Generoa eta sentiberatasuna

Ikusi dugu nola ari den umorez narratzailea, petrikiloren bezero tolesgabeen kontura; maiz, distantzia ironiko bera izango du liburuan zehar autoko emakume sinesberekin liburuko zenbait pasartetan, hainbat kontu hizpide hartuta. Hemen narratzailearen balorazio batzuk errepasatuko ditugu, argitzeko areago generoak nolako lekua duten idazle positibista honen idearioan, Etxeparek ohartarazten baikaitu emakumeen eta sineskerien arteko loturaz, bederen berak ezagutu zuen gizarte inguru hartan, eta sinetsi behar bazaio.

Ikerlan honetan, generoaren bestelako alderdi batzuk dagokienean aztertu dira. Asimetrikoa da emakumearen irudia gizonekiko *Beribilez*en, baina balirudike medikua errealitate bat aurkezten ari zaiola irakurleari, emakumeak gutxiesten baino gehiago, pasarte horietan.

Atal honen xedea da emakumearen ustezko izaera eraginerraza nola agertzen den *Beribilez*en aztertzea. Emakume-portaera sinesbera baliabide narratologikoen bitartez testuratzen da, ez dago-eta hitzez hitzeko moralizazio-diskurtsorik gehienetan. Tematika zibernetikoak izango dira gertaldi bakoitzean emakumearen sinesberatasuna agerian utziko dutenak, ikusiko denez[771]: "amageitzen" duen harria, Loiolako Santutegiko dekorazio-luxua eta petrikiloren bezeroak.

4.2.3.1. Emakumeak adin-txikiko

Liburuak beste hari narratibo bat badauka kontrapuntuan, bidaiak aurrera egiteaz gain, bigarren haria bezalakoa ibilbidearen hari nagusiaren azpitik. Bidaia kolokan egon daiteke, jakin gabe Loiolara iristeko modurik izango ote duten: ama izateko gaitzen duen harriaren bilaketak kilikatzen ditu autoko emakumeak Orreagan, eta programazioa hankaz gora jar lezakete.

771 Irakurleak metodología atalera jo dezake, tematika zibernetikoaren zer den azalduta baitago.

Espedizioko bide-erakuslea da Etxepare, ibilbideko parajeak aurretik kurritu dituelako. Bide-erakuslearen asmo nagusia da Loiolara iristea eta, gero, bueltatzea Kanbora egun bakarraren buruan.

Aurreikusitako ordutegiari erreparatu gabe, emakumeek planteatzen dute Orreagan ama izateko gai bihurtzen (*amageitzen*) duen harria ikustea, nahiz eta bidaiako kronogramatik kanpo egon, gizonezkoen plangintzan. Desbideratzea ekiditeko, gizonezkoek sinestarazten diete emakumeei Burgosera eraman dutela, azpijoko eta trikimailuen bidez. Liburuaren amaieran argituko da ditxosozko harria bazegoela Orreagan, eta emakumeak ernegatu egiten dira. Bidaia guztiaren azpitik, ironia jarrai batek korritzen du harriaren sineskeriaren eta emakumeen sinesberatasunaren gainean.

Orreaga bertako baserritar baten lekukotza faltsua baliatzen dute gizonezkoek emakumeei sinestarazteko harria Burgosen dela. Praxeologia narratiboa erabiliko du idazleak sineskeria barregarri uzteko, horrela, autoetako gizonezkoek gezurra eta trikimailuak erabiliko dituzte, emakumeak duten asmo "eroa" desbideratzeko. Beste hitzez, baliabide diskurtsiboen bitartez modulatu egiten ditu idazleak kritikak, ez hitzez hitz. Horren arioz, amageitzen duen harriaren herri-sineskeria ere, zeharbidez arbuiatua da, baliabide sintagmatikoen bitartez. Praxeologia narratiboa izango da balioak adierazteko baliabidea, hau da, literatur narrazioen ekintzen segida[772].

Oraingoan ere, narratzaileak adin txikikotzat agerrarazten ditu emakumeak. Idazleak begiratzen duen prismako deformazioa da, ala gizarteko errealitatearen argazki leiala?

Erantzun hau jaso dute ustez fidagarria den baserritar bati harriaren berria galdetuta:

> "Sarde-gider puntaren gainean trebesatzen ditu gizonak bere besoak, besoen gainera burua ukurtzen, eta irriño batekin ezpain-xokoetan:
>
> —Ez da gehiago hemen harria. Duela bi urthe eremana du berekin Burgozeko artxapezpikuak. Arras mehatua zen...
>
> Uste etzuten berri hau entzutearekin: "joanen gira beraz Burgozerat", diote gure andre lagunek bixi-bixia, apur bat samur Orreagatik harri hura kendu izan delakoan.

---

772 Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF. 10 or. Piaget-i zor zaio *praxeologiaren* kontzeptua. Horren osagarria da axiologia, hau da, balioen zerrendaketa bat, sintagmaren eta paradigmaren araberakoak, alegia

Orai behintzat, ez lukete opor osorik nahi: "harria ereman badute, utzi dukete arabez Orreagako mirakuluen bertze ithurburua: komentuko pentze batean sortzen den ur-hotxa?".

Hasiz geroz, mirakuluz-mirakulu hegaldaka baitabil emazteen irudimena, eta hamekak joak izana gatik Loiolarat baikinuke egun berean xede, agertzen dut ene barneko khexua... Berriz otomobiletarat iganik, adio erraiten dugu behingotz Orreagako herri ñimiñoari"[773].

Baina baserritarra ez zen fidagarria suertatu, nahiz eta emakumeek hari sinetsi. Adierazgarria da emakumeen erantzuna narratzailearen ikuspuntua jasotzeko, emakumeek arrazionaltasun herbala dute Etxepareren idearioan, pasarte honetan ikusten denez: "Hasiz geroz, mirakuluz-mirakulu hegaldaka baitabil emazteen irudimena". Tupustean dihardute, ez dute gogoeta egiten ("Uste etzuten berri hau entzutearekin: "joanen gira beraz Burgozerat", diote gure andre lagunek bixi-bixia, apur bat samur") kolokan jartzen dutela Loiolako Santutegia bisitatzeko plangintza nagusia, beste xede zalantzagarri batez ordezkatua: amageitzen duen harria ikustera joatea, nora eta Burgosera.

Emakumeen asmoa bazen harri hura ikustea, azkenean ez dute ikusten hainbat akiakularen laguntzarekin: Orreagan ez dela, Burgosen dela…

Beraz, baliteke gizonezkoek aitakeriaz jokatzea. Emakumeak-haur-izate hori liburuaren azken orrialdean islatzen da argien, non emakumeek iruzurraren gainean azkenik jakitun, berriz ere sineste eztabaidagarrietara jotzen duten mendekatzeko, oraingo honetan Jainkoaren zigorra:

"—Zer zen, gezurra? diote egiten, harrituak iduri, lau andreek batean.

—Dudan zaudete? Segurki, gezurra baitzen, ez ttipia. Ba eta zuek orok sinetsi!!! Jainko maitea!

—Ba eta zu Jainkoak punitu! Zuk Iruñan muntra galdu! Merexi! Merexi!

—Han da han, bere tokian, ez Burgozen, delako harria. Harendako bakarrik, bertze aldiz batez eremanen zaituztet.

---

773 *B.* 16

Eta, gogotikago oraino irriz, badoa ene lagun gidaria bere etxeko athearen idekitzera.

Aitzintzea behartzen zaio haatik barnerat, hiruzpalau ukomilo ttipik atabalatzen baitiote bizkar zabala, erasiaño hunekin:

—Zu! Zu! Zu!”[774]

Testuaren semiotikari begiratuta Philippe Hamonen bidetik, argi dago emakumeak haurrekin berdintzeko saioa: fisikoki eta psikikoki. Fisikoki: ukabil txikiak dituzte, eta ez dira erasotzat hartzen haien ukabilkadak (“hiruzpalau ukomilo ttipik atabalatzen baitiote bizkar zabala”); erasia txikiak egiten dituzte, zentzu handirik gabeak (“erasiaño”)[775]. Psikikoki, haurren erantzunak dituzte: ez dute esaldirik josten hizketa emozionala baitute gehienetan: interpelazioak (“—Zu! Zu! Zu!”) darabiltzate esaldi josirik ia erabili gabe, nahiz eta egia izan memento bero samarra dela; mendeku badaezpadakoak eta irri-egingarriak planteatzen dituzte (“Ba eta zu Jainkoak punitu! Zuk Iruñan muntra galdu!”); errepikak eta hitzen aldaera itxura batean hipokoristikoak erabiltzen dituzte haur-kantetan bezala (“Merexi, merexi!”)[776]. Hori guztia gutxi balitz, gizonezkoen gezurrak aisa irensten dituzte ere (“Dudan zaudete? Segurki, gezurra baitzen, ez ttipia. Ba eta zuek orok sinetsi!!! Jainko maitea!”), inozoaren papera hartzen baitute.

Esan den bezala ika-mika guztia fabulosoa eta irrazionala den sineste batengatik sortua da, hau da, ama izateko gaitu dezakeen harri bat badelako sineskeria, eta gainean eserita edo hura ukituta emakumea ugalkorra bihur daitekeelako sineskeria.

---

774 *B.* 103

775 “Erasia: Charla, conversación, discurso (usado generalmente en sentido peyorativo); murmuración, chisme. "Murmure, parole qu'une personne prononce pour manifester sa mauvaise humeur, sans s'adresser néanmoins à quiconque". *Orotariko Euskal Hiztegia.*

776 *Beribilez*en bertan erabiltzen da *merezi* hitz afektiboki neutroa: “Kathedraleak berak merezi zuken egon gindizkion astikixago beha”.

4.2.3.2. Erlijiotasun errazaren indarra

*Beribilez*en emakumeak agertzen dira gizonezkoak baino intelektualki ahulago gisa, esan den bezala; beren ahultasunaren beste seinale bat da makurtzen zaizkiola Loiolako Ignazioren etxean luxuaren lilurari, estetika barrokoaren arabera[777].

> "Ohartzen niz behinik behin xoratuak dagozila gure ondoko emazte guziak; durduzaturik, gizonek berek ez dakigula norat itzul. Etxe huntako sorginkerier, holakorik erran badezaket, bihotz gogorrenekoentzat ihardukitzea lan"[778].

Emakumezkoak "xoratu" egiten dira errazago aberastasunekin, bihotza bigunagoa dute, eta denek salbuespenik gabe ("gure ondoko emazte guziak").

Sineskeriatzat har daiteke, era berean, aberastasunen alderako fetitxismoa Loiolako barrokismo-erakustaldi hartan, tesiaren estetikaren atalean esana datorren moduan. Aberastasunek galbidera eraman dezakete gizakia, Donostiako arkitektura ederra baina materialista estetikoki epaitzean Etxeparek adierazi duen bezala. "Gizonek berek" nahiko lan, Loiolako aberastasunei ihardukitzeko: gizonak sosegatuagoak dira genero bezala, emakumeak genero bezala ere primarioagoak diren bezala.

Azken finean, aberastasunekikoa sineskeria bat gehiago izan daiteke, Etxepareren idearioan.

4.2.3.3. Iruzurtien harrapakin babesgabeak

Ikus daiteke sasi-medikuntzaren arloan ere emakumeek duten rola. Goratxoago aipatu den moduan, Donostiako tabernan protagonistak petrikilonera doazen bezeroen solasa aditzen du, umoretsu ("Loriatua nago ene alkiaren gainean, ene errangura guzietarik sudur-erretzerik gabe orai beretik sendatua, ni"[779]).

---

777 López de Aberásturi, A. (1997). *La casa torre de Loyola*. Bilbao. Mensajero.

778 *B.* 64

779 *B.* 87

Protagonista gogotik trufatzen da petrikiloren bezeroez, ahaztu gabe esatea emakumezkoek petrikiloren senda-ahalmenean fidantza handiagoa dutela gizonezkoek baino. Emakumeek badute hunkitzeko joera berezia, arrazoiaren gainetik.

> "Oinhaze hanitz gabatzen zuen ara hortaz, bainan zonbait egunendako baizik ez. Berriz agertzen ziren gero, berdin samin. Sendatze labur horiek ere, emaztekiekin zituen ardurenik"[780].

Medikuntzaren arloan, zientzia aurrera zihoan neurrian, sendabide tradizionalak gizarte-onespena galtzen ari ziren. Tradizionalki, askotan, emakumeak izan zitezkeen medikuntza herrikoi horren praktikatzaileak, besteak beste, emaginak, sorginak…. *Buruxkak*en aipatua zituen Jean Etxeparek medikuntzako basa-jarduleen kasuak, "Basa" izeneko atalean:

> "Basek ikasiak direnei kalte dakartela, kalte zuzen kontra, kalte ogiaren ahotik kentzerainokoan, ezin ukhatua da, jaun komisarioa. Bainan zer egin? jendea alde dute, guziz jende xehea, hunen oldarrari bihurtzeko ez baititeke poliza aski azkarrik.
>
> Utzi behar dira, irriz.
>
> Basa dentistek, basa hezur-xuxenzaleek, basa emaginek, aztiek iraunen dute menderen mende"[781].

Basa-medikuei buruz Etxeparek testuetan defendatzen duen laxismoa trikimailua besterik ez da irakurlea gogoetan jartzeko praktika zalantzagarri batzuen aurrean. Ordea, darabilen pedagogiak ironia, umorea eta erretorikako antifrasia dira irakurlearekin egiten duen jokoan, zurruntasunean eta garraztasunean erori gabe[782]. Antifrasia eta umorea satira moduko testuetan erabiltzen dira gizarte talde batzuen ohitura eta bizioak kritikatzeko helburu moralarekin, hala jostatzeko eta trufa egiteko.

Jean Etxeparek petrikiloren pasartean basa-medikuen fenomenoaren panoramika bat egiten du ironia umoretsuaren bitartez. Lapurtar bezero merkatarien larruan sartuta,

---

780 *B.* 87

781 Etchepare, J. (1980). *Buruxkak*. Donostia. Elkar. 180 or. Emakumeak herri-sendakuntzan duen lekuaz diharduen artikulua: Luengo López, J. (2014). "Les remèdes de bonne femme. De la compilación de saberes populares en los tratados médicos franceses al descrédito de la condición femenina". *Arbor* 190.

782 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 440 or.

petrikilorengana joateko arrazoien bila murgiltzen da narratzailea medikuaren ikuspuntutik harago. Prozedura horrek errealismoa ematen dio kontakizunari, eta beraren moralismoa galgatzen du (*moralisme desabusé*[783]). Medikuak badaki bere ikuspegi profesionala erlatibizatzen eta ikuspegi orokorra ulertzen. Ikuspegi horretatik, dena da hutsalkeria, baina ezer ez da hutsalkeria. Medikua ez da gehiegi arrenkuratuko bezeroek egin diezaioketen traizioaz, enpatiazko keinu bat dago haiekiko, alegia, hurbiltasun keinu bat eguneroko bere ogibidearen langintzan topatzen zituen herritar xumeekiko. Jean Etxeparek ez du tragediarik egin nahi, jendearen ezjakintasunak sor lezakeen dezepzioari aurre hartzen baitio; ez du umore ona galduko eta egoarriz entzungo ditu petrikiloren bezeroen txorakeriak haren abilidadeak laudatzen dituztela[784].

Etxeparek irri egitea hautatzen du, ez haserretzea, bai *Buruxkak*en eta bai *Beribilez*en. Patxadaz adierazten du pentsamoldea, auziaren ikuspegi anitzei lekua emanez, berea azkenerako utziz, komeni bada, lotsa eta modu ona ez baititu galdu nahi, irainik eta deskalifikaziorik ez: zirkunlokuzioaren bitartez literatura egiten du, hala *Buruxkak*eko "Basa" artikuluan, nola *Beribilez*en.

Hala ere, ironiaren erabilerak eskatzen du irakurlearengandik Etxeparek manejatzen dituen parametroen berri izatea, eta basa-medikuen alderako apologo onbera dena itxuraz, sakonean arbuioa dela konturatzea, hau da, gizartearen aurrerakuntzan oztopoa iruditzen zaizkiola narratzaileari horrelakoak. Euskal komunitatean gehienek egokitzat daukaten hura, Jean Etxeparek hitz-erdika zalantzatan jartzen du.

783 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 440 or.

784 Jankelevitch, V. (1964). *L'ironie*. Paris, Champs-Essais. 160 or. eta hur.

4.3. Bi itsasoen alegiak eta pentsalaria

Autozaleak Kantauri itsasora iritsi dira, Gipuzkoa barneko lurraldeak zeharkatu ondoren. Itsasoaren eta haren gaineko hodeien ikuskizunaren aurrean, narratzaileari gogoeta ausart eta ameslariak jaulki zaizkio kolkotik, autoko bidaia-kideek entzutekoak[785].

Gogoeta horien bitartez, bi ikuspegi desberdin ematen dizkigu idazleak bizitza ulertzeko, inguruko bi itsasoen esanahi sinbolikoak konparatuta: Ameriketako itsasoa eta Mediterraneoa. Itsasoen arteko jokoak sarbidea ematen dio liburu honetako pasarterik sinbolikoenari, segur aski.

*Beribilez*eko pasarte honek emango digu sarbidea, bizitzan zehar Jean Etxepareren eboluzioa zein izan den ulertzeko ere; besteak beste, idazlearen eboluzioa ezagutuko da bizitza ona eta desiragarria zein ote den bilatzean, alegia, bizitzaren hari gidaria bilatzean.

1928 urtean Etxeparek badu ibilbide intelektuala urratua, 52 urte zituela egin baitzuen *Beribilez*eko bidaia. Idazleak kontuak garbitu beharrean ikusten du bere burua: nolabaiteko balantzea egin nahi du, eta, ondoren, adierazi nagusitan beste ipar bat hautatu duela, gazte-sasoiko iparraz bestelakoa ("—Ni, iduripen bereko ninzake, gazteago banintz. Oixtiko erresuma haren ondotik banindoakela suhar, ez ahal duzu dudarik?"[786]).

Hortaz, saiatuko gara erakusten Jean Etxepare idazlearen ibilbideko elementu bat baino gehiago egon daitekeela txertatuta itsasoen alegia hauetan, honako hauek, hain zuzen: 1) idazlearen familia-historiari egiten zaion zehar aipamena, bide batez, euskal emigrazioaren periplo guztiari egina, familia amerikanoa edo indianoa baitzuen; 2) idazlearen azkeneko

785 Iruzkinduko dugun Mediterraneo eta Ameriketako itsasoen gaineko alegoria hau *B.* 80-82 orrialdeetan kausi daiteke osorik, luzetxoa baita.

786 *B.* 81

ibilbide intelektualaren elementuak; 3) idazlearen ibilbide sentimentala pertsona gisa, bizitza biologikoaren azken zikloko ondorio espiritualak. Banan-banan azalduko dira.

Ikusiko dugu nola igaroko den idazlea aldarte ekintzaile batetik gaztetan (Ameriketako itsasoaren alegiarekin azaldua), helduaro aurreratuan beste sosegatuago batera (Mediterraneo itsasoaren alegia).

Alegia hitza darabil idazleak itsasoen interpretazioak izendatzeko termino gisa, gure ustez prozedura alegorikoa dena, hau da, metafora jarraituen katea osatzea:

> "[Lagunak]—Zozoen lerrorat, alegia hori entzunik, nahi gintuzkezula gure oldez erortzen ikusi, aithorrazu bederen! Guk gure aldetik aithortuko dauzugu ez dela arras egiarik gabea zure alegia.
>
> [Etxeparek]—Alegia edo egia, ez du deus ederragorik Eskualerriari oldartzen den itsaso handiak, erran dauzuetan erresuma baino" [azpimarrak gureak dira][787].

Pasartean, azpimarragarria izan daiteke konfesionala ez izatea narratzaileak ematen digun bizitzaren ikuspegia, eta bai, ordez, ikuspegi kulturalista, horrela dei badakioke, espirituala. Ez da helburu edo balio traszendente ez-immanenterik aipatzen, garai hartan ohi zenez euskal literaturan.

4.3.1. Ibilbide biografikoa: Atlantikoa

Atal honetan jasoko da Ameriketako itsasoak zer zentzu duen Etxepare helduarentzat, eta zer leku duen beraren idearioan itsasoen alegian. Lehen puntu honetan ikuspegia izango da gogoratzea euskaldunek Ameriketara-bidean bizitu zuten diaspora, eta euskaldun horien artean Etxeparek berak eta bere sortzeko familiak.

Jakina denez, emigrazioa Euskal Herriko gizarte-fenomeno gaitza izan zen XIX. mendearen bigarren erdian, eta baita XX. mendearen hasiera hartan ere. Hein handi batean, Ameriketara bideratzen zen fluxu hori:

---

787 *B.* 81

> "Aldaketa haundiak jasan zituen Iparraldeak bai gizarteari, bai ekonomiari begira. Baserrietako industria zaharrak, ehungintzari edo olagintzari lotuak desegin ziren. Itsas hegiaren lehen hiritartzea 1856-1876 tartean koka daiteke, gero garatuz joan zena 1901garren urterarte: Miarritzeko jendetza % 132z emendatu zen, Hendaiakoa % 121z. Ber denboran jende hustea zuen jasan Iparraldeko barnekaldeak: Ostibarreko eskualdean %rentzat 5z galtzen hasi zen berezko hazkunde tasa. Ez da harritzekorik Euskal Lore jokoetan emigrazio gaia anitzetan aipatua izan bazen"[788].

Idazlea bera Argentinan jaioa zen, guraso euskaldunetatik; esaten da, halaber, bidaiako beste lagunen batek ere arbaso "amerikano"-ren bat ez zuela urrun; horrela deitzen baitzitzaien Ameriketara joandako euskaldunei ("[autokide bat mintzo] Ez dakit zendako maiteago dutan, halere, Ameriketarako itsasoa. Odolean dut hau; gogoratzeak berak harrotzen dauzkit zainak"[789]).

Argentinan izandako haur-bizipen goiztiarrak gogoratu baditu ere inoiz idazleak *Buruxkak*en, emigrazioa ñabardura epiko eta guzti ageri zaigu *Beribilez*eko pasarte honetan. Oraingo honetan, *epiko* izenondoarekin, pasarte hau bezalakoak kalifikatzen dira:

> "[Jean Etxepare narratzailea mintzo] Ori, nahuzu jakin ene barneko berri? Ene ustea da, ene sinestea, hari luzaz so egonik zirela noizbait abiatu itsasoz-itsaso gure arbasoak. Hauk bethi joanki, joanki bethi aitzinago, eta hura bethi haratago gibelatzen, bainan bethi bere tokian halere eta bethi berdin eder; egunetik egunera zoragarriago baizik ez, izaitekotz. Ez dakit behinere kausitu ahal ukan zuten gaizoek; dakitana da kausitu zutela bederen Ameriketako lurra. Etzen hau lillurazko erresuma bat, ala ba?"[790].

Idazleak idatziz jasotzen du euskaldun ugarik historiaren ibilbidean izan duten rola. Hodeien segizio hau da gizakiak bere burua gainditzeko duen amorru etengabearen ispilua. Kuraia hori azaleratzen da errepikapenetan: "Hauk **bethi** joanki, joanki **bethi** aitzinago, eta hura **bethi** haratago gibelatzen, bainan **bethi** bere tokian halere eta **bethi** berdin eder; egunetik

788 Goihenetxe, M. (1992). "Ipar Euskal Herria XIX. mendeko azken hamarkadetan". *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 37-1.

789 *B.* 81

790 *B.* 80-81

egunera zoragarriago baizik ez, izaitekotz" [hitz beltzagoak eta atzizki azpimarratuak gureak dira].

4.3.1.1. Burgesiaren bultzada

Aipagarria da espiritu burges ekintzailearekin lot litekeen lehia-giro nabaria itsasoen pasartean, konparazioen ugaritasunean islatzen dena. Badira konparazio gehiago ere: "Zeruak aldiz bere urdina sotilago du itsaso haren gainetik, xixtez agertu zaikunarenetik baino"; "Ez dakit zendako maiteago dutan, halere, Ameriketarako itsasoa", etab.

XIX. mendean, ekimen ekonomikoa eta kolonizatzailea sustatu zuen burgesiak, jakina denez, Europa munduaren erdigune geopolitikoa eta ekonomikoa zela: positibismoa nagusi zen Mendebaldeko gizartean, bake iraunkorrak posiblea egin zuen erresumek ekonomia garatzea eta lurraldeak zabaltzea 1840-1914 tartean. Aurrerakuntzaren baitako fedea gorenean zegoen: merkataritza hedatu zen; hiri/landa eremuen arteko oreka zapuztu zen; medikuntzak gaixotasun kutsakorrak eragotzi zituen; aurkikuntza zientifikoek industria akuilatu zuten; hirien kopurua biderkatu egin zen…

Ameriketarako bidea hartzea interpreta daiteke ekintza-zaletasun burgesaren beste agerraldi bat balitz bezala XIX. mende hartan. Arrazoiak ekonomikoak ziren Iparraldean, etorri faltaz herriak gaztez hustutzen ari baitziren. XX. mendearen hasiera bada Ameriketako lurrak europar etorkinek kolonizatzeko sasoia ere, nahiz eta goren puntua iragana izan[791].

Egia da Euskal Herriko egoerak bizitzeko baldintza eskasak eskaintzen zituena eta ihes egitera bultzatzen zuena, baina, bestetik, bazen Ameriketako ametsa edo han aisa dirutzeko aukera bilatzea ere.

Emigratzeko fenomeno hori gertutik ezagutu zuen Etxeparek, haurtzaroa Argentinan eman baitzuen gurasoekin; anaia bat bazuen ere, Kanadara joana. Urrutiago joan gabe, *Buruxkak*en (1910) jaso ditu anaia emigrantearen eguneroko bizimodua eta aurrera egiteko

---

791 Argentinako kasua aipagai hemen: Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2017-03-14]

esperantzak, batetik, eta, bestetik, emigratzeko bidaian euskaldunek aurkitzen zituzten zailtasunak: antolakuntza, lagunak, sosak, aukerak…[792]

Halatan, Jean Etxeparek liburuaren orrietara dakarren Ameriketako kontakizunari *burgesa* deituko zaio hemen, ez baita indar tradizionalek -Elizak eta landako handikiek- bultzatzen zuten jokabidearen sostengatzailea. Kontakizun tradizionalak nahi zuen euskaldunak herrian geratzea, hori baitzen sektore kontserbatzaileek nahi zutena, aitzakia-eta Ameriketara joaleak erlijioaren aldetik zabartu egingo zirela.

Jean Haritschelhar ikertzaileak aztertu du herri-mina Lore-Jokoetako bertsoetan nola ematen zen aditzera, beste gai batzuen artean. Aipagarria da, herri-minaren gainean, Jean Baptiste Elizanbururen "Xori berriketaria" bertso-sorta ere. Garai hartan, Iparraldea gaztez odolusten ari zen, eta kezka hori zegoen nor zirenen artean. Antoine Abadiak eta epai-mahaiak emigrazioaren gaia hautatu zuten urte batean: "Montebideora doan euskal gaztearen bihotz-minak" lema jarri zuten koblatzeko inspirazio-iturri gisa[793].

Bada testigantzarik honetaz euskal literaturan; gogoratu daiteke, adibidez, "Ene sentimendua" izeneko bertso-sorta Xabier Letek kantatua ("Ene sentimendua nahi det deklaratu, Ameriketan nago hau ezin ukatu/hemen eginagatik ondo gobernatu, horkoaz egiten naiz asko akordatu…"); erlijiosoen idazkiak garai haietan, etab.[794]. Pentsa liteke, era berean, landa-handikiek bazutela interesa gazteek lurrari atxikita iraun zezaten, beren aurrekoek bezala, betiere beraien manupean eta zerbitzuko, Espainian ere gertatu zen bezala landa eremuetan sarri[795].

Gatazka etengabea izango zen XIX. mendetik aurrera, sektore tradizionalen eta sektore burgesen artean. Burgesiak klase agintari tradizionalak (aristokrazia, Eliza) ordezkatu eta

---

792 "Canadako berriak" eta "Urrungo leihorretan" in: Etchepare, J. (1910). *Buruchkak*. Tours. Imprimerie Mame. Jatorrizko argitaraldia.

793 Haritschelhar, J. (1998). "Ideologiak Lore Jokoetako kantuetan" in: *Antoine d´Abbadie 1897-1997: Congrès International= Ezohiko kongresua*. Hendaia-Sare / Eusko Ikaskuntza; Euskaltzaindia. XIV Biltzarra. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia. 639 or. eta hur.

794 Horiez gain, irakur litezke obra hauek: Jose Mendiageren (1863-1913) *Kantak* ; Jean Martin Hiribarrenen *Montebideoko berriak* (1853), etab.

795 Fernández-Cordero Azorín, C. (1968). "La sociedad española del siglo XIX a través de la obra literaria de Pereda". *Saitabi* 18.

baztertu nahi izan zituen, baina ez beti arrakasta berarekin herrialde guztietan. Laikotasuna zabaltzea ere, berdenboran, burgesia nagusitzeko fenomenoaren barnean txertatuta zegoen...

Iparraldean (eta Frantzian) luzaro tirabirak izan ziren burgesiaren eta Antzinako Erregimenaren aldeko indarren artean[796]; Espainia aldean burgesia ahulak behartuta ikusi zuen azken finean bere burua klase agintari tradizionalekin itunak egitera, erreforma-programa osoa ezartzera iritsi ezinik[797].

Ñabardura garrantzitsu bat, hala ere. Etxeparek Ameriketako itsasoaren esangura epikoa *Beribilez*en jasotzen badu ere, ez du jokabide-arau gisa hartu nahi beretzat. Gaztea izanez gero, bai hartuko zuen; ez, ordea, 1928an, nagusitan. Nagusitan nahiago du Mediterraneoak sinbolizatzen duen baretasuna, ez Atlantikoak sinbolizatzen duen ekintza-zaletasuna, ikusiko denez: ”Zahartu bainiz, ez dakit ez nukenez orai maiteago Mediterranea. Leihorretik bizkitartean, bere ontasun eta lillura guzien gatik”[798].

Ikusten da nola eboluzionatzen duen idazlearen pentsamenduak, aztertuz gero beraren lanak gaztarotik aurrera. Nabaria da nola aldatzen duen jarrera emigratzeari buruz, suharra eta kartsua baita XX. mendeko lehen urteetan, euskal gazteak lur berri bila bideratzeko prest, testu honetan adierazten duen legez:

> “Ez larru beratz hetarik, ez, dena estakuru eta zinkurina; bainan bai deusek izitzen ez dituen eta gazte direno zerbeit nahi duten zankar hetarik”[799].

Bereziki egokia iruditzen zaio gazteak joateko Kanadako lurraldea, bitartean Ameriketako itsasoa dagoela, Ameriketako itsasoa baita ametsen eroalea. Jean Etxepare pionero gaztea nagusitan hoztu egin zen, itsasoen metaforak argi erakusten digunez.

---

796 Arbelbide, X. (2007). *Xuri-gorriak.* Donostia. Elkar. Itçaina, I. (2007). *Les virtuoses de l´identité. Religion et politique en Pays Basque.* Presses Universitaires de Rennes. Itçaina, X. (2012). *Euskaldun fededun. Errepublikaren oroimen urratuak*. Baiona. Elkar.

797 Oleza, J. (1984). *La novela del XIX. Del parto a la crisis de una ideología*. Barcelona. Laia.

798 *B.* 81

799 “Koloniak” (1903) in: Xarriton, P. (1988). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. III kazetaritza (A) (1916-1935).* Donostia. Elkar. 278 or.

"—Odaiertzean, urrutirat, ezagun zen erresuma bat gaitza, nihun ikusten ez den bezalakoetarik. ametsetarik baizik etzaiku halakorik agertzen. Etzen ametsetakoa bizkitartean hura; zinezkoa zen.

Uraren gainetik goititzen zen, eta heltze zeruraino. Osoan hartuz, iduri zuen elhurrez egina. Bainan bazituen hiruzpalau mail bederen, bat bertzea baino zokorat sartuago, eta mail bakotxean ageri ziren han-hemenka itzalgune batzu, guti edo aski beltzak: erresuma hartako herriak edo hiriak, behar bada... Goien-goienean, nun ere baitzuen hunkitzen zeru urdina, erranen zinuten elhurra harro-harro zela metatua, meta bakotxari zatxikola kukula zuri, biribilean ozkatu bat"[800].

Jean Etxepareren idazkeran Ameriketako itsasoa elurrarekin eta hiriekin lotuta dago: bestelakoa izango da Mediterraneoko itsasoa.

4.3.1.2. Itsaso engainagarria

Idazleak uko egiten badio Ameriketako itsasoari, interpreta liteke esperientzia txar bat ukan izana egon daitekeela tartean, ziur aski, gaztea zenekoa, urteen iragate soilaz gain, akaso. Idazleak bere burua ikusi du itsasoaren limurtze saio baten biktima gisa, zentzurik okerrenean: Kantauri itsasoa deskribatzeko darabiltzan koloreek hori pentsatzeko bidea ematen dute ("Ditazken dirdira gaixtoak oro bazituen urak; guneka, berdaatsa eta lohia nausi"; "kolore likits guziak").

"—Etzen samur itsasoa. Goxo-aldian zen. Haizerik ez, bero, uda mina, zertarik edo hartarik, jabal zagon.

—Errazu uste duzula. Ditazken dirdira gaixtoak oro bazituen urak; guneka, berdaatsa eta lohia nausi. Bera igitzearekin —hemen ohantzetuz, haratxago bizkartuz zorrotz— orozbat zitzaizkon igitzen bere kolore likits guziak, eta batzutan nahasten.

---

800 *B.* 80

Badira andre batzu begi-niniko argia hola-holakoa dutenak; ez niri erran andre hek direla laialenak.

—Zaude othoi ixilik. Iduri-ta gizon batzuek ez dituzten begi berak, andre gaixoak baino miletan maltzurragoak baitira gizon hek!”[801].

Interpretatu berri den Ameriketako itsasoa ausardia intelektualekin lotuta badago, Mediterraneoa, aldiz, neurritasunarekin lotuta agertuko da, hurrengo atalean ikusiko denez. Gaztaro bateko ausardia intelektuala larrutik ordainduko zuen Jean Etxeparek, kritikak jadanik azaldu duenez[802].

Honezkero egindako azterketaren arabera, Jean Etxeparek aitarekin desadostasun nabarmenak izan zituen, *Buruxkak*eko zenbait idatzi zirela medio. Beraz, beti urrutiago joateko lehia metaforikoa Etxepareri istilu-iturri suertatu zitzaion bizitzan, hala familiarekin nola ingurune hurbilarekin adostasun latzak izanda, hau da, metaforarekin jolastuz, Ameriketako itsaso “likitsak” ordainarazi zion ausardia Etxepare idazleari.

Aipuan ikusi da genero-ikuspegiaren ildotik, emakumeen kontrako topiko misoginoak ere ukitzen dituela Etxeparek berariaz, segidan gezurtatzen dituela. Esan behar da Etxepareren ohiko jardunbidea dela hori bezalako argudio arriskatuak botatzea, ondotik gezurtatzeko, hala badagokio. Egia deserosoak botatzen ditu argiaren bila artez doanean, helduaro aurreratuan damutu egiten bazaio ere[803].

Ameriketako itsasoak errespetua jartzen dio Jean Etxepare helduari beste pasarte batean ere. Izan ere, itsasoak kostaldean egiten duen erosioari konnotazio morala itsasten dio:

“—Sinets nezazue: Kantauriko itsasoak xede on guti dakar berekin. Eremu osoak baditu ja iretsiak. Irets ez ditzazken erkaitzak berak, bere ur gaziaz zafratuz emeki-emeki gesaltzen ditu. Mendetik mendera Eskualerriari eremanak daizkon ahamenak! Luzara itho beharra du guzia”[804].

---

801 *B.* 78-79

802 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare.* Madrid. UNED.

803 Xarriton, P. (1991b). “Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)”. in: J. A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or.

804 *B.* 79

Pasartea luzeagoa da, berez, irakurleak nahi balu irakurri. Narratzaileak egiten duena da Ameriketako itsasoa abere basati batekin berdindu: "Orroaz eta haguna burrustan zariola"; "erho bat bezala oldartua"; "goitika izigarri batzuez barnetik hustuz zoan"; "Sabela ethentzen zitzaion, hausten gerruntze konkortua, mustupiltzen bere aurpegi oiesa, burbutzika zartatzen bere soin aberea", eta abar luze bat. Itsasoaren deskribapen oso dinamiko eta aberatsa.

Itsasoa bizitzaren dinamikaren sinboloa da, izatez. Handik dena da ateratzen, eta hara dena da itzultzen. Ur higigarriak, errealitatearen eta izankizunaren arteko iragaitza sinbolizatzen du, zalantzaren eta ziurgabetasunaren anbibalentzia, ondo zein txarto amai litekeena. Itsasoari Greziarrek eta Erromatarrek zaldi eta zezenak sakrifikatzen zizkioten, ugalkortasunaren sinboloak. Hala ere, Kantauri itsasoaren bertsio honetan bezala *Beribilez*en, mamuak ateratzen dira sakontasunetatik: subkontzientearen irudiak dira, korronteen sorburuak hilgarriak zein pizgarriak izan daitezkeenak[805]. Jean Etxepare beldur da bere barneko grinek eragin dizkioten ondikoez, hau da, bizitza laztu dioten hautu intelektualen beldur.

Argi uzten du idazleak Ameriketako itsasoari erantsi nahi dion esangura sinbolikoa. Mediterraneoaren alegia aztertzean, ikusiko da bigarrenak bestelako esangura duela, guztiz kontrakoa.

Bestetik, geologiaren aldetik erosioaren deskribapena aurkitzea 1928ko euskal testu batean bada zerbait, esan daiteke, bidenabar, lot bailiteke munduaren sorrerari buruz Jean Etxeparek eginiko "ziliportaren" azalpen zientifiko harekin[806]. Etxeparek munduaren sorrera eguzkitik banatutako zipriztin batekin azaltzen zuen bidaian Loiolatik paraje zela:

> "Jakintsu hanitzek baitiote Lurra ez dela iguzkiak noizbait airez-aire aurdiki ziliporta bat baizik, hastapenean su zarionetik emeki-emeki hoztua, daukat etzela iguzkiaren errai samurretarik arroltzeren idurirat osoki biribil eta leun jauzi pikorra, bainan ba ordukotz dena zimur eta konkor, guneka; gune hotan, azala gogortu zelarik behin, eta gero euriteekin zonbait menderen buruko gozatu, zela egin, hanitzez

805 "Mer" in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

806 "Ziliportarena" atala in: Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2017-03-13]

berantago ez dakigu nola biziaz amatzeko, orai gabiltzan Gipuzkoako eskualde maitea”[807].

Inguru eta sasoi haietako begiekin begiratuta, honelako azalpen zientifiko positiboak susmagarri samarrak zirelakoan gaude, garai bateko Eliza-irakaspenen oztopo kreazionista aurkitu ahal zuten-eta. Egia da, itsas-higaduraren beste pasarte hartan Etxeparek Jainkoa aipatzen duela ez jakin zertarako, agian, bere burua babestu beharrez, eta, Jainkoarekin batera, azalpen positiboa ematen duela:

> “Orroaz eta haguna burrustan zariola, bat-bedera xutitzen zen bertan pareta zabal baten idurirat, eta, erho bat bezala oldartua, zipoteka aitzinatzen leihorrari buruz. Beharrik Jainkoaren eskuak zapatzen zun bere aikatze sorjesean!”[808]

Ulertu behar da Eliza zorrotz begira zegoela, geologia kontuetan ere. Ikusi Lafitte “aurrerakoiak”, sozialki aurrerakoia baitzen apaizetan, nola ikusten zuen munduaren sorrera, ziliportaren auzia tarteko 1952an:

> "Erakaspen horiek ez dakarkete ez itsumendurik ez etsimendurik: girichtinoaren arabera, zeru-lurrak adimenduari irekiak daude, adimendu batek eginak direnaz geroz, eta beraz jakintsunek ez dute zeren duda beren iker-lanetan; -hala-hala, bizia ez zaio biharamunik gabeko ziliporta ez deus bat, bainan Jainko on baten gerizapean baliatu behar duen arte saindu bat. Zoin urrun giren gogo ilhun eta kechu batzuen elhe beltzetarik"[809].

Aipatu da jadanik Jean Etxepareri egozten zitzaion gogo hits eta eztia, alegia, fedea galtzeak berarekin dakarkeen esperantzaren bertute teologala iraungitzea.

---

807 *B.* 52

808 *B.* 79

809 Lafitte, P. (1952). “Aphez eskualdun batek behar lukeen kulturaz”. *Gure Herria* 24-2. 79 or

4.3.2. Ibilbide intelektuala: Mediterraneoa

Ameriketako itsasoaren eta Mediterraneoaren artean aukeratu behar horretan, idazlea lerratzen da hobestera Mediterraneoak historian zehar beretu duen idearioa, Ameriketakoa baino. Jakina denez, Mediterraneoa da Mendebaldeko kulturaren sehaska, dela Greziagatik, dela Erromagatik, dela kristautasunagatik.

Europa inguratzen duten itsaso nagusi biez ari dela, narratzaileak egiten du, lehenik, Atlantikoaren interpretazio sinbolikoa, eta, ondoren, Mediterraneoaren interpretazioa[810].

Itsasoen pasartean idazleak azaltzen du bere hautu intelektual nagusiak zein diren. Dena alegorikoki ematen bada ere, arrasto horiek zehatzago kokatzeko asmoa dugu idazlearen ibilbide intelektualean, ezagunagoak baitira idazlearen gaztetako lehen urrats batzuk. Segidan idazlearen helduaroaz arduratuko gara.

4.3.2.1. Sosegua eta onespena

Urdina da Mediterraneoko kultura enmarkatzen duen kolorea, urdinak dira itsasoa eta zerua.

Urdin koloreak esangura sinboliko zehatza du ("Bere [Mediterraneo itsasoaren] hedadura guzian, halaber, urdin-urdina da"; "Zeruak aldiz bere urdina sotilago du itsaso haren gainetik, xixtez agertu zaikunarenetik baino [Ameriketakoa]").

Urdinaren sinbolismoan barneratu ahal gara. Urdina da kolorerik sakonena, immaterialena, hotzena eta aratzena. Urdinak iradokitzen du betierekotasun-ideia lasaia eta burgoia, ez da mundu honetakoa, izan baitaiteke gizakiaz gaindikoa, edo gizagabea. Urdinak baretu eta baketu egiten du, ez du tonifikatzen; euskarririk gabeko ihesa izanik, depresiora eraman dezake, berdeak ez bezala. Egiaren kolorea zen urdina egiptoarrentzat ere, eta ezin

810 *B.* 82. Ez dugu ekarri pasartea osotasunean, luzea baita, mamitsua izanagatik.

ahaztu Egipto Europaren jatorrian dela. Egia, Heriotza eta Jainkoak batera doaz. Urdinak bereizten ditu gobernatzaileak gobernatuetatik, alegia, zerua *vs.* lurra[811].

*Beribilez*ek ere aipagai ditu Egia eta Jainkoa, Mediterraneoaren pasartean. Horren harira, marko urdin hori jarri dio Etxeparek liburuko adierazpen borobilenetakoei: sosegu apur bat etsia, agian.

4.3.2.2. Grezia eta bizikidetza

Idazlea sedukzio intelektualaren jopu izandako gaztea sentitzen da nagusitako talaiatik, 1928an atzerabegirakoa egiten duenean.

Helduaroan, ordea, Greziako filosofiaren ardatzak hobetsi ditu, giza zoriona bestela ulertzen lagundu diotenak. Lausotu egin zaio XIX. mendeko filosofiari zion atxikimendua, eta, agian, Nietzscheren filosofia tonikoari zion eraspena, besteak beste.

Grezia da sosegua, taxua, sendotasuna, hitz batez, fidagarritasunaren bermea, gaztetako asmo epiko eta arriskatu haien ordez. Aztertu dira, jadanik, idazleak izan zituen gizarte-behaztopak *Buruxkak* (1910) lehen liburu harekin[812].

Idazlearentzat egia bilatzea (*quest* ingelesez) da benetako asmo kontzientea. Aitortzen dio Piarres Lafitteri egia bilatzea izan duela iparra bizitzan zehar. Hari horretatik, *Beribilez* bigarren liburuaz ari zaiola, 1931ko urriaren 27ko gutunean hona zer diotson:

> "Esker mila ene liburuñoaz igorri dauzkidazun laudorioez. Berdinkiago lantua baldin bada, eztiagoa da Buruchkak baino, hizkuntzaz aberatsagoa ere ba, etzait bizkitartean iduritzen nihauri hobea dela. Eskas du gaztetasuneko sua; ez haatik, uste zinuken bezala, egiaren alderako amodio bizia, nahiz ez dutan lehen bezain bizi agertzen achalerat, ohartua bainiz ez duela hanbat balio agertzeak"[813].

---

811 "Bleu" in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

812 Casenave, J. (1997b). *De l´article de presse à l´essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare.* Thèse de Doctorat. Université Michel de Montaigne- Bordeaux III. 656 pp.

813 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: J. A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or. 600 or.

Idazleak gaztaroan egiaren ikuspegi berezia izango zuen, helduaroko ikuspegi sosegatuaz bestelakoa, itsasoaren alegia hauei erreparatuz gero. Jean Etxeparek orduan egiaren kontzeptuarekin izan zuen harremana ulertzeko, egokia izan daiteke Friedrich Nietzscheren arrastoari jarraitzea, idazleak alemanaren filosofia ezagutzen bide baitzuen. Bizitzan zehar, Jean Etxeparek aukera egiten du, egia bat edo bestea aukeratzen du, komenientziaren arabera. Jokabide hori Nietzscheren pentsamenduaren hurbila izan daiteke. Egia hau komeni zait, beste hori ez, egia azken finean, erabaki bat da, eraikuntza bat eta apustua. Nietzscheren ustez, egia gizarte-konbentzio hutsa da, gauza (*rei*) eta kontzeptuaren (*intellectus*) arteko bat etortzea ezinezkoa da-eta, nominalistek paratu hizkuntzaren kritikari jarraiki. Egia da giza harremanetan funtsatutako metafora, metonimia eta antropologizazio anitzen fruitua. Zentzuek eta adimenak ez garamatzate errealitatea ezagutzera. Errealitateak ez ditu egitura-ezaugarri aldaezinak, Antzinatetik datorren irizpide hark esaten zuen legez[814].

Egiaz ari garela, "Egiaren hiru itxurak" *Buruxkak*eko atala ariketa nietzschear esanguratsu gisa interpreta daiteke gure iduriko, idazleak izan duen egiarekiko kezkaren beste erakusgarri bat. Gure ustez, atal horretan proposatzen den ariketa da Nietzscheren *balioen antzaldaketa* kontzeptuaren gauzatzea, euskal literaturan bakana. Bestetik, Nietzscheren eitekoa begitantzen zaigu parabola eta sinbolo bidez egia adierazteko prozedura ere, Jean Etxeparek itsasoen pasarte honetan baliatzen duena, *Buruxkak*eko atal horretan bezala. Jakina denez, Nietzsche filosofoa literaturgilea ere bazen, eta Alemaniako literatur historian kanonikoa da.

Haatik, Mediterraneoaren goraipamen honetan, badirudi idazleak uste ona Antzinatean jarri duela. Uste ona Grezian jarri du 1928ko idazlearen pentsamoldeak. Azpimarragarria da, era berean, Galilearen aipamenik egin ez izana, izan ere, Grezia eta Galilea jotzen izan baitira Europako zibilizazioaren bi sehaskatzat tradizionalki.

Galdetu daiteke ea Grezia-zaletasun hori nondik datorkion idazleari. Etor dakioke, noski, Larresoroko apaizgaitegian jasotako heziketatik, baina ezin ahaztu Friedrich Nietzsche Jean Etxepare gaztearen filosofo kutunak ere Grezian pausatu zuela askotan begirada, filologo klasikoa baitzen lanbidez alemana.

---

814 Heit, H. (2012). "Verdad" in: Cano, G. (arg.). (2012). *Diccionario Nietzsche*. Madrid. Siglo XXI.

Galdetu daiteke zein ote den Greziaren aportazioa zehatzago, alegia, zein diren Jean Etxeparek goraipatzen duen Greziako zibilizazioaren ekarpenak. Etxeparek berak aipatzen ditu balio horiek, eta dira: "egia, zuzena (Legea) eta ederra".

Etxeparek parada ematen duenez gero, jo dezagun apur batean errepasatzera zuhurtziak Mendebaldeko tradizioan nola bereganatzen dituen Greziak sortutako balio horiek, labur bada ere.

4.3.2.2.1. Humanista baten burubideak

Bidenabar eta tarteki gisa, bi hitz nahi dira paratu Jean Etxepareren *Beribilez*ek literaturari egiten dion ekarpenari buruz, irakurleoi egiten digun ekarpenari buruz. Gure ustez, eskertu behar zaio medikuari gaurkotasuna duen zuhurtziaren gaineko solasaldi honetan barnatzeko bidea ematea XXI. mendeko euskal irakurleari, *Beribilez* idatzi zenetik 85 urte geroago.

Jean Etxepareri aitortu zaio maisutza euskararen estilista bezala, aspalditik[815]; baina, gure ustez, Jean Etxepareren beste ekarpenetako bat da Mendebaldeko eztabaidagai iraunkorrak berritzeko bertutea duela ikuspegi laikotik. Horretara, euskal literatura klasikora hurbiltzen den XXI. mendeko irakurleak, gaur ere, onurarekin irakurri ahal du *Beribilez*, interes bizia eta zabala duten gaiak jorratzeko aukera izanik[816]. Jean Etxeparek euskal testuinguruan txertatzen dizkigu Europako formazio kulturalean hainbesteko munta izan duten balioak. Ahaleginduko gara uztartzen Europako testuingurua eta Etxeparek helarazten digun bidaiaren memento euskalduna, honako pasarte hauetan.

---

815 Lafitte, P. (1932). "Notre maître M. le Dr. Etchepare". *Gure Herria XII*. Orpustan, J. *B.* (1996). *Précis d'histoire littéraire basque 1545-1950*. Baigorri. Éditions Izpegi.

816 Solasaldi hori heziketa liberalaren barnean kokatu dute Mortimer Adler filosofo estatubatuarrak eta bere taldeak, Paideia proiektuan. Aurkezpen baterako, ikusi: Hutchins, R. M. (arg.) (1991). *The Great Conversation (Great Books of the Western World)*. University of Chicago; 5th edition.

4.3.2.2.2. Grezia edo filosofia komun baten posibilitatea

Itzuliko gara *Beribilez* iruzkintzera. Zer nolako irakurketa egin daiteke testuak aipatzen dituen "egia, zuzena (Legea) eta ederra"[817] balioei buruz?

Balio horiek zentzu traszendentea ematen diote bizitzari. Gainera, egia, ona eta ederra dira intersubjektibotasunaren hiru forma, amodioarekin batera laukotea osatzen dutenak, hau da, intersubjektibotasunaren lau formak dira[818].

Hala baita egia, lehenik, denontzat balio duena definizioz, norberaren iritziaren gainetik. Halaber, onak eta ederrak zentzu komuna ahalbidetzen dute, Kanten arabera. Onaren ingurukoei, geroxeago ekingo zaie. Ederrari buruz, begi-bistakoa da gizakien artean badela adostasun bat "arte-maisulanen" inguruan. Inork ez dio, adibidez, Jon Sebastian Bach txerpolaria denik.

4.3.2.2.3. Legearen aldarri ausarta agnostikoaren eskutik

Adierazgarria da oso, itxura guztien arabera, Jean Etxeparek ona ez aipatzea, eta bai, onaren lekuan, "zuzena" edo "Legea": bazukeen arrazoirik horretarako. Ona anitza zen gizarte hartan eta gatazkatsua, idazleak oso ondo ikusi zuenez bizitzako gorabehera latzek erakutsita. Legea da, aldiz, marko minimoa, non joko-erregelak denontzat adostuta dauden, iritziak iritzi.

Ikuspegi politiko batetik, esanguratsua izan daiteke gaurko debaterako konturatzea Etxepare paideia klasiko bat proposatzen ari zaiela euskaldunei, hau da, modulu finkoa mendebaldar guztientzat Europan, eta ez komunitarismorik. Ez du planteatzen euskaltasunak ezaugarri etiko bereziak dituenik, Greziako ondare komunetik aldentzeko modukoak. Komunitarismoaren arabera, onaren ikusmolde bat talde batena izan daiteke, eta beste on partikular bat beste talde batena.

---

817 *B.* 82

818 Comte-Sponville, A. eta Luc Ferry. (1998). *La sagesse des Modernes*. Paris. Robert Laffont. 243 or.

Onaren aniztasun horren kariaz, liberalismoak lege-markoa baino ez du antolatu nahi Estatuaren bitartez. Komunitaristek, aldiz, nahiago dute estatuak elkarteetako onei babes politikoa ematea, arrazoitzen baitute gizabanakoa beti dela txertatua komunitate batean. Hori baldin bada gaurko testuingurua, orduko testuinguruan ona izango zen itxura guztien arabera erlijioko ona, Etxeparek hain gogokoa ez zukeena[819].

Problematika horrek gaur egun beste konnotazio batzuk baditu, komunitaristek euskaldunen errekonozimenduaren alde lan egin bailezakete, agian. Nolanahi ere, komunitaristek ere, hein handi batean liberalen irizpideak partekatzen dituzte, planteamendu marxistetatik urruti, dirudienez.

Konparazio baterako, zilegia da oraingo honetan ondoz ondo jartzea Jean Etxepare eta Orixe estetika-aditu sinestuna (1888-1961), funtsezko balioen auzi hauetan sakondu zuen medikuaren garaikidea, nahiz eta lehena bizi laburrekoagoa izan.

Jean Etxepare eta Orixe aurrez aurre jarriz gero, emaitzak argigarriak dira onaren gaiari dagokionez. Orixek ona jartzen du balio nagusi gisa, egiaren aurretik eta ederraren aurretik. Pertsonaia historikoen ranking batean, Orixek jartzen du: lehen, Frantzisko Xabierekoa; bigarren, Aristoteles; eta, hirugarren, Homero; hau da, onari, egiari eta ederrari dagozkion pertsonaiak, hurrenkera horretan[820]. Ona da on kristaua Orixeren estetikan, jakina denez. Ordea, Jean Etxeparek ez du ona aipatu ere egiten, beste aburu (disidente) batekoa zelako onari buruz. Hipotesi horrek sendoa dirudi, egiaren, onaren eta ederraren balioak nonahi eta noiznahi elkarrekin ematen direlako hirukote gisa literatura adituan; adierazgarriki eta salbuespen gisa, Etxeparek ez ohartuarena egiten du.

Uler daiteke zer nolako desadostasunak izan ahal zituzten bi aburu desberdin horietako bi idazle horiek. Funtsean ona da Orixerentzat nahimenaren ona, hau da, ohitura ona[821]. Zer ote ziren ohitura onak eta zer ohitura txarrak, susma daiteke, desadostasun-iturri izan zitekeen sektore katoliko kontserbatzaileen eta sektore "liberalen" artean, horrela kalifika baliteke

---

819 Kymlicka, W. (2004). "Communautarisme" in: Canto-Sperber, M. (zuz.) *Dictionnaire d´éthique et de philosophie morale*. Paris. PUF. Kymlicka kanadiarra komunitarismoaren aldezle entzutetsuenetakoa da, gaur egun.

820 "Estetika" da 1951-55 bitarteko urteetan *Euzko Gogoa* aldizkarian argitaratutako atalen bildumaren izena; idazkiaren kontzepzioa askoz aurrekoagoa da, gerra tarteko. Liburu honetan jaso du Paulo Iztueta argitaratzaileak: Ormaetxea, N. *Orixe* (1991). *Idazlan guztiak III Artikulu eta saiakerak*. Donostia. Etor argitaletxea.

821 Ormaetxea, N. Orixe (1991). *Idazlan guztiak III Artikulu eta saiakerak*. Donostia. Etor argitaletxea. 120 or.

medikuaren ideario laikoa. Diogu, liberala zentzurik hemeretzigarrenekoan ulertua, ez gaur egungo bestelako zentzu neoliberalean, hau da, hemen erabiliko litzateke Antzinako Erregimena iraunarazi nahi zutenak eta liberalak istilu hutsean zebiltzan garaiko zentzu hartan.

Guztiarekin ere, ikusi dugu Jean Etxepare Donostiako etxeen estetika arbuiatzen. Orixek ere arbuiatzen ditu zentzurik hertsienean klasikoak ez diren literatur lanak, esan nahi baita Antzinatekoak izan ezik gainerako guztiak. Hau da, biek ederra jartzen dute beste zerbaiten menpeko, onaren eta egiaren menpeko[822], baina, itxura guztien arabera, uste izatekoa da bi idazleok lanak izango zituztela adosteko zer den ona eta zer ez.

Orixek argi utziko du estetikak eta etikak lotura zuzena dutela. Etxeparek isiltasun zuhurra nahiago du istilu akademiko horren inguruan, ulergarria baita beraren ibilbide literario gorabeheratsua ezagututa. Hona Orixeren hitzak:

> "Eder eta On elkarren lagun aundi dirala ager-bearrik ez dugu. Ortaz, eder-lanak eta on-lanak -oitura onak- elkarren kide ditazkela aitortzea ez da aundi. Ez omen ordea, zenbaitek esan digutenez: antze-gauzak eta oiturak ez omen dute ikuskizunik edo ar-emanik. Antze-lanak edo eder-lanak bere burua omen du begira-muga, eta bera ez omen da beste ezeren eta iñoren mendeko. Gero azalduko baitut "art pour l´art" [sic] deritzaioten esan ori, orain ager dezadan gezur xuri au: antzea eta oitura bi gauza dirala ta beraz ez dutela ar-emanik elkarrekin"[823].

Orixerentzat ederrak badu lekua gizakiaren osasun morala taxutzerakoan, beraz kontuan izan behar da nolakoa den ederra parametro horien barnean, "atsegina nahimenera sartzen den gauza da"-eta[824]. Nabaria da ederrak atsegina sortzen duela; horretara, ederrak eragina izango luke gizakiaren ohitura onetan, nahimenaren bitartez.

Ikusi den bezala, Etxepareren gusturako, zuzenbideko legeak arautuko ditu ohiturak. Orixeren kasuan, moral kristauak arautuko ditu ohiturak, gizarte sekularraren eta estatuaren lege-ararteko tza aipatu gabe gelditzen dela.

Jean Etxepareren hautua legearen alde, 1900-1930 urte bitarte hartan, hautu ausarta izango zen ziur aski bizi zen gizarte-inguruan. Gogoratu besterik ez dago, Frantziako Estatuaren

---

822 Kortazar, J. (2000). *Euskal Literatura XX. Mendean*. Zaragoza. Las Tres Sorores. 111 or.

823 Ormaetxea, N. Orixe (1991). *Idazlan guztiak III Artikulu eta saiakerak.* Donostia. Etor argitaletxea. 124 or.

824 Ormaetxea, N. Orixe (1991). *Idazlan guztiak III Artikulu eta saiakerak*. Donostia. Etor argitaletxea. 125 or.

eta Elizaren arteko istiluak XX. mende hasieran bizi-bizi zeudela: Eliz-ondasunen inbentarioak altxatzea estatuaren aldetik (imitorioak), bi instituzioen arteko banaketa-legeria berria… Frantziako Elizak legeak onartezintzat jo zituen, maiz, mende bien arteko bidegurutze hartan, edozein historia-eskuliburuk argi erakusten duenez. Hori izan zen Frantzian eta bestetan, baina Hexagonoan areago, ez baitzen alferrik Iraultza (Paris, 1789) frantsesa izan. Estatuaren eta Elizaren arteko lege-tirabirek luzaro iraun zuten, eta gorabehera asko izan zituzten, hurbilketa eta urruntze aldi anitzekin[825].

Hortaz, benetan sintomatikoa deritzogu Jean Etxeparek filosofia klasikoak eta kristauak ona jartzen zuten lekuan Legea jartzeari, alegia, greziarrek (eta erromatarrek) sortutako legea, egiarekin eta ederrarekin batera jartzeari.

4.3.2.2.4. Bakezkoak egiten

Ameriketako itsasoaren ordez "hedoiezko erresuma"-ren irudian, "usoa", diosku Etxeparek ("Oixtiko ene erresumaren ordain, geldi bekit urso hura[826]"). Ameriketako itsasoaren ordez, "likitsa" izan litekeena, Mediterraneoa, "karana" zaiona, ez bakarrik idazleari, autoko lagunen bati ere bai. Mediterraneoaren kalifikazioa esanguratsua da: "Hura itsaso goxo, maitagarria! Lau dago eta naro bere hedadura guzian. Bere hedadura guzian, halaber, urdin-urdina da".

Aztergai den itsasoen alegoria honetan usoaren sinboloak garrantzi handia du, pasarteari erematea ematen baitio azkenburuko eta sintesi gisa; esan den bezala, Atlantikoa da Jean Etxepareren gaztaroko sinboloa; Mediterraneoa, aldiz, helduarokoa. Etxepare gaztearen apustua, hortaz, zeruetako "erresuma" hartan sinbolizatuta zetorren, marinelaren beti urrunago jotze epiko hura hodeien atzetik, agian, hiriak izan zitezkeenak.

Usoaren irudia da Etxepare helduaren irizpidea adierazten duena:

---

825 Itçaina, X. (2012). *Euskaldun fededun. Errepublikaren oroimen urratuak*. Baiona. Elkar.

826 *B.* 82

"[Greziarren] Erakaspena ez ginezoten ahantz nihoiz, itsasoaren hegi batean, mahain bat bezala ordokitzen den arkaitz gora baten gainean, utzi zaukuten beren deia eta beren manua, marbrezko tente batzuek alde orotarik hegatza jasaiten dioten tenplo baten itxuran.

Urrundanik erran omen ginezake urso xuri bat, bethiereko han pausatua.

Oixtiko ene erresumaren ordain, geldi bekit urso hura"[827].

Usoaren sinboloa da Partenon greziarraren ordezkoa *Beribile*zeko iruditerian, hodeietako erresuma Ameriketako itsasoaren ordezkoa den bezala.

Greziako eraikin enblematikoenaren ordez dagoen usoaren sinboloari itsatsi zaizkio hainbat konnotazio mendeen joanean, nola ez. Azter dezagun usoaren sinboloak nora garamatzan, gizadiaren iruditeriaren arloan sakonduta.

"Quant à la colombe, oiseau de Vénus, si elle semble toujours impliquée dans un contexte sexuel, voire chtonien, elle n´en est pas moins l´oiseau du Saint Esprit, "la parôle de la mère d´en-haut, la Sophia""[828].

Usoa da Eros sublimatuaren sinbolo garbia. Usoaren hegaldia atseginez beteta badago, atsegin aratz batez egina da.

Beste esparru batean, kristauen gogoan usoa da Espiritu Santuaren irudikapena, eta haren fruituak dira, teologia katolikoaren arabera: maitasuna, alaitasuna, bakea, eroapena eta araztasuna, besteak beste[829].

Etxepareren usoa izan daiteke enblema bat. Enblemak dira irudi bat azpiko lerro batzuetan edukin morala azaltzen dela, ez gutxitan iturri estoikoetan funtsatuak. Enblemak helburu didaktikoa du, alegia, irudi eta testu labur baten bidez ideia morala itsastea hartzailearen

---

827 *B.* 82

828 Durand G. (1992). *Les structures anthropologiques de l´imaginaire.* Paris. Dunod. 146 or.

829 Akinoko Tomas Deuna. *Suma teológica* I-II 70, 3.a http://hjg.com.ar/sumat/b/c70.html#a3 [2016-05-26]; "Espíritu Santo" in: Rahner, K. eta Herbert Vorgrimler. (1966). *Diccionario Teológico*. Barcelona. Herder.

gogoan. Irudia, kasu honetan, usoa da; azalpena testuinguruan emana da. Ezin uka, hala ere, usoak esanahi asko jaso ditzakeela, txoriek orokorki egin ohi duten bezala[830].

Testuinguru honetan, usoa izan daiteke bizimodu onaren (*eudaimonia*) sinboloa, zuhurtzia-bilaketa egitekotsuaren emaitza Etxepare baitan, bilaketa astitsua eta goranzkoa. Bilaketa luzearen ondorioa da, Etxeparek bizitzaren azken urteetan erdiesten duen ikusmira, greziarrek ezarritako parametroei kasu eginez osotua ("utzi zaukuten beren deia eta beren manua"). Greziar kutsuko usoa da zerbait definitua, hodeien erresumarekin konparatzen badugu, bakearen eta narotasunaren hurbilagokoa Atlantikoko hura baino.

Kantauri gaineko hodeiak, aldiz, dira zerbait zehazkabea eta gaizki definitua ("Eta zuri, ameslaria, zer zaizu?"), apoteosi eta epifaniei bidea ematen dietenak[831]. Ikusten denez, hodeietako erresumaren sinboloak bidea irekitzen dio asaldurari, usoaren sinboloak ez bezala.

Ikusten da nolako erraztasunez jotzen duen Etxepareren idazkerak irudietara. Berbaldi ideologikoa askotan figuratibizatu egiten da, hau da, irudiaren tankera hartzen du, eta diskurtso mitologikoa bihur daiteke[832]. Hori da kasua itsasoen alegoria aberats hauetan hainbat elementuren figurekin: itsasoak, usoa, hodeiak, itsaso bakoitzaren uren koloreak, zeruen itxurak…

Nola esplikatu usoak sinbolizatutako baketze eta sosegatze ideologiko hori idazlearen aurreko filosofia-ikuspegiarekin koherentzian? Zergatik lerratzen da pentsalaria ikuspegi epiko batetik ikuspegi bare eta naro batera, nagusitan? Hipotesia bat garatuko da honoko paragrafo hauetan, bilakaeraren arrazoia emateko: idazleak Hans Reichenbach (1891-1953) filosofo positibistaren jokamolde etikoa beretu du bizitzako azken urteetan, egoki datorkiolako bere xedetarako. Reichenbachek dio egia ezagutezina dela azken finean, eta probabilitateak baino ezin ditzakegula izan hari buruzkoan.

---

830 Enblemak boladan egon ziren Europan XVI. eta XVII.ean liburu didaktikoetan bilduta, adibidez, Juan de Borja-ren *Empresas morales,* etab.

831 "Nuage, nuée" in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

832 "Idéologie" sarrera in: Greimas, A. J. eta J. Courtés. (1979). *Sémiotique. Dictionnaire raisonné de la théorie du langage*. Paris. Hachette.

Gure kronologia-kalkulua doia bada, Jean Etxeparek 1928 aurretxoan ezaguna zuen Hans Reichenbach zientziaren filosofo enpirista logikoa, medikuaren berri zuzena zutenek diotenez, hala Piarres Lafittek, nola Piarres Xarritonek aitortu baitiote medikuari joera positibista hori[833].

Hans Reichenbach gazteagoa zen, artean, 14 urtez gazteagoa, baina belaunaldi berekoa, baldin eta belaunaldiek elkar ordezkatzen badute 25 urtero. Idazlearen bizi-giroko atalean aipatu dugu Reichenbachen enpirismo logikoaren mamia. Funtsean eta hemengo xedeetarako, positibismoaren proposamen etikoa da alegia-eta egitea[834], hau da, usadioei eta konbentzioei men egitea neurri batean, egia ezagutzea ez baita, berez, lan egingarria epistemologikoki. Hau da, *gorostian gorosti, Donostian Donosti* izatea jokabiderako goiburu, baina utzikerian erori gabe, hori bai.

Hari beretik, baten batek esan lezake medikua intelektualki zabarra dela, edota moldaerrazegia inguruko gizarte-pleguetara, jada dastatuak zituen egoera latzei itzuri egin nahiz. Ildo horretatik, Jon Casenavek aipatu ditu, *Buruxkak* aipagai duela, lehen liburuaren proiektuak harrera ona izateko falta zituen gizarte-baldintzak Iparraldean 1910ean: *irrecevable* da jartzen dion kalifikazio frantses zehatz adierazgarria[835]. Medikuak berak bizitzaren amaieran egiten duen bizitza-proiektuaren balantzean porrot egin izana adierazten du:

> "Zer gibelondo ene lanak? Frantsesez aitortuko dut lañoki: résultat nul, fiasco complet. Aztura xaharrak ezin garaituz, urrats berari narraikio halere gaur den egunean, norbaitentzat noizbait ukanen duelakoan erakaspen zerbaitño"[836].

---

833 Tesian, idazlearen bizi-giroaren atalean aipatuta daude Lafitteren hitzak, lekukotza hori ematen dutenak: Lafitte, P. (1974). *Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak*. Bayonne. Imprimerie des Cordeliers. Piarres Xarritonek ere jasotzen du: Xarriton, P. (1986b). "Les idées philosophiques et religieuses de Pierre Lafitte" in: *Hommage a Pierre Lafitte. Bulletin du Musée Basque* 113 et 114. 3e eta 4e trimestres. 139-151 or. 145 or.

834 Alemanezko *als ob*, *alegia eta* itzuli zuen Piarres Lafittek euskarara (Ikusi bizi-giroaren atala).

835 Casenave, J. (1997b). *De l´article de presse à l´essai littéraire: Buruchkak (1910) de JeanJ. Etchepare*. Thèse de Doctorat. Université Michel de Montaigne- Bordeaux III. 656 pp. Bereziki, tesiaren bigarren atala.

836 Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf 238 or. *Gure Herria* aldizkarian 1929an agertutako hitzak, dio Kepa Altonagak [2017-07-26]

Gure ustez, mediku helduaren prosan bada erretorika kristaua onartzeko jarrera gutxi asko etsitua, bederen jendaurreko eszenaratzeari dagokionez. Marko horren barruan, argitzen saiatuko gara usoaren sinboloak zer ondorio duen narratzailearen idazketa-praktikan, segidan. Idazle helduak jarrera beligeranteak baztertu ditu, eta giharrak garatu ditu ingurune katoliko itxi hartan bizikidetzan irauteko. Egunerokotasunean moldatzeko, usoak sinbolizatzen duen jokabidea hartu du idazleak [837]. *Beribilez*en ere somatzen da moldatze-ariketa hori, eta horren adibidetzat ekarriko dira hona erlijioaren alorreko puntu pare bat.

Horretara, narratzaileak aipatu egiten ditu maiz *Jainkoa*, *fedea*... eta antzeko erlijiozko termino kristauak *Beribilez*en, idazlearen beraren ohiko erretorikaren barnean naturaltasunez txertatuak. Jainko hitza 16 aldiz da aipatua, ez gutxitan esamolde eginen baitan ("Jainkoak daki noraino"; "Jainkoak begira gitzala gutiestetik!"; "Jainkoaren menturalat";" Jainko maitea!").

Behin, testuak Jainko pagano bat dakarrela ulertu beharko litzateke, eman dezagun, Platonen araberakoa ("Jainkoaren oldez, Legea amestu zuten [greziarrek], eraiki, jarri beren eta lagunen arteko"[838]). Izan ere, Platon paganoa omen da teologia-pentsamenduren sortzailea filosofiaren historian, Aristoteles ostean duela. Platonek zentzuez gaineko munduari itxura eman zion, ideien mundu hura postulatu zuenez geroztik[839].

Batzuetan irudituko luke Jean Etxeparek ohiko hizketan ohikoak ziren adierazpideak zerabiltzala, baina *Jainko* hitzaren agerraldiak ez izanik denak esamolde eginetan, zalantza sortzen zaio irakurleari idazlearen benetako sinesteez. Irakurleak juzka dezake aipu hauek norainokoan diruditen fededun baten lumatik harakoak. Loiolan bisitan dela kontatzean, honelakoak jasotzen ditu:

> "Aldare-mahainaren gaineko arretaulak erakusten dauku saindua othoitzean, Jainkoarekin bekoz-beko, Manresako harpean"[840].

---

837 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: J. A. Lakarra et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 595-604 or.

838 *B.* 82

839 Reale G. eta D. Antiseri. (1988). *Historia del pensamiento filosófico y científico (Antigüedad y Edad Media).* Barcelona. Herder. 135 or.

840 *B.* 60

"Azkenik, haratxago zen kaperaño batean zituen ereman zortzi gau eta egun datxikola, hazkurrik deus hartu gabe, osoki gogerauntzia Jainkoa-baitan"[841].

"…nolakoa zen Ignaziok beretzat hautatu ontasun bakarra, hau baitzen —eta baita bethi— lagunaren alderako amodioa Jainkoa baitan"[842] [azpimarra gurea da].

"Azpeitiaraino hedatzen den planaderari so egoiteko tirriak erretzen gitu, bainan nola utz Loiola, eskerrak bihurtu gabe holako aroa eta hoinbertze gauza ederren ikusteko zoriona eman dauzkigun Jainkoari"[843].

"Gizon guti izan da lurraren gainean harek bezenbat eta halako kharrarekin gizoner Jainkoaren hitza ezagutarazi nahi ukan duenik"[844].

Aipuok jaso ditugu betiere narratzailea ari dela[845]. Bestalde, horiek denak Loiolako Santutegiaren aurkintzan metatu diren agerraldiak. Badirudi tokiko ohiturari eginiko ezagutza gisa deliberatu dela erretorika hori erabiltzera, bi aldiz pentsatzen hasi gabe. Jargoi kristaua bere egiten du, bestela perifrasi asmagaitz batzuk sortzera behartuta ikusiko luke bere burua.

Fede hitza hartuta, antzeko emaitzak aterako lirateke xede honetarako, adibidez:

"Fede suharrekoa ditake Garaziko xoko hau!"[846]

Eta abar; baina irakurlearen kontu geratuko da, *Beribilez*eko dokumentuan bilatzeko tresna informatikoa erabiltzea, nahi balu[847].

Gure hipotesia da, bere herkideen ahotan zebiltzan hizkera eta sineskera batzuk iragaitzez erabiltzen dituela medikuak, derrigorrean, alferreko ika-mika gogaikarriak saihestu beharrez, eta milikeria ideologikoak bazter utzita. Medikuak tresna intelektualak baditu horrela jokatu ahal izateko, baina ez preseski ortodoxia katoliko estuaren esparrukoak: alegia-eta egitea

---

841 *B.* 60

842 *B.* 65

843 *B.* 67

844 *B.* 67

845 Idazlea eta narratzailearen arteko harremanez ere mereziko luke teoriaren laguntzaz aritzea.

846 *B.* 13

847 Testu digitala hemen aurkituko da: Etchepare, J. (1987). *Beribilez*. Bilbo. Elkar-Euskal Editoreen Elkartea: http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/E/EtxepareJBide *Beribilez*.htm [2016-05-21]

(*als ob,* Reichenbachen alemanez), eta *sophrosyne* greziarren zuhurtzia hura. Horretara, idazleak barneko adi-jauregia errenditu gabe hitz egin dezake horrela.

Alegia-eta jokabidea azaldu berri da, *sophrosyne*ren kontzeptua iruzkintzeari beheratxoago ekingo zaio.

4.3.2.3. Euskal literaturak beharko lukeen irekitasunaz

Ur Apalategik itsasoaren interpretazioak zerrendatu ditu euskal literaturan, eta, horien artean, itsasoaren esanahia eman nahi izan du Jean Etxepareren idazki batean, hain zuzen, "Amodioa" *Buruxkak*eko kontakizunean agertzen den itsasoarena. Funtsean bat gatoz Ur Apalategiren hipotesiarekin: *Beribilez*en, itsasoak irekidura eremuak dira, bai Atlantikoa bai Mediterraneoa. *Buruxkak*en ere bai, Apalategik dioen moduan.

Itsasoen mugimendu etengabeak sinbolizatzen du badenaren eta izan daitekeenaren arteko pasabidea, zehazkabetasun baten barruan. Zalantza eta noraeza irudika ditzake. Egoera iragankorra ondo edo txarto itxi daiteke: horrexegatik da itsasoa aldi berean biziaren eta heriotzaren irudia[848].

Hona Ur Apalategiren interpretazioa:

> "Platonen banketea itsasoari begira dagoen Biarritzeko ostatu batean birkokatuz, testuarteko joko kitzikagarri bat sortzen du [Jean Etxeparek], zeinen helburu nagusia ez baita amodioaren tabua haustea baizik eta euskal irakurlegoari kontzientzia harraraztea nolako muga hertsietan mugitzen den eskuarki garaiko euskal literatura. Frogantza horren karietara, bazkariko mahaikide-solaskide euskaldun eta erdaldun, baina oro hiritar edo hiritartuak, itsaso zabal eta abegikorrari begira dagoen ostatuan jartzen ditu.
>
> "Egun hartan, eskolako lagun andana Biarritzen elgarretarat bildurik, Eskualdun (sic) eta mendien bi alderdietako erdaldun -notari, mediku, abokat, potikario, ingañadore, eta eskoletxe handi batetako irakasle zonbeit- goxoki bazkalduak ginen

848 "Mer" in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.

denak mahain beraren inguruan, leihoak zabaldurik, itsas hegiari dauden ostatuetatik batean”[849].

Eztabaidaren kokapen espazialaren sinbolismoa gardena da, eta nola ez ulertu Etxepareren itsasoa euskal idazleei beharrezkoa litzaiekeen gogoeta-eremu irekiaren irudi bat bezala? Sinbolismo horrek ez die ihes eginen Etxepareren zentsuratzaileei”[850]
.

*Beribilez*eko itsasoak erreferente kulturalak dira. Europako historiari egiten diote aipamena. Idazleari eskaintzen diote egoki bizitzeko behar duen mundu-ulerkera.

Hala ere, itsaso bakoitzaren esanahiaren modulazioa dago *Beribilez*en. Mediterraneoa da idazlearen gogobetekoa, itsaso itxia, ez da Ameriketako itsasoa bezalakoa, ozeanoa. Beraz, Apalategiren arrazoiketari eutsiz, modu neurritsu batean ulertu beharko litzateke euskal kulturaren irekidura ere, Etxepare helduaren aburuz.

Itsasoen alegiari berriz oratuta, helduaroko Etxeparek euskal kulturari esparrua zabalduko lioke, ez erabatekoa, baizik eta zedarri batzuen barrukoa, zedarri neurritsu batzuen barrukoa.

Jon Casenaveren tesiari jarraiki, badirudi Jean Etxeparek euskalgintzako jokabide eragile bat hautatu zuela *Buruxkak*eko nolabaiteko porrotaren ostean, hasiera bateko proiektu literaturzale baten kaltean. Euskaltzaleen Biltzarrako buru gisa sustatu zuen euskara, irakurleak irabazi nahiz euskararako. Beraz, euskal kultura zabaltzeko asmoari piramidearen beheko aldetik ekin zion. Testuinguru horretan ulertu behar da Jean Etxeparek egin behar izan zuen anbizioen inausketa, *Beribilez*eko itsasoen alegian adierazpidea aurkitzen baitu[851].

---

849 Jean Etxepare, "Amodioa" in: *Buruchkak*, Elkar, 1984 [1910])

850 Apalategi, U. (2002). “Itsasoaren erabilpen sinbolikoak XX. mendeko zenbait idazleren obran”. *Zainak* 21. 232 or.

851 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Madrid. UNED.

4.3.3. Ibilbide sentimentala: neurria

Gaztetan, Jean Etxeparek tonu libreagoa erabili zuen kontu sentimentaletan helduaroan baino, horren seinaletzat izan badira-eta zenbait zantzu idazlanetan. Kontuan izanik besarkatu zuen pentsamolde ez tradizionala, "Amodioa" *Buruxkak*eko idazki zentsuratuan irakur daiteke literaturan ez ohikoa zen tonu-askatasuna gai sentimentalei buruz[852]; jakina denez, *Buruxkak* lehen liburuak (1910) oztopoak izan zituen osotasunean argia ikusteko behin baino gehiagotan[853]. Inoiz jokabide liberal berak errepikatzen ditu *Beribilez*en bertan, adibidez, Iruneko jaietako pasartean gaueko giro hartan adierazten duen sentimendu erotikoa gorabehera gazte-ibileren oroitzapenak berritzen dituen batean, baina 1931ko bigarren liburuan bada inflexio puntu bat neurritasunaren eta moderazioaren alorrean, zentzumenen jarduerei araua jartzen dien bertutea, erran komuna denez.

> "Eta zuri, ameslaria [narratzailea], zer zaizu?
>
> —Ni, iduripen bereko ninzake, gazteago banintz. Oixtiko erresuma haren ondotik banindoakela suhar, ez ahal duzu dudarik?
>
> Zahartu bainiz, ez dakit ez nukenez orai maiteago Mediterranea. Leihorretik bizkitartean, bere ontasun eta lillura guzien gatik. (…)
>
> Hekiei ["Mediterraneoaren inguruko gizonei"; "gizonetan gizonenak"] dugu zor, baitakigu zer den neurria"[854].

Ameriketako itsasoari eta Mediterraneoari *Beribilez*en eskaintzen zaien pasarte horretan, Etxepare idazle helduak neurriaren parametroa hobesten du bizimodua artezteko, eta ez horrenbeste marinelaren beti urrunago joan behar hura itsasoak apurtzen.

Gure ustez, interesgarria da hurbilketa historiko bat egitea idazleak lehenesten duen *neurria*ren kontzeptu horri, hau da, historian zehar kontzeptu horrek zer adierazten izan duen eskuarki bai literatura zabalean, eta bai euskal literaturan. Azken batean, hau bezalakoetan ikusten da idazleak irakurleari ematen dion joko intelektual aberatsa, bere idearioa agerraraziz.

---

852 Kintana, J. (2001). "Nietzsche euskal literaturan: J. Etchepareren "Amodioa" (1910)". *Jakin* 127.

853 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare.* Madrid. UNED.

854 *B.* 82

4.3.3.1. Gehiegikeriarik gabe helduaroan

Lehenik, aipatuko da *neurria* izeneko bertutea adierazteko terminologiaren inguruko kontu bat. Neurriaren kontzeptua ematen zen *sophrosyne* hitzaren bitartez, Greziako kulturan. Erromako kulturak, aldiz, *temperantia* hitzaren bidez itzuli zuen; hura ere Mediterraneoaren itsaso-bazterreko kultura izanik, Greziarengandik tresneria intelektual ugari jaso baitzuen[855]. Bestetik, neurriaren kontzeptua aplikatu ahal zitzaien etikari zein estetikari zein politikari.

Zer da *sophrosyne* delakoa? *Serenitatea,* erantzun daiteke deblauki, erromantzezko hitz baten bitartez; euskaraz *patxada*, zentzurik onenean, agian…

Sophrosyne da gizakiak bere mugak ez gainditzeko dukeen zuhurtzia, Homeroren lanetan Nestor izeneko pertsonaiak irudikatzen duen bertutea. Horretara, Nestor adintsuak gizaldien segida ikusi du aurretik igarotzen bata bestearen atzetik, eta zuzentzen zaie garai hartako gizaki herratsu eta larriei zentzatu asmoz[856]. Nestor neurritsua bizi izan omen zen, gizaki normalak halako hiru urtez. Ikusten denez, da estetikaren alorra gainditzen duen kontzeptua, nahiz eta literaturgileek ere erabili.

Euskal idazleen artean ez da Jean Etxepare bakarra, kontzeptuaren garrantzia azpimarratu duena. Lauaxetak ere, urte haietan, *armonia* hitzarekin ematen du[857]. Batzuetan, *mesura* hitzarekin ematen izan da gaztelaniaz: hortik, Etxepareren neurrira ez dago tarte handia.

---

855 Latindarrek nola itzultzen zuten *sophrosyne*? "Cicero suggests 4 different translations of *sophrosyne*, that all have their own connotations: moderatio which means moderation in the sense of control and restrain; constantia, which means being (remaining) unperturbable or undisturbed; frugalitas, which means frugality and thrift; and the fourth one, which became the most influential: temperantia, which means of course temperance. But temperance has in Latin, certainly in Cicero's Latin the connotation of: "the right mixture", the right balance; temperare means to mix different liquids in the right proportion. I think this is important because it re-enacts some of the idea of tension that I underlined in the early Greek history. Temperance refers to the arrangement of a plurality. We will see how important this is for Nietzsche". in: Tongeren, P. van (2001). "Nietzsche's revaluation of the cardinal virtues: the case of *Sophrosyne*". South African Society for Greek Philosophy and the Humanities. http://repository.up.ac.za/handle/2263/11494 [2016-05-21]. Ikusi era berean: North, H. F. (1973). "Temperance (*sophrosine*) and the canon of the cardinal virtues" in: Wiener, P. P. *Dictionnary of the history of ideas*. New York. Charles Scribner´s sons.

856 Jaeger, W. (1990 [1933]). *Paideia*. Madrid. FCE. 59 or.

857 Iztueta, P. (2002). *Testu hautatuak euskal estetikaz*. Donostia. Utriusque Vasconiae. 18 or.

4.3.3.2. Lauaxeta eta neurria

Gure literaturgileen artean, delako *sophrosyne* hori present dago Lauaxetaren eta Orixeren arteko estetikari buruzko trukeetan. Zehazki, Lauaxeta Orixeri kontrajartzen zaio "Erantzuna" izenburuko idazki argigarrian, literaturaren balioari buruz ari direla[858]. Dio Lauaxetak, estetikaren aldetik, lirikak nonahi eta noiznahi fruitu bikainak eman dituela. Ez bakarrik Grezian, Orixek nahi zuen bezala. Lauaxetaren ustez, labur esanda, *sophrosyne* bertute hori aurki zitekeen berdin idazle klasikoetan zein geroko edozeinetan. Jean Etxeparek aipagai duen "neurria" itsasoei buruzko pasartean da *sophrosyne* kontzeptu greziar klasiko bera, ziur aski.

> "Greziak eragin ikaragarria sortu zuen Lauaxetarengan. Maite egiten zuen haren kultura, haren literatura. Hasieran Grezia zen. "La divina Grecia que nosotros admiramos" dioen Lauaxetari Greziak asko eta asko irakasten dio: Klasizismoa askatasunaren begietatik ikustea (eta ez, Orixek egiten zuen bezala, arautegiarenetatik), poesiaren edertasuna bilatzeko grina, izadiaren garrantzia, kulturaren idealizazioa. Greziako literaturaz ari denean, gure olerkariak behin eta berriro adieraziko digu zein balio aurkitzen duen Grezian: sophrosyne entzutetsua, edertasunak sortzen duen baretasuna"[859].

Jon Kortazarrek Lauaxetaren kritika literario bat iruzkindu du, non poetak *sophrosyne* hori goraipatzen duen; hain zuzen, Barrensororen *Gazi-gozoak* liburuaren kritika: "En nuestras charlas hemos añorado para el euzkera la clásica perfección que armoniza el fondo y la forma, siempre inseparables en los grandes escritores. La serenidad griega que se esfuerza en salir a flor con una envoltura clara y concreta"[860].

---

858 Iztueta, P. (2002). *Testu hautatuak euskal estetikaz*. Donostia. Utriusque Vasconiae. 17 or.

859 Kortazar, J. (1985). "Lauaxetaren olerkigintzaren ardatzak" *Jakin* 36 zkia. 88 or.

860 Lauaxeta: "Gazi-gozoak". *Euzkadi* 33/05/10.


jar sin descanso y perder dinero.

Uno de los temas que más atenta consideración han merecido del señor Agirre es la creación de una literatura vasca. En nuestras charlas hemos añorado para el euzkera la clásica perfección que armoniza el fondo y la forma, siempre inseparables en los grandes escritores. La serenidad griega que se esfuerza en salir a flor con una envoltura clara y concisa.

Irudia. Lauaxeta "Gazi-gozoak". *Euzkadi* 1933/05/10.

4.3.3.3. Nietzsche eta sophrosyne

Segidan, Nietzscheren arartekotasunarekin azalduko da nola uztartzen diren *sophrosyne* delakoa eta burgesiaren arbuioa *Beribilez*en. Egia esan, ez zen arraroa letretako jendeen artean, orduan, gizarte burges oldarkorraren jokamoldeak arbuiatze hori, beste autore asko har baitzitezkeen hori demostratzeko. Hala ere, filosofo alemana hautatu dugu azalpena emateko, medikuaren irakurketen baltsan iturri ezagunagoa delakoan.

Azken finean, lan honen xedeetako bat da Jean Etxepareren aburuak biltzea, eta gaurko irakurleari *Beribilez*eko idearioa desestaltzea, nolabait, gainditu nahiz medikuarengandik urruntzen gaituen distantzia kronologikoa, formaziokoa, geografikoa... Hori dela eta, ez deritzogu alferrekoa narratzaileak ozta-ozta aipatzen dituen kontuak anplifikatzeari, irakurleari mezua garbiago helarazi nahi zaiola. Eta, gure ustez, merezi du *Beribilez*ek ematen duen jokoa baliatzea. Hortaz, zilegi bekigu barnatzea *neurria*ren kontzeptuan, ez baita Etxepare eta Lauaxeta euskaldunen adigaia bakarrik, baizik eta beste pieza bat arnasa ematen digun kultura-tradizio luze baten barnean.

XX. mende hasierako euskal literaturan *sophrosyne* delakoa kontzeptu garrantzitsua izanik ere, *Beribilez*eko irakurketa honetan beste hurbilketa bat egingo zaio, oraingo honetan Grezia hainbeste maitatu zuen Friedrich Nietzsche Etxepareren ezagun zaharraren bitartez.

Atal honi ekiteko berme gisa, frogatutzat emango dugu Jean Etxeparek bizitzan zehar Friedrich Nietzscheren irakurketa astitsuak egin zituela gaztaroan, areago, idazlanetan ere Friedrich Nietzscheren obratik mailegatutako zertzeladak jaso egin zituela[861].

Hari horretatik tiraka ikertu du Jurgi Kintanak Jean Etxepareren lana[862]. Eragin horren isla gisa, *Buruxkak* ahaztu gabe, idazlearen beste izkribuak ere hor daude, adibidez, "Galileako zurgin-seme pedoila"-ren aipamen hura[863]. Gogoratu daiteke alemanaren irudiko kristauak zirela moral endekatzaile baten bultzatzaileak, bizitzari oztopoa jartzen ziotenak.

Ordea*, Beribilez*eko Jean Etxepare neurritsua desenkusatu-edo egiten da "laprastada" horiengatik dioenean Piarres Barbier duela mintzagai, eta bakezkoak egin nahi ditu kristauekin:

> "—Hemen dago ertor Barbier? Uste nuen Doniane-Garaziko ertora zela... Piarres irakurtua dut ba; liburu polit batzu dira, eskuara errex eta garbiz.
>
> —Hala zaizkit nihauri ere. Badute liburu biek halako goxotasun bat, bihotzetik ezin utzizkoa, lehengo Galileatar jende onari baizik aurkitu izan omen ez dena nihoiz. Goxotasun hartarik kotsua hedatu zen bizkitartean orotarat, oixtian ginion Mediterranean berean gaindi; sartu ere ba ausarkiñoan Eskualerrirat, Senperen behar bada gehienik"[864].

Piarres Lafitteri egindako gutunetan ere aipatzen ditu medikuak kristau-doktrinaren bihotzak altxatzeko dohainak, aipatu denez. Gure ustez, biraketa hau kontzientea da Etxepare baitan, berriz ere Reichenbachen *als ob* mottoari (alegia-eta) men eginez asmatua. Esan daiteke adierazpen filokristaua aurreko idazki polemikoen oihartzun esplizitua dela. Konbentzioei men egiten die idazleak, oztopo handiagorik gabe. Enpirista logikoen ustez, batzuetan komunitatea lideratu egin behar da gaitz handiagoak saihesteko, baina gainerakoetan zuhurra da konbentzioari men egitea, kasu arazo txikietan: *aquila non capit muscas,* nolabait esan[865].

---

861 Bizitza-giroaren atalean aipatzen dira Piarres Lafitteren lekukotza eta bestelako xehetasunak ere, puntu hau denaz bezanbatean, tesian.

862 Kintana, J. (2001). "Nietzsche euskal literaturan: J. Etchepareren "Amodioa" (1910)". *Jakin* 127. 109-128 or.

863 Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. 68 or. eta hur.

864 *B*. 99-100.

865 Reichenbach, H. (1964). *The rise of scientific philosophy*. University of California Press. Ikusi etikaren atala.

Bere aldetik, Nietzschek elkartzen du *sophrosyne*ren bertute hori zailtasunen gainetik oreka mantentzeko gaitasunarekin, baina betiere zailtasunei abegi eginez. Zenbat eta zailtasun horiek munta handiagokoak izan, orduan eta *sophrosyne*ren bertutea kunplituagoa, beraz, ez da bertan-goxo egon zalearen bertutea. Etxeparek, *Buruxkak*en baino, *Beribilez*en sosegatuagoa emango luke, Mediterraneoaren irudi barearekin irudikatzen duenez gero *sophrosyne* bertute hori[866]. Iruzkingile zenbaitek Nietzscheren *sophrosyne*ren bertsioa tonikotzat joko lukete, baina hori beste istorio bat da.

Mendebaldeko memorian murgilduz, ezaguna da Aristotelesen proposamena muturren artean erdiko gunea aukeratzekoa, etikaren alorrean: adibidez, ausardia hobestea ausarkeria eta beldurraren artean. Ikusten dugu *Beribilez*en bide hori proposatzen dela. Uler daiteke Etxeparek liburu honetan ideia nietzschearren errebisioa egin duela. Jean Etxeparek gizakiaren halamoduzko jarrerak nahiago lituzke muturrekoak baino, interpretazio nietzschear batean. Nietzscheren ustez, goi mailako gizabanakoak intentsitate baxuko gizartean mugatuta geratzen dira, arriskutsutzat hartzen baita muturretako edozein jarduera, erdigunean berdintasuna eta beldurrik eza baitago ohikoan. Arazoa da, espeziearen eboluzioa bakarrik dela posible muturreko jokabideen biderkatzea badago, bereziki, azkarra, ona, ederraren bila, batetik, eta, bestetik, gaiztoaren, itsusiaren, ergelaren bila ere bai paradoxikoki; conditio sine qua non bat da hori guztia giza espeziea gara dadin. Muturreko jarduerarik gabe, espeziea hobeto gara dadin baldintzarik ez dago. Fenomeno iraultzaile hori nabarmena zen gizarte burges modernoan:

---

866 "In order to allow for this, the controlling measure has to be open at least; and this refers to the final, and most proper meaning of measure in Nietzsche. His measure values people according to the extent to which they manage to grow in their balance. Very often his valuations have this 'relative' form, as will be clear from just a few examples:
• "The highest measure of fullness of force is, the extent to which someone is able to live with hypotheses, the extent to which he can sail out on unlimited seas" (KSA 11, 25[515]).• "This is the measure: how much of truth does one endure, without perishing. And also: how much of happiness—how much freedom and power!" (KSA 11, 35[69]). • The measure of health is determined by "how much of illness it can tolerate and overcome" (KSA 12, 2[97]). • "The measure of power is: to what extent is one able to acknowledge the illusion, the necessity of lies, without perishing" (KSA 12, 9[41]). • "It is a measure of force, the extent to which one is able to get rid of virtue" (KSA 12, 10[45]).
(…) In this "relative" nature of Nietzsche's measure we may recognize some of Cicero's translation of *sophrosyne* with temperantia: temperance is far from being a reducing kind of moderation, but is rather the quality that enables one to get the right mixture or the right balance" aipuok in: Tongeren, P. van. (2002). "Nietzsche´s Greek Measure". *The Journal of Nietzsche Studies*, 24. Udazkena. 5-24 or. *Sophrosyne* bertute bera hizpide in: Tongeren, P. van. (2001). "Nietzsche's revaluation of the cardinal virtues: the case of *Sophrosyne". South African Society for Greek Philosophy and the Humanities*. Baliabide elektronikoa. https://www.academia.edu/5484876/Nietzsches_Greek_Measure [2016-III-19]

industria-gudalosteak sortzea, gizartea burokratizatzea, politika demokratizatzea, egunkarien bidez estatu-ideologia zabaltzea, eta abar, orain 100 urteko gizartean[867].

Jean Etxeparek helduaroan bide hori baztertu egiten du, argi eta garbi. Gaztetan Nietzscheren burubide horrek literatur-jokabide batzuk inspiratu bazizkion ere, helduaroan ikuspegi moderatuagoetara lerratzen da.

Etikaren atal honen hondarrean, para ditzagun lerro batzuk jorratu dena laburbiltzeko amorez. Autoa Donostiatik pasatzearen aitzakian, bidaiari arretatsuak bertako gizarte burges handiarengandik bereizteko ardura hartzen du. Materialismoa ez du gogoko, eta jendarte opor zale horren erak arbuiatzen ditu. Dekadentzia historiko hori seinalatzen du, nabaria zena Lehen Mundu Gerraren ostean, eta masa-gizarte berriaren arrunkeria deitoratzen du; geroago, *Beribilez*eko beste pasarte batean eta markoa osatuz, Europan izango zen bigarren gerla handiaren zantzuak igarriko ditu. Beste puntu batean, medikuntza esperimentala ezagutu duen profesionalak positibismoaren ikuspegitik porrokatzen ditu bidean aurkitzen dituen sineste azientifikoen arrastoak, direla erlijioarekin lortuak, direla lanbidea duen medikuntzarekin lotuak; azpimarragarria da goganbehar hori umorez gainditzen duela, nahiz eta nabarmendu behar den emakumearen irudi ezkor bat agertzean dela, zeinean genero horrek ahulezia berezia duen funtsik gabeko sinesteetan erortzekoa. Atala ixteko, idazlearen ibilbidea jorratzeko puntua landu da; alegia biren bitartez, idazleak irudikatzen du izan duen ibilbide intelektuala. Gaztetan Ameriketako itsaso epikoarekin bat egiten bazuen, helduaroan gehiago lerratuko da Mediterraneoaren abaroan aurkituko duen neurrian, usoaren sinboloan itxuraldatutako Partenonen gauzatua.

867 Bornedal, P. (2012). "Mediocridad" in: Niemeyer, C. (arg.) *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares.* Madrid. Biblioteca Nueva.

5. Hegoaldea Jean Etxepareren ikuspegian

Ezer baino lehen, komeni da argi uztea XX. mendearen hasierako Jean Etxeparek auzi-mauzi identitarioak eta mugaz beste aldeko proposamen politiko abertzaleak ezagutzen zituela, beharrezko argitasuna, atal honetan estereotipo identitarioak aztertzera joko delako. Jean Etxeparek ezagutzen zituen Hegoaldeko proposamen politiko soberanistak XX. mendearen hasiera hartan, Euskal Herriaren egoera hauskorra zena jakin bazekien-eta; horrexegatik iraunarazi nahi zuen euskal iragana funtsezko osagarrietan:

> "Libro! ? ……. Gure gain! ? …... Baina zoin da gizaldea, guziz oraiko egunean, berez bere bizi ditakenik? Legeak berak, mugetako zedarriak hautsirik, ez direa orotan berdintsu ari jartzen? … Uzten baluzkigute bederen, sobera itzulipurdikatu eta kotsatu gabetarik geure lurra, geure ohidura gehienik atchikiak gitzaizkotenak, gure mintzai zaharra!"[868].

Hortaz, naziotasunaren inguruan Jean Etxepare helduak bildu zituen aburuak ateratzen saiatuko gara bere diskurtsotik datozen paragrafoetan.

Iruditeriak duen interesa politikoa ere izan daiteke, ez baita harrigarria: irakurri, adibidez, nolako eboluzioa izan duen espainiarren irudiak Frantzian unean uneko egoera historikoaren arabera:

---

868 Etchepare, Jean "Euskaltzaleen bilkura" *Gure Herria* 1. urtea, 11-12 (1921ko hazila-abendoa). 701 or.

"Cuando España era una amenaza para el reino de Francia, desde los tiempos de la Liga (la opinión ultracatólica a sueldo de Felipe II) hasta Rocroi, se desarrolló en Francia un exotismo de defensa: el español Matamoros, Capitán, fue ridiculizado a través de las coplas y los panfletos de Satyre Ménippée o inmortalizado en la Illusion comique de Corneille. En pleno romanticismo, Théophile Gautier se acordará de él al crear su Capitaine Fracasse. En la corte de Luis XIII aparecieron las primeras españoladas donde se caricaturiza a personajes españoles (citaremos el ballet más famoso de 1626, La douairière de Billebahaut [=Bilbao] et Fanfan de Sotteville)"[869].

5.1. Nazio-sentiberatasun baten hastapenak

Jean Etxepareren iruditerian badira euskal nazioa eraikitzean ohikoak diren elementuak, baina horrek ez du esan nahi Etxepare nazionalista zenik. Behinik behin, Europako giroan bazen nazioa ulertzeko modu bat, eta Euskal Herrikoan ere bai, ondoko lerroetan aztergai. Salbuespena izan ez eta, Jean Etxeparek badu komunitate-sentipen bat euskaltzalea den aldetik,

869 Pageaux, D. –H. (2002). "Historia e imagología" in: Boixareu, M. eta R. Lefere (koord.). *La Historia de España en la Literatura Francesa*. Madrid. Editorial Castalia. 41 or.

ezaugarri jakinetan azaleratzen dena: nazionalismoaren izaerari eta bilakaerari hurbilagotik begiratuko zaie.

Europan, 1800 inguruan, nazio modernoak eratzen hasiko ziren liberalen bultzadaz. Liberalek nazionalismoak bultzatuko zituzten, Antzinako Erregimeneko monarkiei azpijana egiteko, haien legitimitateari erasota. Ez da pentsatu behar nazioak hor zeudenik, nazio moderno horiek eratzea programa konplexu eta jarraiki oso bati lotuko zitzaionez gero; ez da pentsatu behar, ezta ere, dena asmatutakoa denik nazioen inguruan. Horregatik, interesgarria da gogoratzea nazioak erretorikoki nola eraiki diren, orain arte gutxitan egin baita[870].

Europan, XIX. mendean, nazio berriek monarkiak ordezkatu zituzten hainbat herrialdetan. Indar politiko liberalek monarkiaren zilegitasuna ordezkatu nahi zuten nazio kontzeptua baliatuta, eta hainbat lekutan helburua lortu zuten. Aurreko mendeetan, monarkiaren legitimazioa izan zitekeen sendotua monarkak Jainkoarengandik jasotako eskuordetzaren bidez. Liberalen oldez, erresumaren legitimazio berriek lekua kendu zioten monarkiaren jainkozko legitimazioari; horretara, Europan nazioek beren burua definitzeko bizkar-hezur gisa baliatzen izan dituzten osagai nagusiak hauek dira: arbaso fundatzaileak, historia, hizkuntza, heroiak, paisaiak eta folklorea[871]; direlako osagaiak baliatu zituzten indar liberalek nazioei hezurdura sinesgarria emateko.

*Beribilez*en, naziotasuna ez da zehazten zeharo etorkizuneko proiekzio politiko gisa. Egia da, *Beribilez*en arbasoek, historiak, hizkuntzak, heroiek, paisaiak eta folkloreak lekua dutena, eta, hein batean, Etxepare ere nazio liberalen gidoiari jarraitzen zaiona.

Elementu horietatik, adibidez, *Beribilez* bezalako bidaia-liburuetan paisaia maiz aipatzen da, esan gabe doa. Paisaiaz ari garela, geografiaz ari gara, eta geografiak zuzenean garamatza historiara; era berean, historiak politikara garamatza.

Segidan, euskal historiaren agerraldiak aztertzeari ekingo zaio, *Beribilez*en duten muntagatik. Autotik bidaiariek ikusten dituzten lekuak esanahi historikoz mukuru daude batzuetan, adibidez, Ibañetako lepoan, mugaren ondoan adierazgarriki. Ikerlan honetan hainbat ataletan jorratzen dira naziotasunaren gainerako elementu aipatu berriak.

---

870 "Nationalism" sarrera in: Beller, M. eta Joep Leersen. (2007*). Imagology. The cultural construction and literary representation of national characters*. NY. Rodopi.

871 Thiesse, A. M. (2014). *La création des identités nationales. Europe (XVIIIe-XXe siècle)*. Paris. Seuil.

Europako hainbat nazionalista bezala, Jean Etxepare ere, giroko semea, kontzienteki dago murgildua historia norabidetzeko ahaleginean, interes euskaltzaleak gogoan. XIX. eta XX. mendeko nazioen bilakabidean kokatuko genuke Jean Etxepare, idazlearen historia-zaletasunaren gorabeheran hitz egin ahal izateko.

Literaturaren arloan, 98ko belaunaldiko idazle espainiarrek ere historiaren baliabide bera erabiltzen zuten Espainiaren identitatea eraikitzeko, alegia, historia-gertakariak bere kasa balioestea eta interpretatzea; hari beretik, ezin daiteke ahaztu haiek ere XIX. mendeko azken urteetan eta XX. mendeko lehen hamarkadetan jardun zutela[872].

5.1.1. Historia diplomatikoa

Nazio-sentiberatasunak sortzeko bidean historia komun bat eraikitzeak ere garrantzia dauka nazio liberala legitimatzeko, aipatu denez.

*Beribilez*en toki eta gune sinboliko identitarioak aipatzen dira: Orreaga, Iruñea, errege nafarrak...[873]. Adibidez, Iruñeari buruz honela dio narratzaileak: "Eskualerriko hiri guzien artean aipagarriena da Iruña"[874], Jean Etxepare historiografia euskaltzalearen jakilea baita. Haatik, ez da pentsatu behar Etxeparek Bilboren berria ez zuela, Bilbo mende hasieran loratze ekonomiko betean baitzegoen, eta idazlea bertan egona baitzen Azkue bisitatzen[875]. Kontua da Iruñea hiri buruzagia zela historiografia abertzalearen arabera, Nafarroako erreinu zaharraren hiriburua.

*Beribilez*ek historia-memento nagusi bi aipatzen ditu, autoa Ibañetako lepotik pasatzean: Karlomagnorena VIII. mendean, eta Napoleonena 1811n[876]. Historiaren pasarte

872 Ortega Cantero, N. (arg.). (2006). *Imágenes del paisaje*. Madrid. UAM ediciones. 40 or.

873 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare.* Madrid. UNED. 385 or.

874 *B.* 27

875 Etxepare, J. (1920). "R. M. Azkue euskaltzainburu" in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar. 187-202 or.

876 *B.* 14-15

horietan, narratzaileak gertakari historikoen handitasun-sentipena komunikatu nahi dio irakurleari, soldaduen kopuru handiak aipatuta, nazioaren iruditeria arranditsua sortu nahiz, alegia, nazioaren sublimitatearen bila:

> "Iragaiten dugu azkenekotz Ibañetako lepoa, hainbertze mende huntan hainbertze miliun gizon, hanitzak armadetako soldado, bere arteka xabalari esker bidatu dituen lepoa"[877].

Edo fraideen ugaritasuna azpimarratuta:

> "Dena den, lepoaren bertze ixurkian, lepotik berehala, huna egun Orreaga, bere komentu famatuarekin. Zoin zahar orai, zoin huts eta hits, komentu hau bere etxe-andana gaitzarekin! Nork erranen luke bazirela noizbait, hortik atheraiak, bospasei mila fraidetaraino, erleak beren kofoirat bezala horrat biltzen zirenak noiztenka?"[878]

Badirudi narratzaileak irakurlea txiki sentiarazi nahi duela historia-datuen bitartez. Masa-gizartean murgiltzen gaitu, kopuru handiak erabilita, nazioak ere behar baitu bere burua egituratzeko magma bateratzailea, banakoen artean elkartasuna sortuko duena.

Jean Etxeparek aipatzen du euskal historia bestelako helburu politiko batekin ere. Sortu nahi du historia-iruditeria diplomatiko bat euskaldun guztiak aisiara senti daitezen, Hegoaldekoak barne, historiografia frantses ofiziala birmoldatzen duela. Hori da Karlomagnoren eta Napoleonen ibileren bertsioek duten funtzioa *Beribilez*en. Hala ere, ez du beti bide "abertzale" hori urratzen: Nafarroako birkonkistan XVI. mendean, San Ignazio Loiolakoa izango zena Gaztelaren alde borrokatu zela, historiografia espainiarrari men egiten dio, esanez erasotzaileak bearnesak zirela, eta ez Nafarroako erresumaren defendatzaileak. Asmoa da, hor ere, Ignazioren figura aldarrikatzea, santua ere euskaltasunaren ikur izan daitekeen heinean[879].

Jean Etxepareren ikuspegia ez da inozentzian erortzen. Badaki historiak liskarrak sor ditzakeena, eta baita elkarbizitzarako trabak ere euskaldunen artean. Esan daiteke Jean Etxepare

---

877 *B.* 14

878 *B.* 15

879 Boixareu, M. eta R. Lefere (koord.). (2002). *La Historia de España en la Literatura Francesa*. Madrid. Editorial Castalia. "Conclusiones" 838-842 or.

Frantziako ikuspegi historikoari eraso gabe, esakuntzaren bitartez euskal auzoen arteko harremanak gaiztotuko ez dituen bertsioa ematen saiatzen dela *Beribilez*en.

Ikusten dugu Jean Etxeparek erabiltzen duela historia ikuspegi positibista samarretik, nahiz eta inplikatzen den helburu politikoekin modu lausoan, esan bezala. Ez du bat egiten Xaho batek edo Garay de Monglave batek egin zezaketen euskalduntasunaren interpretazio mitikoarekin, alegia, datatzen ez duen euskaldun loriatsu baten goraipamena, egitandi heroiko eta guzti, mitologia-ukituko kontakizunak erabiltzen baitziren erromantizismo-kutsuko idazki euskaltzaleetan:

> "Imperaba en el país un trasnochado romanticismo pseudo-historicista que construía tradiciones legendarias con supuestos heroísmos de los antiguos vascos, rivales nunca vencidos de los romanos, la gesta de Roncesvalles, horrores medievales y briznas de consejas y leyendas"[880].

Jean Etxeparek ez ditu herri-elezaharrak erabiltzen iruditeria herdertar bat sortzeko, ezaguna baita Johan Gottfried Herderek (1744-1803) herri-jakintza eta hizkuntza berreskuratzea bultzatu zuela asmo identitario batekin: Europan, Herderen ideietan oinarritu ziren nazio-mugimendu asko herri bakoitzari nortasun bereizgarria emateko. Ziur aski, Jean Barbier Herderen ikuspegi horretatik hurbilago zegoen, *Piarres I* (1926) idatzi zuenean, *Beribilez*en eleberri garaikide bat aipatzearren.

Hein batean, Jean Etxepareren "nazionalismoa" gehiago litzateke Ernest Renanen (1823-1892) ildokoa ezen ez Herderen ildokoa, gehiago baina ez erabat beste nonbait azaltzen denez. Ernest Renanek naziotasun frantsesa funtsatu nahi izan zuen hiritarren eguneroko hitzarmenean[881], ez etnia-nortasun baten autogobernu-eskubidean Herder alemaniarrak bezala[882].

Alde batera, Etxepareren nazioa kontraktuala da Ernest Renanek (1823-1892) "Zer da nazioa?" (1882) hitzaldi famatuan nahi zuenez, eta, horrenbestez, ez primordialista Herderen estilora. Jakina denez, Renan historiografo frantsesak postulatzen zuen nazioa eguneroko

---

880 Michelena, L. (1960). *Historia de la Literatura Vasca*. Madrid. Minotauro.136 or.

881 Renan, E. (2004). *Zer da nazioa?* Leioa. EHU. Joxe Azurmendik baditu lanak Renanen lanari helduta.

882 Thiesse, A. M. (2014). *La création des identités nationales. Europe (XVIIIe-XXe siècle).* Paris. Seuil.

kontratua dela, eta ez sustraiekin zerikusia duen ezer, Herderek ez bezala. Badirudi Renanek helburua zuela memento hartan erro alemaneko Alsaziaren frantsestasuna justifikatzea, eskualdeak erro alemanak baitzituen[883]. Jakina denez, Alsazia eskualdea Alemania eta Frantzia estatuetakoa izan da txandaka historian zehar, eta gatazka-iturri haren lurraldetasuna.

Ernest Renanen hitzaldiaren mamia honela aurkezten du E. A. Igartua itzultzaileak:

> "Nazio bat, beraz, elkartasun handi bat da, iraganean egindako eta aurrerantzean egiteko prest gauden sakrifizioen sentimenduek osatzen duten elkartasuna da. Iragan bat suposatzen du, baina orainean gertakari ukigarri baten bidez laburbiltzen da: baiezkoa, hots, elkarrekin bizitzen jarraitzeko garbiro adierazitako nahia. Nazio baten existentzia (barkatu metafora) egunero gauzatu behar den plebiszitua da, gizabanako baten existentzia bizitzaren aldeko betiereko baieztapen etengabea den bezalaxe"[884].

Gure ustez, Jean Etxeparek oreka bilatu nahi du, naziotasun mota bien arteko zerbait proposatuta, zeren eta Frantziako eredua kontraktualista bazen ere, Hegoaldeko abertzaletasunak eite herdertarragoa zukeen, oker ez bagaude: idazleak estatuak euskal ohiturak begiratzea nahi du, nekez bada nekez, baina liberalismoak gizabanakoari aitortzen dion autonomia- eta sormen-eskubidea ukatu gabe, han eta hemen jaso ditugun aipuak kontuan hartuta.

Laburbilduz, Jean Etxeparek ikuspuntu diplomatiko batetik gogoratzen ditu historiako pasarteak. Ez du nahi bi estatu inplikatuen arteko liskarrik berritu. Esan daiteke ez dituela euskaldunak beren artean liskartu nahi, nahiz eta batzuetan ikuspegi frantses ofiziala eraldatu behar izan horretarako. Horrelakoak dira Ibañetako lepoko gertakarien bertsioak *Beribilez*en, non Karlomagnoren[885] eta Napoleonen[886] espedizioak gogoratzen diren. Bietan inbasioak deitoratzen ditu narratzaileak; badirudi erreparazio historiko baten alde egiten duela, Pirineoen

---

883 Renan, E. (2004). *Zer da nazioa?*. Leioa. EHU. Ikusi, era berean: Schnapper, D. (2006). "Nation" in: Mesure, S eta P. Savidan (zuz.). *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF. 812 or. Ernest Gellnerren eta Benedict Andersonen teoriak dira, irakurgai direnak in: Spencer, J. (1996). "Nationalism" in: Barnard, A., & Spencer, J. (arg.) *Encyclopedia of social and cultural anthropology*. Oxon. Taylor & Francis. Euskaraz Joxe Azurmendik idatzi du honetaz: Azurmendi, J. (2003). "Humboldt eta Renanen nazio kontzeptua". *Revista internacional de los estudios vascos = Eusko ikaskuntzen nazioarteko aldizkaria = Revue internationale des études basques = International journal on Basque studies, RIEV* 48, 1. zkia, 2003, 91-124 or.

884Antxustegi, E., & Renan, E. (2004). "Hitzaurrea" in: .Renan, E. *Zer da nazioa?* Leioa. EHU.

885 *B.* 15

886 *B.* 28

bi aldeetako auzokide euskaldunen arteko bizikidetza adiskidetsuaren bila, hau da, auzotasun onaren bila.

5.1.1.1. Euskal historia

5.1.1.1.1. Karlomagno eta euskal epopeia

*Beribilez*ek arbaso gogoangarrien lerroan jartzen ditu Orreagan Karlomagnori oldartu zitzaizkion euskaldunak.

Sumatzen da epika euskaldun baten premian dagoela Jean Etxepare euskal iruditeria osatzeko, euskal komunitatea finkatu asmoz. Izan ere, Europako nazioak ere izateko delibero baten sorkariak dira. Delibero horrek naziotasun irudikatua sortzera daramatza liberalak. Besteak beste, sorkuntza hori gauzatzeko epika baten premia sumatu zuten, nazioari zilegitasuna emango ziona. Oroitzapen-multzo heroiko horrek nazioko herritarrak batuko zituen sinbolikoki, aurrerantzean. Hori da, *Beribilez*en ere, Errolanen heriotza eta euskaldunen oldarraldia oroitzeko ariketaren funtsa Orreagan[887].

Gehiegi esatea izan daiteke Etxeparek nazioa sortzeko asmo zehatza zuenik. Gehiago da idazleak giroan dagoen elementu bat beretzen duela, historia-giroan baitzegoen nazio-sorkuntza pil-pilean.

Bi arrazoi ematen ditu Karlomagnoren ekintza militarra gaitzesteko: bata, Frantziako erregek ostikatu egin zizkien zuzenak euskaldunei: "Nabarreko hiri-nausia Moro higuinari ideki" zien; eta, bestea, "gure menditar gaizoen arthaldeer" oldartu zitzaien[888].

Orreagako guduaren gaia eta inguruabarrak sarritan jorratu dira euskal literaturan, euskal nortasun historikoaren mugarria izanik, gogotik kommemoratzen baita. Txikiak handia bentzutu dezakeelako erakusgarria da, eta, horrenbestez, 1886an, Arturo Campiónek *Orreaga*

887 Thiesse, A. M. (2014). *La création des identités nationales. Europe (XVIIIe-XXe siècle)*. Paris. Seuil.

888 *B.* 14

idatzi zuen. 1926an, J. M. Hiribarrenek *Altabizkarreko kantua* izenekoa idatzi zuen[889]; 1979an, Bernardo Estornés Lasak kontakizun bera paratu zuen erronkarieraz. Amaitzeko, oraintsu, Euskadiko Autonomiaren bardo nagusi den Benito Lertxundik ere kantuak eskaini dizkio diskoan[890]. Diskoan badira kantariaren, Garay de Monglaveren (1874ko testua), Iratzederren eta Jose Angel Irigarairen sormen-lanak Ibañetako lepoan sortutako istiluei buruz. Bada diskoan Arturo Campionen (1917) "El bardo de Izalzu" lanaren gainean egindako kanta ("Gartxot") Orreagako guduaren ingurukoa hura ere. Komiki liburua (2003) eta filma (2011) egin ditu Gartxot bardo errebelde eta zigortuaren gainean Asisko Urmenetak, beste artista batzuen laguntzarekin: Marc Armspach, Jokin Larrea, Juanjo Elordi…[891]

Badirudi Etxeparek tradizio jakin batean kokatzen duela bere burua, baina gehiago alderdi euskaldunera lerratuta, ezen ez frankoenera, *Beribilez*eko bertsioari erreparatuz gero. Eztabaidagarria izango da, noski, historiaren zientziak datuak nola interpretatu beharko lituzkeen, baina idazlearen aukera da esanguratsua hemen. Horretara, *Chanson de Roland* (1100) delakoan Errolan zaldun frankoa Islamaren kontra ariko zen, ez euskaldunen kontra eta arabiarren alde *Beribilez*en bezala.

Ez da erraza jakitea zein bertsio jarraitzen duen Jean Etxeparek Orreagako pasarteari dagokionez. Deitoratzen du Orreagan zehar gudari frantsesak iragatea, bai Karlomagnorekin bai Napoleonekin. Jean Etxeparek justiziaren alde egiten du, nahiz eta gertakari historikoak benetan nola izan diren ez duen esaten. Galdera eta baldintza artean egiten ditu adierazpenak, bereziki Orreagari buruzkoan.

> "Egia othe da Charlemagne adostua zinutela lehentxago Moroekin? adixkidantzaz emana zuela Moroer, Zaragozarekin, Aragoniako bazterra? Moroak alderat koka zitezin Eskualerrian, Charlemagnek zuela urrarazia Iruñako hiria zaintzen zuen harresi gora?

---

889 Hiribarren, J. M. (1926). "Altabizkarreko kantua". *Gure Herria* 6, jorraila.

890 Lertxundi, *B.* (1981). *Altabizkar. Itzaltzuko bardoari*. Elkar KD-47/48.

891 Erreferentzia gehiago Orreagaren gaineko polemikaz eta haren gaurkotasunaz: Iriarte, I. (2012). "Roncesvalles" in: de Pablo, S. et al. (arg.) *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Tecnos.

Egia balin bada, Eskualdunek bazuten zertaz izan hasarre"[892].

Adierazpenaren modalizazioa erabiltzen du tentu handiz iritzia emateko. Probabilitate hipotetikoa ematera baino ez da ausartzen. Positibismoaren lerroan, idazleak ez du egiatzat eman nahi funts zientifiko eskasekoa izan daitekeen adierazpenik[893]. Nolanahi ere zalantza guztiak argitzen ez baditu ere, hipotesiak euskaltzaleak dira eta ez bertsio nagusi konbentzionalen araberakoak.

Orreagako historiaz gain, bertako kolegiatan errege nafarren zin egiteko liburua bilatzen dute auto bietakoek, gurari oso sinbolikoa; Antso Handia aipatzeak ere karga sinbolkoa izan dezake figura horrek piztu dituen interpretazio kontrajarriak medio[894]. Ez dute, haatik, liburua aurkituko bertan, memento horretan, lekuz aldatua baitzen[895].

5.1.1.1.2. Nafarroako konkista

"1521-ean, Jean d'Albret kondeak, Biarnoan, Amikuzen eta Garazin-barna Iruñarat jo zuen bere soldadoekin, hiriaren Espainiari kentzeko xedetan; bainan jin-bidetik itzultzea behartu zitzaion, ederki zafratua izanik.

Nabarreko erregeren alde gudukatu zen orduan Ignazio Loiolakoa. Saki bat itsusia egin baitzioten belhaun batean biarnesek, zalditik alditxar erori zen aitzindari gaztea, eta ereman zuten ordu berean Gipuzkoako bere jauregirat"[896].

Ignazio Loiolakoa zauritzea aipatzen duenean, deigarria da protagonista historikoen kokapen politikoa, gaur eta hemen ohikoa den interpretazioaren aldean; adibidez, Ignazio zauritu zutenak bearnesak ziren, ez Nafarroako erresumaren defendatzaile prestuak: gogoratu Amaiurreko gazteluaren erresistentzia heroikoa, eta hartaz Lauaxetak egindako interpretazio

892 *B.* 14

893 Le Querler, N. (1996). *Typologie des modalités*. Caen. Presses universitaires de Caen. "Modalités épistemiques" atala. 71 or.

894 de Pablo, S. (2012). "Sancho el Mayor" in: de Pablo, S. et al. (arg.) *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Tecnos.

895 Iriarte, I. (2000). *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960).* Madrid. Biblioteca nueva. 206 or.

896 *B.* 27

poetikoa, adibidez[897]. Ignazio, harrigarriki samar, nafar legitimitatearen alde ari da *Beribilez*en, eta ez Espainiako erregeren alde esan ohi denez, legitimitate hori Joanes Albretekoak zuela. Historiografiaren bestelako leku batean kokatua zen Etxepare[898]. Asko idatzita dago, gaineratu daiteke bidenabar, gaurko historiografiaren kinka epistemologikoaz, non ikuspegi anitzen irekitasuna eta osagarritasuna azpimarratzen den, baina bego oraingoz[899].

5.1.1.1.3. Napoleon

Errolan bezala, Napoleon ere Ibañetatik pasatu zen espedizio militarrean.

Jean Etxepare historia positiboari lotzen zaio, ez antzinate urrun edota mitiko bati. Horretan Etxeparek historiografia frantses ofizialarekin bat egiten zuen[900], dirudienez, nahiz eta euskal ikuspegia eransten dion:

> "Napoleon handiaren soldado aipatuak, zonbat etzen zuetarik eskualde hotan galdu, 1811-ko itzuli deithoragarrian! Zeren bilha zinabiltzaten ere hemen gaindi, zortzigarren mendearen ondartsurat, Charlemagnen gizonak, Roland gaizoa buruzagi?"[901]

Ikusten da Jean Etxeparek Napoleonen soldaduekiko enpatia erakusten duela ("Napoleon handiaren soldado aipatuak"), haiei pluraleko bigarren pertsonan zuzenean mintzo zaiela; enpatia baita Errolanen aldera ere ("Roland gaizoa"). Kupitu egiten ditu biak; beraz, bada oreka fina eta apropos bilatua euskaltasunaren eta frantsestasunaren artean.

Jean Etxeparek modalizazio apreziatiboa erabiltzen du, "deithoragarri" adjektiboa erabilita, arbuioa adieraziz. Pasarte historikoa subjektibitatearen iragazkitik pasaraziko du narratzaileak. Idazleak subjektibitatea adierazten du, perpausean esandakoa balioztatatuta[902].

---

897 "Amayur gaztelu baltza" olerkia Lauaxetaren *Arrats beran* (1935) liburuan dago.

898 Tápiz, J. M. (2012). "San Ignacio de Loyola" in: de Pablo, S. et al. (arg.). *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Tecnos.

899 Dosse F. (2006). "Histoire" in: : Mesure, S eta P. Savidan (zuz.) *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF. Badira beste hainbat artikulu gaiaren inguruan hor, bertan, ematen dituen iradokizunen artean.

900 Historia-ikuspegi frantsesa mendeetan zehar gaur egun arte nola joan den osatzen jakiteko Pierre Noraren lanetara jo dezake irakurleak: Nora, P. (zuz.) (1997). *Les lieux de la mémoire*. Paris. Gallimard.

901 *B.* 14

902 Le Querler, N. (1996). *Typologie des modalités*. Caen. Presses universitaires de Caen. 85 or.

Intonazio aldetik ere, nabaria da narratzailearen inplikazioa esakunean, esklamazio-ikurra darabilela. Nabaria da idazleak modalizatzeko premia sentitzen duela, historiari buruz ari denean, adierazpide borobilegiak saihestu nahiz.

Bisitan, Iruñeko hiriak oroimenak pizten dizkio idazleari Napoleonen ibilerez ere, ez baitzuen enperadoreak asmatu Espainiako politikara sartzeko ahaleginean, Jean Etxepareren ustez. Historia da subjektibitate anitzen borroka-tokia. Hala ere, Etxeparek ez du sobera barneratu nahi historiak sor ditzakeen istiluetan:

> "Duela mende baten ingurua, Iruñak gogor egin zion halaber Napoleon Handiari, hunek itsumenduz ezarri zuelarik Espainiako erregetzat bere aneia Joseph; bainan, xo! ez ditzagun hemen lehengo zauriak berri..."[903].

Baieztapen borobilak eta ziurtasuna bazterrera uzten ditu batzuetan narratzaileak, esapide leungarriak erabilita[904], egia liskar-iturria izan bailiteke, medikuak bizipenez oso ondo baitzekien. Ez du urrutiegi joan nahi. Ematen du Jean Etxepare aplikatzen ari dela *als ob* (alegia eta) dictuma, hau da, Hans Reichenbachen positibismo logikoak predikatzen zuena, alegia, egia ez dezakegu probabilistikoki baino ezagutu behin-behineko hurbilketa bidez, beraz egin dezagun gizarte-inguruak egiten duen bezala, zinezko egia balitz bezala inguruan ontzat emandako hura[905].

Izan ere, polemikoagoa da Napoleonen erasoa Ibañetan zehar, Orreagako pasartea baino. Testuinguru historikoa ematea ere baliagarria izan zitekeen arren, Napoleonekoan idazleak ez du bertsiorik eman nahi, euskaldunen artean *frantsestea* izenaz ezaguna den fenomenoa hortik abiatu baitzen[906].

Napoleonek esperantza autodeterminatzaileak piztu zituen hainbat nazio txikitan, baita Euskal Herrian ere, proiektu subiranista baten bideragarritasuna aztertu baitzuen pertsonalki. Izan ere, Napoleon zen giza eskubideak aldarrikatu zituen Iraultzaren oinordeko zuzena, eta nazio txikien asmoen babeslea ustez. Gurean, hor dugu Txomin Jose Garat (1749-1833)

---

903 *B.* 27

904 Kerbrat-Orecchioni, C. (1980). *L´énontiation de la subjectivité dans le langage.* Paris. Armand Colin.

905 "Bizi-giroa" atalean sakondu da Jean Etxeparek Hans Reichenbachengandik jasotakoa.

906 Altzibar, X. (2009). "Napoleon eta frantsestea euskal literaturan". *Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*, (20), 91-120. Antonio Zabala biltzaile, Auspoa argitaletxeak argitaratu du *Frantsesteko bertsoak* izeneko bertso-bilduma 1991n.

Napoleon I.aren aholkulariaren proiektua Euskal Herri batu bat itxuratzeko. Izan ziren arinago ere antzeko saioak beste Txomin Garat (1735-1799) baten eskutik, aurrekoaren anaia nagusia, Iraultza garaian, baina hori beste haritz bateko ezpala da…

Kasurako, Alemanian, Ludwig van Beethoven berak ere *Heroikoa* (1806) izeneko hirugarren sinfonia eskaini zion Napoleoni, askatasunen aldeko buruzagitzat hartu baitzuen hasiera batean, nahiz eta gero damutu hark nola jokatu zuen ikusita.

Izan ere, Frantziak zentralitatea izan zuen Mendebaldeko erresumen artean, Iraultzatik hona XX. mendearen erditsura arte. Etxeparek *grandeur* horren zantzua ere badakar, frantses-izaeraren eta nortasunaren balantze ñabartua egiten duenean ("Gizadi guzien artean frantses gizadia badaukat lehen, bat ez baita harek bezalako adimendu erne eta bihotz ona mendez-mende erakutsi izan dituenik. Nausi da bertze guziei"[907]). Etxepareren garaian, oraindik, Frantzia ez zen igaroa bien arteko herrialdeen munduko sailkapenera, lehen sailari ezin eutsita[908].

Argi eta garbi Etxeparek badu hartzaile zehatz bat gogoan; irakurle jakin batzuk ditu gogoan, eta ez ditu mindu nahi. Alde batetik, identifikatu egiten da kaltetuekin naziotasun frantses ofizial bati jaramon egin gabe, baina, bestetik, ez ditu Napoleonen aldekoak samurrarazi nahi, Napoleon eztabaida-iturria baita. Kaltetuak izan daitezke Napoleonen soldaduak; haritik tiratuz, Iruñeko biztanleak ere izan daitezke inbasioaren kaltetuak. Jean Etxepare moldatzen da hala frantsesez nola euskaldunez kupitzeko, inori irain egin gabe. Gogora datorkigu leialtasun politikoen arteko liskar hipotetiko honi buruz, Frantzian bazela bonapartisten alderdia Jean Etxepareren sasoian, Iparraldean ere erroak zituzkeena.

Narratzailea erreparazio historiko bat eskatzen dabil Ibañetan. Karlomagnoren saioaz ari da luze samar, aldiz, Napoleonena kronologikoki hurbilegi dago, eta ez du "zauririk berri"-tu nahi moldakaizki aipatuz[909]. Oso kontzientea da historiaren ikuspegi posibleek izan

---

907 *B.* 72

908 Nora, P. (zuz.). (1997). *Les lieux de la mémoire*. 3 lbki. Paris. Gallimard. Ikusi azken atala, Pierre Nora bildumaren zuzendariak hiru liburukiak ixteko idatzia.

909 *B.* 28

zezaketen zuzeneko eragin hurbilaz, irakurleen artean. Narratzailearen aburua da inbasio ekintza horiek absurdoak direla: Napoleonek "itsumenduz" jokatu zuen, esaterako[910].

Espainiaren kasuan, bultzada ideologiko unitarioa areagotu egin zen espainiarrek Napoleonen inbasio-ahaleginari ustez eginiko erantzutea baliatuta (1811); atzerritarraren kontra altxatutako herri espainiarraren irudi mitiko hori ondo etorriko zitzaien talde politiko nagusiei beren interesetarako, alegia, erregezaleei zein aurrerakoiei[911]. Beraz, kasu honetan ere argi ikusten da historia-gertakariek duten ahalmen gogorarazlea nazio-proiektu bati buruz.

5.1.1.1.4. Frantsestea XX. mendean

Esan liteke euskaldunak frantsesetatik aparte bizi izan direla Etxepareren historiografiaren arabera, baina XX. mendearen hasieran frantsesteko prozesua azkarragotu dela, idazleak onartzen baitu, eta begi onez ikusten, nahiz eta zer gogoetatua ematen dion, ari baita hausnarrean identitate anitzen auzia xuxen nola ebatzi. Horren frogatzat irakur daiteke, idazleak sumatzen duen poza Loiolako bidaiatik Iparraldera berriz bueltatzean Bidasoa igarota, nahiz eta Hegoalde abegitsuan bizi izandako une gogoangarriak ukatu ez[912].

Bada gogoeta bat Iparraldeko idazleen artean frantsesa izateari buruz, ez baitzegoen dena erabakia XX. mende hasiera hartan. Gogoeta hori urte haietan zabaldua zen, adibidez, Jean Barbierren *Piarres* eleberri *Beribilez*ek aipatuan:

> "Eta gero, Eskual-Herrian ez zen lehenago kontrabandarik, zeren ez zen muga-harririk. Zertako eman dituzte muga horiek Dantxariako edo Irungo zubieri hurbil? Eskualduna ez othe da berez bere ibili behar Eskual-Herri guziko mendietan? Gure lehenagoko zuzenetarik, hori bederen ez othe ginuen begiratu behar, hori bederen ez othe zaukuten utzi behar hego-aldetik edo iphar-aldetik guri nausitu erresumek?
>
> Ez naiz batere Frantses-Herritik zeiartu beharrez ari, ama, zeren maitexko dutan Frantses-Herri handia. Bainan, behin ere ez baitiot aiphatu, ongi jakin nahia nindake,

910 *B.* 28

911 Álvarez Junco, J. (2001). *Mater dolorosa. La idea de España en el siglo XIX*. Madrid. Taurus.

912 *B.* 95 orrialdean luzeago emana da ideia hori.

jaun erretorak zer othe dion hortaz? Kastillara batre gabe, eskualdun mendi guzietako zuzenen jabe Eskualduna! Hoi hoi loria, ama!

—Zure loria eta moria guziaz hirri egin lezake, ori, gure jaun erretorak. Ametsak ez du egundaino hazi gizonik, Piarres...”[913].

Badirudi Etxeparek bera bizi zela ezagutu zuela delako frantseste-prozesua, edo horrela ulertzen zaio adierazmoldeari kasu eginez gero: 1914ko gerla, modernitatea, industria-iraultza… mugarri sendoak izan daitezke prozesua azaltzeko gaurko begiekin. Baina aipatua da jadanik. Areago, ezustean harrapatzen du euskararen atzerakadak daraman abiada, bai Hegoaldean eta bai Iparraldean, *Beribilez*en irakur daitekeenez: hizkuntza-gatazka ikusten du herrietako izenak ele biz irarrita ikusten dituenean

“Nori ere gogoratu baitzaio eskuararen alderako atxikimendu-seinale hori, bigarren lerroan ezarria bada ere eskuarazko izena, eskerrak hari!

Bainan, laztu nu eskuararen eta erdararen arteko guduaren ikusteak, burdin-zatiño hartan”[914].

5.1.1.2. Historia burgesa

Kontuan har daiteke nolako eragile historikoak hartu dituen protagonistatzat Jean Etxeparek *Beribilez*en. *Beribilez*eko historia-pasarteen ardatza ez da erlijioa, ez eta monarkia ere, alegia, erresumak eta boterea funtsatu ahal zituzten instituzioak Erregimen Zaharrean, ohi zen bezala. *Beribilez*eko herriari batasuna ematen diotenak dira ohiturak, hizkuntza, zuzenak eta ondasunak, motibo nahiko sekularrak, burgesiaren aginpide berriaren garaikoak. Bestetik, burgesiaren hobespen ideologikoak agerian daude: protagonistak herritarrak dira eta beren kezkak, eta ez pertsonaia gorenak, mitikoak, edo idealizatuak. Demokrazia liberalaren bidean gaude. Pinturan ere antzeko ibilbidea gertatuko zen, pertsonaia sinboliko edo idealizatuak irudikatzetik igaroko baitzen paisaiak eta eguneroko eszenatokiak irudikatzera.

---

913 Jean Barbier (Ramon Sanchezen edizioa). *Piarres I.* (1992 [1926]). Euskal Editoreen Elkartea. “Ama semeak” ataletik.
914 *B.* 38

Etxeparek euskaldunen itsasoa du gogoan kontakizunaren pasarte esanguratsu batean, Gipuzkoako kostaldean zehar autoz bidaiatzean. Hor ere, Etxeparek Amerikako itsasoaren epika gogoan duenean, euskal marinel anonimoak ditu gogoan, eta ez Elkano, Txurruka, Urdaneta edo gisa horretako kapitan-pilotu ospetsurik. Marinelen itsasaldia izan daiteke alegoria bat, autozaleen arbaso migratzaileetan oinarritua, idazleak jasotzen duena[915]; azken finean, pioneroen araberakoa zen Etxepareren jatorrizko familia[916].

Itsas-gizonez gain, *Beribilez*en, narratzailearen arbasotzat ditu Nafarroa Garaiko lur-langileak ere:

> "zuen bizi xumearen atheratzeko, zer lanak ez dituzue hemen erabili, zer nekeak ez jasan eta zonbat mendez ez, ontasunarekin batean odola utzi daukuzuen arbaso maiteak!
>
> Orai niz garbiki ohartzen zer hazta daukan, eskualde hotako hizkuntzak dakarran "garesti" hitz sarkorrak…"[917].

Beste arbaso batzuk dira aurreko belaunaldietako langileak ere. Ikusi, adibidez, zein diren arbasoak Zestoako herrian:

> "Durduza batek hartzen gitu bizkitartean, karrika luzearen harateko buruan ikusten dugularik, bere eliza apalarekin, lehengo herri zaharra. Askitto zabal emaiten du; etxeen kantoinetako nola athe, leihoen inguruetako harri pikatu beltzaan dorpeek, pareta histuek begia jotzen daukute, beratzen bihotza. Hor bizi izan ziren orai bizi direnen arbasoak, langile antzetsuagoak bere heinean, hek, oraikoak baino. Sail berari jarraikiz, ara beretan thematuz, semeak aitaren eskuan bere eskua, zendako ez dute bada ondokoek arbasoen herria toki berean ederragotuz goititu, zendako bada ez lezakete oraino goiti?"[918]

---

915 *B.* 80

916 Jean Etxepareren umetako bizialdia Argentinan ezagutzeko: Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua.* Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf. [2017-03-20]

917 *B.* 19

918 *B.* 75

Arbasoak ez dira *Beribilez*en antzinatasun mitiko baten erakusgarriak. Adibidez, Frantzian galiarrak eta frankoak nahi zituzten erreibindikatu nazioari batasuna emateko (*nos ancêtres les gaulois* esamolde errepikatua). Beste eskualde batzuetan keltiarrak zituzten nahi arbaso gisa[919]: *Beribilez*en ez dago ezta lehen euskal gizonaren errebindikaziorik ere[920].

Kontrabandoa aipatuta ere, herritar xeheen baitan jartzen da arreta, esanez Euskal Herrian oso zabalduta dagoela ("Eskualdunik ez bide da, Gipuzkoan ere, kontrabandaz guti edo aski bizi ez denik"[921]).

Beste sail batean, *Beribilez*eko narratzaileak historiaren protagonistak gogoan dituenean ere, herri xehearen aldeko hobespena bada, historia burgesaren adierazpide, hala Errolanen nola Napoleonen ekintzak aipatzean. Fokua jartzen du gudalosteetako soldadu apalen baitan, agian, Jean Etxeparek soldadu gisa sufritu zuen Gerra Handiaren eraginagatik.

---

919 Thiesse, A. M. (2014). *La création des identités nationales. Europe (XVIIIe-XXe siècle).* Paris. Seuil.

920 Barandiaran, J. M. (1934). *Euskalerriko leen gizona*. Zarauz. Itxaropena. Berriagotan: (1985). *Lehen euskal gizona*. Donostia. Txertoa.

921 *B.* 51

5.1.2. Etxepare eta euskal batasuna

Defendatuko den hipotesia da Jean Etxeparek laguntzen duela euskal batasun baten alde egiten era batera idazketa lanarekin, alegia, eskualdearen batasuna bultzatzen duela.

Talde batek identitate-sinboloak, inklusio-mugak behar ditu, ez bakarrik etsaiak identifikatzea eta kanpokoei mugak ezartzea, jakina denez. Komunitate kohesiboak sortzeak errazten ditu komunitateok mobilizatzeko saioak, esan gabe doa. Eta Jean Etxeparek, oharkabe antzean bada ere, elementu kulturalak biltzen ditu, kolektibitateak identitate bat izateko: hizkuntza, janzkera, monumentuak, tradizio nazionalaren leku seinalatuak, ohiturak... Ez horiek bakarrik, paisaia ere oroigarri komunitario eta sinbolikoz josia agertzen da Jean Etxepareren begietan.

Nahiz eta Etxepare polikoki engaiatuta agertu ez, ezin ukatu idazlearen desmartxak badituela antzekotasunak garai hartan Frantziako idazle erregionalistek egiten zituzten eskualde-deskripzioekin, hau da, arlo folklorikoari arreta zabala eskainita: gastronomia, janzkera, herri-kirolak…

Oro har, XIX. mendeko nazioek batasun nahiko hauskorra zuten Europan: adibidez, Italia, Alemania, Espainia eta Frantzia heterogeneo samarrak ziren... Horretara, Espainian erregionalismoak oztopoak jartzen zizkion bateratze konstituzionalari[922]. Garai hartan, beraz, nazioak batzeko prozesuak abiatu zituzten elite intelektualek, eta prozedura jakin bati ekin zitzaion, hau da, tradizioa asmatzeari ekin zitzaion nazioa eratu nahi izan zuten lekuetan[923].

Estatua duten nazioetan, aldiz, lehenik mugak ezartzen dira, eta, ondotik, sentimendu aberkoia sortarazten da; nazio-eraikitze kulturala ez da lehentasun kronologikoa. Euskal Herria estaturik gabeko nazio estatu-nahia (*state-seeking nation*) izanik, nazionalismo kulturalaren bidea baino ez zaio geratzen, eta Jean Etxepare ere murgilduta dago garai-giro horretan; giro horretako seme, antzeko kezkak darabiltza, abertzalea ote zen igartzen ibili beharrik gabe.

---

922 Lorenzo Arza M. (2016). "La construcción de la nación asimétrica en los libros de viajes y cuadros de costumbre regionalistas". Academia.edu [2016-II-05]

923 Leoné, S. (2008). *Euskal Herri imajinario baten alde*. Elkar.

Jean Etxeparek ere zehazten ditu zein diren Euskal Herriari jazartzen zaizkion etsaiak, iragaitzez. Puntua garrantzitsua da, nazioa eraikitzeko ahaleginetan, kanpotarren irainak eta laidoak kontuan hartzen baitira normalean, behintzat estatu bila dabiltzan nazioetan. Jean Etxeparek ez ditu gogoko Karlomagnoren eta Napoleonen ibilerak, "moro higuina"[924] ez du gogoko; ez du gogoko euskal kostaldeko jendemodu turista handi-mandia[925].

Sentiberatasun nazionala akuilatzeko beste baliabide narratibo bat da salatzea nola jatorrizko biztanleek, beren xalotasunean, arrotzei utzi behar izan dizkieten tokiko ekonomiaren giderrak: José Alvarez Junco historialariak dakarren kasuan, espainiarrek[926]; *Beribilez*en kasuan, euskaldunek; historikoki, lehen euskal industria Bilbo inguruetan ingelesen eskutik abiatu zen Euskal Herrian. Horretara, *Beribilez*ek gipuzkoarrei opa die horrelako ondikoei aurre egitea, eta industrializazioa garatzea euskaldunen gidaritzapean[927].

Era berean, Lehen Mundu Gerraren sasoiko kazeta-artikulu batzuetan Jean Etxeparek Frantziaren kasuan ere fenomeno bera deskribatu zuen, ahalegin belikoaren ondorioz Frantzia kanpoko potentzia aliatuen mende geratzean: zorpetzea, etab. ("nundik halere gorde dezazuket komerzioko ala industriako giderrik hoberenak aspaldiskoan jadanik frantsesek galduak dituztela han beren faltaz!"[928]).

---

924 *B.* 14

925 Álvarez Junco, J. (2001*). Mater dolorosa. La idea de España en el siglo XIX*. Madrid. Taurus. *Mater Dolorosa*n espainiar nazioa nola eraikitzen den dakar. 190 or. eta hur.

926 Álvarez Junco, J. (2001). *Mater dolorosa. La idea de España en el siglo XIX*. Madrid. Taurus. 206 or.

927 *B.* 50

928 *B.* 72

5.1.3. Erregionalismoa auzo herrietan

Batzuetan, kanpotik pentsa daiteke Frantzia estatu jakobinoa eta zentralista izan dela atertu gabe 1789ko iraultzatik hona, baina Frantziako kulturan eta politikan ere joera erregionalistak izan dira arlo eta garai askotan, literatura salbuespena izan gabe.

Frantzian, literatura erregionalista luzaroan idatzi da, unean uneko gorabeherekin, askotan ildo politikoak egin diola itzala letren errepublikari. Alsaziarrek, bretoiek, okzitanoek eta beste batzuek hartzen izan dute eta hartzen dute gaur egun ere beren eskualde-literatura sortzeko eginkizuna[929].

Hexagonoko hainbat eskualdetan topa zitekeen Broussainen gurariaren antzekorik, norberaren herriko zer guztiei erreparatzekoa[930]. Interes horren fruitu gisa, Charles Nodier (1780-1844) erromantikoak hainbat bidaia-liburu argitaratu zituen 1820tik aurrera. Euskal Herriari dagokionez, Agustin Xahok (1811-1858) hurbiletik ezagutu zituen Charles Nodier eta beraren ideiak. Agustin Xaho lehenetarikoa izan zen euskal iruditeria erromantikoa osatzen, nahiz eta lehenago ere baziren euskaldunen irudiak izkribatzaileen artean, dena ez baitzen izan erromantikoen sorkaria kritikari espainiar batzuk horrela deklaratu arren, bide batez esanda[931].

Bidaia-gidak ugaritu egin ziren Frantzian XIX. mendearen hondarrean. Bidaia horien plegu erregionalista horren erakusgarria da turismo-gidek hartu zuten egitura berria: eskualdeak ardatz eta esparru gisa zituzten gidak boladan jarri ziren, Parisetiko tren-ibilbideak ardatz gisa zituzten gida zaharrak ordezkatuta. Aurreko gida zaharrek segitzen zioten Parisetik periferiara luzatzen ziren trenbide-lerro bakoitzari, argibide jakingarriak emateko bisitatu beharreko lekuez. Bestalde, automobila eta belozipedoa ugaritzen ari ziren, trena baino autonomoagoak baitziren[932].

---

929 Bertho-Lavenir, C. (1988). "La géographie symbolique des provinces. De la monarchie de juillet à l'entre-deux-guerres" in: Régionalismes. *Ethnologie française* 18(3).

930 *Beribilez*ko "Aitzin-solasa".

931 Azurmendi, J. (2002). "Hitzaurrea" in: Hugo, V. *Idi orgaren karranka:(Euskal Herrian gaindi, 1843)*. Donostia. Elkar.

932 Nora, P. (1984-1992). *Les Lieux de mémoire*, Paris. Gallimard 3 tomes : t. 1 *La République* (1 vol., 1984). Nordman, D. : « Les Guides-Joanne » atala.

Erregionalismoaren uhin berean, bidaia-literaturaz gain baziren beste kultur entitate batzuk ere Frantziako lurraldearen aniztasuna jorratzen ibiliak orduan[933], adibidez, jakintza-elkarteak (*sociétés savantes*). Etxepareren bizialdian ugaritu egin ziren nabarmen: 1862an 204 izanik, 1921ean 915 ziren[934]. Euskal Herrian ere XX. mende hasierakoak dira Euskaltzaleen Biltzarra, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia… ezagunenak baino ez aipatzearren.

Museoak ere ordukoak dira asko, adibidez, kulturaren beste esparru batean, Baionako Léon Bonnat pintura-museoa (1901), lekuan lekuko kultura-bultzadaren isla. Izan ere, esparru anitzetako museoak sortu ziren bertakoa ezagutzeko asmo horrekin: pinturakoak, naturalistak, etnografikoak, arkeologikoak, historikoak, eta abar, museoak baitira eskualdeko nor direnen memoriaren lantegiak, jakintza-elkarteekin batera Pariseko zentralismoari erantzun nahiaren emaitza. Euskal Museoa 1922koa dugu, Baionan. Eskualdeetako nor zirenek kontrola nahi zuten inguruko zeren gainean, erdiguneko gainbegiratze eskuhartzaile estuari izkina egin nahiz.

Literaturari dagokionez, Frantzian, Bigarren Mundu Gerra aurreko hiru hamarkadetan, loraldia izan zuen literatura erregionalistak. Hondarrean, Vichyko gobernuak instrumentalizatuko zuen erregionalismoa, eta onespena horrexegatik galduko zuen literatura erregionalistak, Pétain marexalaren erregimenak porrot egindakoan. Vichyk Henri Pourrat (1887-1959) idazle erregionalistaren figura bultzatuko zuen, adibidez[935]. Hari horretatik, Pétain mariskalaren erregionalismoak azalduko luke, hein batean, *Eskualduna* kolaborazionistekin lerratzea, eta, ondoren, kazetak itxi behar izatea aliatuek gerra irabazita. Bretainian ere fenomeno bera kausi liteke, baina horiek geroko kontuak dira, historikoki.

Funtsean, Jean Etxepareren gizarte-ikuspegia parametro erregionalista horien barnean koka daiteke, alegia, proiektu politiko bat, zeina periferiako burgesia txikiak eskualdeko testuinguruan mamitu nahi duen hiriburuko goi klaseen aurrez aurre. Gizakiaren egia

933 Bereziki 1870etik aurrera. Gasnier, Th. (1992). "Le local" in: Nora, P. (1984-1992). *Les Lieux de mémoire*, Paris. Gallimard 3 tomes : t. 3 *Les France* (3 vol., 1992). 3464 or. eta hur.

934 Gasnier, Th. (1992). "Le local" in: Nora, P. (1984-1992). *Les Lieux de mémoire,* Paris. Gallimard 3 tomes : t. 3 *Les France*. 3436 or. eta hur.

935 Thiesse, A. M. (1993). « La littérature régionaliste en France (1900-1940) ». *Tangence* 40. 61 or.

betierekoaren jabe sentitzen dira erregionalista guztiok, goi-burgesiak hiri nagusian daraman bizimodu arrotz eta sofistikatuarekin kritiko[936].

Erregionalismoa, Espainiako estatuan, kostunbrismoarekin lotuta agertuko da[937]. Kostunbrismoaren kasuan, argumentazio burges-txiki hori bera agertuko da Jose María Pereda idazle kantabriarrak egin zuen hitzaldian Erret Akademiako sartzean. Literatura kostunbrista espainiarra, eta Hegoaldekoa ere bai, hein handi batean Frantziako eskualde-literaturaren parekotzat jo daiteke. Bietan aurki dezakegu esentzien errebindikazio hori hiriburuko fribolitate eta sofistikazioaren kontra[938].

Euskal Herrian ere, literatura kostunbristak luzatuko du erromantizismoa. Ikusi egiten da eboluzio hori, adibidez, Txomin Agirreren (1864-1920) eleberrigintzan, zeina taxu erromantikoko eleberri historikotik (*Auñamendiko lorea,* 1898) igaro den eleberri kostunbristara (*Kresala,* 1905*; Garoa,* 1912).

936 Thiesse, A.-M. (1993). « La littérature régionaliste en France (1900-1940) ». *Tangence* 40.

937 Pereda, J. M. (1897). *Discursos leídos ante la real academia española en la recepción pública de*. Madrid. Viuda e hijos de Tello. Hor ematen da kostunbrismoaren karakterizazio bat Kantabriako, idazle kostunbrista baten eskutik.

938 Pereda, J. M. (1897). Discursos leídos ante la real academia española en la recepción pública de. Madrid. Viuda e hijos de Tello.

5.1.4. “La petite patrie dans la grande patrie”

Esan daiteke Frantziako Errepublika uzkur agertu dela azken hamarkadotan edozein mugimendu erregionalistaren aurrean. Ez du berretsi, adibidez, Europako Elkartean ia estatu denek sinatu eta berretsi duten hizkuntza txikiak sustatzeko karta (1992). Ukoaren azpian datza indibidualismoaren eta komunitarismoaren arteko tirabira, errepublika frantsesa komunitarismoaren aurka bermatzen dela, nahiz eta pentsamolde horiek bi biek liberaltzat eduki beren burua.

Badirudi filosofia komunitarista gauzatzeko zailtasuna dagoela Frantziako Errepubikan, gizartea zatitzen duelakoan. Ordea, ikuspegi komunitaristak egozten dio ikuspegi liberalari gizarte-atomismora eta hustasunera bideratzen duela pertsona, inongo talde-ezaugarririk ezin izanik. Badirudi gaur egungo gizarte indibidualistan gizakiak nonbaitekoa edo norbaiten artekoa izateko premia gorria duela, Etxeparek zioen bezala: “Hainbertze mintzaien artean, bere arbasoenak jotzen zaizkon beharriak nola bihotza gozokienik. Maitatu zituen hobeki bere herritar lagunak eta bere eskuara zaharra” [939].

Liberalismoak uste du gizabanakoari autonomia osoa bermatu behar diola estatuak, proiektuak askatasunez mamitu ahal ditzan. Komunitarismoak dio gizabanakoak hautaketa beti egiten duela komunitate jakin baten erreferenteen barnean, ezinbestean, gizabanakoa taldean bizi baita jaiotzen denetik. Liberalek egozten diote komunitarismoari ez errespetatzea gizabanakoaren askatasuna, behar bezala bizitza-proiektuak garatzeko, eta oztoporik gabe.

Liberalek nahi dute gizabanako guztiek askatasun formal bera legez izatea eduki zehatzik gabea, eta komunitaristek nahi dute, aldiz, gizabanako guztiek bizitza ona izatea (Aristotelesen *eudaimonia,* Alasdair MacIntyre komunitaristaren kasuan)[940].

---

939 Etchepare; J. (1927). “Eskualzaleen-biltzarreko hitzaldia” in: *Gure herria*. 7. urtea ; 344-352 or. 348 or.

940 Ikuspegi liberalen kritika in: MacIntyre, A. (2007). *After Virtue: A Study in Moral Theory.* Indiana. University of Notre Dame Press. Kymlicka, W. (1989). *Liberalism, Community and Culture.* New York. Oxford University Press. Kymlicka, W. (arg.). (1995). *The rights of minority cultures* Oxford. Oxford University Press.

Etxepareren ikuspegian Legeak garrantzia handia du[941], liberalen erara, greziarren irakatsiak (*paideia*[942]) aipatzen dituela, baina euskal ohiturak irautea ere bilatzen duela euskal nortasunak biziraun ahal izateko berme gisa, Euskaltzaleen Biltzarreko mintzaldietan sarri aldarrikatzen duen bezala 1920ko hamarkadan. Jean Etxepareren ustez *paideia* da pertsona-eraikuntza barnekoia, ahaztu gabe taldea eta inguruko lurraldea[943]. Beraz, liberalismo bat bilatzen du gizakia garatzeko elkartearen ekarpena baztertu gabe; ostera, ez da ahaztu behar gaur komunitaristatzat hartutako batzuek ere liberaltzat dutela beren burua.

Jean Etxeparek nahi zuen euskara bizirik irautea eta bestelako usadioek ere bai, euskararen presentzia eremu pribatura murriztu beharrean, estatu errepubikarrak egin duen bezala: beldur zen ohitura horiek desagertuko ote ziren. Hala ere, irakurleak uste balezake ere euskal munduaren ikuspegi museistiko huts baten aurrean murgiltzen gaituela Jean Etxeparek Euskaltzaleen Biltzarreko bere burulehen-adierazpenekin[944], ez luke ahaztu behar medikuaren grina bizi zen gizartea alderdi guztietatik hobetzekoa aurrerakuntzaren bidetik.

Gizarte-arau komun baten garrantzia azpimarratze horretan, bat datoz Jean Etxepare agnostikoaren aburuak zein Iparraldeko idazle erlijiosoek zituztenak:

> "Ez zaut iduritzen baditekela mundu huntan deus hanbat gizonaren bihotza hurbilagodanik hunkitzen duenik, nola baitira hiru gauza hauk: erligionea, sor-lekhua eta sor-lekhuko mintzairea. Are gehiago estekatzen da bakhotxa bere herriari eta herriko mintzaireari, mintzaire hura eta herri hura nehun ez bezalakoak direnean, nola baitira oroen arabera, Eskuara eta Eskual Herria. Zonbatenaz ez gehiago, herri hartan eta mintzaire hartan erroak barna eginak dituenean lur hunen gainean Jainkoak gizonari eman zezaken arbolarik ederrenak, erran nahi dut erlisionearen arbola?"[945].

---

941 *B.* 82

942 Jaeger, W. (1990 [1933]). *Paideia*. Madrid. FCE.

943 Komunitarismoaren kritika bat, paideiaren ikuspuntutik: Pageaux, D. –H. (2008). *Le séminaire de `Ain Chams.* Paris. L´Harmattan. 103 or.

944 Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. Donostia. Elkar/Euskaltzaleen Biltzarra. Hor bilduta daude 20. hamarkadako Jean Etxepareren mintzaldiak.

945 Hiriart Urruti, J. (1891-1914). "Biba eskuara!" in: *Gontzetarik jalgiaraziak* (1995) http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiriUrruGontze051.htm [2017-01-09]

Ikusten den bezala Jean Hiriart Urrutik aspalditik ikusten zuen arazoa non zegoen. Komunitatearen konpartamentalizazio antimoderno hermetikoa ezinezkoa izanik ere, gure artean urteak joan urteak etorri frogatu denez, badaude graduak. Komunitateen

arteko trukea egiterakoan neurritsu joka daiteke hizkuntzaz kanpoko zeretan, Jean Etxeparek ikusten zuen bezala: ohiturak, kode moral eta legalak, autogobernu-instituzioak, erlijioa, langintzak…

Hala ere, historikoki demostratu da konpartamentalizazio komunitarista hori bultzatu denean, bestelako arazoak sortu direla, honako aipu honetan irakur daitekeenez, adibidez, jarrera paternalista, eta argituen despotismoa: herriarentzat, herria gabe, "euskara "ogi-landaren inguruko hesia bezala", topos ezagunaren beste agerraldi batean nabari denez:

> "Eta hemen erran dezadan, hortakotz dute gazeta tzarrek nehun baino kalte gehiago egiten jende xehearen artean; zeren eta jende xeheak deus guti dakielakotz, ardura errexkiegi iresten baititu gazetan irakurtzen dituen guziak; egia ala gezur, trufa ala zinezko solas edo berri guziak; nahas-mahas; oro bardin xuxen eta zuzen balire bezala. Norat ere baitago gazeta, eskuin edo ezker, irakurtzale gaizoak oro hartarat buruz har eta onar. Hortarik heldu da, parte on bat, gutartean den bezanbat itsu eta gor baita.
>
> Xuxen mintzatzeko eta bertzen erranen xuxen entzuteko, eta gero ikusteko bakotxak bere begiz, non diren egia eta zuzena, ez da halakorik nola baita sor-lekuko mintzaire hura"[946].

Sorlekuko mintzairaz ari da, zeinaren bitartez talde hegemonikoak irakurlegoaren ulermenari zedarriak jarriko zizkion… Beraz, hizkuntzaren biziraupenerako berebizikoa ikusten zen mugak jartzea euskaldungoaren inguruan; haatik, arazoa izan zitekeen muga horien barnean nolako askatasunak ziren posible, gizarteko iritzi guztiek beren adierazpidea eduki zezaten murrizketarik gabe.

Deigarria da erlijioaren funtsa sakonki ez aipatzea *Beribilez*ek zuzenki, zeharbidez azaleko aspektu batzuk ukitzen baditu ere: artea, erlijiosoen janzkera, apaizgaien kopurua..., garai hartako idazleek erlijioa eta euskara aipatzen baitzituzten, uztartuta. Biak ziren erremintak

---

946 Hiriart-Urruti, J. (2004). "Mintza gaiten euskaraz" in: *Ni kazeta-egilea naiz*. *Artikulu, berri, istorio*. Bilbao. Labayru ikastegia/BBK fundazioa. 368 or.

herria joera berritzaile ustez arriskutsuetatik bakartzeko. Erlijioak euskara behar zuen Elizak bere tutoretza iraunarazteko, sarritan aipatu denez. Aipu ezaguna berritzeko, hona Jean Pierre Arbelbideren (1841-1904) hitzak, 1895ean:

> "Gure mintzaiak badu oraino bertze dohain eta probetxu bat.
>
> Nola hesi hazkarra ogi-landaren edo mahastiaren inguruan, hala-hala dago gure mintzaia Eskual-herriaren eremuetan. Sineste zuzen, bizimolde on eta gure ohitura zahar guziak zaintzen eta tieso atxikitzen ditu; bainan bazterretako gezurkeria, egite makhur, aztura arrotz eta gaxtoak urruntzen ditu.
>
> Gure Eskuarak dirudi ibaia eder eta aberats bat: ez darabila gutartean ur garbirik baizen; arimetarat hedatzen ditu irakaspen eta argi frango, bainan ez tzarrik, ezen, Jainkoari esker, liburu gaxtorik ez dugu gure Eskuaran, hoberenetarik dire guziak"[947].

Badira kalitatezko beste idazle batzuk ere, Arbelbidez gain, garai hartakoak: adibidez, Basile Joanategi (1837-1921) eta Jean Hiriart-Urruti (1859-1915), baina beti euskal identitate konfesionalaren ildo beretik[948].

Sinesteetan aparte egon arren, idazle erlijiosoak eta Jean Etxepare ados datoz kezkatuta egotean Euskal Herria jasaten ari den itxuraldaketa gero eta azkarragoa dela-eta.

Hor kokatzen da komunitarismoaren eta liberalismoaren arteko lehia. Etxepareren idazkietan ohiturak mantentzea garrantzitsua da[949], baina euskaldunak askatasunez hautatzea ere bai, tutoretza erlijioso esklusibotik haratago, aipatu denez. Komunitarismo erlijiosoaren izenean, izaera nagusia guztiei nahita ez inposatu zekien halabeharra paira zezaketen herritar minoritarioek, Jean Etxepare bezalako pentsalari independenteen kasuan gertatu zenez.

---

947 Arbelbide, J. P. (1895). *Igandea edo Jaunaren eguna meza-bezperen othoitzekin*. San Augustinene Elkartasunerako, Desclée de Brouwer eta hekien lagunen moldizteguian. "Aitzin solasak" atalean kausi liteke aipua.

948 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 180 or. Jon Casenavek identitatearen gaia landu du pasarte horretan.

949 Etxepare, J. (1984). "Baigorriko bilkuran (1923) buruzagi lehenaren mintzaldia" in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar. 76 or.

Kultura gutxituan bizitzeko eskubidea aldarrika daiteke, nahiz eta gizabanakoari garatzeko aukerak errespetatu behar zaizkion[950]. Horretarako, barne-zatiketaren beldurra gainditu beharko lukete estatuek, eta onartu herritarren ongizaterako plus bat izan daitekeela komunitate-eskubideak errespetatzea.

Idazle honen hautuak hain nabarrak izanagatik ere eta anakronian jaustea zilegi balitz, Jean Etxepare izenda daiteke *liberal komunitaristat*zat gaurko filosofia kulturalaren barnean, ahaztu gabe izendapenak berarekin dakartzala hainbat eztabaida erabaki gabe pili-pilean daudenak[951]. Multikulturalismoaren markoan koka gaitezke, horrenbestez, adierazteko XX. mendeko gizarte bipolarizatu hartan Jean Etxeparek mantendu zuen oreka zaila, erlijio-komunitarismoaren eta estatalismo liberal errepublikazalearen artean, nahiz eta errepublikazaletasun frantsesa filosofia politikoaren ikuspegitik ulertzea beste haritz bateko ezpala litzatekeen, azkar batean esanda.

Jean Etxeparek tolerantzia aldarrikatu zuen, iritzien truke librea ahalbidetzeko, idazlearen goragoko aipuan bezala, non tolerantzia definitzen duen Jainkoa ulertzeko manera desberdinak gogoan[952]. Idazlearen kezka errepikakorra da desberdinen arteko adostasun puntu hori, adibidez, Jean Etxeparek Piarres Lafitterekin dituen gutun-harremanetan: euskalduntasuna elkar aditzeko lagungarria bada ere, bestelako aburuak ez dira horregatik baztertu behar Jean Etxepareren filosofian:

> "Adierazi dautazun arren etzirela iduripen bereko, berdin zure lagun on gelditzen niz, eskuararen alde"[953].

---

950 Ikusi komunitaristen lanak, esaterako, Will Kymlicka eta Alasdair McIntyre-ren lanak, besteak beste.

951 Kymlicka, W. (2014). "The essentialist critique of multiculturalism: Theories, policies, ethos". *Ethos (May 2014). Robert Schuman Centre for Advanced Studies Research Paper No. RSCAS, 59.*

952 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 601 or. Piarres Lafitteri gutunean idatzia 1931n.

953 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 1931-XII-10eko gutuna.

“Ageri zait zuk eta nik gauza horiek eta bertze asko ez ditugula ikusten begi beraz. Ez da makurrik halere. Goazin bakotcha gure sailari, egin dezakeguna egin fede onez”[954].

“Zurekin bethi, elgar adi gitazkenetan”[955].

954 Xarriton, P. (1991b). “Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)”. in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 1931-XII-27ko gutuna.

955 Xarriton, P. (1991b). “Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)”. in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 1931ko hazilaren 7ko gutuna.

5.1.5. Filia eta paneuskaltasuna

Iruditeriaren hiru mota posibleak zehazten ditu Daniel-Henri Pageauxren imagologiak teorikoki, testuak Besteari buruz islatzen duen jarrera nolakoa den:

> "Manies, phobies, philies constituent de manière claire, stable et permanente les manifestations les plus nettes d´une interpretation de l´étranger, d´une lecture de l´Autre. Elles constituent des attitudes fondamentales qui peuvent éclairer, à l´intérieur d´un texte ou dans un ensemble culturel, les choix, les préferences, les rejets, les principes mêmes du choix idéologique que suppose toute représentation de l´Autre"[956].

Beribilez da filia baten erakusgarria. Hegoaldeko Bestea da Iparraldearen osagarria, aipatzen diren zeretan: errepideen kalitatea, langileen bizitza-maila, polizien gizabidea, ostatuen garbitasuna, produktuen kalitatea (sagardoa, elikagaiak, eta oro har), arkitekturaren bikaintasuna, ikuskizun naturalen edertasuna, zeruko argiaren nolakotasuna, nekazaritzaren garapen teknikoa… Jean Etxepare bidaian ikusitakoetatik ikasteko prest dago, aurreiritzirik gabe. Horregatik, badaki, aldi berean, onartzen noiz den hobea Iparraldeko eta Frantziako edozein gauza Hegoaldeko bestelako baten aldean. Alde horretatik, bi Euskal Herrien elkarrekiko onura bilatzen du.

Bigarren plano batean, paneuskaltasunari buruzko galdera ere badago, alegia, bi Euskal Herriek batasuna osatzen dutelako zalantza edo galdera, edota osatu beharko luketelakoa. Aztertu dugun identitatearen puntu honetan, idazleak nortasun eklektiko baten alde egiten du, onartuz bere bi identitateak: euskalduna eta frantsesa.

Hala ere, gogoan ditu Etxeparek elementu komunak bi Euskal Herrietan: kontrabandoa, nabartar odola, hizkuntza, dantza-ohiturak… badu batasun sentimendu bat.

Iparraldean, Hegoaldearekiko interesa ez zen bakarrik Jean Etxepareren burutakizuna; adibidez, 1931ko Euskal Estatutua frantsesera itzulita publikatu zuen *Gure Herria* aldizkariak[957].

---

956 Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: P. Brunel eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée.* PUF. Paris.

957 *Auñamendi Entziklopedia*. "Laburdi" sarrera. 344 or.

Badugu, Iparraldean bertan, fobia nagusitzearen adibidea Hegoaldeari buruzko iruditerian, euskal sektore batzuetan. *Beribilez* agertu eta urte gutxira, Espainian gerra piztean 1936an, ikusiko da nola taxutu zuten Iparraldeko sektore batzuek Hegoaldeari buruz zuten iruditeria. Hegoaldeko errefuxiatuak onartuak ziren ala ez Iparraldean, sektore ideologikoen arabera. Piarres Lafittek eta bere laguntza-sareak abegi ona egin bazieten ere, *Eskualduna* kazetaren inguruko (Ibarnegarai ahalduna bereziki…) sektore kontserbatzaileagoek ez zituzten begi onez ikusi, Frankoren "gurutzadak" asmo kristau positiboa zuelakoan. Beraz, agerian dago iruditeriaren alderdi ideologikoak nolako ondorioak dauzkan mementoko politika-jokabideetan[958], eta, alderantziz, elkarreragina baita bi kontuon artean. Baina filia zena fobia bilakatzea *Beribilez* eta geroko kontuak dira, nahiz eta kronologikoki hurbilak izan. Jean Etxepare 1935 hil zen, ez dugu jakiterik zein izango zen beraren jarrera auzi hauetaz: badakigu bihotzez bakezalea zela, 14ko gudu negargarria soldadu gisa ezagutua.

Beste gai komun bat da turismoa, Bidasoaren bi aldeetan. Horretan, Jean Etxepare Hegoaldean ikus dezakeenari adi dago. Aipatu den Donostia berriaren izaera kosmopolita eta friboloa arbuiatzeari buruz, esan daiteke Jean Etxeparek ez duela turismoa ukatzen osotasunean. Jean Etxeparek turismoaren kalitateaz ohartun da, eta badaki zer baldintzatan izan behar duten egiturek turismoa sustatzeko:

> "Espainiako olioa berez-bere ona da, hoberenetarik; urrinari gizonki edozoin jarria zaioke zortzi egunik barne. Bertzerik da garbitasun-eskasa: huntaz etzuten den-gutieneko axolarik hemen-gaindi, lehen. Mahain-gainak okaztagarriak zituzten, jatekoak hautak zituztelarik eta gogaindigarriki nasaiak. Ez niz, bertzeak bertze, orhoit janik nihun eskualde hotan bezalako saltsa onik. Ikasi duketela garbitasuna geroztik hunat, ez dut bizkitartean dudarik. Lurraren ipar-aldeko atzerritar hanitz baitzabilkion ikuskari, diot ahoan bilorik gabe Lapurdi aitzinatuago izan dela bethi garbitasunean"[959].

Beraz, filia da *Beribilez*ek adierazten duen iruditeria, definitua izan den bezalakoxea. Ez da iruditeria hori, Hegoaldearekiko neurri gabeko miresmen akritikoa, alegia, *mania* deitzen duena Daniel-Henri Pageauxk.

---

958 Ortiz de Pinedo, A. (2011). *Euskal literatura Gernika aldizkari liberalean: 1945-53*. Amorebieta. Erroteta https://addi.ehu.es/handle/10810/16796 [2016-11-01]. 24-25 or.

959 *B.* 29

Etxeparek adieraziko ditu noiz hobespenak noiz gaitzespenak bideko elementuei buruz; batzuetan Hegoaldean ikusi dituen elementuak goraipatzen baditu (Gipuzkoako sarbidea…), beste batzuetan ez horrenbeste (adibidez, ostatuak); aldiz, inoiz ateratzen da Frantziako elementuen alde (arkitektura gotikoa), eta baita Espainiako zeren alde ere (olioa…). Beraz, ikuspegi autonomo eta kritiko samarra du, iritzia ematerakoan distantziak hartzen dakiena objektibitate baten atzetik.

Askotan, aldiz, Bestearen bila joatea izan daiteke ihesbidea, alegia, norberak bizitokian faltan duenaren atzetik abiatzea, liberazio bat ohikeriaren kontra:

> "Se parte para cambiar, renovarse: uno se aleja de sus propias costumbres para que muera una parte de sí y al mismo tiempo para permitir que nazca una nueva"[960].

Bidaia *Beribilez*en da lekualdatze bat, arnasberritzea, itogarria izan daitekeen gizarte bati aurre egiteko beste modu bat; ezagunak dira idazleak zituen desadostasunak inguru monolitiko harekin, eta bere buruari jarri behar zion autozentsura *egia* izendatzen zuenaren kausaz:

> "Aire onak bizkortzen ez othe dauzkigunentz ere gure beribilak? Erasia gogorrean lotu zaizkigu, behinik behin, bideari. Motorren joite azkarrak indartzen gitu guziak. Bagoazi gaztetuak hamar urthez, dena begi, dena beharri, gogoa arin. Etxeaz, ez gure egitekoez, ez herritarrez, ez ahaideez, ez gira gehiago orhoit. Bertze kezkarik deus ez dugu buruan, Loiolaren ikustea baizik"[961].

Idazlea abiatzen da Hegoaldeko probintzietara askatasun bila. Bidaian zehar agertzen da Iparraldeko eta Hegoaldeko nortasun bien kinka. Mediku euskaltzaleak ez daki oso ondo zeren bila doan, baina present du espirituan euskal nortasuna jokoan dagoela. Joko horretan idazleak duda-mudak ditu, nabaritzen baitzaio izaera bat definitzeko premia, hala frantsestasunaz nola euskaltasunaz, bidaia sufrikarioa ere izan baitaiteke bilaketa horretan[962].

---

960 Domenico Nucera "Los viajes y la literatura" in: Armando Gnisci (arg.). (2002). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 251 or.

961 *B.* 7

962 Domenico Nucera "Los viajes y la literatura" in: Armando Gnisci (arg.). (2002). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 249 or.

"Ez dira ere ixtorio gose, ene mahain-lagun maiteak. Geroago bakanago emaiten dautet elhe. Bitartean, ni, ororen gidaria, ene kontzientzia azterzearekin ohartzen niz zoin erho izan naizen eta izan giren oro, egun. Urriki handi batekin, eta huts beretan berriz ez erortzeko xedearekin, egiten diotet aithormena. (…)

Zonbat goxoago ere ez litazke holako harat-hunatak, mendiez haraindiko gure haurride zonbaitekin egiten baginu ezagutza, hek ordainez gure ikustera ethortzekotan noizean-behin"[963].

Idazleak identitate berri baten printzak antzematen ditu Bidasoaren bi aldeetako euskaldunak zubiak eraikita, elkarrekikotasun baten barnean:

"la partida como abandono de lo viejo para buscar una nueva identidad es una metáfora frecuente de la literatura, y no sólo de la estrictamente hodopórica"[964].

Ikusiko dugu, bidaiaren aitzakiarekin, Jean Etxeparek jatorrizko Kanbon egin ez zitzakeen gogoetak egiteko aukera baliatzen duela *Beribilez*en. Kontuan izanik idazlearen pentsamolde librepentsalaria, espero izatekoa da bidaia izatea ihes-balbula baten gisakoa, sentitutako iritziak kanporatuta kontakizun batean.

Nortasun "berri" horren isla da, gure ustez, egiari hurbiltzeko idazleak duen modu karakteristikoa. Nabari da Jean Etxeparek prozedura maieutikoaren antzeko zerbaiten bitartez egiaren alderdiak agertzeko aukera baliatzen duela, honako hauetan, bederen: jesuiten kritikaren kasuan, frantsestasunaren kritikaren kasuan, Donostiako hazkundearen kritikaren kasuan, sineskeriaren kritikaren kasuan (herri-sineskeriak). Idazleak iritzi kontrajarriak adierazteko askatasuna hartuko du, nahiz eta iritziok politikoki zuzenak ez izan. Batzuetan bigarren mailako pertsonaiak erabiliko ditu; beste batzuetan zuzenean jardungo du: hala ere, bidaiak ematen dio pentsamendua trabarik gabe idatziz jasotzeko askatasuna handixeagoa, baliatuta Hegoaldeaz ari delako estakurua. Heterodoxia horretaz zerbait sumatu zuten Luis

963 *B.* 97

964 Domenico Nucera "Los viajes y la literatura" in: Armando Gnisci (arg.). (2002). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 248 or.

Villasantek eta Piarres Lafittek kritikari erlijiosoek liburuaren kritika ideologikoa egin zutenean, idazlearen bizi-giroari buruzko atalean azaldu den bezala.

> "viajar es un acto potencialmente subversivo: todo viaje no puede ser otra cosa que la negación de la anterior visión del mundo y de su geografía física y humana"[965].

Guztiarekin ere, Jean Etxepareren bidaia programa jakin bati jarraitzen zaio aukeratzen dituen itemetan, eta, maiz, item horiek jasotzen duten trataeran. Horrek ez du kentzen tonu askatasun aipagarria pasarte polemista batzuetan. Esan al liteke Etxepare polemista delarik, polemikoa ez duela izan nahi? Polemikoa ote zen beste kontu bat da.

Ur Apalategiren artikulu baten oihartzuna eginez, aipa daiteke Jean Etxeparek Euskal Herriarekin nolako harremanak dituen, irudikatuko bagenu lurraldea subjektu erromanesko gisa[966]. Ezin ahaztu *Beribilez* ez dela fikzio-lana, baina esan daiteke Euskal Herriaren irudikapenean nagusia dela harreman afektibo positibo bat memento gozoak ez dituena ahazten, nahiz eta zenbaitetan desadostasunak saihestezinak izan. Alde batera, liburuko aitzin solasean aipatzen den bezala, Piarres Broussainen erara. Ezin ahaztu, gainera, abuztu erdialdeko bidaia dela, oporretakoa, nahiz eta arazo serioak ere ukitzen dituen.

---

965 Domenico Nucera "Los viajes y la literatura" in: Armando Gnisci (arg.). (2002). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 253 or.

966 Apalategi, U. (2013). "Euskal subjektuaren bilakaera erromaneskoa: desberdintze estrategiaren eta homologazio nahiaren arteko negoziaketa literario-ideologikoak". *452ºF: revista de teoría de la literatura y literatura comparada* (9), 56-77.

5.2. Euskararen gene errezesiboa

Euskaltzaleen Biltzarra zen euskara bultzatzeko elkartea, Iparraldea helburu sortua XX. mendeko lehen urteetan[967]. Jean Etxepare Euskaltzaleen Biltzarreko burulehena izan zen *Beribilez* argitaratu aurreko hamarkadan. Biltzarrari bultzada ederra eman zion, elkartearen ekimenak biderkatu egin baitzituen. Idazlearen kezka nagusia izan zen hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa, *avant la lettre,* hizkuntzaren hala corpus, nola status plangintzan saiakerak egin baitzituen: euskara eginkizun jasoetarako gaitu nahi izan zuen estilo landuaren bitartez, eta hizkuntzaren zabalkundearen alde egin zuen, idazle gazteen sariketen eta bestelako hainbat ekimenen bitartez.

Hori dela eta, ez dugu baztertuko errepaso soziolinguistikoa egitea *Beribilez* ikertzean, euskararen gainean ematen dituen ikuspegiak jasota ideario baten erakusgarri. Horretara, ez dugu gehiegikeriatzat jotzen esatea Jean Etxepare eragile euskaltzalea izan zela, zituen burubide intelektualek ez baitzioten galarazten gizarte-ekintza euskaltzaleari oratzea, aitzitik, Jon Casenavek tesian maisuki erakutsi duen bezala.

5.2.1. Gizarte-kohesioa

Garrantzitsua da hizkuntza batek sortzen dituen gizarte-sareen ehuna, ez da, beraz, harritzekoa euskararen sare horretan Jean Etxeparek lagun euskaltzaleak izatea. Loiolako Santutegiaren bisitan, euskarak erraztu zizkion harremanak aspaldiko bisita batean ezagututako

967 Euskaltzaleen Biltzarreko kritika zorrotz bat in: Goyhenetche, M. (1974). *L'oppression culturelle française au Pays Basque*. ELKAR.

apaiz batekin; apaiz "soin gabe"-arekin dituen harremanok ez dira irudimen literarioaren esparrukoak baino, gertakari errealetatik urrun. Susmoa dugu apezñoa Piarres Lafitte Etxepareren lagunaren errainu bat ote den.

> "Han, ezkaratz-barneko athe hartan, ene lehenbiziko ikustaldian zitzaitan bada agertu apez-jauntziarekilako gizon ttipi gaztesko bat, Jesuita batendako hartu nuena. Eskuaraz galdegin nion jauregiaren ikuskatzeko baimena; eskuaraz zaundan erantzun. Trebe jarri ginen ordu-beretik elgarrentzat. Guti haztatu dut ene bizian harena bezalako lañotasunik; eskualdun aneia batena zen, gainera gizon handizki argitu batena, fedezko khar ezti batek berotzen zuena eta sarkortzen orozbat"[968].

Hiztegi Batuak honela dakar **lañotasun** hitzaren adiera bat: "iz. Lañoa denaren nolakotasuna. Ik. **tolesgabetasun**. *Lañotasunez mintzatuz. Bihotz guztiak betetzen ditu bere lañotasunaz*".

Esan dezagun zergatik Lafitteren irudikoa begitandu zaigun Loiolako apeza. Gorpuzkeraz, apezñoa bezala Lafitte ere ez da oso garaia, eta bai, aldi beran, Etxepare baino gazteagoa. Bien artean dituzten solasen gaiak ere bat datoz errealitatean eta *Beribilez*en, adibidez, adimenaren eta bertutearen arteko lehiarena, Jean Etxepareren polemika-gai kutunetatik bat ("[apezñoak] gizon handizki argitu baten [lañotasuna zuen], fedezko khar ezti batek berotzen zuena" [gure azpimarrak]), beste atal batean aipatu denez.

Esan behar da Jean Etxepareren eta Piarres Lafitteren harremana paradigmatikotzat jo daitekeela euskal idazleen artean, euskara baita iritzi kontrajarriko eragile biok elkartzeko lekeda, dituzten ezberdintasun ideologikoen gainetik. Izan ere, *Beribilez*eko narratzaileak desadostasunak ditu apezñoarekin, Ignazio baitan fedearen garra nagusia ote den eztabaida horretan. Apezñoa baiezkoan dago; Jean Etxepare, ezezkoan; hala ere, ez da makurrik bion artean:

> "Ez da gutiago egia, diot ixil-ixila ihardesten, Ignaziok nahi ukan zuela bere lagunek eta ondokoek gazteriari erakats zitzaten, ez bakarrik Elizaren erakaspenak, bainan oraino zuzenki eta ontsa bizitzeko behar diren jakitate mota guziak. Ez balitu

968 *B.* 57

berak jastatu bederen ukan, nundik zukeen bere laguner hainbertze arthamendatu erakats zitzaten?

Atheratzen gira adixkide halere sakristiatik, biak”[969].

Elkarren arteko abegi onaren ispilua da bi euskal idazle hauen harremana. Abegi on horren abaroan izan zuten posible jarrera kontrajarriak aztertu ahal izatea. Jean Etxeparek sofritua zuen euskararen komunitateak hiztun bakoitzari ezarri nahi zion uztarri ideologiko uniformizatzaile itogarria. Pierres Lafitteren eta Jean Etxepareren harreman intelektuala eredugarria da, irekitasunaren eta ideia arrotzei sarrera egiteko jokabide baten erakusgarria. Jean Etxepareren lorpena da euskal komunitatea anitzagoa bihurtzea, eta tolerantzia ideologikoaren kausa bultzatzea, adibidez, Jainkoaz ari dela:

“Guhau barne, bethi egiten eta desegiten ari den Izaite bat ikusten dut nik, bertzerik deus ez. Hogoi-ta-hamazazpi urthe badu bermatzen nizala, eskualde guzietarik, nahiz jakin Izaite hori zer den bere baitan. Eta lehenbiziko egunean bezain zozo niz.

Izaite horren mamiaz argi gehiago badutela uste dutenak, hala nola bigarren Izaite bat gainera ikusten dutenak, hunen mamirat bertzearenerat baino gehiago sartu gabe, batzu ala bertzeak uzten ohi ditut bere alde -inguruka, azpiz edo oldarrez lotzen etzaizkitanean. Sineste guzier, zinezkoak direlarik, begitarte on egiten dut”[970].

Jainkoaren inguruko eztabaida zegoen laikotasunaren eta konfesionaltasunaren arteko tirabiren erdian, Frantziako historiaren une gori haietan, non estatua eta Eliza elkarri mokoka zebiltzan. Aipagarria da, era berean, Jean Etxeparek bizitzan zehar izan zuen egiaren aldeko ausardia, euskaraz bizi zen komunitatea inarrosteko beste kuraia izan baitzuen:

“Le courage est ici un courage de déplaire, de décevoir l´attente de l´autre, ou du moins de démentir, au nom de la vérité, ce que les autres attendent de notre personnage. Autant le lâche se montre soucieux, en comblant cette attente, de confirmer les

969 *B.* 66

970 Xarriton, P. (1991b). “Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)”. in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 601 or.

croyances du groupe à son propre sujet, autant le courageux dédaigne son propre confort: il aime à faire mentir sa définition et ne se laisse laisse pas coincer dans les rôles commodes et dans la caractérologie conventionnelle que sa classe lui prépare ; il renonce volontairement à l´estime publique, il veut ennuyer les femmes du monde, il choque quand il pourrait charmer" [971].

Jean Etxeparek bere erosotasuna sakrifikatu zuen egiaren bilaketaren izenean, egia bilatzea izan baitzuen idazleak bizitza osoko eginkizuna, eta *Beribilez*en ere bai, Lafitteri honela zuzentzen zaiola:

> "[*Beribilez*ek] Eskas du gaztetasuneko sua; ez haatik, uste zinuken bezala, egiaren aldeko amodio bizia, nahiz ez dutan lehen bezain bizi agertzen achalerat, ohartua bainiz ez duela hanbat balio agertzeak"[972].

Hortaz, Jean Etxepare euskarazko kulturaren monolitismoa apurtzera etorriko zen, beti ere garai hartako parametroen barnean. *Parresia*rena da Jean Etxeparek planteatzen duen koska, alegia, ea batzuetan egia esatea merezi duen Antzinateko zinikoen erara, zeinek gizarteko konbentzio guztiak hausten baitzituzten, egia filosofikoaren izenean. Horrek eskatzen du idazlea boteretsuak zein irakurleak lausengatzetik urrun egotea, irakurlearen gidaria den heinean. Michel Foucaultek bizitzaren azken lanetan aztertu du luzaz parresiaren kontzeptu hori, intelektualak gizartean izan behar duen eginkizuna definitzen saiatzen dela.

Gorago aipatu den bezala, apezñoa ere mintzo zitzaion narratzaileari lañotasunez. Euskarak posible egiten duen anaitasunaren markoan posiblea da bihotz-irekitasuna, adimen irekitasuna, etab.[973], hau da, Sokratesek irudikatzen duen filosofiaren praktika: parresia. Parresiaren helburua zen egia desestaltzea ikasle/irakurlearen onura gogoan. Gogora dezagun Sokrates pozoituta bere buruaz beste egitera kondenatu zutela orduko agintari greziarrek, gazteak moralki alferrik galtzera zeramatzalakoan.

---

971 Jankélévitch, V. (1986). *Les vertus et l'amour*. Flammarion. 131 or.

972 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 1931ko urriaren 27ko gutunetik. 600 or.

973 Foucault, M. (2001). *L'hermeneutique du sujet: cours au Collège de France, 1981-1982*. Gallimard. 164 or. 348 or. Parresia Senekak karakterizatua dago 386 or. eta hur.

Euskararen mundu homogeneizatu horregatik ere, idazle honentzat garrantzitsua da euskarak duen ahal kohesibo atsegina, adibidez, Ignazioren etxeko sukaldean euskaraz idazki bat aurkitzean:

> "Mailak tarrapatan behereraino jautsi gabe, baratzen niz ezkaratzari so.
>
> Bat-batean paretan thindatu hitz batzuek jotzen dauzkitet begiak: eskuaraz dute jakinarazten hau dela San Ignazioren sor-etxea. Eta atsegin zait, atsegin handi, eskuaraz baitira. Doidoi, etxearen erakuslea eskuaraz mintzatu izan balitzaiku eskualduner, atzerritarrentzat idukiz erdara, orhoitzapen hobea baizik ez ginuken beiratu, hemen iragan minuta ezin-ahantzizkoez"[974].

Kohesioa sortzeaz gain, euskara atsegina da, eta oroitzapen onen iturria. Bestalde, idazleak aipatzen du euskarak premiazkoa duen konpartamentalizazioa, edozein hizkuntza txikik bezala[975]. Joshua Fishmanen soziolinguistaren ustez, hizkuntza gutxituek harremanak doitu, neurtu eta pisatu egin behar dituzte kanpoko hizkuntza-eragile anitzen aurrean. Garrantzitsua da hizkuntzaren barneko harremanei eustea, hizkuntza komunitateaz kanpoko gizartearekiko harreman araugabeek hizkuntza gutxituaren biziraupena kolokan jar baitezakete. Horrela jokatu dute, urrutiago joan gabe, Quebecen frankofonoek anglofonoekiko.

Konpartamentalizazio autobabeslearen gaia behin eta berriz agertzen da, Jean Etxepare Euskaltzaleen burulehen zela ondu zituen hitzaldietan 1920ko hamarkadan. Euskaldungoaren barne-kohesioan hizkuntza muntakoa izanik ere, ez ditu gutxiago prezatzen orduko euskal kulturaren bestelako osagaiak: pilota-jokoa, etxe-arkitektura, altzariak, jantziak… Aukera positiboa dagoenean, pozgarria zaio Euskaltzaleen Biltzarreko burulehenari euskal herriak (kasu honetan, Baigorri[976]) ez kanbiatu izana eta lehenean irautea urtez urte ("Nola zelaiko laborantza, nola mendietako hazkuntza, halaber karrikako bizitzia gelditu da berdintsu").

---

974 *B.* 67

975 Fishman, J. (2000). "Business as usual for threatened languages? (On planning economic benefits for the greater benefits of reversing language shift, or "keeping your eyes on the ball")". *He Pukenga Kōrero*, 5(2), 15-20.

976 "Baigorriko bilkuran (1923) buruzagi lehenaren mintzaldia" in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar. 74 or.

Haatik, Jean Etxeparek ikusten du bizitza tradizionala era berrietara moldatzeko premia, eta kontraesankorra eman dezake. Konturatzen da, adibidez, antzerkiak jendea erakartzen duela eta badoala ikustera ("Beha nola doan jende xehia trumilka hirirat, teatre arrotzetarat"[977]). Euskaltzaleen Biltzarreko burulehenak proposatzen du antzerkia bultzatzea, pilotaz eta musaz gain, euskal jendeak bestelakorik eskatzen duelakoan: "Gure ohituretan sar dezagula teatria ere, eskuarazko teatria"[978].

Aldeak alde, orduko kinka bera du gaurko euskaldunak gizarte ekonoteknologiko honetan. Hizkuntza txikiek globalizazioaren sasoian ezin ireki ditzakete ateak parez pare ezer ez balitz bezala, hondamendia bailitzateke. Hari horretatik, AEBn bada Amish izeneko erlijio-talde aleman-hiztuna, zeinak kanpokoekiko harremanak zorrotz ebaluatzen dituen, bere hizkuntza eta ohiturak ez galtzearren ingeles-itsasoko ur handietan.

Beharrezkoa da, era berean, euskarak funtzio batzuei eustea, nahiz eta beste esparru batzuetan hizkuntza handiei lekua aitortu behar. Horrek dakarkie hizkuntzei konpartamentalizatzeko premia. Joshua Fishmanek proposatuta, beste danbor-jole bati jarraitu beharko gintzaizkioke, ohiko negozio-bideak baztertuta, ekonomiaren arlo erabakigarriari gagozkionean[979]. Ohituta baikaude *business as usual* ingeleseko erranairuaren arabera jokatzen, alegia, ekonomiaren betiko moduan jokatzen, hizkuntzarekin ezer gertatuko ez balitz bezala. Ostera, beste kuku batek joko liguke, dirudienez, beste danbor-jole bati jarraituko bagintzaizkio, hizkuntzaren atzerakadari buelta emateko.

Jean Etxepare saiatu zen aurrerakuntzaren aho biko ezpata horrekin lehiatzen. "Olerkia" deitu zion indar ekonomikoen eraginkortasun ahalguztidunari itzuri egiteko sinboloari. Olerkiaren izaera dela eta, Joshua Fishmanek dio hizkuntza gutxituko gizakien kasuan nortasun konplexuagoa sortuko litzatekeela, nortasun eleanitza, aberatsa kulturaren alorrean (literatura, artea, musika), hori bai, ahaztu gabe nortasun globala ere aberatsa izan daitekeela.

---

977 "Baigorriko bilkuran (1923) buruzagi lehenaren mintzaldia" in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar. 80 or.

978 "Baigorriko bilkuran (1923) buruzagi lehenaren mintzaldia" in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar. 80 or.

979 Fishman, J. (2000). "Business as usual for threatened languages?(On planning economic benefits for the greater benefits of reversing language shift, or "keeping your eyes on the ball")". *He Pukenga Kōrero*, 5(2), 15-20.

Asmoa du ez izatea, ez hizkuntza-deterministak, ez eta ekonomia-deterministak, baizik eta, hor nonbait, bi muturren arteko orekan aritzea. Ikusi beharko non ezarri mugarriak.

Joshua Fishmanek dio hizkuntza biziberritzeko eta, aldi berean, ekonomia garatzeko saioan ezinbestekoa dela autodiziplina gizaki helduen sailean, eta haurrak arduraz arteztea, ordaindu beharreko bide-sari gisa.

Komunitate gutxituak osatuko luke *Gemeinschaft* gisakoa, hau da, aurrez aurreko eta tokiko harremanak bultzatuko lituzkeena, komunitate ahaidetasunean oinarritua. Badira horrelako planteamendu komunitaristak onartzeko arazoak Hexagonoan, aipatu denez.

Hizkuntzaren biziraupena dela-eta, Jean Etxeparek ez ditu ahantziko Lehen Mundu Gerrako mobilizazioaren ondorioak Euskal Herrian. Ezaguna da Lehen Mundu Gerrak nola bultzatu zuen Frantziako populazioaren kohesioa areagotzea, euskal nortasunari iraun ahal izatea zailduta. Frantsesa hedatu zen soldaduen artean, higikortasun geografikoak ekarri baitzuen eskualde-hizkuntza ezberdinekoen arteko harremana frantsesaren hegalpean[980].

Jean Etxeparek bizi izan zuen Gerla Handi latz hori, eta ohartua zen beraren ondorio linguistikoez 1927an, *Beribilez* idatzi baino hiru urte lehenago, beraz, idazlea heldua zela. Beheko aipuan argumentatiboki itzulikatu nahi du soldadugoari aitortu ohi zaion balio hezitzaile uniformizatzailea, alegia, mundua zabalago ikusteko leiho irekia izatea:

> "Lau urthe luze etsigarriz, eskualdun soldadoak ibili ziren ez dakit zonbat gizaldietako soldadoen artean. Bazter hanitz ikusi zuten bertzalde, zerbait ikasi ere ba. Xokoan egoiteak uzkurtzen du; atheratzeak ernatzen, argitzen, emaiten bekokia. Alde orotarat behatuz, eskualdun gizona ohartu zen bazela gizonez gizon bertzeak bezenbat, Eskual-herriak etzuela bertze nehongo tokiri zorrik deus. Hainbertze mintzaien artean, bere arbasoenak jotzen zaizkon beharriak nola bihotza gozokienik. Maitatu zituen hobeki bere herritar lagunak eta bere eskuara zaharra.
>
> Ikusi zuen, ikasi eta gogoan barna sartu bertze gizadiak zoin minki ziren atxikiak beren mintzaiari. Jakin zuen hunen zaintzeko, apaintzeko, edertzeko, aberasteko, hedatzeko ahal bezanbatean, bazituztela gizon bereziak. Ohartu zen mintzaia dela

980 Bidegain, E., Urrutia, A., eta Bidegain, X. (2013). *Lehen mundu gerra "Eskualduna" astekarian*. Bilbo. Euskaltzaindia.

herrialde bat mendez mende xutik daukan zangoa eta erakaspen guzien mihizko bidea, mintzaian dagola herrialdeko zuhurtziaren bilduma, askotan inprimaturik aitamen eskutik haurretara dabilana"[981].

Azpimarragarria deritzogu euskarari errekonozitzen zaion atxikimendua gozotasunarekin eta maitasunarekin lotua egoteari, ahaztu gabe edozein balizko gutxiagotasun-konplexu baztertzeko asmoa. Maiz ari da Jean Etxepare horretara Euskaltzaleen Biltzarreko hitzaldietan, euskaldunaren autoestimua zaintzen.

Euskararekiko sentimendu horiek positiboak izanik ere guztiz gerla-garaian, esan liteke euskara dela lerratua afektibitatearen alorrera, arrazoiaren alorrera baino. Dakigunez, Argien mendetik datorren arrazoia da positibismoari bidea ireki ziona, eta aurrerakuntzaren optimismoa piztu zuena XX. mendeko hondamendi belikoetara arte. Aipatzen du zuhurtzia Jean Etxeparek; inprenta aipatzen badu ere, ez da zaila zuhurtzia herri-jakintza tradizionalarekin lotzea (esaera zaharrak, arbasoen esperientziari lotutako aholkuak, komunitatearen ohiturak...), filosofiaren eremutik aparte. Haatik, beharrezkoa ikusten du ahalegina egitea, arrozteko arriskua duen euskaldunaren duintasuna bermatzeko, zuhurtziaren apologia eginez.

Bestetik, ikuspegi antropologikoa baztertu gabe, baina filosofia positibista batekin koherente, Jean Etxeparek euskara jaso baten premia ezagutarazi nahi die mintzaldi honetan, urtero biltzen ziren Euskaltzaleen Biltzarreko entzuleei, nabarmenduz elite baten eta produkzio kultural sistematiko baten beharra, euskarak irakaskuntza formaletik eta ofizialtasunetik at, kili-kolo biziraun behar zuela memento hartan.

Jean Etxepare Iparraldeak bizi zuen eraldaketa gero eta azkarrago hartan, helmenean jartzen zitzaizkion helduleku argumentatibo guztiei oratzen die, euskararen atzerakada gelditzeko ahaleginean.

Ikusten dugu idazlea nortasun etnolinguistikoaren bila erne. Jean Etxeparek bidaian zehar belarriak erne dauzka euskaldunak non aurkituko; baten bat aurkitzen duen bakoitzean iruzkina idatziko du, egoeraren araberakoa. Donostian, adibidez, euskaldunak gutxiengo bihurtu dira. Hori ez zaio laket Jean Etxepareri, "metaka sartzen den atzerritar"[982] jende oldea, kasinora, hondartzara eta denbora-pasetara emana baita. Udako hiria izateak kentzen dizkio

981 Etchepare; J. (1927). "Eskualzaleen-biltzarreko hitzaldia" in: *Gure herria*. 7. urtea. 348 or.

982 *B.* 84

euskal nortasuna eta prestutasuna Donostiari. Ikusiko da jarraian nola interpretatzen duen Jean Etxeparek euskal nortasuna eta identitatea, odolaren sinboloa erabiltzen duenean.

5.2.1.1. Odolaren sinboloa

Euskaltasunaren eta euskaldunen bilaketan, narratzaileak euskal izaera adierazten du odolaren sinboloarekin testuan zehar, erakutsiko denez. Haatik, arinago, komeni da odolaren sinbologia unibertsalari hein batean erreparatzea testuinguru honetan, *Beribile*zeko sinboloaren esanahia hobeto ulertu ahal izateko.

Sinboloa da, jatorriz, bi gizaki elkartzeko bertutea duen objektua. Jatorriz, izan daiteke bitan hautsitako objektua; pertsona bakoitzak zati bat gordetzen du, eta berriz ere bi zatiak batzean pertsonek berritzen dituzte elkarrekiko abegi iragana, zorrak, adiskidetasuna… Hori da sinboloa, izatez.

Sinbolo bereziak dituzte garai bakoitzak eta talde bakoitzak, elkartzen baitituzte gizakiak, hizkuntzaren arartekotasunik gabe. Horretara, talde baten sinboloak ezagutuz gero, taldera sartzeko aukera dago. Garrantzitsua da ezagutzea sinboloek duten oihartzuna talde bakoitzean, talde horretako sinboloak behar bezala ulertzeko; esaterako, behiak oihartzun desberdina du hinduaren gogoan, eta harakinen gogoan[983].

Kulturetan zehar, odolak sinbolizatzen ditu suari, beroari eta biziari itsasten zaizkien balioak, eguzkiari ahaidetasunez lotuak. Balio horiek dira ederra, noblea, emankorra eta jasoa den guztia. Horrez gain, odola biziaren eroalea da. Batzuetan da sortzearen (*generation*) iturburua[984].

Konfirmatzen dira odolaren esangura sinboliko aipatu berri horiek, Jean Etxepareren testua irakurrita:

---

983 Chevalier, J. (1969). "Introduction" *in:* Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont. XX. or.

984 Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont. "Sang" sarrera.

"lerden, ginarri eta zail, gogoz bezala mihiz osoki herrikoi, beren odol garbia ageri dute gizaseme hek [euskaldunek]"[985] [azpimarrak gureak dira].

*Beribilez*eko testuaren barrutik atera daiteke galdera bat erantzuteko zaila: zer esan nahi ote du "herrikoi" adjektiboak? *Herrikoi* litzateke "amoureux de son pays" idazleak *Beribilez*en amaieran paratu duen hiztegi txikian. Herrikoi adjektiboak adieraziko luke euskaldunak Euskal Herriarekiko duen eraspena, beste hitzez, baina ez da sobera esatea. Azalpen soziopolitiko bat entsea genezake.

Hegoaldean ere, XX. mende-hasierako urte haiek ziren ezinegon euskaltzale, zabal eta herrikoi baten eskenatokia[986]. Horrelakoa izan zen Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta abar sortu ziren giroa. Hala ere, mediku euskaltzaleak ezin kontaktatu Donostian bazegoen giro euskaltzalearekin, deitoratzen duen bezala, liburuaren amaieran bidaiaren balantzea egitean:

"Zonbat goxoago ere ez litazke holako harat-hunatak, mendiez haraindiko gure haurride zonbaitekin egiten baginu ezagutza, hek ordainez gure ikustera ethortzekotan noizean-behin"[987].

Aurrera eginez, donostiar euskaldunen beste ezaugarri bati ekingo zaio: odol garbia. *"Odol garbia"* kontzeptua euskaldunen endogamia objektibo bati buruzko konstatazio goresgarria da, arrazoi sozio-ekonomikoengatik saretzera joko zuen endogamia baten konstatazioa, izan ere.

Alabaina, Etxeparek odol garbia aipatzean, ez dirudi gogoan apologisten euskararen genealogia fantastiko haiek dituenik. Gogora daitezke, euskal odol garbiaren harira, Adan eta Ebarengandik edo Tubalengandik euskaldunak eratorri nahi zituzten apologista haiek[988].

---

985 *B.* 86

986 Estornes Lasa, *B.* (zuz.) (1970*). Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*. *Literatura II.* Donostia. Auñamendi. Ikusi VII. atala "Inquietudes universitarias y bilingüistas (1918-1926)".

987 *B.* 97

988 Juaristi, J. (1976). *Euskararen ideologiak: Etorkiak I*. Donostia. Kriselu; Tovar, A. (1980). Mitología e ideología sobre la lengua vasca: Historia de los estudios sobre ella. Madrid. Alianza.

Zalantzarik gabe, Etxeparek demografia- eta kultura-datu egiaztagarri hurbilak ditu gogoan[989]. Euskaldunak dira kontrapuntu nimiñoa, Donostiako hiri zurruburru eta nahasian[990].

Jean Etxeparek badu iragan mitiko baten oroitzapena, alegia, jarraikitasun anaikorraren memoria (genetiko) bat elkartean iraunarazia, adierazgarriki, odolaren sinboloarekin irudikatzen duena. "Nabartar-odola" aipatzen da euskarari lotua[991], eta, gainerakoan, bospasei aldiz dakar *odol* hitza esanahi identitario batekin.

Hari beretik, antropologia fisiko zientifiko-nahiak lerro hori jorratu zuen Euskal Herrian ere XX. mendearen hasiera hartan -gogoratu Barandiaran, Eguren, Aranzadi arkeologoak- beste leku askotan bezala. Urrutiago joan gabe, Espainiak 1918an ofizialdu zuen "Arrazaren eguna", Hispanoamerikan ere ospatua, *descubrimiento*aren osteko genozidio-salaketak etorri bitartean. Ezin da aipatu gabe utzi, ziur aski, Sabino Aranaren (1865-1903) ideiak loratzen ziren garaia zela. Europan ere odol garbitasunaren auzia pil-pilean zegoen, II. Mundu Gerraren bezperan. Labur beharrez, esan daiteke arraza nazio-bereizgarritzat hartzeko jokabidearen zilegitasuna 1945ean amaitu zela, gaurko talaiatik begiratuta, batez ere *Shoah*ren ondorioz, ijitoen sarraskiak ahaztu gabe, esperimentu genetikoak eta beste. Gaurko jakintza antropologikoaren ikuspuntutik, esan daiteke arrazen izaera zientifikoa ez dela XX. mende hasiera hartan uste zen bezain funtsatua, eta ahalmen esplikatiboa galdu duela, azaleratu diren hura karakterizatzeko oztopo metodologiko ugariak medio.

Bestetik, odolaren metaforak adierazten du osasun inbidiagarria ere, medikuaren luman. *Beribilez*en testuan, Donostiara etorritako arrotzen aldean, euskaldunek badute aiurri osasungarriagoa, burgesek baino, burgesiaren dekadentzia ageri baita gorputzaren aldartean ere ("[aberastasunak] Ardurenean ez othe du apaltzen, bizizale zuhur eta geroago lehiatsuago batetik eginez gozazale iztil bat?"[992]).

---

989 *B.* 95

990 Horren harira: Maclancy, J. (2008). "Imaging the Basques: anthropological perspectives". In*: Imaging the Basques: Foreign views on the Basque Country*. *RIEV* Cuadernos (2). Eusko Ikaskuntza. 37-53 or.; artikulua sarean eskuragai dago helbide honetan: http://www.euskomedia.org/analitica/15366 [2016-05-19]

991 *B.* 38

992 *B.* 84

Medikuaren ikuspuntuak euskaldunen fisiologia deskribatzen digu, Donostian ikusiaren arabera. Medikuaren ikuspuntu bera atzeman daiteke Garro baroiak proposatzen duen "euskal bazkaria" aipatzen duenean, hain zuzen, euskaldunak duen aldartea jan eta gero zehaztean.

> "Supazter-xokoko azken solasa, hau izan zuen ene alderat jaun baroinak:
>
> —Orhoit hadi, nik erranik: eskualdun bazkaria bezalakorik ez duk. Harek bakarrik dik egiten eta uzten gizona dena odol, dena ginarri, dena zain"[993].

Badirudi Jean Etxepare baitan odola nortasun etnolinguistikoa adierazteko beste hitz bat dela. Adibidez, nafar-odola kolokan ikusten duenean, euskara galdu arau:

> "Hôteletik athera baino lehen, egiten ditugu bi solas etxekanderearekin. Berekin ditu, sahetsean, alabak. Doniane-Lohitzuneko komentu batean egonak dira askitto luzaz. Hiruek, bai amak, bai alabek, mintzatzen dute eskuara. Hemen bederen bizi da orainokoan nabartar-odola"[994].

5.2.1.2. Odol nahastea

Esanguratsuak dira guztiz Etxepareren hitzak naziotasunaz egun osoko ibilaldiaren amaieran, bidaiariak gauez Iparraldera bueltatzen direnean. Etxeparek gorputzaldi ona sumatzen du euskal odola Frantziako odolaz ere nahastekatua sentitzen duenean, "osagarrizkoa":

> "Bidasoa bazenetz ere ez niz orhoitu: ez girea bethi Eskualerri-barnean? Hargatik, mugaz hunaindiratu bezain laster, gozatu zaitala eta berritu zainetako bizia, hori ba. Jabalago barnea, hatsa hobeki hartzen dut. Bihotz-bihotzez eskualdun izan gatik, garaitiko nizan guzia frantsesa duketalakotz ez othe? Adimenduz eta buruz uste baino ere maiteago ez othe dugun guziek Frantzia?

---

993 *B.* 35

994 *B.* 34

Menditik bulharretarat heldu zaikun aire sendoari hautemaiten diot, Frantzia guzitik harekin nahastekatzera jina, halako hazkurri arin, haztarik gabeko zer bat, osagarrizkoa hargatik, odoleratzeko gure lehenbiziko arbasoek etzuketena" [azpimarrak gureak dira][995].

Irakur daitekeenez, bihotza euskaltasunari dagokio, burua frantsestasunari. Orain arte egin ditugun irakurketaren sintesi gisa[996], erabilgarria iruditu zaigu zerrenda bat paratzea taula moduan, adierazteko Jean Etxeparek zuen dilemaren inguruan iruditeria osatzeko.

Sentimenduen alorrean mugitzen da euskal herrizaletasuna. Euskarak posible egiten du adiskidetasuna sortzea hiztunen artean. Euskarak taldea osatzen laguntzen du. Aldiz, arrazoiaren inguruan mugitzen da naziotasun frantsesa: arrazoiak sentimenduak artezten ditu.

BIHOTZA	ARRAZOIA
Euskal Herria	Frantzia
Eremu pribatua	Eremu publikoa
Naziotasun etnikoa	Naziotasun boluntarista
Arbasoak	Haustura generazionala
Erlijioa, ohiturak	Hitzarmena
Gizarte-loturak	Sormena
Humanidadeak	Zientziak
Ama-hizkuntza	Hizkuntza ofiziala
Taldea	Gizabanakoa

995 *B.* 95

996 Kaplan, D. (2007). "What can the concept of friendship contribute to the study of national identity?". *Nations and nationalism* 13(2). 225-244 or.;Wood, N. (2007). ""It's Like an Instant Bond": Emotional Experiences of Nation, Primordial Ties and the Challenges of/for Diversity". *International Journal of Diversity in Organisations, Communities & Nations* 7(3).

Odola	Legea
Iragana	Etorkizuna
Zuhur hitzak	Filosofia
Aldagaiztasuna	Historia
Anaitasuna	Kontratua
Elkartasuna adiskideen artean	Elkartasuna arrotzen artean
Derrigortasuna: talde-araua	Askatasuna: lege-berdintasuna

Beraz, odola da naziotasuna adierazteko baliabidea, dela frantsesa, dela euskalduna. Agerian dago odol garbiaren gaiak zer gogoetatua ematen diola idazleari *Beribilez*en, etengabea baita kezka, euskal odola kanpoko odolarekin nahasteak ekarri ahal zituen ondorioez.

Pío Barojak, Aldudeko medikuaren "arima bikia" maiz, *Beribilez*eko idazlearen konparagai hurbila, ez du ikusten arrazaren izaera psikologikoa zehaztu daitekeenik. Dio arraza guztiak nahasteka daudela, inork ezin igarrita arraza bakoitzaren izaera ez etnikoa, ez eta espirituala ("No hay razas puras entre los hombres, todas están mezcladas, no se sabe siquiera cuál es el tipo étnico de cada raza, mucho menos cuál es su tipo espiritual" (1918); edo beste hau: "Yo no creo que una raza pueda tener originalidad más que en su cultura"(1944))[997].

Pío Barojak ere diskurtso propioa du kinka hau tematizatzeko. Beraren ustez kristautasun semitikoa azken euskal hondar paganoak zapuzten ari da, zoritxarrez. Horren harira taxutu zuen *Jaun de Alzate* (1922) euskal giroko eleberri sinbolikoa[998].

Gure ustez, Etxepare bilaketa batean ari da, zeinaren bitartez galdetzen dion bere buruari balizko identitateaz. Eboluzio baten barnean ari da gogoetan, leialtasun bi dituela: Euskal Herriarekikoa osotasunean hartuta, batetik, eta, bestetik, Frantziarekikoa[999].

997 Ikusi [raza… pureza] sarrera *in:* Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio.

998 Juaristi, J. (1987a). *El linaje de Aitor*. Madrid. Taurus. Azken konklusioan aztertzen du *La leyenda de Jaun de Alzate*. Eleberria 1986an itzuli zuen Patxi Apalategik euskarara.

999 Nora, P. (1984-1992). *Les Lieux de mémoire*, Paris. Gallimard. t. 3 *Les France*.

5.2.2. Diglosia eta hizkuntza-ukatzea

XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran nabarmen egin zuen atzera euskarak Nafarroa Garaian, eta belaunaldi arteko transmisioa huts egiten hasi zen Iparraldean berean. Jean Etxepareri fenomeno deigarria zaio, haren erakusgarri bat Nafarroan ikusi zuenean. Bidenabar, esan daiteke, Etxeparek fenomenoaren ale banaka batzuk ezagutu bazituen ere bere garaian, Iparraldean gaur egun belaunaldiz belaunaldiko transmisioa etenda dago[1000]. Jean Etxepare kezkaz betea zegoen, geldigaitza iruditzen zitzaion prozesu haren aurrean.

> "Badihardukot bizkitartean nolazpait, ez aise.
>
> Oihan-aldeko etxetiar-etxean dabilkit, ilhun, gogoa: nola mirakulu ehortzi dukete han gazteek amaxoren mintzaia? Ezin dezaket asma.
>
> Emazte xahar haren beraren hobena izan behar dik, zait azkenekotz gogoratzen.
>
> Erdarari emana zikeian aspalditik etxean bere mihia, eskuaraz ari bazian ere auzoekin... Badiagu holako, zorigaitzez, bazterretan. Lapurdin berean etxetiarsa gazte batzu hasiak ditiagu haurrari ohakoan frantsesez mintzatzen, estakurutzat emanez eskuara ez dela deustako! "Ama" baino aditu nahiagoz "maman"!"[1001]

Konstatatzen du afektibitatearen arloan ere frantsesak esparruak irabazten zizkiola euskarari, hau da, haren funtzionaltasunaren azken gotorlekuan, arrazoia berezitasun frantsesa baitzen oroz gain neoklasizismotik aurrera, hain zuzen. Erromantizismoak, berdenboran, sentimenduak hobesten zituen, XIX. mendean, amaren irudi samurra tarteko zela. Bestalde, Jean Etxeparek euskararen eta erdararen arteko gatazka linguistikoa ere begiz joa zuen:

> "Ibañetako lepotik hunaratekoan, ohartu niz bertzalde herri bakotxak baduela bere etxeetarik bateko aitzin-paretan burdinazko-plaka xuri bat: huntan beltzez thindaturik herriaren bi izenak, bat erdarazkoa, bertzea mendeen mendez herritarrek ahoan zerabilaten eskuarazkoa.

1000 Apalategi, U. (2016-XI-15): "Iparra/Hegoa. Erdigunea/Periferia" in: *Estereotipoetatik ihesi* hitzaldi sortan, Bilbo Zaharra euskaltegiaren Forumak antolatua Euskaltzaindiako egoitzan.

1001 *B.* 34-35

Nori ere gogoratu baitzaio eskuararen alderako atxikimendu-seinale hori, bigarren lerroan ezarria bada ere eskuarazko izena, eskerrak hari!

Bainan, laztu nu eskuararen eta erdararen arteko guduaren ikusteak, burdinzatiño hartan.

Nabar-Goitin galtzen ari da eskuara. Beiratuko dituztenez herrien eskuarazko izenak, nago. Ikusi ditugun plakañoen gainean, baditake, bainan mihian eta bihotzetan?... Badute segur nun berma Iruñako eskualzaleek. Moroak aizkatu zituzten nabartarrek. Ez ahal ditu balinba ithoko gaztelarren erdarak? (…)

Beribiletarat! Ene ustez, Nabar-Goitiko mugarat helduak izanen gira laster, Gipuzkoako eremuetan sartzeko"[1002].

Euskararen guduan, Jean Etxepare galerak zenbatzen ari da, ez irabaziak, eta ilunduraren mamuak harrapatua izateko arriskuan ikusten du bere burua; baina Jean Etxeparek bazuen proiektu euskaltzale bat gogoetatua Euskaltzaleen Biltzarrean egikaritu nahi izan baitzuen helburu zehatz eta doiekin. Autoek salbatzen dute Jean Etxepare, auto modernoek eskaintzen duten babesak.

Belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren gainean sakonduta, Iparraldean bazegoen euskaldun irauteko dei setatia, elite euskaldunen aldetik. Idazle batek baino gehiagok irrigarritzat, are arbuiagarritzat, jotzen dute euskaldun xehe frantsestu gurakoa[1003]. Adibidez, Baionara era berriak ikastera doan nekazal andrearen kritika da Jean Pierre Iratxeten (1921-1991) *Antton* (1946) eleberri kostunbrista[1004].

Emakume hiritartu baten kasua aipatzen du Jean Pierre Iratxetek. Gaitzesgarritzat dauka andrazko baten dagokion herronkatik ateratzeko asmo hori, higikortasun sozialaren bitartekoa zen frantses hizkuntza beretuz. Fenomeno hori bera da Jean Etxeparek topatzen dituen Goi

---

1002 *B.* 38

1003 Apalategi, U. (2007). "Antton eta Leturia (edo literaturtasunarekin kuku-gordeka denbora historikoaren oihanean)". *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 52(2). 560 or.

1004 Iratxet, J. P. (1988). *Antton*. Etor. Patri Urkizuren argitalpena. Iratxeten biografia in: Larre, É. (1991). "Jean Pierre Iratchet (1921-1991)". *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 36.

Nafarrerako hiztunena, eta baita medikuak entzutea daukan euskal ama batzuen sehaskatik umeei frantsesez jarduteko ohitura berria ere.

Bada pareko zerbait Txomin Agirreren izkribuetan ere, bizkaitar emakume nekazaria Bilboratzen denean, eta han sekulako opari aberatsak zain dituenean galai eukitsu baten eskutik (*Kresala*). Badira adibide gehiago idazle erlijiosoen eskutik. Gizarte-kritika edo gaztigu hori lotzen izan da ohitura kristauak iraunarazteko ahaleginarekin, euskaltasunaren aitzakia hartuta, jakina denez[1005].

Apaizak, garai batean, mundutik bazter bizi omen ziren, oro har, eta ez omen zuten aintzat hartzen gizabanakoen materialki gora egiteko guraria gizartean. Haatik, Jean Etxeparek gora igotzeko kezka hori bizi-bizia du *Beribilez*eko bidaia guztian[1006], saria bilatuz lurrean ezen ez zeruan, herriaren aurrerakuntza ekonomikoari arreta zabala eskaintzen diola.

Euskaltzale gisa, Jean Etxeparek belarri ernea dauka euskararen edozein solasekiko bidaian zehar. Donostian tabernan dagoela atsedenean honela diosku, petrikilo baten bezeroen mintzairaz:

> "Hor, karrikaren bertzaldetik, hurbiltzen zaizkote bi gizon. Eta, erdi eskuaraz, erdi erdaraz, hasten dira elgarrekin lauak:
>
> —Hôtela bethea zen. Zortzi egunez ez da egitekorik deus. Ondoko zortzian behar bada, izena aitzinetik emanez…"[1007].

Medikuntza paraleloaren lilurak atrapatuta dauzka petrikiloren bezeroak. Petrikilo miresten dute beraren ahal berebizikoekin. Inozotzat hartzen ditu dendari hauek ("botiges") Jean Etxepare medikuak, ezjakintasunaren atzaparren menpe, eta petrikiloren omen herrikoia funtsik gabea dela argi eta garbi uzten du. Ez da harritzekoa, beraz, bezero hauek euskara eskasa izatea. Nolanahi ere hiztun hauen kode-aldaketa linguistikoa estigmatizatu gabe, baiezta daiteke

---

1005 Ildo horretatik, interesgarria litzateke aztertzea nola bilakatu den epe luzean erdal (frantses ala espainiar) gizakiaren irudia euskal literaturan Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: Brunel, P. eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris. 142 or.

1006 Weber, E. (1983). *La fin des terroirs. La modernisation de la France rurale 1870-1914*. Fayard. "Des langues à foisson" atala. 108-146 or.

1007 *B*. 86

hizkuntza arrotzaren lilura sentitu dutela, eta saiatzen direla adierazmolde horri hurbiltzen beren hizkuntza-jardun mixto horrekin.

Ez bakarrik sasi-medikuntzaren ikuspegi klinikoa, hizkuntzaren alorrean euskara/erdara arteko kode-aldaketa (*code-switching*) ere behatzen du tabernako mediku euskaltzaleak. Kode-aldaketak izan ditzake bi interpretazio: hiztunak zabarrak dira, edo, bestela, beren burua goratu nahi dute frantsesa ere erabiliz[1008]. Lapurdiko merkatari hauek sasi-medikuntzak atzipetuta daudenez gero, ez litzateke mirestekoa hizkuntza aldetik ere "atzipetuta" egongo balira, uler dakioke Etxepareri. Dituzten solasak friboloak dira gaiaren aldetik, ondoriorik gabeak eta irriegingarriak. Frantsesa erabil dezakete handiustez, zibilizazio-hizkuntza hura ere meneratzen dutelako harro, eta ez soilik tokiko euskara jatorrizkoa. Gizarte modernoaren lilura faltsuaren erakusgarriak dira: irentsi dute petrikiloren azalpen zientifiko faltsuen amua, ahalmen espektakularrak dituela sinetsita. Beste horrenbeste esan daiteke gertatzen dela hizkuntzen merkatuan erdipurdika beretu duten frantsesarekin.

Beste interpretazio bat izan daiteke zabarkeriarena, *Beribilez*en proposatua. Etxeparerentzat euskara galtzearen azalpena izan liteke hiztunaren "nagikeria*",* aipu batean irakurri den bezala goraxeago; hiztunek "hobena*"* ere izan dezakete. Merkatari lapurtar hauen kasuan, badirudi esanahi bikoitza izan dezakeela Jean Etxepareren oharrak entzuten duen euskarari buruz.

Jean Etxepare jabetzen da diglosiak berarekin dakarren gudu-izaeraz. Hizkuntza-ukatzea naturaltasunez hartu beharrean halabeharrezko eta ekidinezineko zerbait bailitzan, zundatu nahi du atzerakada horren zergatia. Euskal ikuspegitik gertakariaren arrazoiaren bila ari da, nahiz eta oraindik hizkuntza-politika publiko posible baten aukera ez duen ikusten[1009]. Botere-harremanek hizkuntza-aldaketa eta atzerakuntzan duten garrantzia susmatu egiten du, nahiz eta erantzukizuna hiztun bakoitzaren bizkar utzi behin baino gehiagotan:

1008 Myers-Scotton, C. (2006). "How codeswitching as an available option empowers bilinguals" in: Pütz, M., Fishman, J. A., & Neff-van Aertselaer, J. (arg.). *'Along the Routes to Power': Explorations of Empowerment Through Language* (Vol. 92). Mouton de Gruyter. 73-74 or.

1009 Wendel, J., & Heinrich, P. (2012). "A framework for language endangerment dynamics: the effects of contact and social change on language ecologies and language diversity". *International Journal of the Sociology of Language*. Issue 218 (Nov 2012).

“Pasajes, arraintzari bihoztoien sor-lekua, ehintugun egun artio ontsa ezaguntzen. Orhoitzapenik maitena idukiren diagu hitaz, hobea oraino jakinen dugunean hire eskuarazko izen garbia. Gaztelarren errabiak ehortzia othe, izen hau ere, ala hemengo umeek berek beren nagikeriaz galtzerat utzia?”[1010]

1010 *B.* 92

5.2.3. Euskaltasuna kinka larrian

Euskal balio tradizionalen gordailua da Tolosa Gipuzkoako hiriburu ohia nobleagotzat baitauka idazleak Donostia baino, euskal arbasoei leialagotzat, alegia.

> "Donostia baita zonbait urthe huntan Gipuzkoako hiri-nausi, ez dukete Tolosako buruzagien egoitzek hango agintarienen larderiazko harrokeria. Nago ez othe diren, halarik ere, hiri ttipiko eskualdun-umeak zintzoago gelditu, arbasoen odola garbi idukitzetik jabeago beren buruaren, xedez zuzenago, zuhurrago beren urratsetan eta orozbat itzal handiagoko gipuzkoarrentzat. Zernahi izanik, hiriño huntaz mintzatzearekin frantsesek erraiten dute bethi: La noble Tolosa"[1011].

Ikusten da nola Jean Etxeparek balio handia ematen dion buruzagien izaera moralari, jakinki aberatsek eta boteretsuek edozein planteamendu humanistikoren gainetik jarrita daukatela begirada, Donostian bezala, zeinek Gipuzkoako hiriburugoa ez duen merezi Etxepareren ustez.

Hari beretik, odolaren sinbolo horrek balio dio idazleari gogoeta egiteko, euskal gizarte tradizionala jasaten ari zen aldaketa sakonei buruz. Liburuan zehar, han eta hemen agertzen dira aldaketen eta industria-iraultzak dakartzan berrikuntzen aipamen horiek[1012].

Jean Etxeparek izaera moralari garrantzia ematearena Frédéric Le Play (1806-1892) soziologoaren araberakoa izan daiteke[1013], aipatu baitugu *Eskualduna* aldizkariko erredaktoreak soziologo horren planteamenduetatik hurbil zeudela, ustez eta moralak bakarrik konpon litzakela gizarte-arazoak. Le Playren katolikotasun sozialak moralaren hobekuntzan ikusi nahi zuen gizartearen aurrerakuntza. Garai hartako aurrerakuntza tekniko arrakastatsuak herren

---

1011 *B.* 45

1012 *B.* 49, Euskal Herriari buruz testu esanguratsua, idazlearen pentsabidearen laburpena modernizazioari buruz eta dagozkion aldaketez; *B.* 72, Frantziari buruz eta dagozkion aldaketez.

1013 Crossick, G. (1994). "Metaphors of the Middle: The Discovery of the Petite Bourgeoisie 1880-1914". *Transactions of the Royal Historical Society* 4. 256 or. Le Playren eskola (*École de Le Play*) (1856-1914) bitartean egon zen. Hala ere, Le playren ideiek gaur ere oihartzuna badute.

ikusten zituen, moralaren sostengurik gabe[1014]. Klase gidariak ustelkeriaren erakusgarri izan zitezkeen, eta endekatuak; bestetik, iraultza industrialak bazituen ondorio positiboez gain ondorio kaltegarriak langileentzat. Le Play eta jarraitzaileak saiatu ziren formula bat bilatzen bermatuak izan zitezen egonkortasun soziala eta aberastasuna, gizarte-antolaketa egokiaren bitartez.

Garai hartan gizarteko pentsaerari buruz garrantzitsua izan zen Aita Santuaren *Rerum Novarum* (1891) entziklika katolikoentzat, Elizaren irakatsi sozialaren abiapuntua izan baitzen. Gizarte-giro iskanbilatsua zegoen langileek jasan beharreko bizi-baldintza txarrengatik, eta Leon XIII.aren entziklikak bidea eman zuen katolikoen kontzientziak asaskatzeko, garaiekin egokiago zen erantzun bat baitzetorkien Elizaren hierarkiarengandik[1015]. Izan ere, Eliza sinesgarritasuna galtzen ari zen abiada hutsean, egoera sozial zuzengabea ez salatzeagatik. Katolikoak Le Playren jarraitzaile gisa agertzen ziren Frantzian, irtenbide korporatibista bat eskaintzen baitzien gizarte gatazkei eta sozialismoaren gorakada handiari, batzuentzat kezka iturri.

Erne jartzen da narratzailea industria, kimika, serieko produkzioa eta antzeko aurrerakuntzak Euskal Herrian sartuta, gizarte tradizionala irautea kolokan jartzen duelako[1016]. Ikusten du euskararen eta euskaldunaren mendez mendeko gizarte-euskarri osoa hankaz goratua. Hala ere, gehiago da adi egoteko deia, eta historiaren korrontearekin batera igeri egiteko premia azpimarratzea, luzarora ezin eutsi zaion gizarte-eredu bati iraunarazteko proposamena baino. Hala ere, zehatz inpresionatuta dago[1017].

1014 Le Play, F. (1947*). Le Play. Textes choisis et préface par Louis Baudin*. Paris. Librairie Dalloz. http://classiques.uqac.ca/classiques/le_play_frederic/le_play_textes_choisis/textes.html [2017-01-20] 15 or. Azpiatal hau bereziki: "Le mal actuel est surtout dans les désordres moraux qui sévissent malgré le progrès matériel ».

1015 *Elizaren irakatsi soziala* (2004). [ikertzaile eta irakasle talde batek gauzatu du, Juan Souto Coelhok koordinaturik] ; itzultzailea, Sabin Barruetabeña. Bilbo. Deustuko Unibertsitatea. 78-81 or.

1016 *B.* 49

1017 *B.* 49, aipatua dugun pasartea da. Garatzeko puntua litzateke ikertzea Jean Etxeparek zer historia erreibindikatzen duen euskaldunentzat, zein oroimen-leku (Pierre Nora) erreibindikatzen duen. Nafarroaren kasuan Santiago Leoné Puncel-ek jorratu duena, kasu: Leoné Puncel, S. (1999). "¿Cómo escribir la identidad de navarra? De la historia a la metahistoria". *Gerónimo de Uztariz*, (14), 9-17. Eta, era berean, Leoné Puncel, S. (1999). "Entre la crítica y la nostalgia: la problemática de Pierre Nora (a propósito de *Les lieux de mémoire*)". *Memoria y civilización: anuario de historia*, (2), 339-348.

"Azken behako luzea igortzen diotalarik behar-bada gehiago ene bizi laburtuan ikusiko ez dutan Tolosa zahar maiteari, iduri zait mintzo zaizkitala hango bi adixkide: —Ez iduk grinarik gutaz; mende hunek ekarri daukun guduari ez gira den-gutienik lotsa; jarriak gira eskualdun guziak ukondoz-ukondo; begiak erne dauzkagu, erne gogoa, besoa azkar. Gure gelldituko da, gu jabe eta gu nausi, Gipuzkoako lurra"[1018].

Bi adiskideak izan zitezkeen oso ondo Jose Eizagirre eta Ixaka Lopez Mendizabal tolosarrak. Biak agertu ohi ziren Euskaltzaleen Biltzarreko bileretara Hegoaldetik bertaratuta, Jean Etxepareren garaian.

Gure ustez, idazleak argi eta garbi egiten du burgesia txikiaren alde, burgesia handiarekiko distantziak markatuta. Badirudi industria-iraultzaren gidaritza nahi duela elite euskaldunen eskuetan. Azken finean, EAJ jatorriz bizkaitarrak horrelako jarrera bat izaten zuen, goi burgesiaren kontra eta burgesia txikiaren alde. Bilboko goi burgesiak lotura zuzenak zituen Madrileko burgesiarekin, eta interes berak.

Badirudi "ukondoz-ukondo" jarri diren euskaldun guztiak 1928an EAJren inguruan elkartu diren abertzaleak direla. Baldin eta Jean Etxeparek aipatzen dituen Tolosako adiskideak Joseba Eizagirre (1881-1949) eta Ixaka López Mendizabal (1879-1997) badira, antza denez, hipotesia indartuta aterako litzateke. Joseba Eizagirre EAJko kargu politikoa izan zen luzaro. Ixaka López Mendizabal Euskaltzaleen Biltzarreko sortzaileetakoa izan zen 1902an, Euzkadi Buru Batzarrekoa eta EAJko kargu politikoa. Kontuan izan behar da, hasiera batean Euskaltzaleen Biltzarra Euskal Herri osorako diseinatu zutela, nahiz eta istilu sonatu batzuen ondorioz Iparraldera mugatu.

Testuan aipatutako Tolosako adiskide irudikatuek ordezkatzen dute *Beribilez*eko irakurle hartzaileen multzoa, hau da, klase gidariaren partaide izan nahi duten herri-geruzetako euskal gizabanakoak.

Jean Etxeparek erreibindikatzen duen iragan laborariaz besterik ere aurki liteke iragan euskal mendeetan: konkistatzaileak, ikertzaileak, merkatariak, orotariko emakumeak…

1018 *B.* 50

5.3. Zubigilea estereotipoak artezten

5.3.1. Estereotipoaren definizioa

Herri baten iruditeria zehazteko prozeduran, munta handikoa izaten da jasotzea herrialdeek beren arteko harremanetan sortzen dituzten elkarren estereotipoak, D. -H. Pageuxren imagologiaren arabera. *Beribilez*en kasuan, testuak eskuratzen dizkigu identitatearekin lotutako bi estereotipo argi: bat frantsesarena eta beste bat euskaldunarena. Horiek aztertzeari ekin orduko, estereotipoa definitzeko saioa egingo da.

Ruth Amossy-k aipatzen du estereotipoaren definizio bat, Walter Lippmann-en (1889-1974) arabera, estereotipoaren ikertzaile goiztiarra:

> "Il désigne par ce terme emprunté au langage courant les images dans nôtre tête qui médiatisent notre rapport au réel. Il s´agit des représentations toutes faites, des schèmes culturels préexistants, à l´aide desquels chacun filtre la réalité ambiante"[1019].

Eguneroko kontua da nazionalitateak karakterizatzeko estereotipoak erabiltzea: aleman buru karratua, frantses bizizalea, espainol harroa, euskaldun hitz gutxikoa, ingeles flematikoa, italiar neskazalea, kataluniar diruzalea, errusiar vodka-edalea… Estereotipoak herri-jakintzan ohiko kontua dira. Estereotipoak arbitrarioak izanagatik, badute azalpen bat giza ezagutzaren ekonomiaren arloan:

> "Comment en effet examiner chaque être, chaque objet dans sa spécifité propre et en détail, sans le ramener à un type ou une généralité? Semblable démarche serait, dit

---

1019 López de Abiada, J. M. eta A. López. (2004). *Imágenes de España en culturas y literaturas europeas (siglos XVI-XVII).* Madrid. Verbum. 26 or. López de Abiadak aipatzen du: Amossy, R., & Anne Herschberger. (1997). *Stéréotypes et clichés. Langue, discours, société.* Paris. Nathan. 26-27 or.

Lippmann, épuisante et, dans le cours occupé de l´existence, pratiquement hors de question. N´ayant ni le temps ni la possibilité de se connaître intimement, chacun note à propos de l´autre un trait qui caractérise un type bien connu et remplit le reste au moyen des stéréotypes qu´il a en tête: l´ouvrier, le propriétaire, l´institutrice, le Noir… (…) Dans la mesure où le stéréotype relève d´un processus de catégorisation et de généralisation, il simplifie et élague le réel; il peut ainsi favoriser une vision schématique et déformée de l´autre qui entraine des préjugés"[1020].

Euskal Herriaren egoera kritikoa izanik gaur egun ere, euskaldunok saia gintezke proiektu bateratuen bila, euskaldun irauteko izan lezaketen etekinagatik, nahiz eta ezin ahaztu izaera-aniztasuna badela euskaldunen artean ere. Besteak beste, herritartasun anitzekoak ere badira euskaldunak, eta etorkizuna asmatu beharko litzateke denak kabitzeko moduan, areago Europako batasunak aurrera egin ahala, Akitaniako eskualde baten esparruan, guztiahalduna dirudien globalizazioaren garaian.

"Cuanto más progresa el proceso de integración político económica de Europa, más necesario resulta que lo acompañe en el campo de la cultura una labor investigadora que propicie un mejor conocimiento recíproco de los pueblos que componen la Unión. No deja de asombrar hasta qué punto, a pesar de la extraordinaria multiplicación y diversificación de los contactos, persisten las imágenes esterotipadas de "los otros"; el trato directo parece competir difícilmente con la herencia cultural. Estos clichés constituyen indudablemente un obstáculo para la percepción y la comprensión de las demás culturas; como tales, pueden socavar dicho proceso de integración, incluso amenazarlo en caso de un cambio radical de coyuntura"[1021].

Kulturaren historia baten lana litzateke estereotipo horiek erlatibizatzea eta azpimarratzea duten izaera iragankorra, memento eta zirkunstantzia jakin baten sortuak direla azpimarratuz, eta ez dutela adierazten gizabanako nazionalen esentzia iraunkor eta aldaezinik.

1020 López de Abiada, J. M. eta A. López. (2004). *Imágenes de España en culturas y literaturas europeas (siglos XVI-XVII).* Madrid. Verbum. 26 or. López de Abiadak aipatzen du: Amossy, R., & Anne Herschberger. (1997). *Stéréotypes et clichés. Langue, discours, société.* Paris, Nathan. 26-27 or.

1021 Boixareu, M. eta R. Lefere (koord.). (2002). *La Historia de España en la Literatura Francesa*. Madrid. Editorial Castalia. "Presentación" 11-16 or. 11 or.

Gaur egun ere, estereotipoek eskatzen dute erreflexio bat masa-kulturak eskaintzen duen presentismoa[1022] gaindituta:

> "Las imágenes esterotipadas no se pueden simplemente descalificar; sería poco eficaz, además de ingenuo. Hace falta llevar a cabo una crítica que ponga de relieve su historicidad: en qué contextos llegaron a constituir, a cuajar y a difundirse, pero también a transformarse o a desaparecer, sustituidas a veces por imágenes contradictorias. Todo eso supone: una compleja investigación, que no sólo acaba relativizando dichas imágenes, sino que enseña a desconfiar de las seudoevidencias"[1023].

Ikerlan honetan, frantsesaren eta euskaldunaren estereotipoak testuinguruan jarriko dira, beren historikotasuna ulertzeko. Beste alde batetik, konturatuko gara Jean Etxepare garai hartan ahalegindu zela frantses herritarraren estereotipo negatiboa burrukatzen, orduko euskaldunen artean zabaldua egonagatik. Ildo beretik, egingo da euskaldunaren estereotipo anitzak ulertzeko saioa: frantsesek sortutako euskaldunaren estereotipo negatibo bat, alde batetik, eta, bestetik, euskaldunaren estereotipo positibo bat narratzailearen autokide batek jalgiarazia. Horrek guztiak balioko ahal du estereotipoen izaera toxiko posibleaz jabetzeko, eta, ordez, herrien ezagutza hurbilagoa bultzatzeko!

Kontuan hartuko dira, baita ere, garai beretsuko literatur lanetan isuri diren euskaldunaren beste zenbait irudi.

1022 Rioux, J. P. "Histoire culturelle" in: Mesure, S eta P. Savidan (zuz.). (2006). *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF. 549 or. Klitxe horien ilustrazio zabalagorako ikusi hiztegi berean : Chartier, R eta Pierre Antoine Fabre : « Représentations (Histoire des) » sarreratik ateratako aipu hau : "on pourrait (et on a pu) considérer les représentations artistiques comme autant d´indices, de documents dont il faut déchiffrer les contenus sémantiques, pour ce qu´ils nous disent des manières d´habiter, de manger, d´aimer… Or ce que la dimension réflexive de la représentation aide à voir, c´est, non seulement la manière dont ont été conçues ces manières d´habiter, de manger eta d´aimer par leurs auteurs, mais surtout la manière selon laquelle ces représentations développent, dans l´acte esthétique lui-même, une refléxion sure les conditions de leur possibilité et de leur exécution" 1006 or.

1023 Boixareu, M. eta R. Lefere (koord.). (2002). *La Historia de España en la Literatura Francesa*. Madrid. Editorial Castalia. "Presentación" 11-16 or. 11 or. Europa eraikitzeko proposamena, nazioak eraiki ziren bideetatik: Calligaro, O. eta François Foret, « La mémoire européenne en action. Acteurs, enjeux et modalités de la mobilisation du passé comme ressource politique pour l'Union européenne », *Politique européenne* 2012/2 (37).

5.3.2. Euskaldunaren estereotipo bi

Datozen paragrafoetan, euskaldunaren eta frantsesaren estereotipo batzuk aztertuko ditugu, *Beribilez*en agertzen direnetatik abiatuta. Esana datorrenez, estereotipoak elkar ezagutza murritza den heinean sortzen direla-eta, komeni da sakontzea XX. mende hasierako Iparraldean nolakoa zen Frantziarekiko kohesioa, testuinguru horretan *Beribilez*eko estereotipoen pasarteak hobeto ulertzeko.

Beribilez idatzi zen garaian (1928) Euskal Herri kontinentalaren "frantseste" prozesua azkarragotua zen Gerra Handiaz geroztik, baina Bigarren Mundu Gerra heltzeke zegoen[1024]. Egoera, 1900 inguruan, honelakoa izango zen:

> "La question tourne plutôt autour de la "grande complémentarité de la communication sociale" qui selon Deutsch fait l´unité d´un peuple. En dehors des centres urbains, dans presque toute la France il n´y avait pas "d´histoire commune qui puisse être mise en commun", ni de "comunauté d´habitudes complémentaires", peu d´échanges du fait de la division du travail dans la production des biens et des services, et seulement des "réseaux de communication sociale et de relations économiques" très limités"[1025].

Askotan, *Beribilez* izan daiteke elkarrekikotasun ahul horren erakusgarria ere, alegia, batze-prozesu horren garabidean beste mugarri bat. *Beribilez*ek aipatzen ditu Vichyko bainuetxe-hiria, Gorges du Tarneko arroilak, Frantziako katedralak, Probentzako zerua, Normandiako sagardoa… Frantziako zerak aipatzen ditu Jean Etxeparek *Buruxkak* lehen liburuan, era berean. Esperientzia bateratzaileek ugaritu zuten ikuspegi nazionala: trenbidea, eskola, merkatua, soldaduska, txanpona, produktu-trukea, inprimatutako testuak…

> "La culture française ne devint réellement nationale que dans les dernières années du siècle [XIX]"[1026].

1024 Bidegain, E. (2013). *Lehen mundu gerra "Eskualduna" astekarian*. Bilbo. Euskaltzaindia.

1025 Weber, E. (1983). *La fin des terroirs. La modernisation de la France rurale 1870-1914*. Fayard. "Cultures et civilisation" atala. 690 or.

1026 Weber, E. (1983). *La fin des terroirs. La modernisation de la France rurale 1870-1914*. Fayard. "Cultures et civilisation" atala. 691 or.

Ildo beretik, *Beribilez* bada euskal komunitate bat sortzeko ahalegin apala eta lausoa ere. Iparraldeko errepideak, ostatuak, jantziak, nekazarien bizitza-mailak… konparatzen ditu Hegoaldekoekin. Bidaia egitea bera ere da elkar ezagutzan pausu bat; bidaian zehar azpimarratzen diren itemak izan daitezke bi aldeen arteko elkarrizketa baten heldutokia, zer den garrantzitsua agerian uzten baitu. Ikusten da elementu komun horiek Etxepare baitan oso praktikoak, ia prosaikoak, direla: nazio-erromantizismoaren arrasto gutxi, beraz. Elementu horiek gizarte zibila kezkatzen duten zerak dira maiz: elikadura, azpiegiturak, hirigintza, nekazaritza, industria…

5.3.2.1. Ganix laborariaz trufa

Frantziaren homogeneizazio-prozesuan nahita ez sortu ziran gatazka identitarioak komunitate txikiagoen artean, elkarrekiko estereotipoetan islatu zirenak; istiluak sortu ziren, aldi berean, kontaktua eta bereizketa zekartzan muga identitarioaren bi aldeetatik. Hasteko, ekin dakioke kanpotarrek euskaldunari buruz zerabilten Ganixen estereotipoa aztertzeari, eta jaso zuen trataera, hala Euskal Herritik kanpokoen nola euskaldunen aldetik.

Euskaldun xehea duintzeko ahalegina egin zuten Jean Etxeparek eta Euskaltzaleen Biltzarrak, beti ere euskaldunak euskal hiztun gisa iraun zezan nahi zutela, Etxepare Euskaltzaleen Biltzarreko burulehena zela *Beribilez* idatzi aurreko hamarkadan.

Adibide baterako, hona hemen Euskaltzaleen Biltzarreko idazlan-sariketan gailendutako irabazlearen berria, 1923an. Leon apaizak kontakizun bat aurkeztu zuen, Ganix laborariari egindako bisita bat kontagai zuela[1027]; bertan Leonek prezatu egiten du Makeako Ganix euskalduna, "frantsesek" mespretxatu baitute, eta baita Etxeparek babes osoa eman ere ("frantsesek zonbat urte hotan irri karkailaz "Ganich de Macaye" deitzen duten gizon hura bera[1028]"). Lehenik, frantsesek egiten diote bisita; geroago, euskaltzaleek bigarren bat, honela deskribatzen baitu Jean Etxeparek:

1027 Ganix pertsonaia enblematikoaren erretrato bat: Leon, L. (1923). "Ursuan gaindi Makearat". *Gure Herria* Buruila Septembre.

1028 Jean Etxepare "Baigorriko bilkuran (1923) buruzagilehenaren mintzaldia", "Ixtudianteen primak" sarietarik bat Leon Leonen kontakizunari ematean, in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. Donostia. Elkar/Euskaltzaleen Biltzarra. 83 or

"Gure bidaiarien harritzia! Etzien Ganixek den gutieneko eiterik, errana zakoten gizon bitxi harekin, ez bere jauntzian, ez ibileran, ez bere solasetan ere. Erdeinuz eta trufaz nunbaitik jinikako jaunxkila batzuek beren aho mihietan zerabilaten laborari puska on bat, ez batere zozoa haatik, ez herabea ere, horra nola agertu zitzakon Léoni, Ganix egiazkoa. Jostagailutzat tonto zaukaten eta eskoil, haizu den baino gehiago, aipatu arrotz xirtxilek, adiaraziz gainera, edo bederen geroago barnago beren gogoari emanez, haren iduriko zitazkela euskaldun guziak. (…)

Euskalduna agertzeko on da non nahi: gizonez gizon ez du inoren ahalgerik. Neurri batetik goiti, badaki behar ordian irrien sar-arazten. Ez beti mihi eta makil ukaldika, ez bainan batzuetan, eta askok uste duten baino ardurago ere, bere gizontasuna lañoki erakutsiz"[1029].

Ganixen ironiak desmuntatuko du bisitarien buruaskitasuna, apur bat Sokratesek aurrean jartzen zitzaion edonor aporiaren mugetara bultzatzen zuen bezala, jakituriaren hastapen posible bakarra prozedura gisa[1030]. Izan ere, esanguratsua da Jean Etxeparek proposatzen duen euskaldunaren erantzun graduatua irriaren bitartez, kanpotarren erdeinuaren aurrean. 1923ko Etxepareren testuan, ironiaren erabilera da erresistentzia-seinalea bortizkeriaren gainetik, hirugarren espazio bati[1031] irekiera ematen diona, hau da, kanpotar/bertoko oposizioari gaineratzen diona paradoxaren eremua, zeinean bertokotasuna balio erantsi gisa eraikitzen baita diskurtsoan[1032].

Euskaltzaleen Biltzarreko euskal elitea kezkatuta zegoen orduan, euskaldunaren homologazioaren karietara. Leon Leonek (1896-1962) diskurtso duintzailea badarabil, baita biltzar bereko Dominique Dufauk (1880-1956) ere, gauza bera egin baitzuten biek, hau da,

---

1029 Jean Etxepare "Baigorriko bilkuran (1923) buruzagilehenaren mintzaldia", "Ixtudianteen primak" sarietarik bat Leon Leonen kontakizunari ematean, in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. Donostia. Elkar/Euskaltzaleen Biltzarra. 83 or.

1030 Vladimir, J.Jankélévitch (1964). *L'ironie*. Flammarion. "Le mouvement de la conscience ironique" atalaren sarrera.

1031 Hirugarren espazioaz: Fernández, J. (2006). *Ser humano en los conflictos*. Madrid Alianza Editorial. 217-260 or. Ikuspegi psikologiko baterako: Alzate, R. (1998). *Análisis y resolución de conflictos. Una perspectiva psicológica*. Bilbao. Universidad del País Vasco. Hirugarren ezpazioaz ingelesez eta zabal: Ury, W. (1999). *Getting to peace: Transforming conflict at home, at work, and in the world*. Viking Press.

1032 Delvaux, M. eta Pascal Caron (2010). "Postcolonialisme" in: Aron P., D. Saint Jacques eta A. Viala. (zuz.) *Le dictionnaire du littéraire*. Paris. PUF. 602 or.

euskaldun trufatuaren estereotipoa den Makeako Ganixen irudia duinduz berrinterpretatzea. Dufauk ere, Etxeparek bezala jarrera filoabertzalea du Gernikako arbola aipagai duela idazlanetan, eta Hegoaldeko kutsu ideologikoa erakusten duen heinean. Pentsatzekoa da Hegoaldearekiko irizkidetasun hori uste baino zabalagoa zela Jean Etxepareren belaunaldiko Biltzarreko euskaltzaleetan[1033].

Beraz, euskaldunaren estereotipo negatibo horren kontra ari dira Euskaltzaleen Biltzarrean. Etxeparek eta Leonek proposatzen dute estereotipoa gainditzeko bidea, euskaldun estereotipatuaren ezagutza hurbilagoa proposatuta, ezagutza hurbila baita estereotipo makurrak gainditzeko biderik onena[1034].

Harreman blokeatu baten adierazgarria da estereotipoak erabiltzea bi komunitateren artean. XX. mendearen hasieran oztopo hori bazegoen, Jean Etxeparek ulerkera mentalki higienikoagoa proposatzen du estereotipoen gainetik, hala euskaldunak ulertzeko nola frantsesak ulertzeko. Izan ere, borrokatzen ditu frantsesen eretzera inguruan somatzen zituen estereotipo arbuiatzaileak ere, *Beribilez*en bertan[1035].

5.3.2.2. Ameriketako migratzaile prestua

Kanboko bidaiariak Loiolako ostatuan freskagarria hartzen ari direla, autoko lagun batek konparagai ditu euskalduna eta frantsesa, Hego Ameriketan migratzaile gisa biek duten gizarte- eta lanbide-arrakastaren arabera[1036].

1033 Dominique Dufauren (1950) "Ganichen makila" eta "Ganichen ordainbidea" *Gernika* aldizkarian, besteak beste, Euskaltzaleen Biltzarreko kide horren asmoak ezagutzeko. Azterketa baterako ikusi: Ortiz de Pinedo, A. (2011). *Euskal literatura Gernika aldizkari liberalean: 1945-53*. Amorebieta. Erroteta. 96-99 or. https://www.academia.edu/15384351/Euskal_literatura_Gernika_aldizkari_liberalean_1945-53_liburua [2016-11-01]

1034 Stangor, Ch. G. (1995). "Sterotyping" in: Manstead, A. eta M. Hewstone (arg.) *The Blackwell Encyclopedia of Social Psychology*. USA. Blakwell. Rogers, L. eta Joshua Aronson (2013). "Sterotype threat" in: Lopez, S. J. (arg.) *The encyclopedia of positive psychology*. Oxford. Wiley-Blackwell.

1035 Ikusi beheraxeago *frantximanta*ren azterketa estereotipo gisa.

1036 *Migratzailea* hitza, *etorkin* eta *joankin* hitzei hobesteari buruz irakurri: Declercq, E. (2010). "La postura del migrante frente a su estereotipo: una táctica de negociación" in: Lie, N. et al. *El juego con los estereotipos*. Bruxelles. Peter Lang. Migratzailea hitza erabiltzeari buruz, erabilgarria zaigu balio duelako lekuz aldatutako hura izendatzeko: turista, udatiarra, bidaiaria, etorkina,

Besteak beste, bada euskaldunen bertuteen artean, seinalagarria den etika baten aipamena:

> "frantses guzien artean, guk Eskualdunek dugu, denik ere, konfiantzarik gehiena Ameriketako jendearen ganik. Nungo nahikoek badakite hitzeko gizonak girela, aho-onekoak bana-bertze, garbiak lagunaren alderat, zu entzutea ohore bezain zu erraitea atsegin zaikunak: goraki, aithortu dute, bethi, lan gogorrenek ez gituztela lotsatzen"[1037].

Nolanahi ere, deigarria da erlijioaren ausentzia karakterizazio horretan, kontuan hartzen badira fedearen eta laizismoaren arteko tirabira gaitzak 1928 inguruko Iparralde hartan. Esan daiteke, behinik behin, laiko baten ikuspuntua badela diskurtso honetan, zeren eta erlijioso katolikoen kezka nagusia zen emigratuek jaioterriko fedea mantentzea Ameriketan, zabartu gabe sinestearen aldetik.

*Beribilez*en, migratzaileak heroi nazional gisako zerbait dira, hala itsasoak apurtzen, nola artzaintzan eta nekazaritzan dabiltzala, agian, Ameriketako pioneroen bidetik. Joaleek Euskal Herriari plus sinbolikoa eransten diote, eta nortasun nazionalaren adibideak dira, beren arrakasta edo porrota jatorrizko herriaren -Euskal Herriaren eta Frantziaren- heinaren termometroa izanik. Hor bada epika baterako sarbidea, Europan hain munta handikoa nazioak eraikitzeko prozeduran[1038].

Bidenabar, esan daiteke, apunte gisa, Iparraldean elite ekonomikoa gazte langilerik gabe geratzen ari bazen ere, denek ez zutela emigrazioa kaltegarritzat hartzen, adibidez, irakur dakioke Antoine Abadia Lore Jokoen mezenasari:

> "Au reste, je me refuse à admettre que l´émigration soit un mal. Elle est plutôt le résultat d'une exubérance de vie et de forces : elle sème dans les pays lointains le nom et l´influence de la France. En nous privant partiellement de nos ouvriers agricoles, elle ramène notre attention vers des méthodes de culture perfectionnées, et nous fait songer

---

kolonoa… Horretara eta zehatzago, *Beribilez*en, sar genitzake migratzaileen zakuan lekuz aldatutako pertsonaien zerrenda, operatibitate handiagoz: bidaiariak, turistak (euskaldun eta frantsesak), marinelak, Ameriketara joaleak, amerikanoak edo indianoak…

1037 *B.* 71

1038 Thiesse, A. M. (2014). *La Création des identités nationales.* Europe (XVIIIe-XXe siècle). Paris. Seuil.

à l´emploi de ces machines qui ont élevé si haut l´agriculture de la Flandre et de I'Angleterre: privés de nombreux voisins, nous apprenons a mieux employer nos propres forces, et notre vigilance doit s'accroître par le fait meme de notre isolement”[1039].

Autoko bidaia-lagun batek frantses emigratuen kritikan gizartearen ikuspegi fisiokrata bat aldezten du, zeinean nekazaritza eta abeltzaintza diren gailen (“guk ditugula hango eremu zabaletan erein aberastasunaren bi azi baitezpadakoak, hok baitira laborantza eta hazkuntza”[1040]) eta, aldi berean, zerbitzuetako lanbideak gutxiesten diren, zeinak baitira frantsesen esku sintomatikoki. Etxeparek lagunaren erasoari erantzutean *Beribilez*en, migrazioaren baldintzapen sozioekonomikoak saihestu egiten ditu, dirudienez, eta, horien abstrakzioa eginez, azpimarratzen ditu tasun intelektualak, horretara frantsesen baitan laudatuz bi bertute, jakintza eta etika, ikusiko denez.

Estereotipo negatiboak egon badaitezke ere taldeen artean, horiek goragoko helburu komun batera jotzeak mugiaraz litzake estereotipo horiek[1041]. Mundu-gerrak izan ziren, jakina denez, Iparraldeko euskaldunen eta hizkuntzaz desberdinak zirenen arteko leizeak gainditzeko bitarteko erabakigarriak, bereziki frantsesaren bitartez.

Gaurko euskaldunok ere saia gintezke goragoko helburuen bila identitatea iraunarazi nahi badugu, behinik behin, tartean identitatearen osagaia den hizkuntza dela, besteak beste. Esan den bezala, *Beribilez*en goragoko helburuak eta balioak prosaiko samarrak dira baina jende gehienentzat aproposak aldi berean, ikerlan honetan agertzen saiatu baikara idazlearen ideologia aztertzean, hein batean, idazlearen ondare gisa etorkizuneko euskaldunei begira balio lezaketenak; esan nahi da Jean Etxepare mistika abertzaletik nahiko aldenduta agertzen dela, eta eguneroko bizimoduari lotua, hegaldi intelektualak baztertu gabe.

1039 Goihenetxe, M. (1992). “Ipar Euskal Herria XIX. mendeko azken hamarkadetan”. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 37-1.

1040 *B*. 72

1041 Stangor, Ch. G. (1995). “Stereotyping” in: Manstead, A. eta M. Hewstone (arg.). *The Blackwell Encyclopedia of Social Psychology*. USA. Blakwell.

Izan ere, Jean Etxeparek bazuen esperantza onik bere ondare idatziaren etorkizunari begira, nahiz eta ez zen erabateko optimismoaren zalea, honela baitiotso Piarres Lafitteri adorea emanez:

> "Egon pixkor, ez sobera akit ez bero, hatsaren gainean ariz jarraiki gostuz zure lanari. Agian ez gira ez bat ez bertzea arras alferretan bermaturik gelldituko"[1042].

5.3.2.2.1. Lehen sektoreko heroia

*Beribilez*en, frantsesak eta euskaldunak konparatzean, medikuaren bidaia-lagunak darabilen diskurtsoak baditu arrazoi nahiko prosaikoak eta mistifikazio gutxikoak, Loiolako turista frantsesaren pasartean: arrazoi horiek dira migratzaile euskaldunek eta frantsesek urrutiko lehorretan izan duten eguneroko portaera. Horretara, adimendua, etika, eta ekonomia-jokabidearen nolakotasuna azpimarratzen dira, identitate bereizgarriak deskribatzeko[1043].

Hari beretik, emigranteek nolako harrera duten Hego Ameriketan da baremoa euskal eta frantses-identitateak konparatzeko[1044].

5.3.2.2.2. Zubigilearen izaera hibridoa

Deblauki esateko, Jean Etxepare ez da euskaldun protipiko edota unidimentsionala, nolabait esatearren, areago, XX. mendearen hasieran kokatzen badugu, idazlearen bizi-giroa zirriborratzeko atalean azalduta datorren bezala. Bidegurutzeko idazlea da: nietzschearra eta fededunen arteko gizakia; agnostikoa eta *Jesukristoren Imitazioa*ren irakurtzaile psikologizatzailea; kolonizatzaileen seme Argentinan eta euskaldungo gutxitukoa[1045]; euskalduna eta argentinarra; Euskaldunen Biltzarrekoa eta *soldat de la patrie*; Iparraldekoa eta

---

1042 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 1931ko lotazilaren 22an Jean Etxepare Piarres Lafitteri bidalitako gutuna.

1043 *B*. 71

1044 *B*. 71-72 orrien arteko pasarteak luze bezain mamitsuak dira.

1045 Memmi, A. (1957). *Portrait du colonisé: précédé du Portrait du colonisateur: essai.* Buchet/Chastel.

Hegoaldera isuria harremanetan; mediku esperimentala eta filosofoa; zientzia positiboaren aldekoa eta idazle preziosista…

Jean Etxepare migratzailea zen, jatorriz, Ameriketatik etorria baitzen zazpi urterekin, ahaztu gabe haren gurasoak luzaroan egongo zirela Argentinan, hazkurria bildu arte Euskal Herrira itzultzeko[1046]. Migratzaile-izaera horrek idazleari nortasun berezia eman diolakoan gaude.

Adibidez, Jean Etxepareren kasuan, konplexuak dirudite euskaraz idazteko motibazio ideologikoek. Etxepare kolonoen semea izan zen Hego Ameriketan, Argentinan jaioa. Medikuari familia-historia nahaspilatsua iruteko modua suerta dakioke euskaraz idaztea. Euskaraz idaztea izan dezake Jean Etxeparek nortasuna sendotzeko hartzen duen moldea. Izan ere, herrialde hispanofonoan hazia, gaztelera ere bazuen hizkuntza han, antza, *Juanito* esaten baitzioten.

Jean Etxepare mugalaria zen pentsalari gisa, izaeraren ezaugarri askotan tarteko espazioetan bizitzea tokatua, ez ohikoak euskaldun estandar batentzat garai haietan. Ibilbide biografikoan medikuak baldintzapen bereziei aurre egin behar izan zien: gaztetan, Bordele hiri nagusian hezia unibertsitate-kulturan, Aldudeko nekazal herri txikian bizi izan zen lanean, ahaztu gabe eleaniztasunaren erronka, poliglota izan baitzen eguneroko jardunean elebakarren artean:

> "L´écriture en langue basque n´est-elle pas pour le jeune auteur, par delà l´enjeu technique réellement motivant pour lui, une façon de renouer les fils d´une identité personnelle singulièrement brouillée par une histoire familiale mouvementée?"[1047]

Argentina Europaren mendeko kolonia ez izanik ere, bertako jatorrizko biztanle indiarrei lurraldeak kentzen ari zitzaizkien Etxeparetarren moduko europarrak, abel-hazkuntza ezartzeko. Bazen Argentinan *melting-pot* iparramerikarraren antzeko fenomenoa, Europatik

---

1046 Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2016-05-21]

1047 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 518 or.

heldutako migratzaileak hainbat jatorritakoak baitziren[1048]. Etxeparek nortasun bat aukeratzeko premian sentituko zuen bere burua, XIX. mendearen amaieran; alde batera, fenomenoa da XXI. mendean gertatzen zaigun bezalakoa, non interkonektibitateak eta indibidualismoak aukera ematen diguten zeinek bere aiurria eta ezaugarriak taxutzeko, dauden eskaintza guztien artetik aukera eginda[1049]. Argentinak ere nortasuna zehaztu behar izan zuen, Espainiarekiko burujabe jarri zen egunetik aurrera (1810); ordea, kolonoak ugariak izan, eta identitateak anitz samarrak.

Literatur ikerketako korronte berriagoetara joz, kritika postkolonialaren kontzeptu batzuk egokiak izan daitezke euskaldungoak eta kultura gutxituek bizi izan dituzten egoerak ulertzeko: Homi Bhabha kritikariak zedarritzen ditu kolonia ohietan sortzen diren nortasun berriek dituzten ezaugarriak garai postkolonialean:

> "Son los hijos de los encuentros interraciales, los que hablan lenguas criollas, los híbridos culturales, que viven en un mundo físico y cultural que no es el de las civilizaciones tradicionales y tampoco el de las potencias coloniales. Estos nuevos habitantes del mundo rompen la dialéctica que oponía los unos a los otros, porque participan en ambas realidades. (...) La posición de estos individuos, que tradicionalmente se ha considerado poco ventajosa, ofrece, sin embargo, según Bhabha, una serie de potencialidades positivas. Se trata, en efecto, de un espacio de libertad en que no actúan las constricciones habituales y que por eso es particularmente creativo. En estos "espacios-de-en-medio" es posible imaginar nuevas estrategias identitarias más flexibles. Este discurso se puede pensar en términos de identidades nacionales, pero también sexuales o de clase"[1050].

Hari horretatik tiraka, ikusiko da zein diren Etxeparek euskal letrei ekarri zizkien berrikuntza baliosak, bidegurutze horretan egin beharreko hautuen ondorioz.

Ezaguna da Frantziako erdiguneak zeraman politika jakobinoa, Hexagonoko lurraldeak bateratzeko, nahiz eta politika homogenizatzaile hori txandakatu memento erregionalistago

---

1048 Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2016-05-21]

1049 Identitatearen panorama bat literaturan in: Esparza, I. eta José Manuel López Gaseni. (2015). *La identidad en la literatura vasca contemporánea*. Bern. Peter Lang. Sarrera gaiaren gaurko egoeraz dihardu.

1050 Neri, F. (2002). "Multiculturalismo, estudios poscoloniales y descolonización" in: Armando Gnisci (arg.). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 413 or.

batzuekin. Horregatik, Euskaltzaleen Biltzarreko ikastunek senti zezaketen aisa nortasun-kinka bat, hizkuntza, ohiturak eta bestelako euskal tradizioak kolokan jartzen ari zirenean:

> "La singular crisis postcolonial de identidad nace con la preocupación por el desarrollo o la recuperación de una relación significativa y eficaz entre el yo y su lugar. De hecho, algunos críticos, como D. E. S. Maxwell, han hecho de ello el modelo que define lo postcolonial. Los efectos del desplazamiento como resultado de la emigración, la esclavitud, la deportación o el traslado "voluntario" en búsqueda de trabajo pueden mermar el sentido de una activa identidad personal. Esta puede haber sido destruída a causa de la denigración cultural, es decir, la opresión consciente o inconsciente de la personalidad y la cultura indígenas por un modelo racial o cultural que se supone superior. (...) el sentimiento de estar dentro y fuera de lugar, así como una preocupación profunda con los mitos de identidad y de la autenticidad, constituyen los rasgos comunes a todas las literaturas postcoloniales en inglés"[1051].

Giro horretako gaiak ezagunak ziren Euskal Herriko literaturan, adibidez, Arturo Campiónen *El ultimo tamborilero de Erraondo* (1917) liburuan, non danbolin-joleak ez du errekonozitzen Erraondo bere herria, Argentinara joan eta gero, bueltatzen denean, erdaldundu egin baitzaio zeharo jaioterria[1052]. Hori da adin bateko euskaldunok hurbiletik ezagutu dugun fenomeno errepikakorra, gazteagoek ere ezagut dezaketena. Beraz, Euskaltzaleen Biltzarreko kideen sentipena ez zen ezezaguna Euskal Herrian, osotasun gisa hartua.

Idazlea da, beraz, bizilekuz aldatua: etorkina; areago, gurasoen kultura gutxitura itzuliko den migratzailea, Jean Etxepareren gurasoak Iparraldean jaio baitziren biak.

Ez bakarrik Argentinan bizi behar izan, Etxeparek Bordelera ere migratu behar izan zuen unibertsitatean medikuntza ikastera (1894-1901). Horren ondorioz, Etxepare gaztetan bilakatu zen Bordelen ikasitako unibertsitari gisa, metropoli bateko pentsaera molde batean hezia, areago, medikuntza-ikasle urduriak egin zituen orduko pentsalari garaikideen irakurketak kontuan hartzen badira, Etxepareren bizi-giroa aztertzean ikusi den bezala.

1051 Ashcroft, B. et al. "El imperio contraescribe: introducción a la teoría y la práctica del postcolonialismo" In: Vega, M. J. eta Carbonell, N. (arg.) (1998). *La literatura comparada: principios y métodos*. Madrid. Gredos. 184 or.

1052 Antón, J. J. L. (1996). "El último tamborilero de Erraondo": la aculturalización psicológica y física de Navarra". *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 28(67), 103-114.

Migratzaileen bizi-esperientzian izan ohi dira nork bere burua definitzeko hamaika gorabehera, eta horiek ikertuko ditugu, une batez. Migratzaileek kolonia (ohi)an egokitu behar izan dute bertakotuz, agian; baina beste hainbat esperientzia pareka dakioke egokitzapen horri, adibidez, Euskal Herrian, amerikano edo indianoen egokitzapen identitarioak Ameriketatik bueltan. Gainera, migratzaileak ez dute oro bat egiten; Etxepareren kasuan, migratzailea ez da izan konkistatzailea Europako erresuma-inperio bat zabaltzeko zentzuan (Frantzia, Espainia, Bretainia Handia…), esan baitaiteke migratzaile ekonomikoa dela, baina, hori bai, metropolietako kolonizatzaileak izan ohi ziren bezalakoa gehienbat, alegia, metropoliko aukerak baino mauka ederragoen bila abiatuak bigarren eta hirugarren munduko lurraldeetara. Adibidez, hala Iparraldean nola Hegoaldean, laborari gazte askok aukera gutxi zituzten arbasoen lanbideetan duintasunez irauteko: horrela azaltzen baita euskal diasporako migratzaileen kopuru handia.

Kolonoen esperientzia identitarioen bila historian barna murgilduta, ohargarria da, adibidez, ingeles-inperioan, nola kolono ingelesak beren nortasun bereziaren bila abiatzen izan diren, metropoliko korronte ingeles nagusia alboratuta, sentitzen zuten alienazioaren kausaz[1053]. Etxeparek berak ere sarri ditu gogoan migrazioaren inguruko gaiak idazkietan, sintomatikoki: Kanadako berriak; Ameriketako abere-tratuak; Argentinako haurtzaroa gurasoekin; migratzaileen baldintza sozialak; itsasgizonen balentriak; Gerra Handira joan behar-eta, mobilizazioan jasotako jakingarri ekonomiko frantsesak…

Beraz, idazkien gaien aldetik ere Jean Etxeparek hirugarren espazio bat sortu zuen. Bakarra izan zen hainbat arlotako informazioak jasota euskaraz, hau da, Etxeparek jite berezia zuen, batetik, euskaldun gisa gizarte nagusiki frantses batean, eta, bestetik, migratzaile gisa euskal gizarte nagusiki tradizional batean.

Euskaldunen artean ere, Etxepare *rara avis* bat zen. Hau da, Etxepare ez zen haiek/gu dikotomian kokatzen, baizik eta negoziazio arduratsu batean, identitate propioa eraikitzeko, kolonoei gertatzen zitzaien bezala beste lurralde batzuetan:

1053 Ashcroft, B. et al. "El imperio contraescribe: introducción a la teoría y la práctica del postcolonialismo" In: Ramos, M. J. V., eta Carbonell, N. (1998). *La literatura comparada: principios y métodos*. Madrid. Gredos. 185 or.

"ambivalence and hibridity have continued to be useful amongst post-colonial critics because they provide a subtler and more nuanced view of colonial subjectivity and colonial relationships than the usual "us" and "them" distictions"[1054].

Diskurtso postkoloniala ez da berria euskal letretan. Kolonien askabidearen inguruko interesa aspaldi sortu zen Euskal Herrian, bereziki Aljeriako gerraren ondorioz sortu zen bultzada antikolonial hartan, Jean Paul Sartrek *Orphée noir* (1948) idatzi zuenean[1055]. Gure artean, Larresorok itzuli zuen euskarara aspaldi Albert Memmiren (1920-) *Kolonizatuaren ezaugarria*[1056], nahiz eta itzulpen-kalitatearen aldetik gaur egungo prosak egokitasunean irabazi duen; ez alferrik, teoria postkolonialak tresnak baitakartza subjektibitatearen eta koloniaren arteko harremanak modu sotilago eta ñabardura gehiagorekin aztertzeko[1057].

Izan ere, ikasketa postkolonialek galderak egiten dituzte, ez soilik kolonia ohiei buruz, baita nonahiko gizakiek gainerakoekin harremanetan sartzeko moduari buruz ere. Horretara, ikasketa horiek aztertzen dituzte koloniak izan-eta, autonomia erdietsi duten herrialdeen gorabeherak[1058]:

"La distinción en grupos contrapuestos no tiene, pues, ningún significado, porque la identidad se redefine y renegocia continuamente según las situaciones. Esto es aún más cierto, como ya se ha dicho, para los que viven en una situación marginal, como por ejemplo las comunidades minoritarias dentro de un estado-nación o las que viven en las fronteras entre estados, pero vale para todas las identidades, tanto colectivas como individuales, que no pueden agotarse nunca en una simple pertenencia"[1059].

1054 Ashcroft, B., Griffiths, G., & Tiffin, H. (2003). *The empire writes back: Theory and practice in post-colonial literatures*. London Routledge. 206 or.

1055 Moura, J. M. (2013). *Littératures francophones et théorie postcoloniale.* Paris. PUF. "Introduction".

1056 Albert Memmi (1974). *Kolonizatuaren ezaugarria*. Oñate. Editorial Franciscana Aranzazu.

1057 Ashcroft, *B.*, Griffiths, G., & Tiffin, H. (2003). *The empire writes back: Theory and practice in post-colonial literatures*. London Routledge. 206 or.

1058 Metodologia postkolonialaren aurrendaria izan da Homi K. Bhabha Harvardeko irakaslea; hor dago, adibidez, Bhabha, H. K. (2012). *The location of culture*. Routledge. Frantz Fanonen eta Edward Saiden ideiak berrikusten ditu liburuan.

1059 Neri, F. (2002). "Multiculturalismo, estudios poscoloniales y descolonización" in: Armando Gnisci (arg.). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 429 or.

Kreolizazio horren barnean ere sartzen dira hirugarren espazioan dauden pertsonen hizkuntza-hautuak. Azken batean, Jean Etxepare kriolloa zela esateak badu egiaren itxura bat, kulturalki bederen, guraso biak europarrak izan arren, Jean Etxepare argentinarra baitzen.

Berbaldiaren une honetan, sarbidea eman dakioke *location* kontzeptuari. Kritika postkolonialak *location* kontzeptua darabil adierazteko idazle baten kokapena, idazlearen idazkietan islatuko baita. Kokapen hori idazleak objektiboak eta unibertsalak izateko oztopo gisa interpretatu badaiteke ere ikuspegi garbizaletik, kritika postkolonialak positibotzat dauka. Idazle horiek bizi dira tarteko eremuan, ez daude kolonizatuta, baina metropoliaren gunean ere ez daude. Esan liteke euskararen eremua honelako kontzeptu emankorren bidez uler daitekeela[1060].

> "Whatever its function as an academic discourse, we need to ask how well it [location kontzeptuak] has served to empower post-colonial intellectuals and assisted in implementing strategies of decolonization"[1061].

Jean Etxepareren ildo berritzailea da, euskalduna izateko modu ineditoa baitzuen bere garaian. Kultura tradizionalaren monokultibotik ateratzeko saioa egin zuen. Izan daiteke idazleak jorratu zituen zenbait gai datatuta egotea; hala ere, gaur egun idazlearen etsenplua baliagarria izan daiteke, kulturen gurutzebidean euskaldun irauteko. Gaur egun ere, kulturen gurutzebidean irauteko saioa egin beharrean baitago euskal idazlea, formulak asmatuta barnebiltze geldian erori gabe.

> "La criollización exige que los elementos heterogéneos puestos en relación "se intervaloricen", que no haya degradación o disminución del ser, tanto por dentro como por fuera, en este recíproco, continuo mezclarse. [Oin-oharra: É. Glissant, Poetica de lo diverso, p.17]"[1062].

1060 Neri, F. (2002). "Multiculturalismo, estudios poscoloniales y descolonización" in: Armando Gnisci (arg.). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 415 or.

1061 Ashcroft, B., Griffiths, G., & Tiffin, H. (2003). *The empire writes back: Theory and practice in post-colonial literatures*. London Routledge. 203 or.

1062 Neri, F. (2002). "Multiculturalismo, estudios poscoloniales y descolonización" in: Armando Gnisci (arg.). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 431-2 or.

Kreolizazioaren edo hibridazioaren bidetik doaz Etxepare honen hautu linguistikoak ere, adibidez, neologismoak: hibridazioa, metropoliko hizkuntzalaritza-zientzia baten eta idazte-praktika behe-nafar baten artean. Lexikoaren arloan, esaterako, erabili zituen Hegoaldeko hitz Iparraldean usatu gabeak, hitz zaharkituak ala neologismo hutsak (*beribil*, 1908n Iparraldean lehenengoz datatua). Antza denez, Jean Etxepare lexiko-sorkuntzan saiatu zen bere kasa, hasiera batean berak bakarrik erabiliko zituen hitzak sortuta[1063].

Bestetik, Aldudeko hizkera aztertzen lagundu zion Georges Lacombe lagunari, herritarrei galdeketa linguistikoak eginda, baserritarrei arras bitxia iruditzen zitzaiena, ezin ulertuta nola mediku jauna huskeria zentzugabeetan ari zitekeen:

> "Bai miriku on eta artatsua egiten zuten, bainan bitzia. Euskal izen-keta zabilan: Heldu (sic) zitzaizun etxerat lore batekin edo belar-ondo batekin, edo harri muger batekin, jakin nahiz nola Aldudarrek emaiten zioten izena.
>
> Maiz iduri zuen nonbait galdua. Behor bat zuri-zuria bazuen erien ikusterat joateko. Askotan eskapatzen zitzaion eta haren ondotik bazabilan orduan lasterka: “Honorine! Honorine!” dei egiten ziola. (…) “Vous savez que je ne suis pas méchant. Tenez, prenez moi ce sucre!”"[1064].

Hipotesi gisa, aurreratu daiteke *Honorine* behorraren deitura idazlearen kezka sakon baten isla dela. Mediku nolabait disidenteak jarritako izenak salatzen du ohorea begiratzeko eta beraren garrantziaz oroitzeko premia gizarte hertsi samar batean, bizimodua aterako bazuen medikuntzatik. Medikuak eguneroko bizitzan zehar izen ona kolokan ikus zezakeen, eta horren ondorioz sufritu ere bai, gizarteko hirugarren eremu ideologiko batean kokatu zenez geroztik. Aipagarria da berdin nolako erridikulua egiten zuen baserritarren aurrean, behorrak alde egiten ziola[1065].

Ikusten denez, gainera, Etxeparek zamariari frantsesez mintzo zitzaion. Uste izatekoa da andreari, ahaide politikoei eta lagun askori frantsesez mintzatuko zitzaiela, euskaltzaleei izan

---

1063 Kerejeta, M. J. (1987). “J. Etchepare” in: Etxepare, J. *Beribilez*. Bilbo. Euskal Idazleen Elkartea. 27 or.

1064 Lafitte, P. (1984). “J. Etchepare jaun miriku zena (1877-1935)” in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935). idazlanak. I, euskal gaiak*. Donostia. Elkar/Euskaltzaleen Biltzarra. II or.

1065 Zebrowitz, L. A. (2007). “Impression formation” in: Baumeister, R. F., & Vohs, K. D. (Eds.). *Encyclopedia of social psychology*. California. Sage Publications.

ezik. Alde batera gaurko gisara, alegia, euskaldun eleaniztuna zen bizimoduz, ez euskaldun elebakarra.

Jean Etxepareren izaera mugalariaren beste erakusgarria bat da andrearekin zituen istilutxo domestikoak idazteko lanaren harira. Andrea Fernande Camino zen, itxura ona ematearen zalea (*les bienséances*) eta eskandaluen kontrakoa, dirudienez, eta ez bide zitzaion *Beribilez* erabat "behar den modukoa" iruditzen, horrela zuzentzen baitzaio Jean Etxepare Piarres Lafitte lagunari:

> "Jaun apeza,
>
> Azkarkisko arizan zatzaizkit, egun hoitan, ene liburuñoaren [*Beribilez*] laudatzen. Zinez etzait iduri -ez zuhauri ere, arabez- hainbertzeren gai zela. Pollita da ba eta sakona (erran nahi baita zaku barne handikoa) bainan gehiagokorik ez. Mintzaia ere baditake ontsa erabili dutan. Bethi, ahal nuen guzia egin dut. Osoki alferretan ez othe? ....
>
> Esker mila halere zure laudorioentzat, ez baitut behinere ukan hanitz deusetan.
>
> Zama handisko bat kendu dautazu bertzalde bizkarretik. Ene emazteak etzituen begi onez ikusten liburuttoan agertu ditudan xehetasun zonbait. Eta horra non garbikiago oraino dituzun errepikatu, frantsesez! Eztitu zait emaztea. Bazinaki ordea zoin hasarre den orai zuretzat!..
>
> Ikus artio, eta izan ontsa.
>
> Dr. J. Etchepare"[1066].

Etxepareren adierazpide linguistikoa ere nabarra zen; Piarres Lafitte "dizipuluaren" esanetan idazteko maisuak hizkera (ahozkoa eta idatzizkoa) zurruna zuen, aristokratikoa nolabait, ez erabat herritarren araberakoa[1067]. Izan ere, Lafittek aitortzen zion hizkuntza-

---

1066 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 20-VII-32ko gutuna.

1067 Lafitte, P. (1941). "J. Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas" sarrera in: Jean Etxepare.. (1980). *Buruxkak*. Donostia. Elkar. 12 or. Agian, Jon Casenavek dioen bidetik tesiaren ondorioetan, interesgarria izan daiteke medikuaren hautu

soinekoaren balioa *Beribilez*i: *elocutio*, ez *inventio*, haatik, esan baitu Etxepare zaiola "*maître à écrire*", Mathieu monsinorea "*maître à penser*" zaion bitartean, idazlearen bizi-giroari buruzko atalean aipatu den bezala. Era batera, Jean Etxeparek Raimundo Olabide (1869-1942) gogorarazten du, Bibliaren itzultzaile euskaldun berriaren euskara zehatza eta garbia, baina zurruna.

Balantzaren beste aldean, ezaguna da Piarres Lafittek egin zuen aukera hizkera herrikoiaren alde, irismenean zeuzkan balizko euskara jasoagoak baztertzen zituela, euskara herrikoi horretan erredaktatu nahi baitzuen berak sortutako *Herria* aldizkaria (1944). Bidenabar esanda, Piarres Lafitte herri-hizkeraren zalea, ezkor samarra zen euskararen etorkizunaz, hizkuntzaren merkatuan beherapenetan arituko balitz bezala, Jean Etxepare ez bezala. Egia da, guztiarekin ere, Jean Etxeparerena bezalako prosa jasoak lanak dituela ulertua izateko gaurko gazte-sektore batzuentzat, bereziki Iparraldeko tradizio idatzi batu nagusia den behenafar-lapurtera ezagutzen ez dutenak memento honetan. Geroak esango.

Erlijioarekiko jarreren kontuan ere, Jean Etxepareren kokapena bakan samarra zen Iparralde euskaldun fededun hartan, laikotasuna eta agnostizismoa gehienbat frantsesez mintzo zirela, eta "erreakzioa", aldiz, euskaraz, breizeraz, alsazieraz eta bestelako *patois*etan, jakobinoek ziotenari jaramon eginez gero. Azpimarragaria da Etxeparek *Beribilez*en izan dezakeen jarrera anbiguoa, adibidez, jesuiten alde eginez, baina ez ñabardurarik gabe. Gure ustez, Etxepare muga ideologikoak zeharkatzen duen idazlea denez, anbibalentzia darakus, besteak beste, erlijio-kontuetan ere[1068].

Loiolara egiten duen *Beribilez*eko bidaian, idazlea ez doa erromes arrunta bezala debozio hutsez gainezka. Izpiritu nahiko kritikoa du erromes gisa, ikusi den bezala. Hala ere, ezin saihestu Loiolara bidaia Euskal Herriaren ideario batean, bizi zen gizarte hartan esangura sinboliko handia zuen-eta.

---

linguistikoak soziolinguistikaren bidetik interpretatzea: Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) *de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. 518 or. Agian, kreolizazio kontzeptuak Jean Etxepareren literatur jokabidea –eta beste batzuena- ulertzeko modua erraztuko luke. Ikusi, adibidez, "Creoles" sarrera in: Mesthrie, R. (2001). "*Concise Encyclopedia of Sociolinguistics*. New York. Elsevier Science.

1068 Anbibalentziaren beste kasu bat aztertua Peruko kasuan in: Snauwaert, E. (2012). "Entre distanciamiento y participación. El estereotipo de la diferencia entre América Latina y Europa en la obra de Alfredo Bryce Echenique". in: Lie, N. et alia. (2010). *El juego con los estereotipos*. Bruxelles. Peter Lang. 301 or.

Fedearen inguruko zalantzak eta anbiguotasunak planteatzea XXI. mendeko Euskal Herrian, pentsa dezake norbait, garaiz kanpo dago. Hala ere, oraindik ere, bihotz altxagarria iruditu dakioke norbaiti, ezagututa kristautasunak gure artean dituen erro sakonak. Ordea, laikotasunaren ibilbidean mugarriak bila daitezke; eta hor dago Jean Etxepare bideak urratzen.

5.3.3. Frantsesaren estereotipo bi

5.3.3.1. Frantximanta

Bidaiariak joan dira tabernara, santutegia bisitatu ondoren. Han, frantses bitxi bat mintzatu zaie ausarki samar *frantximanta,* jesuitekin kritiko eta kexu haien jabetzapeko ostatu-zerbitzuaz[1069]; erantzunez, medikuaren lagun batek frantsesaren figura kritikatuko du bere txandan.

Frantximantaren estereotipoaren bitartez plazaratzen da *Beribilez*en identitatearen auzia, elkarren ondoan jarrita euskalduna eta frantsesa.

Berriz ere, Etxeparek bigarren mailako pertsonaien ahotsean eman nahi du iritzi polemiko samar bat, "Zirikando" (zirikatzen) baitu *Beribilez*eko atal horrek izenburua. Batetik, turista frantses baten, eta, bestetik, autokide baten ahotik jasoko ditu irakurleak, hurrenez hurren, jesuiten eta frantsesen estereotipo "min"-garriak[1070] izan daitezkeenak.

Lehenik, jorratuko da jesuiten estereotipo antiklerikal bat, alegia, jesuita diru-gosea eta goi-klaseen laguna. Ondoren, iruzkinduko da frantses buruarina arbuiatzeko estereotipo bat.

Etxepareren prozedura da estereotipoak jasotzea paperean, segidan ikuspegi orekatuak proposatzeko irakurleari. Bi kasuetan, idazlea bere garaiko gizartean zabal zebiltzan estereotipo bi horiek zuzentzera dator, alegia, jesuiten aldera errespetua eskatzera dator, eta frantsesaren figura kaskarra duintzera beraren izen ona berrezarriz.

5.3.3.1.1. Jesuitak eta Voltaireren biloba

Hona frantximantaren komentarioa Etxepareri, Ignazioren etxean kanoi txiki bat ikusten dutenean bisitan; nabaria da jesuitei egozten zaien politika klasista:

1069 *B*. 69 eta hur.

1070 *B*. 71 or.

"Hainbertzenarekin, ene aldeko ikusliar baten [frantximantaren] hitz hauiek jotzen dautate beharria frantsesez:

—Ehun debruak berekin dituzte Jesuistek. Bazterretan dituzten komentu guziak holaxe zainduak dauzkate, beherean kanoiez, gainean aldiz mitrallusez. Orroaz jauzi baledi egun edo bihar jende xehea, baluzke hemen azpitik odoletan idukitzeko gupida ez litzaizkiokenak!

—Ori, diot ihardesten mintzai berean, izan bedi norbait iharduk lezokena: oilo batzu bezala iziturik lasterka bailoazke ihes, jende handien hogoietarik hemeretziak!"[1071].

Ez bakarrik klasistak, jesuitak diru-zaleak ere badira:

"—Hau da, hau egiazki Jesuisten kafea! dio bazterretik frantses harroak. Nahi dituzten sos guziak biltzen beren museoa erakutsiz, horma puska baten kraskatzeko aldiz mailuxkarik ere ez! Sakelak bethe ondoan, arrats guziez sorhopil huntan, gehiagoko deusen axolarik gabe, diren bezalakoek egiten ahal dituzten jauzi-putinkak! Madarikatuen gatik, egarriarekin hiltzea luke hemen gizonak"[1072].

Turista frantses hori bera tabernan topako dute geroxeago bidaiariek; kexu da Loiolako ostatuan jasotzen ari den zerbitzu berankorraz. Jean Etxepareri frantximantak Voltaire dakarkio gogora ("Ez dakit zer bidez, Voltaire zenaren orhoitzapena heldu zait gogora. Haren ilobasoetarik bat ditake gure auzoa"[1073]).

Animalia baten traza hartzen du frantximantak narratzailearen hitzetan:

"Bere ezin-egonaz urtxintxa bat zirudiela baikinion oixtian, orai mathel, begi, esku eta zangoen igitzetik ximinoa dirudi"[1074].

Azkenik, zerbitzariak ekarritako edariaren eraginez, "Voltaireren ilobasoa elizako saindu bat bezain geldi dago eta ixil, orai, bere kaderan (…) Ihizi on baten aurpegia daukalarik,

---

1071 *B*. 58-59
1072 *B*. 70
1073 *B*. 71
1074 *B*. 72

etzait iduri halako gizon gaixtoa dela”[1075]. Bestalde, da jendetasunik gabea, narratzailearen ustez, gaizki esaka baitabil zuzen kontra.

Hala jesuitak, nola frantsesak eskematizatuta daude, erridikuloski deskribatuta. Turista frantsesak eta Etxepareren lagunak baliatzen dute eskema soila, animalizazioa, estereotipatuen iritzien deuseza azpimarratzeko.

Pentsa liteke frantximantak Kanboko bidaiariei zuzentzen dien berbaldiaren mamia jesuitei buruz barra-barra zebiltzan topiko antiklerikalen oihartzuna dela.

Imagologiak dio herrialde imaginatuak balio diola abiapuntuko herrialdeari, bere arazoak erabakitzeko (*rêverie*). Pentsa liteke jesuiten inguruko tirabirak Loiolako solasaldietan agertu arren, Frantzian pil-pilean zegoen Elizaren eta estatuaren arteko talkaren atal batean dutela jatorria: jesuitak.

Frantzian Espainiak duen irudia mintzagai duela, ikerketak argitu digu Espainiako historia erabilia izan dela Frantzian nagusia zen pleguaren arabera, unean uneko arazo frantsesak ebazteko moduan:

> “Last but not least, la Historia específicamente francesa resulta tan determinante como la Historia española. En muchos casos son las circunstancias políticas francesas las que hacen que se acuda a ésta [la historia española], en particular a sucesos más o menos antiguos, para posicionarse de forma indirecta con respecto a la actualidad francesa"[1076].

Jean Etxeparek jesuitak jartzen ditu jomugan, antiklerikalismoaren tematika guztiaren artean puntu hori aukeratuta, horretara Iparraldeko gizartean pil-pilean zegoen auzi bati oratu dio. Antiklerikalismoaren figura nagusitzat jotzen da sektore batzuetan Voltaire filosofo ospetsua, Frantzian. Hona orduko giroaren argazki bat:

> "Terminadas éstas [las catastróficas guerras de religión] sin una derrota completa de la herejía, los males, inevitablemente, llovieron sobre la Europa protestante:

1075 *B*. 72

1076 Boixareu, M. eta R. Lefere (koord.). (2002). *La Historia de España en la Literatura Francesa*. Madrid. Editorial Castalia. 837 or."Conclusiones. I. Temas históricos y temas literarios"

germinaron allí ideas absurdas y pecaminosas, como la tolerancia -que pone al mismo nivel la verdad y el error -o la fe en la razón y el progreso -basada en una insensata confianza en la capacidad humana de rectificar el orden establecido por Dios-. El fin último de aquellas empresas intelectuales había sido destruir las religiones, y en particular la cristiana, como demostraban las agresiones y burlas a la santa Iglesia de Dios por parte de Voltaire, cuyo solo nombre evocaba la maldad de todo un siglo"[1077].

Zehatzago esatearren, jesuitek, Lagundiaren ibilbide historikoan, aurkitu dituzte aurkari famatuak Frantzian, eta bestetan ere bai, bide batez esanda: Frantzian, nagusiki Pascal, Nicole, Voltaire, Michelet eta Quinet. Pertsonaia historiko horiek irudikatzen dute erlijioaren eta kulturaren arteko talka. Adibidez, Pascal jansenistaren ustez jesuitak laxistak dira[1078], hau da, pekatuak kudeatzerakoan kasuistika baliatzen dute, beren eragina zabaltzeko politikaren eta boterearen gizarte-esparruetan. Pascalen ustez, jesuitak, pekatuaren penitentziak ipintzean, eskuzabalegiak ziren penitentziarekin, kasuan kasuko zirkunstantziek arau orokorrak baztertzea zilegi egiten zutelako. Bestetik, jesuitei egotzi zaie luzaro klase boteretsuen aliatuak izatea.

Jesuitak, bestalde, ultramontanoak izatea gertatu da, hau da, klerikalak, Elizaren edozein zaharberritzeren kontrakoak, gizartean burgesiaren botere sekularizatzailea hedatzen ari zen memento hartan. Aurrekarien atalean aipatu denez, Etxepare bera klerikalismoaren aurkari agertzen zen, baina soilik Lacombe lagunari eginiko gutun pribatu batean, 1905ean[1079]. Jesuiten ultramontanismoak bat egingo zuen Espainian alderdi integristarekin, katolikoetan muturrekoena. Beraz, *Beribilez* da jesuitei buruzko sentimendu gutxi asko topikoen erakusleihoa. Pío Baroja Etxepareren garaikideak ere antzeko aburuak jaulki zituen 1898n[1080].

1077 Álvarez Junco, J. (2001). *Mater dolorosa. La idea de España en el siglo XIX.* Madrid. Taurus. 368 or.

1078 Pascal, B., & Nicole, P. (1700). *Les Provinciales*, Ou Lettres Ecrites Par Louis De Montalte A Un Provincial De Ses Amis, Et aux RR. PP. Jesuites sur la Morale & la Politique de ces Pères.

1079 Xarriton, P. (1995). "Fonds Lacombe: les lettres du docteur Jean Etxepare (2-6-1905; 4-3-1932)". *Bulletin du Musée Basque.* 140-144. 1. gutuna 1905-VI-02

1080 Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio. "Ultramontanos" sarrera.

5.3.3.1.2. Etxepareren jarrera

Helduaroko bere filosofia patxadatsuari men eginez, 1928ko Etxeparek modulatu egiten du jesuiten aurkako iritzi kritikoaren zurruna, baina ez du baztertu nahi haren aipatzea, koherentea izan nahian bere egiaren bilaketa karakteristiko harekiko: modulazio hori bera ageri baita *Beribilez* bertako beste pasarte batzuetan ere. Etxeparek jesuiten aldeko eta kontrako iritziak jasotzen ditu: aldekoak narratzailearen ahotsean, eta, kontrakoak, frantximantaren bidez, narratzailearen eta irakurlearen bitartean jarritako pertsonaia kasu honetan.

Etxepare zorrotz agertzen da ziri antijesuiten kontra:

> "Jesuisten erakaspenari edo sinesteer berer sistako baten emaitera loake segur bere mihi ozpinduaz [frantximanta], -bihotzean min egiten duten, eta sekula nehori-buruz igortzeko ez litazken sistako hetarik"[1081].

Agian, ez da gaur-gaurkoa eztabaida antijesuita hori[1082]. Izan ere, gaur egun, jesuiten kopurua murriztu egin da nabarmen Europan, nahiz eta munduko beste herrialde batzuetan ugaritu egin diren: India, etab.; orain, Loiolan bertan jesuitak urriak dira eta adinekoak[1083].

Nolanahi ere, Loiolan topatutako frantses hau da antiklerikala, nahiz eta baziren frantses zuriak ere: *Eskualduna* aldizkari arrakastatsua, esaterako, *Action française* eskuindarrarekin lerratu zen Gerra Handian[1084].

Kanpokoaren estereotipoak balio dezake talde-kohesioa lortzeko, eta frantximantaren kasu honetan frantses gaizki esalearen estereotipo honek duen balioa izan daiteke euskaldun fededunen taldeko kohesioa areagotzea, eta, horregatik, ohiko estereotipo errepikatua izatera iristea orduan[1085].

1081 *B.* 71

1082 Bertrand, D. (2007). "Ignace de Loyola" in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.). *Dictionnaire des religions*. Paris. PUF.

1083 Juan Bautista Mendizabal Loiolako gidarekin solasa. [2016-07-30]

1084 Bidegain, E. (2013). *Lehen mundu gerra "Eskualduna" astekarian*. Bilbo. Euskaltzaindia.

1085 Schröder-Abé, M. eta Astrid Schütz. "Collective Self" in: Baumeister, R. F., & Vohs, K. D. (Eds.). (2007). *Encyclopedia of social psychology*. California. Sage Publications. 155 or.

Kontuan hartzekoa da, gaingiroki, euskaldungoa Iparraldean Elizaren tutoretzapean zegoela; beraz, politika klerikalean, manikeismo interesatutzat har liteke frantsesa den oro eta antiklerikalismoa berdintzeko estrategia, edota, benetan, fededunak hain zeuden sinistuta beraiek zeukatela euskaltasunaren monopolioa, non edozein desbiderapen arrotzei egozten zitzaien. Azken batean, esan liteke Euskaltzaleen Biltzarra "zuria" zela 1914 aurrean, apaizak baitziren bazkide talderik handienetako bat[1086]. Hipotesia da *Beribilez*en garaian ere berdin jarraitzen zuela "zuria" izaten Biltzarrak, ez baita ezagutzen bitartean haustura esanguratsurik.

5.3.3.2. Migratzaile frantsesa Ameriketan

Loiolako ostatuan, baloratu egiten du idazlearen lagun batek Hego Ameriketako lurretan migratzaileak nola moldatzen diren, euskaldunak eta frantsesak konparatuta iritzia ematen duela.

Lagunaren berbaldian, garrantzitsua da migratzaileek lanbide itxurosoak lortzea Hego Ameriketan, esan nahi baita, lehen sektoreko artzaintza eta nekazaritzako lanbideren bat, bederen. Hirugarren sektoreko lanbideak "zurruburruak" eta eskasak iruditzen zaizkio medikuaren lagunari, aberastasun nahikorik ez diotelakoan sortzen, ez herrialdeari, ez eta langileari ere. Areago, deskalifikazio borobila egiten du frantses gizakiaz:

> "Horra nolakoa den frantsesa:… bazter guzietan gizonkiaren desohoratzeko tresna bat. Ergela baizik ez balitz, ez litake oraino hanbat arranguratzekorik; bainan gaiztoa delakotz bertzalde, da ezin-jasana. Harrigarriak dira bere mihi txarraz, bere burujopeaz, bihurriaz, ihakin eta trufez, bere buruari lehenik eta gero bere herriari dakartzan kalteak. Horren gatik da bertze gizadi guzien artean gaizki ikusia. (…)

1086 Goyhenetche, J. (1984). *Les origines sociales et historiques d'Eskualzaleen Biltzarra (1893 - 1913).* Travail entrepris dans le cadre d'un contrat de recherche entre le Ministère de la Culture et l'Institut Universitaire de Recherche Scientifique de l'Université de Pau et des Pays de l'Adour. https://www.google.es/search?q=%22Les+origines+sociales+et+historiques++de+l%C2%B4Association+Euskaltzaleen+Biltzarra&ie=utf-8&oe=utf-8&gws_rd=cr&ei=ZGauVeOoM8GuesnLpYgM [2016-05-21]. 19 or.

Erran behar ere da ez dela langile handia; jarraikia, are gutiago oraino; unhatzea ez du maite, aho-xuria da, bertzeen enganatzea zaio guziz laket"[1087].

Linguistikoki, estereotipoak substantibatu egiten du adjektibazioa. Orokortu egiten du kasu jakin batean egia izan daitekeena. *Izan* aditzaren orainaldia (*da, dira*) da blokeatutako denbora baten erakusgarria, hau da, esentzietan kokatzeko asmoaren isla. Esentziak lortzen du kultura baten barneko adostasun handia. Estereotipoa aldaezina da, ez da harremanetan sartzen behatzailearekin. Horrexegatik lot daiteke nazionalismoarekin, esentzietan oinarritzen baita[1088], ari gara batez ere nazionalismo nagusiei buruz, nazionalismo gutxituak bestelako zerbait baitira, ikerlan honetan beste nonbait azalduta datorrenez.

Esentzia-bilatze estereotipikoan ezaugarri fisikoak munta handikoak dira. Aipatu dugu arestian frantximantaren animalizazioa, narratzaileak jasotzen duen deskribapen irrigarrian. Animalizazioak bidea zabaltzen dio interpretazio ideologikoari. Frantximantaren irudia komikoa da, animaliekin konparatzen baitu Etxeparek. Urtxintxa bezala bueltaka dabil tabernako eserlekuan, edaria ekartzen berandutzen zaizkiolako haserre. Henri Bergsonek idatzi zuen komikotasunaren sorburua dela errepikapen mekanizatua ("xiribolaka"), kasu honetan bezala -*ka* atzizkia baliatuta, animalizazioarekin batera[1089]. Eta Jean Etxeparek Henri Bergson irakurria zuen.

Ordea, estereotipoaren arartekotasuna ez da ezein herri ezagutzeko modurik onena.

Daniel-Henri Pageauxren arabera, estereotipoa komunikazio-gabezia baten seinalea da batez ere, besteak beste norabide bakarreko komunikazioaren seinalea delako bi kulturen artean[1090]. Ideologikoki estereotipoa da oso eraginkorra, ezaugarri urri batzuekin komunikazio handiena lortzen duelako.

1087 *B*. 71

1088 Herzfeld, M. (1996). "Essentialism" in: Barnard, A. eta J. Spencer (arg.): *The Routledge Encyclopedia of social and cultural anthropology.* London. Routledge. Esentizalismoaren debatea jada heldua da Euskal Herrira, adibidez, liburu honetan: Leoné, S. (2008). *Euskal Herri imaginario baten alde*. Donostia. Elkarlanean. Liburu horretan esentzialismoaren problematika lantzen da Nafarroako ikuspegi biri begira: nabarristena eta Nabarralderena.

1089 Bergson, H. (2007 [1900]). *Le rire*. Paris. PUF.

1090 Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: Brunel, P. eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris. 139 or. eta hur.

Estereotipoa erosoa da kognitiboki gizakiarentzat, ikerketa amaigabeak saihesten baitizkio. Hala ere, interesa dagoenean gizakiak izan dezake estereotipatua lehen eskutik eta hurbilagotik ezagutzeko premia, adibidez, muntako aferaren bat jokoan duenean.

5.3.3.2.1. Hirugarren sektoreko bilaua

Esan daiteke Jean Etxeparek landa-inguruko handiki apalen bozeramale bati ahotsa ematen diola autokidearen bitartez, Loiolako ostatuan frantsesari buruz ari dela. Landa-inguru horretan, lehen sektoreko emigrazioa da demografia-fenomeno nagusia, kopuruei begira, bigarren industria-sektorea sustraitu gabe baitzegoen, garai haietan orokortzen ari izanagatik.

Frantximanta ez da *Beribilez*en Lapurdiko kostaldeko turista eukitsuetarik bat, baizik eta apalagoa. Frantximantaren irudia da estereotipo bat frantsesaren euskal irudi bat ematen duena. Frantzia zabalekoak baziren Iparraldean 1928an, noski. Lore-Jokoak berak, ustez hain euskaldunak kritikak eman duen irudian, kanpoko turistei begira egiten ziren, ikuskari gisa, Euskal Herriak bildua baitzuen Europako etnia zaharrenaren ospea, eta exotismo kutsua baitzuen, ikusi besterik ez dago Baionako Euskal Museoan gordetzen dituzten Jokoetako afixak eta propagandak.

5.3.3.2.2. Etxepareren jarrera

Paragrafo hauetan, frantsesaren irudia Etxepareren begietan nolakoa zen aztertuko da. Etxepare euskal komunitateko partaidea zen, nahiz eta hanka bat kanpoan eduki, unibertsitate-komunitate frantsesean ere partaidea baitzen lanbidez eta zaletasun intelektualengatik. Batetik, *Beribilez*en hazta daitekeen beraren Frantziako ezaguera turistikoak erakusten du lurralde haietan ibilia zela oporretan ere: bestelako izkribu askotan Frantzia aipagai du, maiz. Ezin ahaztu zituen, bestetik, Gerra Handiak ezagutarazi zizkion Frantziako berriak eta lekuak.

Frantsesaren estereotipoaren kasuan, pentsa daiteke gizarteko eztabaida baten berria ematen digula, frantsestasunaren eta euskaltasunaren arteko lehiaren *status quaestionis* bat

("Zonbat aldiz ez ditut aditu ene lagunaren solasak, bertze batzuen ahotik! Ez dira segur oro gezurrak. Bizkitartean, ez nute nihoiz hunki barne-barneraino"[1091]).

Jean Etxeparek, aldiz, frantsesaren balioak zehazten dizkio irakurleari, alegia, "adimendu erne"-a eta "bihotz ona"on"-a[1092].

Nolanahi ere, Etxeparek nahi du zabal dabiltzan testigantzak jaso, nahiz eta ez izan gizabidetsuak, egiaren atzetik betiere, idazlearen goiburu ahaztezina bizitzan zehar.

Jean Etxepare frantses kulturari buruz abegitsua da, Frantziako kulturaren onuraz gogoeta egiten baitu modu positiboan, aipatu den bezala[1093]. Jean Etxeparek goresgarritzat dauzka frantsesak, deblauki dioenez, lagun autokide baten destainazko berbaldia gorabehera. Ohi bezala, idazleak bigarren mailako pertsonaia bat darabil iritzi gatazkatsuak plazaratzeko. Horretara, aitzakia izango da frantximantaren jokabide bitxia, frantsesei buruz narratzailearen lagun (anonimo) batek sekulakoak botatzeko. Etxeparek eztabaidaren azken buruan iritzia emango du:

> "Gizadi guzien artean frantses gizadia badaukat lehen, bat ez baita harek bezalako adimendu erne eta bihotz ona mendez-mende erakutsi izan dituenik. Nausi da bertze guziei. Ohart ez zitezin —eta ez dira ohartu nihoiz— nago bere izaitezko zilar bizia deusek hobeki gorde othe zezoken axaleko zanpailkeriak baino..."[1094].

Laburbilduz, *Beribilez*en, naziotasunak gizatasunarekin lotura dauka: adimenduarekin eta gizabidearekin. Jean Etxeparek estereotipoak kolokan jartzen ditu: lehengo batean jesuitarena gaitzetsi badu, oraingo honetan frantsesarena. Idazlea, ordea, herrian esaten dena jasotzen du (*vox populi*), nahiz eta ez izan politikoki zuzena giro batzuetan.

Jean Etxepare zubi-eraikitzailea da frantsesen eta euskaldunen artean, eta Bestearen gaitzespen errazegiek ez dute asebetetzen inola, badaki eta ez dela operatiboa barnebiltze euskaldun geldikorra.

1091 *B*. 72
1092 *B*. 72
1093 *B*. 95
1094 *B*. 72-73

5.3.3.3. Migrazioaren ikuspegi fisiokrata

*Beribilez*en, migratzaile guztiak ez dira euskaldunak, euskaldunak migratzaile frantsesekin konparatzen baititu narratzailearen lagunak. Beste honetan ere, migratzaile horien kritika zorrotza jasotzen da, bigarren ahots baten laguntzaz. Labur esanda, frantsesek Ameriketan hirugarren sektoreko lanetan dihardute: ez dute merezi lehen sektorean dabiltzan euskaldunen errespetua. Hirugarren sektoreko langileek aberastasunik sortu ez, eta, gainera, frantses jatorriko migratzaile horiek ez dira behargin jarraikiak.

Jean Etxeparek maite du herri mailan dabiltzan usteak jaso eta porroskatzea, direla sineskeriak, direla estereotipoak… Zorrozki aztertzen ditu, eta kalitate handiagoko proposamena egiten du, kasu honetan frantses-izaeraren laudorioa eginez.

5.3.4. Bi identitate ondoz ondo

Aipatua dugu Piarres Broussainen abertzaletasuna ezagutzen zuena Jean Etxeparek. Horren karietara, Piarres Xarritonek zalantzan jarri du idazlearen ikuspegi herrizalearen delako abertzaletasun hori ("Bere [Jean Etxepareren] idatzietan ikusten da ere ez dela abertzale: "Nire aberria Frantzia da". Euskal Herria txikia baita izateko aberri bat"[1095]).

Ordea, asimilazioa ez bide da gauza bera Jean Etxeparerentzat eta Sarkozy eskuin frantsesaren hautagaiarentzat:

> "Si l'on veut devenir français, on parle français, on vit comme un Français. Nous ne nous contenterons plus d'une intégration qui ne marche plus, nous exigerons l'assimilation. Dès que vous devenez français, vos ancêtres sont gaulois. J'aime la France, j'apprends l'histoire de France, je vis comme un Français, doit se dire celui qui devient français"[1096].

Etxepareren iruditerian, arbasoak Euskal Herrian zehar barreiatuta daude. Historia ere badarabil identitarioki: Orreagako planteamendua argia da menditarren alde, emigrazioaren pasartea ere bai euskal marinelen alde, beste atal batean aipatu dugunez.

Eman lezake arbasoen eztabaida hau modernotasunarekin iraungia dela, izan ere, berritasunaren erabateko nagusigoa dakar modernitateak Octavio Pazen arabera, eta arbasoak nolabait atzentzea gizarte tradizionalak egiten zuen kontrara[1097]. Hala ere, globalizazioaren garaian hainbat jatorritako jendea elkartzen denean, pil-pilean dago elkartasun horren izaera gatazkatsua, egunkariak irakurrita erraz antzeman daitekeenez. Badirudi identitateen beste ikuspegi bat izatera derrigortuak gaudela.

Etxeparek zegokion historiaren unean ikuspegi etnizista moduko bat aldezten bazuen ere alde batera, badirudi aspalditxotik nortasunaren ikuspegi hibridoago bati oratzea tokatzen zaiola XXI. mendeko gizakiari. Guztiarekin ere, Jean Etxepare kontraesankorra begitantzen

---

1095 Murua, I. (1996). "Piarres Xarritoni elkarrizketa". *Jakin* 97. 125 or.

1096 Sarkozy, N. 19/09/2016 à 21:39 | Le Point.fr http://www.lepoint.fr/politique/sarkozy-des-que-l-on-devient-francais-nos-ancetres-sont-gaulois-19-09-2016-2069682_20.php [2017-01-18]. Beste adibide baterako: *France culture* irratian "Les cultures de l´Islam" programa 2015-II-20.

1097 Paz, O. (1974). *Los hijos del limo. Del romanticismo a la vanguardia*. Barcelona. Seix Barral.

zaigu batzuetan, Eskualtzaleen Biltzarreko burulehen gisa kontsigna etnizistak bota arren, *Beribilez*en badirudi ikusmolde kontraktualistari eusten diola Legeari munta handia emanez, gizakien arteko joko-arauen bilduma gisa, ohiturak bigarren planoan geratzen direla. Eboluzio baten seinalea izan daiteke idazlearen baitan, ala biltzar hartako burulehenak ordaindu beharreko bide-sari ideologikoa sakoneko bere sinesteekin erabat batera ez zetorrena. Behin baino gehiagotan aurkitu zuen Jean Etxeparek bere burua inguruko giroari men egiteko premian, agian, gorago azaldu den *als ob* (alegia-eta) Hans Reichenbach positibista enpirikoaren goiburuari men eginez orain ere, egia zehazki zer den ez dakiguno, azaldu den bezala beste nonbait lan honetan.

Guretzat, kontua da zehazten asmatzea zer ote den nazio-identitatea XXI. mendearen hasieran. Orain badirudi arazoa memoriaren terminoetan planteatzen dela gehiago, ezen ez genealogia batean[1098], hau da, kulturaren jarraigoan, ulertua zerbait semiotiko eta material gisa, etniaren (*arraza* esaten zen lehen) eta odolaren ahalmen batzailea gaindituta, zaharkinak direlakoan. Badirudi kulturaren jarraikitasunean hizkuntza-komunitateak eginkizun garrantzitsua jokatu beharko lukeela.

Teoriaren arabera, nazio-identitate modernoek martxan jarri dituzte homogeneizazio soziokulturaleko estrategiak, industria-iraultzak eta masa-komunikabideek hala eskatuta. Bestalde, teknikaren laguntzaz masa-komunikabideak eskuragarriak bihurtu ziren ekonomikoki aspaldi gehienontzat: egunkariak, liburuak, aldizkariak, etab. Etxeparek badaki hori guztia eta saiatzen da herri txiki baten neurrira estrategia horiek bultzatzen: euskal idazleen omenezko plakak jartzen, idazketa-sariketak antolatzen, ikuskizunak bultzatzen (antzerkia), ohiturak gogorarazten (Lapurdiko Biltzarra oroituz kapito-harria jartzea)…

Naziotasunak eskatuko luke, politikaren arloan, nazioak jendartearen mota bereko gidariak izatea agintari (nazioz, etniaz, hizkuntzaz, erlijioz, etab.)[1099]. Etxeparek nahi du esplizituki elite ekonomikoa euskalduna izatea industria-iraultzaren eskenatoki orduan berrian.

1098 Nora, P. (1984-1992). *Les Lieux de mémoire*, Paris. Gallimard 3 tomes : t. 2 *La Nation*. Pomian, K. « Francs et Gaulois » atala. 2288 or.

1099 Spencer, J. (1996). "Nationalism" in: Barnard, A., & Spencer, J. (arg.) *Encyclopedia of social and cultural anthropology*. Oxon. Taylor & Francis.

Hala ere, koiuntura ez zen erraza lege propiorik gabeko herri txiki batentzat, gizarte-eraldakuntzak moldatzea ez baitzuen bere esku. Adibidez, demografiaren arloan, estadu nazional modernoek eskulan nekazaria mugiarazi behar zuten, eta nekazariak beren jatorrizko txokotxotik (*terroir*[1100]) irtenarazi, estaduek ahalmen ekonomikoa eta militarra sendotzeko. Bestetik, estaduek merkatu bat behar zuten produkzioa saltzeko. Horretarako prezisoa zen hizkuntza bakarrean eskolatzea, zeuden tokiko dozenaka hizkuntzen lekuan[1101].

*Beribile*zeko bidaiari dagokionez, egia da Jean Etxepare Piarres Broussain lagun jeltzalearen ereduari jarraitzen zaiola haren "*probintzi"*-etan zeharreko ibilaldietan[1102], baina ezin da ahaztu bidaia hau abuztuko plazer-bidaia dela, hein handi batean, *sight-seeing*; eta, gainera, konbentzioak hautsiz, ez dirudi Loiolako Santutegiaz egiten duen fotografia, adibidez, orduko abertzaletasun kristau-demokrata erreal bakarraren kanonekin bat datorrenik.

Galde diezaiokegu geure buruari nazio txikien nazionalismoa zertan geratzen den honelako ataka batean. Letren esparruan, Literatura Konparatuak nazionalismoa kritikatzen du, nazionalismoa baita literatura konparatuaren kontrario beltza; nazio handien nazionalismoa, batez ere. Izan ere, bi gauza dira: bata, estatu-nazioen nazionalismoa eta, bestea, herri gutxituen nazionalismoa.

Agian, interesgarria izan daiteke hurbilketa bat Jean Etxeparerena bezalako euskaltasun kulturalak ea ibilbiderik izan dezakeen gaur egungo globalizazio garaian.

Estatu-nazionalismoan hezitako gizabanakoek maiz bere kultura buruaskitzat daukate, eta ahaleginik egin gabe bizi daitezke ustez eta kultura jaso batean arnasten dutela, maiz kosmopolita-itxura bat hartzen saiatzen baita, estatu-nazioko hornidurez kanpo ezer gutxi behar duelakoan. Aldiz, eta kontrara, nazio gutxituetako gizabanakoak derrigortuta daude gizarte-baldintzen presiopean gutxienez kultura bi kontuan hartzera: batetik, beren kultura gutxitua, eta, bestetik, estatuak bultzatzen duen kultura hegemonikoa. Kultura gutxituetako gizabanakoek sorreratik bertatik dute bizi-premia bat bere zilborrari begira egotea eragozten

---

1100 Weber, E. (1983). *La fin des terroirs*. Paris. Fayard.

1101 Hermet, G. (2006). "Nationalisme" in: Mesure, S eta P. Savidan (zuz.). *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF. 814 or. Ernest Gellner eta Benedict Andersonen teoriak dira.

1102Xarriton, P. (2007). *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques.* Bilbo. Euskaltzaindia. "Probintzia" izendapena Etxeparerena da.

diena; zailtasuna dute, ordea, kultura hegemonikoa galbahetzen ikasi behar dutela, berea ahaztu gabe, konturatuz txikiak ere bere balioak dituela, alegia, distiratzen duen guztia ez dela urrea. Kultura gutxituak sintesi bat egiten du bi kulturatatik, eta hori mundu mailara proiekta lezake, zailtasunak zailtasun[1103]. Askotan, internazionalismoz eta globalismoz mozorrotzen da manipulazio estrategiko bat alderdikeriako eta nazioko interesak defendatzea helburu duena, besterik gabe.

Kultura gutxituak, izan ere kultura guztiak dira gutxituak mundu mailara joz gero, kanpoan desberdintasunak eta harreman esanguratsuak bilatzera jo behar du, eta ez uniformidadeak bilatzera. Sakoneko arazoak analizatuta, kultura gutxituak aukerak aurkituko ditu etorkizun ziurgabe, ezezagun eta disimil bati aurrea hartzeko. Ez dago mundu-literaturaren ezagutzaren sintesi bukaturik, baizik eta atalkako prozedurari ekin behar zaio; literatura eta pentsamenduak unibertsalak dira, baina haiek bilatzea ibilbide irekia da, egituratu barik baitago. Arteak adierazten bide ditu indibidualtasuna eta gizatasun orokorra, ez nazioa izeneko pseudokategoria espirituala, Crocek eta Goethek zioten bezala[1104].

Horretara, bere aldetik, hizkuntza gutxituko filologoak ezin du ahaztu literatura anitzak ezagutzeko premia, bere egoera ahula jasanezina zaiola, estandarizazio teknologikoaren eta menpekotasun politikoaren gainetik; badagokio, era berean, hegaldatzea literatura gutxituaren mugen gainetik, indar eskasiaz edo ernetasun faltaz ez saiatzea ekidinez.

Horretara, *Beribilez* bezalako liburu bat ezagutzeak ematen dio aukera Hegoaldeko filologoari Espainiaz kanpoko errealitatea ezagutzeko, areago, beste mende bateko Iparraldeko eszenatokian egiten zituzten apustuak ezagutzeko. *Beribilez*en kasuan, esate baterako, testuak emango digu aukera konturatzeko euskal literaturan bertan nazionalismo guztiak ez direna Herderen ezpalekoak, baizik eta Renanen ezpaleko nazionalismo kontraktualistarik ere badagoela, esaterako, Jean Etxepareren proposamenean, aipatu den bezala.

1103 Guillén, C. (1985). *Entre lo uno y lo diverso: Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Crítica. 382 or. eta hur.

1104 Guillén, C. (1985). *Entre lo uno y lo diverso: Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Crítica. 384 or.

Europaren kasuan, badirudi estatu-nazionalismo sarritan esklusiboek Europako batasunari buruz eraspen gutxi dutela. Aldiz, eskualde txikietako nazionalismo sarritan inklusiboek Europaren ideiari abegi handiagoa egiten diote. Europa eraikitzeko, estatuek eskumenak pasatu beharko dizkie, bai erakunde europarrei eta bai erakunde erregionalei. Nazionalismo estatalak esklusiboagoak bide dira Europako beste nazionalismoekiko, eta Europa mailako integrazio bati buruz uzkurrago[1105].

Historian ikusi den bezala, estatu-nazionalismoek nazionalismo txikiak suntsitzeko asmo argia izaten dute. Hala ere, hauek irauteko borondate setatia erakutsi dute: Flandria, Eskozia, Quebec, Katalunia… Batzuek, ordea, defendatzen dute estatu-nazioak berezko zerbait direla eta nazionalismo txikiak inposaketa baten fruitua direla[1106].

Nazionalismo txikiei egozten zaie iliberalak izatea eta atzerakoiak. Historian ikusi da aurrerakoiak izan daitezkeela eta batzuetan estatu-nazionalismoa baino gehiago. Hori da Eskozia edo Kataluniaren kasua adibidez. Ez da, haatik, AEBn Amish etniako anabaptisten kasua.

Gaur egun globalizazioaren garaian gaudela, konstatatzen da zibilizazioa zabaltzen ari dela uniformeki Mendebaldeko demokrazien artean. Ordea, horrek ez du eragozten herriek beren kultura propioa iraunarazi nahi izatea. Ikusi da pertsonek bere nortasun nazional berezia maite dutela sakonki, eta politikan parte hartu nahi dute zeinek bere herri-hizkuntzan.

Zilegia da estatuaren eraikuntza liberala minoria suntsitzea dakarrenean? Honi buruz ikerketa gutxi egin omen da[1107]. Badirudi nazio gutxiengoei errespetua izateko baldintza minimoa dela suntsiketa-politika bidegabeak saihesteko moduak bilatzea, politikaren, hizkuntzaren eta hainbat alorren inguruan. Gutxiengo-nazionalismoak baditu irauteko estatu-nazionalismoak beste arrazoi. Ematen du estatu mulinazionalerako bidean jarriko ginatekeela, hainbat baitira nazio-estatuen barneko nazio txikiak. Beste aldetik, eskatzea nazio txikiek sistematikoki beren estatuak erdiestea ere burugabekeria dirudi, hainbat izanik sekulako anabasa sortuko bailitzateke.

1105 Brigevich, A. (2016). "Regional Identity and Support for Europe: Distinguishing Between Cultural and Political Social Identity in: France", *Regional & Federal Studies* 26:4.

1106 Kymlicka, W. (2003). *La política vernácula: nacionalismo, multiculturalismo y ciudadanía*. Paidós. 255 or. eta hur. Segidako paragrafoetan autore honi jarraituko zaio.

1107 Kymlicka, W. (2003). *La política vernácula: nacionalismo, multiculturalismo y ciudadanía*. Paidós. 260 or.

*Beribilez*en ikusten dugu idazlearen euskaldun gisa irauteko nahia. Oztopoak nabarmentzen ditu, baina bidaiak geografia politiko bat marrazten du, alegia, Euskal Herri erreal baten berri ematen du, nahiz eta ofizialki errekonozituta ez egon, ez Espainian, ez eta Frantzian ere.

Literatura konparatuak mugen gainetik jarduten du, kasu honetan bezala, non bidaia-liburu bat aipagai dugun. Izan ere, euskaldunontzat, hizkuntza bereko auzoak ez ezagutzea da txokokeriaren isla literatura konparatuaren talaiatik begira. Jean Etxeparek hausten du debeku hori eta pulunpatzen da Beste hurbila ezagutzera, alegia, *probintziak* izenekoak. Elkarren arteko ezagutza falta hori ahulezia edo ezaintasun baten islatzat interpreta daiteke.

Horrek guztiak ematen du, literatura konparatuaren bitartez, Jean Etxeparek nazioartekotasunarekin duen lotura astiroago aztertzeko aukera[1108].

Idearioak, edozein ideariok, eman dezake zerbait atzigaitzaren eta lurraren gainean sustrai eskas eta urrikoaren itxura, literaturgileen irudimenean izan ezik; hala ere, barra-barra entzuten dira erreferentziak nazio-irudi jakinei helduta, eguneroko adierazpen politikoetan eta hauteskunde-kanpainetan jendea mobilizatu nahiz, hala Frantziako nola Espainiako lider politikoen ahotan, adibidez.

Literatura da, hala ere, kultura-kapital globalaren iturria ("fuente de capital cultural global"); literatura identitate-sortzailea da, gizarte-errealitatea sortzen laguntzen duena[1109].

> "Cuando presento la literatura comparada como disciplina de descolonización no formulo en realidad reflexiones de orden general. Desde nuestra profesión de hombres de letras, expreso mi intención de comprometerme según un programa y una línea política, en cuanto a los problemas arriba mencionados desde la óptica de la confederación como imagen del futuro"[1110].

Apur bat hori da Jean Etxepare poliglota eta multikulturalaren bidea.

1108 Guillén, C. (1985). *Entre lo uno y lo diverso: Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Crítica. 384 or.

1109 Esparza, I. eta José Manuel López Gaseni. (arg.). (2015). *La identidad en la literatura vasca contemporánea*. Bern. Peter Lang. 23 or.

1110 Gnisci, A. (1998). "La literatura comparada como disciplina de descolonización" in: Vega, M. J. eta Carbonell, N. *La literatura comparada: principios y métodos*. Madrid. Gredos. 191 or.

Europa nahi da nortasunen arragoa izatea, hala ere, badirudi ez dela erraza nazio-estatuek beren mugak ahaztea. Begi-bistakoa dirudi herri txikiek ere barneko beren "konfederazioa" egin behar dutena batasun europear baten itzalpean. Frantziaren eta Espainiaren artean zail samarra izan daitekeena, agian, errazagoa litzateke hizkuntzetatik bat komunean izan dezaketen bi Euskal Herrien artean. Jean Etxepare bidegilea da, zurruntasun ideologikorik gabeko mugarri bat jarri duena. Honako aipu honetan hispanofiliari opatutakoa, berdin aplika dakioke "euskalfiliari":

> "Espera, pues, la hispanofilia, la "filia" que implica la bilateralidad, la complementariedad de los intercambios, la filia que únicamente supone un intercambio concebido sobre bases igualitarias y recíprocas, en el que el Otro es visto en su alteridad, en su otredad para seguir siendo a la vez otro y complementario. Nada nos impide pensar, apostar por que Europa pueda ser el espacio propicio para la definición, para el desarrollo de ese nuevo tipo de intercambios. Y de imágenes"[1111].

Azken finean, ikusi da, historiaren ibilbidean saioak egin direnean, multikulturalismoa bateragarria dela goragoko egitura politiko batzuekin eta herrien aurrerabide normalarekin.

Gaurko Europan, ematen du beste identitate bateko herritarra asimilatzeko ahalak muga bat duela, izan ere, Europak badu erronka hori migratzaileak bere lurretan ugaritzen doazen heinean. Arazoa izan daiteke edozein identitate-aldarrikapen komunitarismo arrazistaren etiketa jaso dezakeela. Aldiz, beste hegi batetik, uler daiteke multikulturalismoa irekitasun eta kosmopolitismo seinalea izan daitekeela, baina bego horretan.

1111 Pageaux, D. –H. (2002). "Historia e imagología" in: Boixareu, M. eta R. Lefere (koord.). *La Historia de España en la Literatura Francesa*. Madrid. Editorial. 43 or.

5.4. Euskalduna orduko literaturan

Aztertu ditugu Jean Etxeparek jaso dituen euskaldunaren irudi batzuk: Makeako Ganix laborariaren esterotipo negatiboa eta migratzailearen estereotipo positiboa. Atal honetan kontuan hartuko dira hiru idazleren idazkiak jakiteko nola eman dituzten euskaldunaren irudi batzuk, hobeto ulertzeko Jean Etxeparek ematen dituenak: Victor Hugo, Pío Baroja eta Tomas Agirre, hirurak hamarkada batzuen aldearekin XIX. eta XX. mendeen artean zangalatraban. Idazle horietako bakoitza berezia da euskal pertsonaiak marrazterakoan, eta beren arteko ezberdintasunak argi egingo digute euskal iruditeriaren gainean bolada hartan:

> "Au contraire, l´imagologie doit aboutir à l´identification d´images qui coexistent dans une même littérature, dans une même culture. Etudier celles-ci aboutit à comprendre celles-là eta vice versa, selon l´optique du chercheur"[1112].

1112 Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: P. Brunel eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée.* PUF. Paris. 136 or.

5.4.1. Kanpoko ikuspegi bat

Victor Hugok (1802-1885) bidaia egin zuen Euskal Herrian zehar, eta horren oroigarria da Pasaian orain dagoen beraren izeneko museo-etxe txikia, aste batez ostatua hartuta egon zen etxe hura[1113]. Hugoren *Idi orgaren karranka* irakurrita, konturatuko gara idazle frantsesak Jean Etxepareren interesguneez kanpoko zeretan jartzen duela arreta batzuetan, Victor Hugok 1843an egin zituen txangoen kontakizuna irakurriz gero, Euskal Herriaren irudi bat ematen baitigu. Ez du Etxepareren lurralde-ikuspegi ekonomizista, baizik eta interes berezia natura erromantikoki interpretatzekoa (adibidez, Jaizkibeleko igoeran hareharri higatuak), eta, beste esparru batean, joera euskal emakumezkoei erreparatzekoa. Haatik, naturaren interpretazio erromantikoa bada, hein batean, *Beribilez*eko pasarte batzuetan ere (Lekunberri inguruko malkarrak, Loiola inguruko haranak, itsasoa …).

Victor Hugoren ikuspegia estetizistagoa da 1843ko bidaian, esan baliteke. *Beribilez*ekoa da, aldiz, herriaren aurrerakuntza materiala eta moralarekin konpromezua hartuta daukan idazle batena.

Emakumezkoek leku garrantzitsua dute Hugoren kontu-ematean, gizonezkoak bakan agertzen baitira. Emakumezkoak herritar xumeak dira Hugoren bidaia-kontakizun honetan, azpimarratzen duela espiritualitate urrikoak direla: "Gizartearen espiriturik ez dagoenean, ez duzu anderea sortzen ahal. Ines ukanen duzu, Gertrudis ukanen duzu; baina ez duzu Elmira sortzen ahalko"[1114]. Hiru emakumeon izenak literaturako pertsonaia famatuak dira, zeinetan Elmira Goetheren pertsonaia den, emakume zuhur eta inteligentearen paradigma, beste bien gainetik, Molièreren eta Shakespeareren sorkariak, hurrenez hurren; nolanahi ere, espirituarekiko kezka komuna da konparagai ditugun bi idazle hauetan. Gogo-edertasun batekiko kezka *Beribilez*en ere agertzen zaigu edertasunaz gain, Iruneko festetan dantzariak

1113 Hugo, V. (1843). *Les Pyrénées.* Paris. Euskarazko bertsio bat: Hugo, V. (2002). *Idi orgaren karranka (Euskal Herrian gaindi, 1843).* Donostia. Elkar.

1114 Hugo, V. (2002). *Idi orgaren karranka (Euskal Herrian gaindi, 1843)*. Donostia. Elkar. 134 or. Irakurri bertan gai honetaz Joxe Azurmendiren hitzaurrea, 26 or, eta hur.

deskribatzean, gorago jaso denez. Hugoren euskal emakume hauek edertasuna eta grazia badituzten arren, bertute moralak eta intelektualak ez zaizkie errekonozitzen, aitzitik.

Herriko emakume apalen erakargarritasuna handiagoa da Hugoren deskribapenean*; Les Pyrénées*ko jatorrizko euskal "paradisu" honen aldean, *Beribilez* neurtuagoa da erotismoaren puntu honetan, Etxeparek emakumearen izaera moralaren nolakotasunari erreparatzeko bidea hartu baitu, berak dioenez[1115]. Paradisu horren izaeraz, zalantzan egitekoa izan daiteke Hugok Rousseauren eragina izan ote zuen, balizko salbaia on baten bilaketan. Badirudi Hugok, oro har, Voltaire hobesten zuela eta Rousseau hastio, oro har. Gainerakoan, aipatu da, jadanik, emakumeak adin txikikotzat hartzeak *Beribilez*en daukan lekua, eta idazlearen eboluzioa genero-ikuspegiari buruz.

Ezin oharkabean pasatu, ordea, Victor Hugok euskal libertateak goraipatuz egiten duen lehen gudu karlistaren interpretazioa, borrokaren esanahi politikoari erreparatu nahian. Igaro gaitezke, horretara, beraren ikuspegi politikora. Izan ere, korala da beraren Euskal Herriaren ikuspegia, 1843ko bidaia honetan. Hugoren ustez, herritarren elkarretaratzeak eta haien bizipen komunek herria sortu dute mendetan zehar, edozein gainegitura politikok baino iraupen handiagoa baitu, hau da, nazioa da historian zehar gauzatu den tradizio bat, ezein monarkiak edo konstituzio liberalek ezabatu ez dezakeena istilu gorririk gabe. Karlistek Victor Hugoren onespena horrexegatik jaso dute, foruen kontrako eraso bati erantzun dioten heinean; beste hitzez, monarkia galtzailearen alde eta liberalen kontra egin duen herri horrek, aldi berean, askatasun tradizionalen alde egin du. Frantzian ikusi den bezala, iraultza liberalak suntsitu egin ohi du aurreko guztia, tamalez, suntsitu egin ditu erregetzarekin batera herri baten bizitzaren bizkar-hezur historiko funtsezkoa ere. Hortik dator Victor Hugoren sinpatia hori euskaldunen aldarrikapen itxura batean atzerakoiekiko[1116].

Argi dago Victor Hugok Frantziako Iraultzaren errealitatea errepikatuta ikusten duela lehen karlistaldiaren gatazkan, 1843an Euskal Herria bisitatzean. Izan ere, Espainian indarrean jarri nahi izan ziren konstituzio liberalak Frantziakoen aldakiak baino ez ziren izan XIX.

1115 Trousson, R. (1986). "Victor Hugo juge de Jean-Jacques Rousseau". *Revue d'Histoire littéraire de la France*, Nov. 1.

1116 Leoné Puncel, S. (2008). *Euskal Herria XIX. mendeko bidaia-liburuetan*. Irun. Alberdania. "Askatasun zaharrak eta askatasun berria" atala. 95 or. eta hur.

mendean. Victor Hugo 1848ko Pariseko Komunara arte kontserbatzailea eta tradiziozalea izango da, eta, gainera, Luis Felipe erregearen pare bipila, gero aldatuko bazen ere[1117]; beraz, 1789ko Iraultzaren ikuspegi errebisionista hau ados dator Victor Hugoren memento hartako aukera politikoarekin, nahiz eta hura karlistaldia aitzakiatzat hartuta adierazten duen.

> "A l'intérieur de ce que nous nommons systéme, l'écrivain a évidemment la possibilité d'écrire, de choisir son discours sur l´Autre, parfois même en contradiction totale avec la réalité politique du moment, c'est-á dire en relation diamétralement opposée aux données politiques. Dans ce cas, comme dans n'importe quel autre cas de figure, l´Autre devient un objet d'investissement symbolique et ce à plusieurs niveaux possibles, depuis le niveau proprement personnel (psychologique, psychanalytique) où parler de l'Autre est s'auto-définir jusqu'au niveau politique où parler de l'Autre est faire acte de propagande, appeler à l'action, en passant par toute la gamme possible de ce que nous appelions la réverie sur l´Autre"[1118].

Beraz, Victor Hugo Frantziako egoeraren bertsio bat antzematen du Euskal Herriko historia hurbilean. Badirudi Victor Hugoren ikuspegi identitario etnopolitikoa primordialista dela, beste hitzez, nagusia izan dena orain arte, gurean. Primordialistak honela dio bere kautan: "herri bat badago aldez aurretik, eta merezi du antolaketa politikoa izatea". Gero, ikuspegi instrumentala nagusituko da XX. mendean, abertzaletasun politikoa gailenduko dela, nolabait erabakiko balute bezala: "batu gaitezen ezaugarri etnikoen inguruan, eta geure interesak bultzatzeko aukera handiagoa izango dugu". Agian, Jean Etxepareren ikuspegia konstruktibistagoa da, nolabait pentsatuko balu bezala: "borondatea dugunez gero, eraiki dezagun gure kabuz asebetetzen gaituen identitate kontraktual bat"; agian, hori izan daiteke aurrera begira biderik egokiena gaur egun, kontuan izanik Euskal Herriak bizi duen aniztasun konplexua. Kontuan izan beharko litzateke, aitzitik, bide kontraktualistari ekiteko oztopoa izan daitekeela estatu-egiturak behar izatea nortasun berri hori eraikiko bada[1119]. Erdibide bat dirudi

---

1117 Valverde, J. M., & De Riquer, M. (1985). *Historia de la literatura universal*. 7. lbkia. Barcelona: Editorial Planeta SA.

1118 Pageaux, D. –H. (1995). "Recherche sur l´imagologie: de l´Histoire culturelle à la Poétique". *Revista de Filología Francesa* 8. 148 or.

1119 "Etnopolítica: la administración de la alteridad cultural". http://etnopolitica.blogspot.com.es/2010/07/etnicidad.html [2017-06-13]. Tamalez, Interneteko dokumentu erabilgarri honek ez du autoreren izenik adierazten.

egingarriena, aldez aurreko nortasun bat badenez, eraiki beharreko kontratuaren zertzelada batzuk zehaztuta daude: adostu behar, beraz, zeintzuk izango diren batzen gaituzten ezaugarri horiek, erabat begi bistakoa ez dena.

Jokoan dagoena da ohiturak eta gidalerro liberal berriak uztartu ahal izatearen posibilitatea, hala Victor Hugoren nola Jean Etxepareren idearioetan. Pasaian, Victor Hugoren planteamendua da, naturatik hurbil dagoen herri bat eta aurkintze bat gozatu ahal izatea, Donostia gertu egon arren, jadanik hiriburuetako ikusmoldeak kutsatua baitago. Turistaren ikuspegia da, paradisu baten bila baitabil naturaz hurbilagoko gizarte bat bilatzen[1120]. Jean Etxeparek izango luke, bai, herritarren langile-bizimodu nekezari buruzko enpatia handiagoa Hugoren aldean, nahiz eta Donostiako eite antinaturala hastio zaion hari ere Victor Hugori bezala.

Horrek ez du kentzen, hala ere, *Beribilez*eko narrazioaren ukitu turistiko hedonista, azken finean, aldarte konfesional batetik aldentzen dena, era batera, Victor Hugoren bizipenen moldera.

5.4.1.1. Iruditeria programatua

Gorago aipatu dugu, aldez aurretik memento historiko bakoitzean Bestearen idearioa mugatua dela. Ikusi da nola Espainiako Gerra Zibilak moldatu zuen Hegoaldearen iruditeria, non Iparraldeko kristau-sektore batzuek ikusten zuten Frankoren militar-kolpean erlijioaren bultzada onuragarria. *Beribilez* ere irudi programatuaren arau horri jarraitzen zaio bere erara:

> "à un moment historique donné et dans une culture donnée, il n´est pas possible de dire, d´écrire n´importe quoi sur l´Autre. Les textes imagologiques sont des textes en partie programmés (…) parce que les discours sur l´Autre ne sont pas en nombre illimité, mais en quantité repérable"[1121].

1120 Azurmendi, J. (2002). "Hitzaurrea" in: Hugo, V. *Idi orgaren karranka (Euskal Herrian gaindi, 1843)*. Donostia. Elkar.

1121 Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: Brunel, P. eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris. 138-139 or.

Esango dugu erlijioaren alorrean Jean Etxepare agnostikoak ezin zituela kolkoan zituen guztiak bota, liburuaren hartzaileak baitzituen gogoan, ezinbestean. Iparralde euskaldunean idazkiek programa bati jarraitzen zitzaizkion. Hegoalde euskaldunean ere usatu gabea izango zen literatura-ikuspegi agnostiko argiki mintzatzailea, abagune historiko hartan.

Suma daiteke Jean Etxeparek Hegoaldeaz zuen iruditeria ez dagoela zeharo bereiz Frantzian Espainiari buruz zegoenarekin. Frantzian, Espainiaren irudia aldakorra izan zitekeen Frantzia baitako arrazoien arabera, Bestearen irudiak eragina baitu barneko politikan. Alde horretatik, programa frantses (erdi Europako?) bati lotzen zaion heinean, *Beribilez*ek neurri batean baino ez du iruditegi euskaldun propio bat ematen, nahiz eta elementu bereizgarri batzuk badituen, esan bezala.

*Beribilez*en jasotzen diren zenbait ohar dira Espainiarako ohiko bidaia-kontakizunetan eskuarki jasotzen zirenen antzekoak, programa bati jarraiki: alferkeria (mugazain espainola), bideko lapurrak (Iruñeako gazte lapurrak), ostatu kaskarrak, oliba-olioaren higuina, exotismoa (irundarren ponte-izenak)…

> "La moitié du pont de la Bidassoa appartient à la France, l'autre moitié à l'Espagne ; vous pouvez avoir un pied sur chaque royaume, ce qui est fort majestueux : ici le gendarme grave, honnête, sérieux, le gendarme épanoui d'avoir été réhabilité, dans les Français de Curmer, par Edouard Ourliac ; là le soldat espagnol, habillé de vert, et savourant dans l'herbe verte les douceurs et les mollesses du repos avec une bienheureuse nonchalance"[1122].

Irakur daiteke programa bera *Beribilez*en, bi autoak mugara heltzen direnean Luzaideren inguruetan:

> "Errezebidorea ez bizkitartean ageri! Igitzeko, ezpata-sista baten beharra baluke nunbait, alfer zotz zarek, Primo de Riverak berak emanik...

1122 Gauthier, Théophile (1845). *Voyage en Espagne* (Nouvelle édition revue...)...)....) 19 or.

Oren bat osoa baderamagu tokiaren gainean. Noizbait, haatik, karabinero batek ekartzen dauzkigu gure paperak: erdi lotarik, kirrimarra batez sinatu daizko aitzindari nagiak!"[1123]

Stendhalek ere kontrabandistak ditu hizpide *Voyage dans le midi de la France* idazkian[1124], Euskal Herriari buruzko programaren barnean, Jean Etxeparek *Beribilez*en bezala:

"—Bortz pinta ezantza baizik etzaizkit gelditzen, karatxo! daut adiarazten motz-motza ene lagunak. Hau litake, hau orai ixtorioa, hoinbertze itzuliren ondotik Loiolarat ez baginite hel-ahal ezantza eskasez!

Berehala jautsirik, ja oihuz dago harrizko-mailadi baten gainean bere etxeñoari gibelaz ikusia duen xamardun bati: —Etzinuke fortunaz ezantza-xorta bat? —Ez, dio behin erantzuten gizonak, alde orotarat eta urrun behatu ondoan. —Ontsa paga nezazuke bada, eta gogotik. Behatzen du berriz gure gizonak alde orotarat, eta horra nun, eskuaz keinu eginik, zipoteka etxerat ezantzaren bilha ba doakigun. Eskualdunik ez bide da, Gipuzkoan ere, kontrebandaz guti edo aski bizi ez denik"[1125].

Gure ustez, bada programa komuna idazle frantses seinalatu gehienen eta Jean Etxepareren baitan, Euskal Herriaren irudia ematean. Hala ere, Jean Etxepareren bidaiaren kontu ematea, egun bakarrekoa izanik ere, askoz luzeagoa da, adibidez, Gauthierrek, Flaubertek edo Stendhalek idatzi zituztenak baino, eta ikusgaiak eta adigaiak ugariagoak, hainbat puntu ukitzen dituela, bere ideario propioaz gain.

Hala ere, kolokan jar daiteke *Beribilez*eko originaltasuna, literaturaren aldetik:

"En second lieu, le texte imagologique (ou imagotypique) est un texte jusqu'à un certain point programmé, pour la simple raison qu'on ne peut pas dire, écrire n'importe quoi, à un moment donné, dans une culture donnée, sur l'autre. Or, ce caractère programmé pose des problèmes aux conséquences nombreuses et graves, au nombre desquelles nous retenons pour l'instant celle-ci : dans une culture donnée, à un

---

1123 *B.* 13

1124 Stendhal (1930*). Voyage dans le midi de la France* / Stendhal ; [établissement du texte et préface par Henri Martineau]. 162 or.

1125 *B.* 51

moment historique donné, combien y a-t-il de possibilités de discours, de mises en texte de l'étranger ? Question qui remet la production littéraire dans le cadre d'une analyse de type sériel, autant dire un nouveau scandale face à l'inaltérable et fondamentale originalité du créateur. Nous verrons comment cette question est sans doute au cœur de toutes nos études littéraires et qu'elle est, sous diverses formulations possibles, la seule et vraie question sur laquelle débouche ou achoppe toute réflexion authentique de poétique"[1126].

Iparraldeko lurraldearen trataerari buruz *Beribilez*eko lehen eta azken kapituluetan, azpimarra daiteke Jean Etxepare gehienbat gorabehera geografikoei lotzen zaiela, ahaztu gabe frantsestasunari buruzko gogoeta bat ortodoxia itsuan erori gabe ere, asimilagarria dena garai hartan ziren identitate-kanon nagusien markoan. Euskal nortasun bereziaren bilaketa bada, baina esan daiteke, haztamuka eta tentu handiz. Horrexegatik da Iparraldeko lurretan Berebilez hain deskriptiboa, eta ezer zehatzetan bustitzen ez dena. Konparazio baterako, inpresio bera utzi digute, idazle frantses bidaiariek garai beretsuan Iparraldeko bisita kontatzen dutenean. Dirudienez, kanpoan ibiltzeak idazlearen erantzukizuna arindu egiten du. Adibidez, *Beribilez*ek ez dio deus Iparraldeko turistifikazio hedatuari buruz, bainu-herrien aipamen soilaz gain.

5.4.1.2. Exotismoa Beribilezen

Jean Etxepareren euskal iruditeriak, hein batean, Europako idazle bisitarien programari jarraitzen zaion neurrian, exotismoari ere lekua egiten dio, ia-ia salbuespen gisa baino ez bada ere, behin bakarrik agertzen baita. Jean Etxeparek gehienbat filia adierazten badu *Beribilez*en, horregatik ere ez du baztertzen ikuspegi exotiko "arrotz" bat. Hona, definituta, zer den *exotikoa*:

"exotiko adj. Urruneko herrialde batekoa; gure zibilizaziokoa ez dena, arrotza. Landare exotikoak. Dantza exotikoak"[1127].

1126 Pageaux, D. –H. (1995). "Recherche sur l´imagologie: de l´Histoire culturelle à la Poétique". *Revista de Filología Francesa* 8. 152 or.

1127 Euskaltzaindiaren hiztegia

Aipatu dugu herrialde baten iruditeria programa baten barruan kokatzen dela. Espainiari zegokion programak bazuen Europako bihotzean ordu hartan exotismoaren itema barnean. *Beribilez*en agertzen da, Iruneko jaiak aitzakia hartuta:

> "Hau [musika] gelditzen zenean —ez luzatzat, atsedentzeko— izerdi onaren xukatzeko, baratzen ere ziren gazteak. Den gutieneko eraberik gabe, elhe emaiten zuten elgarri orduan. Bazituzten izen batzu, zoratzen ninduztenak: Leandro, Castor. Encarnita, Maria-Cruz, Leonardo, Asuncion, Juncal. Eta beren arteko solasak hain onak zituzten, hain garbiak eta goxoak, non zorion bethearenak baitzitazken. Berehala, gero, dantzak aikatzen zituen bere sail berrirat"[1128].

Irun hiriak 1900 urtean 9.912 biztanle zituen; 1930ean 17.670[1129]. Irun hazkunde azkarrekoa zen une hartan, eta migratzaile berri gehienak penintsulako hainbat herrialdetatik etorriak izango ziren, gaur egun ere Iruneko biztanlegoak osagai hori baitu. Jean Etxepare ez da analisia horretan murgiltzen. Galdetzekoa da dantza sueltoa San Martzial jaietan nork egiten ote zuen, XX. mendearen hasieran: arin-arina, fandangoa, porrua…, ala zerbait "internazionalagoa"? Jean Etxeparek ez du erreparotik euskal izaera aitortzeko Iruneko jendeari, beste euskal idazle batzuek ez bezala. Gogora daiteke, adibidez, Txomin Agirreren jarrera anbibalentea, manikeoa ez bazen, Bilboko ezkerraldeko bilakaera demografiko eta sozialaren balorazioari buruz. Jean Etxeparek etorkinen integrazioari buruzko kezka bazuen Iparraldeko kasuan, bederen, hori suma daiteke-eta Euskaltzaleen Biltzarreko burulehen gisa egin zituen hitzaldietan. Nolanahi ere Jean Etxeparek ez du nahi Txomin Agirrererena bezalako egiaren monopolioa 1930eko bueltan, eta ez du horren premiazkoa ikusten hesi ideologikoak jartzea biztanleen artean.

Hala ere, azpimarratzekoa da exotismoa agertzea biztanlego etorri-berriko kopuru handia duen Hegoaldeko Irun hirian, hau da, Espainiaren eragina argien agertzen zen tokietako batean, Gipuzkoari gagozkionez. Izan ere, planteamendu exotikoa ez da Bestea ezagutzeko modurik enpatikoena, nahiz eta exotismoa izan kanpoko jende eta lurraldeak ezagutzeko guraria:

1128 *B.* 94

1129 Instituto Nacional de Estadística

"Des phénomènes aussi importants que celui de l´"ennemi héréditaire", du colonialisme et ses conséquences idéologiques et culturelles (racisme, exotisme artistique et littéraire) ne peuvent pas ne pas interférer profondément dans l´élaboration d´images et dans le contenu même d´un imaginaire social à un moment historique donné"[1130].

Exotismoak bilatzen du aniztasuna eta desberdintasuna munduan zehar, kosmopolitismoak uniformitatea bilatzen duelarik ere. Exotismoa hurbil dago utopia eta ukroniatik, leku arrotza deskribatzean; irudikatzen du ihes egitea, zorionaren edo urrezko garaiaren bila[1131]. Kontuan hartu behar da Etxepare narratzailea gogoratzen ari dela gaztetako pasadizo bat, Iruneko jaiez ari denean: agian, Jean Etxepare gazteak, fantasia erotikoa izateaz gain berak dioenez[1132], beste alde batetik Iparraldeko zirkunstantziei ihes egiteko aukera utopikoa bilatu du, irundarrak dantzan ikusita. Jean Etxepare gazteak ihesbide bat ikus zezakeen Iruneko jaietan zorionaren bila. Exotismoa engainagarria izan daiteke, sinplifikazioa den heinean, baina kanpokoa ulertzeko modua ere izan daiteke[1133]. Iruneko jaiak izan ziren Jean Etxeparerentzat epifania bat James Joyceren estiloan[1134], non idazleak bere burua ulertzen duen, iluminazio jasota.

Exotismoaren baliabide hori, ordea, ez da bakarra euskal kultura garaikidean; Zuberoarekiko miresmena ere, adibide kronologiko hurbilagoa jartzearren, esan daiteke egarri bera asetzera etorri dela azken hamarkada hauetan Hegoaldeko iruditerian.

Azken batean, exotismoaren bila abiatzea da "bon sauvage"-ren bila abiatzea, naturatik hurbil bizi dena, eta sexu harremanetan ere naturala dena, Iruneko dantzariak bezala. Aipatzen den "garbi"-tasuna da jatorri kutsagabeko horren isla. Urrezko aro batean bizi liteke talde hori, Homerok pentsatzen zuen bezala bizi zirela Greziarrengandik urrutien azken mugan bizi ziren haiek[1135]. Somatzen dugu Jean Etxepare tradizio frantsesarekiko zordun, apur bat XVIII.

1130 Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: P. Brunel eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris. 154 or.

1131 Todorov, Tzv. (1989). *Nous et les autres*. Paris.Seuil. 356 or.

1132 *B*. 94-95

1133 Tétu, M. eta A. M. Busque: "Exotisme" (2010) in: Aron P., D. Saint Jacques eta A. Viala. (zuz.) *Le dictionnaire du littéraire*. Paris. PUF.

1134 *Dubliners* (1914). Liburu horretan, epifanien bilketa da hari gidaria.

1135 Todorov, Tzv. (1989). *Nous et les autres*. Paris.Seuil.

mendean abiatu zen bidaiatzeko programa ilustratu jakin baten araberakoa, nahiz eta Hegoaldeaz diharduen, eta nahiz eta ezaugarri horiek orokortu antzean egiten diren euskal kostalde guztirako, medikuaren gaztetako lagunaren ahotan. Ikusten dugu idazlea literatur tradizio jakin batean murgildua, kanpora doana esperientzia asebetegarrien bila. Ikusi dugu Victor Hugo ere antzeko irrikaz hurbildu zela Pasaiara.

5.4.2. Euskal gizartea hitsa denean

Interesgarria izan daiteke euskaldunaren irudiak aztertzea XX. mende hasierako beste idazle batzuengan ere. Pío Barojak (1872-1956), adibidez, familiatik zetorkion euskalduntasuna sentitu zuen Gipuzkoako euskal ingurunean, eta tipo autoktonoak deskribatzeari ekin zion: Euskal Herriaren iruditeria bat paratu zuen, idazlan ugarik osotua. Oraingo honetan, *Vidas sombrías* (1900) ipuin-bilduman jaso zuen Mari Beltxaren irudiari erreparatuko zaio. "Mari-Beltxa" ipuina testuinguruan kokatzearren, kontuan izan dezagun Baroja deskribatzen ari dela Zestoan ezagutu zituen giroa eta pertsonaiak, mediku-lanean bertan egon zenean, estudioak amaitu eta handik gutxira, urte batez gutxi gorabehera.

Hala Jean Etxeparek nola Pío Barojak herritarren artean dauden estereotipoak jaso dituzte, eta kritikaren galbahetik iraganarazi. Estereotipoa errazkeria kognitibo praktikoa den neurrian, merezi luke berraztertzea, eta horren ordez beste giza irudi indibidualizatuago bat jartzea, bereziki elkarbizitza oztopatu dezakeen neurrian. Estereotipoak berarekin du zurruntasuna, hitzaren beraren etimologiari erreparatuz gero, estereotipian inprimatze-lanetan erabiltzen zen xafla baitzen estereotipoa[1136]. Jean Etxepare borrokatu zen euskal laborariaren irudi sinplista eta negatiboaren kontra, Euskaltzaleen Biltzarrekoa zela. Euskaldunen artean zebilen frantsesaren estereotipo negatiboari ere jazarriko zitzaion, azaldu denez. Jesuita diru-zalearen estereotipoa ere gaitzetsi du Jean Etxeparek *Beribilez*en.

Pío Barojak, bere aldetik, Zestoan ezagutu zuen neskatila baten gizarte-estereotipo bat desmuntatzeari ekingo zion, landako munduaren ezagulea baitzen. Alde horretatik, bi idazle hauek hartzen duten eginkizuna da herriaren gogoan dauden estereotipo gaitzesleak kritikatzeari. Horretara, ezarrita dauden taxuak apurtzera datoz.

Ikusiko da nola Jean Etxeparek bezala, Pío Barojak ere egiten duen euskaldunen beren arteko programa hori malgutzeko ahalegina, estereotipoen kontra ari dela. Bat etortze hori azal liteke libre-pentsamendu ilustratu baten testuinguruan, gogoratzen digula Immanuel Kanten "Zer da ilustrazioa?" idazkiko programa, non inoren tutoretzarik gabe eta autonomoki

1136 "**estereotipia** iz. Inprimatzeko teknika, pieza bakarreko xafla erabiltzen duena orrialde bakoitzeko". Hiztegi batua.

pentsatzearen aldeko aldarria egiten duen filosofo alemanak. Gure bi idazleok bazuten alemanaren testuen berria, irakurtzen baitzituzten bi biek.

Estereotipoak gizakiak sailkatzeko modu sinplistak dira, ezezagutzaren ondorioa, gorago aipatu denez. Bi idazle hauek sinplifikazio horretatik harago joan nahi dute, bereziki euskal gizartearen barneko estereotipoei interpretazio sakonagoa emanda, negatiboa zena positibo bihurtuta, ikuspegi jasoago batetik.

Ezaguna egin da "Mari Beltxa" izenburuko ipuina Pío Barojaren *Vidas sombrías* (1900) bilduman, donostiarraren pasarte ederrenen antologietan jarri ohi dena, maitasun samurraren adierazgarria.

Ikusten dugu Baroja landa-inguruko emakumearen estereotipo baztertzaile hau porroskatzen sotilki. Mari Beltxa da landa-gizartean baztertutako neskatila, estereotipo iraingarri baten ondorioz. Pertsonaiaren-izena adierazgarria da: beltz-koloreak konnotazio kezkagarriak ditu. *Orotariko Euskal Hiztegia*n honela dio: "***beltz*** *(V-gip, L, BN, S),* ***baltz*** *(A Apend). Ref.: A; Elexp Berg. Triste, aciago, desgraciado; penoso, duro, crudo. "Triste" A. "Baltz, terrible"*". Berez, Orotarikoan ez dirudi kalifikatiboa gizakiei egokitu zaienik, hiztegiko adibideei erreparatuta, baina bai, adibidez, Adorez sinonimoen hiztegian: doilor, gaizto bilau; hortaz, badirudi Barojak herri usadioko konnotazio hori jaso nahi izan zuela. Hari horretatik, gogoratu daiteke azken urteotan musikatutako Bizkaiko kopla zahar hura, emakume bat mintzo dela: "baltza naizela dineube (bis), ardoa be baltza da baina, danak edaten deube".

Mari Beltxaren ipuinean ere, beltza kolore markatua da. Hona aipu batzuk hipotesi horren alde[1137]:

- "Mari Beltxa deitzen dizute, Mari Beltxa, Errege egunez jaio zinelako, ez beste ezergatik; Mari Beltxa deitzen dizute, eta bildots txikiak garbitegitik irtetean bezalaxe zara zuri, eta udako garitza bezalaxe hori" (33 or.).
- "Horren ederra zara! Eguzkiak aurpegia belztu omen dizu; zure bular aldea laua omen da; egia izango da agian; zure begi lasaiek udazkeneko egunsentiak dirudite ordea, eta zure ezpainek galsoro beilegietako mitxoletei hartu die kolorea" (34 or.).

1137 Euskaraz: Baroja, P. (2007). *Ipuinak*. Donostia. Gipuzkoak Foru Aldundia. Felipe Juaristiren itzulpena.

- “Mainak zituen umeak, zuk, bera alaitzeko, behiak erakusten zenizkion, Gorriya eta Beltza (…) Gero bestearengana joaten zinen, eta, hatza harengana luzaturik, esaten zenuen: “Hauxe dugu Beltza… zein beltza…, zein gaiztoa… Hau ez dugu maite. Gorriya, bai.”” (35 or.).

Nabaria da Mari Beltxa markatuta dagoela (*omen, agian* partikula modalen agerraldiak). Errepikakorra da koloreen arteko dialektika, euskal usario hartan zuria, horia eta gorria positibotzat jotzen direla, eta beltza, aldiz, negatibotzat. Argi dago *excusatio non petita, acusatio manifesta* delako irizpidea ere aplikatu daitekeela lehen aipuan (“Mari Beltxa, Errege egunez jaio zinelako, ez beste ezergatik”). Badirudi *beltz* kalifikatiboaren esangura negatiboa ez zaiola eskapatzen inguru errurala ezagutu duenari[1138].

Hau da, herrian estigmatizatuta daukate Mari Beltxa, dabiltzan deskalifikazioen bitartez. Beltz izatearena da estereotipo gaitzesgarria, Pío Baroja 30 urte ez zituen “medikuzar” (34 or.) gaztea apurtzera datorrena, guztiz kontrako ikuspegia ematen duela.

Ikusten da, halaber, nola daukan barneratuta neskatoak bazterkeriazko kalifikatiboa, behiei buruz ari dela.

Jean Etxepare ere ibilia da estereotipoen kontrako lehian: hautsi nahi izan ditu ez bakarrik Ganix euskaldunarena, baita frantximantarena eta jesuitena ere.

Hori da, apur bat, bi idazleok hartu duten eginbidea: gizartean dauden molde sinplistei aurre egitea, eta sakonagoko hurbilketa egitea estereotipo gaitzesgarriak salatzeko, modu sotilean baino ez bada ere, “Mari Beltxa” izeneko ipuin honen kasuan bezala. Ahalegin hori iruditzen zaigu gizarte tradizionalaren eta ez hain tradizionalaren ilunguneak uxatzeko biek egiten duten saioa, estereotipo herrikoi batzuen errazkeria klasifikatzailea arteztuta, arrazoiaren eta aurrerakuntzaren baitako ideia ongile batzuk sustatzen. Esan daiteke badela idazle biongan herritarrak duintzeko ekimena.

1138 Yolanda Trabuduari zor diot ipuineko *beltz* adjektiboaren intepretazio gaitzesle hori herrian.

5.4.3. Tradizio aurremodernoa iraunarazten

Interesgarria izan daiteke konparatzea *Beribilez*eko garaian nola ematen zen euskaldunaren irudia euskarazko literatur lanetan. Erakusgarri gisa Tomas Agirreren *Uztaro* (1937) eleberrira joz gero, sumatuko dugu alderik Etxeparek eskaintzen digun giroaren ondoan. *Uztaro*ko euskaldunaren irudia, esan daiteke bat datorrela literatur produkzioaren tonika nagusiarekin (Txomin Agirre…). Beheko paragrafo hauetan defendatuko dugu modernoa dela Jean Etxepare beraren garaikide Tomas Agirre *Barrensoro* (1898-1982) aurremodernoa den bitartean.

Moralaren zama handia da *Uztaro*n; erlijio katolikoaren presentzia handia da, osaba apaiz baten irudian haragitua, zeinak markatzen duen emakume protagonistaren baserriko norabide morala. Agian, horrelakorik ez da *Beribilez*en non egiaren bilaketa modu dialogikoan ematen den.

Madalen protagonistaren soslai morala azpimarra handiz helarazten zaigu, eta bere edertasun-dohainei gainjartzen zaie. Edertasunak katramilak ekarriko dizkio, komeni ez bezalako mutil-lagun kanpotarra topako baitu, amaierako tragediari bidea irekita horrela. Gure ustez, Victor Hugo sentsualagoa da, Jean Etxepare ere bai, horrenbesteko zama moralik gabea, nahiz ez den Hugoren heinera iristen, emakumezkoak bakan aipatzen baita *Beribilez*en.

Jean Etxeparek Nietzsche asimilatuta dauka, eta balioen anbiguotasun modernoan instalatuta ikusten dugu. Aipatu den bezala, *Beribilez*en iritzi borobilak lausotuta daude, dela narratzaile autobiografikoa ez den bigarren mailako pertsonaia bati emanez iritzien erantzukizuna, dela ebaluazio morala bakan eta urri agertuz:

> "La modernité n'est pas la transmutation de toutes les valeurs, c'est la destructuration de toutes les valeurs anciennes sans leur dépassement, c'est l'ambiguïté de toutes les valeurs sous le signe d'une combinatoire généralisée. Il n'y a plus ni bien

ni mal, mais nous ne sommes pas pour autant " au-delà du bien et du mal " (cf. la critique de la modernité chez Nietzsche)"[1139].

Anbiguotasuna da modernitatearen ezaugarria[1140]. Nietzscheren ustez, gizarteen eboluzioan aurrerapenik ez dago: gizadia ez doa aurrera; XIX. mendea ez da XVI.a baino aurreratuagoa; 1888ko espiritu alemana atzerakuntza da, bertako 1788ko espirituaren aldean.

Jean Etxeparek ere sentipen bera du: ez du ikusten teleologia judu-kristaurik (kristaua ala marxista) edo positibistarik, gutxienez ez beti, Nietzscheren betiereko itzuleraren eredura, agian:

> "Guhau barne, bethi egiten eta desegiten ari den Izaite bat ikusten dut nik, berterik deus ez. (…) Izaite horren mamiaz argi gehiago badutela uste dutenak, hala nola bigarren Izaite bat gainera ikusten dutenak, hunen mamirat bertzearentzat baino gehiago sartu gabe, batzu ala bertzeak uzten ohi ditut bere alde -inguruka, azpiz edo oldarrez lotzen etzaizkitanean. Sineste guzier, zinezkoak direlarik, begitarte on egiten dut"[1141].

Jakina da giza izaeraren nolakoa Jainkoaren izaeraren nolakoaren isla besterik ez dela, edo alderantziz, nahi bada. Nolako jainkoa, halako gizakia, Michel Foucaultek ikusi bezala, Jainkoak gizakia bere antzirudira egin zuenez gero. Aspaldi hautsi zen anfora modernitatearekin, Jainkoa hil zenetik, hura baitzen bermea gizakiarentzat, nahiz eta aspaldiko Jainkoa Euskal Herria bezalako leku bazterretan aterpetuta bizitzen jarraitu zuen. Hona Atxaga anforaren metafora hori azaltzen:

> "Galdetu diogu zer adierazi nahi izan zuen "hautsi da anphora" esaldiaren bidez, eta hona erantzuna: "Nik ordurako askotan irakurriak nituen Greziako testu klasikoak, batez ere 'Iliada', eta banekien greziar haiek anforetan biltzen zituztela hildakoen errautsak. Niretzat, ni bizi nintzen garai hura zartako eta eten izugarri baten garaia zen.

1139 Baudrillard, J. (2009). "Modernité" *Universalis Education* in: http://www.universalis-edu.com.ezproxy.u-bordeaux-montaigne.fr/encyclopedie/modernite/ [2017-06-15]

1140 Kuhn, E. "Modernidad" in: Niemeyer, C. (arg.) (2012). *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares.* Madrid. Biblioteca Nueva.

1141 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)". in: Lakarra J. A. et al. (arg.). *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 601 or. Piarres Lafitteri gutunean idatzia 1931n.

Tarte handi bat zegoen gure gurasoen mundutik gurera, eta esaldi horrekin epitafio bat adierazi nahi izan nuen: ezin dugu lehengo munduan egon, ezin da lehen bezala idatzi, ezin da Lizardiren garaira itzuli""[1142].

Alde horretatik, Jean Etxepare modernoa da, Friedrich Nietzsche modernitatearen aurrerabidean mugarria izanik, medikuaren pentsamoldean erroak eginak baitzituen. Eta hori izan zitekeen medikuak inguru euskaldunarekin zuen harreman istilutsuen iturburu nagusia.

Tomas Agirreren eleberria guztiz argia da onari eta gaizkiari dagokionez, zalantzazko anbiguetatetik urrun da. Alde horretatik, *Uztaro* modernitateko tonika nagusitik urrun dabil, balio-eskala sendo eta zurrun baten agerpidea den aldetik.

Dudarik gabe, gizarte tradizionalaren apologia egiten du eleberriaren argumentuak. Madalen protagonista ezkongaia, harremanetan hasten da Zarautza kanpotik heldu den gazte batekin, zein diru-jokoarekin harremanetan baitago. Mutil horren portaerak ezaugarri negatiboak ditu, eta, azkenean, tragedia sortuko da. Kontakizunaren bukaeran, Madalenek komentu batean bilatuko du babesa, mundutik aparte.

Bistakoa da, moralitateak gizarte tradizionala zurkaizten du; gizarte horren kanpotik datorrena okerra da, ñabardurarik gabe, manikeismo honen sendotasuna kolokan agertzen bada ere *Uztaro*n, Tomas Agirrek abisua igortzen baitu etorkizunean gerta daitekeenari buruz, alegia, kanpoko guztia ez dela urrea. Jean Etxepare, aldiz, hesiak eraiki beharrean, euskal gizartea biziberritu nahi du kanpoko orotariko ekarpenez (teknikoak, ekonomikoak…), ilustratu baten gisan moralismorik gabe. Jean Etxeparek argi uzten du hori publikatutako artikuluetan.

*Beribilez*i ere egotzi izan zaio garo-usaina, baina Jean Etxepare baserria balio moralen altxor-kutxatzat daukan ikuspuntu horretatik urrundu egiten da. Egia moralaren ikuspegia zeharo bestelakoa da Jean Etxepare baitan eta Tomas Agirre baitan. Jean Etxeparek, egiaren jabea izan gabe, saiakera modukoak egiten ditu, bizitzan ardatz gisa balio batzuk hautatzeko, baina beti balio askoren arteko hautaketa gisa, ez egia absolutuaren jabe izango balitz bezala. Tomas Agirre mundu itxi baten isla ematen digu *Uztaro* eleberrian, mundu aldagaitza zirrikiturik uzten ez duena aldaketa posible bati buruz. Ez dago bertan polifonia arrastorik, balioen aldetik.

1142 F. I.-ren elkarrizketa "Atxaga: 'Hautsi da anphora' epitafio bat da". *Diario vasco* 25.10.10

Jean Etxepareren modernotasuna datza gehiago ahalegin ororen ezdeustasuneko pertzepzioan, bizitzeko neke batean, nihilismotik hurbil, egia absoluturik ez dagoenez gero, idealismoaren egia erori zenetik, medikuak ezagutu zituen Schopenhauerren eta Nietzscheren ideiak gogoan. Ikuspegi hori nabaria da Jean Etxeparek Piarres Lafitterekin izan zituen gutunetan 1930 aldera, eszeptikoa da, eta, alderdi batzuei buruz, pesimista: ez da moralista bat Tomas Agirre bezalakoa. Beraz, gure ustez, uste dugu honako baieztapen hau bezalakoek ñabardura bat edo beste eskatzen dituztela:

> "Orain arte esandakoaren arabera, [*Beribilez*] hizkuntzari dagokionez, inpresionista da, eta horrek munduaz duen ikuspegia inpresionista dela esan nahi du. Aurrean duen errealitatea dela eta, euskal literaturaren historian sarritan gertatu den bezala, bakarrik detaile politez ohartzen da; ez, ordea, itsusiez. Euskal Herrian bi mundu egon dira aurrez aurre, batez ere, joan den mendearen azken urteetan eta honen hasieran gertatu den industrializazioa eta gero: bata, tradizionala, tradizionalki euskalduntzat jo izan dena, zeinetan "baserria, txikia, txuri-polita" (eta honelako konotazioak dituzten hauen antzeko beste elementuak) hitz klabeak suertatu diren definitzerakoan; eta, bestea, industriala, gizon beltzena, zakarra. Pentsamolde honek zer adierazten du? Ez duela soil-soilik gauza politak eta itsusiak sailkatzen, baizik eta berarentzat euskal errealitatea bakarrik polita denarekin identifikatzen dela, bestea alde batera uzten duelarik[1143].

Agian, gakoa bilatu beharko da ez horrenbeste egiaren bilaketan, baizik eta egiatasunaren (*veracidad*) posibilitatean, hau da, Jean Etxeparek ez duela beti esaten eta defendatzen bere egia, gorago jorratu ditugun medikuaren arrazoiak eta erabakiak medio. Alegia, Jean Etxepare ez da esplizitua *Beribilez*en, baina bere prozedura narratiboa esanguratsua da, bereziki *Uztaro* bezalako testuekin alderatuz gero. Eta ezin da ahaztu *Uztaro* zela araua eta *Beribilez* salbuespena, XX. mendeko urte haietan.

Pío Barojak berak ere, iritzia emateko batere eragozpenik gabea Jean Etxeparek ez bezalakoa, edozerri buruzko baieztapenak egiten ditu, baina ez du sistema koherente oso bat eraikitzen, hura ere erabateko balioen krisiaren jakitun baita. Pío Barojak, egiari buruz, greziarren *parresia* izeneko jarrera praktikatuko luke, intelektual gisa, egia deserosoa

---

1143 Iturbide, A. (1991). "Jean Etchepareren idazkera". *Jakin* 64. 131 or.

aldarrikatzeko funtzioa betetzen baitu, alde batetik, Antzinateko zinikoek bezala, Michel Foucaulten azterketei men egiten bazaie.

Jean Etxeparek argi dauka bere egia ez dela onargarria bizitzea tokatu zaion gizartean, eta itzulingurua hobesten du, Pío Barojak ez bezala. Gaztelerazko irakurlegoa izan zitekeen Euskarazkoa baino anitzagoa, baina ez zitzaion Pío Barojari txiripaz deitzen "el hombre malo de Itzea". Jean Etxeparek horrelako ezizenik ezin zuen eraman, besteak beste, ogibidea medikuntza zuelako landako herriska batean euskaldun fededunen artean, Pío Baroja ekonomikoki beregaina zen bitartean.

Tomas Agirre, aldiz, bai, mundu gotortu buruaski bateko bizilaguna da, iraupena arretaz zaindutako itxitasun bati zor diona. Mundu horren kanpotik datorrena mehatxagarria da, Madalenen gainbeherak argi eta garbi adierazten baitu, arau horiek hautsi baititu eta baserri-gizarteaz kanpoko gizon batez fidatu baita, hondamendia bere gainera erakarrita. Irtenbidea izango zaio erlijioaren altzora serora gisa itzultzea begirada, bere maitasun gizakoiak lur jo duenean, eleberriaren amaieran. Tomas Agirrek ez zeukan orduan oztoporik bere iritziak deblauki papereratzeko, ideologia hegemonikoaren barnean kokatzen baitzuen bere burua, Jean Etxeparek ez bezala. Tomas Agirrek kanpoko mehatxua detektatzen du, hasikinetan baitago. Jean Etxeparek kanpoko ekarpena asimilatuta dauka, baina *Uztaro*k errepresentatzen duen gizarte sektorea dauka aurrez aurre. Horretan, Jean Etxepare modernoagotzat jo daiteke, aldaketan eta berrikuntzan murgilduta baitago, horiek baitira modernitatearen ezaugarri nagusietako batzuk[1144].

Jean Etxepare jostariagoa agertzen zaigu *Beribilez*en, udako opor-bidaia horretan. Alde horretatik, bi liburuak aparte dabiltza: *Uztaro*k irakaspen morala transmititu nahi digu oroz gain, santutasun moraletik hurbil. Madalen protagonista moja sartuko da bere maitasun-istorioak porrot egiten duenean. Adierazgarria da Madalen ezinago ederra, gaztea eta desiragarria dela eleberri honetan, ia-ia idealizazioaren mugetan.

Beribilez da, aldiz, gozamenaren apologia txiki bat (artea, sukaldaritza, paisaia…), ondorio moralik gabea, eta baita festa intelektual txikia, non handik eta hemendik orotariko zertzeladak jasotzen diren ukitu hedonista batekin. Azken batean, hedonismoa izan daiteke

1144 Paz, O. (1974). *Los hijos del limo. Del romanticismo a la vanguardia.* Barcelona. Seix Barral.

fundamentalismoaren sendabidea. Hala ere, galde diezaiokegu geure buruari Jean Etxepare autozentsuraren mugetan ez ote zebilen.

> "An interest in something like gourmet cooking will be, for different reasons, difficult for a moral saint to rest easy with. For it seems to me that no plausible argument can justify the use of human resources involved in producing a pate de canard en croute against possible alternative beneficent ends to which these resources might be put. If there is a justification for the institution of haute cuisine, it is one which rests on the decision not to justify every activity against morally beneficial alternatives, and this is a decision a moral saint will never make. Presumably, an interest in high fashion or interior design will fare much the same, as will, very possibly, a cultivation of the finer arts as well[1145]".

Ezaguna da modernitatea berrikuntza-segidarekin ailegatzeak nolako buruhausteak sortu zituen idazleengan, oro har. Etxepare aldaketa horien lekukoa ere izan zen, eta ez legoke soberan arrastoa jarraitzea ondorio hain gaitzak ekarri zituen fenomenoari. Euskaldunak Elizaren eta beraren aliatuen menean bazeuden ere nagusiki, erantzun egoki bat paratu beharrean aurkituko ziren erdaraz mintzo zitzaien modernitate burges sekularrari.

> "Dans la continuité de ces investigations, il serait même concevable de hasarder quelques hypothèses plus risquées. A l´examen de la production de cette période de la littérature basque, comment ne pas se demander si, tout en tenant compte de l´extrême importance des événements historiques et des réalités sociologiques, la fixation précoce de certaines représentations identitaires n´a pas aussi une part de responsabilité dans la longue phase d´endormissement qu´a connue la culture basque de la fin des années trente jusqu´aux années soixante. La réticence à renouveler ces motifs, la méfiance à l´égard du regard critique interne expliquent sûrement l´échec de Buruchkak mais l´effet de cette attitude ne se limite pas à un seul ouvrage, aussi exemplaire soit-il. Il serait donc profitable d´étendre l´analyse à l´ensemble de la période 1850-1950"[1146].

1145 Wolf, S. (1982). "Moral saints". *The Journal of Philosophy* 79 (8). 422 or.

1146 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare.* Madrid. UNED. 2002, 520 or.

Jean Etxeparek kezka bizia du jakiteko ea mekanika erabiltzen ote duten Nafarroa Garaian lur-lanetan. Nekazariak aurrerakuntzari ez zitzaizkion lotzen erabat, diru-eralgiketa handiak egiteak arrisku ekonomikoa zekarrelako berarekin. Diruz nasai zebiltzanek esperimentu berriak egin zitzaketen, eta onik atera berrikuntzek porrot egiten bazuten. Aurrerakuntza teknologikoa gogoan du idazleak nekazaritzaren alorrean:

> "Ogi-joiteko mekanikak ezagutuarren, moda xaharrari badarraizkio zuhurki, gizagaizoak: zonbatez xahubideak ez dituzte horrela gutiago! Aroa lagun, etxekoz-etxeko egiten den lana da merkeenik, ahantzixea balin badugu ere Lapurdi eta Benabarreko aldean"[1147].

Idazle aurrerazaleak modalizatu egiten ditu bere asmo modernizatzaile positibistak enpatiazko adierazpidetan.

Erlijiosoek ez bide zuten horrelako kezkarik, mundutik aparte bizirik. Hala ere, badira batzuk Iparraldean kezka agronomiko hori dutenak (Arnaud Abbadie[1148]). Jean Etxeparek, jakina, badu askotan kezka aurrerazalea: hazienda-tratuak egiteko modua aipatzean, loreen lurrinak nola eskuratu aipatzean… "Eriaren gela" *Buruxkak*eko artikuluan ere kontuan izan nola atonduarazten dion nekazariari, baserriko hala etxetiarrak nola maizterrak gaixotasuna iragateko etzauntza egokia izan dezaten. X izpiak radiografiak egiteko nahi ditu ere[1149]…

Agian ez ginateke okerregi ibiliko hipotesi gisa esango bagenu euskara atzerakuntzarekin lotuta zegoela, eta frantsesa aurrerakuntzarekin herriaren gogoan. Elizaren beldurra zen sinesmena galtzea euskaldunen artean, eta sinestegabezia frantsesez baino ezin zitekeen iritsi euskaldunen gogora. Pentsatuko zuten, noski, euskalduna euskaldun atxikiz babesten zutela ezin esanezko kalamidadeetatik.

Jean Etxeparek dilema hori gainditzeko saioa egin zuen obra guztian zehar. Hizkuntza bera ere modernitatean sarrarazi nahi izan zuen[1150]. Hala ere, ez zituen sektore kontserbatzaileen

---

1147 *B.* 18

1148 Ikusi, nahi izanez gero, Kepa Altonagaren lanak.

1149 Weber, E. (1983). La fin des terroirs. La modernisation de la France rurale 1870-1914. Fayard.

1150 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare.* Madrid. UNED.

gurariak aseko, sinesmen aldetik librepentsalaria zen aldetik[1151]. Eztabaidagarria izan daiteke medikuari egotzi zaion muturreko positibismoa datatua dagoenetz, eta erlijioak zientziarekin elkarbizitzeko bide berriak urratu dituenetz, eta, baita ere, Eliza katolikotasun liberala izeneko pentsamoldearekin ez ote den nagusitu gaur ere gure gizarteetan, baina bego horretan…

Jean Etxepareren idearioan etikak duen lekua aztertu ondoren, ekar ditzagun hona ideia nagusi batzuk atalari erematea emateko. Euskaltzalea aritzen da Pirineoen bi aldeen arteko harremanak eztitu goxatu nahian; horretarako, atzartasun handiz berridazten ditu historiak bi aldeen artean izan dituen pasarte latz batzuk: Orreagako gudua eta Napoleonen ibilerak. Diplomazia handirekin frantsesek historian zehar ustez egindako gehiegikeriak zuritu gabe, deitoratu egiten ditu: badirudi gogoan duela bi aldeen arteko zubiak eraikitzeko premia, Hegoaldearekiko filia aldi berean kritiko baten markoan. Bigarren puntu nagusi batean mediku euskaltzalea kezkatuta agertzen zaigu euskararen atzerakadaren aurrera; guztiarekin ere, euskara zaio gizarte-kohesioaren berme bat, izan ere, aburu kontrajarriko euskaldunek adiskidetasuna iraunaraziko dute beren desadostasunen gainetik. Hirugarren puntu batean, Jean Etxepare argitua dakusagu bizi den gizartean dauden estereotipoak txikitzen. Askotan erabili ohi duen trikimailuarekin, iritzi polemikoak bigarren mailako pertsonaia baten ahotan jartzen ditu, narratzaile autobiografikoa dokumentalista-zereginetan babestua bere ahotsa inplikatu gabe. Ildo horretatik, deseraikiko ditu frantsesaren eta jesuitaren estereotipo bana, eta jasoko ditu autokide baten ahotan Ameriketara migratzaileen estereotipoak, hala euskaldunarenak nola frantsesarenak. Ikerketaren pasarte batean, Jean Etxepareren figura balioetsi da haren izaera hibridoaren argitan. Atal honen hondarrean, nahi izan da paralelo zenbait egin *Beribilez*eko iruditeriaren eta orduko literaturako zenbait lanen artean. Alderaketa horretan gogoan hartu da Tomas Agirreren *Uztaro* nabarmenduz bi idazlanen arteko diferentziak: *Beribilez* bilaketa (*quest*) krisi baten ondoko kronika izanda, Uztaro, aldiz, da balio tradizionalen indarberritze saioa, beharbada muturrera eramana.

1151 "Libre-penseur: Qui s'oppose aux croyances installées et en particulier aux dogmatismes religieux, pour ne se fier qu'à ce qui est librement établi et prouvé par la raison". CNRTL. http://www.cnrtl.fr/definition/libre-penseur ; "Librepensamiento: 1. m. Doctrina que reclama para la razón individual independencia absoluta de todo criterio sobrenatural". RAE. http://dle.rae.es/?id=NFgG9HU [2017-01-18]

6. Ondorioak

6.1. Liburuaren aurkezpenaren haritik

Gure ustez, Jean Etxepare da pentsamendu autonomoa garatzeko ahalegina egin duen lehen euskal idazleetakoa. Tutela jakinik ez zaio ezagutzen, ez erlijiosorik, ezta politikorik ere. Ibilbidea egin zuen gogoaren argiek manatzen zioten bezala; alde horretatik, eredugarria izan daiteke irakurle batzuentzat. Historia-mementoko baldintzapen jakinen artean egiten ditu ideologia-hautu zehatzak, ezinbestean, baina lehen intelektualetako bat dugu, Dreyfus aferaren garai hura intelektualak loratzeko aproposa izaki. Kritikak, ordutik hona, ikuspegi bata ala bestea azpimarratu nahi izan du, baina azpimarragarritzat daukagu beraren egia-bilaketa setatia, euskal eremuan ohikoak ziren pausuak baino harago jotzen zuela.

Egiaren ausardia izan zuen bizitzan zehar, nahiz eta egia esateko erabakiari buruz iritzia aldatu urteek aurrera egin ahala[1152]. Kritikari batzuek egotziko zioten agnostizismoa, beste batzuek zientismoa, beste batzuek nahiko urrun ez joan izana erreflexioaren bidean: argi dago jarrera berria izan zuela, egia tradizionalaren aurrean.

Orijinaltasun horren lekuko da *Beribilez*en forma poetiko bera. Bidaia-liburu-formula ezezaguna zen ordura arteko euskal literaturan. Ba zen Lizardiren bidaia labur bat, artikulu gisa kondatua, "Donapaleura joan-etorria"; bazen Jean Etxepareren Bilbora bidaia Azkue bisitatzera joan zenean, hura ere artikulu batean kondatua; hala ere, ez liburu-formatuko bidaia-kontakizunik. Baziren ere pelegrIgnazio-kontaera batzuk (Zalduby, Agirre) baina helburua erlijiosoa zuten. Bestetik, bertsolaritzaren arloan ezaguna da Donostiara egindako ezkon-bidaiaren kontakizun bat edo beste; oker ez bagaude, ez dago askoz gehiagorik.

Beribilez honen helburu nagusia izan daiteke oso ondo euskal lurraldeen osotasun bat marraztu nahi izatea, hau da, errebindikazio identitarioaren mugarri literario bat jarri nahi izatea.

Bidaien nolakoak alda daitezke bidaiarien eta garaiaren arabera[1153]. Bidaia burutsua izan ohi da norberaren aurreiritzi eta ohiturak gainditzeko ariketa bat. Bidaia izan daiteke prestatua, halako moldez non ia ez dagoen alderik jomuga den herrialdearen eta norbera bizi den herrialdearen artean, alde batera gaur egun gero eta gehiagotan gertatu ohi den bezala turismo globalizatuarekin. Jean Etxepareren bidaia da beraren Iparraldeko gizarte-ikuspegiaren proiekzio bat bezalakoa Hegoaldeko zeretan. Badira hor nekazaritza, antiklerikalismoa, udatiarrak, euskararen egoera, itsasoaren esanahia, arkitektura, dantzak… Liburu honi pintoreskismoa egotzi dionean kritikak, arrazoi puntu bat bazuen. Ozta-ozta da agertzen gauza exotikorik idazlearen luman, salbuespenak salbuespen. Filosofia pertsonalaren alorrean ere, idazlearen balioak lekuz aldatzen ditu eragozpenik gabe Hegoaldeko egoerei aplikatzeko. Beraz, *Beribilez* da bilduma bat, idazleak Euskal Herria osotasunean irudikatzeko errepertorioa, baina ez berak jorratu zituen alderdi guztien besarkatzailea… Ez dirudi idazleak bere balioak kolokan jartzen dituenik.

1152 Egia esatearen gai hau dezente landu du Michel Foucaultek Collège de Franceko ikastaroetan. *Parresia*ren kontzeptuaren inguruan ere badihardu, ez soilik egia ezagutzeko ausardiari buruz, bazik eta, egia esateak dituen arriskuei buruz ere bai.

1153 Yourcenar, M. (1991). "Voyages dans l´espace, voyages dans le temps" atala in: *Le tour de la prison*, in: *Essais et mémoires.* La Pléiade. Éditions Gallimard.

Ukitu horregatik ere, tokiko kolorea bakan agertzen da, gizatasun klasikoa aldarrikatzen baita, lekuan lekuko ohiturak marrazteko erromantizismoaren joerari izkin eginez. Bizkitartean, Jean Etxepare kontraesankorra iruditu zaigu arrazoi bat baino gehiagorengatik, alegia, konplexua, besteak beste, idearioz positibista izanik ere, erromantizismoaren zenbait oihartzun ere bereganatzen dituelako. Positibismoa eta erromantizismoa ez ziren ondo ezkontzen: erromantizismoa idealista zen eta positibismoa, aldiz, materialista. Erromantizismoak hiri-zibilizazio burges berria deitoratzen zuen gizartea asaldatzen zuelako; positibismoa, ordea, aurrerakuntzaren sustatzailea zen. Jean Etxepare baitan badira bi elementuak. Gaingiroki, nekazaritzaren eta turismoaren ekonomia-aurrerakuntza sustatuagatik ere, hiri-garapena ez zaio beti laket. Badu konformagaitz puntu bat materialismoaren aurkakoa, eta estetizismo filoerromantikoa erakusten du *Olerkia* deitzen duena laudatuz.

Gaztetan filosofia bitalista baten tonikotasunak eta desmasiak limurtu badute ere, helduaroan neurriari eta harmoniari lotu zaio, espiritu klasikorik konbentzionalenean. Greziaren zale agertzen da gizatasun unibertsal abstraktu bati men eginez, eta tokiko kolore eta usadioei gor samar. Haatik, aldi berean euskal bizimodu tradizionalaren biziraupenak kezkatzen du, abertzale konbentzional bat balitz bezala, aurrerakuntzaren oldarra indarrez baitzetorren. Liburuaren tonua da, gure irakurketaren sintesi gisa, kontentagaitz baten adierazpidea. Nahi du idazleak gogoa bridatu, baina ukitzen dituen hainbat puntutan kritiko samarra da. Usoaren sinboloa litzateke oreka desiratuaren sinboloa, Partenon ordezkatzeko sinbolo esplizitua. Hala ere, ibilbidean zehar bisitatzen dituen guneak begirada zorrotz batez interpretatzen ditu, eta gizarte-erreformatzaile idealista gisa mintzo zaigu. Ildo beretik, ezin isildu bizimodu esanguratsuak eskatzen duela errebeldia noblea ere izatea gizakiak: Jean Etxeparek badu. Jean Etxepareren errebeldia da itxurak baino harago zulatzea agerikoa, sarri hobe beharrez.

Kritikarentzat, arrisku bat bada humanismo erretorikoko hitz soiletan geratzekoa, zuzena politikoki, baina beste ondoriorik gabea. Jean Etxepareren ibilbideak hitz labanak baino zerbait gehiago iradokitzen du: nola pertsona bat izan daitekeen kontzientea bizitzaren gurutze-bideetan, nahiz eta inguru latz baten erdian izan.

Bidaia izan zitekeen katalogo bat, fresko bat. Gehiago iruditzen zaigu idazlearen nitasunaren adierazpena, hainbat zokondori erreparatuta. Bada Hegoaldeko elementuen katalogo txikia *Beribilez*en, maiz, ordea, ikuskizun diren gauzak narratzailearen subjektibitatearen ukitua dute, zigilu bereizia jartzen diena, ziur aski, ez bakarrik subjektibitate emozionalarena, baizik eta ekarpen arrazionalarena ere, idazleak iritzi propioa adierazten duela. Bidaiek, berez, entziklopediatik asko dute.

6.2. Ondorio nagusiak

Abiapuntuko tesia hau izan da: *Beribilez* da Jean Etxeparek eraikitzen duen hilburuko ideologiko burges txikia euskal mundua oinarri duena, garai hartako euskaltzale-eliteari eskaintzeko.

6.2.1. Lau ikerketa-galderen erantzunak

6.2.1.1. Zein izan zen Beribilez sortu zen giro intelektuala?

Beribilez aurkeztu eta gero, ikerlanean idazlea bizi zen gizartean kokatuta geratu da, bederen esparru humanistikoan. Euskal Herrian eta Europan zebiltzan korronteetan txertatuta geratu da idazlea. Pausu hori garrantzitsua da eta premiazkoa, *Beribilez* ideologikoki zedarritzeko asmoa hartu den honetan.

Jarraitu den prozedura izan da Jean Etxepareren gogoko pentsamendu-erreferentziak jasotzea, eta testuinguruan azaltzea. Argitu nahi izan da erreferentzia bakoitzaren zein alderdi jakin lotzen zaion idazleari ere.

Oro har, 1930 inguruko panorama laburbildu beharko balitz, bi eremu nagusi agertu direla esan daiteke: batetik, Elizaren indarrek osatutako eremu Euskal Herrian hegemonikoa eta, bestetik, Frantzian gailentzen ari zen sekularizazio prozesuarekin zetorrena, non medikua eta beraren zenbait lagun kokatu behar diren. Idazleak jarrera diplomatikoa izan zuen behin baino gehiagotan publikoki, nahiz eta haren iritzi pribatua zein den ere antzeman daitekeen.

Ikerlan honetan, hurrengo pausua izan da *Beribilez* bera hartuta, ideologia zantzuak bilatu, sailkatu eta sistematizatzea. Horretara, nahiz eta Jean Etxepareri buruz ikerketarik egin

den, ikerlan honen asmo berezia da berri sistematikoagoa ematea haren bizitzaren azken aldiko pentsaerari eta Euskal Herriaren ikuspegiari buruz[1154].

Nolanahi ere, irizpidea ez da literaturaren historiako pasarte honetan parte hartu zuen aktore bataren ala bestearen aldeko hautua egitea, baizik eta egin ziren apustuak zein terminotan egin ziren dokumentatzea, eta zein marko ideologikoren barnean. Irizpide horri eusteko ahalegina egin da. Beraz, historian txertatuta ulertu beharrekoak, ez bitez ulertu, ahalaz, inongo salaketaren froga-agiri gisa, eta bai gaurko garaiari taxu eta zentzu handiagoz ekiteko lagungarri gisa.

Beharbada, euskal idazle bat kokatzeak garaiko korronte intelektualen barnean ez dio berritasunik ekarriko pentsamendu unibertsalari. Hala ere, gure ustez, euskararen unibertsoan beharrezkoa da horren berria izatea, non kokatzen garen mapa orokorraren barnean zehaztu ahal izateko. Jean Etxepare horretarako laguntza handia da, garai hartako kezka nagusiekin bat eginik idatzi zuelako, literaturari leiho berriak irekitzeko punturaino. Piarres Xarritonek azpimarratu du hori, eta hemen idazlearen bertute horri lekua eman nahi zaio ere, ez dena hain erraza literatura berriki modernizatu –ala oraindik modernizatze bidean den- honetan.

Jean Etxepareren ekarpen baliotsu bat da euskal munduaren barrutik eginiko ahalegina euskal letrak Europan homologatzeko, euskal iruditeria zehaztuz. Eta ahalegin hori izan zen Elizak zekarren homologazioa krisian zegoenean, Jean Etxeparek bestelako homologazio bat bilatu baitzuen. Lan gaitza, gaitzik bada.

Jean Etxepareri bizitzea tokatu zitzaion denbora- zein espazio-ingurua gatazkatsua izan zen, gizarte tradizionala krisian zegoelako ideologikoki eta ekonomikoki bereziki: laikotasuna esparruak irabazten ari zen, konfesionalismoaren kaltean; nekazaritza krisian zegoen Iparraldean, eta migratzea beharrezkoa ikusten zuten gazteek. Betiko balioak krisian zeuden, filosofian nihilismoa trostan baitzetorren: koktela lehertzeko modukoa zen. Hori gutxi balitz, Lehen Mundu Gerraren osteak Europa ezkortasun-geruza baten azpian estali zuen.

Etxeparek aurrera egin zuen modu originalean, batetik, jatorri nahasiagatik amerikanoen ondorengoa baitzen, bestetik, formazioagatik, hala jaso zuenagatik nola autodidaktikoki eskuratu zuenagatik. Originaltasuna ez zitzaion eraman erraza suertatuko, nahiz eta Elizak ere

1154 Literaturaren Zubitegian aurki litezke Jean Etxepareri buruzko aipamen gehienbat labur batzuk: http://zubitegia.armiarma.com/ [2017-08-14]

egoera berrira egokitzeko saioak egin, motelak itxura batean: Vatikanoko II. Kontzilioa urrun zegoen.

6.2.1.2. Idazlearen zer ideia nagusi nabarmen zitezkeen helduaroan, testuari hurbilketa semiotikoa eginez?

Bidaiaren helburua Hegoaldeko euskal probintziak bisitatzea denez gero, bada programa horretan pertsona eredugarri baten jarraigoa: Piarres Broussain, idazlearen lagun euskaltzale eta abertzalea. Piarres Broussainen programa zen Hegoaldeko probintzietan egindako txangoaz gozatzea, dela jendeaz dela herrialdeaz, oro har, eta abertzale gisa. Ikuspegi gozatsuak ematen digu bi lagun hauek herria maitatzeko duten moduaren berria, nahiz eta han eta hemen herrigintzako istiluak ere azaleratu: hizkuntza-gatazka, industria-iraultzaren kalteak, turismo-oldea…

Jean Etxepareren paisaia-ikuspegian bi nota nagusi badira: lehenik, lurralde-ekonomia sustatzeko ikuspegia, eta, bigarren, lurraldea estetikoki esperimentatzeko deliberoa. Bisitan, Jean Etxeparek lurraldearen ikuspegi produktibista du, adibidez, ematen duen paisaiaren irudian ez baita nabaritzen erabateko molde erromantikorik, ekonomiak zinez baldintzatzen baitu idazlearen ikuspegia, lehen aditu batean adierazpen identitariorik gabea. Hor identifika daiteke XIX. mendean abiatu zen ikuspegi burges moderno eta ekonomikoki dinamikoaren isla.

Espainian, antzeko ikuspegia bultzatu zuten Francisco Giner de los Ríos-en (1839-1915) jarraitzaileek eta Institución Libre de Enseñanzak (1876-1936), ia denbora-tarte berean. Espainiar hauek Karl Christian Friedrich Krause (1781-1932) alemaniarraren filosofia hedatu eta egikaritu zuten beren herrian. Krausistek Espainia moralki zaharberritu nahi zuten, jakintzari bide zabalagoa emanez: zientziak, humanitateak, ekonomia… gizakia loratu zedin herrialde baten barnean, gainerakoekin anaikorra. Hori guztia 1931ko errepublikan gizarteratuko zen politikoki.

Gerora, 98ko belaunaldiko idazleek joera biziberritzaile (*regeneracionista*) horri bidea emango zioten, baita paisaiaren ulerkuntzan ere. Paisaia izan zitekeen nazio-arimaren ispilua,

hain zuzen, Espainiako arimaren ispilua, Gaztelako paisaia eredutzat hartuta, sarritan[1155]. Jean Etxepare haiengandik bereiztu egiten da paisaiaren sentimendu estetikoaren bidez herriaren arima jariatzeko azken puntu honetan, ikuspegi erreformista baikorrean ados bazetozen ere. Hala ere, batzuetan bat datoz medikua eta 98koak, adibidez, paisaian historiako pasarteak irakurtzean, nazio-historia propiala sendotzeko asmoz, Etxeparek euskal historia, eta Unamuno batek, adibidez, Espainiakoa.

Garai hartako idazle espainiarrekiko erdizkako antzekotasun hura nabaria izanik ere, euskal eremuari begira ez dago *Beribilez*en foruzaleek literaturan artikulatu zuten paisaia erreibindikatzailea bezalakorik. *Beribilez*eko paisaiak ez dauka proiekzio identitariorik, nahiz eta Hegoaldean foruen aldeko idazleek paisaian txertaturiko iruditeria erabilia zuten burujabetza-aldarrikapenak sustatzeko, Jean Etxepare baino hamarkada batzuk lehenago.

Idazleak ardura ekonomiko nabaria du, eta erne dago hiri-hazkundeari buruz zein nekazaritzaren edo teknologiaren aurrerabideari buruz, besteak beste. Guztiarekin, nekazaritzaren aurrerakuntza edo atzerakuntza narratzailearen kezka izanik ere, ezin da ahaztu paisaiak bidaiariaren baitan duen efektu estetikoa: paisaia dramatizatuta dago sarri askotan.

Bat eta bera dira idazleak ontzat daukan balio positiboko landa-eremua eta edertzat daukana; hau da, balio materiala daukana bat dator sentsazio estetikoa (*aisthesis*) sortzen dionarekin. Esan daiteke euskal paisaiak ba duela ahalmena gozoak komunikatzeko bidaiari so-egileari. Sentsualki igarotzen dira landa-lurrak narratzailearen begietan, mendi-lepoek eta malkarrek izialdurak eta estutasunak sortarazteari utzi gabe. Esan daiteke maitasun sentipen batek kolkoan jasoarazten dizkiola hala gozoak nola gaitzak; errepikatu behar da aldarte horiek idazlearen ideologia-aztarnak izan ohi direla.

Euskaltzale gisa ematen duen ikuspegiari aurre aberkoia dei dakioke. Naziotasun politikoa bultzatu gabe, ematen ditu herri-identitatea zedarritzeko elementuak, besteak beste, euskal turismo kultural bat sustatzeko ahalegin esplizituak, betiere etekin ekonomikoa gogoan.

Beraz, justifikagarria izan daiteke idazlea nolabait herrizalea (erregionalista) dela baieztatzea, emaitza kontrastatu batzuen ondotik ibili eta gero. Idazlearen begiradak esanahiak jasotzen ditu paisaien aurrean, eta aukeraketa bat egiten du, ideologia batek baldintzatua,

---

1155 López Ontiveros, A. (2009). "Valor, significado e identidad del campo y de los paisajes rurales españoles según Unamuno". *Boletín dela A. G. E.* 51. 131 or. eta hur.

dudarik gabe. Metodologikoki hitz eginez, estetikaren alorrekoa izan nahi duen atalean, suertatu da ikerketa-prozeduraren norabideak bestelako esparruetara jauzi egitea: ikusi berria da paisaiak ekonomiarekin eta lan-sorkuntzarekin duen lotura.

Arte plastikoen arloan, gizarte burgesaren kritika nabaritzen da beharbada erromantizismoaren eraginez, erromantikoek jarrera antiburgesak baitzituzten, adibidez, Loiolako dekorazioaren luxu-erakustaldian, bidaiariak Ignazioren etxea bisitatzen duela. Jakina denez, erromantikoek eta haien ondorengoek balio burgesak maisea zitzaketen. Gure artean, Lauaxeta sinbolista eta filosofikoki idealistak ere ildo horretatik egin zuen poesia.

Loiola izanik bidaiaren jomuga, uste izatekoa da idazleak literatur hordagoa jotzen duela kapitulu bi hauetan. Estetikoki horrela da, orrialde horiek estilo aldetik nabarmengarriak dira-eta. Idearioaren aldetik, Jean Etxepare oso begiratua agertzen da. Ez du arbuio espliziturik egiten, gizarte-testuinguru hartan jesuitak polemika-iturri izanagatik; mugatzen da Ignazioren etxearen dekorazioa kritikatzen, jomuga duela beraren ustez akastuna den espiritualitate santutegian proposatua. Etxeparek ikusgai duena iruzkinduz ematen du ikusmoldea. Aberastasuna gainezka dago santuaren etxeko adierazpide estetikoetan. Oztopoa da hori idazlearen espiritu-ikuspegi soilarentzat. Berriz ere, agnostikoa bakezkoak egiten ikusten dugu, agian, tolerantziaren izenean, berak besteei eskatzen zien hura praktikatuta.

Hainbatetan, narratzailea arte-aditu gisa agertzen da deskribapenetan, hala Iruñeko katedralean nola Loiolako Santutegian. Zehazki, Loiolako Santutegiaren kasuan estetika barrokoaren kritika bat sumatu da, Ignazioren etxe-dekorazioan gauzatua. *Beribilez*en helarazten zaigun mezua da, ez bakarrik santuaren etxeko luxuzko dekorazioak asmo pastoral zalantzagarria duela, baita ere etxeak leialtasun historikoari huts egiten diola, hots, Ahaide Nagusi haien bizimodua distortsionatzen dituela. Iradoki da testuan agertzen den apezñoaren kritikak jatorri positibista ere izan zezakeela. Ikuspuntu horretatik, “Etxe Santuak” ez du islatzen behar bezala Ignazioren jatorrizko etxe-ondoa, santuaren arbasoen pobrezia erlatiboak sinestunak epelduko zituelakoan, orduko parametroekin begiratuz gero. Arte-kritikako saio jaso hauek adierazten dute idazlearen gogoan irakurle ikasiak zeudela, arte-adierazpenak irizpide autonomo batekin ebaluatzeko kapazak.

Ironikoki, Ignazioren etxea gaur egun gehiago da Etxeparek gogokoa zukeen bezalakoa, ezen ez idazleari “pozoia” zabaltzea egotzi zioten haiek gogokoa zuketen bezalakoa, agian; herri xehea larderiaz inpresionatzeko luxu hura zaharkituta geratu da, eta, horren ondorioz,

bestelako sinesmenik bultzatzen bide da Lagunditik, azken urteotako etxea zaharberritzeko estiloari kasu eginez gero.

Ignazioren etxearen bisitan, idazleak espiritu historiko positibista adierazten du, bigarren mailako pertsonaia den apezñoaren bitartez, medikuaren lagun irudikatua, baliabide narratibo horrekin heterodoxiaren zama kentzen baitu bizkar gainetik.

Beste atal batean, Loiolako Ignazioren izaera jorratzen du gazte-oroitzapenetako laguna den apezñoarekin solasean, zeinean Jean Etxeparek azpimarratzen duen Ignaziorengan adimenak merezi duen aitortza, dudarik gabeko kar erlijiosoaren ondoan. Horrela bada, baieztatzen du zientziaren autonomia, fedearen eta egia errebelatuen ondoan. Ez du zuzenean ukatzen fedearen eraginkortasuna, azpimarratzen du bakarrik jakintzaren onura doktrina-sendotasunarekin batera. Ez da erraza erabakitzea Jean Etxeparek fedea noraino sentitzen zuen, ohi den bezala autore ziur aski agnostikoaren baitan. Bi lagunen arteko eztabaidan, islatuta ikusten dugu medikuaren kezka nagusi bat, alegia, zientziaren eta fedearen arteko ezkontzaren premia eta zailtasuna XIX. mendean eta XX. mendean ere bai, ikasien artean eztabaida bizia izan zena.

Estetikaren beste hari-izpi bati helduta, garrantzitsua da medikuak duen jarrera hedonista garai hartan, noiz eta masa-turismoa hasia zen, eta garatzeko bidean. Hedonismo neurritsu hori islatzen da artea, ardoa, janaria, paisaia-ikuskizunak eta abarrak gozatzen jakiteko kultura burges txikian. Iraultza burgesaren eta industrializazioaren ondorioz, klase ertainek sarbidea izango zuten lehenago goi-klaseetara mugatuta zeuden aisialdi moduetara. Sentsibilitate estetiko horrek, agian, talka egin zezakeen Elizaren irizpide estetiko tradizional batzuekin, soiltasuna baitzen predika ziezaiekeen bakarra gizarte-geruza batzuei, gozamenari eta aberastasunei sarbidea eman ezinda.

Jean Etxeparek plazerari abegia egiten dio, modu neurritsuan, hau da, bizitzeko arte baten markoan. Finezia ezaguna zaio, eta irakurleari jakinarazten dio hainbat zentzumenen erabilerarekin lotutako irizpide multzo bat. Sentibera da abuztuko bakantzalaria errepideak eskaintzen dizkion gozamen mundukoiekiko, aldi berean, zentzumen-datuak espiritualizatzea ahaztu gabe. Hala ere, ez du erreparorik bere burua irrigarri uzteko, adibidez, gehiegi edateagatik, nahiz eta ezagulea izan ardo-dastaketaren nondik norakoez. Beraz nortasun konplexu baten aurrean gaude, pertsonaia borobil baten aurrean, onkeriazko manikeismoari ihes egiten diona. Beldur gara mozkorrak bakarrik aipatzen zirela edariaren kontrako sermoietako predikuetan, eta ez horrenbeste norberaren esperientzia gisa, bederen literatura

idatzian; ahozko literaturan, agian bai, baina jaso diren laginak biltzaileen irizpide moralek galbahetu samarrak egon daitezke (Azkue, Aita Donostia…).

Emakumearen ikuskerari buruz ere, narratzailea pertsonaia borobil gisa agertzen zaigu, bizitzan zehar buruan zuen haren irudia aldatu duela baitiosku. *Beribilez*en, balantza aldatzen da emakumearen edertasunetik haren izaera moralera idazlearen biografiaren harian. Bere erara, emakumearen apologia eta goraipamena egiten du diskurtso mailan bederen. Hala ere, emakumearen erretratu karakterologikoa ez du lotzen "adimena" deitzen duenarekin, eta adimen horrekin zerikusia izango luketen eginkizunekin, zintzotasun moralaz aparte.

Oro har, plazeraren alderdiek pisua dute liburuan, eta haietako bakoitzean bada ikuspegi orekatu eta gozatua, adibidez, dantzak deskribatzean, non tentu handiz azpimarratzen duen bikoteko dantzaren araztasuna, ziur aski liburuan bertan jorratzen duen neurritasunaren (*sophrosyne*) ildotik. Hor ere bada idazlearen eboluzioaren aztarna gaztetasunetik helduarora, gizabanakoaren aldaketa biologikoaz haratago ere uler litekeena, ez bada galeriari buruz egiten duen keinu hutsa.

Idazlearen ideia etikoen alorrean, bada, era berean, idazlearen jarrera patxadatsuagoa: izango litzateke neurrigabekeria baztertzeko ahalegin burges txikia, bai gizarte mailan, bai pentsamendu mailan, eta bai pertsona mailan. Oro har, idazleak eboluzio intelektuala izan du, eta 1928an sosegatuagoa nahi du bere burua: gaztetako irakurketa berritzaile haien ordez, hau da, Friedrich Nietzsche, Arthur Schopenhauer, Ernst Haeckel eta abarren obra seduzitzaileen ordez, helduaroko neurria klasikotasunean finkatua. Hori ez da oztopoa, ordea, idazleak aburuak dagozkien irizpideekin defenda ditzan, desadostasunak begi-bistakoak direnean, betiere iragaitzez bezala, "egiaren amodio bizi"-egirik gabe, Piarres Lafitteri aitortzen zion akatsari iskin eginez, hori jotzen baitzuen bizitzako grina nagusitzat[1156]. Garai hartan, Iparraldeko euskal elite txikia, gehienbat katolikoa, gatazkan zegoen Frantziako estatuaren ahalegin laifikatzaileen aurrez aurre, Elizaren ahala makaltzera baitzetorren. Euskara zen ortodoxia horren berme aitortua, eliz-jendearen aburuz frantsesak berarekin ideia ikonoklastak baitzekartzan. Orduko ortodoxia katolikoa orain ezagutzen zaion berri airerik batere ez zuen. Hala ere, nagusitan ez dugu *Beribilez*eko Jean Etxepare bekoz beko hierarkia erasotzen ikusten,

1156 Xarriton, P. (1991b). "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)" in: Lakarra J. A. et al. (arg.) *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia. 600 or.

*Buruxkak*eko (1910) “Nor irakasle-Zer irakats” atalean egin zuen bezala. Kontuan izan behar da, Iparraldean gorriak baziren ere, zurien ondoan, euskal jende ikasia elizkoia ez bazen ere, horiek guztiak elizkizunetara joaten zirela, itxurak gordetzearren. Hori izan zitekeen, esaterako, Jean Baptiste Elizanbururen, Piarres Broussainen eta Euskaltzaleen Biltzarreko bat baino gehiagoren jokabidea. Aldiz, Georges Lacombe edo Elosu medikua bezalakoak euskaldungotik kanpo kokatuak ziren, eta ez zuten horrenbesteko muntarik euskal gizartearentzat, inolaz ere.

Inguruko gizartearen eskasiak deitoratzen ikusten dugu Jean Etxepare, behin baino gehiagotan. Hala ere, ez du eskasien irudi naturalistarik ematen *Beribilez*en, nahiz eta beste izkribu batzuetan bai. Ikusten dugu pentsamolde dibergentea adierazten, tartekatutako bigarren pertsonaien eta esakuntzaren bitartez.

Gizarte-interpretazio bati helduta, esan daiteke XIX. mendeko burgesia-oldarraldi politiko, ekonomiko eta kulturala konpartitu zuela mediku positibistak gaztetan. Kontuan izan behar da industria-iraultzen eta kolonialismoaren garaia zela Europan. Nagusitan, ordea, Jean Etxeparek dudatan jartzen du goi burgesiaren ekimen moral kaskarra, baina aurrerazaletasun ekonomikoa ukatu gabe, datu garrantzitsua izanik Lehen Mundu Gerrak ekarri zuen balio-noraeza kontinentean.

Gizarte mailan, idazleak arbuiatu egiten du burgesia handiak Donostian abiarazi duen hiri-hazkunde neurrigabe hura ere. Espiritualtasuna aldarrikatzen du goi-burgesiaren ohitura-arinkeriaren eta diru-zalekeriaren lekuan, bi biak “Belle Époque”-ren fruitu galkorrak.

Etikaren arlo honetan, idazleak materialismoa kritikatzen du. Goi-arnasaren premia kontrajartzen dio hedonismo errazegiaren arinkeriari. Burgesiak gidatutako gizarte-aldaketa erraldoi honen beste alderdi bat ere aipatzen du: gaztigatzen gaitu masifikazioak jendea arrunta bihurtzeko daukan arriskuaz.

Bestetik, Gipuzkoaren kostaldeko ikuskizuna itxuraldatzen duten alegia edo alegorietan, irudikatutako hiriak lirateke Ameriketako itsasoaren gaineko hodeiak, Jean Etxepare gaztea liluratu duten pentsamenduaren ikuspegiak, irakurle jakin-gosea ibilarazi dutena gero eta urrunago beti, sosegurik gabe eta artega.

Badirudi Jean Etxeparek ekimen-gogo hiritar eta burges horretan atzera egiten duela helduaroan Mediterraneoa hobetsiz Ameriketako itsasoaren kaltean, hein batean ekimen iraultzailea baitzen gaztetakoa, idazleak sinboloen bitartez adierazten duen bezala.

Gaztetako gehiegikeriaren ostean, idazleak neurria hobesten du Greziako *sophrosyne* kontzeptuaren bertsio sinbolikoa ematen digula, Partenonen ordezko iruditzat ematen digun usoaren figuran: aspaldiko neurrigabekeriaren lekuan, usoaren bermea.

Greziaren aipamena, ordea, izan zitekeen konplizitate-keinu bat irakurlego frantsesarekiko, denok partekatzen dugun leku komuna baita Grezia kulturaren ama delako topikoa, eta Jean Etxeparek bakezkoak egin nahi hartzaile errealen gehiengo batekin, "zeru-alde gogoa airatze" gehiegizkoaren kontrapisu gisa; zenbatetaraino sinesten zuen Grezian ezin jakin.

Horiez gain, ideia etikoen atalean nabari da medikuaren ikuspegi positibista, bidean aurkitzen dituen herritarren jokabide superstiziosoak salatzen dituela. Modernitatearen ezaugarria da zientzia-aurrerakuntzen baitako fidantza, egiaztapenik eskain ez dezaketen sineskerien aurrean.

Bestalde, medikua ikusten dugu herri sineskeriak salatzen bereziki osasungintzari dagozkion zeretan. Mediku positibistak ezin ditu eraman oinarri zientifikorik gabeko folklore-praktika ustez sendatzaileak. Ikusten dugu, berriz ere, pentsamendu kritikoarekin aztertzen euskal gizarteko konbentzioak.

Jean Etxeparek behin baino gehiagotan azpimarratzen du generoak sineskerien aurrean markatzen duen desberdintasuna, emakumeen behatzailea zen aldetik. Bizitza guztian zehar emakumeen heziketa mediku progresista honen kezka izanik ere, horregatik ere ez zuen ezkutatzen genero hori pentsamendu kritikotik gizonezkoa baino urrunago zegoela bere ingurukoen artean. Erabiltzen ditu isiltasuna, gezurra eta irria, eta, noizean behin, erridikulua iritzia emateko ("Hasiz geroz, mirakuluz-mirakulu hegaldaka baitabil emazteen irudimena"[1157]).

Zeharbidea da Etxepareren baliabide bat errealitate hobegarriak nabarmen uzteko. Umorea erabil dezake sasi-mediku apal batzuen jokabide txoroa marrazteko (petrikilo). Irudimenezko pertsonaia bat erabil dezake Ignazioren mirakulu errazak nabarmentzeko, edo oroimeneko beste bat…

1157 *B.* 16

Sineskeriaren gai honek liburu laburrean zehar duen errepikakortasunagatik, esan daiteke narratzailearen behaztopa-harrietatik bat dela. Euskal Herrian modernizazioa hastapenetan zegoen (orduan ere).

Falta zaio idazleari, akaso, elementu imaginatibo horiek (harria, iturriak, dekorazio barrokoa, sendalaria) bigarren pentsamendu batekin beretzakotzea, alegia, haien karga negatiboa hainbestean nabarmendu gabe, hau da, 1930ean zuten polemikotasuna gaindituta, jolas-aitzakia iradokitzailetzat har zitzakeen idazleak errealitatearen esfera ez-zientifiko batean. Ordea, ezin eskatu XXI. mendeko betaurrekoekin begiratzea 1930eko idazleak, gaur egun samurtasunez begiratzen baitira herri-jakintzako lamia, galtzagorri, sorgin eta abarrei, jostagailu gisa erabiltzen direla masa-kulturan… Agian, hori izan zen mediku positibistak giroko zientismoari ordaindu beharreko ideologia-bidesaria, zientismoa baldin bada gauza guztiak zientziaren bitartez azaldu beharra, batere zilegitasunik izango badute.

Etikaren arloan ikusi da idazleak marraztu digun bizitzako bilakabidea. Gaztetan ekintzailea izan bazen zerumuga intelektual berrien bila, nagusitan pausatzea erabaki du, eta klasikotasun batean murgildu da. Postula genezake tradizioa kolokan jartzeko filosofiatik, agian, nihilismoaren hurbilekoa, igaro zela konbentzionaltasun trankilago batera, Antzinakotasun klasiko baten abaroa bilatuta, baina aurreko jarrerak erabat ukatu gabe. Hala ere, eta gizarte-antolaketara jota, suma daiteke idazleak lege liberala lehenetsi duela giza harremanak bideratzeko, moralaren eta eudaimoniaren gainetik, ohikoa zena Orixeren eta pentsaera katolikoaren gogoan.

Nagusitako erreflexio honek erakusten digu mediku fisikoki makalduaren jarrera, bizitzaren azken urteetan dagoela, eta gaixoak joa. Horrela bada, eszeptikotasun batek jartzen dio puntua, urteetan zehar oker ala zuzen intelektual gisa egin zuen egiaren bilaketa saiatuan. *Beribilez*en ikusten da moral-tradizioekin bizikidetza ukatzen ez duena, ziur aski Hans Reichenbach enpirista logikoak proposatutako terminoetan, alegia, tokatu zitzaion gizartearekin harreman harmoniatsuagoetan, egia, berez, probabilistikoa baino ezin izan daiteke-eta, hautatu beharreko moral hura gizakien arteko frikzio edo elkarrekiko marruskadurek erabakiko dutela.

6.2.1.3. Euskal Herriaren zein iruditeria burges txikia ematen du Beribilezek?

Bidaia-liburu honek eskaintzen duen iruditeria jaso nahi izan da, imagologiari jarraiki. Euskal iruditeria eraikitzeko lanean, Jean Etxepareren ikusmoldean beharrezkoa da euskal herrialdearen historiari plegu berria ematea, hau da, ohiko kontakizunetan datorren historia-bertsioari beste tornu bat ematen saiatzea. Argi eta garbi geratzen da idazlearen asmoa, iraingarritzat har ez dadin mugako bi aldeetako euskaldunen artean bizikidetasuna eragotz dezakeen edozein historia-gertakizunen bertsio; horretarako, Frantziatik Espainiara egin diren inbasioen zilegitasuna zalantzatan jartzeko premia ikusten du, beharbada, Hegoaldeko euskaltzaleak gogoan, elkarrekin aritzen baitziren guztiak behin baino gehiagotan.

Seinalagarria da iraganera jotzen denean arrimu bila *Beribilez*en, historiako protagonistak *ethos* burgesari dagozkion herritar xeheak direla. Aipagai ditu, zer esanik ez, figura historiko gailenak (Karlomagno, Napoleon, San Ignazio…), baina protagonistak dira soldaduak, nekazariak, fraideak, etxe-eraikitzaileak eta marinelak bezalako herritarrak. Hortaz, ez dago Antzinako Erregimenaren berreskurapena, ziur aski, eleberri historikoan eta kostunbrismoan bazegoena: *Auñamendiko lorea*, *Amaya o los vascos del siglo VIII*, etab. Edozein arrandiatik aparte ikusten dugu narratzailea. Nazio liberalen eraikuntzan horrek garrantzia du, herritarren mobilizazioa beharrezkoa baitzen, eta *Beribilez*en jaso egiten da historian zehar detektatu ahal diren masa-mugimenduak: soldaduak, konbentuko fraideak, migratzaileak… Burgesiaren gidaritzak eskatzen zuen giza oldeak lekuz aldatzea landa ingurutik hiri gero eta handiagoetara, industria gotortzen zihoan heinean.

Masa-lekualdaketen sublimitate horrek nazio berria gorpuzten laguntzen zuen. Garraiobideak azkartzearekin, populazioak lekuz aldatzea posiblea zen engoitik. Ikusi denez, Jean Etxeparek masa-fenomeno hauen aurrean jarrera anbibalentea du, noiz miresmena sortzen diote, noiz gaitzespena, masa-gizarte berriak dakarren gizarte tradizionala hankaz goratzea medio.

Historiari eskaintzen dion eginkizuna da, aurrekoaz gain, euskal identitate kulturala sendotzea. Euskal Herritik fokatutako historia batek lagun zezakeen identitatea babesten. Unibertsitaterik ez zegoen garaian, zeregin hau Etxepare bezalako frankotiratzaileei zegokien. Euskal Herriak instituzio-egitura propialak ez izan, ezta bigarren mailakoak ere, eta historiografia berezi baten premia nabaritu zuten heziketa bat zuten eragileek, Euskal Herriko

baldintzapenak kontuan izango zituena, zehatzago, mendien bi aldeetako probintziak kohesionatzeko zeuden oztopoak, kontuan izanik estatuek markatu dutela gehienbat historiaren norabide nagusia. Biztanleria-kopuru kritikoa ez izanik, estatu burujabea erdiesteko aukerarik ez duen herriak, kultur identitatea zurkaiztea da geratzen zaion aukerarik eskurakoiena. Hori Jean Etxeparek bazekien, eta deklaratu ez ezik, praktikatu ere egiten du idazteko langintzan.

Ildo horretatik, agerian geratu da idazleak historia komun baten bilaketa egiten duela, iraganean atzera eginez. Historia hori subjektibitatez blai agertuko da, Jean Etxeparek balorazioa eransten baitu baliabide linguistikoen bitartez: azpimarratu da pasarteen modalizazioa. Hari beretik, idazleak ematen dituen hurbilketa historikoek asmo kontziente bat dute: auzo euskaldunak ez liskartzea elkarrekin, ikuspegi frantsesa ahaztu gabe horregatik.

Egoera horretan, ez da mirestekoa zaletuen historiografiak kalitate mugatua izatea, egiazki, *Beribilez*en egiten diren aukera historiografikoak txundigarriak ere izan dakizkioke gaurko irakurleari, nahiz eta ideia gidaria balekoa izan gaur egun ere, alegia, Pirineoetako mugaz gaindiko historia komun baten mugarriek nolakoak izan beharko luketen jorratzea.

Ezin da ahaztu erregionalismoak garai hobeak bizi zituela XX. mendeko lehen herenean Frantzian, gerora ezagutu dena baino. Jean Etxeparerena bezalako programak ez ziren euskaldunen ekimen esklusiboa, eta hexagonoaren beste eskualdeetan ere aurki zitezkeen. Bigarren Mundu Gerrak ekarriko zuen giro loratsu horren endekapena, ikuspegi etnizistak txarto ikusiak izatera aldatu baitziren.

Nazio txikiaren eraikuntzarekin jarraituta, idazlearen bidea izango litzateke konpromezuzko ahalegina, paraje hauetan zabalkunde gehien daukaten bi ereduak ezkontzeko: Johann Gottfried Herder-ena eta Ernest Renan-ena. Emango luke Jean Etxeparek Herderren ikuspegi primordialistatik edaten duela bereziki Euskaltzaleen Biltzarreko burua izan dela, herritartasun kolektiboaren elementuak bultzatzen aritu baita: folklorea, herri-arkitektura, herri-instituzioak, ohiturak… Aitzitik, *Beribilez*en gehiago agertzen da Renanen ikuspegi kontraktualistaren kideko, hor aipatzen baitu “Legea”. Ez litzateke mirestekoa idazleak bere burua abaroa lege laikoan bilatzeko premia somatu badu klerikalismoarengandik babestearren, kontuan izanik zein zen orduko gizarte-ingurua, hertsatzaile samarra espiritu librea zuen bera bezalako intelektual baten kasuan. Beraz, legeak herritar guztiak berdinduko lituzke, eta norberak bizitza ona (*eudaimonia*) nolakoa behar duen aukeratu dezala. Polemika hori hizpidean dago gaur egun ere, liberalen eta komunitaristen arteko auzi-mauzietan.

Identitate konpartituei eutsita, Jean Etxepare izan daiteke zubigilea Iparraldearen eta Hegoaldearen artean, bidaia honek hartzen duen plegua ikusita. Idazleak badu filia edo begikotasuna Hegoaldean ikusten duenari buruz. Horretan izango zuten zerikusirik bi aldeetako euskaltzaleek zituzten harremanak, euskara mugaren gainetik loturak sortzeko gai izanik, orduan ere. Hala ere, Etxepareren irudia ez da mirespenezko mania bat: konparagai diren elementuak zetabe kritiko batek galbahetuak dira, ez baitauka eragozpenik ohartzeko bidaian ikusgai duena kanpoko zerbaitek gainditzen duenean, dagokionean.

Guztiarekin ere, bidaia hau izan daiteke ihes-bide bat agian, edozein bidaia bezala, areago, abuztuaren erdian izanik. Idazlea abiatua zatekeen errealitate idealizatu baten atzetik agian, euskaltzalea zenez gero, mugaz beste aldera. Bidaiaren amaieran abiaburuko gogo bizia gutxitu zaio, hurrengo baterako gogoan duela Hegoaldeko kideko batzuekin harremanak estutzea elkarrekikotasunean, trukea eta elkar ezagutza benetan emankorra izan dadin. Badirudi, azken batean, fede-aitorpena dela liburua, laiko baten fede-artikuluen bilduma bat, aitorpen bakarti samarra idazlearen beraren etsipen-deitoreei sinestu behar bazaie, lehenago ere kritikak azpimarratu duen bezala. Dudatzekoa da, medikua autoetan lagundu zutenak ba ote ziren haren barneko kezkak eta grinak entzuteko solaskide egokiak: inoiz "*ameslari"*-tzat ere badaukate, adibidez, ikuskizunaren alegiazko interpretazioa egiten duenean itsasoaren aurrean, txantxetan, noski, baina datua hor dago.

Hizkuntza izanik komunitate baten ezaugarri bereizgarri garrantzitsua, jakin dugu nolakoa zen Jean Etxepareren euskararekiko jarrera: haren ustez, euskarak gizarte-kohesioa sustatzeko gaitasuna dauka. Hala ere, ñabardura batzuk egin behar dira: etniaren barruko komunikazioak izan ditzake gorabeherak disidentziak zuzenak eskatzen dituenean; horretan, Etxepareren jarrera paradigmatikoa da. Euskararen inguruko kontsentsuak posible egiten du elkarrekiko entente bat aburu ezberdinetako solaskideen artean ere, abantailei begiratzen bazaie. Beste alde batetik, desabantailen esparruan, somatuko dugu hizkuntzak uztarria jar liezaiokeela hiztunari, hark onartu nahi ez dituen hertsapenak jarrita. Horregatik da esanguratsua Etxeparek egin zuen saio latza tolerantziaren alde, bide luze bezain malkarretatik igarota.

Euskarak kohesioa susta dezake eta, era berean, atsegintasun-iturria da berekin dituen oroitzapen gozoak gorabehera. Jean Etxepare saiatzen da hizkuntzaren berezko alderdi afektiboa irabazian atera dadin. Euskal hiztuna duindu nahi du, gainerako hizkuntzetako hiztunen pare jarrita.

Hori horrela bada ere, gogoan dauka euskalgintza zaharberritzea. Premiazkotzat jotzen du, adibidez, antzerkia bezalako orduko forma kulturalak garai berrietara egokitzea, ahaztu gabe egiten duen gizarte-lana euskarazko kultura landu baten alde. Haren ustez, edozein kulturak bezala, euskal kulturak jende ikasien oste bat ezinbestekoa du hizkuntza aurrerabidean jartzeko. Oso ondo ulertzen du hizkuntza-komunitatearen ahulezia iraunkorra, baldin eta jende ikasien lanak huts egiten badu: beraren lanak hutsune hori betetzera jo zuen.

Jean Etxeparek hiztun-komunitateen konpartamentalizazioa premiazkoa ikusten du talde gisa iraun ahal izateko, eta berdenboran argudio ekonomiko boteretsuak dagokien neurrira ekarriko ditu, gehiegizko materialismoa salatuta. Horrelako jarrera batek zenbaiten gaizki ulertuak ekarriko zizkion, hala hizkuntza-komunitate barruan nola kanpoan, Euskal Herria laborari-eskualdea izateaz gain, goi mailako bisitarien turismo gune erakargarria baitzen, ezen ez beti goi mailako turismo gunea.

Euskalduna izateak ere izaera markatzen du, esan liteke ia ikuspegi fisiologikotik ere medikuaren gogoan. Euskalduna zaila da, gihartsua; kanpotarra, aldiz, endekatuta ere egon daiteke, agian, bere akats moralen ondorioz, gehiegizko gozazaletasunari emana bizi baitaiteke. Ikusten da idazlea garaiko seme gisa, gaur egun etnizismoaren boladarik hoberena igaroa baita harrezkero, bereziki Alemaniako abentura negargarriaren ostean Bigarren Mundu Gerran. Hala ere, medikuak badu osagarriaren kezka, bezeroak zituenen aldera. Oso argi ikusten du zuri guztiak ez direla irinak, eta kanpotik etorritako edozer ez dela onuragarria, baizik eta lilura-sortzailea ere izan daitekeela, hala hizkuntzaren arloan nola bizitza-estiloaren arloan, esaterako sasi-medikuen jardun pseudozientifikoa, gezurrezko aurrerapen zientifikoen ekarrarazlea. Lilura horrek hizkuntzaren alorrean kode-aldaketari bidea ematen dio, zabarkeriako hiztunen jarreraren bitartez. Zientziaren alorrean ikusten da moda berriak nola desbideratzen dituen, adibidez, petrikiloren euskal bezeroak, ezin dutela burutu medikuntza serioaren eta sasi-medikuntzaren artean ezberdintzen.

Jean Etxeparek kezka errepikakorra du euskararen bilakaeraz bidaian, bereziki hizkuntzaren galerari buruzkoan. Hala ere, ikusten da euskaltzaleak hizkuntza-higaduraren azalpena hiztun bakoitzaren erantzukizunaren gain jartzen duela, euskaldunen "nagikeria" eta arinkeria dela, erdaldunen "herra" dela, etab. Agian, eraginkorragoa izango zen gogoeta gizarte-instituzioei ere hedatuko bazien, gaurko talaiatik erraza baita honela pentsatzea. Egiazki, ikuspegi indibidualista zeharo baztertu gabe, osagarritzat beharko luke ekimen erakundetuagoa, hau da, norberaren bertute indibidualez gain, arreta jarri beharko litzaioke ere gizarte-psikologiari, behinik behin, hurrengo, arlo politikoa eta ekonomikoa ere gogoan. Sarri askotan,

ezin da jarri euskararen aurrerabide nekezaren zama guztia gizabanakoaren gain. Bide batez esanda, alderdi-politikaren alorra ez da asko ageri Etxepareren kezken artean, oker ez bagaude.

*Beribilez*eko gizarte-planteamendua berdindu daiteke neke handirik gabe Bilboko jelkideek zutenarekin, han ere lekuko euskal burgesia txikiak herri-geruzen lidergoa hartu nahi baitzuen oligarkia erdaldunaren aurka. Ikusi da fenomeno bera Frantzian, adibidez, Fréderic Mistralek Proventzatik Parisera diputatu gisa egin zuen jauzian, azken buruan arrakastarik izan ez bazuen ere. Guztiarekin ere, Jean Etxeparek proposatzen zuen programa guztia ezin zen aisa ezkondu Jainkoa eta Lege zaharra bezalako goiburua zuen erakunde batekin, dirudienez, baina politika-fikzioa alboratzea komeni daiteke.

Jean Etxepareren kokaleku intelektuala berezi samarra da, intelektualaren figura gutxitan ikusia baitzen euskal gizartean garai hartan[1158]. Jean Etxepare zubigilea zen bi gizarteren artean: euskalduna eta frantsesa. Bi gizarteen arteko elkar ezin ulertuak gainditzen saiatu zen, besteak beste, elkarren arteko ulermena oztopatu zitzaketen estereotipoak gudukatuz. Hegoaldeko gizartea ere nahi zuen hurbildu Iparraldeko kulturara, hurbilagotik ezagututa eta haren izaeraren berria emanez.

*Beribilez*en badira estereotipoak frantsesei buruz. Estereotipoak dira baliabide ekonomikoa gizarteak erabiltzen duena, Bestea edo kanpokoa azkar batean karakterizatzeko; gertatzen dena da estereotipo horiek elkar ez ezagutzearen ondorioa direla, uniformizatu egiten baitu Bestearen ikuspegia prozedura sinpletzaile batez. Arazoa larriagoa izan daiteke estereotipoa negatiboa denean, eta komunitateen arteko harreman toxikoa sortzen duenean. Iparraldean bazen gogo-egoera bat, Frantziako kulturarekin areago bat egiteak ekar zitzakeen ondorioez kezkatua.

Jean Etxepare jardun zen gauzak era arrazionalago batez ulertarazten irakurleari, bi komunitateen arteko ezinikusiak gainditzen saiatu zelako. Frantses-izaeraren alderdi positiboak azpimarratzen ditu, batetik. Beste alde batetik, euskaldun laborariaren gainean kanpotarrek izan

---

1158 Oraintsu atera da tesi gogoangarria euskal intelektual bati buruz: Kintana, J. (2008*). Intelektuala nazioa eraikitzen. R. M. Azkueren pentsaera eta obra.* IKER 22. Bilbo. Euskaltzaindia. Gerora, liburu gisa: Kintana, J. (2015). *Azkue, bilbotar ezezaguna*. Erein. Beste ikerlan batean garatzekoa litzateke Jean Etxepareren figura intelektuala Iparraldeko intelektualaren aitzindari gisa, eta izan duen eredugarritasun bereziaz. Dreyfus aferaren garaiak ziren, intelektualaren figura sortu zenekoak, nahiz eta gaur egun horrelako figurek eraldaketa esanguratsua izan duten. Jon Casenavek erakutsi duenez tesian, programa estrategiko jarraikia izan zuen bizitzan zehar Etxeparek, hainbat aldirekin zeinetan fokua eginkizun zehatzetan jarri baitzuen: idazle gisa garatzea, irakurlego idealago bat sortzea, eta abar, ikerlan honetan ere idazlearen azken urteetako bilakaera azaldu baita.

dezaketen ikuspegi iraingarriari ere buelta ematen saiatzen da. Laborariak badu duintasun errespetatu beharrekoa Euskal Herrian, nahiz eta bisitari frantses arruntek jakin ez hura estimatzen.

Beste sail batean, estereotipo identitarioen alorrean ikusi da Jean Etxeparek tentuz jasotzen dituela estereotipoak, eta duten karga negatiboa erauzten saiatu dela, hala frantximantaren estereotipoari, nola jesuitaren estereotipoari, beste alor batean, izen ona eta gizalegea jarri nahiz mespretxua eta irainaren ordez.

Zer esanik ez, Jean Etxepareren desmartxak ez zituen denak pozik utziko, ez alde batean ez bestean. Jean Etxepare *rara avis* bat zen. Laborariek bitxi ikusten zuten medikuaren portaera, besteak beste, euskarazko hitzen bila galdekatzen zituenean: haien begietan ez zen izango mediku jaun serios baten eginkizuna herritar xumeen eguneroko jakituriaren herronkara jaistea, areago amerikano azkar batzuen ondorengoa izanik. Haren andreak ere, gizarte-kokalekuagatik konbentzional samarra behar zuena, zorrotz eta mesfidantzaz begiratzen zuen ezkontidearen jarduera intelektuala. Idazlearen aitak ere debeku gogorra jarri zion *Buruxkak* lehen liburua zabaltzeko, idazle berriak bere diruz inprimatu ondoren: beraren bidea ez zen erraza izan. Besteak beste, debeku horrexegatik du bigarren liburua etorkorragoa.

Jean Etxepareren izaera zubigile hori estuki lotua ikusten dugu idazlearen beraren biografiarekin. Argentinarra zen jaiotzez, euskalduna bizibidez. Unibertsitate-formazioak prestakuntza laiko berezia ematen zion, apaiza ohiko ikasiaren figura zen esparruetan. Gainera, kontuan izan behar da zituen kezken arabera bilaketa intelektual propio batean murgilduta zegoela, euskal letretan gutxi ikusia orduan. Horrek ahuleziak ekarriko zizkion eta haiei aurre egin beharra ere bai. Ez zegoen euskal literatur sistemarik, eta zegoen apurra Elizaren eskuetan zen. Horrek bide-saria ordaindu behar izatea ekarri zion, eta konpromisozko filosofia bat praktikatzera eraman zuen. Haren bi liburuek arrakasta mugatua izan zuten irakurle ikasia eskatzen baitzuten, ohiko prosa utilitarista baino harago. Horregatik saiatu zen irakurleak ugaritzen Jon Casenavek azaldu duenez tesian[1159], euskararen arloko ekimen herrikoiak bultzatuta.

1159 Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak *(1910) de Jean Etchepare*. Madrid. UNED. Izan ere, hori da ikerlanaren ekarpen nagusia.

Ikusten dugu, halaber, Jean Etxepare maila intelektualean lotzen zitzaiela, gizarteko premia orokorragoei ere, ez bakarrik euskalgintzako ardurei. Frantziako kulturak medikuari arnas berria zekarkion, eta hari esker onekoa zitzaion, ez baitzuen nahi euskaldunek frantsesen estereotipo errazak txarto erabiltzerik. Alderantziz, euskara zitzaion familiaren eta bizi zen gizartearen komunikabide nahitaezkoa, eta ez zuen nahi hura inork arbuiatu eta baztertzerik ere. Hori dela eta, eginkizuna izan zuen oztopo horiek porroskatzea, eta bizikidetza orekatuagoa posible egitea, bi aldeen abantailak errespetaraziz zegokien lekuan, hala frantsesen nola euskaldunen artean. Gainera, kontuan izan behar da kultura horiek zituzten konnotazioak gatazkatsuak izan zitezkeela. Kultura frantsesa izan zitekeen euskaldun ikasi askorentzat laizismoaren eroalea; bestetik, euskaldun xehearentzat izan zitekeen mundu erakargarri baten leihoa, neurriz kanpo, bere kultura propioa ukatzerainokoan. Euskal kultura, ostera, izan zitekeen frantses ikasiaren begietan atzerakoien gordelekua, eta kultura tradizionalak sustatzea Elizaren trikimailua bere interesak bultzatzeko ("la réaction parle patois" esaten zuten iraultzaile jakobinoek); bestetik, frantses arruntarentzat, euskara izan zitekeen laborari basa batzuen mintzamolde oiesa, etorkizuneko proiekziorik eta interes objektiborik gabea.

Jean Etxepareren interesa datza hirugarren espazio baten sortzailea izatean, eta kultura gutxitu baten barnean egote horrek izaera bereizgarria ematen zion, haren kezka-iturri iraunkorra izateaz gain. Hori da Etxeparek utzi zuen hilburuko intelektualaren funtsa.

Jean Etxeparek paratu zuen euskal iruditerian, orobat, heroiak ere badaude: marinelak eta migratzaileak. Ikusten denez, heroi horiek hanka bat Euskal Herritik kanpo dute.

Ez dago soberan aipatzea Jean Etxeparek, identitate-estereotipoak gudukatzen dituelarik ere, bestelako estereotipoak ere deseraikitzen dituela: adibidez, jesuiten estereotipo antiklerikalak. Jesuitak errespetuz erabiliak izan daitezela nahi du, eta solas maila gorago igo dadila. Komunikazio gizabidetsu baten premia ezinbestekoa zaio Jean Etxepareri, eta beti tolerantzia baten markoan, jakina denez, erlijio-gerra luzeen ondotik sortu zen bertute bakegilea.

Eredu hori gaurko egunetara ekarrita, kulturen eta pentsamoldeen bidegurutzean egoteak euskal idazleari erronka bereziak dakarzkio, Jean Etxepareren kasuan ikusten den bezala. Humus hori ernagarria izan dadin, idazleak jakin behar du egoera etsigarri bati buelta ematen, hizkuntza gutxitukoa den aldetik, biziraupen nekezekoa. Gai izan behar du sustraiak ahaztu gabe, kanpoko zerei ere erreparatzeko: adimeneko jogi horrek arau bereziak jarrita ere, helduleku emankorra ere eskaintzen dio globalizazio berdintzailearen sasoian, zeren eta txikiak

badaki bera txikia dela eta hor gaindi handia ere izan badela, baina handiak ahantz dezake txikia ere badela, eta hori pobregarria zaio.

6.2.1.3.1. Identitateak

Euskal Herriaren iruditeriak Jean Etxepareren garaian zuen konnotazio nagusia zen kultura aurreindoeuropeo bakan batena, historia-denboraz kanpo iraun duena, zenbaiten ustez, euskal odol berezi batean oinarritua biologikoki hitz eginez, nahiz eta horrela ez izan zientifikoki.

Garaiko semea, Jean Etxeparek ikuspegi etnizista ematen du, lehen aditu baten, euskal hiztunak irudikatzean. Esentzialismo bati lotua da, euskaldunak aldagaitz ikusten baititu, denbora iragatetik at, aipatutako hainbat pasartetan nabari denez: Donostiakoan, Lekunberrikoan; baita ere, bestetik, Euskaltzaleen Biltzarreko burulehen zeneko mintzaldietan… Euskaldunak dira espezimen maitagarriak, baina batzuetan bereziak izan zitezkeen bisitatzen ari zen Hegoaldeko gizartean.

Batzuetan, ez beti, euskal kultura ikusten du erresistentzia garbizale batera lerratu beharrekoa Jean Etxeparek, identitatearen hainbat alderdiren atzerakadari eman dakiokeen erantzun bakar gisa. Hari horretatik, 1923ko hitzaldi batean, adierazgarriki, Iparraldeko mendialde euskalduna iruditzen zaio irauteko premiaren babesleku behinena[1160].

Ikuspegi etnizista horrek jarriko luke euskal mundua, ikuspegi frantses errepublikanoaren azpitik eta haren menean. Euskal kultura ez litzateke homologagarria frantses kulturaren balio orokorrarekin, herritar guztientzat. Euskal kultura bitxi hori eremu pribatura kondenatua legoke, lege-errekonozimendurik gabe.

Etxeparek bere sasoian euskaldunen eta frantsesen odolen arteko nahasketa ontzat ematen zuen, oinarrian metafora biologikoa zuela gogoan, azaldu denez. Ikerlan honetan zehar behin baino gehiagotan aipatu da Jean Etxepareren izaera berezia, garaikideen nortasunetatik bestelakoa. Hala ere, gizarte-giroan murgilduta zegoen eragileak nahita ez bereganatu behar

1160 Hori irakur daiteke Baigorrin 1923an egin zuen mintzaldian. Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. Donostia. Elkar/Euskaltzaleen Biltzarra. 73 or.

euskaldungoaren taupada ohikoenak. Horregatik esan daiteke, hein batean, Jean Etxepare kontraesankorra dela, adibidez, euskal identitateari ematen zion proiekzioaren inguruan.

Hala ere, Jean Etxeparek historiaren zentzua badu euskaldungoaren iragana aipatzen duenean, ez ditu ikusten euskaldunak denborarik at beti, baizik eta, behin baino gehiagotan, gertakari historikoak jasotzera dator, eta biziraute-estutasunen berri ematen digu: Orreaga inguruko gertakari historikoak, industrializazioa, hiri-hazkundea… Euskaldunak historiografiatik kanpo egoteak berekin du ezein nazio-konfiguraziotik kanpo egotea, zeren eta historia funtsezko osagarria baita herri bat burujabetza bidean jarriko bada, edozein nazio-proiektu liberalek egiten duen lehen urratsetan ageri den bezala[1161].

Duda-muda horretan, euskara bideratzekotan sentitzen du estandarizazio baten premia, hizkuntzari erregistro berriak aitortuta. Kultura-politikaren ildo horri eutsiz, Thomas Pierrek aipatzen du gaurko euskaltzaleek *diferentzia*ren kontzeptutik *berdintasun*aren kontzeptura jauzi egin dutela, beren errebindikazioetan galdatuz euskara irakaskuntzan ere denentzat onartua izatea frantsesa bezala, besteak beste[1162].

Diote batzuek, euskara izan beharko litzatekeela hizkuntza komuna Iparraldean, bestenaz galzorira kondenatuta bailegoke. Izaera estatiko batetik, euskal kultura historiara igaroko litzateke, alegia, gaurko gizartearen baldintzak onartzera, baita eremu publikoan ere. Garai bateko idiosinkrasia linguistiko mitikoa goraipatzen ibili gabe, komunikazio-hizkuntza izatera aldatuko litzateke, museoko pieza soila izatetik egunerokotasunera[1163]. Euskaldunek beren historia idatziko lukete, inguruko botereen historia-taxuari erantzun propiala emanez. Unibertsitatea Euskal Herrian kokatzearekin abiatu da mudantza hori, Jean Etxeparek lehen urrats batzuk egin bazituen ere, orduko beste batzuekin batera, Arturo Campion (1854-1937) seinalatuenetakoa izanik.

Azkenik, Jean Etxepareren bidaiak helburu osagarrizkoa duela defendatu da ikerlan honetan. Bidaia zaharberritzea den heinean, bilatuko du nortasun berria, ñabarduraz osatua.

1161 Agirreazkuenaga, J. (2017). *De los vascos sin historia a los vascos con historia.* Donostia. Txertoa

1162 Thomas Pierre, « Les revendications institutionnelles contemporaines en Pays basque de France : représentations du *monde basque* et discours politiques », *Lapurdum* [En ligne], 11 | 2006, mis en ligne le 01 avril 2008, consulté le 30 septembre 2016. URL : http://lapurdum.revues.org/408 ; DOI : 10.4000/lapurdum.408 Pierre, Th. (2013). "L'officialisation de la langue basque en France : du droit à la différence au droit à l'égalité ?" *Langage et société* 145 Issue 3.

1163 Agirreazkuenaga, J. (2017). *De los vascos sin historia a los vascos con historia.* Donostia. Txertoa

Bidasoaren bi aldeetako auzoak elkarrekikotasunean aritzeko aukera planteatzen du, berak horrela egiten baitu probintzietako bidaian: gauza onak beretzakotuta, eta ez hain onak baztertuta, bere herrialdean duen ondasunari eutsita.

Jean Etxepareren desmartxa imagologikoa izan daiteke herri nortasuna irudikatzeko saioa, idazlea gizarte-mugimendu bateko buru bat dela. Ikerketa honek erakutsi digu Jean Etxepare aurrendaria, helduaroan ikuspegi oso etorkorra duela bizitzea tokatu zaion gizartearekin. Hala ere, aipu honetan deskribatzen dena iradokitzailea izan daiteke *Beribilez*eko asmo nagusiaren ondoan, asmo euskaltzale honen balizko indar mobilizatzailea denaz bezainbatean:

> "Pour E. Shils (1956), c´est bien plutôt dans le type de mobilisation que se donneraient à voir les deux principales caractéristiques du phénomène: charisme du leader et instauration d´une relation directe entre celui-ci et les masses. Même si l´appel à une relation peut n´être qu´un ressort démagogique dans la stratégie déployée par le leader, il paraît fondé d´aller rechercher les principales dimensions du mouvement dans l´imaginaire véhiculé par le discours mobilisateur et dans les conditions de son emprise. Entendu ainsi, le populisme parle toujours au nom du peuple. Communauté "imaginée", ce dernier prend la forme d´une entité indifférenciée dont les contours s´enracinent dans des clivages ethniques ou linguistiques. Confondue avec l´image de la nation, cette communauté organique peut alors précipiter le mouvement vers un nationalisme fermé. Mais l´étranger n´est pas la seule figure qui serait censée menacer l´unité du peuple. Viscéralement anti-oligarchique, le populisme s´en prend également aux élites en place dénoncées comme corrompues par l´argent et les jeux de pouvoir et complices d´une modernisation destructrice"[1164].

Jean Etxepareren iruditeriak beteko lituzke aipuko ezaugarri batzuk, baina pekatu horietatik guztietatik libre den gizarte-liderrak bota biezaio lehen harria.

1164 Chazel, F. eta Patrice Mann. (2005). "Mouvements sociaux" sarrera in: Borlandi, M. et al. *Dictionnaire de la pensée sociologique.* Paris. PUF. 490 or.

6.2.1.4. Nolakoak ziren Euskal Herriaz ematen ziren imajinak orduko idazleetan, direla euskaldunak direla erdaldunak, Beribilezen ematen denaren ondoan?

Nahi izan da *Beribilez*eko iruditeriaren ikuspegi batzuk konparatu beste idazle batzuk Euskal Herrian girotutako beren lanetan eman zituztenekin, garai beretsuan.

Hasteko, Victor Hugoren ikuspegiak ekonomiari ezer gutxi erreparatzen dio, Jean Etxepare positibista aurrerazalearen jarreratik aldenduta. Ikuspegi politikoa, haatik, ematen du, ikusten baitugu poeta Frantziako Iraultzaren gehiegikeriak kritikatzen Euskal Herriko altxamendu karlista azaltzeko eta goresteko. Euskal Herria antzinako askatasunen sehaskatzat jotzen du, eta erregetzarekin bat egitea ulergarria iruditzen zaio, karlistak iraultza liberal askatasun-suntsitzailearen kontrakoak baitira, usadiozko instituzioak errespetatzen ez dituelako. Jean Etxepare politika kontuetan ez da den gutxiena ere sartzen. Isiltasun hori lot liteke euskaldun kontinental batentzat Hegoaldeak zuen hurbiltasun goriarekin. Bestela ere, *Beribilez*eko autorea ez dugu ezagutu auzi politikoetan barruregi sartzen, gainerako beraren produkzioan. Haren kezkak beste sail batekoak ziren, filosofia arlokoak, nahi bada ekonomia arlokoak, eta, agian, politika arlokoak ere bai, baina ez alderdi jakinen arteko gorabeherei buruzkoak.

Beste idazle bati ekinez eta abiaburu ilustratu bati buruz jarraiki, Jean Etxeparek eta Pio Barojak gizarte maila kulturala jasotzeko saioa egin zuten ideien ikuspegitik. Herriaren baitan egon zitezkeen estereotipo negatiboak uxatu nahi zituzten, haien izaera errealitate-sinpletzailea borrokatuz. Herritarren juzgu azkar eta errazegiak zuzentzeko prestutasuna izan zuten, askotan, estereotipo horiek bizikidetza orekatua oztopa baitzezaketen.

Hirugarren, ez da izan alferreko lana, agian, ondoz ondo jartzea *Beribilez* eta Tomas Agirreren *Uztaro*. Ezberdintasun nabariak dituzte egia, morala eta epistemikoa izan daitezkeenari buruz dituzten ikusmoldeetan.

Gure ustez, *Uztaro* eta *Beribilez* ondoz ondo jarrita, laburbil daiteke Jean Etxepareren ibilbidearen funtsa. *Uztaro* da gizarte tradizionala iraunarazteko artefaktu ideologikoa. Hor, egia da betiko egia, nahiz eta berrestea eskatzen duen kanpotik krisian jartzen den bakoitzean. Barrensororen lanean baieztapenak borobilak dira. Ez dago zalantzan euskal komunitatearen barneko sinestea. Barrensorok kolokan dagoena berfundatu nahi du, zaharrak berrituz.

Jean Etxeparek, aldiz, kolokan dauden balio batzuen aurrean, seriotan hartzen du datu berrien emana, eta bizitza osoan iraungo dion bilaketari ekingo dio. Jean Etxeparek ez du lehengo balio zaharrak berresteko beharrizanik ikusten, ez baitu horretan ahalegin berezirik egiten. Asmoa du bizimodu duin bat eskuratzea, egoera aldakorraren aurrean. Alde horretatik, bizitzako azken urteetan ere balio tradizionalen krisia itzuri ezina dela ikusten du. Ordezko sinesmen berria zeharo bestelakoa izango da: egia hautematea bera ez da izango zalantzarik sortzen ez duen operazioa, posiblea ote den ere kolokan baitago. Gainera, ez da izango ideien munduko konponbide hutsa bakarrik, baizik eta hausnarketa gizartean bizitzeko moduaren gainean ere. Jean Etxeparek modernotasunaren ateetan jartzen gaitu.

*Beribilez*eko ekarpena izan daiteke bizitzen-jakite laikoa planteatzea, helburu utilitaristetatik harago. Opor-bidaia honek sentiberatasun burges ezezaguna dakar euskal literaturaren plazara. Gozamen neurritsuak ordezkatuko du erlijioko sentiberatasun zorrotza. Ekonomia-garapenak gizarte aldagaitza krisian jarriko du, gizarte berriak biztanlegoari aukera zabalagoak eskaintzen baitizkio, nahiz eta ez denak onak nahita ez.

Hala ere, gurea ez da azken hitza. Saiatu gara ikuspegi gizabidetsua ematen, baina ziur aski eskastzat joko dute beste parametro batzuetan mugitzen direnak. Gaur egun gauzak dauden bezala, ezinezkoa zaio ikertzaileari liburu baten behin betiko interpretazioa ematerik[1165]. Gehiago gaude Jean Etxeparerekin ezen ez Barrensororekin. Lan honetan irakurketa astitsua proposatu da, eta irizpide ideologiko batzuetatik egina da, beste edozein irakurketa bezala. Egiari hurbilketa bat egiten zaio, ez baitago erabateko egiarik, hein batean idazle honek jakin zuen modura. Dudarik gabe, beste kritiko batzuek beste zerbait irakurri dute orrialde hauetan, eta aurrerantzean ere aukera zabalik izango dute bestelako irakurketak ere egiteko, zer esanik ez.

1165 Cassany, D. (2006). *Tras las líneas*. Barcelona. Anagrama.

6.2.2. Ikerketa lerroetarako perspektibak

Lan honen mugak kontuan izanda, helmenetik kanpo geratu diren zenbait hari-izpi aipatzeko ariketa egingo da, beste ikerketa batzuek erreleboa har dezaketelakoan.

6.2.2.1. Autozentsura, egiaren ausardia eta intelektuala

Ikusi da *Beribilez*en egiaren inguruko planteamendua konplexu samarra dela, horrelakoa izan baitzuen medikuak bizialdi guztian. Oreka zail bat dago idatzi zuenaren eta pentsatzen zuenaren artean. Jean Etxeparek autozentsura praktikatzen zuela esatean, agian ez ginateke gehiegikeriarik esaten arituko. Hori izan baitaiteke Jean Etxeparek buruan zeukan langa gaindiezin nagusi baten izendapena, *Beribilez* bidaia-liburua idazteko gogoan izan zuen baldintzapen nagusietako bat sintetizatzeko ahalegina egingo bagenu, behin eta berriro egiaztatu denez. Horregatik ez da pentsatu behar gaiak gehiagorako ematen ez duenik; zoritxarrez, literaturak gurean ezagutu ditu maiz garai hitsak non adierazpen askatasuna ez den behar bezala begiratua izan; eta berriagotan ere bai, XX. mendean bertan, urrunago joan gabe. Askatasunik ez gaiaren inguruan, baina baita hizkuntzaren hautuan ere. Beraz, zentsuraren aurrean izan dugun berrikitako eskarmentuaren ezagutza lekualdatu daiteke, beharbada, Jean Etxeparek bizi izan zuen abagunera[1166].

Egiaren adierazpenari buruz, Michel Foucaultek egin du lan, Greziako zinikoen jarrerari erreparatuta, bereziki. Bide horretatik jota, agian, hobeto ulertuko genituzke Jean Etxepareren idazkintzako ezaugarri bereizgarriak. Ziur aski, gai izango ginateke hobeto baloratzeko gizarteak edozein idazleri adierazpide-mugak non jarri ahal dizkion indar korrelazioaren arabera, alegia, zer isiltzen duen eta zergatik, eta ea idazleei oro har ez ote zaizkien gehiegizko baldintzak jartzen, gaur egun ere.

1166 Gogoan ditugu Joan Mari Torrealdairen lanak; Arestiri eta (auto)zentsurari buruz, adibidez, Jon Kortazarrek egindakoak ere hor dira, eta abar (Kortazar Uriarte, J. (2017). *Mailu batekin: Biola batekin"(1962). Un libro desconocido de Gabriel Aresti.* Bilboko Udala.)

Nolanahi ere, galdera bat zabalik utz genezake geroko ikerketen eskuetan: nolako intelektuala zen Jean Etxepare orduan, gaurko ikuspegitik begiratuta? Gogora genezake garai hartan izan zela intelektualaren figuraren sorrera, Dreyfus aferaren sasoia baitzen (1894-1906). Horrek lagunduko liguke ulertzen zergatik gaur egun adituak intelektualari lekua kendu dion, eta, bestetik, komunikabideen jario etengabearen ondorioz berehalako erantzunari lehentasuna eman zaion gogoeta astitsua baztertuta[1167].

> "Según Spivak, si profundizamos en los silencios que se atisban en las producciones culturales de los subalternos, y también dentro del mismo discurso dominante, nos percataremos de que en realidad siempre hay signos, a lo mejor no escuchados, de la voluntad de los subalternos de hablar, de expresar su disconformidad y sus convicciones de levantar la voz"[1168].

*Beribilez*eko idazlea izango da ziur aski euskal intelektual laiko urrietako bat XX. mendeko lehen heren hartan. Aztertu daiteke intelektualaren figura astiroago euskal literaturan, nahiz eta badirudien figura hori gaur egun nahiko higatua dela.

6.2.2.2. Hartzaileak nor diren aztertu areago

Pentsa genezake euskaltzaleen artean bazela humus burges baten modukoa Etxeparerena bezalako obrak sortzeko. Ez da aztertu oso sakon hemen *Beribilez*en hartzaileak nor diren: idazlearen inguruan aurki zitezkeen pertsonaia haiek guztiak nor ziren, zer ziren, zer egiten zuten, eta nola pentsatzen zuten, alegia, sare intelektual hura nolakoa zen, eta haren historia XX. mende hasieran. Hobeto ulertuko genituzke garaiko apustu intelektualak, eta Iparraldearen eskarmentu euskaltzalea, izan ere, Euskaltzaleen Biltzarraren inguruan baziren pertsonaia ikasiak eta euskalgintzan arituak.

1167 Citton, Y. (2010). *L´avenir des humanités. Économie de la connaissance ou cultures de l´interpretation?* Paris. La Découverte. Humanitateen etorkizunaz ari da autorea.

1168 Armando Gnisci (arg.) *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 421 or.

Amelia Hernández Matak jaso ditu hamarkada haietako Piarres Lafitteren sarearen berria, baina egiteke geratu da haren ideologia-azterketa sakona, nahiz eta abiapuntu oso dokumentatua eskaini[1169]. Antoine d´Abbadieren sare intelektuala ere jaso du[1170].

6.2.2.3. Multikulturalismoaren artikulazioa hizkuntza gutxituekin

*Beribilez*en ikusten da ahalegina, euskal letrak Europako letrekin lotzekoa. Gure literatura klasikoaren arloan horrelako ahaleginak ez dira ugariak izan. Jean Etxeparek bi kulturak uztartzeko saioa egin zuenez gero, zenbait ikasgai atera daitezke horrelako apustuek izan ditzaketen gorabeherei buruz. Orduan, Euskal Herria kulturalki buruaskiagoa bazen ere, nazioen arteko komunikazioak urriagoak izanik, azter daiteke nolako bideak urra daitezkeen eta zer salbatu behar eta ahal den. Multikulturalismoaren onurak astiro begiratuta, agian, kontura gintezke zenbait berrikuntza onuragarriagoak zaizkigula beste batzuk baino.

Bidegurutzeko idazlea da Jean Etxepare: nietzschearra eta fededunen arteko euskalduna; medikua eta filosofoa; kolonizatzailea eta kolonizatua; euskalduna eta argentinarra; Euskaldunen Biltzarrekoa eta "soldat de la patrie"; Iparraldeko frantsesa eta Hegoaldera bidaiaria; agnostikoa eta Jesukristoren Imitazioaren irakurtzailea; zientzia esperimentalaren aldekoa eta idazle preziosista… pertsonalitate konplexukoa, hitz batean. Gizarte-psikologiak dio nortasun konplexuek egokitzapen-gaitasun handiagoa dutela zailtasunen aurrean: euskaldunak horrelakorik behar duke, iraun nahi balu[1171].

> "Los estudios de Spivak están dirigidos precisamente a poner en duda la solidez de los informes históricos que nos han llegado. Sus primeros esfuerzos se concentraron

---

1169 Hernández Mata, A. (2007). *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan.* Iker 20. Bilbo. Euskaltzaindia.

1170 Hernández Mata, Amelia (1998). "Antoine d'Abbadie eta garaikideen sare intelektuala" in: Antoine d'Abbadie 1897-1997: Congrés International = Ezhoiko kongresua. Eusko Ikaskuntza Euskaltzaindia, Donostia-San Sebastián.

1171 Baumeister, R. F., & Vohs, K. D. (Edsarg.) (2007). *Encyclopedia of social psychology*. California. Sage Publications.

en el intento de deconstruir la estructura del discurso colonial y de leer los silencios de estos textos en favor de la voz suprimida de las poblaciones indígenas"[1172].

Merezi luke, bide batez esanda, hurbilketa postkolonial sakonago bat garai hartan euskaraz sortu zen produkzioari buruz; gure ustez, posiblea litzateke emaitza jakingarriak ateratzea. Ikerlan honetan Jean Etxepareren biografia "hibridoa" ikuspegi kolonial horretatik aztertu bada ere, haztatu liteke gorabidean datekeen metodologia horren tresneriak aukera ugariagoak eman ote ditzakeen, puntu honetan ere[1173].

6.2.2.3.1. Mugaz gaindiko bidaien programak

Agian, saiatu beharko ginateke bi Euskal Herriek programa osasungarri bat izaten elkarrekiko, kultura hegemonikoek bultzatzen dutenetik aparte. *Beribilez*en bukaeran Jean Etxeparek proposatzen duen elkarrekikotasuna nola egikaritu ahal izango litzatekeen zehaztu liteke, agian.

Hegoaldekook ere bidaia egiten genuen Franco diktadorearen sasoian Iparraldera. Han aurkitzen genituen: gaztak, gizarte aurreratuagoa, filmetako erotismoa, debekatutako kantak eta liburuak, pastoralak, museoak (Biarritz, Baiona), jatekoak, prehistoria (Sara), hondartza, baratz botanikoa (Hendaia), jaiak, gazteluak (Arnaga, Abbadierena...), hizkuntza, aberri eguna...

Zehaztu behar genuke euskalgintzaren sasoi bakoitzean, Hegoaldeak zer adieraz ziezaiokeen Iparraldeari, harreman jasangarriak ahalbidetzeko, eta alderantziz. Jean Etxepare guri interesatzen zaigu, gauden Hegoaldeko lekutik. Gure hurbilketa egin dugu, euskara eta inguruko zerak gureak ere badiren heinean

Interesgarria da konstatatzea idazlea Hegoaldera doala Iparraldeko bere ikuspegia modu askeago batez proiektatzera, bidaian zehar ikusten dituen interes guneetan. Ziur aski, idazlea tentuz ibili beharko zuen burura zetozkion pentsakizunak argiegi adierazi gabe bizilekuan. Hegoaldeko bisitan, bizilekuko elementuen gaineko iritziak jaulki zitzakeen, distantzia batekin.

1172 Armando Gnisci (arg.) *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 421 or.

1173 Ikusi, ildo horretatik, EHUko ADDI errepositorioan Salaberri Muñoa, P. (2016). *Hagiografia eleberrirantz erroizten hastean (arratsalde bat" Auñemendiko lorea"-rekin).(I).* https://addi.ehu.es/handle/10810/20309 Eta: Salaberri Muñoa, P. (2017). *Hagiografiatik kolonizazioaren legitimaziora (Arratsalde bat Auñemendiko Lorearekin)(II)*. http://hdl.handle.net/10810/22525: https://addi.ehu.es/handle/10810/20309 [2017-XI-11]

Hala ere, argi dago askatasun hori bakarrik duela zilegi etxetik kanpo. Azken finean, Loiolaz mintzo da, ez Frantziako laizismoaz, Donostiaz mintzo da, ez Biarritz edo Hendaiako turismoaz. Adierazgarria da nola Iparraldeko lurretan zehar egiten dituen abiatzeko eta itzultzeko bidaiako ataletan diskrezioa erabiltzea ezertariko gizarte-kritikarik egin gabe kontakizun eta deskribapen lauak eginez.

Azkenik, mugaren bi aldeetako harremanak sendotze-bidean giza harreman euskaltzaleen premia konstatatzen du, elkar ezagutza egingarria izango bada. Hori da Jean Etxeparek atera duen ondorio nagusietako bat, egun beteko bidaia azkar eta neketsutik[1174].

Topa daitezke beste ikerlerro batzuk ere *Beribilez*en inguruan: autobiografia gisa hartuta, estiloaren aldetik… Estiloaren alorra bereziki emankorra izan daiteke, kontuan izanda idazlearen trebetasun diskurtsiboa, hainbat kritikarik onartu diotena.

6.2.2.4. Espiritualtasun akonfesionala

Euskara eta espiritua lotuta daude Jean Etxepare baitan, erlijioaren bidetik at. Euskara beti izan da balio batzuen eroalea historian zehar. Gehienbat balio katolikoak dei genitzakeen horien eroalea, literatura klasikoan. Kontzienteak gara, *Beribilez* aztertuta, espiritualtasun anitz izan daitezkeela euskaraz ere.

Beraz, bada posible lehenengo aldiz euskal literaturan irudikatzea erro erlijiosorik gabeko espiritualitatea. Espiritualitate horrek adarrak luza litzake politika arloan ere, baina ez da prezeski politikoa. Gaur egun ere, interesgarria izan daiteke espiritualitate ahalik eta ugarienak irun ahal izatea euskararen ardatzaren bueltan.

Dirudienez, euskararen balioak ezin joan litezke merkantilismoaren ildo soiletik Joshua Fishman soziolinguistaren proposamenak jasotzean aurreratu dugun bezala, bai, beharbada, humanismoaren azken zaharberritzeen ildotik (Martha Nussbaum). Komunitarismo liberalak ere baluke zer esan armatze moral horri buruz, gurean Jon Sudupek jorratutako bidetik.

1174 Domenico Nucera "Los viajes y la literatura" in: Armando Gnisci (arg.) (2002). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica. 253 or.

7. Bibliografia

- Abellán, J. L. (1997). *Sociología del 98: un acercamiento a su significado*. Madrid. Biblioteca Nueva.
- Abercrombie, N. eta B. S. Turner. (1978). "The dominant ideology thesis" *British Journal of Sociology*. Vol. 29 Nº 2. June.
- Adema, G. "Zaldubi" (1877). *Eskualdun pelegrinaren bidaltzailea*. http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/A/AdemaPelegrin.htm [2016-07-14]
- Agirre, Tx. (1892). "Juan-etorri bat Erromara" (1892). in: Pagola, I. (arg.) *XIX. mende akabuko kontakizunak*. Bilbo. EEE.
- Agirreazkuenaga, J. (2016). [hitzaldia] *Askatasun eguzkia basotik irten da. Sabino Arana (1865-1903)* erakusketaren atarian. Bizkaiko Foru Aldundiak antolatua, 2016ko udaberrian Bilboko Ondare Aretoan.
- Agirreazkuenaga, J. (2017). *De los vascos sin historia a los vascos con historia*. Txertoa
- Ahedo, I. (2006a). *El viaje de la identidad y el nacionalismo vasco en Iparralde (1789-2005)*. (vol. I). Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Albert, J.-P. (2010). "Miracle" in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.) *Dictionnaire des faits religieux*. Paris. PUF.
- Alburquerque, L. (2006). "Los "Libros de viajes" como género literario" in: Lucena, M. eta J. Pimentel (arg.) *Diez estudios sobre literatura de viajes*. Madrid. CSIC.
- Aldekoa, I. (2006). "Euskal literaturaz hiru apunte solte" Iruneko Udala eta Nafarroko Ateneoaren artean antolatutako *Pio Baroja, bere 50. urteurrenean* hitzaldi sortarako prestatua. Euskaltzaindia.

- Almanza, C. (2000). "Reseñas: Sofía M. Carrizo Rueda. *Poética del relato de viajes*. Kassel: Edition Reichenberger, 1997. 187 pp" *Lexis* XXIV 1.
- Altonaga, K. (2006). *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf [2016-05-21]
- Altonaga, K. (2007). "Etxepare, Aldudeko medikua baino gehiago" in: Begoña Bilbao et al. (arg.) *Paulo Iztueta euskal pentsamenduaren eraikitzaile*. Leioa. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Altonaga, K. (2009a). "*Beribilez*: zaku barne handikoa" *Erlea* 5.
- Altonaga, K. (2009b). *Arnaud Abadia "Sathorra"* IRALE-Dolaretxen emaniko hitzaldia [2009-III-18]. [DVD argitaragabea].
- Altonaga, K. (2010a). "Arnaut Abadia (1843-1916): gure zientzia-prosaren aurrendari ahaztu bat" in: *Euskararen garapena esparru akademikoetan*. EHU. http://www.ehu.es/documents/2430735/2730484/LIBURUAehuei10-10.pdf [2017-02-03]
- Altonaga, K. (2010b). "Jean Etxepare Bilbon" in: Mendebalde Kultura Alkartea. *XIV. Jardunaldiak: Bilbon mundua ikusi*.
- Altonaga, K. (2010c). *Darwin geurean*. Iruñea. Pamiela.
- Altuna, P. (2003). Loiolako San Ignazioren gogojardunak. Leioa. EHU.
- Altuna, P. (arg.) (1987). [Fray Bartolomé de Santa Teresaren] *Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba: (1816).* Deustuko Unibertsitatea.
- Altzibar, X. (1999). "*Eskualduna* kazeta" *Euskonews & Media* 43 http://www.euskonews.com/0043zbk/media4301eu.html [2016-09-19].
- Altzibar, X. (2004). "Euskal kazetaritzaren sorrera" hitzaldia. www.unav.es/katedra/euskaraz/**Xabier**Altz_Hitzaldia.pdf [2011-XI-30]
- Altzibar, X. (2009). "Napoleon eta frantsestea euskal literaturan" *Bidebarrieta* 20.
- Álvarez Junco, J. (2001). *Mater dolorosa. La idea de España en el siglo XIX*. Madrid. Taurus.
- Alvarez, Tx. (1981). "J. Etchepareren "Buruchkak"" *Argia* 1981-01-18.
- Alzate, R. (1998). *Análisis y resolución de conflictos. Una perspectiva psicológica*. Bilbao. Universidad del País Vasco.
- Amossy, R., & Anne Herschberger. (1997). *Stéréotypes et clichés. Langue, discours, société.* Paris. Nathan.
- Apalategi, U. (2003). "Hiriart Urrutyren harrera literarioari buruz: autoretzaren arazoa euskal literatura klasikoan" in: Euskaltzaindia. *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian*. Bilbo. Iker 14.

- Apalategi, U. (2003). “Itsasoaren erabilpen sinbolikoak XX. mendeko zenbait idazleen obran” *Zainak* 21.
- Apalategi, U. (2006). “Ciudades y cambios de personalidad” *Cuadernos de Alzate* 35.
- Apalategi, U. (2007) “Antton eta Leturia (edo literaturtasunarekin kuku-gordeka denbora historikoaren oihanean)”. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 52(2).
- Apalategi, U. (2011). “*Buruxkak*. J. Etxepare “Mirikua””in: *Euskal literaturaren hiztegia*. EHU. http://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=240 [2011-X-8]
- Apalategi, U. (2013). “Euskal subjektuaren bilakaera erromaneskoa: desberdintze estrategiaren eta homologazio nahiaren arteko negoziaketa literario-ideologikoak” *452 F*. 09. http://www.452f.com/ [2016-05-21]
- Apalategi, U. (2014). “*BURUXKAK* (1910) Jean Etxepare, "Mirikua"” in: *Euskal literaturaren hiztegia* http://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=240 [2017-07-05]
- Apalategi, U. (2016-XI-15). “Iparra/Hegoa. Erdigunea/Periferia” in: *Estereotipoetatik ihesi* hitzaldi sortan, Bilbo Zaharra euskaltegiaren Forumak antolatua Euskaltzaindiako egoitzan.
- Aranbarri, I. (1999). “Miriku jaunaren bekatua” 25-26, in: *Gure mendea: ehun urte euskal kulturan*. Argia. http://www.argia.com/mendea/kronikak/10.htm [2010-11-24]
- Arbelbide, J. P. (1895). *Igandea edo Jaunaren eguna meza-bezperen othoitzekin*. San Augustinene Elkartasunerako, Desclée de Brouwer eta hekien lagunen moldizteguian.
- Arbelbide, X. (2007). *Xuri-gorriak*. Donostia. Elkar.
- Arendt, H. (2007). *Eichmann Jerusalemen.* Bilbo. Klasikoak
- Ariès, Ph. (1977). *L´homme devant la mort*. Paris. Seuil.
- Arjona, J. J. (1979). *Donde el veraneo nace. San Sebastián 1887-1979*. Donostia. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Arkotxa, A. (1992). “Irudien bizia J. B. Elizanbururen “Nire etxean”“*Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* XXXVII. 1. zkia.
- Arkotxa, A. (1996). “Bernat Etxeparekoaren maitasunezko kopletaz” *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca* (6).
- Armando Gnisci (arg.) (2002). *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica.
- Aron P., D. Saint Jacques eta A. Viala. (zuz.) (2010). *Le dictionnaire du littéraire*. Paris. PUF.
- Arrigain, I. (1992) “J. Etxepare” in: Etxepare, J. *Buruxkak*. Bilbo. Euskal Editoreen Elkartea. http://zubitegia.armiarma.com/?p=mar-154 [2011-X-23]

- Arrigain, I. (2004) *J. Etchepare (1877-1935).* Bilbo. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/bidegileak/239_etchepare.pdf [2010-11-20]
- Arsuaga, M. eta J. Sesé. (1997). *Donostia-San Sebastián. Arkitekturako gida liburua.* Donostia. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala.
- Arte Ederren Museoaren bildumako kartelak (1886-1975). **(**Erakusketa 15|10|06 • 16|01|18). *Hormako mezuak*. Bilbo.
- Ashcroft, B. et al. "El imperio contraescribe: introducción a la teoría y la práctica del postcolonialismo" In: Ramos, M. J. V., eta Carbonell, N. (1998). *La literatura comparada: principios y métodos*. Madrid. Gredos.
- Ashcroft, B., Griffiths, G., & Tiffin, H. (2003). *The empire writes back: Theory and practice in post-colonial literatures*. London. Routledge.
- Askoren artean. (2001). *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*. Sabino Arana Kultur Elkargoaren Jardunaldiak. Bilbao. Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- Askoren artean. (2002). *Hegats* 43. Victor Hugo-ri eskainitako alea.
- Askoren artean. (2012). *Arkitektura zibila : arte eta kultur prozesu baten historia Euskal Herrian*. Euskal Herria emblemática. Lasarte-Oria : Etor-Ostoa.
- Aulestia, G. (2008). "De l´article de presse à l´essai littéraire: *Buruchkak* (1910) de J. Etchepare. Jon Casenave" *Sancho el Sabio* 28.
- Axular, P. (1964). *Gero*. Barcelona. Juan Flors editor.
- Azkue, R. M. D. (1959). *Euskalerriaren yakintza (Literatura popular del País Vasco).* Madrid. Espasa Calpe.
- Azurmendi, J. (1976). *Zer dugu Orixeren kontra?*. Arantzazu. Jakin.
- Azurmendi, J. (1977). *Zer dugu Orixeren alde?*. Arantzazu. Jakin.
- Azurmendi, J. (2002). "Hitzaurrea" in: Hugo, V. *Idi orgaren karranka (Euskal Herrian gaindi, 1843).* Donostia. Elkar.
- Azurmendi, J. (2003). "Humboldt eta Renanen nazio kontzeptua" *Revista Internacional de Estudios Vascos* 48-1.
- Bagué Quílez, L. (2003). "La recuperación del sentido clásico en la última poesía española" *Hesperia: Anuario de filología hispánica* 6.
- Ballart, P. (1994). Eironeia, la figuración irónica en el discurso literario moderno. Barcelona. Sirmio.
- Baraiazarra, L. (2009). *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa* (Vol. 14). Universidad de Deusto.

- Barandiaran, J. M. (1934). *Euskalerriko leen gizona*. Zarauz. Itxaropena. Berriagotan: (1985). *Lehen euskal gizona*. Donostia. Txertoa.
- Barbier, J. (1926). *Piarres [lehen zathia]*. S. Sordes. Liburu elektronikoa: http://armiarma.com/liburu-e/?i=Jean%20Barbier,%20Piarres%20I [2016-05-21]
- Barnard, A. eta J. Spencer (arg.) (1996).: *The Routledge Encyclopedia of social and cultural anthropology*. London. Routledge.
- Baroja, P. (1901). "El vascuence" *El Imparcial*. 1901-08-31.
- Baroja, P. (1909). *Zalacaín el aventurero*. http://es.wikisource.org/wiki/P%C3%ADo_Baroja [2017-07-05]
- Baroja, P. (1917). *Nuevo tablado de arlequín*. Madrid. Rafael Caro Raggio.
- Baroja, P. (1918). *Las horas solitarias*. Madrid. Rafael Caro Raggio.
- Baroja, P. (1919). *Momentum catastrophicum*. Madrid. Rafael Caro Raggio.
- Baroja, P. (1972). *La casa de Aizgorri*. Madrid. Caro Raggio.
- Baroja, P. (1986). *La leyenda de Jaun de Alzate*. Madrid. Caro Raggio.
- Baroja, P. (1999). *El mayorazgo de Labraz*. Madrid. Alfaguara.
- Baroja, P. (1999). *Zalacaín el aventurero*. Madrid. El Mundo.
- Baroja, P. (2000). *Opiniones y paradojas*. Prólogo y selección de Miguel Sánchez-Ostiz. Madrid. Caro Raggio.
- Baroja, P. (2006 [1953]). *El País Vasco*. Tafalla. Txalaparta.
- Baroja, P. (2006). *Pio Barojaren Donostia*. Irun. Alberdania.
- Baroja, P. (2007). *Ipuinak*. Donostia. Gipuzkoak Foru Aldundia.
- Baroja, P., & Marañón, G. (1935). "La formación psicológica de un escritor" Espasa-Calpe.
- Barthes, R. (1968). "L'effet de réel" *Communications* 11.
- Barthes, R. (2007). *L´empire des signes*. Paris. Éditions du Seuil.
- Barthes, R., Philippe Hamon, et al. (1982). *Littérature et réalité*. Paris. Seuil.
- Basurto Ferro, N. (2004). "La arquitectura ecléctica" *Ondare* 23.
- Baudrillard, J. (2009). "Modernité" *Universalis Education* in: http://www.universalis-edu.com.ezproxy.u-bordeaux-montaigne.fr/encyclopedie/modernite/ [2017-06-15]
- Baumeister, R. F., & Vohs, K. D. (arg.) (2007). *Encyclopedia of social psychology*. California. Sage Publications.
- Baumgarten, A. G. (1988). *Esthétique*. Paris. L´Herne.
- Becke, A. "Ascesis" in Niemeyer, C. (arg.) (2012). *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva.

- Beller, M. eta Joep Leersen. (2007). *Imagology. The cultural construction and literary representation of national characters.* Amsterdam. Rodopi.
- Bello Vázquez, F. (1990). *El pensamiento social y político de Pío Baroja*. Universidad de Salamanca.
- Bello Vázquez, F. (1993). *Pío Baroja. El hombre y el filósofo*. Universidad de Salamanca.
- Benda, J. (1927). *La trahison des clercs*. Hollande. Bernard Grasset.
- Benveniste, É. (1966). *Problèmes de linguistique générale 1*. Paris. Gallimard.
- Bergson, H. (2007 [1900]). *Le rire*. Paris. PUF.
- Berlin, I. (2000). *Las raíces del romanticismo*. Madrid. Taurus.
- Bertho, C. (1980). "L´invention de la Bretagne [Genèse sociale d´un stéréotype]" *L´identité* 35.
- Bertho-Lavenir, C. (1988). "La géographie symbolique des provinces. De la monarchie de juillet à l'entre-deux-guerres" in: Régionalismes. *Ethnologie française 18*(3).
- Bertrand, D. (2007). "Ignace de Loyola" in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.) *Dictionnaire des religions*. Paris. PUF.
- Bertrand, D. (2007). "Ignace de Loyola" in: Poupard, P. (zuz.) *Dictionnaire des religions*. Paris. PUF.
- Bhabha, H. K. (2012). *The location of culture*. Routledge.
- Bidegain, E. (2013). *Lehen mundu gerra "Eskualduna" astekarian*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- Bilbao, J. (1950). "Pierre Loti y el País Vasco" *Gernika* 11
- Boixareu, M. eta R. Lefere (koord.) (2002). *La Historia de España en la Literatura Francesa*. Madrid. Editorial Castalia.
- Bonte, P., eta Izard, M. (arg.) (1991). *Dictionnaire de l'ethnologie et de l'anthropologie*. Paris. Presses universitaires de France.
- Bordas, É. (2005). "Stylistique et sociocritique" *Littérature* 140.
- Borja, A. (2009). *Euskal Herriko ekonomiaren historia*. Donostia. Gaiak.
- Borlandi, M. et al. (2005). *Dictionnaire de la pensée sociologique.* Paris. PUF.
- Bornedal, P. (2012). "Mediocridad" in: Niemeyer, C. (arg.) *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva.
- Brandes, S. (1990). "The Sardana: Catalan Dance and Catalan National Identity" *The Journal of American Folklore*, Vol. 103, Nº 407 (Jan. - Mar.).
- Bria, Ll. et al. (2004). *Los libros de los filósofos*. Barcelona. Ariel.
- Brigevich, A. (2016). "Regional Identity and Support for Europe: Distinguishing Between Cultural and Political Social Identity in: France", *Regional & Federal Studies* 26:4.

- Bruford, W. (1993 [1975]). *German tradition of self-cultivation*. Michigan. University Microfilms International.
- Calligaro, O. eta François Foret, "La mémoire européenne en action. Acteurs, enjeux et modalités de la mobilisation du passé comme ressource politique pour l'Union européenne". *Politique européenne* 2012/2 (37).
- Cámara Muñoz, A., et al. (2010). *Arte y poder en la edad moderna*. Madrid. UNED.
- Canto-Sperber, M. (zuz.) (2004). *Dictionnaire d´éthique et de philosophie morale*. Paris. PUF.
- Carrizo, S. (1997). *Poética del relato de viajes*. Kassel. Édition Reichenberger.
- Casanova, P. (1999). *La république mondiale des lettres*. Paris. Editions du Seuil.
- Casenave, J. (1977). *La vie quotidienne au Pays Basque à la Belle Époque*. Paris. Delta Expansión.
- Casenave, J. (1990). "J. Etxepare: idazle ausarta, gizon argitua" *Hegats* 34.
- Casenave, J. (1991). *Nature et vie rurale dans Laborantzako liburua: la figure du paysan.* Mémoire présenté en vue du DEA d´Etudes basques. Azkue Bibliotekan (Euskaltzaindia). kontsultatua.
- Casenave, J. (1997a). "L'irrintzina: de la valeur emblématique à la désaffection ", *Lapurdum* 2 http://lapurdum.revues.org/1802 [2016-05-21]
- Casenave, J. (1997b). *De l´article de presse à l´essai littéraire:* Buruchkak (1910) de *J. Etchepare*. Thèse de Doctorat. Université Michel de Montaigne- Bordeaux III. 656 pp.
- Casenave, J. (1998a). "Euskal nortasunaren irudiak XIX. mendeko bigarren partean" in: Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra; Eusko Ikaskuntza. *Antoine d´Abbadie 1897-1997. Ezohiko Kongresua. Hendaia-Sare.* Donostia. Eusko Ikaskuntza/Bilbo. Euskaltzaindia.
- Casenave, J. (1998b). "Le renouvellement de la prose basque a travers *Buruchkak* (1910) de J. Etchepare ", *Lapurdum* 3 http://lapurdum.revues.org/1710 [2016-05-21]
- Casenave, J. (1999a). "J. Etchepare: idazle ausarta, gizon argitua" *Maiatz* 32.
- Casenave, J. (1999b). "Le livre en langue basque durant l'entre-deux-guerres ". *Lapurdum* 4 http://lapurdum.revues.org/1532 [2016-05-21]
- Casenave, J. (2000). "L'autobiographie comme registre littéraire : Ameriketako orhoitzapenak de J. Etchepare ". *Lapurdum* 5 http://lapurdum.revues.org/1320 [2016-05-21]
- Casenave, J. (2002). *De l´article de presse à l´essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Madrid. UNED.

- Casenave, J. (2003). “Ramuntcho, Pierre Loti-ren sartzea Euskal Herrian” in: *P. Lafitteren sortzearen mendemugako biltzarra: Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian.* Iker 14 (ii). Bilbo. Euskaltzaindia. http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/54841.pdf [2016-05-21]
- Casenave, J. (2005). “*Eskualduna* astekariaren “gizaldi gaztea” (1877-1888)” in: Ur Apalategi Idirin (arg.) *Belaunaldi literarioak auzitan*. Donostia. Utriusque Vasconiae.
- Casenave, J. (2006). “Le Pays basque décrit par Francis Jammes” in: *Francis Jammes Prosateur Colloque 3 mai 2002-Bulletin n° 37* (Nº 37). Association Francis Jammes-Orthez.
- Cassany, D. (2006). *Tras las líneas*. Barcelona. Anagrama.
- Cendrero, A. (2004). “La influencia francesa en la arquitectura pública donostiarra durante la Restauración (French influence in: the public architecture in: San Sebastian during the Restoration)”. *Ondare* 23.
- Certeau, M. de (1965). *Le mépris du monde : la notion de mépris du monde dans la tradition spirituelle occidentale*. Paris. Cerf.
- Charaudeau P, eta Dominique Maingueneau. (2002). *Dictionnaire d´analyse du discours*. Paris. Seuil.
- Charritton, P. (2002). “Manex Hiriart-Urruty eta Pierre Broussainen arteko gutunak (1894-1906)”. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* XLVII-1.
- Cherrington, R. (2004). “Stereotypes” in: *Routledge encyclopedia of language teaching and learning.* London and New York. Routledge.
- Chevalier, J. (1969). “Introduction” in: Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.
- Chevalier, J. eta Alain Gheerbrant. (1969). *Dictionnaire des symboles*. Paris. Robert Laffont.
- Chevrel, Y. “La Société française de littérature générale et comparée (1956-2006) : évolution et problèmes d’une institution associative”. http://www.vox-poetica.com/sflgc/historique.html [2016-10-19].
- Citton, Y. (2010). *L´avenir des humanités.* Paris. La Découverte.
- Colas, L. (1923). *La tombe basque* : recueil d'inscriptions funéraires et domestiques de Pays Basque français : atlas d'illustrations (dessins et photographies), documents recueillis dans les cimetières et sur les habitations du Labourd, de la Basse-Navarre et de la Soule. Biarritz. Grande Imprimerie Moderne.
- Colubi, P. (2009). “Los tópicos de la españolada” *El País* 2009/12/04

- Comte, A. (1842). *Discours sur l'esprit positif.* http://classiques.uqac.ca/classiques/Comte_auguste/discours_esprit_positif/discours_esprit_positif.html [2017-02-08]
- Comte-Sponville, A. eta L. Ferry. (1998). *La sagesse des Modernes*. Paris. Robert Laffont.
- Copleston, F. (1978). *Historia de la filosofía VII (de Fichte a Nietzsche)*. Barcelona. Ariel.
- Crossick, G. (1994). "Metaphors of the Middle: The Discovery of the Petite Bourgeoisie 1880-1914" *Transactions of the Royal Historical Society* 4.
- Cuddon, J. A. (1999). *Dictionary of literary terms & literary theory*. London. Penguin.
- Dassance, L. (1965). "J. Etchepare jaun medikua" *Herria* 786.
- Davant, J. L. (1997). "Lore jokoen ingurumenaz" *BAT aldizkaria* 25.
- Pablo de, S. et al. (arg.) (2012). *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Tecnos.
- Declercq, E. (2010). "La postura del migrante frente a su estereotipo: una táctica de negociación" in: Lie, N. et al. *El juego con los estereotipos*. Bruxelles. Peter Lang.
- Decloux, S. (2007). "Letras" in: Grupo, D. E. I. *Diccionario de espiritualidad ignaciana*. Bilbao-Santander. Mensajero-Sal Terrae.
- Delvaux, M. eta Pascal Caron (2010). "Postcolonialisme" in: Aron P., D. Saint Jacques eta A. Viala. (zuz.) *Le dictionnaire du littéraire*. Paris. PUF.
- Dendle, B. J. (1968). *The spanish novel of religious thesis (1876-1936).* Madrid. Castalia.
- Dianteill, E. (2010). "Durkheim, Émile" in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.) *Dictionnaire des faits religieux*. Paris.
- Diaz de Tuesta, J. F. (2006). *Euskal Herria atzerritarren ahotan*. Arrasate. Arrasate argitan.
- Dicharry, E. (2011). "Pour une anthropologie du rire au Pays Basque", *Lapurdum* [En ligne], 15 | 2011, mis en ligne le 15 octobre 2014, consulté le 13 février 2017. URL : http://lapurdum.revues.org/2315
- Dicharry, E. (2013). *Le rire des Basques*. Paris. L´Harmattan.
- Diethe, C. "Mujeres" in Niemeyer, C. (arg.) (2012). *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva.
- Doltra, M. "Vida de Jesús" in: Bria, Ll. et al. (2004). *Los libros de los filósofos*. Barcelona. Ariel.
- Dorra, R. (1985). "La actividad descriptiva de la narración" in: Garrido Gallardo, M. A. (arg.) *Teoría semiótica. Lenguajes y textos hispánicos* vol I. Madrid. CSIC.
- Dosse F. (2006). "Histoire" in: Mesure, S eta P. Savidan (zuz.) *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF.

- Dubois, J. (1973). *L´Assommoir de Zola: société, discours, idéologie*. Paris. Larousse.
- Duchet, C. (1971). “Pour une socio-critique, ou variations sur un incipit” *Littérature* 1.
- Ducrot, O. eta J.-M. Schaeffer. (1995 [1972]). *Nouveau dictionnaire encyclopédique des sciences du langage.* Paris. Editions du Seuil.
- Dufays, J.-L. (2002). "Estereotipo y teoría de la literatura: los fundamentos de un nuevo paradigma" *Anthropos* 196.
- Dupront, A. (2007). “Pélérinage” in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.) *Dictionnaire des religions*. Paris. PUF.
- Durand G. (1992). *Les structures anthropologiques de l´imaginaire*. Paris. Dunod.
- Duvoisin, J. (1858). *Laborantzako liburua, edo, Bi aita semeren solasak laborantzaren gainean.* André Lamaigneren Moldiztegian.
- Egaña, I. (2006). “Leer y escribir la ciudad: San Sebastián y Bilbao en la novela vasca contemporánea” *Cuadernos de Alzate* 35.
- Eguzkitza, A. (1984). “Plazera sor- eta helburu-. Plazer-hatsarriaren defentsan” *Jakin* 33.
- Elias, J. A. (1973). “Art and play” in: Wiener, P. P. (zuz.) *Dictionnary of the history of ideas*. New York. Charles Scribner´s sons.
- Elissalde, J. (1955). “Etchepare jaun mirikuaren ohoretan; Elissalde jaun aphez Eskualzalearen mintzaldia” *Gure Herria* 5.
- Elkar-lanean. (1972). Pio Baroja bere ehunurteburuan: 1872-1972. Bilbo. Etor.
- Ellul, J. (1973). “Le rôle médiateur de l´Idéologie” in: Askoren artean. *Démythisation et idéologie*. Paris. Aubier.
- Encyclopaedia Universalis (2005). *Dictionnaire de la Philosophie*. Paris. Encyclopaedia Universalis et Albin Michel.
- Encyclopaedia Universalis (2006). *Dictionnaire des philosophes*. Paris. Albin Michel.
- Entrena-Durán, F. (2012). “La ruralidad en España: de la mitificación conservadora al neorruralismo” *Cuadernos de Desarrollo Rural= International Journal of Rural Development* 9(69).
- Erkiaga´tar E. (1951). “Jean Paul Sartre’ren ardi galduak” *Egan* 2-1951.
- Esparza, I. eta José Manuel López Gaseni. (2015). *La identidad en la literatura vasca contemporánea*. Bern. Peter Lang.
- Estébanez Calderón, D. (2008). *Diccionario de términos literarios*. Madrid. Akal.
- Estébanez, D. (2000). *Breve diccionario de términos literarios*. Madrid. Alianza Editorial.
- Estornes Lasa, B. (1970). *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco. Literatura II*. Donostia. Auñamendi.

- Estornés, B. et al. (1970). “Jean Detchepare (1877-1931)” in: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura II*. Donostia. Editorial Auñamendi.
- Etchepare, J. (1910). *Buruchkak*. Tours. Imprimerie Mame. Jatorrizko argitaraldia.
- Etchepare, J. (1924). “Euskalzaleen Biltzarra: idazlan sariketen hariko hitzaldia” *Gure Herria* 4.
- Etchepare, J. (1926). “Euskalzaleen-Biltzarra : 1925eko bil-aldia Saran buruilaren 17an Jean Etchepare jauna buru” Bayonne. Imp. S. Sordes (hitzaldia).
- Etchepare, J. (1941). 2. arg. *Buruchkak*. Baiona. Gure Herria.
- Etchepare, J. (1980). 3. arg. *Buruxkak*. Donostia. Elkar.
- Etchepare, J. (1987). *Beribilez*. Bilbo. Elkar-Euskal Editoreen Elkartea. http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/E/EtxepareJBide *Beribilez*.htm [2016-05-21]
- Etchepare, J. (1992). 4. arg. *Buruchkak*. Bilbo. Euskal Editoreen Elkartea.
- Etchepare, J. (2010). *Beribilez*. Klasikoen Gordailua. http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxepareJBide*Beribilez*.htm [2011-10-08]
- Etchepare, J. “Arnaut Abbadie Kalonjea (1843-1916)”. *Eskualduna*. 1916-IV-06.
- Etchepare, J. “Jean Hiriart-Urruti Kalonjea (1843-1915)”. *Eskualduna*. 1915-IX-16.
- Etchepare, Jean “Euskaltzaleen bilkura” *Gure Herria* 1. urtea, 11-12 (1921ko hazila-abendoa).
- Etchepare. J. (1931). *Beribilez*. Baiona. Laserre. Jatorrizko argitaraldia. http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/873 [2018-IV-23]
- Etchepare; J. (1927). “Eskualzaleen-biltzarreko hitzaldia” in: *Gure Herria*. 7. urtea.
- Etxaniz, X. (2007). *Literatura eta ideologia*. Donostia. Utriusque Vasconiae.
- Etxepare, J. (1910). *Buruxkak*. Lekornen eta Aldudan salgei. Olaso Dorrea Sorrerakundearen jabetzapeko dokumentua, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan kontsulta-gai.
- Etxepare, J. (1920). “Pierre Broussain mirikua (1859-1920)”. *Eskualduna* 1920-05-14.
- Etxepare, J. (1920). “R. M. Azkue euskaltzainburu” in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuarenidazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar.
- Etxepare, J. (1929). “Erantzuna” *Gure Herria*. Novembre-Décembre.
- Etxepare, J. (1929). “Iritzi eta kitzika” *Gure Herria*. Julliet-Août.
- Etxepare, J. (1984). “Baigorriko bilkuran (1923) buruzagi lehenaren mintzaldia” in Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuarenidazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar.
- Etxepare, J. (2006). “Behin Makean” in: Altonaga, K. *Etxepare Aldudeko medikua*. Leioa. Euskaltzaindia/EHU.

- Etxezaharreta, L. (1990). “Piarres Xarriton: Iparraldeko literatura bideen iturrietaz 20. mendean” *Hegats* 38.
- Euskaltzaindia. Literatura Ikerketa Batzordea. (2008). *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- Eusko Legebiltzarra. (1985). *Bidari-liburuen erroldea*. Vitoria-Gasteiz. Liburutegi, agirigordetegi eta agiripaper zerbitzua.
- Eyara, J. (1982). *Historia de Euskal Herria VI*. Donostia. Ediciones vascas.
- Eyara, J., Zabala, F. et al. (1980). *Historia de Euskal Herria V*. Donostia. Ediciones vascas.
- F. I.-ren elkarrizketa “Atxaga: 'Hautsi da anphora' epitafio bat da” *Diario vasco* 25.10.10
- Fabre, P. A. “Représentations (Histoire des)” in : Mesure, S eta P. Savidan (zuz.) (2006). *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF.
- Fernández Fuster, L. (1991). *Historia general del turismo de masas*. Madrid. Alianza Editorial.
- Fernández-Cordero Azorín, C. (1968). “La sociedad española del siglo XIX a través de la obra literaria de Pereda” *Saitabi* 18.
- Fink, G. L. (1993). “Réflexions sur l’imagologie, Stéréotypes et réalités nationales dans une perspective franco-allemande” in: *Recherches Germaniques* 23.
- Fishman, J. (2000). “Business as usual for threatened languages? (On planning economic benefits for the greater benefits of reversing language shift, or “keeping your eyes on the ball””. *He Pukenga Kōrero* 5(2).
- Flaubert, G. (1997). *Dictionnaire des idées reçues*. Paris. Fayard.
- Foucault, M. (2001). *L'hermeneutique du sujet: cours au Collège de France, 1981-1982*. Gallimard.
- Fremantle, A. (1956). *The papal encyclicals in: their historical context*. New York. Mentor Books.
- Fuster García, F. (2014). “Yo, intelectual: Pío Baroja frente a las masas y la democracia” *Arbor* enero-febrero http://dx.doi.org/10.3989/arbor.2014.765n1012 [2016-05-21]
- Galarraga, A. (2010). “Ez denik ez dela. Jean Etxepare: *Buruxkak*” *Argia* 2250. http://www.argia.eus/argia-astekaria/2250/ez-denik-ez-dela?ids=argia-astekaria/2250/ez-denik-ez-dela [2014-10-23]
- Galarraga, I. (1996). *La Vasconia de las ciudades. Bayona, Bilbao, Pamplona, San Sebastián, Vitoria-Gasteiz*. San Sebastián-Donostia. I. Galarraga argitaratzailea.
- García Melero, J. E. et al. (2010). *Historia del arte moderno: Renacimiento*. Madrid. UNED.

- Garcia Trujillo, S. (1993). *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre.* Bilbo. Desclée de Brouwer.
- Gartzia Trujillo, S. (2014). *Jean Etxepare, Aldudeko medikua. Euskal modernitatearen brankako irudia*. Bilbao. Desclée de Brower. Bi lbki.
- Gartzia Trujillo, S. (2016). *Hamaika euskal literato eta Jainkoa*. Laioa. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Gasnier, Th. (1992). "Le local" in: Nora, P. (1984-1992). *Les lieux de la mémoire.* Paris. Gallimard 3 tomes : t. 3 *Les France.*
- Gauthier, Théophile (1845). *Voyage en Espagne* (Nouvelle édition revue...).
- Geertz, C. (1964). "Ideology as a cultural system" in: D. E. Apter. *Ideology and Discontent*. New York. The Free Press of Glencoe.
- Glymour, C. and F. Eberhardt. (2014). "Hans Reichenbach" in: Zalta, E. N. (arg.) *The Stanford Encyclopedia of Philosophy* (Fall 2014 Edition). http://plato.stanford.edu/archives/fall2014/entries/reichenbach/ [2016-05-21]
- Gnisci, A. (1998). "La literatura comparada como disciplina de descolonización" in: Vega, M. J. eta Carbonell, N. *La literatura comparada: principios y métodos*. Madrid. Gredos.
- Goihenetxe, M. (1992). "Ipar Euskal Herria XIX. mendeko azken hamarkadetan" *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 37-1.
- González Quirós, J. L. (2004). "Ciencia y moral en la obra de Baroja" CSIC. http://hdl.handle.net/10261/9556 [2017-04-06]
- Goyheneche, E. (1979). *Le Pays Basque. Soule-Labourd-Basse-Navarre.* Pau. Societé Nouvelle d´Éditions Régionales et de Diffusion.
- Goyhenetche, J. (1984). *Les origines sociales et historiques d'Eskualzaleen Biltzarra (1893 - 1913).* Travail entrepris dans le cadre d'un contrat de recherche entre le Ministère de la Culture et l'Institut Universitaire de Recherche Scientifique de l'Université de Pau et des Pays de l'Adour. https://www.google.es/search?q=%22Les+origines+sociales+et+historiques++de+l%C2%B4Association+Euskaltzaleen+Biltzarra&ie=utf-8&oe=utf-8&gws_rd=cr&ei=ZGauVeOoM8GuesnLpYgM [2016-05-21].
- Goyhenetche, M. (1974). *L'oppression culturelle française au Pays Basque*. ELKAR.
- Goyhenetche, M. (2005). *Historia general del País Vasco III*. Ttarttalo. Donostia.
- Greimas, A. J. eta J. Courtés. (1979). *Sémiotique. Dictionnaire raisonné de la théorie du langage*. Paris. Hachette.

- Greimas, A. J. eta J. Courtés. (1990). *Semiótica. Diccionario razonado de la teoría del lenguaje*. Madrid. Editorial Gredos.
- Gritti, J. (1967). "Les contenus culturels du Guide bleu: monuments et sites "à voir"" *Communications* 10.
- Grondin, J.(2006). "Historicité" in: Mesure, S eta P. Savidan (zuz.) *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF.
- Groupe d'études "La philosophie au sens large" animé par Pierre Macherey. (10/01/2007). "Idéologie : le mot, l'idée, la chose. Litterature et idéologie : A propos de *Texte et Idéologie* de Philippe Hamon (PUF, 1984)". https://f.hypotheses.org/wp-content/blogs.dir/165/files/2017/09/10-01-2007.pdf [2018-II-28]
- Grupo, D. E. I. (2007). *Diccionario de espiritualidad ignaciana*. Bilbao-Santander. Mensajero-Sal Terrae.
- Guillén, C. (1985). *Entre lo uno y lo diverso: Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Crítica.
- Günzel, S. (2012). "Voluntad de Poder" in: Niemeyer, Ch. (arg.) *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares.* Madrid. Biblioteca nueva.
- Hamon, Ph. (1972). "Qu' est-ce qu´une description?" *Poétique* 12.
- Hamon, Ph. (1975). "Du savoir dans le texte" *Revue des Sciences Humaines*. Tome XL. nº 160 Octobre-Décembre.
- Hamon, Ph. (1981). *Introduction à l´analyse du descriptif*. Paris. Hachette.
- Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF.
- Hamon, Ph. (1989). "Le littéraire, la littérature, le social et la valeur" *Cahiers de recherche sociologique* 12.
- Hamon, Philipperekin elkarrizketa. (2012). "Une fidélité à la poétique ", *Fabula* 10. "L'aventure poétique" http://www.fabula.org/lht/index.php?id=409 [2014-12-14]
- Haritschelhar, J. (1994). "Emaztea Oihenartek bildu atsotitzetan" *Iker* 8.
- Haritschelhar, J. (1998). "Ideologiak Lore Jokoetako kantuetan" in: *Antoine d´Abbadie 1897-1997: Congrès International= Ezohiko kongresua*. Hendaia-Sare / Eusko Ikaskuntza; Euskaltzaindia. XIV Biltzarra. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia.
- Haritschelhar, J. (2002). "Ezkonduien Koplak (Etxepare, 1545)". *Lapurdum*. Euskal ikerketen aldizkaria| Revue d'études basques| Revista de estudios vascos| Basque studies review (7).
- Haritschelhar, J. (2003). "Emazteen fabore" in: Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian (I-II). Bilbo. Euskaltzaindia.

- Haritschelhar, J. (2011). “Amorosen disputa” *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 56-3.
- Haritschelhar, J. (2014). “La Femme et l'amour dans la littérature populaire basque (XVIIIe et XIXe siècles)”. *Cahiers Etnologiques* 15.
- Haritschelhar, J. (zuz.) (1983). *Être basque*. Toulouse. Privat.
- Haritschelhar, Jean (2005). "Dibarrart-en kantu baten aldaketa” in: *Txillardegiri Omenaldia* Pilartxo Etxeberria Murua eta Henrike Knörr (koord.) Iker 17
- Hauser, A. (1976). Historia social de la literatura y del arte 3. Madrid. Guadarrama.
- Havemann, D. (2012). “Dios ha muerto” in: Niemeyer, C. *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva.
- Heit, H. (2012). “Verdad” in: Cano, G. (arg.) (2012). *Diccionario Nietzsche*. Madrid. Siglo XXI.
- Herbert, Th. (1968). “Remarques pour une théorie générale des idéologies” *Cahiers pour l´Analyse* 9 été.
- Hermet, G. (2006). “Nationalisme” in: Mesure, S eta P. Savidan (zuz.) *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF.
- Hernández Mata, Amelia (1998). “Antoine d'Abbadie eta garaikideen sare intelektuala” in: *Antoine d'Abbadie 1897-1997: Congrés International = Ezhoiko kongresua*. Eusko Ikaskuntza Euskaltzaindia, Donostia-San Sebastián.
- Hernández Mata, A. (2007). *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*. Bilbo. Euskaltzaindia. *Iker* 20.
- Hernández, M. (1992). “Errealismoaren gaurkotasuna” *Jakin* 71.
- Herzfel, M. (1996). “Folklore” in: Barnard, A. eta J. Spencer. *The Routledge Encyclopedia of social and cultural anthropology.* London. Routledge,
- Herzfeld, M. (1996). “Essentialism” in: Barnard, A. eta J. Spencer (arg.) *The Routledge Encyclopedia of social and cultural anthropology.* London. Routledge.
- Hiriart-Urruti , J. “Liburu kondenatuak” *Eskualduna,* 1911-03-24 http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/H/HiriUrruGontze015.htm [2016-IV-12]
- Hiriart-Urruti, J. (1891-1914). “Biba eskuara!” in: *Gontzetarik jalgiaraziak* (1995). http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiriUrruGontze051.htm [2017-01-09]
- Hiriart-Urruti, J. (1995). *Gontzetarik jalgiaraziak* (Iñaki Caminoren edizioa). Euskal Editoreen Elkartea. Donostia
- Hiriart-Urruti, J. (2004). "Mintza gaiten euskaraz" in: *Ni kazeta-egilea naiz*. *Artikulu, berri, istorio*. Bilbao. Labayru ikastegia/BBK fundazioa.

- Hiriart-Urruti, J. (2004). *Ni kazeta-egilea naiz* (Xabier Altzibarren edizioa). Labayru. Bilbo.
- Hiribarren, J. M. (1926). "Altabizkarreko kantua" *Gure Herria* 6, jorraila.
- Honderich, T. (arg.) (2005 [1995]). *The Oxford companion to Philosophy*. Oxford. Oxford University Press.
- Hoyos, L. eta Nieves Hoyos (1947). *Manual de folklore*. Madrid. Revista de Occidente.
- Hugo, V. (2002). Idi orgaren karranka: (Euskal Herrian gaindi, 1843). Donostia. Elkar.
- Huxley, A. (2014 [1944]). *The perennial philosophy*. New Canadian Library.
- Idígoras, J. I. T. (1990). *Ignacio de Loyola: solo y a pie*. Salamanca. Sígueme.
- Igerabide, J. K. (2015). "Oinarrikeria". *Hemen* 47.
- Iglesias, C. (2004). *Las ideas de Pío Baroja.* Michigan. University Microfilms International.
- Intxausti, Joseba. (1960). "Izatea ta bere zentzua". *Egan* XIII.
- Irastortza, T. (1987). "Emakumezkoa gizonezkoen literaturan: Euskal Literaturari errepasoa" *Jakin* 45.
- Iratxet, J. P. (1988). *Antton*. Etor. Patri Urkizuren argitalpena.
- Iriarte, I. (2000). *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960).* Madrid. Biblioteca nueva.
- Itçaina, I. (2007). Les virtuoses de l´identité. Religion et politique en Pays Basque. Presses Universitaires de Rennes.
- Itçaina, X. (2012). *Euskaldun fededun. Errepublikaren oroimen urratuak*. Baiona. Elkar.
- Iturbide, A. (1991). "Jean Etchepareren idazkera" *Jakin* 64.
- Iturralde, P. (P. Lafitte) (1955). "Berritasunaz" *Egan* 5-6.
- Itzaina, X. (2002). "Eliza eta euskaltzaletasuna: bost ikuspegi" *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 47-2.
- Izagirre, K. (biltz.) (2002). *Donostia. Hiri bat literaturan. Antologia laburra*. Irun. Alberdania.
- Iztueta, P. (1991). *Orixe eta bere garaia*. Donostia. Eusko Jaurlaritza/Etor.
- Iztueta, P. (2002). *Testu hautatuak euskal estetikaz*. Donostia. Utriusque Vasconiae.
- Jaeger, W. (1990 [1933]). *Paideia*. Madrid. FCE.
- Jankélévitch, V. (1960). *Le pur et l´impur*. Paris. Flammarion.
- Jankélévitch, V. (1964). *L'ironie*. Paris, Champs-Essais.
- Jankélévitch, V. (1986). *Les vertus et l'amour*. Flammarion.
- Jouve, V. (2010). *Pourquoi étudier la littérature*? Paris. Armand Colin.
- Juaristi, J. (1976). *Euskararen ideologiak: Etorkiak I.* Donostia. Kriselu.
- Juaristi, J. (1987a). *El linaje de Aitor*. Madrid. Taurus.

- Juaristi, J. (1987b). *Literatura vasca*. Madrid. Taurus.
- Juaristi, J. (2003). "Nacionalismo y paisaje" *Cuadernos de Alzate* 29.
- Juaristi, J. (2013). *Historia mínima del País Vasco*. Madrid. Turner.
- Julia, D. (2010). "Pélerinage" in: Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.) *Dictionnaire des faits religieux*. Paris. PUF.
- Kant, Burke, Volney, Cordoncet. (2005). *Pentsamendu Ilustratua: Idazlan hautatuak II.* Leioa. EHU.
- Kaplan, D. (2007). "What can the concept of friendship contribute to the study of national identity?" *Nations and nationalism* 13(2).
- Kasser, T. (2003). *The high price of materialism*. Cambridge, Mass. MIT press.
- Kerbrat-Orecchioni, C. (1980). *L´énontiation de la subjectivité dans le langage.* Paris. Armand Colin.
- Kerejeta, M. J. (1987). "J. Etchepare" in: Etxepare, J. *Beribilez*. Bilbo. Euskal Idazleen Elkartea.
- Kintana, J. (2001). "Nietzsche euskal literaturan: J. Etchepareren "Amodioa" (1910)". *Jakin* 127.
- Kintana, J. (2008). *Intelektuala nazioa eraikitzen. R. M. Azkueren pentsaera eta obra*. IKER 22. Bilbo. Euskaltzaindia.
- Kintana, J. (2009). *Urre urdinaren lurrina. Euskal idazle galduaren bila (1810-1940).* Iruña. Pamiela.
- Kintana, J. (2015). *Azkue, Bilbotar ezezaguna*. Donostia. Erein.
- Kortazar, J. (1985). "Lauaxetaren olerkigintzaren ardatzak" *Jakin* 36.
- Kortazar, J. (1986). *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Bilbo. Desclée de Brower.
- Kortazar, J. (1990). *Literatura vasca: Siglo XX*. Donostia. Etor.
- Kortazar, J. (1994). *Literatura vasca: Siglo XX*. Bilbo. Ed. Iparragirre.
- Kortazar, J. (1995). "Lauaxetaren iturriak literatura gonbaratuaren azterketa baterako" *Oihenart* 13.
- Kortazar, J. (2000). *Euskal Literatura XX. Mendean*. Zaragoza. Las Tres Sorores.
- Kortazar, J. (2003a). "Artzeren poesiaren pentsakizunaz" *Lapurdum* VIII.
- Kortazar, J. (2003b). *Euskal literatura XX. mendean*. Zaragoza. Pramés.
- Kortazar, J. (2005). "Identidades en la Literatura vasca. Entre modernidad y postmodernidad" in: Esparza, I. eta José Manuel López Gaseni. *La identidad en la literatura vasca contemporánea*. Bern. Peter Lang.

- Kortazar, J. (2006). “La ciudad en la literatura vasca contemporánea” *Cuadernos de Alzate* 35.
- Kortazar, J. (2015). “Publishing and literary system in Basque literature”. *Rassegna iberistica* 311.
- Kortazar, P. (2016). “Domingo de Aguirre (1864-1920): fueros e identidad territorial como base del paisaje nacional” in: Kortazar, J. (arg.) (2016). *Autonomía e ideología. Tensiones en el campo cultural vasco*. Madrid. Iberoamericana.
- Kuhn, E. “Modernidad” in: Niemeyer, C. (arg.) (2012). *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares.* Madrid. Biblioteca Nueva.
- Kymlicka, W. (1989). *Liberalism, Community and Culture.* New York. Oxford University Press.
- Kymlicka, W. (2003). *La política vernácula: nacionalismo, multiculturalismo y ciudadanía*. Paidós.
- Kymlicka, W. (2004). “Communautarisme” in Canto-Sperber, M. (zuz.) *Dictionnaire d´éthique et de philosophie morale*. Paris. PUF.
- Kymlicka, W. (2014). “The essentialist critique of multiculturalism: Theories, policies, ethos” *Ethos (May 2014). Robert Schuman Centre for Advanced Studies Research Paper No. RSCAS*, *59*.
- Kymlicka, W. (arg.) (1995). *The rights of minority cultures* Oxford. Oxford University Press.
- Labayen, A. M. (1978). *Elizanburu: bere bizitza ta lanak= su vida y obras*. Donostia. Auñamendi.
- Lacombe, G. (1933). “J. Etxepare-*Beribilez*” RIEB.
- Lacombe, G. (1935?). “Le Docteur J. Etchepare” Azkue Bibliotekan.
- Lacoste, J.-Y. (zuz.) (2002). *Dictionnaire critique de théologie*. Paris. PUF.
- Lafitte, P. (1931). *Eskualdunen Loretegia. Lehen zathia*. Baiona. Laserre.
- Lafitte, P. (1932). “Notre maître M. le Dr. Etchepare” *Gure Herria* XII.
- Lafitte, P. (1941). “J. Etchepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas” sarrera in: J. Etxepare. (1980). *Buruxkak*. Donostia. Elkar.
- Lafitte, P. (1942). *Le basque et la littérature d´expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baiona. “Le livre” Collection “Aintzina”.
- Lafitte, P. (1952). “Aphez eskualdun batek behar lukeen kulturaz” *Gure Herria* 24-2.
- Lafitte, P. (1957). “Munduaren hastapenak (VIII) Jakitateak zer dion” *Herria* 366.
- Lafitte, P. (1963). “Monseigneur Clément-Joseph Mathieu” *Gure Herria* 35-1.

- Lafitte, P. (1964). “Eskualzaleak Alduden” *Gure Herria* 4-5.
- Lafitte, P. (1968a). “Correspondance adressée par Georges Lacombe à l´Abbé Martin Landerretche. Lettres de Georges Lacombe (extraits)”. *Bulletin du Musée Basque* 40.
- Lafitte, P. (1968b). “Correspondance adressée par Georges Lacombe à l´Abbé Martin Landerretche. Lettres de Georges Lacombe (extraits) (suite)”. *Bulletin du Musée Basque* 41 et 42.
- Lafitte, P. (1968c). *Correspondance adressée par Georges Lacombe à l´Abbé Martin Landerretche.* Tiré à part du Bulletin du Musée Basque nº 40, 41 et 42. 2, 3, 4 trimestres 1968.
- Lafitte, P. (1971). “Aitzin-solasa” in: Hiriart-Urruty, J. *Mintzaira, aurpegia: gizon!* Arantzazu. Jakin.
- Lafitte, P. (1974). *Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak*. Baiona. Imprimerie des Cordeliers.
- Lafitte, P. (1974). “Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak”. *Gure Herria* 1974 (4 zkia.). 207-218 or. (5. zkia.) 261-270 or.
- Lafitte, P. (1984). “J. Etchepare jaun miriku zena (1877-1935)” in: Xarriton, P. (arg.) *Jean Etchepare mirikuaren(1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak.* Donostia. Elkar/Eskualtzaleen Biltzarra.
- Lafitte, P. (1990a). *Euskal literaturaz*. Oiartzun. Erein/Euskal Editoreen Elkartea.
- Lafitte, P. (1990b). “J. Etchepare jaun mirikua (1877-1935)” in: Lafitte, P. *Euskal Literaturaz*. Oiartzun. Euskal Editoreen Elkartea.
- Lafitte, P. (2001). *Nafar lapurtar idazle aipatuenak*. Donostia. Elkarlanean.
- Lafitte, P. (2002). *Kazetari-lan hautatuak*. P. Sudupe (apail.) Elkar.
- Lafitte; P. (1979). *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*. Donostia. Elkar
- Lagoueyte, C. (2010). *Usage des motifs culturels dans la construction de l'image (rie) touristique:"Ongi etorri. Bienvenue au pays basque*”. (Tesi digitala, Bordeaux 2). www.theses.fr/2010BOR21702.pdf [2018-II-28]
- Lalquette, J.: “Anticléricalisme” in Azria, R. eta Danièle Hervieu-Lèger (zuz.) *Dictionnaire des faits religieux*. Paris. PUF.
- Larramendi, M. (1986). *Corografía de la provincia de Guipúzcoa*. Amigos del Libro Vasco.
- Larramendi, M. eta Idígoras, J. I. T. (1969). *Corografía de Guipúzcoa*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones.
- Larre, É. (1985). “Piarres Lafitte joan zaiku (1901-1985)” in: *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 30-2 http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50641.pdf [2010-11-20].

- Larre, É. (1991). "Jean Pierre Iratchet (1921-1991)". *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 36.
- Larrea, K. (2010). *Itzalak harturik*. Pamiela. Iruña.
- Larrea, Tx. (1980). "Idazle goren bat: J. Etchepare" *Argia* 895.
- Larrinaga, A. (2017). "Emozioak ekintza kolektiboan. Emoziozko testuinguruaren bilakaera euskararen aldeko mugimenduan". *Gogoa* 16.
- Lasagabaster, J. M. (1982a). "Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna" *Jakin* 22.
- Lasagabaster, J. M. (1982b). "Nobelaren joera berriak" *Jakin* 25.
- Lasagabaster, J. M. (1990). "Euskal literaturaren azterketa-1960-1990" *Jakin* 61.
- Lasagabaster, J. M. (2002). "Novela regionalista española y costumbrismo vasco" in: Toledo, A. (arg.) *Las literaturas de los vascos.* Donostia. Universidad de Deusto.
- Lasagabaster, J. M. (2002). "Pío Baroja y el mar" in: Toledo, A. (arg.) *Las literaturas de los vascos.* Bilbo. Universidad de Deusto.
- Lauaxeta. "Gazi-gozoak" *Euzkadi* 33/05/10.
- Launay, M. (1986). "L´effet de sens, produit de quoi?" *Langages* 82.
- Le Play, F. (1947*). Le Play. Textes choisis et préface par Louis Baudin*. Paris. Librairie Dalloz. http://classiques.uqac.ca/classiques/le_play_frederic/le_play_textes_choisis/textes.html [2017-01-20]
- Le Querler, N. (1996). *Typologie des modalités*. Caen. Presses universitaires de Caen.
- Le Querler, N. (2004). "Les modalités en français" *Revue belge de philologie et d' histoire*. Tome 82 fasc. 3.
- Lecointre, S. eta J. Le Galliot. 1972. *L'Appareil formel de l'énonciation dans* Jacques le fataliste. *Français Moderne* 40.
- Lecourt, D. (1999). "Positivisme" in Lecourt, D. (zuz.) *Dictionnaire d´histoire et philosophie des sciences.* Paris. PUF.
- Lecourt, D. (zuz.) (1999). *Dictionnaire d´histoire et philosophie des sciences*. Paris. PUF.
- Lecourt, D.(zuz.) (2004). *Dictionnaire de la pensée médicale*. Paris. PUF.
- Leersen, J. (2000). "The Rhetoric of National Character: a Programmatic Survey" *Poetics Today* 21, 2.
- Leersen, J. (2006). *National Thought in: Europe. A Cultural History*. Amsterdam University Press.

- Lekerikabeaskoa, A. eta Isusko Vivas (2010). “Itsas bazterreko espazio urbanoa eraikitzen: arkitektura, eskultura eta hiri-altzariak Donostiako badian” *Uztaro* 75.
- Leon, L. (1923). “Ursuan gaindi Makearat” *Gure Herria* Buruila Septembre.
- Leoné Puncel, S. (1999). “¿Cómo escribir la identidad de navarra? De la historia a la metahistoria” *Gerónimo de Uztariz* 14.
- Leoné Puncel, S. (1999). “Entre la crítica y la nostalgia: la problemática de Pierre Nora (a propósito de *Les lieux de mémoire*)” *Memoria y civilización: anuario de historia* 2.
- Leoné Puncel, S. (2008). *Euskal Herria XIX. mendeko bidaia-liburuetan*. Irun. Alberdania.
- Leoné, S. (2008). *Euskal Herri imajinario baten alde.* Elkar.
- Lertxundi, B. (1981). *Altabizkar. Itzaltzuko bardoari*. Elkar KD-47/48.
- Lévi-Strauss, C. (1991 [1958]). “Mitoen estruktura” in: *Antropologia estrukturala*. Bilbo. Klasikoak.
- Lhande, P. (2007). “Yolanda eta beste euskarazko idazlanak” Aintzin solas, oharrak eta solas-ondoa Jon Casenave. Euskaltzaindia. Bilbo.
- Lie, N., Mandolessi S. eta D. Vandebosch (arg.) (2012). *El juego con los estereotipos. La redefinición de la identidad hispánica en la literatura y el cine postnacionales*. Bruxelles. Peter Lang.
- Lipiansky, E. M. (1991). *L´identité française. Représentations, mythes, idéologies*. La Garenne-Colombes. Éditions de l´espace européen.
- Lippmann, W. (2014 [1922]). *Public Opinion*. Gutenberg project: http://www.gutenberg.org/ebooks/6456 [2016-05-21]
- Lizardi, X. (1934). ”Donapaleura yoan-etorria” in: *Itz-lauz.*
- López Adan, E. (1978). “Ipar Euskal Herria: 150 urte historiarik gabe (1789-1934)”. *Saioak* 2.
- López Antón, J. J. (1996). “"El último tamborilero de Erraondo": la aculturalización psicológica y física de Navarra” *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 28(67).
- López Antón, J. J. (1998). “El imaginario pesimista de Vasconia de Arturo Campión” *Vasconia* 27.
- López de Aberásturi, A. (1997). *La casa torre de Loyola*. Bilbo. Mensajero.
- López de Abiada, J. M. eta A. López. (2004). *Imágenes de España en culturas y literaturas europeas (siglos XVI-XVII)*. Madrid. Verbum.
- López Ontiveros, A. (2009). “Valor, significado e identidad del campo y de los paisajes rurales españoles según Unamuno” *Boletín dela A. G. E*. 51.

- López Ontiveros, A. "Descubrimiento y conformación histórica de los territorios rurales" in: Ortega Cantero, N. (arg.) (2004). *Naturaleza y cultura del paisaje*. Madrid. UAM ediciones.
- Lorenzo, M. (2012). "El Fuerismo victoriano: el caso de Vicente Arana" *Sancho el Sabio* 35.
- Lorenzo, M. (2017). "Las fuentes regionalistas de la Castilla noventayochista" *Academia. edu*. https://www.academia.edu/31012783/Las_fuentes_regionalistas_de_la_Castilla_noventayochista [2017-02-10]
- Lorenzo-Arza, M. (2014). "Paisaje e identidad vasca en cuatro autores finiseculares" *Sancho el Sabio* 37.
- Lorenzo-Arza, M. (2014). *Landscape and Nation in: the Formation of the Spanish Liberal State 1850-1890.* Doctoral Dissertations. Paper 478. http://digitalcommons.uconn.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=6729&context=dissertations [2016-05-21]
- Lorenzo-Arza, M. (2016). "La construcción de la nación asimétrica en los libros de viajes y cuadros de costumbre regionalistas" *Academia.edu* sareko ataria [2016-II-05]
- Luengo López, J. (2014). "Les remèdes de bonne femme. De la compilación de saberes populares en los tratados médicos franceses al descrédito de la condición femenina" *Arbor* 190 doi: http:// dx.doi.org/10.3989/arbor.2014.769n5009
- Luengo, F. (1984). *San Sebastián. La vida cotidiana de una ciudad. De su destrucción a la Ciudad Contemporánea. (Sus gentes, costumbres, imagen, sociabilidad).* San Sebastián. Txertoa.
- Luku, A. (1998). "Bidaia literaturan" *Hegats* 19/20.
- Machado, A. M. (1984). *O "francesismo" na literatura portuguesa*. Lisboa. Ministério da Educação.
- Macherey, P. (2007). "Littérature et idéologie. A propos de *Texte et Idéologie* de Philippe Hamon" http://stl.recherche.univ-lille3.fr/seminaires/philosophie/macherey/macherey20062007/macherey10012007.html [2013-09-28]
- MacIntyre, A. (2007). *After Virtue: A Study in: Moral Theory*. Indiana. University of Notre Dame Press.

- Maclancy, Jeremy (2008). “Imaging the Basques: anthropological perspectives”in*: Imaging the Basques: Foreign views on the Basque Country*. *RIEV* Cuadernos (2). Bilbo. Eusko Ikaskuntza.
- Maderuelo, J. (2002). “Petrarcaren begirada” in: Petrarca, F. *Ventoux mendirako igoaldia, 1336ko Apirilaren 20a*. Gasteiz. Apuntes de Estética ARTIUM.
- Maderuelo, J. (2012). “La mirada pintoresca”. Quintana: revista de estudios do Departamento de Historia da Arte 11.
- Maingueneau, D. (1991). *L´Analyse du discours*. Paris. Hachette.
- Mallart i Casamajor, LL. (1997). *Viaje y Geografía*. Barcelona. Oikos Tau.
- Mannheim, K. (1954). *Ideology and Utopia*. London. Routledge. https://archive.org/details/ideologyutopiain00mann [2016-05-21]
- Manstead, A. eta M. Hewstone (arg.) (1995). *The Blackwell Encyclopedia of Social Psychology*. USA. Blakwell.
- Marletel, Ph. (1992). “Le Félibrige” in: Nora, P. (1984-1992). *Les Lieux de mémoire*. Paris. Gallimard 3 tomes : t. 3 *Les France*.
- Martínez Alonso, P. J. (2004). *Libros de viajes alemanes e ingleses a España en el siglo XX*. Doktorego tesia: URL Oficial: http://eprints.ucm.es/tesis/fll/ucm-t26683.pdf [2016-07-04]
- Martinez de Pisón, E. (1998). *Imagen del paisaje. La Generación del 98 y Ortega y Gasset.* Caja Madrid.
- Martínez de Pisón, E. (2009). *Miradas sobre el paisaje*. Madrid. Biblioteca nueva.
- Martínez de Pisón, E. “Unamuno y el paisaje” Bidebarrietako Kulturgunean emandako hitzaldia (2014-III-18).
- Martínez de Pisón, E. eta N. Ortega. (2008). *Los valores del paisaje*. Soria. UAM ediciones.
- Martínez, E. “Positibismoa” in UZEI. (1987). Filosofia hiztegia 1. Donostia. Elkar.
- Martínez, J. L. (2007). "Virtudes” in Grupo, D. E. I. *Diccionario de espiritualidad ignaciana*. Bilbao-Santander. Mensajero-Sal Terrae.
- Mata, A. H. (2001). “Piarres Lafitten sare intelektuala (1920-1940)”. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 46-2.
- Mauduit, Ch. (2005). “Mimesis” in Leclant, J. (zuz.) *Dictionnaire de l´Antiquité*. PUF.
- Mees, L. (1991). “Europako herri txikien esnatzea” *Jakin* 66.
- Memmi, A. (1957). *Portrait du colonisé: précédé du Portrait du colonisateur: essai*. Buchet/Chastel.
- Mesthrie, R. (2001). *Concise Encyclopedia of Sociolinguistics*. Amsterdam. Elsevier.

- Mesure, S eta P. Savidan (zuz.) (2006). *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF.
- Meunier, M. (1971). *Jean Cocteau et Nietzsche ou la philosophie du matin*. Paris. Grassin.
- Michelena, L. (1960). *Historia de la Literatura Vasca.* Madrid. Minotauro.
- Michelena, L., & Altuna, F. (1972). *Mitxelenaren idazlan hautatuak: Idazlanen aukera oharrak, iruzkinak*. Mensajero.
- Mitxelena, K. (1955). "Pio Barojak esan digu" *Egan* 3-4 maiatz-abuztua.
- Mitxelena, K. (2001). "Pio Baroja" in: *Gure artean*. Zarautz. Alberdania.
- Moll, N. (2002). "Imágenes del "otro" La literatura y los estudios interculturales" in: Armando Gnisci (arg.) *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica.
- Monier, S. (1992). *Le père Lafitte (entretiens, souvenirs avec).* Baiona. Elkar.
- Montero, M. (2009) *Historia general del País Vasco*. Donostia. Txertoa.
- Morfaux, L. M. (2010). "Plaisir" in: Souriau, É. *Vocabulaire d´esthétique*. Paris. PUF.
- Mortimer Fox, J. (1913). "Salvator Tongiorgi" *Catholic Encyclopedia* (1913). Volume 14. http://oce.catholic.com/index.php?title=Salvator_Tongiorgi [2017-02-04]
- Moulier-Oxobi, J. (1935). "J. Etchepare" *Gure Herria* 1. 1-4.
- Moura, J. M. (1992a). "L´imagologie littéraire, essai de mise au point historique et critique" *Revue de littérature comparée* 263.
- Moura, J. M. (1992b). *L´image du tiers monde dans le roman français contemporain*. Paris. PUF écriture.
- Moura, J. M. (2013*). Littératures francophones et théorie postcoloniale*. Paris. PUF.
- Mujika, L. M. (1996). "Lizardi eta paisaiaren trataera" *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 41-1.
- Muller, E. (2012). "Placer" in: Cano, G. (arg.) *Diccionario Nietzsche*. Madrid. Siglo XXI.
- Murua, I. (1996). "Piarres Xarritoni elkarrizketa" *Jakin* 97.
- Myers-Scotton, C. (2006)). "How codeswitching as an available option empowers bilinguals" in: Pütz, M., Fishman, J. A., & Neff-van Aertselaer, J. (arg.) *'Along the Routes to Power': Explorations of Empowerment Through Language* (Vol. 92). Mouton de Gruyter.
- Nault, J.-Ch. (2010) *La saveur de Dieu. L'acédie dans le dynamisme de l'agir* (coll. Cogitatio Fidei, 248). Paris. Les Éditions du Cerf.
- Nora, P. (zuz.) (1997) *Les lieux de la mémoire*. Paris. Gallimard.
- Navarra, A. (2013). *El anticlericalismo*. Madrid. Cátedra.

- Neri, F. (2002). "Multiculturalismo, estudios poscoloniales y descolonización" in: Armando Gnisci (arg.) *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica.
- Niemeyer, C. (arg.) (2012). *Diccionario Nietzsche*. Conceptos, obras, influencias y lugares. Madrid. Biblioteca Nueva.
- Niemeyer, Ch. (2012). "Eterno retorno" artikulua in Niemeyer, C. *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares*. Madrid. Biblioteca Nueva. Lacoste
- Nietzsche, F. (1997). *Moralaren genealogia: idatzi polemikoa*. Bilbao. Klasikoak
- Nora, P. (zuz.) (1984-1992). *Les Lieux de mémoire*, Paris. Gallimard 3 tomes : t. 1 *La République* (1 vol., 1984), t. 2 *La Nation* (3 vol., 1986), t. 3 *Les France* (3 vol., 1992).
- (1997).North, H. F. (1973). "Temperance (*sophrosine*) and the canon of the cardinal vertues" in: Wiener, P. P. (zuz.) *Dictionnary of the history of ideas*. New York. Charles Scribner´s sons.
- Nucera, D. (2002). "Los viajes y la literatura" in: Armando Gnisci (arg.) *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Crítica.
- Nussbaum, M. (1986). *The fragility of goodness*. Cambridge University Press.
- Oihartzabal, P. (2002). "Piarres Xarriton. Iparraldeko XX. mendeko euskaltzaletasunaren lekuko" *Euskonews & Media*. http://www.euskonews.com/0033zbk/gaia3303eu.html [2011-10-08]
- Olaziregi, M. J. (1991). "Fokalizazioa: hurbilpen teorikoa eta zenbait aplikapen euskal narratiban" *ASJU* XXV-1.
- Oleza, J. (1984). *La novela del XIX. Del parto a la crisis de una ideología.* Barcelona. Laia.
- Onaindia, S. (1975). *Euskal literatura IV*. Etor. http://zubitegia.armiarma.com/?p=ona-590. [2011-X-23].
- Oriane Calligaro, François Foret, "La mémoire européenne en action. Acteurs, enjeux et modalités de la mobilisation du passé comme ressource politique pour l'Union européenne". *Politique européenne* 2012/2 (Nº37).
- Orixe (2002 [1951-55]). "Estetika" in: Iztueta, P. (2002). *Testu hautatuak euskal estetikaz*. Donostia. Utriusque Vasconiae.
- Orixe. (1960). "Izaki, izate, eza". *Egan* 3/6.
- Ormaetxea, N. *Orixe* (1991). *Idazlan guztiak III Artikulu eta saiakerak*. Donostia. Etor argitaletxea.
- Orpustan, J. B. (1989). *Garro : un nom dans l'histoire.* (Conférence prononcée au château de Garro à Mendionde le 28 octobre 1989). http://mendionde.fr.gd/Le-nom-de-Garro-_-Garroko-izena.htm [2014-05-10]

- Orpustan, J. B. (1996). *Précis d´histoire littéraire basque 1545-1950*. Baigorri. Éditions Izpegi.
- Orpustan, J.-B. (1980). "Rôle et pouvoirs de l´Église" in: *La Nouvelle Société basque*. Paris. L´Harmattan.
- Ortega Cantero, N. (arg.) (2004). *Naturaleza y cultura del paisaje*. Madrid. UAM ediciones.
- Ortega Cantero, N. (arg.) (2006). *Imágenes del paisaje*. Madrid. UAM ediciones.
- Ortega y Gasset, J. (1930). *Masen errebolta*. Bilbo. Klasikoak.
- Ortiz de Pinedo, A. (2011). *Euskal literatura Gernika aldizkari liberalean: 1945-53*. Amorebieta. Erroteta. http://hdl.handle.net/10810/16796 [2016-11-01]
- Pageaux, D. –H. (1981). "Une perspective d´études en littérature comparée: l´imagerie culturelle" *Synthesis* VIII. Bucarest.
- Pageaux, D. –H. (1983). "L´imagerie culturelle: de la littérature comparée à l´anthropologie culturelle" *Synthesis* X. Bucarest.
- Pageaux, D. –H. (1984). *Imagens de Portugal na cultura francesa*. Lisboa. Ministério da Educação.
- Pageaux, D. –H. (1989). "De l´imagerie culturelle à l´imaginaire" in: Brunel, P. eta Y. Chevrel: *Précis de littérature comparée*. PUF. Paris.
- Pageaux, D. –H. (1989). "Un aspect des relations culturelles entre la France et la Péninsule ibérique: l´exotisme" in: *Imágenes de Francia en las letras hispánicas* : [Coloquio celebrado en la Universidad de Barcelona, 15 a 18 de noviembre de 1988] / coord. : Francisco Lafarga Maduell.
- Pageaux, D. –H. (1994). *La littérature générale et comparée.* Armand Colin. Paris.
- Pageaux, D. –H. (1995). "Recherche sur l´imagologie: de l´Histoire culturelle à la Poétique" *Revista de Filología Francesa* 8.
- Pageaux, D. –H. (2002). "Historia e imagología" in: Boixareu, M. eta R. Lefere (koord.) *La Historia de España en la Literatura Francesa*. Madrid. Editorial Castalia.
- Pageaux, D. –H. (2008). *Le séminaire de `Ain Chams.* Paris. L´Harmattan.
- Pageaux, D.-H. (1986). "Littérature comparée et sciences humaines. Pour un renouveau des études comparatistes." *Sensus Communis: Contemporary Trends in: Comparative Literature / Panorama de la situation actuelle en Littérature Comparée*. Tübingen. Ed. János Riesz, Peter Boerner, and Bernhard Scholz.
- Pagola, J. A. (2013). *Jesús y el dinero: una lectura profética de la crisis*. Madrid. Boadilla de monte.

- Palomar, A. (2010). “Conformismo, banalidad y pensamiento: figuras de la alienación en las sociedades de masas según Hannah Arendt” *Astrolabio. Revista Internacional de filosofía* 11.
- Panier, L. (1980). “De l´idéologie dans le discours” *Sémiotique et Bible* 19, septembre.
- Pascal, B., & Nicole, P. (1700). *Les Provinciales*, Ou Lettres Ecrites Par Louis De Montalte A Un Provincial De Ses Amis, Et aux RR. PP. Jesuites sur la Morale & la Politique de ces Pères.
- Passmore, J. (1973). “Perfectibility of man” in: Wiener, P. P. *Dictionnary of the history of ideas*. New York. Charles Scribner´s sons.
- Paz, O. (1974). *Los hijos del limo*. Del romanticismo a la vanguardia. Barcelona. Seix Barral.
- Pereda, J. M. (1897). *Discursos leídos ante la real academia española en la recepción pública de*. Madrid. Viuda e hijos de Tello.
- Pérez Priego, M. A. (1984). “Estudio literario de los libros de viajes medievales” *Epos* I.
- Pierre, Th. (2013). “L'officialisation de la langue basque en France : du droit à la différence au droit à l'égalité ?” *Langage et société* 145 Issue 3.
- Pinedo, J. (2000). “Ser otro sin dejar de ser uno mismo: España, identidad y modernidad en la Generación del 98” *academia.edu* [PDF][2016-07-29]
- Pinto, L. (1995). *Les Neveux de Zarathoustra. La réception de Nietzsche en France*. Paris. Seuil.
- Placer, E. L. (1968). *Lo vasco en Pio Baroja*. Buenos Aires. Ekin.
- Placer, Eloy. (1958). "Lo Vasco en Pio Baroja" *LSU Historical Dissertations and Theses*. 499. http://digitalcommons.lsu.edu/gradschool_disstheses/499 [2017-04-04]
- Plamenatz, J. (1970). *Ideology*. London. Pall Mall.
- Plazaola, J. (2012). *Introducción a la estética*. Bilbo. Universidad de Deusto.
- Pozuelo Yvancos, J. M. (2006). *De la autobiografía*. Barcelona. Crítica.
- Pulici, C. (2012). “Le solennel et le parcimonieux dans l'alimentation. Les pratiques gastronomiques comme source de distinction des élites brésiliennes”, *IdeAs* [En ligne], 3 | Hiver 2012, mis en ligne le 03 janvier 2013, consulté le 13 février 2017. URL : http://ideas.revues.org/441 [2017-07-05]
- Racionero, L. (2005). *El libro de los pequeños placeres*. Barcelona. Styria.
- Rahner, K. eta Herbert Vorgrimler (1966). *Diccionario Teológico*. Barcelona. Herder.
- Ramón y Cajal, S. (1965). “El fabricante de honradez” in: Jesus Basañez. *El humorismo vasco*. Pamplona. Editorial Gómez.

- Reale G. eta D. Antiseri (1988). *Historia del pensamiento filosófico y científico* / (Antigüedad y Edad Media) Barcelona. Herder.
- Reale G. eta D. Antiseri (1988). *Historia del pensamiento filosófico y científico* /// (Del Romanticismo hasta hoy). Barcelona. Herder.
- Reichenbach, H. (1964). *The rise of scientific philosophy*. University of California Press.
- Reis, C. eta A. C. M. Lopes. (2002). *Diccionario de Narratología*. Salamanca. Ediciones Almar.
- Rejai, M. (1973). "Ideology" in: *Dictionary of the History of Ideas*. USA. Charles Scribner´s Sons, Publishers.
- Renan, E. (1995). *L'avenir de la science*. Paris. Garnier-Flammarion Éditeurs. Edo: http://classiques.uqac.ca/classiques/renan_ernest/avenir_de_la_science/avenir_de_la_science.html. [2017-02-10]
- Renan, E. (2004). *Zer da nazioa?* Leioa. EHU.
- Reschke, R. (2012). "Estética" in: Niemeyer, Ch. (arg.) *Diccionario Nietzsche. Conceptos, obras, influencias y lugares.* Madrid. Biblioteca nueva.
- Ribot, L. (koord.) (2012 [1992]). *Historia del mundo moderno*. Madrid. Editorial Actas.
- Ricoeur, P. (2009). "Mythe-L´interprétation philosophique" *Encyclopedia Universalis*.
- Ricoeur, P., Alberto Luis Bixio et al. (1994). *Ideología y utopía*. Barcelona. Gedisa.
- Rioux, J. P. (2006). "Histoire culturelle" in : Mesure, S eta P. Savidan (zuz.) *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF.
- Ritter, J. (1997). *Paysage. Fonction esthétique dans la société moderne*. Besançon. Les Éditions de l´Imprimeur.
- Ritzer, G. eta J. M. Ryan (arg.) (2011). *The concise encyclopedia of sociology*. Oxford. Blackwell.
- Rivas, A., & Bidart, P. (2000). "Les déclinaisons du concept d'identité" *Ethnologie Française, 30*(2). Retrieved from http://www.jstor.org.inshs.bib.cnrs.fr/stable/40990232 [2017-07-05]
- Rodríguez, E. (2015). "Emakumezkoen irudikapena Joseba Sarrionandiaren 1981-2001 bitarteko poesia-eta prosa-lanetan" *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (94).
- Rogers, L. eta Joshua Aronson (2013). "Sterotype threat" in: Lopez, S. J. (arg.) *The encyclopedia of positive psychology*. Oxford. Wiley-Blackwell.
- Roilitz, R. (2010). "Goût" in: Souriau, É. *Vocabulaire d´esthétique*. Paris. PUF.
- Rojo J. (1985). "Eros paidikoa eta literatura Grezia zaharrean" *Jakin* 36.
- Romero López, D. (1998). *Orientaciones en literatura comparada*. Madrid. Arco.

- Romero, L. (arg.) (2008). *Literatura y nación. La emergencia de las literaturas nacionales*. Prensas Universitarias de Zaragoza.
- Rossi-Landi, F. (1980). *Ideología*. Barcelona. Labor.
- Ruse, M. (2004 [1996]). "Évolution" in: Canto-Sperber, M. (zuz.) *Dictionnaire d´éthique et de philosophie morale*. Paris. PUF.
- Russell, B. (2007). *History of Western Philosophy*. London and New York. Routledge.
- Ruusbroec, J. van. (1997). *Obras escogidas*. Madrid. Biblioteca de autores cristianos.
- Saint-Jaime, F. de. (1929). "Linguistique" *Gure Herria*. Septembre-Octobre.
- Saint-Pierre, J. (1928). "M. Arnaud Abbadie" *Gure Herria* 8-1 Janvier-Février.
- Saint-Pierre, J. (1952). *Les meilleures pages de Monseigneur Jean Saint Pierre*. Baiona. Imprimerie "Le courrier".
- Salaberri Muñoa, P. (2016). *Hagiografia eleberrirantz erroizten hastean (arratsalde bat" Auñemendiko lorea"-rekin).(I).* https://addi.ehu.es/handle/10810/20309 [2017-XI-11]
- Salaberri Muñoa, P. (2017). *Hagiografiatik kolonizazioaren legitimaziora (Arratsalde bat Auñemendiko Lorearekin)(II).* http://hdl.handle.net/10810/22525: https://addi.ehu.es/handle/10810/20309 [2017-XI-11]
- Salaberri, P. (2002). *Iraupena eta lekukotasuna. Euskal Literatura idatzia 1900 arte*. Donostia. Elkar.
- Salaberry, E. (1963). "Un maître de la pensée: Son Excellence Monseigneur Clément Mathieu" *Gure Herria* 35-1.
- Sales, San Francisco de (1882). *Introducción a la vida devota.* Madrid. José del Ojo y Gómez, editor.
- Sanchez Granjel, L. (1953). "Presencia de Vasconia en la vida y en las obras de Pío Baroja". *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* IX. 155-167 eta 363-387 or.
- Sánchez-Ostiz, M. (2000). *Derrotero de Pío Baroja*. Irun. Alberdania.
- Sánchez-Ostiz, M. (2006). *Pío Baroja, a escena*. Pozuelo de Alarcón (Madrid). Espasa Calpe.
- Santo Ignacio de Loyola, & Solares, I. (2004). *Autobiografia*. UNAM, Coordinación de Difusión Cultural.
- Santos, E. (2012). "El imperio de la imagotipia: visiones de Japón en Roland Barthes e Italo Calvino" *1616: Anuario de Literatura Comparada* 2.
- Sarkozy, N. (19/09/2016). "Sarkozy : "Dès que l'on devient français, nos ancêtres sont gaulois". Le Point.fr http://www.lepoint.fr/politique/sarkozy-des-que-l-on-devient-francais-nos-ancetres-sont-gaulois-19-09-2016-2069682_20.php [2017-01-18].

- Sarriugarte, I. (2017). “Autobusez. *Maite* idazle mungiarraren kronikak Euskal Herrietatik”. *Karmel* 300 Urria-Abendua.
- Savignano, A. (1998). “El 98 y la filosofía europea” *Anuario filosófico*, 31(1), 71.
- Savoye, A. (2005). “Le Play, Fréderic” in Borlandi, M. et al. *Dictionnaire de la pensée sociologique.* Paris. PUF.
- Schaeffer, J. M.(2013). "Fictional vs. Factual Narration" in: Hühn, Peter et al. (arg.) *The living handbook of narratology*. Hamburg: Hamburg University Press. hup.sub.uni-hamburg.de/lhn/index.php?title=Fictional_vs._Factual_Narration&oldid=2048 [2016-05-21]
- Schaeffer, J-M. (2011). *Petite écologie des études littéraires. Pourquoi et comment étudier la littérature?* Éditions Thierry Marchaisse.
- Schama, S. (1996). *Landscape & Memory*. London. Fontana Press.
- Schmeling, M. (1984). *Teoría y praxis de la literatura comparada*. Barcelona. Editorial Alfa.
- Schnapper, D. (2006). “Nation” in: Mesure, S eta P. Savidan (zuz.) *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF.
- Schröder-Abé, M. eta Astrid Schütz. “Collective Self” in: Baumeister, R. F., & Vohs, K. D. (arg.) (2007). *Encyclopedia of social psychology*. California. Sage Publications.
- Severino, E. (1987). *La filosofía contemporánea*. Barcelona. Ariel.
- Simmel, G. (1990). *Philosophy of money*. London. Routledge and Kegan Paul Ltd.
- Sinding, Ch. (2004). “Médecine expérimentale” in: Lecourt, D. (zuz.) *Dictionnaire de la pensée médicale*. Paris. PUF.
- Snauwaert, E. (2012). “Entre distanciamiento y participación. El estereotipo de la diferencia entre América Latina y Europa en la obra de Alfredo Bryce Echenique” In Lie, N. et alia. (2010). *El juego con los estereotipos*. Bruxelles. Peter Lang.
- Sobejano, G. (2004). *Nietzsche en España, 1890-1970.* Madrid. Gredos.
- Solé-Tura, J. (1974). *Catalanismo y revolución burguesa*. Madrid. Cuadernos para el diálogo.
- Souriau, É. (2010). *Vocabulaire d´esthétique*. Paris. PUF.
- Souto Coelho, J. (koord.) (2004). *Elizaren irakatsi soziala* Bilbo. Deustuko Unibertsitatea.
- Spencer, J. (1996). “Nationalism” in: Barnard, A., & Spencer, J. (arg.) *Encyclopedia of social and cultural anthropology*. Oxon. Taylor & Francis.
- Stangor, Ch. G. (1995). “Sterotyping” in: Manstead, A. eta M. Hewstone (arg.) *The Blackwell Encyclopedia of Social Psychology*. USA. Blakwell.

- Staszak, J. F. (2008).”Qu'est-ce que l'exotisme?” *Le Globe. Revue genevoise de géographie* 148(1).
- Stendhal (1930*). Voyage dans le midi de la France* / Stendhal ; [établissement du texte et préface par Henri Martineau].
- Stewart-Steinberg, S. (2001). "Ideology" in: Taylor V.E. & C.E. Winquist (arg.) *Encyclopedia of postmodernism* London and New York. Routledge.
- Tatarkiewicz, W. (1987). *Historia de la estética. I. La estética antigua*. Madrid. Akal.
- Taylor, V. E. eta Charles E. Winquist (arg.) (2002). *Encyclopedia of postmodernism*. London. Routledge.
- Telletxea Idígoras, J. I. (1987). *Loiolako Ignazio: bakarrik eta oiñez.* Donostia. Etor.
- Tétu, M. eta A. M. Busque “Exotisme” (2010) in: Aron P., D. Saint Jacques eta A. Viala. (zuz.) *Le dictionnaire du littéraire*. Paris. PUF.
- Thiesse, A. M. (1992). “L'invention du régionalisme à la Belle Époque” *Le mouvement social*, 11-32.
- Thiesse, A. M. (1993). “La littérature régionaliste en France (1900-1940)“. *Tangence* 40.
- Thiesse, A. M. (2000). “Des fictions créatrices: les identités nationales” *Romantisme* 30 (110).
- Thiesse, A. M. (2010 [2002]). “Folklore” in: Aron P., D. Saint Jacques eta A. Viala. (zuz.) *Le dictionnaire du littéraire*. Paris. PUF.
- Thiesse, A. M. (2014). *La Création des identités nationales. Europe (XVIIIe-XXe siècle)*. Paris. Seuil.
- Thiesse, A.-M. (1993). “La littérature régionaliste en France (1900-1940). *Tangence* 40.
- Todorov, Tzv. (1989). *Nous et les autres*. Paris.Seuil.
- Toledo, A. M. (1987). “Kostunbrismoa eta herrialdeetako nobela: euskal nobelaren sorrera” Gasteiz. *II. Euskal mundu-biltzarra*.
- Toledo, A. M. (1989). *Domingo Agirre: euskal eleberriaren sorrera*. Cátedra Interuniversitaria Fundación BBV-Diputación Foral de Bizkaia de Derecho y Genoma Humano.
- Toledo, A. M. (2003). “Maitasun mundutiarra Etxeparengan: "baskoen gaztiguia"“ in: *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian (I-II).* Bilbo. Euskaltzaindia.
- Tongeren, P. van (2001). “Nietzsche's revaluation of the cardinal virtues: the case of Sophrosyne” South African Society for Greek Philosophy and the Humanities. http://repository.up.ac.za/handle/2263/11494 [2016-05-21]

- Tongeren, P. van (2002). “Nietzsche's Greek measure” *The Journal of Nietzsche Studies*, 24(1).
- Tovar, A. (1980). *Mitología e ideología sobre la lengua vasca: Historia de los estudios sobre ella*. Madrid. Alianza.
- Trousson, R. (1986). “Victor Hugo juge de Jean-Jacques Rousseau”. *Revue d'Histoire littéraire de la France*, Nov. 1.
- U.Z.E.I. (1987). *Filosofia hiztegia I eta II*. Donostia. Elkar.
- Unamuno, M. (2014). *Viajes y paisajes: antologia de crónicas de viaje*. La linea del horizonte ediciones.
- Urkizu, P, eta P. Charritton. (1997). *Anton Abbadiaren koplarien guduak : bertso eta aire zenbaiten bilduma, 1851-1897*. Donostia. Eusko Ikaskuntza.
- Urkizu, P. (1991). Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. Donostia. Etor.
- Urkizu, P. (2002). *Anton Abbadia 1810-1897. Biografia saioa*. Bilboko Udala.
- Urquijo Goitia, M. (2004). “Iparralde de la Tercera a la Cuarta República (1870-1944) in: Agirreazkuenaga, J. (zuz.) *Nosotros los vascos. Historia de Euskal Herria V*. Bilbo. Lur.
- Urquizu, P. (zuz.) (2000). *Historia de la literatura vasca*. Madrid. UNED.
- Ury, W. (1999). *Getting to peace: Transforming conflict at home, at work, and in the world.* Viking Press.
- Uspensky, B. (1973). *A poetics of composition*. Berkeley. University of California Press.
- Vadillo, M. A., Matute, H. & Blanco, F. (2013). “Fighting the illusion of control: How to make use of cue competition and alternative explanations” *Universitas Psychologica* 12(1).
- Valverde, A. eta Xabier Lete. (1990). *Txirritaren bertsoak*. Biniloko diskoa.
- Valverde, J. M., & De Riquer, M. (1985). *Historia de la literatura universal*. 7. lbkia. Barcelona: Editorial Planeta SA.
- Vandenberghe, F. (2006). “Réflexivité et modernité” in: Mesure, S eta P. Savidan (zuz.) *Le dictionnaire des sciences humaines*. Paris. PUF.
- Vega, M. J. eta Carbonell, N. (arg.) (1998). *La literatura comparada: principios y métodos*. Madrid. Gredos.
- Villasante, L. (1966). “Domingo Agirre Badiola 1864-1920” in: Agirre, Tx. *Garoa*. Oñate. E.F.A.
- Villasante, L. (1979). *Historia de la literatura vasca*. Burgos. Editorial Aranzazu.
- Visser, G. (2012). “Nihilismo” in: Cano, G. (arg.) *Diccionario Nietzsche*. Madrid. Siglo XXI.

- Vivas Ziarrusta, I. eta Amaia Lekerikabeaskoa Gaztañaga. (2010). “Espazio urbanoa eraikitzen: arkitektura, eskultura eta hiri-altzariak Donostiako badian” *Uztaro* 75, urria-abendua.
- Vivas, I. (2010). “Itsas bazterreko hiri-paisaiaren egituraketa eta eraiketa sinbolikoa” *Zainak* 30.
- Vouvé, S. (1985). “Compte rendu. Ouvrage recensé: Texte et idéologie. Valeurs, hiérarchies et évaluations dans l´oeuvre littéraire. Philippe Hamon (1984) PUF “Écriture”, Paris, 227p” *Révue québecoise de linguistique* 15-1.
- Walton, J. K. (2011). “Sport and the Basques: Constructed and Contested Identities, 1876–1936” *Journal of Historical Sociology* Vol. 24 No. 4 December.
- Ward, C., S. Bochner eta A. Furnham (2005). *The psychology of culture shock*. Routledge.
- Watanabe, H. (1997). *The Cambridge History of German Literature*. Cambridge University Press.
- Weber, E. (1983). *La fin des terroirs. La modernisation de la France rurale 1870-1914*. Paris. Fayard.
- Weber, M., & Fernández, J. P. (1996). *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*. Donostia. Gaiak.
- Weisbach, W. (1948). *El barroco arte de la contrarreforma*. Madrid. Espasa-Calpe.
- Wendel, J., & Heinrich, P. (2012). “A framework for language endangerment dynamics: the effects of contact and social change on language ecologies and language diversity” *International Journal of the Sociology of Language***.** Issue 218 (Nov 2012).
- Wolf, S. (1982). “Moral saints” *The Journal of Philosophy* 79 (8).
- Wood, N. (2007). “"It's Like an Instant Bond": Emotional Experiences of Nation, Primordial Ties and the Challenges of/for Diversity” *International Journal of Diversity in: Organisations, Communities & Nations* 7(3).
- Wood, N. (2007). “"It's Like an Instant Bond": Emotional Experiences of Nation, Primordial Ties and the Challenges of/for Diversity” *International Journal of Diversity in Organisations, Communities & Nations* 7(3).
- Xarriton, P. (1982). “Fonds Pierre Broussain. Les lettres de Georges Lacombe (1903-1921)”. *Bulletin du Musée Basque* 98. 4e trimestre 1982. 161-180 or.
- Xarriton, P. (1984a). “Jean Etchepare mirikuaren(1877-1935) idazlanak: aurkezpena” in: Xarriton, P. (arg.) (1984b). *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak I. euskal gaiak*. Donostia. Elkar.

- Xarriton, P. (1985). “Les lettres de Pierre Broussain à Georges Lacombe” *Bulletin du Musée Basque* 108-110.
- Xarriton, P. (1986a). “Les lettres de Pierre Broussain à Georges Lacombe” *Bulletin du Musée Basque* 111.
- Xarriton, P. (1986b). “Les idées philosophiques et religieuses de Piarres Lafitte” in: *Hommage a Piarres Lafitte. Bulletin du Musée Basque* 113 et 114. 3e eta 4e trimestres.
- Xarriton, P. (1987). “*Eskualduna*ren mendeurrena Baionan” *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 32. http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50487.pdf [2011-10-08]
- Xarriton, P. (1991a). “Jean Etchepareren euskal lanak” in: *Hegats* 4.
- Xarriton, P. (1991b). “J. Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)” in: Lakarra J. A. et al. (arg.) *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum. Pars prior*. Donostia. ASJU-Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Xarriton, P. (1995). “Fonds Lacombe: les lettres du docteur Jean Etxepare (2-6-1905; 4-3-1932)”. *Bulletin du Musée Basque*. 140.
- Xarriton, P. (1995). “Fonds Lacombe: les lettres du docteur Jean Etxepare (2-6-1905; 4-3-1932)”. *Bulletin du Musée Basque* 141.
- Xarriton, P. (1995). “Fonds Lacombe: les lettres du docteur Jean Etxepare (2-6-1905; 4-3-1932)”. *Bulletin du Musée Basque* 142.
- Xarriton, P. (1995). “Fonds Lacombe: les lettres du docteur Jean Etxepare (2-6-1905; 4-3-1932)”. *Bulletin du Musée Basque* 143.
- Xarriton, P. (1995). “Fonds Lacombe: les lettres du docteur Jean Etxepare (2-6-1905; 4-3-1932)”. *Bulletin du Musée Basque* 144.
- Xarriton, P. (2005). “Piarres Lafitte (1901-1985): biografia” http://piarreslafitte.gipuzkoakultura.net/ [2011-10-08]
- Xarriton, P. (2007). *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- Xarriton, P. (arg.) (1985). *Jean Etchepare mirikuaren(1877-1935) idazlanak. II mediku-solas.* Donostia. Elkar.
- Xarriton, P. (arg.) (1986). *Resurrección María de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa.* Bilbo. Euskaltzaindia.
- Xarriton, P. (arg.) (1988). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. III kazetaritza (A) (1916-1935)*. Donostia. Elkar.
- Xarriton, P. (arg.) (1992). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. IV kazetaritza (B) (1916-1935).* Donostia. Elkar.

- Xarriton, P. (arg.) (1996). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. V Euskalerriko bizia (1932-1935).* Donostia. Elkar.
- *Xarriton, P. eta J. Casenave. (1995a).* "Les lettres du Dr J. Etchepare à J. Georges Lacombe (2/6/1905-4/2/1932)". *Bulletin du Musée Basque* 140, 2. hiruhilekoa.
- Xarriton, P. eta J. Casenave. (1995b). "Les lettres du Dr J. Etchepare à J. Georges Lacombe (2/6/1905-4/2/1932)". *Bulletin du Musée Basque* 141, 3. hiruhilekoa.
- Xarriton, P. eta J. Casenave. (1995c). "Les lettres du Dr J. Etchepare à J. Georges Lacombe (2/6/1905-4/2/1932)". *Bulletin du Musée Basque* 142, 4. hiruhilekoa.
- Xarriton, P. eta J. Casenave. (1996a). "Les lettres du Dr J. Etchepare à J. Georges Lacombe (2/6/1905-4/2/1932)" *Bulletin du Musée Basque* 143, 1. hiruhilekoa.
- Xarriton, P. eta J. Casenave. (1996b). "Les lettres du Dr J. Etchepare à J. Georges Lacombe (2/6/1905-4/2/1932)". *Bulletin du Musée Basque* 144, 2. hiruhilekoa.
- Zabala Alberdi, J. (2009). "Kortesiaren azterketa euskarazko bi debatetan" *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 54. 2-1.
- Zabalo, P. (1993). *Arquitectura popular del País Vasco* / [Grafía y ornamentación de la rotulación vasca]. Tolosa. Editorial Vasca Ekin.
- Zaïka, N. (2011). *Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942 :(W. Webster, J.-F. Cerquand, J. Barbier, RM de Azkue)*. *Iker* 31. Bilbo. Euskaltzaindia.
- Zaitegi, I. (1961). *Platon´eneko atarian*. Donostia. Gráficas Izarra.
- Zalbide, M. (2007). "Iparraldeko euskalgintza, XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi ete bere garaia" *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* LII.
- Zebrowitz, L. A. (2007). "Impression formation" in: Baumeister, R. F., & Vohs, K. D. (arg.) *Encyclopedia of social psychology*. California. Sage Publications.
- Zima, P. V. (1984). "Du discours idéologique au discours théorique: dualisme, ambivalence et indifférence" *Degrés* 37.
- Zola, É. (1926). "De la moralité dans la littérature" in: *Documents littéraires. Etudes et portraits* (Nouv. éd.) Paris. Bibliothèque Charpentier.
- Zuloaga, E. (2011). "Etxepare, J. "Mirikua"" in: *Euskal literaturaren hiztegia.* EHU/UPV. http://www.ehu.es/ehg/literatura/idazleak/?p=400 [2011-X-23]